

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 1651** *3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, presako neurriena eta zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak.*

AURKIBIDEA

Lehen liburua. Honako hauen transposizioa: 2014/25/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan jarduten duten entitateen kontratazioari buruzkoa; 2014/23/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, emakida-kontratuen adjudikazioari buruzkoa.

- I. titulua. Xedapen orokorrak.
- I. kapitulua. Objektua eta definizioak.
 - 1. artikulua. Errege lege-dekretu honen lehen liburuaren objektua.
 - 2. artikulua. Definizioak.
 - 3. artikulua. Nomenklatura.
 - 4. artikulua. Kontratuen, esparru-akordioen eta eskuratzeko sistema dinamikoen balio zenbatetsia kalkulatzeko metodoak.
- II. kapitulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.
 - 5. artikulua. Errege lege-dekretu hau bete behar duten entitateak.
 - 6. artikulua. Eskubide bereziak edo eskusiboak.
- III. kapitulua. Aplikazio-eremu objektiboa.
 - 1. atala. Araututako jarduerak.
 - 7. artikulua. Xedapen erkideak.
 - 8. artikulua. Ura.
 - 9. artikulua. Gasa eta berokuntza.
 - 10. artikulua. Elektrizitatea.
 - 11. artikulua. Garraio-zerbitzuak.
 - 12. artikulua. Portuak eta aireportuak.
 - 13. artikulua. Posta-zerbitzuak.
 - 14. artikulua. Petrolioaren, gasaren, ikatzaren eta beste erregai solido batzuen prospekzioa eta erauzketa, eta garraio-terminaletan eskueran jartzea.
 - 15. artikulua. Kontratu mistoak.
 - 16. artikulua. Hainbat jarduera egiteko kontratuen araubide juridikoa.
 - 2. atala. Salbuespenak.
 - 1. azpiatala. Zuzenean lehiaren araupean dauden jardueren salbuespena.
 - 17. artikulua. Zuzenean lehiaren araupean dauden jardueren salbuespena.
 - 2. azpiatala. Salbuetsitako kontratuak.
 - 18. artikulua. Helburuaren arabera salbuetsitako kontratuak.

- 19. artikulua. Uraren eta energiaren arloetako salbuespenak.
- 20. artikulua. Zerbitzu-kontratuen eta zerbitzu-emakidako kontratuen salbuespen bereziak.
- 21. artikulua. Nazioarteko kontratuak eta proiektu-lehiaketak.
- 22. artikulua. Eskubide eskusibo baten arabera adjudikatzen diren zerbitzu-kontratuak.
- 23. artikulua. Defentsaren eta segurtasunaren arloetako kontratuak.
- 24. artikulua. Enpresa elkartuekiko eta baterako enpresekiko kontratuak.
- 3. *azpiatala* Salbuetsitako lankidetzak publikorako sistemak.
- 25. artikulua. Baliabide propio pertsonifikatuentzako mandatuak.
- 26. artikulua. Hitzarmenak.
- IV. kapitulua. Kontratazio-printzipioak eta konfidentzialtasuna.
- 27. artikulua. Kontratazio-printzipioak.
- 28. artikulua. Konfidentzialtasuna.
- 29. artikulua. Interes-gatazkak.
- II. titulua. Operadore ekonomikoen gaitasuna eta sailkapena.
- I. kapitulua. Lizitatzailen gaitasuna eta kaudimena.
- 30. artikulua. Operadore ekonomikoen gaitasuna eta parte hartzeko gainerako baldintzak.
- 31. artikulua. Enpresa-elkarteak.
- II. kapitulua. Enpresen sailkapena.
- 32. artikulua. Sailkapen-araubidea.
- 33. artikulua. Sailkapen-sistema propioa.
- 34. artikulua. Entitate kontratatzaileen sailkapen-sistema propioaren publizitatea.
- 35. artikulua. Sailkapen-erabakiak.
- 36. artikulua. Beste entitate batzuen gaitasunen inguruko baldintzak.
- 37. artikulua. Hautagaiei informazioa ematea.
- 38. artikulua. Sailkapenaren inpartzialtasuna eta sailkatutako enpresen zerrenda.
- 39. artikulua. Sailkapenak deuseztatzea.
- 40. artikulua. Lizitazio-deialdia sailkapen-sistemari buruzko iragarkiaren bidez egitea.
- III. titulua. Kontratuaren prestakuntza eta dokumentazioa.
- 41. artikulua. Merkatuko alde aurretiko kontsultak.
- 42. artikulua. Kontratuaren objektua mugatzea.
- 43. artikulua. Baldintza-agiriak, langileen subrogazioa eta lizitazioaren aurrekontua.
- 44. artikulua. Preskripzioen berri ematea.
- 45. artikulua. Preskripzio teknikoak.
- 46. artikulua. Etiketak.
- 47. artikulua. Froga-txostenak, ziurtatzea eta beste frogabide batzuk.
- 48. artikulua. Kalitatea bermatzeko sistemak eta ingurumena kudeatzeko arauak.
- 49. artikulua. Elkarri onartzea baldintza teknikoak edo finantza-baldintzak betetzen direla, bai eta ziurtagiriak, frogabideak eta frogagiriak ere.
- 50. artikulua. Preskripzio tekniko batzuen definizioa.
- 51. artikulua. Nahitaez bete beharreko jarraibideak eta araudi teknikoak.
- IV. titulua. Kontratuak adjudikatzeko prozedurak.
- I. kapitulua. Kontratuen objektua, gutxieneko edukia eta iraunaldia.
- 52. artikulua. Kontratuaren objektua.

- 53. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia.
- 54. artikulua. Kontratuen iraunaldia.
- II. kapitulua. Hautagaiak eta lizitatzailerak bete beharreko baldintzak.
- 55. artikulua. Eskatzen den kaudimena.
- 56. artikulua. Hautagaien eta lizitatzailerak hautapen kualitatiborako irizpideak.
- 57. artikulua. Kontratatzeko baldintzak betetzen direla frogatzen duten agiriak.
- III. kapitulua. Adjudikazio-prozedurak.
- 1. atala. Arau orokorrak.
- 58. artikulua. Printzipio orokorrak.
- 59. artikulua. Lehia murrizten duten jarduketak eta jokabideak jakinaraztea eta baztertzea.
- 60. artikulua. Epeen zenbaketa.
- 61. artikulua. Komunikazioei buruzko arauak.
- 62. artikulua. Hautagai edo lizitatzailerak aurreko parte-hartzea.
- 63. artikulua. Hautatutako hautagaiak gonbidatzea.
- 64. artikulua. Hautagaiak eta lizitatzailerak informazioa ematea.
- 65. artikulua. Kontratu erreserbatuak.
- 66. artikulua. Kontratuak adjudikatzeko irizpideak.
- 67. artikulua. Bizi-zikloaren kalkulua.
- 68. artikulua. Aldaerak onartzea.
- 69. artikulua. Eskaintza nabarmenki baxuegiak.
- 70. artikulua. Lehentasuna Batasuneko eskaintzei hornidura-kontratuetan.
- 71. artikulua. Entitate kontratatzailerak kontratu ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea.
- 72. artikulua. Kontratuak adjudikatzea.
- 73. artikulua. Kontratuak burutzea eta formalizatzea.
- 2. atala. Lizitazioen publikotasuna.
- 74. artikulua. Kontratatzailerak profila.
- 75. artikulua. Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforma.
- 76. artikulua. Aldizkako iragarkiak kontratazioen berri emateko.
- 77. artikulua. Lizitazio-deialdia.
- 78. artikulua. Lizitazio-iragarkiak.
- 79. artikulua. Kontratuak formalizatzeko iragarkiak.
- 80. artikulua. Iragarkiak argitaratzeko irizpideak eta modalitateak.
- 3. azpiatala. Prozedura motak.
- 81. artikulua. Adjudikazio-prozedurak.
- 82. artikulua. Prozedura irekia.
- 83. artikulua. Prozedura murriztua.
- 84. artikulua. Lizitazio-prozedura negoziatua.
- 85. artikulua. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua.
- 86. artikulua. Lehia-elkarrizketa.
- 87. artikulua. Berrikuntzarako elkartzea.
- V. titulua. Kontratazioa eta proiektu-lehiaketak arrazionalizatzeko teknikak.
- I. kapitulua. Arrazionalizatzeko teknikak.
- 1. atala. Erosketa-zentralak.
- 88. artikulua. Zentralizatutako erosketa-jarduerak eta erosketa-zentralak.

89. artikulua. Noizbehinkako baterako kontratazioa.
90. artikulua. Kontratazioan Europar Batasuneko hainbat estatutako entitate kontratatzaileek parte hartzea.
91. artikulua. Erosketa-zentralekin kontratuak eta esparru-akordioak egitea.
2. atala. Esparru-akordioak.
92. artikulua. Esparru-akordioak.
3. atala. Eskuratze-sistema dinamikoak.
93. artikulua. Zehaztapena.
94. artikulua. Eskuratze-sistema dinamikoek aplikatzen zaizkien erregelak.
95. artikulua. Enpresak sisteman sartzea.
96. artikulua. Kontratu bereziak adjudikatzea eskuratze-sistema dinamiko baten barruan.
4. atala. Enkante elektronikoak eta katalogo elektronikoak.
97. artikulua. Enkante elektronikoak.
98. artikulua. Katalogo elektronikoak.
- II. kapitulua. Proiektu-lehiaketak.
99. artikulua. Proiektu-lehiaketa antolatzea.
100. artikulua. Parte-hartzaileen kopurua.
101. artikulua. Proiektu-lehiaketaren aplikazio-esparrua.
102. artikulua. Proiektu-lehiaketaren publikotasuna.
103. artikulua. Komunikazioak proiektu-lehiaketetan.
104. artikulua. Proiektu-lehiaketaren epaimahaia.
- VI. titulua. Kontratua egikaritzea eta azkentzea.
- I. kapitulua. Kontratua egikaritzea.
105. artikulua. Kontratua gauzatzeko baldintzak: sozialak, etikoak, ingurumenekoak eta bestelakoak.
106. artikulua. Fiskalitateari, ingurumenaren babesari, enpleguari eta lan-baldintzei buruzko xedapenen betebeharrak eta desgaitasuna duten pertsonen ehuneko jakina kontratatu beharra.
107. artikulua. Azpikontratatzea.
108. artikulua. Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzea eta ordainketak egiaztatzea.
- II. kapitulua. Kontratuak aldatzea.
109. artikulua. Aldaketa-kasuak.
110. artikulua. Baldintza-agirian ezartzen diren aldaketak.
111. artikulua. Baldintza-agirian ezartzen ez diren aldaketak.
112. artikulua. Aldaketak egiteko prozedura eta haien publikotasuna.
- III. kapitulua. Kontratuak suntsiaraztea.
113. artikulua. Kontratuak suntsiaraztea.
- VII. titulua. Kontratuen baliogabetasuna, erreklamazioak eta gatazkak auzibidetik kanpo ebaztea.
- I. kapitulua. Baliogabetasun-araubidea.
114. artikulua. Baliogabetasun-kasuak.

- 115. artikulua. Administrazio-zuzenbideko deuseztasun-arrazoiak.
- 116. artikulua. Administrazio-zuzenbideko deuseztagarritasun-arrazoiak.
- 117. artikulua. Deuseztasun-adierazpenaren ondorioak.
- 118. artikulua. Zuzenbide zibileko baliogabetasun-arrazoiak.

II. kapitulua. Erreklamazioak kontratuak adjudikatzeko prozeduretan.

- 119. artikulua. Erreklamazioen xedeak.
- 120. artikulua. Erreklamazioa ebazteko eskumena daukan organoa.
- 121. artikulua. Erreklamazioen araubide juridikoa.
- 122. artikulua. Kontratazioaren arloko erreklamazioen ebazpenen ondorioak.

III. kapitulua. Gatazkak auzibidetik kanpo ebaztea.

123. artikulua. Arbitrajea.

VIII. titulua. Administrazio-antolamendua eta gobernantzako betebeharrak.

- 124. artikulua. Kontratuei buruzko informazioa.
- 125. artikulua. Kontratuen erregistroak.
- 126. artikulua. Gobernantza.

Bigarren liburua. Neurriak Espainiako zuzenbidea Europar Batasunaren aseguru pribatuen eta pentsio-plan eta pentsio-funtsen arloko arautegira moldatzeko.

I. titulua. Honen transposizioa: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/97 Zuzentaraua, 2016ko urtarrilaren 20koa, aseguruak banatzeari buruzkoa.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

- 127. artikulua. Xedea.
- 128. artikulua. Definizioak.
- 129. artikulua. Aplikazio-eremu objektiboa.
- 130. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.
- 131. artikulua. Erregistratu beharra.

II. kapitulua. Gainbegiratze-organoak eta eskumenak.

- 132. artikulua. Eskumen-banaketa.
- 133. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-banatzailleen erregistro administratiboa.

III. kapitulua. Egoitza Espainian duten aseguru- eta berraseguru-banatzailleen jarduerak.

1. atala. Aseguru-banatzailleak.

1. azpiatala. Saikapena.

- 134. artikulua. Aseguru-banatzailleak: motak.
- 135. artikulua. Aseguru-bitartekariak: motak.
- 136. artikulua. Aseguru-bitartekarien betebeharrak orokorrak eta debekuak.
- 137. artikulua. Aseguru-bitartekarien kanpoko laguntzaileak.

2. azpiatala. Aseguru-entitateek aseguru-banaketan jardutea.

- 138. artikulua. Aseguru-entitateen langileek aseguru-produktuak banatzea.
- 139. artikulua. Aseguru-banaketan aritzen diren aseguru-entitateen langileek bete beharreko baldintzak.

3. azpiatala. Aseguru-agenteeek aseguru-banaketan jardutea.
- 140. artikulua. Zer den aseguru-agentea.
 - 141. artikulua. Aseguru-agentziaren kontratua.
 - 142. artikulua. Hirugarrenetikiko betebeharrak bermatzeko baldintzak.
 - 143. artikulua. Erantzukizun zibil profesionala.
 - 144. artikulua. Aseguru-agenteeek aseguru pribatuak banatzea: publizitatea eta merkataritza-dokumentazioa.
 - 145. artikulua. Aseguru-agenteen bateraezintasunak.
 - 146. artikulua. Komunikazioen araubidea.
 - 147. artikulua. Aseguru-agente eskusiboen barruko inskripzioa eta erregistroa.
 - 148. artikulua. Aseguru-agente eskusiboen sareak lagatzeko akordioak.
 - 149. artikulua. Lotutako aseguru-agenteen inskripzioa eta baldintzak.
 - 150. artikulua. Zer den banku-aseguruen operadorea.
 - 151. artikulua. Banku-aseguruen operadoreei buruzko arautegia.
 - 152. artikulua. Banku-aseguruen operadoreen baldintzak.
 - 153. artikulua. Banku-aseguruen operadoreek aseguru pribatuak banatzea: publizitatea eta merkataritza-dokumentazioa.
 - 154. artikulua. Banku-aseguruen operadoreen bateraezintasunak.
4. azpiatala.. Aseguru-artekariak.
- 155. artikulua. Zer den aseguru-artekaria.
 - 156. artikulua. Aseguru-entitateekiko eta bezeroekiko harremanak.
 - 157. artikulua. Aseguru-artekarien baldintzak.
 - 158. artikulua. Aseguru-artekariek aseguru pribatuak banatzea: publizitatea eta merkataritza-dokumentazioa.
 - 159. artikulua. Aseguru-artekarien bateraezintasunak.
5. azpiatala. Banku-aseguruen operadoreen eta aseguru-artekarien lotura estuak eta partaidetza handiak.
- 160. artikulua. Lotura estuak eta partaidetza handiak: araubidea.
2. atala. Aseguru-banatzailleak.
- 161. artikulua. Berraseguru-entitateen langileek berraseguru-produktuak banatzea.
 - 162. artikulua. Zer den berraseguru-artekaria.
 - 163. artikulua. Berraseguru-entitateekiko eta bezeroekiko harremanak.
 - 164. artikulua. Hirugarrenetikiko betebeharrak.
3. atala. Aseguru-banatzailleen eta berraseguru-banatzailleen prestakuntzarako ikastaroak.
- 165. artikulua. Prestakuntza-ikastaroen baldintzak eta antolamendua.
4. atala. Gatazkak ebazteko mekanismoak.
- 166. artikulua. Kexak eta erreklamazioak artatzea eta ebaztea.
 - 167. artikulua. Bezeroaren defendatzailea.
 - 168. artikulua. Finantza-zerbitzuen bezeroen babes administratiboa.
5. atala. Egoitza Espainian duten aseguru- eta berraseguru- bitartekariak zerbitzuak emateko askatasunarekin jardutea eta kokatzeko eskubidearekin jardutea Europar Batasuneko beste estatu batzuetan.
- 169. artikulua. Zerbitzuak emateko askatasunarekin jardutea.
 - 170. artikulua. Establezimendu-askatasunarekin jardutea.
 - 171. artikulua. Arau orokorra.

6. atala. Informazio-betebeharrak eta jokatzeko arauak.
1. azpiatala. Informazio-betebehar orokorrak.
172. artikulua. Printzipio orokorra.
173. artikulua. Aseguru-artekariak aurretik eman beharreko informazio orokorra.
174. artikulua. Aseguru-entitateak aurretik eman beharreko informazio orokorra.
175. artikulua. Aseguru-banatzailleek aurretik aseguru-kontratuaz eman beharreko informazioa eta aholkuak.
176. artikulua. Bizi-aseguruaz bestelako aseguru-kontratuei buruzko aurretiazko informazioa eman beharra: aldez aurreko informazioaren agiria.
177. artikulua. Aurretiazko informazioa eman beharraren salbuespena.
2. azpiatala. Baldintza gehigarriak aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuen banaketan.
178. artikulua. Baldintza gehigarriak aplikatuko diren esparrua.
179. artikulua. Interes-gatazken prebentzioa.
180. artikulua. Bezeroei eman beharreko aurretiazko informazioa.
181. artikulua. Egokitasuna aztertzea eta bezeroetara moldatzea eta informazioa ematea.
3. azpiatala. Informazioa emateko moduak.
182. artikulua. Informazio orokorra emateko modua.
183. artikulua. Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuei buruzko informazioa emateko modua.
4. azpiatala. Lotutako paketeak eta pakete konbinatuak saltzea.
184. artikulua. Lotutako paketeak eta pakete konbinatuak saltzea.
5. azpiatala. Produktuen kontrola eta gobernantzaren arloko baldintzak.
185. artikulua. Diseinuaren inguruko baldintzak, produktuen onarpenaren eta kontrolaren ingurukoak eta gobernantzaren arlokoak.
7. atala. Antolatzeko eta gainbegiratzeko eskumenak.
1. azpiatala. Estatuko Administrazio Orokorraren eskumenak.
186. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-banatzailleen kontrola.
187. artikulua. Kontabilitateko betebeharrak eta kontabilitateko informazio estatistikoa eman beharra.
188. artikulua. Lanbide-sekretua gorde beharra.
189. artikulua. Beste gainbegiratze-agintaritzak batzuekin lankidetzan jardun beharra.
190. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-banatzailleen erregistro administratiboko inskripzioa ezereztea.
2. azpiatala. Administrazioarekiko erantzukizuna eta arau-hausteen eta zehapenen araubidea.
191. artikulua. Arau-hausleak.
192. artikulua. Arau-haustek.
193. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.
194. artikulua. Zehapenak.
195. artikulua. Honako hauen erantzukizuna: aseguruak eta berraseguruak saltzen dituzten entitateetan, aseguru-agentzietan, banku-aseguruaren operadoreetan, aseguru-artekaritzako sozietateetan eta berraseguru-artekaritzako sozietateetan administrazio-

kargua dutenak, banaketaren ardura daukan pertsona eta zuzendaritza-organoetako kideak.

196. artikulua. Zehapenak graduatzeko irizpideak.

197. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

198. artikulua. Administrazio-eskumenak.

199. artikulua. Salaketa publikoa eta aseguru-entitateen araubidera igortzea.

200. artikulua. Kontrol-neurri bereziak.

201. artikulua. Zehapenak eta beste neurri batzuk argitaratzea.

202. artikulua. Zehapenei eta beste neurri batzuei buruzko informazioa Aseguru- eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzara bidaltzea.

3. azpiatala. Datu pertsonalak babestea.

203. artikulua. Tratamenduaren erantzulea edo arduraduna.

204. artikulua. Datuen babesari buruzko beste arau batzuk.

8. atala. Aseguru-bitartekarien elkargoak eta haien kontseilu nagusia.

205. artikulua. Aseguru-bitartekarien elkargoak.

IV. kapitulua. Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten aseguru- eta berraseguru-banatzailleak.

1. atala. Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten aseguru- eta berraseguru-bitartekariak Espainian duten jarduera.

206. artikulua. Arau orokorrak.

207. artikulua. Eskumenen banaketa Batasuneko estatuen artean.

208. artikulua. Legezko xedapenak betetzea.

209. artikulua. Interes orokorraren alde ezarritako legezko xedapenak betetzea.

210. artikulua. Esku-hartzeko neurriak.

2. atala. Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten aseguru- eta berraseguru-banatzaillei aplikatzekoak diren interes orokorreko arauak.

211. artikulua. Interes orokorreko arauak.

II. titulua. Transposizio partziala: 2016/2341 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko abenduaren 14koa, enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta haiek gainbegiratzeari buruzkoa.

212. artikulua. Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina aldatzea, zeina azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.

III. titulua. 20/2015 Legea aldatzea, uztailaren 14koa, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena.

213. artikulua. *20/2015 Legea aldatzea, uztailaren 14koa, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena.*

Hirugarren liburua. Espainiako zuzenbidea Europako zergen arloko arautegira moldatzea.

I. titulua. Transposizioa: 2018/1910 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2018ko abenduaren 4koa, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen duena balio erantsiaren gaineko zergaren arau batzuk –Batasuneko estatuen arteko trukeei buruzkoak– harmonizatzeko eta errazteko; eta 2019/475 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2019ko otsailaren 18koa, 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2008/118/EE Zuzentaraua aldatzen dituena Italiako

Campione d'Italia udalerrria eta Luganoko aintzirako Italiako urak Batasuneko aduana-lurraldean eta 2008/118/EE Zuzentarauaren aplikazioaren lurralde-esparruan sartzeko.

I. kapitulua. 37/1992 Legea aldatzea, abenduaren 28koa, balio erantsiaren gaineko zergarena.

214. artikulua. 37/1992 Legea aldatzea, abenduaren 28koa, balio erantsiaren gaineko zergarena.

II. kapitulua. 38/1992 Legea aldatzea, abenduaren 28koa, zerga bereziena.

215. artikulua. 38/1992 Legea aldatzea, abenduaren 28koa, zerga bereziena.

III. kapitulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak onartzen duena.

216. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak onartzen duena.

II. titulua. Transposizioa: 2017/1852 (EB) Zuzendaraua, Kontseiluarena, 2017ko urriaren 10ekoa, Europar Batasunaren barruko zerga-aztiak konpontzeko mekanismoei buruzkoa, auziok adiskidetasun-prozeduren bidez konpontzeko esparrua harmonizatzen duena eta segurtasun juridikoa sendotzen duena.

I. kapitulua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina aldatzea, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duena.

217. artikulua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina aldatzea, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duena.

II. kapitulua. 29/1998 Legea aldatzea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena.

218. artikulua. 29/1998 Legea aldatzea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena.

Lehen xedapen gehigarria. Tratu txarragoa ez emateko klausula.

Bigarren xedapen gehigarria. Balio erantsiaren gaineko zerga.

Hirugarren xedapen gehigarria. Sektore publikoko entitate kontratatzaileen langileen erantzukizuna.

Laugarren xedapen gehigarria. Irisgarritasuna.

Bosgarren xedapen gehigarria. Errege lege-dekretu honen esparrutik kanpoko kontratuak, sektore publikoko entitateek egiten dituztenak: araubide juridikoa.

Seigarren xedapen gehigarria. Europar Batasunak finkatutako zenbatekoak eguneratzea.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Azpikontratisten zuzeneko ordainketak.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Kontratuak eta informazioa bidaltzea Kontu Nazionalen Batzorde Teknikora.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. I. eranskineko zerbitzu-emakidako kontratuei eta zerbitzu sozialen, osasun-zerbitzuen edo hezkuntza-zerbitzuen kontratuei aplikatu beharreko printzipioak.

Hamargarren xedapen gehigarria. 9/2017 Legearen 324. artikulua baimenak (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Aseguru- eta berraseguru-banatzzaileen erregistro administratiboko inskripzioaren tasa.

Hamabigarren xedapen gehigarria. Aseguru- eta berraseguru-banatzailen eta banaketan diharduten gainerako pertsonen prestakuntza-programen baldintzak eta oinarritzko printzipioak.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Kontratu aurreko dokumentazioa gordetzea.

Hamalaugarren xedapen gehigarria. Baliabideak berresleitzea.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Pentsio-funtsen gobernu-sistemak dituen eta errege lege-dekretu honen bigarren liburuaren II. tituluan ezartzen diren arauetara moldatzea.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. Estatuko Portuak erakundearen eta portu-agintaritzen kontratazio-araubidea.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Arkitektura, ingeniariaritz, aholkularitza eta hirigintza arloetako zerbitzuak kontratatzeari buruzko arau bereziak.

Lehen xedapen iragankorra. Errege lege-dekretu hau indarrean ipini aurretik hasitako espedienteak eta adjudikatutako kontratuak.

Bigarren xedapen iragankorra. Aseguru- edo berraseguru-entitateak moldatzeko araubidea.

Hirugarren xedapen iragankorra. Aseguru-artekariak moldatzeko araubidea.

Laugarren xedapen iragankorra. Aurreko aseguru-kontratuak.

Bosgarren xedapen iragankorra. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzean indarrean dauden bitartekaritza eta banaketako kontratuak.

Seigarren xedapen iragankorra. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateetako partaidetza handien eta zuzendaritzan eta funtsezko eginkizunetan aritzen direnen izendapenen berri ematea.

Zazpigarren xedapen iragankorra. Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen erregistro-liburua artezteia Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoen bidez.

Zortzigarren xedapen iragankorra. Adiskidetasun-prozeduren araubide iragankorra.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetako lehena. 9/2017 Legea aldatzea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

Azken xedapenetako bigarrena. 13/2010 Errege Lege Dekretua aldatzea, abenduaren 3koa, inbertsioa sustatu eta enplegua sortzeko zerga, lan eta liberazio arloko jarduketari buruzkoa.

Azken xedapenetako hirugarrena. Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu batetara aldatzea, irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duena.

Azken xedapenetako laugarrena. 35/2006 Legea aldatzea, azaroaren 28koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena eta partez aldatzen dituen sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga.

Azken xedapenetako bosgarrena. 1060/2015 Errege Dekretua aldatzea, azaroaren 20koa, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena.

Azken xedapenetako seigarrena. Zenbait erregelamendu-xedapenen mailaren babesa.

Azken xedapenetako zazpigarrena. Eskumen-tituluak eta legeriaren izaera.

Azken xedapenetako zortzigarrena. Nafarroako Foru Komunitatea.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoa.

Azken xedapenetako hamargarrena. Legeria osagarria.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.

Azken xedapenetako hamabigarrena. Epealdiak eguneratzea eta Batasunaren zuzentarauen eranskinen ondoriozko beste aldaketa batzuk.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. Kontratuaren adjudikazioa jakinarazteko ereduak.

Azken xedapenetako hamalaugarrena. Arauak emateko gaikuntza.
Azken xedapenetako hamabosgarrena. Aseguru-banaketan aritzen diren aseguru-entitateen langileen gaitasunen eta lanbide-ezagutzen inguruko gutxieneko baldintzak betetzea.
Azken xedapenetako hamaseigarrena. Indarrean jartzea.
Eranskinak.

I

Europar Batasunaren zuzentarauen transposizioa epeen barruan egitea Europar Kontseiluak ezarritako lehentasun nagusietako bat da gaur egun. Europako Batzordeak txostenak aurkezten dizkio aldizka Lehiakortasun Kontseiluari, azter ditzan. Txosten horiei balio politiko handia ematen zaie, estatu kideek barne-merkatua abian jartzeko garaian duten eraginkortasuna eta sinesgarritasuna neurtzeko balio baitute.

Gaur egun, helburu hori lortzea are garrantzitsuagoa da, Lisboako Tratatuak diseinatutako jokalekua dela eta. Izan ere, tratatu horrek Europar Batasuneko Tratatu eta Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu aldutzen ditu transposizioak epearen barruan ez egiteari dagokionez. Transposizioak epearen barruan egin ezean, Batzordeak zigor ekonomiko handiak azkar ezartzeko eska diezaioke Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 260.3 artikuluan ezartzen duenaren arabera.

Espainiak tinko bete izan ditu transposizioak epean egiteko irizpideak. Gaur egun, ordea, nahiko atzeratuta dago arau batzuen transposizioa.

Horregatik, errege lege-dekretu honen lehen xedea honako hauen transposizio partziala da: 2014/25/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan jarduten duten entitateen kontratazioari buruzkoa, eta 2014/23/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, emakida-kontratuen adjudikazioari buruzkoa.

Transposizioa egiteko epealdia 2016ko apirilaren 18an amaitu zen eta artean erabat txertatu gabe zeuden 2014/25/EB eta 2014/23/EB zuzentarauak; nolana ere, bi zuzentaru horietan hainbat gaitarako ezartzen den erregulazioa txertatuta zegoen ordurako, azaroaren 14ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen indarreko testu bateginean egindako aldaketa puntual batzuen bidez (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Dekretuak onartu zuen testu bategin hori) eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bidez (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora). Orduan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurreproiektuaren eta Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko Legearen aurreproiektuaren administrazio-izapide guztiak eginda zeuden, eta prest zeuden Gorte Nagusietara bidaltzeko, haiek behin betiko onar zituzaten; hala ere, Gobernuak jardunean zegoen 2015eko abenduaren 21az geroztik, eta lege-proiektuak ezin zitzaizkien aurkeztu Gorte Nagusiei.

2016ko azaroaren 25ean, gobernu berria eratu zen, eta, ondoren, aipatutako bi lege horien proiektuak Gorte Nagusietara bidali zituen, izapide parlamentarioak egiteko eta behin betiko onartzeko presako prozeduraren bidez. Hala ere, 2016ko abenduaren 9an Europako Batzordeak irizpen arrazoitua bidali zion Espainiako Erresumari.

Gorte Nagusiek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen proiektua onartu zuten, eta 2017ko azaroaren 9an BOEn argitaratu zen; hona izenburua: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Aldiz, Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko Legearen proiektua ez zen onartu, nahiz eta izapideak bestearekin batera egin.

2017ko abenduaren 7an, Europako Batzordeak bi errekurtsio aurkeztu zituen Espainiako Erresumaren kontra Europar Batasuneko Justizia Auzitegian, adieraz zezan Espainiak ez dituela bete honako hauen arabera dauzkan betebeharrak:

2014/25/EB Zuzentarauaren 106.1 artikulua eta 2014/23/EB Zuzentarauaren 51.1 artikulua. Lehen artikuluko betebeharrak ez betetzeagatik, isun hertsagarri bat ezartzeko eskatzen du, 123.928,64 euro egunean, epaia ematen den egunetik aurrera, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 206.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritz; bigarren artikuluko betebeharrak ez betetzeagatik, beste isun hertsagarri bat ezartzeko eskatzen du, 61.964,32 euro egunean, epaia ematen den egunetik aurrera, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 206.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritz.

Gaur egun, bi prozedura horiek amaitzen ari dira, eta pentsatzekoa da luze gabe Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak bi kondena-epai emango dituela. Epaiak laster emango zituztela ikusita, txostena aurkeztu zion Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzkoa den eta Espainiako ordenamendu juridikoan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzentzara txertatzen duen Legearen proiektua idazteko Diputatuen Kongresuak izendatutako batzordeak Ogasun Batzordeari (legegintza-eskumen osoa baitauka); txosten haren arabera, lege-proiektuaren testu berria onartu zen (*Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala*, 2019ko urtarrilaren 28koa).

2019ko martxoan, parlamentu-ganbarak desegin ziren, hauteskunde orokorren deialdi aurreratuaren ondorioz, eta horregatik ezin izan ziren amaitu lege horren izapide parlamentarioak eta, beraz, Espainiako Erresumak ezin izan zituen onartu 2014/25/EB eta 2014/23/EB zuzentzaruen transposizioa XII. legegaldia 2019ko maiatzaren 21ean amaitu baino lehen egiteko behar ziren xedapenak, bere betebeharra izan arren. XIII. legegaldian ere, ezin izan zen onartu lege hau, oso laburra izan baitzen (2019ko irailaren 24an amaitu zen). 2019ko abenduaren 3an, XIV. legegaldia hasi zen; 2020ko urtarrilean, gobernuaren eratu zen eta bere egiteko guztiei ekin zien. Horri esker, berriro heldu ahal izan zaio aipatutako zuzentzaruen transposizioa gauzatzeko duen lege-testua onartzeko presako prozedurari.

Horrez gainera, errege lege-dekretu honen bidez, Kontseiluaren 2016ko abuztuaren 2ko Erabakiaren 6.1 artikulua beteko da; erabaki horretan, ohartarazpena egin zitzaion Espainiari, defizita murrizteko neurriak ezartzeko, 2016ko abuztuaren 2ko defizita gehiegizkoa baitzen eta murrizketa beharrezkotzat jotzen baitzen egoera onbideratzeko.

Zuzentzara horiek Espainiako ordenamendu juridikoan erabat txertatzea gehiago atzeratzeak ondorio larriak ekar ditzakeela ikusita, eta Kontseiluaren 2016ko Erabakia betetzeko, ezinbestekoa da errege lege-dekretua onartzea transposizioa presaz egiteko. Hartara, uste izatekoa da transposizio-betebeharra ez betetzeagatik Europako Batzordeak Europar Batasuneko Justizia Auzitegian jarritako errekurtsioak bertan behera geldituko direla xederik gabe gelditzeagatik, eta, behintzat, Espainiari zehapen ekonomikoak ezartzea saihestuko dela (izan ere, Europako Batzordeak egunero isun hertsagarriak jartzeko eskatu zuen).

Arestian azaldu dugun hori guztia dela eta, «aparteko eta presako beharrezana» dago oraingo egoeran; horrela, Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua Gobernuari lege-dekretuak eman ahal izateko ezartzen dion baldintza betetzen da. Izan ere, Konstituzioaren doktrinaren arabera bi elementu eduki behar dira kontuan aparteko eta presako beharrezana dagoela egiaztatzeko:

Batetik, errege lege dekretua onartzeko Gobernuak aparteko eta presako beharrezana dagoela ebazteko aintzat hartu dituen arrazoiak; aurretik arrazoituta azaldutakoak dira. Azaldutako egoera onbideratzeko bada, berehalako araugintza behar da, ezbairik gabe;hots, epe laburragoa behar da legeen izapide parlamentarioen ohiko bidetik edo presako prozeduraren bidetik behar dena baino (Konstituzio Auzitegia: 6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarri juridikoa; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarri juridikoa; 137/2003

epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarri juridikoa), zeren eta horrela Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Espainiako Erresumari diru-zehapenak ezartzea eragotziko baita.

Bestetik, frogatu behar da lotura dagoela azaldutako larrialdi-egoeraren eta horri aurre egiteko ezartzen den neurriaren artean, hau da, egoeraren eta transposiziorako errege lege-dekretuaren artean. Horren ildotik, esan beharra dago errege lege-dekretua sortzeko abiaburutzat Kongresuko Ogasun Batzordearen batzorde txostengileak onartutako testua hartu dela baina testu horretako xedapen batzuk bazter utzi direla; Europako zuzentzarauen transposizioak zuzenean justifikatzen ez dituenak, hain zuzen ere.

Horrenbestez, errege lege-dekretua indarrean jartzen denean, Espainiako Erresumak hartuak izango dituzenez gero 2014/25/EB eta 2014/23/EB zuzentzarauak betetzeko behar diren lege-xedapenak, aurrez azaldu den bezala, seguruenik bertan behera geldituko dira Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari aurkeztutako errekurtsioak xederik gabe gelditzeagatik, edo, bestela, ebazpenek ez dute ondorio ekonomikorik sortuko Espainiako Erresumarentzat, Europako Batzordeak bi isun hertsagarri jartzeko eskatu baitzuen. Horren ildotik, errege lege-dekretu honek osatu egiten du 2014/25/EB eta 2014/23/EB zuzentzarauari zegokienez 9/2017 Legearen bidez egindako transposizio partziala. Zehatzago azalduta, 2014/25/EB Zuzentzarauaren transposizio partziala egin zuen 9/2017 Legeak; administrazio publikoen uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazioari dagokionez, hain zuzen. Beraz, errege lege-dekretu honek zuzentzari horren transposizioa osotzen du administrazio publiko ez diren sektore publikoko entitateek eta zuzenbide berezia edo eskusiboa duten enpresa pribatuak sektore horietan egiten dituzten kontratuei dagokienez. Beste alde batetik, 9/2017 Legeak 2014/23/EB Zuzentzarauaren transposizio partziala ere egin zuen, esparru orokorreko obra-emakidako kontratuei eta zerbitzu-emakidako kontratuei dagokienez. Beraz, errege lege-dekretu honek zuzentzari horren transposizioa osotzen du beronen menpe dauden jardueretako obra-emakidako kontratuei eta zerbitzu-emakidei dagokienez (ura, energia, garraioak eta posta-zerbitzuak).

Nolanahi ere, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, ez da beharrezkoa ziur jakitea kondenari itzuri egingo zaiola. Aurrekaririk garrantzitsuena Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 13ko 1/2012 epaia da, 85/337/EEE eta 977/337/EEE zuzentzarauen transposizioa urriaren 6ko 9/2000 Errege Lege Dekretuaren bidez berandu egiteari buruzkoa. Europako Batzordeak, orduan, betebeharra ez betetzeagatik aurkeztu eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ebatzi gabeko bi demandetako bat baizik ez zuen kendu, eta, hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegiak hauxe adierazi zuen: «Gobernuak arrakasta izan zuen, partziala izanik ere, zuzentzari horien transposizioa berandu eginda errege lege-dekretu polemikoaren bidez, eta horrek erakusten du lortu nahi zena zentzuzkoa zela eta hizpide dugun kasukoak bezalako inguruabarretan errege lege-dekretuaz baliatzea lagungarria izan daitekeela Batzordeak azkar erabakitzeko irekita daukan prozedura bat ixtea eta, ondorioz, EBJAK ez emateko Espainiako Erresumak betebeharrak ez duela bete adierazten duen epairik».

Horregatik guztiagatik, izaera eta xedea ikusirik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua kontratazioaren arloko zuzentzarauaren transposiziorako honelako arau bat baliatu ahal izateko baldintza gisa eskatzen duen aparteko eta presako beharrezko dago.

Hain zuzen ere, errege lege-dekretu honen bidez osatu egiten da Europar Batasunak 2014. urtean onartu zituen kontratazio publikoaren arloko zuzentzarauen transposizioa: lehen aipatu diren 2014/25/EB eta 2014/23/EB zuzentzarauak, eta 2014/24/EB Zuzentzaria, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa.

Hiru zuzentzari horiek «Europa 2020 Estrategia» deritzonak markatzen duen legegintza-panorama berriaren osagaiak dira. Horren barruan kontratazio publikoak funtsezko zeregina dauka, zeren eta barne-merkatuan oinarrituta egon behar duten eta hazkunde adimentsu, jasagarri eta integratzaile bat lortzeko erabili behar diren tresnetako bat baita, aldi berean bermatzen duena funts publikoak arrazionaltasun ekonomiko handiagoarekin erabiltzen direla.

Zuzentarau horiek Europar Batasunean 2010ean hasitako prozesua burutzen dute. Izan ere, hainbat proposamen eta negoziazioen ondoren, lehenengo Europako Batzordean, gero Europar Batasunaren Kontseiluan eta azkenean Parlamentuaren eta Kontseiluaren artean, Parlamentuan 2014ko urtarrilaren 15ean eta Kontseiluan 2014ko otsailaren 11n onartu ziren, eta *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu ziren 2014ko martxoaren 28an.

Arautegi horrekin Europar Batasunak bukatutzat eman du kontratazio publikoari buruz indarrean dauden arauak berrikusteko eta modernizatzeko prozesua. Horren bitartez gastu publikoa eraginkorragoa izatea eta, bereziki, enpresa txikiek eta ertainek kontratazio publikoan parte hartzea errazagoa izatea lortuko da; gainera, botere publikoek kontratazio helburu sozialak, lan-arloko helburuak eta ingurumenaren arloko helburuak lortzeko erabiltzea sustatuko da. Halaber, beharrezkoa zen oinarritzko nozio eta kontzeptu batzuk argitzea, segurtasun juridikoa bermatzeko, eta kontratazio publikoari buruz Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako jurisprudentzia txertatzea; hori guztia zuzentarau horien bidez erdietsi da.

Zioen azalpen honetan adierazi den bezala, errege lege-dekretu honen bidez 2014/25/EB Zuzentaruak txertatzen da estatuaren ordenamendu juridikoan administrazio publiko ez diren botere adjudikatzailerik, enpresa publikoek eta zuzenbide berezia edo eskusiboa duten beste entitate batzuek uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen arloetan egiten dituzten kontratuei dagokienez. Administrazio publikoek arlo berezi horietan egiten dituzten kontratuei buruz zuzentarau horretan ezarritako xedapenak azaroaren 8ko 9/2017 Legeak txertatzen ditu gure ordenamendu juridikoan (lege horrek Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentaruak). Halaber, errege lege-dekretu honek 2014/23/EB Zuzentaruaren transposizioa egiten du administrazio publiko ez diren botere adjudikatzailerik, enpresa publikoek eta zuzenbide berezia edo eskusiboa duten beste entitate batzuek energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen arloetan egiten dituzten obra-emakidako kontratuei eta zerbitzu-kontratuei dagokienez.

II

Aurreko legeetan adierazten zen bezala (48/1998 Legea, abenduaren 30ekoa, uraren, energiaren, garraioen eta telekomunikazioen arloetako kontratazio-prozedurei buruzkoa, eta horren ondokoa, 31/2007 Legea, urriaren 30ekoa, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen arloetako kontratazio-prozedurei buruzkoa), Europar Batasunaren zuzenbideak araubide berezia ezartzen du uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen arloetako kontratazio-prozeduretarako, gainerako kontratu publikoetan aplikatu beharrekoaz bestelakoa. Araubide horren gidalerroen transposizioa sektore publikoko kontratuei buruzko legeen bidez egin zen. Araubide hori berezia da kontratu-jardueraren antolamenduko hainbat alderditan (kontratatzenaren hautapena, besteak beste), eta ez da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaruak (kontratazio publikoari buruzkoak) ezartzen duena bezain zorrotza eta zurruna; nolahi ere, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren printzipioak bermatzen ditu (batez ere, salgaien zirkulazio askea, establezimendu-askatasuna eta zerbitzuak emateko askatasuna), bai eta horien ondoriozko printzipioak ere (esaterako, tratu-berdintasuna, diskriminaziorik eza, proportzionaltasuna, gardentasuna, publikotasuna eta lehia askea).

Europako Batzordeak «Ebaluazio-txostena: Europar Batasunaren kontratazio publikoari buruzko legeriaren eragina eta eraginkortasuna» (2011ko ekainaren 27a) izeneko agirian adierazi zuen egokitzat jotzen zuela arauak ematea uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen arloetan jarduten duten entitateen kontratazioari buruz, zeren agintaritzak nazionalak artean ere eragina eduki baitzezaketen entitate horien jokabidean, batez ere haien kapitaleko partaidetzen bidez eta haien administrazioko, kudeaketako edo gainbegiratzeko organoetako ordezkarien bitartez. Arlo horietako kontratuak arautzen jarraitzeko beste arrazoi bat ere bazegoen: sektore horietako entitateak ari diren merkatuak itxiak dira, Europar Batasuneko estatuak eskubide bereziak edo eskusiboak ematen baitituzte dena delako zerbitzuak emateko behar diren sareez

hornitzeko edo haiek eskaintzeko edo ustiatzeko. Sektore horietako kontratazioa arautuz lehiarako zabalik egon daitezela lortu nahi da.

Errege lege-dekretu honetan kontratazio publikorako ezartzen den lege-sistema aurrekoa (urriaren 30eko 31/2007 Legeak ezartzen duena) baino askoz zabalagoa da, eta asmo handiagokoa, batez ere Espainiako ordenamenduan txertatzen dituen Batasunaren zuzentarauen eraginez. Sistema horrek azaroaren 8ko 9/2017 Legea osatzen du (hainbat artikulutan testuak bertara bidaltzen du); indarrean dauden arauak argitu nahi ditu, segurtasun juridikoa hobetzeko, eta lortu nahi du kontratazio publikoa tresna gisa erabiltzea gizartearen, ingurumenaren, berrikuntza eta garapenaren eta ETEen sustapenaren arloetako politikak aplikatzeko Europar eta estatu bakoitzean; gainera, horiek guztiak egitean bermatzen du gastu publikoa eraginkorra izatea eta tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren, proportzionaltasunaren, lehia askearen eta integritatearen printzipioak errespetatzea, eta merkatu-batasuna bermatzeko printzipioak ere bai.

Beste alde batetik, gaur egun nahiko atzeratuta dago arau hauen transposizioa: 2016/97 (EB) Zuzentaraua, 2016ko urtarrilaren 20koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, aseguruak banatzeari buruzkoa; 2016/2341 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko abenduaren 14koa, enpleguko pentsio-funtzen jardueri eta haiek gainbegiratzeari buruzkoa; 2017/828 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko maiatzaren 17koa, 2007/36/EE Zuzentaraua aldatzen duena akziodunen epe luzerako inplikazioa sustatzeko. Zuzentarau horietako azkena dela eta, komenigarri iritzi zaio aseguruaren sektoreari zuzenean eragiten dioten gaietan errege lege-dekretu honen bidez transposizio partziala egiteari.

Zuzentarau horietan guztietan handia da finantza-zerbitzuen bezeroen eskubideen babesa, bai aseguruaren hartzailena, aseguratuena eta onuradunena, bai pentsio-plan eta pentsio-funtsetako partaileena (honako bi zuzentarau hauei dagokienez: 2016/97 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko urtarrilaren 20koa; 2016/2341 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko abenduaren 14koa), bai inbertsiogileena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 17ko 2017/828 (EB) Zuzentaruak informazio-sisteman dakartzan hobekuntzei esker.

Transposiziorako eta estatuko ordenamendu juridikoan txertatzeko, lege mailako araua behar da.

Horretarako, errege lege-dekretua hautatu da, tresna egokia baita Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 260.3 artikuluan ezartzen duenaren arabera jasan daitekeen isunari itzuri egiteko; gainera, kontuan eduki behar da aipatutako zuzentarauen transposizioa egiten ez bada ezin izango direla egoki babestu aseguru-hartzailen, aseguratuena, aseguruaren onuradunen eta pentsio-planetako partaileen eskubideak.

Errege lege-dekretua transposizio-tresna gisa erabiltzeko justifikazioa Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 21eko 23/1993 epaian dago, ezartzen baitu errege lege-dekretua egoera ekonomiko zailei aurre egiteko legezko tresna dela eta hala dagoela jasota Konstituzioan. Horrez gain, urtarrilaren 13ko 1/2012 epaian Konstituzio Auzitegiak berresten du Konstituzioaren 86.1 artikuluan adierazitako aparteko eta presazko beharizanaren kasua betetzen dela «transposizioaren atzerapen nabarmena» gertatzen denean eta «Espainiako Erresumaren aurkako ez-betetze prozedurak» daudenean.

Beste alde batetik, errege lege-dekretu honetan balio erantsiaren gaineko zergaren arautegia eta zerga berezien arautegia aldatzen dira, Europar Batasunaren zuzenbidea txertatzeko estatuko ordenamendu juridikoan; honako zuzentarau hauek txertatzeko, hain zuzen: 2018/1910 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2018ko abenduaren 4koa, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen duena balio erantsiaren gaineko zergaren arau batzuk –Batasuneko estatuen arteko trukeei buruzkoak– harmonizatzeko eta errazteko; eta 2019/475 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2019ko otsailaren 18koa, 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2008/118/EE Zuzentaraua aldatzen dituena Italiako Campione d'Italia udalerrria eta Luganoko aintzirako urak Batasuneko aduana-lurraldean eta 2008/118/EE Zuzentaruaren aplikazioaren lurralde-esparruan sartzeari dagokienez.

2018ko abenduaren 7an honako hauek argitaratu ziren *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean*: aipatutako 2018/1910 (EB) Zuzentarau hori, balio erantsiaren gaineko zergaren (hemendik aurrera BEZ) Batasunaren arautegian hainbat hobekuntza egiten dituen Batasunaren barruan ondasunekin egiten diren eragiketen tributazioaren araubide iragankorrean aplikatzeko; eta 2018/1912 (EB) Exekuzio Erregelamendua, Kontseiluarena, 2018ko abenduaren 4koa, 282/2011 (EB) Exekuzio Erregelamendua aldatzen duena Batasunaren barruko eragiketekin lotutako salbuespen batzuei dagokienez.

Europako Batzordeak aurkeztu du dagoeneko proposamen bat enpresarien eta profesionalen arteko Batasunaren barruko merkataritza-jardunaren gaineko BEZaren behin betiko araubidearen elementuak ezartzeko. Batzordeak, proposamen horren bidez, zergak xedeko tokian ordaintzeko araubide iragankorra gainditu nahi du eta ondasun-emate bakar gisa helburuko estatu kidean zergapetzeko printzipioan oinarrituta dagoen behin betiko tributazio-araubide bat ezarri (araubide iragankor hori ezartzeko, beste zerga-egitate bat sortu behar izan zen: Batasunaren barruko ondasun-eskuraketak).

Seguruenik, behin betiko araubidea erabat finkatu, onartu eta indarrean jarri arte urte batzuk igaroko dira; horregatik, 2018/1910 (EB) Zuzentaruaren, helburua praktikoarekin, Batasunaren barruan ondasunekin egiten diren eragiketei gaur egun aplikatzen zaien araubidean xedapen bereziak ezartzen dira Batasuneko estatu guztietan modu harmonizatuan tratatzeko mugaz gaindiko merkataritzako eragiketa batzuk, denetan ere Batasunaren barruko eragiketa horien gaineko tributazioa erraza eta bateratua izan dadin; izan ere, ordura arte estatu bakoitzeko zerga-administrazioak bere erara kargatzen zituen.

Batasunaren zuzentarau horretan, esan bezala, Batasuneko estatuen arteko ondasun-trukeen gaineko BEZaren tributazioan denek aplikatu beharreko arauak ezartzen dira, eta zuzentarau hori Batasuneko estatu guztietan aplikatu behar da 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Horretarako, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzen da: Europar Batasuneko zuzenbidea estatuko ordenamenduan txertatzen da; Batasunaren barruan ondasunekin egiten diren eragiketen gaineko BEZaren tributaziorako arau orokorrak ezartzen dira, estatu guztiek bete beharrekoak, bai eta Batasunaren barruko ondasun-emateei salbuespena aplikatzeko baldintzei buruzko erregulazio berria ere; eta Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen araubidea harmonizatzen da. Lege horren aldaketaz gainera, eta aurreko erregulazioa osatzeko, erregistroen inguruko erregelamendu-betebehar berriak ezartzen dira.

Horrenbestez, abenduaren 28ko 37/1992 Legeak Espainiako ordenamenduan txertatzen ditu ondasunak kontsignan saltzeko akordioetan aplikatu beharreko BEZaren arau harmonizatuak. Akordio horiek enpresariak edo profesionalak sinatzen dituzte salgaiak mugaz gaindi saltzeko: enpresari batek (hornitzailea) ondasunak bidaltzen ditu Batasuneko estatu batetik beste batera, bidalketaren xede den estatuan beste enpresari edo profesional baten eskura jartzen dira (bezeroa), eta horrek heldu ondoren eskuratu ahal ditu.

Gaur egun, eragiketa horrek ondasun-transferentzia bat edo Batasunaren barruko ondasun-ematearekin parekatutako eragiketa bat eragiten du ondasuna abiatzen den estatuan, eta Batasunaren barruko ondasun-eskuraketarekin parekatutako eragiketa bat ondasuna heltzen den estatuan, biak ere hornitzaileak eginak. Gero, bezeroak ondasuna eskuratzen duenean, hornitzaileak Batasunaren barruko ondasun-ematea egiten du ondasuna heltzen den estatuan, eta eragiketa horri subjektu pasiboaren inbertsioaren araua aplikatzen zaio (subjektu pasiboa bezeroa da). Eragiketa horren egungo tratamenduaren arabera, gainera, ezinbestekoa da hornitzailea identifikatuta egotea BEZaren ondorioetarako salgaia heldu den estatuan.

Eragiketa horiek erraztu nahian, eta eragiketok egiten dituzten enpresarien eta profesionalen gaineko karga administratiboak murrizteko asmoarekin, erregulazio berrian ezartzen da ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan egiten diren ondasun-emateek, batetik, Batasunaren barruko ondasun-emate bat eragingo dutela, hornitzaileak egina, ondasuna abiatzen den estatuan, baina salbuetsia egongo dela, eta, bestetik,

Batasunaren barruko ondasun-eskuraketa bat, bezeroak egina, ondasuna heltzen den estatuan, baldintza jakin batzuk betez gero.

Tratamendu erraztu hori honako kasu honetan baino ez da aplikatuko: bezeroak ondasuna eskuratzen duenean bidalketaren xede den estatura heltzen denetik urtebete igaro baino lehen. Eskuratze-data eduki beharko da kontuan Batasunaren barruko eragiketen sortzapenerako.

Nolanahi ere, enpresariak eta profesionalak tratamenduari ez heltzea hautatu ahal izango dute, tratamendua errazteko baldintzak betetzeari uko eginez.

Abenduaren 28ko 37/1992 Legearen aldaketetako bat elkarren segidako eragiketak erraztea da. Elkarren segidako eragiketak gertatzen dira ondasun bat Batasuneko estatu bateko hornitzaile batek beste estatu bateko bezero bati helarazteko prozesuan hainbat ondasun-emate egiten dituztenean zenbait edo hainbat enpresarik edo profesionalak. Hau da, ondasuna gutxienez bitartekari bati ematen zaio eta hark beste bati ematen dio, edo bezeroari, katea bertan amaitzen bada; Batasunaren barruko garraio-eragiketa bat bakarrik dago.

Batasuneko estatu bakoitzak bere interpretazioa ez egiteko, eragiketen gaineko zergapetze bikoitzik ez gertatzeko eta eragiketarik zergapetu gabe ez gelditzeko, eta operadoreen segurtasun juridikoa indartzeko, oro har, ondasunaren bidalketa edo garraioa hornitzaileak bitartekariari egiten dion ondasun-emateari baino ez zaio lotuko, eta hori BEZetik salbuetsitako ondasun-ematea izango da.

Hala ere, honako kasu honetan ondasunaren bidalketa edo garraioa hornitzaileak bezeroari zuzenean egiten dion ondasun-emateari soilik lotuko zaio: bitartekariak hornitzaileari jakinarazten dionean identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ-BEZ), Espainiako Erresumak emana, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako. Hori gertatzen denean, hornitzaileak bitartekariari egiten dion ondasun-ematea Batasunaren barruko ondasun-ematea da, BEZaren kargapean egonik hartatik salbuetsita ez dagoena, eta bitartekariak bere bezeroari egiten dion ondasun-ematea, berriz, Batasunaren barruko ondasun-ematea, BEZetik salbuetsita dagoena.

Azkenik, Batasuneko estatu guztiek onartu dute Batasunaren barruko ondasun-emateetan iruzurrik ez gertatzeko ezinbestekoa dela koordinaturik eta arretarekin lan egitea eta bermatu behar dela BEZaren ondorioetarako operadoreei identifikazio fiskaleko zenbaki (IFZ-BEZ) egokiak esleitzen zaizkiela Batasunaren barruko operadoreen erregistroaren bidez, eta, horrez gainera, bermatu behar dela VIES errolda (BEZaren inguruko informazioa trukatzeko sistema eta IFZ-BEZ eskuratu duten Batasunaren barruko operadoreen zerrenda) beti eguneratuta eta kontrolpean dagoela eta Batasunaren barruko eragiketen aitortpenak aurkezten direla egiaztatzen dela. Horregatik, errege lege-dekretu honen bidez, Batasunaren barruko ondasun-emateei salbuespena aplikatzeko baldintzak aldatzen dira.

Hori dela eta, salbuespen hori aplikatzeko, batetik, ondasuna Batasuneko estatu batetik beste batera eraman behar da (baldintza materiala, ez formala) eta, bestetik, eskuratzailak identifikazio-zenbakia eduki behar du BEZaren ondorioetarako, Espainiako Erresuma ez beste estatu batek esleitua. Zenbaki horren berri eduki behar du Batasunaren barruko ematea egiten duen enpresariak edo profesionalak, eta enpresari edo profesional horrek emate-eragiketa Batasunaren barruko eragiketen laburpen-aitorpenean sartu behar du (349 erredua).

Azaldu den bezala, 2018/1910 (EB) Zuzentarauak eta, ondorioz, abenduaren 28ko 37/1992 Legeak ondasunak kontsignan saltzeko akordioak arautzen dituzte orain. Horrelako akordioen ondoriozko errazte-neurriak ondo aplikatzen direla bermatzeko, legeak ezartzen du haietan esku hartzen duten enpresariak eta profesionalak eragiketa horietarako erregistro-liburuak arteztu behar dituztela propio. Erregistro berrietan eragiketa horiek arteztu beharra ez da baldintza formal hutsa, baizik eta substantiboa, ezinbestean bete behar baitira errazte-neurriak aplikatu ahal izateko. Horren ildotik, aurrez aipatutako 2018/1912 (EB) Exekuzio Erregelamendua 282/2011 (EB) Exekuzio Erregelamendua aldatzen du, erregistro-liburu berri horiek modu harmonizatuan arautzeko.

Beste alde batetik, zerga arautzen duen zuzentarauak ezartzen du ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasunen bat Batasuneko beste estatu batera saltzen edo garraiatzen duten saltzaileek Batasunaren barruko eragiketen laburpen-aitorpena (349 eredua) aurkeztu behar dutela.

Ondorioz, zergaren erregelamendua aldatzen da (abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartua), ondasunak kontsignan saltzeko akordioen ondoriozko salgai-mugimenduak eta eragiketak arautzeko zergaren subjektu pasiboek arteztu behar dituzten Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen erregistro-liburuetan; baita hauek arautzeko ere: Batasunaren barruko eragiketen laburpen-aitorpena, aitortpena aurkeztu behar dutenen artean sartzeko halako akordio baten esparruan ondasunen bat Batasuneko beste estatu batera bidaltzen duten enpresariak eta profesionalak, eta aitortpen horren edukia.

Nolanahi ere, 2021eko urtarrilaren 1era arte atzeratzen da ondasunak kontsignan saltzeko akordioen ondoriozko Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuk artezteko erregistro-liburu berria Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoaren bidez kudeatzeko betebeharra, informazioa berehala emateko sisteman dauden enpresariei eta profesionaleri aplikatuko zaiena, betebehara hori errazago bete ahal izateko eta hura aplikatzeko behar den garapen teknikoa egin ahal izateko.

Beste alde batetik, adierazi den bezala, 2018/1910 (EB) Zuzentarauak ezartzen du Batasunaren barruko ondasun-emateen salbuespena aplikatzeko baldintza substantibo dela ematea egiten duen enpresariak edo profesionalak eragiketa ezarrita edukitzea Batasunaren barruko eragiketen laburpen-aitorpenean (349 eredua). Horren ildotik, baldintza hori eragiketa gertatzen denetik ahalik azkarren bete dadin, eta kontuan edukita subjektu pasiboek gutxitan erabiltzen dutela salbuespena, laburpen-aitorpena urtean behin aurkezteko aukera ezabatzen da.

Antzeko helburuarekin, Batasunaren barruko salbuespenei dagokionez, 2018/1912 (EB) Exekuzio Erregelamenduak presuntzio batzuk sartu ditu 282/2011 (EB) Exekuzio Erregelamenduan, Batasunaren barruko garraioa frogatzea dela eta, lege-esparruaren harmonizazioa bermatzeko eta eragiketa hauetan izaten den iruzurraren kontrola areagotzeko. Batasunaren barruko ondasun-emateen salbuespena aplikatu ahal izateko ezinbestekoa denez ondasuna Batasuneko beste estatu batera bidaltzea edo garraiatzea, zuzentarau harmonizatua betearazteko erregelamenduak, zeina zuzenean aplikatu baitaiteke, ondasuna Batasuneko estatu batetik beste batera bidalitzat edo garraiatutzat jo daitekeen kasuak ezartzen eta zehazten ditu. Presuntzioen sistema harmonizatu horren helburua salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzeko lana erraztea da; nolanahi ere, kontuan eduki behar da kontrako frogak onar daitezkeela.

Beraz, zergaren erregelamendua aldatzen da ondasuna Batasuneko estatu batetik beste batera bidali edo garraiatu dela frogatzeari dagokionez: aurrerantzean, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabili ahal izango da eta, batik bat, 282/2011 (EB) Exekuzio Erregelamenduak Espainiako ordenamendu juridikoan txertatutako presuntzio-sistema aplikatu ahal izango da.

Aurrekoa gorabehera, 2019/475 (EB) Zuzentarauak ezartzen duenaren arabera, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera Italiako Campione d'Italia udalerrria eta Lujanoko aintzirako urak Batasuneko aduana-lurraldean eta 2008/118/EE Zuzentarauaren aplikazioaren lurralde-esparruan daude zerga berezien ondorioetarako. Horrez gainera, zuzentarau horrek Kontseiluaren 2006/112/EE Zuzentarauaren lurralde-esparruan sartzen ditu lurralde horiek BEZaren ondorioetarako. Horregatik, abenduaren 28ko 38/1992 Legea, zerga bereziena, eta 37/1992 Legea aldatu behar dira, lurralde horien estatutu berria txertatzeko zerga berezien eta BEZaren ondorioetarako hurrenez hurren (estatutu berria 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da).

Horren ildotik, errege lege-dekretu honek Konstituzioak arau-tresna hau erabiltzeko ezarritako mugak errespetatzen ditu; izan ere, ez du ukitzen Estatuaren oinarrizko instituzioen antolamendua, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubideak, eginbeharrak eta askatasunak, ez autonomia-erkidegoen araubidea, ez hauteskunderi buruzko zuzenbide orokorra.

1. artikuluko neurriez denaz bezainbatean, Konstituzio Auzitegiak honako hau zehaztu zuen: «Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua lege-dekretuaren esparrutik ateratzen ditu Konstituzioaren I. tituluan finkatutako betebeharrak; baina, hori egitean, “guztiek” gastu publikoei aurre egiten laguntzeko konstituzio-betebeharrean eragina duten araugintzako esku-hartzeak edo berrikuntzak eragotzi nahi ditu; baina ez edonolako eragina daukatenak, baizik eta eragin handia edo funtsezkoa daukatenak bakarrik». Horrela, irizpide erabakigarria da horrek zenbateko eragina daukan zergadunen artean (osotasunean hartuta) zerga-karga banatzeko orduan (Konstituzio Auzitegiaren 182/1997 epaia, 7. oinarri juridikoa, besteak beste).

Araugintzan errege lege-dekretua erabili ahal izateko Konstituzioak ezartzen duen aparteko eta presako beharizanaren justifikazioa honako hau da: balio erantsiaren gaineko zergari eta zerga bereziei buruz Europar Batasunak emandako zuzentarauen transposizioa eginda egon behar da 2019ko abenduaren 31rako.

Zuzentarauen transposizioa egiteko epealdiaren mugaegunari buruzko gogoeta orokor horri gehitu behar zaio zerga horien erregulazioaren aldaketek ez dietela eragiten egoitza Espainian duten operadoreei bakarrik, baizik eta Batasuneko operadore guztiei; izan ere, horren ondorioz transposizioa berandutzeak kalte egingo lioke Batasunaren barruko merkatuaren jardun orokorrari.

Honetan datza Batasunaren barruko merkatuaren jardun orokorrak jasango lukeen kaltea: mugaz gaindiko merkataritzako eragiketa batzuei ezin eman izango litzaienke tratamendu harmonizatua Batasuneko estatu guztietan, tributazioa erraztua eta bateratua izateko, eta, gainera, erabat mugatuko litzateke Batasunaren barruko eragiketetan gertatzen den iruzurraren kontrako borroka.

Azkenik, errege lege-dekretu honek ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren erregulazioa aldatzen du zuzentarau honen transposizioa egiteko: 2017/1852 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2017ko urriaren 10ekoa, Europar Batasunaren barruko zerga-auziak konpontzeko mekanismoei buruzkoa, auziok adiskidetasun-prozeduren bidez konpontzeko esparrua harmonizatzen duena eta segurtasun juridikoa sendotzen duena.

Hain zuzen ere, 2017/1852 (EB) Zuzentarauak ezartzen du Batasuneko estatuak uka dezaketela 6. artikuluan arautzen den ebazpen-prozedurarako irispidea tartean zerga-iruzurratik, nahita ez ordaintzeagatik edo zabarkeria larriagatik jarritako zehapenak daudenean. Horren ildotik, ahalmen horretaz baliatuz, dekretu honetan Espainiak zehazten du nola ulertzen dituen kontzeptu horiek, adiskidetasun-prozeduretan Espainian aplikatzen zaien araudiari dagokionez, erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorritik.

Halaber, salbuespen bat ezartzen da berrikusteko prozedura judizialen eta administratiboan aldean adiskidetasun-prozedurei lehentasuna emateko arau orokorrean: zehapena aurkaratuz gero, ez zaie lehentasuna emango prozedura horiei.

Gainera, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralaren esku uzten dira 2017/1852 (EB) Zuzentarauak aholkularitza-batzordearen eraketaren eta jardunaren arloan esleitutako eginkizunak.

Orobat, berandutze-interesaren salbuespena ezabatzen da; horrek berekin ekarriko du berandutze-interesak sortzea errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren hasten diren adiskidetasun-prozedurak izapidetzen ari diren artean.

Azkenik, uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzen da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bateginean adiskidetasun-prozedurei dagokienez egin diren aldaketekin bat etor dadin (martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

Kasu honetan, justifikatuta dago errege lege-dekretuaren figura juridikoa erabiltzeko eskatzen den aparteko eta presako beharizanana, 2017/1852 (EB) Zuzentarauaren transposizioa ezarritako epealdian ez egiteak ekar litzakeen ondorioak saihestu behar baitira (epealdia 2019ko ekainaren 30ean amaitu zen).

Gainera, zuzentarau horren transposizioa berehala ez egiteak eragin handia edukiko luke zergadunen segurtasun juridikoan eta eskubideetan; izan ere, zergadunek Batasunaren zuzentaruaren onartzen zaizkien eskubideak baliatu nahi balituzte, Espainiak

ezin izango luke eman erantzun egokirik, ez baitauka horri buruzko erregulaziorik (esaterako, arbitraje-batzordea eratzeari buruzkorik).

Errege lege-dekretu honek hiru liburu dauzka, eta, horrez gainera, hamazazpi xedapen gehigarri, zortzi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, hamasei azken xedapen eta hamabi eranskin.

III

Errege lege-dekretu honetan kontratazioaz arautzen denaren ardatza 2014/25/EB Zuzentarauaren transposizio partziala da; administrazio publiko ez diren entitate kontratatzaileei buruz ezartzen duenaren transposizioa, hain zuzen ere. Zuzentaru horrek jarraipena ematen dio aurreko erregulazioari (bere esparruko sektore eta jardueri buruzko erregulazioa) eta nahitaezko kontratazio elektronikoa sartzeko; horren bidez kontratazio-teknika berriak sustatzen ditu (aurreko erregulazioan ere lantzen ziren, baina asmo apalagoarekin). Hain zuzen ere, prozeduraren fase guztietan informazio eta komunikazioko baliabide elektronikoak erabili beharra ezartzen du, eraginkortasuna hobetzeko eta prozedura gardenagoa izateko.

«Baztertutako sektoreak» esaten zaien esparruko eduki tradizionalaz gainera, aipatu behar da errege lege-dekretu honetan aintzat hartzen direla 2014/23/EB Zuzentarauan obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratu berriak ezartzen diren xedapenak, baina soilik errege lege-dekretu honetako sektore eta jardueretan egiten direnean eta soilik haren aplikazio-eremu subjektiboko entitateei dagokienez, hau da, modu generikoan «entitate kontratatzaile» deritzenei dagokienez. Zuzentaru horren gainerako xedapenen transposizioa azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bitartez egin zen.

Errege lege-dekretu honen lehen liburuaren I. tituluaren dekretuaren objektua ezartzen da, eta liburuan zehar erabiltzen diren kontzeptuen definizio egokiak finkatzen dira, Europar Batasunak 2014/25/EB Zuzentarauan adierazitako interpretazioak errespetatu ahal izateko. Azpimarratu behar da lehen aldiz arautzen direla «entitate kontratatzaileek» energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen arloetan obra-emakidako kontratuak edo zerbitzu-emakidako kontratuak adjudikatzeko antolatzen dituzten prozedurak.

Errege lege-dekretuaren esparru subjektiboa lehen liburuan ezartzen da, I. tituluaren II, kapituluaren zehazten den bezala: botere adjudikatzailak, enpresa publikoak eta zuzenbide berezia edo eskusiboa duten entitate pribatuak. Ostera, administrazio publikoak ez daude esparru horretan, eta erregulazio zorrotzagoa aplikatuko zaie, azaroaren 8ko 9/2017 Legearena, diziplinari eta jardunaren kontrolari buruzko arrazoiengatik; izan ere, badirudi egokia dela alderdi horiek lehentasuna edukitzea. Gainera, 2014/25/EB Zuzentarauan kontratuak erregulazio harmonizatuaren aplikazio-esparrukotzat jotzeko ezartzen diren atalaseak errespetatzen dira, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak zortzigarren xedapen gehigarrian ezartzen duenarekin bat etorritik. Hori guztiz bat dator Europar Batasuneko Zuzenbidearekin, horrela argiro bermatzen baitira kontratuen arloko publikotasunaren, lehiaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak, azaroaren 8ko 9/2017 Legea aplikatzen zaien kontratu publikoetan printzipio horiek zorrotzago betearazten dira eta.

Lehen liburuaren I. tituluaren III. kapituluaren, errege lege-dekretu hau aplikatuko den esparru objektiboa zehazten da, 2014/25/EB Zuzentarauaren edukiari zorrotz lotuta: zer kontratu arautzen diren argitzen da eta haien eduki materiala azaltzen da. Urriaren 30eko 31/2007 Legearekin alderatuta, errege lege-dekretu honen aplikazio-esparru objektiboaren salbuespenen erregulazioa zabalagoa eta xehatuagoa da (kontratu mistoak eta hainbat jarduera egiteko kontratuak). Bi arrazoi daude horretarako: batetik, Batasunaren zuzentaruak agintzen dutena bete behar da; bestetik, zehatz-mehatz mugatu behar da errege lege-dekretuaren aplikazio-esparrua, azaroaren 8ko 9/2017 Legeari dagokionez eta, halaber, abuztuaren 1eko 24/2011 Legeari dagokionez (sektore publikoko defentsaren eta segurtasunaren arloetako kontratuen legea; urriaren 30eko 31/2007 Legearen ondotik onartu zen). Beste alde batetik, lehenengo aldiz arautzen dira botere adjudikatzailak diren entitate kontratatzaileek baliabide propio pertsonifikatuei egiten dizkieten mandatuak, bai eta sektore publikoko entitate kontratatzaileen arteko hitzarmenak ere. Orobat, honako

berrikuntza hau ezartzen da: urriaren 30eko 31/2007 Legeak enpresa elkartuekin eta baterako enpresekin egiten diren kontratuez ezartzen duen erregulazioa berrikusten da, kontratuok lehia askearen printzipioarekin bat etorritz modu egokian erabiltzen direla bermatzeko.

Lehen liburuaren I. tituluaren IV. kapituluan, kontratazioan aintzat hartu beharreko printzipioak ezartzen dira. Batetik, ohiko bereizkeriarik eza, elkarren onarpena, proportzionaltasuna, tratu-berdintasuna eta gardentasuna ezartzen dira; bestetik, horiez gainera, lehia askearen printzipioa ere ezartzen da, berrikuntza gisa, eta ezarri ere formulazio zabalarekin, halako moldez non asmoarekin ez ezik murrizketa ekar dezakeen jardunaren edo neurriaren xedearekin eta ondorioekin ere lotuta agertzen baita. Azkenik, Merkatu Batasuna Bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legean aipatzen diren merkatu-batasuna bermatzeko printzipioak ere ezartzen dira. Printzipio horiek guztiak ezartzearekin batera, errege lege-dekretu honek ezbairik gabeko lege-agindua ezartzen die entitate kontratatzaileei: ezar ditzatela prozeduraren konfigurazioan eta burutzapenean gizarteari, ingurumenari eta enpresa txikiei eta ertainei laguntzeko neurriei buruzko oharra, zeharkakotasunarekin. Ikuspegi berri horri «kontratazio publiko estrategikoa» esan ohi zaio. Horren ildotik jarraituz, errege lege-dekretu honetan ezartzen da entitate kontratatzaileek neurriak hartu behar dituztela beren kontratuak egikaritzen dituzten enpresek ingurumenaren, gizartearen eta lanaren inguruko betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko, bai eta betebehar horiek ez betetzeagatik zigorrak ezar ditzaketela ere. Halaber, lehenengoz arautzen dira errege lege-dekretu honekin bat etorritz egiten diren kontratazio-prozeduretan sortzen diren interes-gatazkak.

II. tituluaren operadore ekonomikoen gaitasunari eta sailkapenari buruzko baldintzak ezartzen dira. Berrikuntza gisa, ezartzen da azaroaren 8ko 9/2017 Legeak arautzen dituen kontratatze debekuak entitate kontratatzaile guztiei aplikatuko zaizkiela; orain arte zuzenbide publikoko erakundeei eta enpresa publikoei baino ez zaizkie aplikatu, urriaren 30eko 31/2007 Legean ezartzen zuenaren arabera. Gainera, bere horretan mantentzen dira kontratistak sailkatzeko aukerako sistemak; hain zuzen ere, orain arte bezala, sistema horien xedea edo helburua horietara beren borondatez jotzen duten eta horiek kudeatzen dituzten entitate kontratatzaileek zehaztuko dute, nahiz eta orain ere kontratistaren hautapena errazteko diren eta prozedura sinplifikatzeko diren bera deialdia egiteko erabiltzen denean.

Errege lege-dekretu honen lehen liburuaren III. tituluaren kontratuen prestakuntzaren eta dokumentazioaren inguruko baldintzak eta ezaugarriak zehazten dira, eta berrikuntza garrantzitsuak sartzen dira aurreko erregulazioaren aldean (31/2007 Legea, urriaren 30ekoa). Esaterako, lehenengo aldiz arautzen dira entitate kontratatzaileek merkatuan egiten dituzten kontsultak (bai lizitazioak antolatzeke egiten dituztenak, bai beren kontratazio-planen berri emateko egiten dituztenak), eta behar diren zuhurtzia-neurriak ezartzen dira lehia askea eta leiala izatea bermatzeko, batez ere entitatearen kontratatzailearen profileko publizitatearen bidez. Gainera, ezartzen da entitate kontratatzaileek kontratazio-prozedura prestatzeko dokumentazioan adierazi behar dutela zer beharizan bete nahi dituzten kontratazioaren bidez, arautzen da nola kalkulatu behar den sektore publikoko kontratatzaileen lizitazioen oinarritzko aurrekontua, xehatuago azaltzen da nolakoa izan behar den agirien edukia, eta erregulazio zabalagoa eta xehatuagoa ezartzen da ondasunek, produktuek edo zerbitzuek eskatzen diren preskripzio teknikoak, adjudikazio-irizpideak edo baldintzen agirietan kontratua egikartzeko ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko erabiltzen diren etiketei, froga-txostenei, ziurtagiriei eta bestelako frogabide batzuei buruz.

Lehen liburuaren IV. tituluaren lehenengo aldiz arautzen da nolakoa izan behar den errege lege-dekretu honen menpeko kontratuen gutxieneko edukia. Horrez gainera, kontratu horien iraunaldia ere arautzen da: sektore publikoko entitateek egiten dituzten kontratuen iraunaldiak azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezartzen dituen muga berak edukiko ditu; horrela, kontratuak aldi-aldi lehia bidez adjudikatzea ziurtatzen da.

Gainera, lehen liburuaren IV. tituluaren honako hauek ere arautzen dira: hautagaien eta lizitazioaren baldintzak, adjudikazio-prozeduretarako arau orokorrak, prozedura horien

publizitate-bitartekoak, eta prozedura motak. Oro har, errege lege-dekretu honek ezartzen du baldintzen agiriak eta preskripzio teknikoak baliabide elektronikoen bitartez eskuratzeko modua eman behar dela kontratatzailearen profilean, eta entitate kontratatzaileei ezartzen die kontratatzailearen profila eduki behar dutela eta hori Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman edo antzeko beste batean egon behar dela, kasuan kasukoan entitate kontratatzailearen arabera. Kontratatzailearen profilaren dekretu honetako erregulazioa azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezartzen duenaren oso antzekoa da; horren arabera, kontratatzailearen profila izango da bide nagusia kontratazio-prozeduretan (eta are kontratuaren iraunaldian ere) egiten diren ia iragarki, jarduketa, egintza eta ebazpen guztien berri emateko modu bateratuan. Errege lege-dekretu honek honako berrikuntza hau ezartzen du komunikabide elektronikoei buruzko erregulazioan: nahitaez erabili behar direla, salbuespen tasatu batzuetan izan ezik. Horrez gainera, behar diren doikuntza guztiak ezartzen ditu lizitazio-prozeduraren erregulazioa kontratazio elektronikokoak berekin ekarri dituen eskakizun guztietara moldatzeko.

Lehen liburuaren IV. tituluaren, beste berrikuntza batzuk ere ezartzen dira; hona aipagarrienak: lehenengoz arautzen da kontratuaren objektua, eta hura zehaztu beharra ezartzen da; debekatzen da kontratuak zatikatzea iruzur egiteko asmoarekin; ezartzen da kontratuaren objektua sortetan zatitu behar dela haren izaerak aukera ematen duen kasu guztietan, baina espedientean zatiketa ez egiteko arrazoiak azaltzeko aukera ematen da; berariazko aipamena egiten zaie hainbat sorta edo sorta guztiak konbinatzen diren eskaintzei («eskaintza integratzaileak»).

Horrez gainera, lehen liburuaren IV. tituluaren, adjudikazioetarako aplikatu beharreko irizpideak arautzen dira, eta hainbat berrikuntza sartzen dira: eskaintza ekonomikorik onuragarrienaren printzipioaren ordeaz, batik bat kalitatea-prezioa erlaziorik hoberenaren arabera zehazten den eskaintza hoberenaren printzipioa ezartzen da; ohi bezala, eskatzen da lotura egotea kontratuaren objektuarekin, baina eskakizuna ez da lehen bezain zorrotza, ez baita nahitaez izan behar «zuzeneko» lehen bezala eta, gainera, formulazioa zabalagoa baita, kontratua dela bide beraren «bizi-zikloaren» etapa guztietan eman beharreko prestazioak aipatzen dira-eta (horrek aukera ematen die entitate kontratatzaileei alderdi gehiago kontuan hartu ahal izateko: gizartekoak, lanekoak, ingurumenekoak, berrikuntzakoak eta garapenekoak); eskatzen da legeriaren arabera kalitatea lehenetsi behar den kontratuen lizitazioetan (esaterako, zerbitzu intelektualen kontratuenetan) aurkezten diren eskaintzak baloratzean irizpide kualitatiboen arabera guztirako puntuazioaren ehuneko 51 ematea gutxienez.

Halaber, lehen liburuaren IV. tituluaren, honako berrikuntza hau ere ezartzen da: erantzukizunpeko adierazpena egitea kontratatzeke baldintzak betetzen direlako lehen froga gisa. Adierazpenaren edukia bat etorri behar da Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Exekuzio Erregelamenduak ezartzen duen formulario normalizatuarekin; horretarako, behar izan diren doikuntzak egiten dira lizitazio-prozeduren erregulazioan. Beste berrikuntza aipagarri batzuk ere sartzen dira: entitate kontratatzaileek atzera bota beharko dituzte eskaintza nabarmenki baxuegien prozeduran aplikatzen diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharren bat betetzen ez duten eskaintzak, eta, are gehiago, beren esku edukiko dute kontratua eskaintzari hoberenari ez adjudikatzea, betebehari horietako bat bete ezean; entitate kontratatzaileek, kontratua adjudikatu baino lehen, kontratazio-prozeduran zehar atzematen diren kolusio-jokabideen zantzuak jakinarazi beharko dizkiote Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari (edo arloko eskumena daukan agintaritzaren autonomikoari), eta horrek prozedura etetea ekarriko du; publikotasunaren araubide komunitarioa txertatzen da, Batasunak kontratazioaz eman dituen azken zuzentarauen ondoriozkoa (araubide hori gero Batzordearen 2015eko azaroaren 11ko 2015/1986 (EB) Exekuzio Erregelamenduak garatu du, zeinak formulario normalizatuak ezartzen baititu kontratazio publikoaren arloko iragarkiak argitaratzeko, eta indarrak gabe uzten baitu 842/2011 Exekuzio Erregelamendua (EB)), eta ahaleginak egin dira araubide hori ahalik gehien errazteko, Batasuneko legeriak ezartzen dituen mugei lotuta; berme handiagoekin arautzen dira prozedura irekia, prozedura murriztua eta prozedura negoziatua, eta, berrikuntza modura, lehia-elkarrizketa eta berrikuntzarako

elkartzeko prozedura ezartzen dira, eta entitate kontratatzaileei prozedura jakin bat zergatik hautatu duten azaldu beharra ezartzen zaie.

Berrikuntzarako elkartzeko prozedura berriaren helburua zera da, soluzio berritzaileak sustatzea merkatua itxi gabe, eta merkatuan dauden soluzioek produktu, obra edo zerbitzu berritzaile baten garapenari eta hura eskuratzeari dagokienez entitate kontratatzaile batek daukan beharrian jakin bat betetzen ez dutenean baliatzekoa da. Prozedura horren bitartez, entitate kontratatzaileek berrikuntzarako elkarteak sortu ahal izango dituzte epe luzerako, behar dituzten soluzioak garatzeko eta, azken batean, eskuratzeko; horrela, «merkataritza-tirakada» deritzona sortzen da.

Prozedura berri horri dagokionez, zuzentarau berriak prozesu bat marrazten du, non lizitazio-deialdi bat egin ondoren edozein enpresaburuk parte hartzeko eskaera bat egin dezakeen eta ondotik hautatzen diren hautagaiak eskaintzak egin ditzaketen eta, hartara, lizitzaile bihurtu, negoziazio-prozesu baten esparruan. Prozesu hori ondoz ondoko faseetan garatu ahal da, eta haren buruan berrikuntzarako elkartea sortuko da. Berrikuntzarako elkartea ere ondoz ondoko faseetan egituratuko da, baina ez da gertatuko entitate kontratatzailearen eta lizitzailearen artean, baizik eta haren eta bazkide baten edo gehiagoren artean, eta, oro har, sortutako hornidurak, zerbitzuak edo obrak eskuratzearekin batera amaituko da.

Horrenbestez, prozedura horretan lau aldi bereiz daitezke, eskema moduan adierazita: hautagaiak hautatzea, lizitzaileekin negoziatzea, bazkideekin elkartzea eta sortzen den produktua eskuratzeko. Eskema horri erantzuten dio errege lege-dekretu honen 87. artikulua, prozedura berri horren erregulazioa ezartzen baitu.

Gainera, lehen liburuaren IV. tituluaren «isilpeko kontratua» figura ezagunaren jardun-esparrua zabaltzen da, kontuan harturik enplegua eta okupazioa ezinbestekotzat jotzen direla aukera-berdintasuna bermatzeko; gainera, desgaituak eta pertsona behartsuenak gizarteratzen laguntzen du. Horregatik, ez da ezabatzen entitate kontratatzaileek enplegu-zentro berezietan kontratazio-prozeduretan parte hartzeko eskubidea gordetzeko aukera, ez eta kontratuak babespeko enpleguen programen bitartez egikaritzeko aukera ere; aitzitik, honako berrikuntza hau sartzeko da: entitate kontratatzaileek eskubide hori laneratzeko enpresentzat ere gorde ahal izango dute, baldin eta enplegu-zentro berezietako, laneratzeko enpresetako edo programetako langile desgaituen edo gizartetik baztertuta dauden langileen ehunekoa haien arautegian ezartzen dena bada, eta gutxienez ehuneko 30 kasu guztietan. Halaber, zabaldu egiten da gizarte-zerbitzuen, kultura-zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen kontratuen lizitazioetan parte hartzeko eskubidea entitate jakin batzuentzat gordetzeko aukera, eta hemendik aurrera lehendik ere zerbitzuok egin izan dituzten entitateentzat gorde ahal izango da, honako baldintza hau ezarrita: posiblekin beren xedeak lortzeko berrinbertitzea. Desgaitasunaren arloan, aipamena dela bide, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezartzen duen kontratatze debekurako arrazoia aplikatzen da: 50 langiletik gorako enpresen langileen ehuneko 2 gutxienez ez izatea desgaitasunen bat duten pertsonak, aginduta dagoen bezala.

Lehen liburuaren V. tituluaren (Kontratazioa eta proiektu-lehiaketak arrazionalizatzeko teknikak), erosteko teknika elektroniko berriekin lotutako kontratazio-teknikak arautzen dira. Teknika horiez baliatuz lehia zabaltzen da eta erosketen sistema publikoaren eraginkortasuna hobetzen da; izan ere, entitate kontratatzaileek erosketa-zentralak, eskuratzeko-sistema dinamikoak eta enkante elektronikoak erabili ahal izango dituzte. Berrikuntza gisa, lehengo arautzen dira bi entitate kontratatzaileek edo gehiagok kontratazio bat batera egitea eta kontratazioetan Europar Batasuneko hainbat estatutako entitateek parte hartzea.

Lehen liburuaren VI. tituluaren xedea kontratuak nola egikaritzen eta azkentzen diren arautzea da, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak egiten duen bezala (batez ere honen berrikuntza nagusiei dagokienez): kontratua egikaritzeko baldintzetan irizpide sozialak, lanekoak, ingurumenekoak eta berrikuntza eta garapenekoak aintzat hartzea sustatzen da, bi modutan. Batetik, ezartzen da kontratuaren baldintzetan nahitaez sartu behar dela irizpide horietako bat (zerrenda 105. artikuluan); irizpide horien artean honako hauek daude: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, emakumeen lan-merkatuan

aritzen laguntzea, eta lana eta familia-bizitza uztartzen laguntzea. Bestetik, baldintzetan irizpide horiek sartzeko lagungarria da kontratuaren objektuarekiko lotura egon beharra ezartzen duen baldintza adjudikazio-irizpideen malgutasun berarekin aplikatzea.

VI. tituluan, azpikontratazioa arautzen da, eta baldintzen agirian ezartzen ez den kasuetarako urriaren 30eko 31/2007 Legeak finkatzen zuen muga ezabatzen du (kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren ehuneko 60); horretan, errege lege-dekretu honek Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2016ko uztailaren 14ko Wroclaw epaian ezarri zuen irizpidearen bidetik jotzen du. Horrez gainera, azpikontratistei eta hornitzaileei nola ordaindu arautzen da; ezartzen da azpikontratistei zuzenean ordaindu ahal izango zaiela baldintzen agirian hala ezarri gero eta kontratista nagusia ados egonez gero, eta entitate kontratatzaileek ordainketa horiek egiaztatzeko modua arautzen da, eta arautu ere azaroaren 8ko 9/2017 Legeak egiten duen antzera: ordainketen egiaztapena nahitaezkoa izango da kontratu batzuetan.

Beste alde batetik, errege lege-dekretu hau aplikatzen zaien kontratuen aldaketez denaz bezainbatean, lehenengoz mugak ezartzen dira, eta ezinbestekoa izango da aldaketen berri ematen duen iragarkia eta alegazioak eta egindako txostenak argitaratzea; orain, kontratua suntsitu ahal izango da indarrean dagoen bitartean aldatzeko ezarritako baldintzak betetzen ez direnean; eta, sektore publikoko entitate kontratatzaileen kontratuak aldatzeko, nahitaezkoa izango da ministerioaren baimena, Estatu Kontseiluak aldeko irizpena eman ondoren, baldin eta aldaketa ezustekoa bada eta kontratuaren hasierako prezioa ehuneko 20 baino gehiago aldatu nahi bada (BEZa barne).

Lehen liburuaren VII. tituluan, kontratazioaren arloko baliogabetasuna eta erreklamazioak arautzen dira. Hain zuzen ere, honetaz ezartzen den erregulazioa azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezartzen duenaren oso antzekoa da, nahiz eta errege lege-dekretuaren arabera zilegi izan gatazkak auzibidetik kanpo ebaztea. Kontratazioa deuseza izateko arrazoiei honako hau gehitzen zaie: Europar Batasunaren zuzenbidearen arau-hauste larria egitea (aurretik Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren arau-hausteari buruzko ebazpena beharko da). Gainera, errege lege-dekretu honi lotutako kontratuak deusezak izateko arrazoietan sartzen dira honako hauek: haiek aldatzeko eskatzen diren inguruabarrak eta baldintzak ez betetzea, mandatura ematea zerbitzuak zuzenean bitarteko propioekin emateko eta kontratua enpresa elkartu edo baterako enpresa batekin sinatzea horretarako ezarritako baldintzak bete gabe.

Azkenik, lehen liburuaren VIII. tituluan, arlo honetako informazioaren eta antolamendu administratiboaren inguruko betebeharrak ezartzen dira. Betebehar horien arabera, aurrerantzean Administrazioak zorrotzago kontrolatuko du kontratazio publikoa, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezartzen duenaren ildoari jarraituz; kontrol horren ardura Europako Batzordeak edukiko du, eta, egiteko hori betetzeko, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak kontratuei buruz ematen dion informazioa erabiliko du. Azkenik, kontratazio publikoaren arloan eskumenak dauzkaten kide anitzeko hiru organoen eskemari dagokionez (azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezartzen du hori, eta hauek dira organoak: Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea, Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzak Komitea eta Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea), errege lege-dekretu honek ezartzen du organo horiek guztiek beren eskumeneko dituztela errege lege-dekretuari lotutako kontratu guztiak.

IV

Errege lege-dekretu honen bigarren liburuaren I. tituluan, aseguruak arautzen dira. Bertan, honako zuzentarau honen transposizioa egiten da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/97 Zuzentaraua, 2016ko urtarrilaren 20koa, aseguruak banatzeari buruzkoa. Tituluak lau kapitulu dauzka.

Aseguru eta berraseguruak banatzeari buruz Batasuneko estatuak dituzten xedapenak desberdinak ziren beren artean; bada, hori kontuan hartuta, eta gogoan izanik arlo honetako jarduna erraztu behar zela, 2016/97 (EB) Zuzentarauak (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko urtarrilaren 20koa, aseguruak banatzeari buruzkoa) hainbat aldaketa egin zituen 2002/92/EE Zuzentaruaren (Europako

Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2002ko abenduaren 9koa, aseguru-bitartekaritzari buruzkoa).

Zuzentarau hori Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzeko, ezinbestekoa zen aldaketa garrantzitsuak egitea 26/2006 Legean (uztailaren 17koa, aseguru eta berraseguru pribatuetak bitartekaritzari buruzkoa). Horregatik, eta aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuen banaketan informazio-betebeharrak sendotu behar zirenez gero besteak beste, egokitzen jo zen lege-mailako arau bat prestatzea eta uztailaren 17ko 26/2006 Legea ordeztzea. Banaketa-bide guztien arteko lehia ekitatiboa izatea zen horren helburua; horrela, bezero guztiak antzeko arauz baliatu ahal izango ziren, eta, horren ondorioz, denen babesna hobetuko zen.

I. kapituluaren objektua ezartzen da; helburu nagusia honako hau da: aseguru-hartzaileen, aseguratuaren eta aseguru-kontratuaren onuradunen eskubideen babesna bermatzea, bai eta aseguru-produktuen kontratazioan askatasuna bermatzea ere. Kapitulu horretan, honako hauek ere ezartzen dira: errege lege-dekretuaren bigarren liburuaren I. tituluaren aplikatzen diren definizioak, horien esparru objektiboa eta subjektiboa, eta aseguru- eta berraseguru-banatzaileren erregistratu beharra.

Aseguru-erabiltzaile guztiek babes-maila bera eduki dezaten, aseguru osagarrien bitartekariaren figura zehazten da; hona: pertsona fisiko edo juridikoa, kreditu-entitate edo inbertsio-enpresez bestelakoa, ordainsari baten truke aseguru osagarriak banatzen diharduena, baldin eta beraren jardura profesional nagusia ez bada aseguruak banatzea eta ondasun edo zerbitzu baten osagarri diren aseguru-produktu jakin batzuk besterik banatzen ez badu. Bitartekari horiek ezin izango dute eskaini ez bizi-aseguruaren ez erantzukizun zibilaren estaldura, honako kasu honetan izan ezik: aseguruak berak ematen duen zerbitzu edo ondasun baten osagarria denean.

II. kapituluaren ezartzen da nola banatzen diren eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean. Aseguru-hartzaileak eta aseguruen onuradunak ahalik ondoen babestu nahian, eta Espainiako Konstituzioak 149. artikulua 1. apartatuaren 6., 11. eta 13. puntuetan ezartzen duenarekin bat etorritik, Estatuaren esku dago aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jardueren gaineko kontrol ekonomiko-finantzarioa. Horretarako, ezinbestekoa da lankidetzaren egokian jardutea Estatuak eta aseguruen antolamenduaren gaineko eskumenak bereganatuak dituzten autonomia-erkidegoek, informazio dokumentala homogeneoa izan dadin eta gainbegiratze-lanak koordinatuta egin ditzaten. Horrez gainera, aseguru- eta berraseguru-banatzaileren erregistro administratiboa arautzen da. Honako hauek erregistro horretan inskribatu behar dira jarduerari ekin aurretik: aseguru-bitartekariak, aseguru osagarrien bitartekariak, aseguru-artekariak eta berraseguru-artekariak.

III. kapituluaren, egoitza Espainian duten aseguru- eta berraseguru-banatzaileren jarduerak arautzen dira, aseguru-banatzailak sailkatzen dira eta, lehenengoz, aseguru- eta berraseguru-entitateek aseguruak eta berraseguruak banatzen jarduteko bete beharreko baldintzak arautzen; horretarako, ezartzen du entitate horien plantillako langileek sustatu ahal izango dutela beren entitatearen aldeko aseguruak eta berraseguruak kontratatzea, eta produktuok entitateak berak zuzenean banatuko balitu bezala izango dela. Gainera, aseguru- eta berraseguru-entitateek barruko erregistroa eduki beharko dute; erregistro hori Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kontrolatuko du, eta bertan banaketa-lanetan zuzenean aritzen diren enplegatuak inskribatu beharko dira, bai eta banaketaren ardura daukan pertsona edo, bestela, banaketaren ardura daukan zuzendaritza-organoko pertsonak ere. Orobat, aseguru- eta berraseguru-entitateek baldintzak betetzen diren egiaztatzeke ezartzen diren politikak eta barne-prozedurak ondo gauzatzea bermatzen duen funtzioa sortu beharko dute.

Beste alde batetik, aseguru-agenten jardunaren araubide orokorra ezartzen da, eta, gero, agente-mota bakoitzak (aseguru-agente eskusiboak eta lotutako aseguru-agentek) bete beharreko baldintzak zehazten dira. Aseguru-agente eskusiboek dagokienez, aseguru-entitateek baimena eman ahal izango diete beste agentzia-kontratu bat sinatzeko beste aseguru-entitate batekin; halakoetan, bien arteko akordioan ezarritakoa bete beharko da, ezertan eragotzi gabe aseguru-agente eskusiboen sareak lagatzeko akordioak.

Gainera, titulu honetan honako figura hauek zehazten eta arautzen dira: banku-aseguruen operadorea, aseguru-artekaria eta berraseguru-banatzaila (berraseguru-entitateen langilea zein berraseguru-artekaria).

Halaber, jarduera horretarako oso garrantzitsuak diren alderdiak arautzen dira: aseguru- eta berraseguru-banatzailen prestakuntzarako ikastaroak, gatazkak ebazteko mekanismoak eta aseguru-erabiltzaileen babes administratiboa.

III. kapituluan, berrikuntzak sartzen dira; hona garrantzitsuenetako bat: zehatz-mehatz arautzen da aseguru-produktuen bezeroei informazioa emateko betebeharra; hain zuzen ere, zehazten da zer informazio orokor eman behar duten aurretik aseguru-entitateek, zer informazio eman behar duten aurretik aseguru-bitartekariak, zer informazio eta aholkularitza eman behar diren aseguru-kontratua sinatu aurretik, eta nolakoa izan behar den bizi-aseguruz bestelako aseguruen kontratuak sinatu aurreko informazioa emateko agiria. Hori dela eta, kontuan eduki behar dira honako hauen arteko desberdintasunak: batetik, salmenta informatua, hau da, bezeroaren eskaeren eta beharrezkoen arabera salmenta, hark emandako informazioaz baliatuz egiten dena, eta helburutzat daukana bezeroari aseguru-produktuari buruzko informazio objektibo eta ulergarria ematea, erabaki arrazoitua har dezan; bestetik, salmenta aholkatua, hau da, bezeroari aseguru-kontratu bati edo gehiagori buruzko gomendio pertsonalizatua eginez gauzatzen dena, berak eskatuta edo aseguru-banatzailaren ekimenez.

Betebehar garrantzitsua ezartzen da: aseguru-kontratua sinatu aurretik aseguru-banatzailak hargatik jasoko duen ordainsariaren berri azaldu behar dio bezeroari. Aseguru-bitartekariaren kasuan, aurrekoaz gainera, bezeroari argitu behar zaio zeren trukean egingo diren kontratatutakoaren inguruko lanak: ordainsaria, komisioa, lansaria (are aseguru-kontratua dela-eta eskaintzen edo ematen den edozein onura ekonomikoa ere) edo aurreko sarien konbinazioa. Bezeroak aseguru-bitartekariarekin idatziz adosten badu ordainsariak emango dizkiola, bitartekariak horien zenbatekoaren berri eman beharko dio bezeroari; hori ezinezkoa bada, ordainsariak kalkulatzeko modua azaldu beharko dio.

Are gehiago, bezeroak babestea lehentasuna denez gero, aseguru-entitateek eta aseguru-bitartekariak aseguru-oinarritutako inbertsio-produktuen bezeroei produktuen edo proposatzen zaizkien inbertsio-estrategien berezko arriskuei buruzko orientazioa eta jarraibideak eman beharko dizkiete, kostu eta gastu guztien berri eman beharko diete, eta, behar denean, egokitasunaren analisia egin beharko dute, aseguru-produktua bezeroarentzat egokia dela bermatzeko, hau da, bat datorrela hark onartzen duen arriskuarekin eta jasan dezakeen galera-kopuruarekin. Horretarako, aseguru-banaketan aholkuak emanez dihardutenean, aseguru-entitateek eta aseguru-bitartekariak bezeroen finantzen arloko ezagutzei eta esperientziari buruzko informazioa bildu beharko dute, eta haien finantza-egoeraren berri jakin beharko dute, eta inbertsioaren bidez zer lortu nahi duten ere bai. Aholkurik eskaintzen ez badute, gutxienez bezeroen ezagutzei eta esperientziari buruzko informazioa bildu beharko dute, honako kasu honetan izan ezik: errege lege-dekretu honetan aseguruak uneko salmentaren bidez banatzeko ezartzen diren baldintza guztiak betetzen direnean. Nolanahi ere, aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak, uste badu produktua ez dela egokia bezeroarentzat, horren berri eman beharko dio.

Informazioa emateko behar generikoez gainera, hainbat betebehar gehiago ezartzen dira aseguru-oinarritutako inbertsio-produktuen banaketan aritzen direnentzat, inolako interes-gatazkarik gerta ez dadin. Hori lortzeko, aseguru-entitateek eta aseguru-bitartekariak antolamendu-neurri egokiak ezarri beharko dituzte beren bezeroen interesek kalterik ez jasateko. Gainera, kasuren batean neurriak ez badira nahiko gatazkak sortzeko arrisku guztiak saihesteko, aseguru-kontratua sinatu baino nahiko aurretik jakinarazi beharko diete bezeroei.

Errege lege-dekretuaren bigarren liburuaren I. tituluan, aseguruen arloko salmenta konbinatuak eta lotutako salmentak arautzen dira; erregulazio horretan ezartzen da ezen, aseguru-kontratuarekin batera zerbitzu edo produktu osagarriren bat eskaintzen dutenean, aseguru-banatzailak bezeroei azaldu behar dietela eskaintzako osagai bakoitza bereiz eskura daitekeen edo ez, eta horietako bakoitzaren kostuen eta gastuen berri eman behar

dietela. Aseguru-erabiltzaileen babesa hobetzen da, ezartzen baita ezen, aseguru-kontratu bat aseguruaren arlokoa ez den ondasun edo zerbitzu baten osagarria denean, pakete baten barruan edo akordio baten ondorioz, aseguru-banatzaileak bezeroari eskaini beharko diola ondasuna edo zerbitzua bereizita eskuratzeko aukera, berariaz ezarritako inbertsioko zerbitzu edo produktuetako baten osagarria denean izan ezik; gainera, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak produktu batzuen salmenta debekatu ahal izango du, baldin eta beraren ustez aseguru-erabiltzaileen eskubideak urratzen badira. Nolanahi ere, aseguru-entitateek eta aseguru-bitartekariak zehaztu egin beharko dute zer bete behar duten bezeroek pakete edo akordio baten barruan sartzen diren aseguru-kontratu guztiei dagokienez.

Produktuen diseinuaren, onarpenaren eta kontrolaren inguruko baldintzak eta gobernantzaren arlokoak gogortzen dira. Horrenbestez, produkturen bat saltzeko asmoarekin diseinatzen duten aseguru-banatzaileek produktua onartzeko prozesua prestatu, mantendu eta berrikusi beharko dute produktua merkatuan jarri baino lehen, eta gauza bera egin beharko dute produktua denbora igaro ahala modu nabarmenean aldatzen den bakoitzean; prozesua proportzionala izan behar da, hots, produktuaren izaeraren arabera. Prozesu horretan, produktua zer merkatutarako den zehaztuko da, merkatu horretako arrisku guztiak aztertuko dira eta neurriak ezarriko dira produktuak zehaztutako merkatuan banatzea bermatzeko. Merkaturatzen diren aseguru-produktuak aldizka berrikusi beharko dira; berrikuspenean kontuan eduki beharko dira zehaztutako xedemerkatutarako arriskutsua izan litezkeen inguruabar guztiak, eta honako hauek ebaluatu beharko dira gutxienez: produktuak merkatuaren beharrezan hasieran bezala betetzen ote dituen eta ezarritako banaketa-estrategia hasieran bezain egokia ote den.

Aseguru-erabiltzaileei informazio gehiago ematearekin bat etorritik, aseguru-produktuak diseinatzen dituzten aseguru-banatzaileek produktu horiei eta berorien onarpen-prozesuari buruzko informazio egokia eman beharko diete merkatutzaileei (are produktuaren xede den merkatuari buruzkoa ere).

III. kapituluaren, hauek sartzen dira: arloa antolatze eta gainbegiratzeko eskumenak, lanbide-sekretua gordetzeko betebeharra, beste gainbegiratzaile batzuekin lankidetzan jarduteko betebeharra, Administrazioarekiko erantzukizuna eta arau-hausteen eta zehapenen araubidea. Araubide hori indartzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urtarrilaren 20ko 2016/97 (EB) Zuzentarauak ezartzen duen esparru orokorrarekin bat datozen diru-zehapenak ezartzen dira. Kapitulu honen amaieran, datu pertsonalen babesari buruzko arauak ezartzen dira eta aseguru-bitartekariaren elkargoak eta haien Kontseilu Nagusia aipatzen dira.

IV. kapituluaren, egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten aseguru- eta berraseguru-banatzaileek Espainian duten jardura arautzen da. Aseguru-erabiltzaileen babesa handitu nahian, errege lege-dekretu honetan informazio-betebeharrez eta jokabide-arauak ezartzen diren xedapenak interes orokorreko arauak izango dira, eta egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten banatzaileek bete egin behar dituzte Espainiako lurraldean aseguru-produktuak banatzen dituztenean.

V

Bigarren liburuaren II. tituluaren, zuzentarau honen transposizio partziala egiten da: 2016/2341 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko abenduaren 14koa, enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta haiek gainbegiratzeari buruzkoa.

2003/41/EE Zuzentarauak (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2003ko ekainaren 3koa, enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta haiek gainbegiratzeari buruzkoa) gutxienezko harmonizazioa ezartzen du funts horien inguruko mugaz gaindiko jarduerari dagokienez. Zuzentarau hori erretirorako enplegu-aurreikuspenaren Batasunaren barruko merkatua arautzeko lehen urratsa izan zen; orduan bezala, gaur egun ere ezinbestekoa da Europar Batasunaren ekonomiaren hazkunderako eta enplegua sortzeko, eta gizartearen zahartzeari aurre egiteko ere bai.

2016/2341 (EB) Zuzentaraua (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko abenduaren 14koa) aurreko zuzentarau honen bertsio bategina da: 2003/41/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2003ko ekainaren 3koa. Izan ere, zuzentarau hori indargabetzen du, eta hainbat berrikuntza eta aldaketa sartzen ditu, honako gai hauetan bereziki: enpleguko pentsio-funtsen inguruko mugaz gaindiko jarduera hasteko prozedura eta enpleguko pentsio-funtsen arteko mugaz gaindiko transferentziak; aplikatuko diren inbertsio-arauak; gobernu-sistema; egitekoak kanpora ateratzea; partaide izan daitezkeenei, partaideei eta onuradunei eman beharreko informazioa, eta zuhurtasunezko gainbegiratzea.

Titulu honetan, artikulua bat dago, eta artikulua 38 apartatu dauka. Bertan, Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina aldatzen da (testu hori azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentzarauak ezartzen dituen berrikuntzetatik lege horren erregulazioa ukitzen dutenen transposizioa egiteko. Horrez gainera, aldaketa batzuk egiten dira araugintza-sistema hobetzeko eta Europar Batasunaren arauen aipamenak eguneratzeko.

Arauaren helburu nagusietako bat pentsio-planen partaideei eta onuradunei babes handia bermatzea da.

Partaide izan daitezkeenei, partaideei eta onuradunei eman beharreko informazioa dela eta, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentzarauak IV. tituluaren ezartzen duen erregulazioa zehatzagoa da aurrekoa baino, hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentzarauak ezartzen zuena baino; horren helburua da gardentasun handiarekin ematea aseguru-planen fase guztietan haiei eman beharreko informazioa, batez ere sortutako pentsio-eskubideei, aurreikusitako erretiro-prestazioen mailari, arriskuei, bermeei eta kostuei buruzkoa. Horretarako, 10 bis artikulua gehitzen zaio Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginari; artikulua horretan informazioaren inguruko printzipio orokorrak ezartzen dira (eguneratzea, argitasuna eta doakoa izatea, besteak beste), eta erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntza arautzen da, transposizioa osatzeko.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentzarauaren V. tituluaren agintaritza eskudunen zuhurtasunezko gainbegiratzeari buruzkoa da; hain zuzen ere, 45. artikuluan honako helburu nagusi hauek ezartzen dira: partaideen eta onuradunen eskubideak babestea eta enpleguko pentsio-planen egonkortasuna eta kaudimena bermatzea. Helburu horiek lortzeko, Batasuneko estatuek behar den guztia egingo dute agintaritza eskudunek behar dituzten baliabide, gaitasun eta aginte guztiak eduki ditzaten. Horren transposizioa egiteko, doikuntza batzuk sartzen dira Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren VII. kapituluaren, eta artikulua batzuk gehitzen zaizkio.

Pentsio-funtsek aldi berean bete behar dituzte jatorrizko estatuko zuhurtasunari buruzko arautegia eta xede-estatuko gizarte-arloko eta lan-arloko legeriak. Horrek berekin dakarren segurtasun juridikorik eza murrizteko, transposizio honen bidez argitzen da zer sartzen den partaideak eta onuradunak hobeto babestea helburu daukan zuhurtasunezko gainbegiratzearen barruan, eta hori zeri aplikatuko zaion zehazten da: hornidura teknikoak eta haien finantzaketa; kaudimen-marjina eskatzea; inbertsio-arauak; inbertsioen kudeaketa; gobernu-sistema, eta partaideei eta onuradunei eman beharreko informazioa, besteak beste.

Gainera, bigarren liburuaren II. tituluaren, gobernu-sistemaren erregulazio orokorra ezartzen da: gobernantza sendotzen da eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentzarauaren eskema berrira moldatzen da. Horretarako, Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren VIII. kapituluaren izenburua eta edukia aldatzen dira (testu bategin hori azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen; VIII. kapituluaren pentsio-planen eta pentsio-funtsen inguruko zerga-xedapenak ezartzen ziren). Horrenbestez, VIII. kapituluaren izenburua oraindik aurrera "Gobernu-sistema" izango da, eta bederatzi artikulua edukiko ditu (27. artikulutik 30 sexies artikulura).

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauak 2.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera, zuzentaru hori enpleguko pentsio-funtsei aplikatuko zaie; nolahi ere, Batasuneko estatuek, beren legeriaren arabera funtsek nortasun juridikorik ez badaukate, pentsio-funtsei edo haiek kudeatzeko eta haien izenean jarduteko baimena daukaten entitateei aplikatuko diete. Errege lege-dekretu honetan, pentsio-funts pertsonalen kudeaketa ere gobernu-sistemaren barruan sartzea hautatu da (zeinek banakako sistemako eta sistema elkartuko pentsio-planak garatzen baitituzte), partaideen eta onuradunen babesaren onerakoa izango delako. Nolanahi ere, enplegu-funtsen alderdi batzuk ez dira sartzen sistema horretan.

Gobernu-sistema sendotu nahian, halaber, pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek beren tamainaren arabera eta beren barne-antolamenduarekin eta jarduerekin bat etorriz zer funtsezko eginkizun eduki beharko dituzten arautzen da. Egiteko hauek sartzen dira hor: arriskuak kudeatzea, barne-auditoretza eta, behar den kasuetan, entitate kudeatzaileak pentsio-planen inguruko zerbitzu aktuarialak egiten baditu, egiteko aktuariala. Azken egiteko hori pentsio-planen jardunerako eskatzen diren zerbitzu aktuariaren esparruan arautzen da, eta horrelako zerbitzuak egiten dituztenak hautatzea kontrol batzordearen ardura da.

Halaber, titulu horretan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentaruaren 31. artikulua transposizioa egiten da; horren bidez, baimena ematen zaie Batasuneko estatuei beren lurraldean erregistratutako edo baimendutako pentsio-funtsei aukera emateko jardura guztiak (are funtsezko eginkizunak ere), osorik edo modu partzialean, beren izenean diharduten zerbitzu-emaileen esku uzteko. Hala ere, jardura horiek kanporatzeko bete beharreko baldintzak ezartzen ditu, eta horien artean honako hauek daude: alderdi bakoitzaren eginbeharrak eta eskubideak argi zehazten dituen idatzizko akordio bat egitea zerbitzu-emailearekin eta, funtsezko eginkizunen bat kanporatzen bada, akordioa sinatu aurretik agintaritza eskudunari jakinaraztea. Kanporatzeak inolaz ere ez du ekarriko entitate kudeatzaileak bere legezko betebeharren erantzule izateari uztea.

Beste alde batetik, Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren IX. kapituluko manu batzuk aldatzen dira, kontrol-neurri bereziei eta arau-hauste eta zehapen administratiboaren araubideari buruzkoak, gobernu-sistemak akatsak edukitzea neurri horiek ezartzeko arrazioen artean sartzeko eta hori arau-hauste administratibo berria izateko.

Azkenik, aldaketak egiten dira Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren X. kapituluan (enpleguko pentsio-funtsen inguruko mugaz gaindiko jardura arautzen den kapitulua); aldaketa horien arabera, aurrerantzean enpleguko pentsio-planak Batasuneko estatu guztietako enpleguko pentsio-funtsetan kudeatu ahal izango dira. Atal bat gehitzen da, laugarrena, mugaz gaindiko transferentziei buruz. Atalak hiru artikulua dauka eta honako hauek arautzen ditu: Espainian baimendutako edo erregistratutako enpleguko pentsio-funts batek transferentzia egiten edo jasotzen duen transferentzien alderdi orokorrak eta prozedurak.

VI

Errege lege-dekretuaren bigarren liburuaren III. tituluaren, honako zuzentaru honen transposizio partziala egiten da, aseguruaren sektorean zuzeneko eragina duten gaien dagokienez: 2017/828 (EB) Zuzentaruak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko maiatzaren 17koa, 2007/36/EB Zuzentaruak aldatzen duena akziodunen epe luzerako inplikazioa sustatzeko alorrean.

Horren transposizioak hainbat hobekuntza sartzen ditu Espainian kotizatzen duten sozietateen gobernu korporatiboaren esparruan, azken helburua sozietateek kapital-merkatuen bitartez jasotzen duten epe luzerako finantzaketa hobetzea dela.

Eragotzi nahi da sozietateen kudeaketan epe laburrerako presiorik egotea, epe ertainerako eta epe luzerako hazkunde eta egonkortasun helburuak kontuan eduki ahal izateko; izan ere, horrela jokatzea onuragarria da enpresarentzat, akzioduneez bestelako

interes-talde batzuen ongizaterako (langileak, esaterako), eta ekonomiarentzat, oro har, krisiei aurre egiteko gaitasuna eta hazkunde agregaturako potentziala hobetuko baitira.

Zuzentarau horrek dio sarritan inbertsioak egiten dituzten erakundeek eta aktiboek kudeatzaileek ez dutela gardentasunarekin jokatzen beren inbertsio-estrategiei eta inplikazio-politikei dagokienez, ez eta horien aplikazioei dagokienez ere. Informazio hori argitaratzea onuragarria izan liteke inbertsiogileen kontzientziatorako; azken onuradunei (pentsiodun izango direnei), adibidez, beren inbertsioen inguruko erabaki onenak hartzen lagundu diezaike, sozietateen eta akziodunen arteko elkarrizketarako bideak ezar ditzake, akziodunen inplikazioa sustatu dezake eta lagungarria izan daiteke interesdunei eta gizarte zibilari hobeto emateko kontuen berri.

Aseguruen sektoreari dagokionez, zuzentarau horren transposizio partziala egiteko, 20/2015 Legea aldatzen da (uztailaren 14koa, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena); hain zuzen ere, bi artikulua gehitzen zaizkio, 79 bis eta 79 ter, honako gai hauei buruzkoak: bizi-aseguruetan jarduteko baimena duten aseguru-entitateek eta bizi-aseguruen betebeharrak betetzen dituzten berraseguru-entitateek jarraitu beharreko inplikazio-politika eta inbertsio-estrategia.

Beste alde batetik, uztailaren 14ko 20/2015 Legean aldaketa bat egiten da, honako hau txertatzeko: aseguru- eta berraseguruen arloko zuhertasunezko neurriei buruz Europar Batasunak eta Ameriketako Estatu Batuek egindako alde biko akordioa.

Akordioaren 9. artikuluan, akordioaren aplikazioari buruzkoa bera, honako hau ezartzen da: «Alderdiek dagokien agintariei eskatuko diete ez dezatela har inolako neurririk, akordio honetan ezartzen diren baldintza eta betebeharrak guztiekin bat ez datorrenik, berme errealean eta presentzia lokalaren inguruko baldintzak ezabatzearen arloan batez ere, 3. artikulua erekin bat etorritik».

Akordio hori Kontseiluak onartu zuen, 2018ko martxoaren 20an, 2018/539 (EB) Erabakiaren bidez. Geroztik, indarrean jarri da eta Europar Batasuneko Zuzenbidean txertatu da; beraz, Espainian berehala eta zuzenean aplikatu beharreko araua da. Nolanahi ere, egoera argitu nahian eta erregulazio onaren printzipioa aintzat hartuz, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 64. artikulua aldatzen da, presentzia lokalaren inguruko baldintzak ezabatzeko.

VII

Hirugarren liburuaren I. tituluan honako hauen transposizioa egiten da: 2018/1910 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2018ko abenduaren 4koa, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen duena balio erantsiaren gaineko zergaren arau batzuk –Batasuneko estatuen arteko trukeei buruzkoak– harmonizatze eta errazteko; eta 2019/475 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2019ko otsailaren 18koa, 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2008/118/EE Zuzentaraua aldatzen dituena Italiako Campione d'Italia udalerrria eta Luganoko aintzirako urak Batasuneko aduana-lurraldean eta 2008/118/EE Zuzentaruaren aplikazioaren lurralde-esparruan sartzeko.

Horretarako, honako hauek aldatzen dira: 37/1992 Legea, abenduaren 28koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergarena; 38/1992 Legea, abenduaren 28koa, Zerga Bereziarena, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartu zena.

VIII

Hirugarren liburuaren II. tituluan, zuzentarau honen transposizioa egiten da: 2017/1852 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2017ko urriaren 10ekoa, Europar Batasunaren barruko zerga-azuiak konpontzeko mekanismoei buruzkoa, auziok adiskidetasun-prozeduren bidez konpontzeko esparrua harmonizatzen duena eta segurtasun juridikoa sendotzen duena. Horretarako, honako bi lege hauen testu bateginak aldatzen dira: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zena, eta 29/1998 Legearen testu bategina, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena.

IX

Errege lege-dekretu honek hamazazpi xedapen gehigarri dauzka. Xedapen horietan honako alderdi hauek arautzen dira: tratu txarragoa ez emateko klausula; balio erantsiaren gaineko zerga; sektore publikoko entitate kontratatzaileen langileen erantzukizuna; irisgarritasuna; errege lege-dekretu honen esparrutik kanpo dauden eta sektore publikoko entitateek egiten dituzten kontratuen araubide juridikoa; Europar Batasunak finkatutako zenbatekoak eguneratzea; azpikontratisten zuzeneko ordainketak; kontratuak eta informazioa bidaltzea Kontu Nazionalen Batzorde Teknikora; I. eranskineko zerbitzu-emakidako kontratuei eta zerbitzu sozialen, osasun-zerbitzuen edo hezkuntza-zerbitzuen kontratuei aplikatu beharreko printzipioak; 9/2017 Legearen 324. artikulua baimenak (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora); aseguru-bitartekariak, aseguru osagarrien bitartekariak, berraseguru-artekariak eta aseguru- eta berraseguru-banatzzaileen goi kargudunak aseguru- eta berraseguru-banatzzaileen erregistro administratiboan inskribatzeagatik ordaindu beharreko tasa; aseguru- eta berraseguru-banatzzaileen eta banaketan diharduten gainerako pertsonen prestakuntza-programen baldintzak eta oinarriko printzipioak; kontratu aurreko dokumentazioa gordetzea; baliabideak berresleitzea (errege lege-dekretu hau betetzeak dakartzan betebeharrak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren baliabide arruntak berresleitez beteko dira, doikuntza gehigarriak egin gabe); pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateak pentsio-funtsen gobernu-sistemako arauetara moldatzea; Estatuko Portuak erakundearen eta portu-agintaritzen kontratazio-araubidea, eta zerbitzu intelektualak kontratatzeako arau bereziak.

Gainera, errege lege-dekretu honek zortzi xedapen iragankor dauzka (araubide juridiko berrirako bidea arautzen dute), xedapen indargabetzaile bakarra, hamasei azken xedapen eta hamabi eranskin.

Azken xedapenetako lehen bostetan arautegiko aldaketak ezartzen dira. Hurrengoetan honako gai hauek arautzen dira: babes-klausula; eskumen-tituluak; Nafarroako Foru Komunitaterako eta Euskal Autonomia Erkidegorako xedapenak; legeria osagarria; Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea; arauak emateko gaikuntza; indarrean jartzea.

Azkenik, hamabi eranskin daude: hamaika, kontratazioari buruzkoak, eta, hamabigarrena, langileen gaitasunen eta lanbide-ezagutzen inguruko gutxieneko baldintzei buruzkoa.

X

Errege lege-dekretu hau koherentea da erregulazio onaren printzipioekin (printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen dira).

Aurreko paragrafoetan azaldutakoak agerian jartzen du bete egiten direla beharizanari eta egokitasunari buruzko printzipioak. Errege lege-dekretu hau bat dator proportzionaltasunaren printzipioarekin, aipatutako helburuak lortzeko ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen baitu eta aldi berean segurtasun juridikoaren printzipioari egokitzen baitzaio.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez, ez da kontsulta publikoaren izapidea bete, ez eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea ere, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.11 artikulua salbuespen hori ezartzen baitu. Nolanahi ere, errege lege-dekretu honen lehen liburuen ezaugarri hau azpimarratu behar da: beraren izapidetze administratiboaren kontratazioaren arloko lege baten aurreproiektuarena bezalakoa izan da; izan ere, Ogasun Batzordeak izendatutako batzorde txostengileak onartu du (legegintza-eskumen osoa eduki du Diputatuen Kongresuan). Batzorde txostengile horrek onartutako lege-testu artikulatua errege lege-dekretu honi eransten zaio, azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin ondo koordinatzeko egin behar izan diren zuzenketa tekniko bakan batzuk eginda; horretan, Estatu Kontseiluaren 1209/2006 Irizpenak ezartzen

duen doktrina hartu da aintzat, eta 2014/23/EB eta 2014/25/EB zuzentarauen transposizio egokia egin da. Gainera, errege lege-dekretu honetan, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikulua ere erantsen da; bertan behera gelditutako Estatuko 2019ko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektuan (2019ko urtarrilaren 16ko BOC) zectorren artikulua hori. Hain zuzen ere, segurtasun juridikoa dela eta, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118.3 artikulua eragiten dituen arazo tekniko larriak ahalik azkarren konpondu behar dira, artikulua horrek eskatzen baitu ezen, kontratu txikiak sinatzeko, ezinbestekoa dela kontratistak sinatutako kontratu txiki guztien guztirako zenbatekoa ez izatea azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 118.1 artikuluan ezartzen duena baino gehiago. Orobat, batzorde txostengileak onartutako lege-testuko atalaseak aldatzen dira, 2014/23/EB eta 2014/25/EB zuzentarueta Batzordearen 2019ko urriaren 30eko 2019/1827 Erregelamenduak eta 2019/1829 Erregelamenduak hurrenez hurren egindako aldaketekin bat etorriz.

Ildo beretik, bai Aseguru eta Berraseguruak Banatzeari buruzko Legearen proiektuan, bai Pentsio Planak eta Funtsak arautzeko Legearen testu bategina (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) aldatzen duen Legearen aurreproiektuan (xedearen transposizioa egitea da: 2016/2341 (EB) Zuzentaruak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko abenduaren 14koa, enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta haiek gainbegiratzeari buruzkoa), bai Kapital Sozietateen Legearen testu bategina (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta beste finantza-arau batzuk kotizatutako sozietateetako akziodunen epe luzerako inplikazioaren sustapenari dagokionean aldatzen dituen Legearen aurreproiektuan, lege horrek 26.2 artikuluan arautzen duen kontsulta publikoaren izapidea egin da, bai eta 26.6 artikuluan arautzen den entzunaldi eta informazio publikoaren izapidea ere, pertsonen eskubide eta interes legitimoak eragiten diete eta. Azkenik, efizientziaren printzipioari dagokionez, zama administratiboak apur bat handitzea ekarriko badu ere, zama horiek ezinbestekoak dira eta ez dira inolaz ere alferrekoak.

Segurtasun juridikoaren printzipioaz denaz bezainbatean, batzorde txostengileak Kongresuan kontratazioaren arloan onartutako testu artikulatua txertatuta zeuden jada behar ziren doikuntzak, arau hori azaroaren 8ko 9/2017 Legearen egokitzearen ondorioz, haren txostenean (BOCG, 2019-01-28koa) adierazten den bezala. Gainera, testua bat dator Estatuko gainerako ordenamendu juridikoarekin, bai eta Europar Batasunaren ordenamendu juridikoarekin ere. Testua, izan ere, Espainiako Zuzenbidera aipatutako zuzentarauen transposizioa egiteko beharrak ekarri du.

Azkenik, efizientziaren printzipioarekin bat etorriz, ahaleginak egin dira errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurriek ahalik eta karga administratibo txikiak sortzeko herritarrei, eta ahalik eta zeharkako kostu gutxien eragiteko, baliabide publikoak zentzuz erabiltzea sustatuz; are gehiago, neurrietako batzuek karga horiek murriztuko dituzte. Horren ildotik, zerga-administrazioak zergadunen jarduna kontrolatu ahal izateko benetan ezinbestekoak diren datuak eta agiriak baino ez zaizkie eskatzen horiei.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioak 149.1 artikulua 6., 8., 11., 13., 14. eta 18. puntuetan xedatzen duenaren babesean ematen da. Puntu horietan Konstituzioak Espainiako Estatuari esleitzen dizkio honako gai hauen gaineko eskumen eskusiboak, hurrenez hurren: merkataritzako legeria; legeria zibila; aseguruaren oinarriak eta koordinazioa; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; ogasun publikoa; administrazio-kontratu eta -emakiden gaineko oinarritzko legeria.

Horregatik guztiagatik, xedearen zein den ikusita eta ahalik azkarren aplikatu behar dela kontuan hartuta, errege lege-dekretu honen beharrezana apartekoa eta presakoa da, Espainiako Konstituzioak 86. artikuluan eskatzen duen bezala.

Horrela, bada, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenez baliatuta, Ogasuneko ministroak eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2020ko otsailaren 4an eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

LEHEN LIBURUA

Honako hauen transposizioa: 2014/25/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan jarduten duten entitateen kontratazioari buruzkoa; 2014/23/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, emakida-kontratuaren adjudikazioari buruzkoa

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Objektua eta definizioak

1. artikulua. *Errege lege-dekretu honen lehen liburuaren objektua.*

1. Errege lege-dekretu honen objektua, lehen liburuan, obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuaren adjudikazioa arautzea da; zehazki, 5. artikuluan aipatzen diren erakunde publikoek eta entitate pribatuek egiten dituzten kontratuak arautzea 8. artikulutik 14.era agertzen diren jardueretako baten edo gehiagoren esparruan. Kontratuok, halere, balio zenbatetsi hau edo handiagoa behar dute arautze horretan sartzeko:

- a) I. eranskinean zehazten diren gizarte-zerbitzuen eta beste zerbitzu berezi batzuen kontratuak: 1.000.000 euro.
- b) Hornidura-kontratuak eta aurreko letrakoak ez beste zerbitzu-kontratuak, eta proiektu-lehiaketak: 428.000 euro.
- c) Obra-kontratuak: 5.350.000 euro.

2. Halaber, errege lege-dekretu hau 5.1 artikuluan aipatzen diren erakundeek eta entitateek lizitatzen dituzten obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak adjudikatzeko prozedurei ere aplikatuko zaie, baldin eta, kontratuaren xedea errege lege-dekretu honen 9. artikulutik 14.era aipatzen diren jardueretako bat edo gehiago izanik, beraren balio zenbatetsia 5.350.000 euro edo gehiago bada.

Nolanahi ere, errege lege-dekretu honen aplikazio-esparrutik kanpo daude honako emakida-kontratu hauek:

- a) Uraren sektoreko jardueretako batzuk (8. artikulua, 1. eta 2. apartatuak) xede dituzten obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuak.
- b) CPV 92351100-7 kodeko loteria-zerbitzuen emakida-kontratuak, baldin eta entitate kontratatzaileak eskubide eskusibo batean oinarrituta adjudikatzen badio kontratua operadore ekonomiko bati.

Horrelako eskubide eskusiboen esleipenak *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu behar dira. Eta eskubide eskusiboaren kontzeptuan ez dira sartzen 6.2 artikuluan aipatzen diren eskubide eskusiboak.

c) Zerbitzu-emakidako kontratuak, baldin eta entitate kontratatzaileak aplika daitekeen arau, erregelamendu edo xedapen administratibo baten arabera daukan eskubide eskusibo batean oinarrituta adjudikatzen badio operadore ekonomiko bati, eta emakida bat badator Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuarekin eta errege lege-dekretu honen 9. artikulutik 14.era aipatzen diren jardueri aplikatzen zaizkien merkatuan aritzeko arau komunak ezartzen dituzten Europar Batasunaren egintza juridikoekin.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatzen den Europar Batasunaren legeria sektorialean ez bada ezartzen gardentasun-betebeharrik, 79. artikulua aplikatuko da, formalizazioaren iragarkari buruzkoa.

Entitate kontratatzaile batek operadore ekonomiko bati eskubide eskusiboa ematen badio errege lege-dekretu honen 9. artikulutik 14.era aipatzen diren jardueretako bat egiteko, horren berri eman beharko dio Europako Batzordeari eskubidea ematen duen egunetik hilabete pasatu baino lehen.

d) Aireko garraioko zerbitzuen emakida-kontratuak, ustiatzeko lizentzia batean oinarrituak, 1008/2008 (EB) Erregelamenduaren araberrakoak (1008/2008 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko irailaren 24koa, Batasunaren esparruan aireko garraioko zerbitzuak ustiatzeari buruzko arau komunak ezartzen dituen), edo bidaiarien garraioko zerbitzu publikoen emakida-kontratuak, 1370/2007 Erregelamenduaren araberrakoak (1370/2007 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2007ko urriaren 23koa, bidaiarien trenbideko eta errepideko garraio-zerbitzu publikoei buruzkoa eta Kontseiluaren 1191/69 (EEE) Erregelamendua eta 1107/70 del (EEE) Erregelamendua indargabetzen dituen).

2. artikulua. *Definizioak.*

Errege lege-dekretu honen lehen liburuaren ondorioetarako definizio hauek ezartzen dira:

a) «Hornidura, obra eta zerbitzuen kontratuak»: errege lege-dekretu honen esparruko entitate kontratatzaile batek edo batzuek enpresa batekin edo batzuekin kostu bidez eta idatziz egiten dituzten kontratuak, objektua obrak egitea, produktuz hornitzea edo zerbitzuak ematea izanez gero.

b) «Obra-kontratua»: objektu hauetako bat daukan kontratua:

1.a Obra bat egitea, bereizirik edo proiektua idaztearekin batera, edo II. eranskinean aipatzen diren lanetako bat egitea.

2.a Obra motan edo obra-proiektuan eragin erabakigarria duen entitate kontratatzaile batek finkatutako baldintzak betetzen dituen obra bat egitea, edozein bidez.

c) «Obra»: ondasun higiezin batean eginkizun ekonomikoa edo teknikoa betetzeko egiten diren eraikuntzako edo ingeniariaritzako zibileko lanen multzoa.

Halaber, obratzat joko da luraren edo haren hegalaren forma nahiz funtsa aldatzen duten edo ingurune fisiko edo naturala hobetzen duten lanak egitea.

d) «Hornidura-kontratua»: kontratu honen objektua produktuak erostea, epeka erostea, finantza-errentamenduan hartzea edo erosteko aukerarekin zein halakorik gabe errentan hartzea da. Hornidura-kontratuan, produktua jartzeko eta instalatzeko lanak ere ezar daitezke, osagarri modura.

e) «Zerbitzu-kontratua»: kontratu honen objektua jarduera bat garatzeko edo obra edo hornidura bat ez den beste emaitza bat lortzeko ematen diren zerbitzuak dira.

f) «Obra-emakida»: honelako kontratuak obra-kontratuak bezalakoak dira, baina aldaketa batekin: obraren ordaina obra ustiatzeko eskubidea izaten da, edo eskubide hori eta prezio bat. Nolanahi ere, obra ustiatzeko eskubideak berekin ekarri behar du emakidadunari transferitzea eragiketa-arriskua (horren adiera artikuluko honen h) letran zehazten da).

g) «Zerbitzu-emakida»: honelako kontratuak zerbitzu-kontratuak bezalakoak dira, baina aldaketa batekin: zerbitzua ematearen ordaina zerbitzua ustiatzeko eskubidea izaten da, edo eskubide hori eta prezio bat. Nolanahi ere, zerbitzua ustiatzeko eskubideak berekin ekarri behar du emakidadunari transferitzea eragiketa-arriskua (horren adiera artikuluko honen h) letran zehazten da).

h) «Eragiketa-arriskua»: emakidadunak, arrisku hau hartzen badu bere gain, merkatuko baldintza arruntetan ez dauka bermatuta ez egindako inbertsioak berreskuratzea, ez emakidako obrak edo zerbitzuak ustiatzearen ondorioz izan dituen kostuak estalita egotea. Emakidadunari transferitutako arriskuak merkatuko ziurgabetasunen aurreko esposizio erreala ekarriko du; beraz, emakidadunak jasaten duen galera potentzial oro ez da izango galera nominal hutsa, baizik eta kontuan hartzeko modukoa.

Arrisku horretan eskari-arriskua edo hornidura-arriskua sartzen da, edo biak. Hori dela eta, hauxe da «eskari-arriskua»: kontratuaren objektua diren obren edo zerbitzuen benetako eskariari zor zaiona; ildo beretik, «hornidura-arriskua» honako hau da: kontratuaren objektua diren obren edo zerbitzuen hornidurari dagokiona, batez ere egiten den zerbitzua eskatutakoa ez izateko arriskua.

i) «Operadore ekonomikoa»: pertsona fisikoa edo juridikoa, erakunde publikoa edo halako pertsona, erakunde edo entitateen taldea (are aldi baterako enpresa-elkartea ere), merkatuan obren eraikuntza, produktuak edo zerbitzuak eskaintzen dituena.

j) «Lizitatzaila»: eskaintza aurkeztu duen operadore ekonomikoa.

k) «Hautagaia»: lizitazio-prozedura murriztu edo negoziatu batean, lehia-elkarrizketa batean edo berrikuntzarako elkartzeko prozedura batean parte hartzeko gonbidapena eskatu duen edo jaso duen operadore ekonomikoa.

l) «Baldintza-agiriak»: entitate kontratatzaileak kontratazioaren edo prozeduraren elementuak deskribatzeko edo zehazteko egiten edo aipatzen dituen agiri guztiak, honako hauek batez ere: lizitazioaren deialdi gisara argitaratzen diren lizitazioaren iragarkia, kontratazioen berri emateko aldizkako iragarkiak edo sailkapen-sistemaren berri emateko iragarkiak; preskripzio teknikoak; deskripzio-agiria; proposatzen diren kontratuaren baldintzak; hautagaiek eta lizitatzailiek aurkeztu beharreko agiriaren formatuak; orokorrean aplikatuko diren betebeharre buruzko informazioa; gainerako agiri guztiak. Definizio hau erabiltzeko asmo bakarra testua erraztea izango da.

m) «Zentralizatutako erosketa-jarduerak»: honako jarduera hauek, modu iraunkorrean eginez gero:

1.a Hornigaiak edota zerbitzuak eskuratzea entitate kontratatzaileentzat.

2.a Entitate kontratatzaileei obrak, hornidurak edo zerbitzuak egiteko kontratuak adjudikatzea edo esparru-akordioak egitea.

n) «Erosketa-jarduera osagarriak»: erosketa-jarduerei laguntzeko jarduerak, honako hauek batez ere:

1.a Azpiegitura teknikoak, entitate kontratatzaileek obra, hornidura edo zerbitzuen kontratu publikoak adjudikatzeko edo esparru-akordioak sinatzeko erabil ditzaketanak.

2.a Kontratazio-prozedurak egiteko moduari edo haien kontzepzioei buruzko aholkularitza.

3.a Kontratazio-prozedurak prestatzea eta kudeatzea entitate kontratatzailearen izenean eta beraren kontura.

ñ) «Erosketa-zentrala»: entitate kontratatzailea, erosketa-jarduera zentralizatuak eta, behar denean, erosketa-jarduera osagarriak egiten dituena. Errege lege-dekretu honen ondorioetarako, erosketa-zentralak entitate kontratatzailetzat joko dira.

Erosketa-zentralek erosketa-jarduera zentralizatuak egiteko egiten dituzten kontratazioak errege lege-dekretu honetan arautzen diren jarduera egiteko kontrataziotzat hartuko dira.

o) «Kontratazio-zerbitzuak egiten dituena»: erakunde publikoa edo entitate pribatua, merkatuan erosketa-jarduera osagarriak eskaintzen dituena.

p) «Idazkia» edo «idatzia»: hitzez edo zifraz eraturako adierazpena, irakurri, kopiatu eta komunikatu daitekeena, are baliabide elektronikoen bidez zabaltzen eta gordetzen den informazioa ere.

q) «Baliabide elektronikoa»: hariz, irrati, kable optikoz edo beste baliabide elektromagnetikoren baten bidez transmititzen, bidaltzen eta jasotzen diren datuak tratatzeko (trinkotze digitala barne) eta gordetzeko tresna elektronikoak erabiltzen dituen baliabidea.

r) «Bizi-zikloa»: produktu, obra edo zerbitzu baten existentzian zehar hura deuseztatu, eraitsi edo erabiltzeari utzi arte ondoz ondo edo elkarrekin lotuta gertatzen diren fase guztiak, eta honako hauek batik bat: egin beharreko ikerketa eta garapena; fabrikazioa edo produkzioa; merkaturatzea eta hartan gertatzen diren baldintzak; garraio, erabilera eta mantentzea; behar diren lehengaiak eskuratzea eta baliabideak sortzea.

s) «Proiektu-lehiaketa»: prozedura honen bitartez, epaimahai batek hautatutako planak edo proiektuak eskuratzen dituzte entitate kontratatzaileek, lizitazioa egin ondoren (sariekin zein saririk gabe), batez ere honako esparru hauetan: lurralde-antolamendua; hirigintza; arkitektura; ingeniari-tza; datuen tratamendua.

t) «Berrikuntza»: produktu, zerbitzu edo prozesu berria edo erabat hobetua sartzea, helburua Europa 2020 estrategiaren erronkak gainditzea dela, besteak beste; berrikuntza honako hauetan gerta daiteke, besteak beste: ekoizpen-prozesuak; eraikuntzako prozesuak; merkaturatze-metodoak; enpresa-jarduna antolatzeko metodoak; lantokiaren antolamendua; kanpo-harremanak.

u) «Etiketeta»: obra, produktu, zerbitzu, prozesu edo prozedura jakin batek baldintza jakin batzuk betetzen dituela frogatzen duen edozein dokumentu, ziurtagiri edo egiaztagiri.

v) «Etiketarako aplikatzen diren baldintzak»: obra, produktu, zerbitzu, prozesu edo prozedura jakin batek etiketa lortzeko behe behar dituen baldintzak.

w) «Posta-bidalketa»: bildu, garraiatu eta emango den behin betiko formarekin aurkeztu ondoren bidaltzaileak gainean edo bilgarrian adierazitako helbidera bidali beharreko objektua. Korrespondentzia-bidalketak ez ezik, honako hauen bidalketak ere sartzen dira kontzeptu honetan: zuzeneko publizitatea, liburuak, katalogoak, egunkariak, aldizkariak eta posta-paketeak, bidaltzen denak merkataritza-balioa eduki zein ez eduki, eta pisua gorabehera.

x) «Posta-zerbitzuak»: posta-bidalketak jasotzea, onartzea, sailkatzea, garraiatzea, banatzea eta ematea.

y) «Eskubide eskusiboa»: administrazio publiko bateko organo eskudun batek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuarekin bat datorren lege-xedapen, arau-xedapen edo administrazio-xedapen bat dela bide emandako eskubidea, jarduera batean aritzeko ahala operadore ekonomiko bakar batek edukitzea dakarrena eta gainerako operadore ekonomiko guztiak jarduera horretan aritzeko ahalean eragin handia daukana.

z) «Eskubide berezia»: administrazio publiko bateko organo eskudun batek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuarekin bat datorren lege-xedapen, arau-xedapen edo administrazio-xedapen bat dela bide emandako eskubidea, jarduera batean aritzeko ahala operadore ekonomiko batzuek bakarrik edukitzea dakarrena eta gainerako operadore ekonomiko guztiak jarduera horretan aritzeko ahalean eragin handia daukana.

3. artikulua. *Nomenklatura.*

Errege lege-dekretu honetan arautzen diren kontratuko prestazioak identifikatzeko, «Kontratu publikoen izendegi bateratua» erabiliko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko azaroaren 5eko 2195/2002 (EE) Erregelamenduaren bidez onetsia (2195/2002 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2002ko azaroaren 5ekoa, Kontratu publikoen izendegi bateratua onesten duena).

4. artikulua. *Kontratuen, esparru-akordioen eta eskuratzeko sistema dinamikoaren balio zenbatetsia kalkulatzeko metodoak.*

1. Errege lege-dekretu honetan ezartzen diren ondorio guztietarako, kontratuen balio zenbatetsia honela zehaztuko da:

a) Obren, horniduren eta zerbitzuen kontratuen kasuan, entitate kontratatzaileak bere zenbatespenen arabera ordaintzekoa den zenbateko osoa izango da, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.

b) Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen kasuan, entitate kontratatzaileak hau hartuko du aintzat: bere zenbatespenen arabera enpresa emakidadunak kontratua egikaritzen duen aldian kontratuko obren eta zerbitzuen kontraprestazio gisa sortuko duen negozio-zifraren eta obra eta zerbitzu horiekien lotutako horniduren zenbateko garbia, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.

2. Balio zenbatetsiaren kalkuluan, kontuan hartu beharko dira, gutxienez ere, indarrean diren lan-araudien aplikazioaren ondoriozko kostuak ez ezik, zerbitzuen gauzatze

materialak eragiten dituen beste kostu batzuk eta egituraren gastu orokorrak ere, eta mozkin industrialak ere bai. Halaber, honako hauek ere hartu beharko dira kontuan:

- a) Kontratuaren behin-behineko edozein aukera-modu eta kontratuaren luzapenak.
- b) Hautagaiei edo lizitatzaillei primak ordaintzea edo ordainketak egitea aurreikusitako denean, horien zenbatekoa.
- c) Baldin eta, 110. artikuluan xedatzen denari jarraituz, baldintzen agirian edo lizitazioaren iragarkian kontratua aldatzeko aukera ezartzen bada, aurreikusten diren goranzko aldaketa guztiak kontuan hartuta kontratuak gehienez izan dezakeen zenbatekoa joko da kontratuaren balio zenbatetsizat.

Eskulana garrantzitsua den zerbitzu-kontratuetan eta zerbitzu-emakidako kontratuetan, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektibo sektorialetatik heldutako lan-kostuak hartuko dira bereziki kontuan aurreko paragrafoan aipatzen den lan-araudi indarduna aplikatzean.

3. Aurreko apartatuan ezartzen denaz gainera, obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen balio zenbatetsiaren kalkuluan honako kontzeptu hauek hartuko dira kontuan, behar denean:

- a) Obren edo zerbitzuen erabiltzaileek tasak eta isunak –entitate kontratatzailearen izenean biltzen direnak ez beste batzuk– ordaintzearen ondoriozko errenta.
- b) Entitate kontratatzaileak edo beste edozein agintari publikok emakidadunari egindako edozein eratako ordainketak eta emandako edozein eratako finantza-onurak, horien barnean direla zerbitzu publikoaren betebeharrak bat betetzeagatik jasotzen den kontentsazioa eta inbertsio publikoetarako dirulaguntzak ere.
- c) Emakida gauzatzearen trukean hirugarrenek emandako denetarikoko subsidio edo finantza-onuren balioa.
- d) Emakidaren barruko edozein aktiboren salmentaren prezioa.
- e) Entitate kontratatzaileak emakidadunaren eskura jartzen dituen hornigai eta zerbitzu guztien balioa, obrak egiteko eta zerbitzuak emateko beharrezkoak izanez gero.

4. Balio zenbatetsia kalkulatzeko metodoa hautatzean, asmoa ezin da izan bidezko adjudikazio-arauei itzuri egitea.

5. Entitate kontratatzaileak balio zenbatetsia kalkulatzeko aplikatzen duen kalkulua metodoa nahitaez agertu behar da baldintzen agirian.

6. Entitate kontratatzaile batean hainbat unitate funtzional bereizi badaude, banakako unitate funtzional guztietarako zenbatetsitako balioen batura hartuko da kontuan.

Hala eta guztiz ere, unitate funtzional bereizi batek modu autonomoan badauka bere kontratuen edo haien kategoria jakin batzuen erantzukizuna, kasuko unitatearen mailaren arabera balio zenbatetsia hartu ahal izango da aintzat.

Nolanahi ere, unitate funtzional bereizi batek berariazko finantzaketa badauka eta kontratuaren adjudikaziorako eskumenak badauzka, aurreko paragrafoan aipatzen den inguruabarra gertatzen dela ulertuko da.

7. Zenbatespena merkatuko ohiko prezioak kontuan hartuta egin beharko da; prezio horiek deialdiaren iragarkia bidaltzen den unekoak izan behar dira edo, iragarki hori argitaratu behar ez bada, entitate kontratatzaileak kontratua adjudikatzeko prozedura abian jartzen duen unekoak.

8. Obra-kontratuen balio zenbatetsia kalkulatzeko, obren zenbatekoa hartu behar da kontuan, bai eta kontratua egikaritzeko entitate-kontratzaileak kontratistaren eskura jarritako horniduren edo zerbitzuen balio zenbatetsi osoa ere.

9. Objektuzat finantza-errentamendua, errentamendua edo produktuak epeka saltzea daukaten hornidura-kontratuetan, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, honako balio hau hartuko da oinarritzat:

- a) Iraupen jakineko kontratuetan, iraupena hamabi hilabetekoa edo laburragoa dutenean, kontratuaren iraupenerako zenbatetsitako balio osoa; iraupena hamabi hilabetetik gorakoa dutenean, balio osoa, hondar-balio zenbatetsia barne.

b) Iraupena denbora-tarte jakin bati lotuta ez daukaten kontratuetan, hileko balioa 48z biderkatzearen emaitza.

10. Aldizkakoak diren hornidura-kontratueta eta zerbitzu-kontratueta, edo denbora-tarte jakin batean berri behar diren kontratueta, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko honako zenbateko hauetako bat hartuko da oinarritzat:

a) Aurreko ekitaldian edo aurreko hamabi hiletan hurrenez hurren adjudikatutako antzeko kontratuen benetako balio osoa, hasierako kontratuaren osteko hamabi hiletarako aurreikusitako kopuru- edo balio-aldaketen arabera egokituta, ahal denean.

b) Lehenengo ematea egin eta hurrengo hamabi hiletan edo ekitaldian zehar –hamabi hilabete baino luzeagoa bada– hurrenez hurren adjudikatutako kontratuen balio zenbatetsi osoa.

11. Zerbitzu-kontratueta, balio zenbatetsia kalkulatzeko, honako zenbateko hauek hartuko dira oinarritzat, kasuan kasukoa:

a) Aseguru-zerbitzuetan, ordaindu beharreko prima eta bestelako ordainsari batzuk.

b) Banku-zerbitzuetan eta beste finantza-zerbitzu batzuetan, zerbitzu-sariak, komisioak, interesak eta bestelako ordainsari batzuk.

c) Proiektu bati lotutako kontratueta, zerbitzu-sariak, ordaindu beharreko komisioak eta bestelako ordainsari batzuk, bai eta, behar denean, lehiaketan parte hartzen dutenentzat finkatutako primak edo kontraprestazioak ere.

d) Prezio osoa zehazten ez den zerbitzu-kontratueta, berrogeita zortzi hileko iraunaldia edo laburragoa badute, iraunaldi osoari dagokion balio zenbatetsi osoa. Iraunaldia berrogeita zortzi hilabete baino luzeagoa bada, edo denbora-tarte jakin bati lotuta ez badago, hileko balioa 48z biderkatzearen emaitza.

12. Obra bat gauzatzeak, zerbitzu batzuk kontratatzeak edo erabilera berdin-berdinetarako nahiz antzekoetarako hornidura batzuk lortzeak kontratuak sorta berezietan eta aldi berean adjudikatzea ekar dezakeenean, sorta guztien balio zenbatetsi osoa hartu beharko da kontuan.

Halaber, proposatutako obra batek edo zerbitzu batek obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuen aldibereko adjudikazioa sortaka ematea ekar dezakeenean, sorta guztien guztirako orokor zenbatetsia hartu beharko da kontuan.

Apartatu honen lehen paragrafoan arautzen den kasuan, horniduraren, zerbitzuaren edo obraren sorten balio pilatua 1. artikuluan adierazten den zenbatekoaren bestekoa edo gehiago bada, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren arauak aplikatuko dira sorta bakoitza adjudikatzeko.

Apartatu honen lehen eta hirugarren paragrafoetan xedatzen dena gorabehera, entitate kontratatzaileek honako hauek salbuetsi ahal izango dituzte arau hauetatik: obra-kontratueta, milioi bat eurotik beherako balio zenbatetsia duten sortak, eta, hornidura-zerbitzuetan eta zerbitzu-kontratueta, 80.000 eurotik beherakoa dutenak, baldin eta salbuetsitako sorten guztirako zenbatekoa ez bada sorta guztien balio pilatuaren 100eko 20 baino gehiago.

13. Esparru-akordioetarako eta eskuratzeko sistema dinamikoetarako, horien iraunaldi osorako aurreikusitako kontratu guztien gehieneko balio zenbatetsia hartuko da kontuan, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.

14. Berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, elkartzearen iraunaldi osoan zehar egiteko asmoa dagoen ikerketa-jardueren eta garapen-jardueren eta aurreikusitako elkartzearen amaieran gauzatu edo eskuratu asmo diren hornidura, zerbitzu edo obraren gehieneko balio zenbatetsia hartuko da kontuan, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta.

II. KAPITULUA

Aplikazio-eremu subjektiboa

5. artikulua. *Kontratazioaren arloan errege lege-dekretu hau bete behar duten entitateak.*

1. Errege lege-dekretu honetan arautzen dena bete behar dute 8. artikulutik 14.era aipatzen diren jardueretako bat egiten duten entitate kontratatzaileek.

Halaber, errege lege-dekretu hau bete behar dute hainbat entitate kontratatzailek eraturako elkarteek ere.

2. Errege lege-dekretu honetarako, definizio hauek ezartzen dira:

a) «Entitate kontratatzailea»: azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin bat etorriz administrazio publiko ez diren botere adjudikatzaileak, enpresa publikoak, eta eskubide bereziak edo eskusiboak (6. artikuluan ezartzen denaren arabera) dauzkaten bestelako entitateak.

b) «Botere adjudikatzailea»: azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera izaera hori duten entitateak.

c) «Enpresa publikoa»: merkataritza-sozietate publikoak, eta botere adjudikatzaileek zuzenean zein zeharka eta jabetzaren bitartez edo finantza-partaidetza baten bitartez edo haiei buruzko arauak direla bide nagusitasun-eragina duten entitate eta erakunde guztiak.

Botere adjudikatzaile batek nagusitasun-eragina du enpresa batean honako inguruabarretako bat gertatzen denean:

1.a Enpresaren kapital harpidetuaren gehiengoaren jabea denean.

2.a Enpresak jaulkitako partizipazioei dagozkien boto gehienaren jabea denean.

3.a Enpresaren administrazio-organoko, zuzendaritza-organoko edo zaintza-organoko kide guztien erdiak baino gehiago izendatu ahal dituztenean.

3. Errege lege-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera administrazio publiko diren erakundeek egiten dituzten kontratuak. Kontratu horiek lege horren mendean daude. Kontratu horiei honako kasu honetan soilik aplikatuko zaie errege lege-dekretu hau: kontratuak erregulazio harmonizatuaren aplikazio-esparrukotzat jo behar diren zehazteko.

6. artikulua. *Eskubide bereziak edo eskusiboak.*

1. Errege lege-dekretu honen ondorioetarako, entitate kontratatzaileak honako kasu honetan dauka eskubide bereziak edo eskusiboak, 2. artikulua y) eta z) letretan azaltzen denarekin bat etorriz: eskubide horiek administrazio publiko bateko organo eskudun batek emanez gero Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuekin bat datorren lege-xedapen, arau-xedapen edo administrazio-xedapen bat dela bide, baldin eta xedapen horren ondorioz operadore ekonomiko batek edo batzuek bakarrik badaukate 8. artikulutik 14.era bitarteko jardueretako batean aritzeko ahala eta eragin handia badauka gainerako operadore ekonomiko guztiak jarduera horretan aritzeko ahalean.

2. Publizitate egokia izan duen prozedura baten bitartez, irizpide objektiboak ezarrita eta Europar Batasunaren zuzenbidea hautsi gabe ematen diren eskubideak ez dira ez eskubide bereziak ez eskusiboak errege lege-dekretu honen ondorioetarako.

III. KAPITULUA

Aplikazio-eremu objektiboa

1. atala. Araututako jarduerak

7. artikulua. *Xedapen erkideak.*

Hurrengo 8., 9. eta 10. artikuluen ondorioetarako, horniduraren barruan honako hauek sartzen dira: sorkuntza (produkzioa), handizkako salmenta eta txikizkako salmenta. Hala ere, gasa erauzketa bidez sortzea 14. artikuluaaren aplikazio-eremuan dago.

8. artikulua. *Ura.*

1. Errege lege-dekretu hau honako jarduera hauei aplikatuko zaie:

- Edateko ura ekoiztearekin, garraiatzearekin edo banatzearekin lotutako zerbitzu publikoa emateko sare finakoak eskaintzea edo ustiatzea.
- Sare horiek edateko urez hornitzea.

2. Errege lege-dekretu hau 1. apartatuan aipatzen diren jardueretako bat egiten duten entitateek adjudikatzen edo antolatzen dituzten kontratuei eta proiektu-lehiaketeki ere aplikatuko zaie, baldin eta kontratua honako jarduera hauetako batekin lotuta badago:

- Ingeniaritza hidraulikoko, ureztapeneko edo drainatzeko proiektuak, baldin eta edateko uraren hornidurara bideratutako bolumena proiektuari esker edo ureztatze- edo drainatze-instalazioari esker eskura dagoen ur-bolumen guztiaren ehuneko 20 baino gehiago bada.
- Hondakin-urak hustea edo tratatzea.

3. Ez da hartuko 1. apartatuan ezartzen denarekin bat datorren jardueratzat botere adjudikatzaileak ez beste entitate kontratatzaile batek herritarrei zerbitzua emateko erabiltzen den sare bat edateko urez hornitzea, honako baldintza hauek guztiak betez gero:

- Entitateak edateko ura sortzeko arrazoia izan behar da horren kontsumoa ezinbestekoa izatea 8. artikulutik 11.era aipatzen ez den jarduera baterako.
- Sare publikoaren hornidura entitate kontratatzailearen beraren kontsumoaren arabera izan behar da bakar-bakarrik, eta ezin da izan entitate kontratatzailearen azken hiru urteetako edateko uraren guztirako produkzioaren ehuneko 30 baino gehiago, guztirako produkzioaren barruan unean uneko urtekoa dagoela.

9. artikulua. *Gasa era berokuntza.*

1. Errege lege-dekretu hau honako jarduera hauei aplikatuko zaie:

- Gasa edo berokuntza ekoiztearekin, garraiatzearekin edo banatzearekin lotutako zerbitzu publikoa emateko sare finakoak eskaintzea edo ustiatzea.
- Sare horiek gasez edo berokuntzaz hornitzea.

2. Ez da hartuko 1. apartatuan ezartzen denarekin bat datorren jardueratzat botere adjudikatzaileak ez beste entitate kontratatzaile batek herritarrei zerbitzua emateko erabiltzen den sare bat gasez edo berokuntzaz hornitzea, honako baldintza hauek guztiak betez gero:

- Entitateak gasa edo berokuntza sortzea artikulua honen 1. apartatuan eta errege lege-dekretu honen 8. artikuluan edo 10. artikulutik 14.era aipatzen ez den jarduera baten nahitaezko ondorioa izan behar da.

b) Sare publikoaren horniduraren helburu bakarra izan behar da gasaren edo berokuntzaren sorkuntzari etekin ekonomikoa ateratzea, eta hori, gehienez ere, entitate kontratatzailearen azken hiru urteetako negozio-bolumenaren % 20 izan behar da, negozio-bolumenaren barruan unean uneko urtekoa dagoela.

10. artikulua. *Elektrizitatea.*

1. Errege lege-dekretu hau honako jarduera hauei aplikatuko zaie:

a) Elektrizitatea ekoiztearekin, garraiatzearekin edo banatzearekin lotutako zerbitzu publikoa emateko sare finakoak eskaintzea edo ustiatzea.

b) Sare horiek elektrizitatez hornitzea.

2. Ez da hartuko 1. apartatuan ezartzen denarekin bat datorren jardueratzat botere adjudikatzaileak ez beste entitate kontratatzaile batek herritarrei zerbitzua emateko erabiltzen den sare bat elektrizitatez hornitzea, honako baldintza hauek guztiak betez gero:

a) Entitateak elektrizitatea sortzeko arrazoia izan behar da horren kontsumoa ezinbestekoa izatea artikuluan honen 1. apartatuan edo errege lege-dekretu honen 8., 9. eta 11. artikuluetan aipatzen ez den jarduera baterako.

b) Sare publikoaren hornidura entitate kontratatzailearen beraren kontsumoaren arabera izan behar da bakar-bakarrik, eta ezin da izan entitate kontratatzailearen azken hiru urteetako energiaren guztirako produkzioaren ehuneko 30 baino gehiago, guztirako produkzioaren barruan unean uneko urtekoa dagoela.

11. artikulua. *Garraio-zerbitzuak.*

1. Errege lege-dekretu hau trenbidezko garraioan, sistema automatikoen bidezko garraioan, tranbietan, trolebusetan, autobusetan edo kable bidezko garraioan zerbitzu publikoa ematen duten sareak eskaintzeko edo ustiatzeko jarduerari aplikatuko zaie.

2. Garraio-zerbitzuetan sare bat dagoela pentsatuko da, zerbitzua agintaritza eskudunak ezarritako baldintza operatiboen arabera ematen bada. Baldintza horiek honako hauei buruzkoak izango dira, besteak beste: ibilbideak; garraio-ahalbidea; zerbitzuaren maiztasuna eta puntualtasuna; azpiegiturak; ibilgailuak eta erregaiak; garraio-sistema adimentsuak (ITS) erabiltzea.

12. artikulua. *Portuak eta aireportuak.*

Errege lege-dekretu hau aireportuak, itsas portuak eta barruko portuak eta beste garraio-terminal batzuk aireko, itsasoko edo ibaietako garraiolarien eskueran jarriz eremu geografiko bat ustiatzeko egiten diren jarduerari aplikatuko zaie.

13. artikulua. *Posta-zerbitzuak.*

1. Errege lege-dekretu hau honako zerbitzu hauek ematearekin lotutako jarduerari aplikatuko zaie:

a) Posta-zerbitzuak 2.x artikuluan zehazten da zer diren posta-zerbitzuak.

b) Posta-zerbitzuak ez beste batzuk, posta-zerbitzuak ere ematen dituen entitate batek emanez gero; horrez gainera, ezinbestekoa da jarduera ez egotea sarbidea mugatuta ez dagoen merkatu bateko lehiaren araupean zuzenean, 17. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

2. Errege lege-dekretu honen ondorioetarako, honako hauek dira «posta-zerbitzuak ez beste batzuk»:

a) Posta-zerbitzuak kudeatzeko zerbitzuak. Bidalketa aurreko zerbitzuak zein bidalketa ostekoak, posta-aretoak kudeatzeko zerbitzuak barne.

b) 2 w) artikuluko definizioan sartzen ez diren posta-bidalketen inguruko zerbitzuak, hala nola jasotzailea adierazi gabeko zuzeneko publizitatea.

c) Finantza-zerbitzuak, batez ere posta bidezko igorpenak eta transferentziak dakartzatenak, 20.d) artikulua ezartzen duenaren arabera salbuesten direnak izan ezik.

d) Zerbitzu filatelikoak.

e) Zerbitzu logistikoak, hau da, posta-banaketa fisikoa eta posta-zerrendak postarekin zerikusia ez duten beste lan batzuekin konbinatzen dituzten zerbitzuak.

f) Baliabide elektronikoen lotutako balio erantsiko zerbitzuak, oso-osorik halako baliabideak erabiliz ematen direnak, barnean dela kodetutako dokumentuak bitarteko elektronikoen bidez seguru transmititzea, helbideak kudeatzeko zerbitzuak ematea eta posta ziurtatua transmititzea.

14. artikulua. *Petrolioaren, gasaren, ikatzaren eta beste erregai solido batzuen prospekzioa eta erauzketa.*

Errege lege-dekretu hau eremu geografiko jakin batean honako xede hauetako baterako egiten diren ustiapen-jarduerei aplikatuko zaie:

a) Petrolio edo gasa erauztea.

b) Ikatzen edo beste erregai solido batzuen prospekzioa eta erauzketa.

15. artikulua. *Kontratu mistoak.*

1. Kontratu mistoa beste klase bateko kontratu bati edo batzuei dagozkien prestazioak biltzen dituena da. Kasu bakar batean bateratu ahalko dira kontratu bateko baino gehiagoko prestazioak kontratu misto batean: alegia, prestazio horiek elkarrekin zuzenean lotuta badaude eta, elkarren artean osagarri izanik, premia jakin bat betetzeko edo entitate kontratatzailearen berezko erakunde-xederen bat lortzeko unitate funtzional gisa hartu eta tratatu behar badira.

2. Errege lege-dekretu honetan araututako kontratu baten baino gehiagoren prestazioak objektutat dauzkaten kontratu mistoen adjudikazioa zer arauk gidatuko duten zehazteko, honako arau hauei jarraituko zaie:

a) Kontratu misto batek bi obra-kontratu, hornidura-kontratu edo zerbitzu-kontratu edo gehiagoren prestazio propioak biltzen dituenean, prestazio nagusiaren izaerari erreparatuko zaio.

Zati batean I. eranskineko zerbitzuak eta beste zati batean beste zerbitzu batzuk biltzen dituzten kontratu mistoen kasuan, edo zerbitzuak eta hornidurak objektutat dauzkaten kontratu mistoen kasuan, zerbitzu edo horniduren balio zenbatetsietatik handienaren arabera zehaztuko da zein den objektu nagusia.

b) Kontratu mistoak obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuen prestazioak daukanean alde batetik eta obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuak beste alde batetik, honela jokatu da:

1.a Prestazioak bereizezinak badira, prestazio nagusiaren izaerari erreparatuko zaio.

2.a Prestazioak bereizgarriak badira eta kontratu bakar bat adjudikatzea erabakitzen bada, obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuei buruzko arauak aplikatuko dira kontratuari dagozkion prestazioen balio zenbatetsia errege lege-dekretu honen 1. artikuluan ezarritako zenbatekoa baino gehiago denean. Bestela, obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuei buruzko arauak aplikatuko dira.

3. Kontratu baten prestazio batzuk errege lege-dekretu honi lotutako kontratuen berezko prestazioak badira eta beste prestazio batzuk errege lege-dekretu honi lotuta ez dauden kontratuenak, errege lege-dekretu hau aplikatuko zaio; salbuespena: defentsaren eta segurtasunaren arloetako kontratuak, 23.2.a) artikuluan aipatzen direnak.

16. artikulua. *Zenbait jarduera egiteko kontratuen araubide juridikoa.*

1. Kontratua zenbait jarduera egiteko bada eta haietako bat gutxienez errege lege-dekretu honi lotuta badago, honako arau hauei jarraituko zaie beraren adjudikazioa zer arauk gidatuko duten zehazteko:

a) Oro har, kontratua beraren xedeko jarduera nagusiarri aplikatu beharreko arauak lotuko zaie.

b) Kontratua nagusiki zer jardueratarako den zehazterik ez badago, adjudikaziorako arauak honako hauetan ezartzen denarekin bat etorri finkatuko dira:

1.a Kontratuaren objektu diren jardueretako bat gutxienez errege lege-dekretu honi lotuta badago eta beste bat gutxienez azaroaren 8ko 9/2017 Legeari lotuta, kontratua azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin bat etorri adjudikatuko da.

2.a Gainerako kasuetan, kontratua errege lege-dekretu honekin bat etorri adjudikatuko da.

2. Kontratua zenbait jarduera egiteko bada eta jarduera haietako bat gutxienez errege lege-dekretu honi lotuta badago eta beste bat edo batzuk defentsaren eta segurtasunaren arloetako legediari, 23.2.b) artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

2. atala. *Salbuespenak*

1. azpiatala. *Zuzenean lehiaren araupean dauden jardueren salbuespena*

17. artikulua. *Zuzenean lehiaren araupean dauden jardueren salbuespena.*

1. Errege lege-dekretu hau ez zaie aplikatuko 8. artikulutik 14.era aipatzen diren jardueretako batean aritzeko egiten diren kontratuei, baldin eta jarduera hori zuzenean lehiaren araupean badago sarbidea mugatuta ez dagoen merkatuetan. Halaber, jarduera hori egiteko antolatzen diren proiektu-lehiaketek ere ez zaie aplikatuko.

2. 1. apartatuaren ondorioetarako, jarduera bat zuzenean lehiaren araupean dagoenez erabakitzeke, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu lehiari buruzko xedapenekin bat datozen irizpideak erabiliko dira; honako hauek, besteak beste: kasuan kasuko ondasunek edo zerbitzuek zer ezaugarri dituzten; eskaintzaren edo eskariaren alderdian ordezkarritzat jotzen den ondasunik edo zerbitzurik dagoenez; prezioak zein diren, eta ondasun edo zerbitzuen hornitzaile bat baino gehiago dagoenez edo egon daitekeenetz.

Artikulu honetan aipatzen den lehiaren ebaluazioak ez du eragotziko lehiaren zuzenbidearen aplikazioa; ebaluazio horretan kontuan edukiko dira jarduerak daukaten merkaturak eta erreferentziako merkatu geografikoa.

Artikulu honen ondorioetarako, zuzeneko lehiaren ebaluaziorako oinarritzat hartuko den «erreferentziako merkatu geografikoa» honako hiru baldintzak betetzen diren lurraldea izango da: eraginpeko enpresek esku dute ondasunen edo zerbitzuen eskaintza eta eskarian; lehia-baldintzak behar bezain homogeneoak dira, eta nahiko desberdinak dira ondoko lurraldeetako baldintzen aldean. Hori dela eta, honako hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: kasuan kasuko produktuen eta zerbitzuen izaera eta ezaugarriak zein diren; sartzeko oztoporik dagoenez; kontsumitzaileen hobespenak zein diren; dena delako lurraldearen eta ondoko lurraldeen artean desberdintasun nabarmenik dagoenez enpresa-kuotetan edo prezioetan.

3. Jardueraren salbuespena 2014/25/EB Zuzentarauak 34. eta 35. artikuluetan ezartzen dituen baldintzen eta prozeduraren arabera aplikatuko da (2014/25/EB Zuzentaria, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratuak adjudikatzeko prozeduraren koordinazioari buruzkoa).

Hori dela eta, jarduera jakin bati 1. apartatuan aipatzen den salbuespena aplikatu ahal zaiola irizten bazaio, Ekonomia eta Enpresa Ministerioak, jardueraren arabera eskumena

daukan ministerioaren edo autonomia-erkidego edo toki-korporazio baten ekimenez, Europako Batzordeari jakinarazi beharko dio; hain zuzen ere, honako argibide hauek eman beharko dizkio: kontuan hartu beharreko inguruabar guztiak eta, batez ere, 2. apartatuan aipatzen diren baldintzak betetzearen inguruko lege-xedapenak, arau-xedapenak, administrazio-xedapenak edo erabakiak, eta, horiez gainera, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, autonomia-erkidego bateko lehiaren arloko agintaritzak edo jardueraren gaineko eskumena daukan bestelako agintaritzak nazional independente batek jardueraren liberalizazioaz eta errege lege-dekretu honen arabera salbuespenaren bidez kotasunaz ezartzen duen irizpidea.

Errege lege-dekretu hau aplikatzen zaien entitate kontratatzaileetako batek, uste badu 1. eta 2. apartatu etako baldintzak betetzen direla, ministerioari edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko agintaritzak eskudunari eskatu ahal izango dio eska dadila aurreko paragrafoan aipatzen den prozedura izapidetzeko. Eskatutako izapideak bi hilabeteko aldi egin ezean, entitate kontratatzaileak Europako Batzordeari eskatu ahal izango dio ezar dezala, betearazpen-egintza baten bidez, jarduera jakin bati 1. apartatua aplikatu ahal zaiola, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzentarauaren 35. artikulua 3. apartatuarekin bat etorritz.

2. azpiatala. Salbuesitako kontratuak.

18. artikulua. *Helburuaren arabera salbuesitako kontratuak.*

1. Errege lege-dekretu hau ez zaie aplikatuko entitate kontratatzaileek 8. artikulutik 14.era aipatzen diren jardueren bestelako xedeetarako adjudikatzen dituzten kontratuei, ez jarduera horietan hirugarren herrialde batean aritzeko eta Europar Batasunaren barruan ez dagoen sare bat edo eremu geografiko bat ustiatu gabe egiten diren kontratuei, ez eta halako xedeetarako antolatzen diren proiektu-lehiaketei ere.

2. Entitate kontratatzaileek Europako Batzordeari jakinaraziko dizkiote, berak eskatuta, 1. apartuaren arabera salbuesitatzat jotzen dituzten produktu- eta jarduerakategoria guztiak.

3. Errege lege-dekretu hau, halaber, hirugarrenei birsaltzeko edo haien finantza-errentamendurako adjudikatzen diren kontratuei ere ez zaie aplikatuko, baldin eta entitate kontratatzaileak ez badauka kontratuaren objektua birsaltzeko edo errentan emateko eskubide berezi edo eskusiborik eta hura entitate kontratatzailearen baldintza berekin saldu edo errentan eman dezaketene beste entitate batzuk badaude. Entitate kontratatzaileek Europako Batzordeari jakinaraziko dizkiote, berak eskatuta, apartatu honen arabera salbuesitatzat jotzen dituzten produktu- eta jarduerakategoria guztiak.

19. artikulua. *Uraren eta energiaren arloetako salbuespenak.*

Errege lege-dekretu hau ez zaie aplikatuko honako kontratu hauei:

a) Ura erosteko kontratuei, baldin eta kontratua adjudikatzen duen entitate kontratatzaileak 8.1 artikuluan aipatzen diren edateko uraren inguruko jardueretako bat egiten badu.

b) Energiaren horniduraren edo energia sortzeko erregaien horniduraren inguruko jardueraren bat (9.1, 10.1 edo 14. artikuluan aipatzen direnetako bat) eginez energiaren sektorean ari diren entitate kontratatzaileek adjudikatzen dituzten kontratuei.

20. artikulua. *Zerbitzu-kontratuaren eta zerbitzu-emakidako kontratuaren salbuespen bereziak.*

Errege lege-dekretu hau ez zaie aplikatuko honako objektu hauetako bat duten kontratuei:

a) Lurrak, badagoen eraikinen bat edo beste ondasun higiezin bat (edo horietako baten gaineko eskubideak) erostea edo errentan hartzea, finantzaketa-sistema gorabehera.

- b) Arbitraje-zerbitzuak eta adiskidetze-zerbitzuak.
- c) Honako zerbitzu juridikoetako bat:

1.a Prokuradore batek edo abokatu batek bezero bat ordezkatzera eta haren legezko defentsa egitea, dela estatu batean edo kontziliazioko edo arbitrajeko nazioarteko instantzia batean egindako arbitraje edo kontziliazio batean, dela estatu bateko organo jurisdikzionalen edo agintari publikoen aurreko edo nazioarteko organo jurisdikzionalen edo erakundeen aurreko prozedura judicial batean.

2.a Letra honen aurreko apartatuan aipatutako prozeduretako bat prestatzeko emandako aholkularitza juridikoa, edo aholkularitzako gaiari prozedura horiek aplikatzeko probabilitate handia dagoenean ematen den aholkularitza, baldin eta aholkularitza-lana abokatu batek egiten badu.

3.a Notario publiko batek eman beharreko ziurtatze- edo autentifikatze-zerbitzuak.

4.a Administrazioaileek, tutoreek edo beste zerbitzu juridiko batzuek ematen dituzten zerbitzu juridikoak, zerbitzu-emaileak organo jurisdikzional batek izendatuak direnean edo legez izendatuak direnean eginkizun berariazko batzuk betetzeko organo jurisdikzional horiek gainbegiratuta.

5.a Botere publikoa baliatzearekin (noizean behin bada ere) lotuta dauden beste zerbitzu juridiko batzuk.

d) Baloreen edo bestelako finantza-tresna batzuen jaulkipena, erosketa, salmenta edo transferentzia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren arabera (2014/65/EB Zuzentaria, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko maiatzaren 15ekoa, Finantza-tresnen merkatuei buruzkoa, zeinaz 2002/92/EE Zuzentaria eta 2011/61/EB Zuzentaria aldatzen baitira), eta Finantza Egonkortzeko Funtz Europarrarekin eta Egonkortasun Mekanismo Europarrarekin egiten diren eragiketak.

e) Maileguak, baloreen edo bestelako finantza-tresna batzuen jaulkipenarekin, erosketarekin, salmentarekin edo transferentziarekin lotuta daudenak zein ez daudenak.

f) Lan-arloko legerian arautzen diren kontratuak.

g) Bidaiariak trenbidez edo metroz garraiatzeko zerbitzu publikoak, eta bidaiarien garraio-zerbitzuen emakidak. Dena den, hala badagokio, 2007ko urriaren 23ko 1370/2007 (EB) Erregelamendua aplikatuko da, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, bidaiariak trenez eta errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoei buruzkoa, zeinak indarrik gabe utzi baitzituen Kontseiluaren 1191/69 (EEE) eta 1107/70 (EEE) erregelamenduak.

h) Irabazteko asmorik gabeko antolakundeek edo elkarteek defentsa zibilaren, babes zibilaren eta laneko arriskuen prebentzioaren alorretan ematen dituzten zerbitzuak, honako CPV kode hauetakoak: 75250000-3, 75251000-0, 75251100-1, 75251110-4, 75251120-7, 75252000-7, 75222000-8, 98113100-9 eta 85143000-3, salbu eta gaixoak anbulantziak garraiatzeko zerbitzuak.

i) Objektutzat ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuetara edo irriti-komunikazioko zerbitzuetara bideratutako programak eskuratzea, garatzea, produzitzea edo koproduzitzea daukaten eta ikus-entzunezko edo irratiko komunikazioko zerbitzuaren hornitzaileek adjudikatutakoak diren kontratuak, edo irriti-difusioko denborari edo programaz hornitzeari buruzkoak diren eta ikus-entzunezko edo irratiko komunikazioko zerbitzuaren hornitzaileei adjudikatutakoak diren kontratuak. Letra honen ondorioetarako, «ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzua» eta «komunikazioko zerbitzuaren hornitzailea» zera dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko martxoaren 10eko 2010/13/EB zuzentarian –ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak emateari buruz estatu kideek dauzkaten lege-, erregelamendu- eta administrazio-mailako xedapen jakin batzuk koordinatzeari buruzkoan– 1. artikularen 1. apartatuaren a) eta d) letretan halakotzat hartzen direnak, hurrenez hurren. Programatzat zuzentariau horren beraren 1. artikularen 1. apartatuaren b) letretan halakotzat hartzen dena hartuko da, baina irriti-programak eta irriti-programen edukia ere barnean hartuta. Gainera, xedapen honen ondorioetarako, «programaren edukia» esapideak «programa» kontzeptuak daukan esanahi bera izango du.

j) Ikertzeko eta garatzeko zerbitzuak, 73000000-2tik 73120000-9rako CPV kodeetan eta 73300000-5, 73420000-2 eta 73430000-5 CPV kodeetan egoteaz gainera honako bi baldintza hauek betetzen dituztenak izan ezik:

a) Etekinak soilik botere adjudikatzaillearenak izatea, bere jardueran bertan erabili ahal izateko.

b) Emandako zerbitzua botere adjudikatzailleak guztiz ordaindua izatea.

k) Zerbitzu-kontratuak, erosketa zentralizatuen jarduerak egiteko direnean, baldin eta entitate kontratatzaileak kontratua erosketa-zentral bati adjudikatzen badio; kontratuan, erosketa-jarduera osagarriak egitea ere ezar daiteke (jarduerok 2.n artikuluan azaltzen dira).

l) Objektu nagusizat honako hau duten emakida-kontratuak: entitate kontratatzaileei aukera ematea komunikazio-sare publikoak eskaintzeko edo ustiatzeko edo publikoari komunikazio elektronikoen bidezko zerbitzu bat edo gehiago emateko. Apartatu honen ondorioetarako, «komunikazio-sare publikoa» eta «komunikazio elektronikoen zerbitzua» esapideek Komunikazio elektronikoko sareen eta zerbitzuen esparru arautzaile komunari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko martxoaren 7ko 2002/21/EE Zuzentarauan duten esanahi bera izango dute.

21. artikulua. *Nazioarteko kontratuak eta proiektu-lehiaketak.*

Errege lege-dekretu hau ez zaie aplikatuko honako kontratu eta proiektu-lehiaketa hauei:

a) Tresna juridiko baten indarrez ezarri den lizitazio-prozedura berariazko baten arabera adjudikatu beharrekoak. Baina prozedura horrek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren arabera egina beharko du izan, azken hori sinatu ez duen estatu batekin edo batzuekin, eta nazioarteko zuzenbidearen arloko betebeharrak sortuko ditu bera sinatu dutenek proiektu bat elkarrekin egikaritzeko edo aurrera eramateko beharrezko diren obra, hornidura edo zerbitzuei dagokienez.

b) Nazioarteko erakunde batek edo nazioarteko finantza-erakunde batek onetsitako kontratazio-arauen indarrez ezarri den lizitazio-prozedura berariazko baten arabera adjudikatu beharreko kontratuei, baldin eta erakunde horrek guztiz edo zatirik handienez finantzatuta badaude.

22. artikulua. *Eskubide eskusibo baten arabera adjudikatzen diren zerbitzu-kontratuak.*

Errege lege-dekretu hau ez zaie aplikatuko honako zerbitzu-kontratu hauei: lege-xedapen, arau-xedapen edo administrazio-xedapenen arabera eskubide eskusibo batez baliatuz botere adjudikatzaila den entitate bati edo halako entitateek eraturako elkarte bati adjudikatzen zaizkioneei (ezinbestekoa da xedapen horiek bateragarriak izatea Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuarekin).

23. artikulua. *Defentsaren eta segurtasunaren arloetako kontratuak.*

1. Errege lege-dekretu hau ez zaie aplikatuko honako kontratu eta proiektu-lehiaketa hauei:

a) Organo eskudunak isilpeko edo erreserbatu deklaraturakoei, ez egikaritzeko orduan indarreko legeriari jarraituz segurtasun-neurri bereziak behar dituztenei, ez Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babestea eskatzen dutenei, kasuan kasuko funtsezko interesen babesa ezin denean bermatu errege lege-dekretu hau aplikatuz.

b) Segurtasunaren edo defentsaren eremuan egiten diren obra-kontratuei, hornidura-kontratuei eta zerbitzu-kontratuei, Sektore Publikoko Defentsa eta Segurtasun arloko Kontratuen abuztuaren 1eko 24/2011 Legearen aplikazio-eremuan daudenean; ez eta lege horren 7. artikulua indarrez lege hori berori aplikatzen ez zaien kontratuei ere.

Halaber, kanpoan geratzen dira segurtasunaren eta defentsaren arloetako obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak ere, baldin eta honako inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

1.a Produktu berri baten ikerketan eta garapenean oinarritutako lankidetzaprograma baten esparruan adjudikatutakoak izatea eta, kasua bada, haren bizi-zikloarekin edo ziklo horren atalen batzuekin lotuta egotea, baldin eta programan gutxienez ere Europar Batasuneko bi estatuk parte hartzen badute.

2.a Europar Batasuneko kidea ez den hirugarren estatu batean adjudikatzen direnak erosketak egiteko, horren barnean direla izaera zibileko erosketak, betiere Indar Armatuak Europar Batasunaren lurraldetik kanpo hedatuta daudenean eta beharrian operatiboek kontratu horiek eragiketen eremuko enpresaburuekin egitera behartzen dutenean. Errege lege-dekretu honen ondorioetarako, eragiketen eremuan base logistiko aurreratuak eta eremuaren beraren eraginpean dauden lurraldeak sartzen dira.

3.a Ekipamendu militar sentikorrarekin zuzenean lotutako obrak eta zerbitzuak direla eta beste estatu bati adjudikatzen zaizkion emakidak, edo berariaz xede militarrik dituzten obrak eta zerbitzuak, edo obra eta zerbitzu sentikorrak.

c) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 346. artikulua esparruan eta defentsaren arloari lotuta egiten diren kontratuei.

d) Segurtasunaren edo defentsaren eremuan egiten diren obra-kontratuei, hornidura-kontratuei eta zerbitzu-kontratuei, honako modu hauetakoren batean ezarritako kontratazio-prozedura berariazko baten arabera adjudikatu beharrekoei:

1.a Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu sinatu ez duen estatu batekin edo sinatu ez duten estatu batzuekin tratatu horren arabera egindako nazioarteko akordio edo hitzarmen baten indarrez, zeina estatu sinatzaileek proiektu bat batera ustiari edo garatzeko beharrezko diren obra, hornidura edo zerbitzuei buruzkoa den.

2.a Tropen estazionamenduari buruzko nazioarteko akordio edo hitzarmen baten indarrez, zeina Europar Batasuneko kidea den estatu bateko edo hirugarren estatu bateko enpresei buruzkoa den.

3.a Nazioarteko erakunde batek edo nazioarteko finantza-erakunde batek ezarritako kontratazio-arauen bitartez, eta adjudikatzen diren kontratuak, gainera, guztiz edo zati handi batean erakunde horrek finantzatuta daudela.

2. Aurreko apartatuaren b) eta c) letretan ezartzen diren salbuespenak honako kasu hauetan ere aplikatuko dira:

a) Kontratu baten objektuetako bat errege lege-dekretu honen mendeko kontratuetako berezko objektua denean eta beste objektuetako bat Defentsaren eta segurtasunaren arloetako sektore publikoko kontratuei buruzko abuztuaren 1eko 24/2011 Legearen edo Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 346. artikulua edo 24/2011 Legearen eta Tratatuaren 346. artikulua mendeko kontratuen berezko objektua.

b) Kontratu baten xedeetako bat errege lege-dekretu honen mendeko jardura bat egitea denean eta beste xedeetako bat Defentsaren eta segurtasunaren arloetako sektore publikoko kontratuei buruzko abuztuaren 1eko 24/2011 Legearen edo Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 346. artikulua edo 24/2011 Legearen eta Tratatuaren 346. artikulua mendeko jardura bat edo batzuk egitea.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritakoa aplikatu aurretik entitate kontratatzaileak kontratu bat bakarrik adjudikatzeko arrazoi objektiboak azaldu beharko ditu. Erabaki hori inolaz ere ezin izango da hartu kontratu bat errege lege-dekretu honen aplikaziotik kanpo uzteko.

24.artikulua. *Enpresa elkartuekiko eta baterako enpresekiko kontratuak.*

1. Errege lege-dekretu hau ez zaie aplikatuko honako kontratu hauei:

a) Entitate kontratatzaileek enpresa elkartuei adjudikatzen dizkietenei. Hori dela eta, errege lege-dekretu honen ondorioetarako, enpresa elkartua da Merkataritza Kodearen 42.

artikuluaren arabera urteko kontu kontsolidatuak entitate kontratatzailearen kontuekin aurkezten dituena. Gainera, kontu kontsolidatuak aurkeztu beharrik ez duten entitateen kasuan, enpresa elkartzat hartuko dira botere adjudikatzailea ez den entitate kontratatzaileak zuzenean zein zeharka nagusitasun-eragina eduki dezakeen entitate guztiak (5.2 artikulua c) letran zehazten da zer den eragin hori), edo entitate kontratatzailean nagusitasun-eragina eduki dezaketenak, edo, entitate kontratatzailea bezala, jabetzaren bitartez edo finantza-partaidetza baten bitartez edo aplikatzen zaizkien arauak direla bide beste enpresa baten nagusitasun-eraginaren mendean daudenak.

b) Zenbait entitate kontratatzailek 8. artikulutik 14.era aipatzen diren jarduerak egiteko xedearekin eraturako baterako enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

2. Aurreko apartatuta honako hauei aplikatuko zaie:

a) Zerbitzu-kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa baten nagusitasun-eraginaren mendean daudenak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

b) Hornidura-kontratuak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa baten nagusitasun-eraginaren mendean daudenak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

c) Obra-kontratuak eta obra-emakidako kontratuak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa baten nagusitasun-eraginaren mendean daudenak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

Enpresa elkartzat hartuko enpresa baten nagusitasun-eraginaren mendean daudenak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

Entitate kontratatzailearekin elkartzat hartuko enpresa batek baino gehiagok obra, zerbitzu edo hornidura berdina egiten badute, edo antzekoa, enpresa elkartzat hartuko enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

Aurreko a), b) eta c) letratan ezartzen den baldintza betetzen dela adierazi behar da enpresa elkartzat hartuko enpresa baten nagusitasun-eraginaren mendean daudenak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

3. Errege lege-dekretu hau ez zaie aplikatuko honako kontratu hauei:

a) Zenbait entitate kontratatzailek 8. artikulutik 14.era aipatzen diren jarduerak egiteko xedearekin eraturako baterako enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

b) Entitate kontratatzaile batek bera kide den enpresa elkartzat hartuko enpresa baten nagusitasun-eraginaren mendean daudenak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

4. Entitate kontratatzaileek, 1., 2. eta 3. apartatuetan aipatzen diren kasuetako bat aplikatzen badute, honako informazio hauek jakinarazi behar dizkiote Europako Batzordeari, berak eskatuta:

a) Enpresa elkartzat hartuko enpresa baten nagusitasun-eraginaren mendean daudenak.

b) Kontratuaren izaera eta balioa.

c) Entitate kontratatzailearen eta kontratuak adjudikatzen zaion enpresaren edo enpresa elkartzat hartuko enpresa baten nagusitasun-eraginaren mendean daudenak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

5. Enpresa elkartzat hartuko enpresa baten nagusitasun-eraginaren mendean daudenak, baldin eta enpresa elkartzat hartuko enpresa batek entitate kontratatzaile horietako bati elkartzat hartuko enpresa bati adjudikatzen dizkion kontratuak.

lege-dekretu honen mendean egongo dira, kontratua egiten duen entitatearen izaeraren eta kontratuaren motaren eta balio zenbatetsiaren arabera.

6. Botere adjudikatzaile ez diren entitate kontratatzaileek merkatuko prezio orokorraren arabera finkatuko dituzte artikuluko honen 1., 2. eta 3. apartatuetan aipatzen diren kontratuen prezioak, kontratuaren objektua den prestazioaren zenbatekoa zenbatetsi ondoren.

3. azpiatala. Salbuetsitako lankidetzak publikorako sistemak

25. artikulua. *Baliabide propio pertsonifikatuentzako mandatuak.*

Botere adjudikatzaile diren entitate kontratatzaileek beren burua antolatu ahalko dute zuzenean egiteko obra-kontratuen, hornidura-kontratuen eta zerbitzu-kontratuen eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen berezko prestazioak, ahal publikoa erabili beharrik ez dakartenak, beste pertsona juridiko bat (zuzenbide publikokoa zein pribatukoa) baliatuta, hari aldeaz aurretik mandatua emanda eta tarifa bidezko ordain baten truke; horretarako, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 32. artikuluan xedatzen duena bete beharko dute.

26. artikulua. *Hitzarmenak.*

Botere adjudikatzaile izanik, elkarren artean ez zuzeneko ez zeharkako kontrol-harremanik egon ez eta ondorioz independente diren entitate kontratatzaileek egiten dituzten hitzarmenak ez daude errege lege-dekretu honen aplikazio-eremuan, non eta hitzarmenaren edukia ez den errege lege-dekretu honetan edo administrazio-arau berezietan arautzen diren kontratuena.

Aurreko paragrafoan aipatzen den salbuespena aplikatzeko, honako baldintza hauek guztiak bete beharko dira:

a) Hitzarmenak entitate kontratatzaileen arteko lankidetzak bat ezartzea edo garatzea, bermatze aldera dagozkien zerbitzu publikoak halako moduz ematen direla non dituzten helburu komunak lortuko baitira.

b) Lankidetzan aritzeko gida bakarra interes publikoarekin lotutako alderdiak izatea.

c) Aipatutako entitateek merkatu-bokaziorik ez edukitzea. Merkatu irekian lankidetzak jardueren ehuneko 20 edo gehiago egiten dituztenean uste izango da halako bokazio bat dagoela. Ehuneko horren kalkuluan azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1 artikulua berriz bigarren paragrafoaren a) letran ezartzen dena aplikatuko da.

Aurreko paragrafoaren c) letran xedatzen denaren ondorioetarako, hitzarmenean parte hartzen duten sektore publikoko entitate kontratatzaileek erantzukizunpeko adierazpena egingo dute, eta adierazpen hori sinatuko den hitzarmenaren dokumentazioari erantsiko zaio.

IV. KAPITULUA

Kontratazio-printzipioak eta konfidentzialtasuna

27. artikulua. *Kontratazio-printzipioak.*

1. Errege lege-dekretu honen bidez adjudikatzen eta egikaritzen diren kontratuek honako printzipio hauek bete behar dituzte: diskriminaziorik eza, elkarren onarpena, proportzionaltasuna, tratua bera, gardentasuna eta lehia askea.

Inolaz ere ezingo da mugatu parte-hartzea forma juridikoarengatik ez kontratazioko irabazteko asmoarengatik, ez bada 65. artikulua 1. eta 2. apartatuetan ezartzen diren entitateentzat erreserbatutako kontratuetan.

2. Errege lege-dekretu honen mendeko kontratu guztietan irizpide sozialak eta ingurumenekoak sartuko dira, zeharka eta aginduzko eran, baldin eta kontratuaren

objektuarekin zerikusia badute, uste baita haiek sartzeak kalitatea-prezinoa erlazio hobe emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobe ere funts publikoen erabileran. Halaber, enpresa txiki eta ertainen eta ekonomia sozialeko enpresen kontratazio publikorako sarbidea erraztuko da.

3. Kontratazioan eragotzi egingo dira lehia eragozteak, murriztea edo faltsutzea xede duten edo ondorio hori daukaten edo eduki dezaketen jardunbide guztiak.

Kontratazioa ez da antolatu behar errege lege-dekretu honetan ezartzen dena ez aplikatzeko asmoarekin, ez eta lehia artifizialki murrizteko asmoarekin ere. Lehia artifizialki murriztuta dagoela pentsatuko da kontratazioa operadore ekonomiko jakin batzuei bidegabe onura edo kaltea eragiteko asmoarekin antolatuta dagoenean.

4. Entitate kontratatzaileek behar diren neurriak hartuko dituzte bermatzeko kontratuak egikaritzeko orduan operadore ekonomikoek bete egiten dituztela ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloetan aplikatu beharreko betebeharrak, ezarrita datozenak Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo Espainiarentzat lotesleak diren ingurumen-, gizarte- eta lan-arloetako nazioarteko zuzenbideko xedapenetan (bereziki, XI. eranskinean jasotakoetan).

Aurreko paragrafoan adierazitakoak ez du kentzen entitate kontratatzaileek duten ahalga baliatzea eta behar diren neurriak hartzea lizitazio-prozeduran zehar egiaztatzeko hautagaiek eta lizitatzaileek paragrafo horretan jasotzen diren betebeharrak bete egiten dituztela.

Zigorak ezarriko dira lehen paragrafoan ezartzen diren betebeharrak ez betetzeagatik eta, batez ere, soldatak behin eta berriro ez ordaintzeagatik edo horien ordainketan behin eta berriro atzeratzeagatik edo hitzarmen kolektiboetan ezarritakoak baino soldata-baldintza baxuagoak aplikatzeagatik, urratzea astuna eta dolozkoa bada.

5. Entitate kontratatzaileek behar bezala dokumentatu behar dituzte lizitazio-prozeduraren etapa guztiak, 124.2 artikuluan arautzen den bezala.

28. artikulua. *Konfidentzialtasuna.*

1. Enpresa interesdunei preskripzio teknikoak adieraztean, enpresa horiek sailkatu eta hautatzean eta kontratuak adjudikatzean, entitate kontratatzaileek baldintzak ezarri ahal izango dituzte ematen duten informazioaren konfidentzialtasuna babesteko, sailkapen-sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa ere barnean dela, nahiz eta sistema horren berri ematen duen iragarki bat erabili lizitazioaren deialdia egiteko.

2. Entitate kontratatzaileek ezingo dute ezagutarazi operadore ekonomikoek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jotako informazioa, non eta besterik ez den xedatzen informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legedian eta adjudikatzen diren kontratuen publizitateari buruz eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz errege lege-dekretu honetan bildutako xedapenetan. Informazio horretan, hauek sartzen dira, besteak beste: sekretu teknikoak edo merkataritzakoak, eskaintzen alderdi konfidentzialak eta kasuan kasuko lizitazio-prozesuan zein gerokoetan lehia faltsutzeko erabil daitekeen edozein informazio.

3. Kontratatzaileek gorde beharko du kontratua egikaritzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio informazio horri, edo informazio mota dela-eta halakotzat jo beharrekoa bada.

29. artikulua. *Interes-gatazkak.*

Entitate kontratatzaileek neurri egokiak hartu beharko dituzte iruzurraren aurka, mesedekeriaren aurka eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko, eta lizitazio-prozeduran sortzen diren interes-gatazkak modu eraginkorrean eragotzi, detektatu eta konpontzeko, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikuluan ezartzen den moduan.

II. TITULUA

Operadore ekonomikoen gaitasuna eta sailkapena

I. KAPITULUA

Lizitatzailen gaitasuna eta kaudimena

30. artikulua. *Operadore ekonomikoen gaitasuna eta parte hartzeko gainerako baldintzak.*

1. Entitate kontratatzaileekin kontratuak sinatu ahal izango dituzte Espainiako zein atzerriko pertsona fisikoek zein juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badaukate, azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezartzen diren kontratatzeko debekuetako bat ez badaukate, eta frogatzen badute betetzen dituztela entitate kontratatzaileak hautapen kualitatiborako ezarritako irizpideak edo, bestela, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 77. artikulutik 83.era aipatzen duen sailkapena daukala (nolanahi ere, lizitazioaren deialdia egiteko sailkapen-sistemaren berri ematen duen iragarkia erabiltzen bada, titulu honen II. kapituluaren ezartzen denarekin bat etorritik sortutako sistema bateko sailkapena eskatu ahal izango da).

Aplikatzekoa den araudia horrela zehaztu duelako kontratatari zenbait baldintza eskatzen zaizkionean –bere antolamenduari, etekinen zertarakoari, finantzaketa-sistemari edo bestelakoei buruz– kasuko adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko, lizitatzailak egiaztatu egin beharko du betetzen dituela, lehiatu ahal izateko.

2. Hautagaiek edo lizitatzailak kontratuaren objektua den jardura edo prestazioa gauzatzeko eskatzen den enpresa-gaikuntza edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute, kasuan kasukoa.

3. Entitate kontratatzaile batek egin duen eta errege lege-dekretu honen mende dagoen kontratu baten lizitazioan edo hura egikaritzean azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikulua lehene apartatuaren e) letran edo bigarren apartatuan arautzen diren inguruabarrak gertatzen direnean, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Kontratatzeko debekuen adierazpenaren prozeduraz eta ondorioez lege horren 72. eta 73. artikuluetan xedatzen dena aplikatuko da.

b) Kontratatzeko debekua adierazteko eskumena dela eta, entitate kontratatzailea sektore publikokoa izanez gero, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 72. artikulua 4. apartatuan xedatzen denarekin bat etorritik zehaztuko da.

Baldin eta entitate kontratatzailea eskubide bereziak edo eskusiboak dauzkan enpresa bat bada, errege lege-dekretu honen 6. artikuluan arautzen denaren arabera, eta alde batera utzita autonomia-erkidego bakoitzeko arautegian administrazio-organo eskudunaz ezartzen duena, kontratatzeko debekua adierazteko eskumena eskubide horiek eman dituen sailaren titularrak edo erakundeko lehendakariak edo zuzendariak edukiko du.

4. Parte hartzeko baldintzek lotura proportzionala daukate enpresak kontratua egikaritzeko gaitasuna bermatu beharrekin, kontuan edukita haren objektua eta benetako lehia bermatu behar dela.

31. artikulua. *Enpresa-elkarteak.*

1. Enpresa-elkarteak, aldi baterako batasuna eratuta lehiatzen diren enpresak barne, baimenduta daude kontratuen adjudikazioetan lizitatzeko edo hautagai edo lizitatzaila modura aurkezteko. Entitate kontratatzaileek ezin izango diete eskatu operadore ekonomikoen elkartei (aldi baterako elkarteak barne) forma juridiko jakina edukitzeko eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkezteko. Nolanahi ere, gerta liteke hautatzen den elkarteari forma juridiko jakina eskatzea kontratua adjudikatu ondoren, aldaketa kontratua behar bezala egikaritzeko beharrezkoa izanez gero. Betebehar hori baldintzen agirian agertu beharko da.

2. Beharrezkoa izanez gero, entitate kontratatzaileek baldintzen agirietan argitu ahal izango dute nola frogatu behar duten aldi baterako elkartean aurkeztzen diren enpresek

betetzen dituztela gaitasunaz eta kaudimenaz, finantza-gaitasunaz, gaitasun teknikoaz eta gaitasun profesionalaz ezarritako baldintzak; ezinbestekoa da horretarako arrazoi objektiboak eta lortu nahi den xedearen proportziozkoak egotea.

3. Halaber, baldintzen agirietan ezarritako gero, entitate kontratatzaileek aldi baterako elkarteetan aurkezten diren enpresei eskatu ahal izango diete bete ditzatela banakako enpresaburuei eskatutako lizkieketenak ez bezalako baldintzak kontratua egikaritzean, baldin eta horretarako arrazoi objektiboak eta lortu nahi den xedearen proportziozkoak badaude.

4. Lizitazioari begira, lizitazioa aldi baterako enpresaburu-elkarte bat eginez aurkeztu nahi duten enpresaburuek elkartekideen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, eta bakoitzak elkarteetan daukan partaidetza ere bai. Gainera, kontratua adjudikatzen bazaie, aldi baterako elkarteak formalki osatzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi beharko dute.

5. Entitate kontratatzaileak, bere eginkizunetan diharduela kolusio-zantzuak atzematen baditu aldi baterako elkarte batean bilduta lehiatzen diren enpresen artean, errekerimendua egingo die enpresei, behar den epealdi emanda, berariaz eta arrazoiak emanez azaltzeko zergatik lehiatzen diren elkartuta.

Entitate kontratatzaileak, enpresen justifikazioa aztertu ondoren uste badu haien arteko kolusio-zantzu funtsatuak daudela, horien berri emango dio Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo, bestela, kasuan kasuko agintaritzaren autonomikoko eskudunari, haiei buruzko iritzia eman dezan 72.2 artikulua hiru hirugarren paragrafoan aipatzen den prozedura sumarisimoa gauzatu baino lehen.

6. Elkarte horiei adjudikatutako kontratuei buruzko informazio publikoan, enpresa parte-hartzaileen izenak eta enpresa horietako bakoitzak enpresaburu-elkarteetan daukan partaidetza-ehunekoa jasoko dira; hori ez da eragozpena izango haiek Aldi Baterako Enpresa Elkartearen Erregistro Berezian ere argitaratzeko.

II. KAPITULUA

Enpresen sailkapena

32. artikulua. *Sailkapen-araubidea.*

1. Nahi izatera, entitate kontratatzaileek operadore ekonomikoak sailkatzeko sistema bat ezarri eta kudeatu ahal izango dute; bestela, beren eskaerekin bat datorren besteren bat erabili ahal izango dute.

2. Entitate kontratatzaileek, beren sailkapen-sistema propioa ezartzen badute, operadore ekonomikoei aukera emango diete sailkapena nahi dutenean eskatzeko.

33. artikulua. *Sailkapen-sistema propioa.*

1. Entitate kontratatzaile batek bere sailkapen-sistema propioa ezartzea erabakitzen badu, sistema hori irizpide eta arau objektiboen arabera kudeatu beharko da.

2. Entitate kontratatzaileek arau eta irizpide objektiboak ezarri beharko dituzte sailkapena eskatzen duten operadore ekonomikoak bazter uzteko eta hautatzeko eta sailkapen-sistema kudeatzeko (adibidez, sistemaren inskribatzeari buruzkoak, sailkapenak aldi-aldi eguneratzeari buruzkoak –hala badagokio– eta sistemaren iraunaldiari buruzkoak).

3. Irizpide eta arau horiek preskripzio teknikoak eragiten badituzte, errege lege-dekretu honetan horiez berariaz ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

4. Irizpide eta arau horiek behar den guztietan eguneratu ahal izango dira.

5. Sailkapen-eskaerekin edo sistemarekin bat etorritako lortutako sailkapena eguneratzearekin edo mantentzearekin lotuta fakturatzeko diren gastu guztiak sortutako kostuen proportziozkoak izan beharko dira.

34. artikulua. *Entitate kontratatzaileen sailkapen-sistema propioaren publizitatea.*

1. Entitate kontratatzaileak ezartzen duen sailkapen-sistema propioari buruzko iragarkia argitaratu beharko da *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* eta entitatearen kontratatzailearen profilean (eredua III. eranskinean).

2. Iragarkian sailkapen-sistemaren helburua zehaztu behar da eta berari buruzko arauak nola eskuratu daitezkeen azaldu behar da.

3. Entitate kontratatzaileek sailkapen-sistema baliozkoa izango den aldia zehaztuko dute haren berri ematen duen iragarkian. Horrez gainera, aldi horretan gertatzen diren aldaketa guztien berri emango diote Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoari; horretarako, hauetako bat erabili beharko dute:

a) Sailkapen-sistemaren balio-aldia hura indarrean dagoen artean aldatzen bada, sailkapen-sistemaren berri emateko iragarkiaren eredua erabili beharko da (III. eranskina).

b) Sailkapen-sistemaren balio-aldia haren iraunaldia amaitutakoan aldatzen bada, formalizazioaren iragarkiaren eredua erabili beharko da (VIII. eranskina).

35. artikulua. *Sailkapen-erabakiak.*

Hasierako sailkatzeko erabakiak, sailkapenak berrikustekoak eta sailkapenak ukatzekoak irizpide objektiboak aplikatuz hartu beharko dituzte entitate kontratatzaileek, eta arrazoiak azaldu. Entitate kontratatzaileek azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezartzen diren irizpideak erabili ahal izango dituzte. Halaber, entitate kontratatzaileek sailkapenen iraunaldia zehaztuko dute; hori ere aurreko lege horretan ezartzen denarekin bat etorritz zehaztu ahal izango da.

36. artikulua. *Beste entitate batzuen gaitasunen inguruko baldintzak.*

1. Sailkapena eskatzen duten operadore ekonomikoak sailkapenetik baztertzeko edo sistemarako hautatzeko aplikatzen diren irizpide eta arau objektiboetako batzuk operadore ekonomikoaren gaitasun ekonomikoari, finantza-gaitasunari, gaitasun teknikoari eta gaitasun profesionalari buruzkoak badira, operadore ekonomikoek beste entitate batzuen gaitasunak hartu ahal izango dituzte oinarritzat, haien arteko loturen izaera juridikoa gorabehera. Horrek ez du eragozten hurrengo apartatuan ezartzen dena. Halako kasuetan, operadore ekonomikoak entitate kontratatzaileari frogatu beharko dio kontratuak egikaritzeko behar diren baliabide guztiak edukiko dituela sailkapen-sistemaren balio-aldi osoan.

Kasu berean, elkartuta lehiatzen diren enpresaburuak elkartetik kanpoko beste entitate batzuen gaitasunak hartu ahal izango dituzte oinarritzat.

2. Hala eta guztiz ere, enpresaburuaren edo enpresako zuzendaritzako langileen ikasketa-tituluei eta lanbide-tituluei buruzko irizpideei dagokienez edo horien guztien esperientzia profesionalari dagokionez, operadore ekonomikoek honako kasu honetan soilik jo ahal izango dute beste entitate batzuetara haien gaitasunaz baliatzeko: gaitasun horiek behar diren obrak edo zerbitzuak entitate horiek berek egin behar dituztenean.

3. Enpresa batek, beste entitate batzuen gaitasunaz baliatu nahi duenean, behar diren baliabideak jarriko dituela frogatu beharko dio entitate kontratatzaileari, horretarako entitate horien konpromiso idatzia aurkeztuz.

4. Enpresa batek beste entitate batzuen gaitasunetara jotzen badu kaudimen ekonomikoari eta finantza-gaitasunari buruzko irizpideak betetzeko, entitate kontratatzaileak, baldintzen agirian, entitate horren eta gainerakoen arteko baterako erantzukizun-moduak exijitu ahal ditu kontratua egikaritzeko, are modu solidarioan ere.

5. Entitate kontratatzaileek egiaztatuko dute ea operadore ekonomikoek oinarritzat hartzen dituzten gaitasunak dauzkaten enpresek honako baldintza metagarri hauek betetzen dituzten:

a) Baldintzen agirietan hautapenerako ezartzen diren irizpideak.

b) Azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezartzen diren kontratatze debekuetakoren bat duten.

Enpresa batek ez baditu baldintza horiek betetzen, entitate kontratatzaileak operadore ekonomikoari eskatuko dio baldintzok betetzen dituen bat ezar dezala (edo batzuk) haren orde.

37. artikulua. *Hautagaiei informazioa ematea.*

1. Saillapenerako irizpideak eta arauak eskatzen dituzten enpresa guztiei emango zaizkie; eguneratzen direnean, horren berri emango zaie enpresa interesdunei. Entitate kontratatzaileek, orotabat, saillapen-sistemak eskatzen duenarekin bat datorrela uste duten beste erakunde eta entitate batzuen berri emango die enpresa horiei.

2. Hurrengo apartatuan ezartzen dena gorabehera, entitate kontratatzaileek saillapenari buruz erabakitakoa jakinarazi beharko diete hautagaiei eskaera aurkezten denetik sei hilabete pasatu baino lehen. Eskatzaile bati saillapena ukatzen bazaio, erabakian ukatzeko arrazoiak azaldu beharko dira; ematen diren arrazoiak bat etorri behar dira 33. artikuluan aipatzen diren saillapen-irizpideekin.

3. Saillapenari buruzko erabakia hartu arte lau hilabete baino gehiago pasatzen badira eskaera aurkezten denetik, entitate eskudunak hautagaiari azaldu beharko dio zergatik luzatu daitekeen epealdia eta noiz ebatziko den eskaera. Horretarako, bi hilabeteko epealdia edukiko du eskaera aurkezten denetik.

38. artikulua. *Saillapenaren inpartzialtasuna eta sailkatutako enpresen zerrenda.*

1. Enpresen saillapenari buruzko arauak eta irizpideak eguneratzean edo enpresa batzuen saillapenari buruzko erabakia ematean organo eskudunak ezin izango dizkie ezarri enpresa batzuei beste batzuei ezartzen ez dizkien baldintzak (administraziokoak, teknikoak zein finantzekoak), eta ezin izango du eskatu dagoeneko eskura dituen proba objektiboak errepikatzea dakarren probarik ez frogagiririk.

2. Sailkatutako enpresen zerrenda bat gordeko da; horretarako, enpresa horien erregistro idatzia egingo da, eta enpresak kategoriaka multzokatu ahal izango dira, saillapena baliozkoa den kontratu motaren arabera.

Aurreko apartatuan aipatzen den erregistroa ez da publikoa izango honako kasu honetan: kategoria jakin batzuetan sailkatutako enpresak oso gutxi izanik, haien artean kolusioa gertatzeko arriskua dagoenean.

39. artikulua. *Saillapenak deuseztatzea.*

1. Enpresa baten saillapena errege lege-dekretu honen 33. artikuluan aipatzen diren irizpide aplikagarrien arabera soilik deuseztatu ahal izango da.

2. Enpresa baten saillapena deuseztatzeko asmoa edukiz gero, gutxienez hamabost egun lehenago jakinarazi beharko zaio, idatziz; idatzian erabakiaren atzean dauden arrazoiak azaldu beharko dira, eta enpresari hamar eguneko epealdia emango zaio nahi dituen alegazioak, frogagiriak eta justifikazioak aurkezteko.

40. artikulua. *Lizitazio-deialdia saillapen-sistemari buruzko iragarkiaren bidez egitea.*

Entitate kontratatzaile batek sortutako saillapen-sistema baten berri ematen duen iragarkia erabiltzen bada lizitazio baten deialdia egiteko 32.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik, lizitazioaileak prozedura murriztuaren bidez hautatuko dira edo parte-hartzaileak lizitazio-prozedura negoziatuaren, lehia-elkarrizketaren prozeduraren edo berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren bidez hautatuko dira, sistema horren arabera sailkatutako hautagaien artean.

III. TITULUA

Kontratuaren prestakuntza eta dokumentazioa41. artikulua. *Merkatuko alde zurretiko kontsultak.*

1. Entitate kontratatzaileek merkatuari buruzko azterlanak egin ahalko dituzte eta kontsultak egin ahalko dizkiete merkaturan jarduten duten operadore ekonomikoari, lizitazioa zuzen prestatzeko eta operadore ekonomiko horiei informazioa eman ahal izateko beren planei buruz eta prozedurara aurkezteko eskatuko diren baldintzei buruz. Horretarako, entitate kontratatzaileak hirugarrenen aholkularitzaz baliatu ahal izango dira. Hirugarren horiek adituak edo agintari independenteak, lanbide-elkargoak edo ordezkari sektorialak izan daitezke, eta, kasu berezietan, merkaturan jarduten duten operadore ekonomikoak ere bai.

Kontsulta hasi baino lehen, entitate kontratatzaileak kontratatzailearen profilean argitaratuko ditu kontsultaren xedea, hura hasteko eguna eta kontsultan parte hartuko duten hirugarrenen izenak, izan daitezkeen interesdun guztiek sarbidea izan dezaten eta ekarpenak egin ahal izan ditzaten. Halaber, aukeratu diren kanpoko aholkulariak aukeratzeko arrazoiak argitaratuko dira kontratatzailearen profilean.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den aholkularitza lizitazio-prozeduraren plangintza egiteko erabiliko du entitate kontratatzaileak, eta, halaber, hura gauzatzen den bitartean, betiere horrek berekin ez dakarrenean lehia faltsutzea edo diskriminaziorik ezaren printzipioa eta gardentasunaren printzipioa urratzea.

Egindako kontsultetatik ezingo da atera, zehatzaren zehatzaz eta mugatuaren mugatuaz, kontsulta egin zaieneko baten ezaugarri teknikoari bakarrik egokitzen zaien kontratu-objektu bat. Azterlanen eta kontsulten emaitza, kasua bada, interes publikoak hobeki beteko direla ziurtatzen duten ezaugarri orokorrak, betekizun orokorrak edo formula abstraktuak sartuta zehaztu beharko da; halere, egindako kontsultek ezingo diete abantailarik ekarri haietan parte hartu duten enpresei kontratuaren adjudikazioari begira.

3. Artikulu honetan aipatzen diren kontsultak egin ondoren, entitate kontratatzaileak honako hauek argitzen dituen txosten bat egingo du: zer neurri hartu diren, zer azterlan egin diren eta nork egin dituzten, zer entitate kontsultatu diren, zer galdetu zaien eta zer erantzun duten. Txostenean arrazoiak emango dira, txostena kontratazio-espeditentean txertatuta egongo da eta baldintza-agiriak dauzkaten publikitate-betebehar berak bete beharko ditu hark ere; nolana ere, entitate kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Artikulu honetan aipatzen den kontsulta-prozesuan zehar entitate kontratatzaileak ezingo dizkie jakitera eman hartan parte hartzen dutenei beste parte-hartzaileek proposatutako konponbideak; horiek, izan ere, hark beste inork ezingo ditu guztiz ezagutu.

Oro har, entitate kontratatzaileak kontuan hartu beharko ditu egindako kontsulten emaitzak baldintza-agiriak egitean; hala ez bada, apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen den txostenean utzi beharko ditu jasota horretarako arrazoiak.

Kontsultan parte hartzeak ez du eragozten geroztik kasuan-kasuan izapidetzen den kontratazio-prozeduran esku hartu ahal izatea.

42. artikulua. *Kontratuaren objektua mugatzea.*

Zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua esleitzeko prozedurari ekin aurretik.

43. artikulua. *Baldintza-agiriak, langileen subrogazioa eta lizitazioaren aurrekontua.*

1. Entitate kontratatzaileek, kontratu bakoitzaren baldintza berezien agirian, prestazioa ematean bete beharko diren preskripzio juridikoak, preskripzio ekonomikoak eta preskripzio teknikoak ezarriko dituzte, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren baldintzekin bat etorritik. Hain zuzen ere, baldintzen agirian honako hauek ezarriko dira:

kontratuaren kaudimen- eta adjudikazio-irizpideak; kaudimen-irizpide eta adjudikazio-irizpide moduan edo egikaritzeko baldintza berezi moduan ezartzen diren gizarte-baldintzak, lan-baldintzak eta ingurumen-baldintzak; kontratuko alderdien eskubideak eta betebeharrak definitzen dituzten itunak eta baldintzak; langileen lan-baldintzak sektorean aplikatzeko den hitzarmen kolektiboari jarraituz betetzeko adjudikaziodunaren betebeharra; errege lege-dekretu honek eta berau garatzen duten arauak eskatutako gainerako aipamenak.

2. Entitate kontratatzaileek baldintzen agiriak baliabide elektronikoen bidez eskuratzeko modua eskainiko dute kontratatzailearen profilean; aukera hori librea, zuzena, osoa eta doakoa izango da, eta lizitazioaren deialdia egiten duen iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratzen denetik baliatu ahal izango da, edo, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz gero, gonbidapena igortzen den egunetik.

Lizitazioaren deialdia sailkapen-sistema izateari buruzko iragarki baten bidez egin bada, aukera hori ahalik azkarren eskainiko da, eta, beranduenik, lizitaziorako edo negoziatorako gonbidapena bidaltzen denean. Iragarkiaren testuan, baldintzen agiriak kontsulta daitezkeen Interneteko helbidea agertu beharko da.

3. Salbuespen gisa, ondoren azalduko diren kasuetan entitate kontratatzaileek elektronikoak ez diren baliabideez baliatuz jarri ahal izango dituzte eskura baldintza-agiriak eta lizitazioari buruzko gainerako dokumentazio osagarria. Kasu horretan, lizitazioaren deialdia egiten duen iragarkian edo aukeratutako hautagaienezako gonbidapenean horren berri eman beharko da, eta proposamenak edo parte hartzeko eskaerak aurkezteko epealdia bost egun luzatuko da, honako kasu hauetan izan ezik: 82.5 artikuluan aipatzen diren presako kasuetan (presa behar bezala arrazoituta), eta epealdia bi alderdiek elkar hartuta ezartzen dutenean, 83.4 eta 84.5 artikuluetan xedatzen denarekin bat etorriz.

Honako kasu hauetako bat gertatzen denean justifikatuta egongo da lizitazioaren baldintzen agiriak elektronikoak ez diren baliabideen bitartez eskuratzea:

a) Baliabide elektronikoak eragozten dituzten inguruabar teknikoak gertatzen direnean, 61.3 artikuluan azaltzen den bezala.

b) Konfidentzialtasun-arrazoiak daudenean, 28. artikuluan xedatzen dena aplikatuz. Kasu horretan, entitate kontratatzaileak lizitazioaren deialdia egiten duen iragarkian edo, halakorik ezean, gonbidapenean adierazi beharko du zer neurri aplikatuko diren informazioaren konfidentzialtasuna babesteko eta nola eskuratu ditzaketen enpresari interesdunek baldintza-agiriak, edo, lizitazioaren deialdia egiteko sailkapen-sistema dagoela azaltzen duen iragarkia bada, baldintzen agirian adierazi beharko du.

c) Obra-emakiden eta zerbitzu-emakiden kasuan, aparteko segurtasun-arrazoiak daudenean.

4. Errege lege-dekretu honen arabera egiten diren kontratazio-prozeduretan, entitate kontratatzaileek baldintzen agirian bertan azaldu beharko diete lizitatzailerei nolakoak izango diren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 130. artikuluan xedatzen denaren arabera subrogazio batek eragiten dien langileen kontratuen baldintzak.

5. Lizitazioaren aurrekontua prestatzean, sektore publikoko entitate kontratatzaileek kontuan eduki behar dute hura merkatuko prezioen arabera izan behar dela. Horretarako, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua xehakatu egingo da: hura kalkulatzeko zuzeneko eta zeharkako kostuak eta izan daitezkeen beste gastu batzuk adieraziko dira. Kontrata egikaritzeko enplegatutako pertsonen ordainsarien kostua kontratuaren guztizko prezioan sartuta dagoen kontratuetan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua xehakaturik emango da, erreferentziako lan-hitzarmenaren arabera zenbatetsitako ordainsari-kostuen generoaren eta lanbide-kategoriaren arabera.

44. artikulua. *Preskripzioen berri ematea.*

1. Kontratu baten adjudikaziodun izateko interesa duten enpresek aldeztu aurretik eskatuz gero, entitate kontratatzaileak bere kontratuetan (obra-kontratuak, hornidura-

kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak) ezarri ohi dituen preskripzio teknikoak jakinaraziko dizkie enpresa horiei, edo, lizitazioaren deialdia iragarkiaren bidez egin bada, deialdiko kontratuei aplikatzeko asmoa daukan preskripzio teknikoak. Preskripzio teknikoak baliabide elektronikoen bidez ipiniko dira enpresa interesdunen eskura, entitate kontratatzailearen profilean; sarbidea librea, zuzena, osoa eta doakoa izango da.

Hala ere, preskripzio teknikoak elektronikoak ez diren baliabideen bitartez zabalduta ahal izango dira aurreko paragrafoan aipatzen den sarbide libre, zuzen, oso eta doakoa baliabide elektronikoen bitartez ezin denean eskaini errege lege-dekretu honen 43.3 artikulua bigarren paragrafoan eta 28.1 artikuluan azaltzen diren arrazoiertako batengatik.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren preskripzio teknikoak enpresa interesdunek aurreko apartatuaren lehen paragrafoan aipatzen den bezala baliabide elektronikoen bitartez eskuratu ahal dituzten dokumentuetan biltzen badira, nahikoa izango da dokumentu horien aipamena egitea.

45. artikulua. *Preskripzio teknikoak.*

1. Preskripzio teknikoak baldintzen agerian ezarriko dira; lizitatzen den kontratuaren objektua den obraren, horniduraren edo zerbitzuaren ezaugarriak zehaztuko dituzte. Ezaugarriak obra, hornidura edo zerbitzua egiteko prozesu edo metodo zehatzari buruzkoak ere izan daitezke, edo horren bizi-zikloaren beste fase bateko prozesu berezi bati buruzkoak, are faktore horiek obraren, horniduraren edo zerbitzuaren substantzia materialaren osagaiak ez direnean ere (ezaugarri sozialak eta ingurumenekoak barne), baldin eta eskatzen diren ezaugarriak kontratuaren objektuarekin lotuta badaude eta beraren balioaren eta helburuen proportziozkoak badira.

Gainera, preskripzio teknikoetan ezarri ahal izango da jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak eskualdatzeko eskatzen den edo ez.

2. Ahal dela, preskripzio teknikoak ezartzean honako hauek eduki behar dira kontuan:

a) Pertsona desgaituen irisgarritasunerako irizpideak edo erabiltzaile guztientzako diseinua, behar bezala arrazoitutako kasuetan izan ezik. Europar Batasunaren egintza juridiko baten bidez irisgarritasunaren inguruan nahitaez bete beharreko baldintzak ezartzen badira, haiek erreferentziatzat hartu behar dira irisgarritasun-irizpideei buruzko preskripzio teknikoak finkatzeko.

b) Kontratuaren objektuak ingurumenean eragiten badu edo eragin badezake, edo ingurumenaren iraunkortasunerako eta babeserako irizpideetan, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak 3. eta 4. artikuluetan hurrenez hurren arautzen dituen definizioak eta printzipioak (1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez, Kutsaduraren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartu zen).

3. Preskripzio teknikoek bidea eman behar dute lizitatuak guztiek aukera berekin parte hartu ahal izateko lizitazioan; ezin dute ekarri ondorio modura kontratu publikoak lehia irekian jartzeko oztopo bidegabeak sortzea.

4. Indarrean dauden arau teknikoak eragotzi gabe, Batasunaren legeriarekin bateragarriak diren heinean, preskripzio teknikoak honako letra hauetako batean aipatzen direnen arabera egin behar dira:

a) Errendimenduaren edo betekizun funtzionalen arabera, horren barnean direla ingurumen-ezaugarriak, baldin eta parametroak behar bezain zehatzak badira lizitatuak kontratuaren objektua zehaztu ahal izateko eta entitate kontratatzaileek kontratua adjudikatu ahal izateko;

b) Honako hauek aipatuz: zehaztuen teknikoak eta, lehentasun-hurrenkeraren arabera, Europako arauetatik Estatuko arauetara ekarritako arauak, Europako ebaluazio teknikoak, zehaztuen tekniko komunak, nazioarteko arauak, Europako normalizazio-organismoek erreferentzia teknikoak buruz prestatutako beste sistema batzuk; edo, aurreko horiek guztiak ezean, arau nazionalak, egokitasun teknikoari buruzko agiri nazionalak, edo

obren proiektuari, kalkulari eta obrak egiteari eta hornidurak erabiltzeari buruz egindako zehaztaperen tekniko nazionalak. Aipamen bakoitzari «edo baliokidea» esamoldea erantsi behar zaio.

c) Errendimenduaren edo betekizun funtzionalen arabera eta a) letran azaldutakoari jarraituz, b) letrako zehaztaperen aipatuz, errendimenduko baldintza horiekin edo betekizun funtzionalekin bat datoze-lako presuntzioa ezartzeko modu gisa.

d) Zenbait ezaugarritarako, b) letran aipatutako zehaztaperen teknikoak aipatuz, eta, beste ezaugarri batzuetarako, a) letran aipatzen diren errendimendua eta betekizun funtzionalak aipatuz.

5. Kontratuaren objektua dela-eta bidezkoa denean izan ezik, preskripzio teknikoetan ezin izango da aipatu fabrikazio edo jatorri zehatzik, edo prozedura zehatzik operadore ekonomiko jakin batek eskaintako produktu edo zerbitzuak ezaugarritzen dituenik, ez eta marka, patente edo mota zehatzik ere, edo jatorri edo produkzio jakinik ere, enpresa edo produktu zehatz batzuk faboratzeko edo baztertze-ko. Aipamen hori salbuespen gisa baimenduko da, 4. apartatua aplikatuz kontratuaren objektuaren deskribapen behar bezain zehatz eta ulergarri-rik ezin denean egin. Aipamen bakoitzari «edo baliokidea» esamoldea erantsi behar zaio.

6. Entitate kontratatzaileek, 4. apartatuaren b) letran ezartzen diren zehaztaperen teknikoak aipatzeko aukeraz baliatzen direnean, ezingo dute eskaintza bat errefusatu horretarako oinarritzat hartuz eskaintako obra, hornidura edo zerbitzua ez datorrela bat aipatutako zehaztaperen teknikoekin, baldin eta lizitatzzaileak bere eskaintzan frogatzen badu, edozein bide egokiren bitartez –47. artikuluan aipatutako frogabideak barne–, proposatzen dituen konponbideek modu berean betetzen dituztela kasuko preskripzio teknikoetan eskatutako baldintzak.

7. Entitate kontratatzaile bat 4. apartatuaren a) letran ezartzen den aukeraz baliatzen bada, hau da, preskripzio teknikoak errendimenduaren edo eskakizun funtzionalen arabera ezartzeko aukeraz, ezin izango ditu errefusatu Europako arauetatik Estatuko arauetara ekarritako arau batekin, egokitasun teknikoari buruzko Europako agiri batekin, zehaztaperen tekniko komun batekin, nazioarteko arau batekin edo Europako normalizazio-organismoek egindako erreferentzia teknikoei buruzko sistema batekin bat datozen hornidura-, zerbitzu- edo obra-eskaintzak, baldin eta zehaztaperen horien xedeak haiek finkatzen dituzten errendimendu-baldintzak edo eskakizun funtzionalak badira.

Eskaintzan lizitatzzaileak frogatu behar du, edozein bide egokiren bitartez –47. artikuluan aipatutako frogabideak barne–, arauarekin bat datorren hornidurak, zerbitzuak edo obrak entitate kontratatzaileak ezarritako errendimendu-baldintzak edo eskakizun funtzionalak betetzen dituela.

46. artikulua. *Etiketak.*

1. Entitate kontratatzaileek, ezaugarri bereziak –ingurumen arlokoak, sozialak edo bestelakoak– dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzeko asmoa dutenean, berariazko etiketa bat eskatu ahal-ko dute preskripzio teknikoetan, adjudikatzeko irizpideetan edo kontratua egikaritzeko baldintzetan, obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatutako baldintzak betetzen dituztelako frogabide gisa: etiketa sozial edo ingurumenekoak, nola baitira nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoarekin, bidezko merkataritzarekin edo genero-berdintasunarekin lotutakoak, edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioak betetzea bermatzen dutenak. Halakoak eskatzeko, betiere, baldintza hauek guztiak bete beharko dira:

a) Etiketa lortzeko eskatutako baldintzak kontratuaren objektuarekin lotutako irizpideen ingurukoak izatea bakarrik, eta egokiak izatea objektu hori osatzen duten obran, horniduren edo zerbitzuen ezaugarriak definitzeko.

b) Etiketa lortzeko eskatzen diren baldintzen oinarria objektiboki egiaztatzen ahal diren irizpideak izatea, diskriminatzaileak ez direnak.

c) Etiketak prozedura ireki eta garden baten arabera hartzea, zeinean zerikusia duten alderdi guztiek parte hartzen ahalko duten, hala nola erakunde publikoek, kontsumitzaileek, gizarte-solaskideek, fabrikatzaileek, banatzaileek eta gobernu kanpoko erakundeek.

d) Etiketak interesdun guztien eskura egotea.

e) Etiketa lortzeko eskatzen diren baldintzak hirugarren batek jarriak izatea, hau da, enpresaburuak modu erabakigarrian ezin eragin diezaiokkeen batek jarriak.

f) Etiketei buruzko erreferentziek berrikuntza ez murriztea.

2. Etiketa batek 1. apartatuaren b), c), d) eta e) letretako baldintzak betetzen baditu baina kontratuaren objektuarekin loturarik ez duten baldintzak ezartzen baditu, entitate kontratatzaileek ez dute eskatuko etiketa, baina, haren ordeztan, preskripzio teknikoak etiketa horretako zehaztapen xehean arabera definitzen ahalko dituzte, edo, bestela, haren zenbait zatiren arabera, kontratuaren objektuarekin lotuta badaude eta objektu horren ezaugarriak definitzeko egokiak badira.

3. Berriazko etiketa bat eskatzen duten entitate kontratatzaileek onartu beharko dituzte obrek, hornidurek edo zerbitzuek hura lortzeko eskatzen diren baldintzen baliokideak diren beste batzuk betetzen dituztela frogatzen duten etiketa guztiak.

Baldin eta nabaria bada enpresaburu batek ez daukala modurik entitate kontratatzaileak adierazitako etiketa lortzeko berari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, ez eta etiketa baliokiderik ere, ezarritako epealdien barruan, entitate kontratatzaileak beste frogabide egoki batzuk onartuko ditu kontratista izango denak egin beharreko obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskatzen den etiketaren baldintzak edo entitate kontratatzaileak ezarritako baldintza bereziak betetzen dituela frogatzeko, hala nola fabrikatzailearen espediente teknikoa.

4. Entitate kontratatzaileek baldintza-agirietan ez badute esaten obrek, hornidurek eta zerbitzuek eskatzen diren baldintza guztiak bete behar dituztela etiketa bat lortzeko, adierazi beharko dute baldintza horietatik zeini buruz ari diren.

5. Baliokidetasuna frogatzeko karga, nolana ere, hautagaiak edo lizitatzaileak hartuko dute beren gain beti.

47. artikulua. *Froga-txostenak, ziurtatzea eta beste frogabide batzuk.*

1. Entitate kontratatzaileek eskatzen ahalko dute enpresek froga-txosten bat aurkez dezaten, adostasuna ebaluatzeko erakunde batena, edo erakunde horrek emandako ziurtagiri bat, eskatutako preskripzio teknikoak, adjudikazio irizpideak edo kontratua egikaritzeko baldintzak betetzen dituztela frogatzeko.

Entitate kontratatzaileek, adostasuna ebaluatzeko erakunde zehatz batek emandako ziurtagiriak aurkezteko eskatzen dutenean, adostasuna ebaluatzeko beste erakunde baliokide batzuek emandako ziurtagiriak ere onartu beharko dituzte.

Errege lege-dekretu honen ondorioetarako, «adostasuna ebaluatzeko erakundeak» dira kalibrazioak, saiakuntzak, ziurtapenak eta ikuskapenak egiten dituzten erakundeak, honako honen arabera ziurtatuta daudenak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko uztailaren 9ko 765/2008 (EE) Erregelamendua, produktuak merkaturatzearen inguruko merkaturako akreditazio-baldintzak eta zaintza-baldintzak ezartzen dituen eta 339/93 (EEE) Erregelamendua baliogabetzen duena.

2. Modu osagarrian, entitate kontratatzaileek beste frogabide egoki batzuk ere onartu beharko dituzte, lehen apartatuan aurreikusitakoak ez direnak –fabrikatzailearen txosten tekniko bat, esate baterako–, kasuan kasuko enpresaburuak ez baditu eskura eta ezin baditu jarritako epeetan lortu ziurtagiri edo froga-txostenak eta horiek eskuratzerik ez izateko arrazoiak ezin bazaio egotzi berari. Beste frogabide horiek, betiere, frogatu behar dute enpresaburuak eman behar dituen obrek, hornidurek edo zerbitzuek preskripzio teknikoetan, adjudikazio-irizpideetan edo kontratua egikaritzeko baldintzetan finkatzen diren baldintzak edo irizpideak betetzen dituztela, kasuan kasukoak.

48. artikulua. *Kalitatea bermatzeko sistemak eta ingurumena kudeatzeko arauak.*

1. Entitate kontratatzaileek, eskatzen badute aurkezteko enpresaburuak kalitatea bermatzeko arau jakin batzuk –batez ere, desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunari buruzkoak– betetzen dituela frogatzen duten ziurtagiriak, erakunde independenteek emanak, aipatu beharko dituzte dagozkien Europar Batasunaren arauetan oinarritutako kalitatea ziurtatzeko sistemak, akreditatutako erakunde batek ziurtatuak, eta egoitza Europar Batasuneko estatuetan duten erakundeek egindako ziurtagiri baliokideak onartu beharko dituzte. Gainera, kalitatea ziurtatzeko neurri baliokideen beste frogabide batzuk ere onartu beharko dituzte honako kasu honetan: ukitutako operadore ekonomikoak ez daukanean aukerarik ziurtagiri horiek lortzeko eskatzen den epealdiaren barruan eta arrazoia ezin zaionean berari egotzi, baldin eta frogatzen badu kalitatea ziurtatzeko proposatzen dituen neurriak bat datozela eskatzen diren kalitatea ziurtatzeko arauekin.

2. Gaitasun teknikoa edo profesionala frogatzeko entitate kontratatzaileek lizitatzaileari eskatzen badiote ingurumena kudeatzeko arau edo sistema jakin batzuk betetzen dituela frogatzen duten ziurtagiriak aurkezteko, erakunde independenteek emanak, entitate kontratatzaileek honako hauetako bat aipatu beharko dute: Europar Batasunaren ingurumenaren kudeaketaren eta auditoretzaren sistema (EMAS), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 1221/2009 (EE) Erregelamenduak 45. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri onartutako ingurumena kudeatzeko beste sistema batzuk (1221/2009 (EE) Erregelamendua, Europar Batasunaren ingurumenaren kudeaketaren eta auditoretzaren sisteman (EMAS) norberaren borondatez parte hartzeari buruzkoa eta honako hauek indargabetzen dituenak: 761/2001 (EE) Erregelamendua eta Batzordearen 2001/681/EE eta 2006/193/EE erabakiak) edo Europar Batasunaren arauetan edo akreditatutako nazioarteko erakundearen arauetan oinarritutako ingurumena kudeatzeko beste arau batzuk. Entitate kontratatzaileek, halaber, egoitza Europar Batasunean duten erakundeek egindako ziurtagiri baliokideak onartu beharko dituzte.

Lizitatzaileak frogatu ahal badu ez daukala halako ziurtagiririk edo ez daukala aukerarik ziurtagiri horiek eskatzen den epealdiaren barruan lortzeko eta arrazoia ezin zaiola berari egotzi, entitate kontratatzaileak beste frogabide batzuk onartuko ditu ingurumena kudeatzeko neurriak betetzen direla frogatzeko, baldin eta lizitatzaileak frogatzen badu neurri horiek aplikatzen den ingurumena kudeatzeko sistemaren arabera eskatzen diren neurrien baliokideak direla.

49. artikulua. *Elkarri onartzea baldintza teknikoak edo finantza-baldintzak betetzen direla, bai eta ziurtagiriak, frogabideak eta frogagiriak ere.*

1. Entitate kontratatzaileek onartuko dituzte egoitza Europar Batasuneko beste estatu batzuetan duten erakundeek egindako ziurtagiri baliokideak.

2. Halaber, operadore ekonomikoek kalitatea bermatzeko eta ingurumena kudeatzeko aurkezten dituzten neurri baliokideak ere onartuko dituzte.

50. artikulua. *Preskripzio teknikoen definizioa.*

Definizioak:

1. «Preskripzio teknikoa»:

a) Hornidura-kontratuetan eta zerbitzu-kontratuetan, produktu edo zerbitzu bati eskatzen zaizkion ezaugarriak definitzen dituen agiri batean jasotako zehaztapena; esate baterako, kalitate-mailak, portaera-mailak ingurumen eta klima aldetik, beharrian guztietarako diseinua (horren barnean direla irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua), adostasunaren ebaluazioa, etekina, produktuaren erabilera, haren segurtasuna edo neurriak; horrekin batera, alderdi hauei dagokienez produktuari aplikatu beharreko eskakizunak: salmentarako izena, terminologia, sinboloak, frogak eta frogamethodoak, ontziratzea, markatzea eta etiketatzea, erabilerarako jarraibideak, ekoizpen-

prozesuak eta -metodoak horniduraren edo zerbitzuaren bizi-zikloaren edozein fasetan, bai eta adostasuna ebaluatzeko prozedurak ere.

b) Obra-kontratuetan, baldintzen agirietan biltzen diren preskripzio teknikoak, material, produktu edo hornidura baten ezaugarriak finkatzen dituztenak, entitate kontratatzaileak ezarritako xederako egokiak diren argitzeko erabil daitezkeenak. Honako ezaugarri hauek finkatzen dituzte: materialek edo produktuek gizartean, lanean, ingurumenean eta kliman duten eragina, edo haiek sortzeko edo erabiltzeko egiten diren jarduerak dutena; beharizan guztietarako diseinua, horren barnean direla irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua; adostasunaren, errendimenduaren, segurtasunaren edo neurrien ebaluazioa; kalitatea ziurtatzeko prozedurak; terminologia; sinboloak; frogak eta froga-metodoak; ontziratzea, markatzea eta etiketatzea; erabilerarako jarraibideak eta ekoizpeneko prozesuak eta metodoak obraren bizi-zikloaren edozein fasetan; proiektua egiteko eta obrak kalkulatzeko arauak; obraren proben, kontrolen eta jasoketen baldintzak, eraikuntzako teknikak edo metodoak, eta entitate kontratatzaileak erregelamendu orokorraren edo bereziaren bidez preskripzioetan obra amaituz eta haien materialez edo elementuez ezartzen dituen gainerako baldintza tekniko guztiak.

2. «Araua»: aitortutako normalizazio-erakunde batek onartutako preskripzio teknikoa, behin eta berriz edo etengabe aplikatzekoa, nahitaez bete beharrik ez dagoena eta kategoria hauetako batean sarturik dagoena:

a) «Nazioarteko araua»: nazioarteko normalizazio-erakunde batek ezarritako araua, jendearen eskura jarria.

b) «Europako araua»: Europako normalizazio-erakunde batek ezarritako araua, jendearen eskura jarria.

c) «Arau nazionala»: normalizazio-erakunde nazional batek ezarritako araua, jendearen eskura jarria.

3. «Europako ebaluazio teknikoa»: eraikuntzako produktu baten prestazioen ebaluazio dokumentatua, haren funtsezko ezaugarriei buruzkoa, Europako kasuan kasuko balioespen-agiriarekin bat datorrena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 305/2011 (EB) Erregelamenduaren 2. artikulua 12. puntuan definitzen den moduan.

4. «Zehaztapen tekniko komuna»: IKTen arloko preskripzio teknikoa, 1025/2012 (EB) Erregelamenduaren 13. eta 14. artikuluen arabera prestatua.

5. «Erreferentzia teknikoa»: Europako normalizazio-erakundeek egindako edozein agiri, Europako arauetz bestelakoa, merkatuko beharren bilakaerari egokitutako prozeduren arabera.

51. artikulua. *Nahitaez bete beharreko jarraibideak eta araudi teknikoak.*

1. Proiektuak eta obrak nahitaez bete beharreko jarraibide teknikoaren arabera egin beharko dira.

2. Europar Batasunaren zuzenbidearekin bat datozen nahitaez bete beharreko jarraibideak eta erregelamendu teknikoak baino ez dira aplikatuko.

IV. TITULUA

Kontratuak adjudikatzeko prozedurak

I. KAPITULUA

Kontratuen objektua, gutxieneko edukia eta iraunaldia

52. artikulua. *Kontratuaren objektua.*

1. Errege lege-dekretu honen mendeko kontratuen objektua zehatza izan behar da. Objektu hori bete nahi diren beharizan edo funtzionaltasun zehatzei erreparatuta definitu

ahalko da, kontratuaren objektua konponbide bakar batera mugatu gabe. Bereziki, kontratatzen diren ondasun, obra edo zerbitzuen efizientzia eta jasagarritasuna hobetzen duten berrikuntza teknologiko, sozial edo ingurumenekoak sar daitezkeela uste den kontratuetan definituko da modu horretan.

2. Kontratua ezin da zatitu haren zenbatekoa gutxitzeko eta, horrela, dagozkion publikotasun-betekizunak edo adjudikazio-prozedurako betekizunak saihesteko asmoarekin.

3. Kontratuaren izaerak edo objektuak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusi beharko da, sortaka zatituta. Sortak erreserbatu ahalko dira, 65. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, entitate kontratatzaileak aukera izango du kontratuaren objektua sortaka ez zatitzeko horretarako arrazoi egokiak daudenean –espedientean behar bezala zehaztu beharko dira horiek–, salbu eta obra-emakidako kontratuetan.

Nolanahi ere, honako hauek joko dira baleko arrazoitzat kontratuaren objektua sortaka ez zatitzea justifikatzeko:

a) Kontratuaren objektua sortaka zatitzeak lehia justifikaziorik gabe murrizteko arriskua ekartzea. Irizpide hori aplikatzeko, entitate kontratatzaileak alde aurretiko txostena eskatu beharko dio lehiaren defentsarako kasuan kasuko agintaritzari, inguruabar hori gertatzeari buruzko iritzia eman dezan.

b) Kontratuaren objektuan jasotako prestazioak modu independentean emateak zailtasunak ekartzea kontratua ikuspuntu teknikitik zuzen egikaritu dadin; edo kontratua zuzen ez egikaritzeko arriskua etortzea haren objektuaren izaeratik, zeren eta berekin baitakar prestazioak emateko koordinatu beharra eta hori ezinezko gerta baitaiteke sortaka zatitzearen eta hainbat kontratistaren artean egikaritzearen ondorioz. Bi egoera horiek, kasuan-kasuan, behar bezala justifikatu beharko dira espedientean.

4. Entitate kontratatzaileak kontratuaren objektua sortaka zatitzen duenean, honako muga hauek ezarri ahalko ditu, betiere espedientean egoki justifikatuta:

a) Hautagai edo lizitatzaille batek eskaintza aurkeztu ahal duen sorten kopurua mugatu ahal izango du.

b) Lizitatzaille bakoitzari adjudikatu ahal zaizkion sorten kopurua mugatu ahal izango du.

Entitate kontratatzaileak, aurreko a) eta b) letretan aipatzen diren bi mugetako bat ezartzen badu, berariaz adierazi beharko du lizitazioaren deialdia egiten duen iragarkian edo, lizitazioaren deialdia egiteko sailkapen-sistemaren berri ematen duen iragarkia erabiliz gero, lizitatzeko edo negoziatzeko gonbidapenean, eta, nahitaez, baldintzen agirian.

Aurreko b) letretan aipatzen den muga ezartzen denean, gainera, baldintzen agirian zehaztu beharko da zer irizpide edo arau aplikatuko diren lizitatzaille bat iragarkian (edo lizitatzeko edo negoziatzeko gonbidapenean) eta baldintzen agirian aipatutako gehienekotik gora dagoen sorta kopuruaren adjudikaziodun suertatuz gero adjudikazio-irizpideak aplikatzearen ondorioz. Irizpide eta arau horiek, nolanahi ere, objektiboak izango dira eta baztertzailleak ez direnak.

Aurreko a) eta b) letretan ezartzen diren mugen ondoreetarako, enpresaburuaren elkarrekin elkarrekin berak hartuko dira hautagaitzat edo lizitatzailatzat, eta ez haiek osatzen dituztenak, non eta baldintzen agirian ez den besterik xedatzen.

Sortetako bat edo batzuk erreserbatu ahalko dira enplegu-zentro berezietarako edo laneratze-enpresetarako, edo, bestela, kontratu horiek egikaritzeko erreserbako gutxieneko ehuneko bat ezarri ahalko da enplegu babestuko programetarako, 65.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz. Halaber, sortak erreserbatu ahalko dira 65.2 artikuluan aipatzen diren erakundeentzat, artikulua horretan ezarritako baldintzetan.

5. Entitate kontratatzaileak erabakitzen duenean kontratuaren objektua sortaka zatitzea eta, gainera, aukera ematea lizitatzaille berari sorta bat baino gehiago adjudikatu ahal izateko, organo horrek zenbait sorta edo sorta guztiak konbinatzen dituen eskaintza

bati adjudikatu ahalko dio kontratua, baldin eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Horren berri eman behar da baldintzen agirian eta lizitazioaren deialdia egiten duen iragarkian edo, lizitazioaren deialdia egiteko sailkapen-sistemaren berri ematen duen iragarkia erabiltzen bada, lizitatzeko edo negoziatzeko gonbidapenean. Aurreikuspen horrek zehaztu beharko du zer konbinazio onartuko den edo onartuko diren, kasua bada, bai eta horietako bakoitzari eskatzen zaizkion kaudimena eta gaitasuna ere.

b) Adjudikazio-irizpide bat baino gehiago egon behar da.

c) Aldez aurretik ebaluazio konparatibo bat egin behar da, zehazte aldera ea lizitazailerak zehatz batek sorten konbinazio zehatz baterako aurkeztutako eskaintzek oro har hobeki beteko lituzketen sorta horiek direla-eta baldintza-agirian ezarritako adjudikazio-irizpideak, kasuan kasuko sorta berezietarako aurkeztutako eskaintzek baino azken horiek banan-banan hartuta.

d) Enpresaburuek sorta guztiei dagokien kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa egiaztatu behar dute.

6. Kontratua sortaka zatitzen bada, sorta edo prestazio bereizi bakoitzaren adjudikazioan aplikatu beharreko prozedurazko edo publikitateko arauak osotasunaren balio metatuaren arabera zehaztuko dira, azken hori 4.12 artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta, non eta ez den gertatzen artikulua berean aipatzen diren salbuespenetako bat.

7. Sortaka adjudikatzen diren kontratuetan, kontratua arautzen duen baldintzen agirian besterik ezarri ezean, sorta bakoitza kontratu bat izango da, salbu eta aurreko 4. apartatuan aipatzen diren zenbait sorta edo sorta guztiak biltzen dituzten eskaintzak aurkezten direnean, horrelakoetan eskaintza guztiek kontratu bat eratuko baitute.

53. artikulua. *Kontratuaren gutxieneko edukia.*

1. Entitate kontratatzaileek egiten dituzten kontratuetan honako hauek aipatu behar dira nahitaez:

a) Alderdiak zein diren.

b) Alderdiek kontratua izenpetzeko duten gaitasunaren egiaztapena.

c) Kontratuaren objektuaren definizioa, objektuaren definizioan kontsiderazio sozial, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak kontuan hartuta.

d) Kontratuari aplikatzekoa zaion legeria.

e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda zenbakitua. Artikulu honen 2. apartatuan ezartzen dena gorabehera, kontratuan hala adieraziz gero, zerrenda hori hierarkizatua izan daiteke, alderdiek erabakitako lehentasun-hurrenkeraren arabera; horrelakoetan, ageriko akatsik ezean, hitzartutako hurrenkera erabiliko da dokumentuen artean kontraesanak daudenean bakoitzari dagokion prebalentzia zehazteko.

f) Prezio zehatza, edo zehazteko modua.

g) Kontratuaren iraupena edo kontratua egikaritzen hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak, bai eta luzapenaren edo luzapenen iraupena ere, baldin eta aurreikusita badaude.

h) Prestazioak jasotzeko, entregatzeko edo onartzeko baldintzak.

i) Ordaintzeko baldintzak.

j) Zer kasutan alda daitekeen 110. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritz.

k) Zer kasutan suntsiaraziko den.

l) Sektore publikoko entitate kontratatzaileen kontratuetan, prezioa zer aurrekontu-kredituren edo kontabilitateko programa edo errubrikaren kontura ordainduko den.

m) Kontratistari ezartzen zaion eta 28. artikuluan aipatzen den konfidentzialtasun-betebeharraren eremu objektiboa eta iraunaldia.

n) Kontratuaren balio zenbatetsia.

2. Kontratu-agirian ezin da agertu estipulaziorik alderdiei baldintzen agirietan ez dauden eskubideak eta betebeharrak ezartzen dizkienik.

Eskubide eta betebeharrak horiek zehazteko modua adjudikaziodunaren proposamenaren arabera izango da, edo kontratua prozedurako jarduketan arabera adjudikatzen den egintzan behar diren arabera izango dira horiek.

3. Sektore publikoko entitate kontratatzaileen kontratuen prezioa azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 103. artikuluan ezartzen denarekin bat etorri baino ezin izango da berrikusi, eta bertan ezartzen diren mugak aplikatuz, gainera.

54. artikulua. *Kontratuen iraunaldia.*

1. Entitate kontratatzaileen kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu behar dira prestazioen zer-nolakoa, finantzaketaren nolakoa eta aldi-aldi prestazio horiek lehia bidez eman beharra.

2. Kontratuak behin edo zenbait aldiz luzatzeko aukera jaso ahal du, baldin eta haren ezaugarriak ez badira aldatzen luzapen horiek irauten duten bitartean; hori ez da eragozpena izango errege lege-dekretu honen 109. artikulutik 112.era ezartzen denaren arabera sartzen diren aldaketetarako.

3. Obren emakidako eta zerbitzuen emakidako kontratuak iraunaldi mugatua edukiko dute. Iraunaldia kontratuaren objektu diren obren eta zerbitzuen arabera kalkulatu da, eta baldintzen agirian agertuko da; oro har, kontratuaren iraunaldia ezin da izan bost urte baino luzeagoa, entitate kontratatzaileak bigarren apartatua aplikatuz erabakitzen dituen luzapenak barne.

Aurrekoa gorabehera, obren edo zerbitzuen emakidaren iraunaldia aurreko paragrafoan ezarritakoa baino luzeagoa izan behar bada, gehieneko iraunaldia ezin izango da izan obrak edo zerbitzuak ustiatzeko emakida jasotzen duen egindako inbertsioak –eta, horiekin batera, inbertitutako kapitalaren gaineko etekina, kontratuaren helburuak lortzeko behar diren inbertsioak kontuan hartuta– berreskuratzeko entitate kontratatzaileak kalkulatu duen arrazoizko denbora baino luzeagoa. Bai hasierako inbertsioak eta bai emakida-kontratu egikartzeko egin asmo diren guztiak zenbatu behar dira.

4. Gainera, sektore publikoko entitate kontratatzaileei azaroaren 8ko 9/2017 Legean iraunaldiaz ezartzen dituen muga eta luzapenak aplikatuko zaizkie, eta lege horren 29.9 artikulua ere bai.

II. KAPITULUA

Hautagaiek eta lizitatzzaileek bete beharreko baldintzak

55. artikulua. *Eskatzen den kaudimena.*

1. Lizitatzzaileek eta hautagaiek bete beharreko gutxieneko kaudimen-baldintzak, eta horiek betetzen direla frogatzeko agiriak, lizitazioaren deialdian zehaztuko dira edo, lizitazioaren deialdia egiteko sailkapen-sistemaren berri ematen duen iragarkia erabiliz gero, lizitatzeko edo negoziatzeko gonbidapenean, eta, nahitaez, baldintzen agirietan.

2. Oro har, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko bitartekoak entitate kontratatzaileak ezarriko ditu, errege lege-dekretu honetan eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen lehen liburuaren II. tituluaren II. kapituluaren arautzen diren artean hautatuta; gainera, eskatu ahal izango dute enpresaburuak bere hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia ez dadila izan azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 87.1 artikuluan c) letraren bigarren paragrafoan xedatzen denarekin bat etorri ezartzen den muga baino luzeagoa. Nolanahi ere, entitate kontratatzaileek beste frogabide batzuk ere onartu ahal izango dituzte, baina zuzenbidean onartuak izan behar dira.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, entitate kontratatzailea botere adjudikatzailea bada, eskatu ahal izango da enpresaburuak obra-kontratista edo zerbitzu-kontratista gisa sailkatuak izatea, eta horrek ondorioak sortuko ditu kontratatzeko haien gaitasuna egiaztatzeko, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 77. artikuluan 1. apartatutik 4.era eta 78. artikuluan ezartzen dituen kasuetan eta artikuluan horietan ezartzen denarekin bat etorri.

56. artikulua. *Hautagaien eta lizitatzailen hautapen kualitatiborako irizpideak.*

1. Entitate kontratatzaileek, hautapen-irizpideak ezartzen badituzte prozedura ireki batean, kontuan eduki beharko dituzte lizitazioaren deialdian eta baldintzen agirietan ezartzen diren arau eta irizpide objektiboak; ondorioz, arau eta irizpide horiek eskura eduki behar dituzte operadore ekonomiko interesdunek.

2. Entitate kontratatzaileek, hautagai batzuk aukeratzen badituzte lizitazio-prozedura negoziatu baterako, lehia-elkarrizketaren prozedura baterako edo berrikuntzarako elkartzeko prozedura baterako, kontuan eduki beharko dituzte lizitazioaren deialdian eta baldintzen agirietan ezartzen diren arau eta irizpide objektiboak; ondorioz, arau eta irizpide horiek eskura eduki behar dituzte operadore ekonomiko interesdunek.

Entitate kontratatzaileek, oreka egokia gorde nahi badute lizitazio-prozeduraren ezaugarri berezien eta hura gauzatzeko behar diren baliabideen artean, aurreko paragrafoan aipatzen diren prozeduretan oreka-beharra islatzen duten arau eta irizpide objektiboak ezarri ahal izango dituzte, aukera ematen dietenak lizitaziorako edo negoziatorako gonbidatzen dituzten hautagaien kopurua murrizteko. Nolanahi ere, hautagaien kopurua ezartzean kontuan eduki beharko da lehia behar bezalakoa izan behar dela.

Lizitazioaren deialdia egiteko 40. artikuluan aipatzen den eta sailkapen-sistema baten berri ematen duen iragarkia erabiltzen bada, entitate kontratatzaileak sistema horren arabera sailkatuko ditu operadore ekonomikoak, prozedura murriztuan edo lizitazio-prozedura negoziatuan parte hartuko dutenak hautatzeko, eta sailkapenerako hautatzen direnei aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatuko zaie.

3. Prozedura irekietan, prozedura murriztuetan, lizitazio-prozedura negoziatuetan, lehia-elkarrizketetan edo berrikuntzarako elkartzeko prozeduretan hautagaiak onartzeko eta bazter uzteko irizpide eta arau objektiboetan operadore ekonomikoaren gaitasun ekonomiko eta finantzarioari edo gaitasun tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak ezartzen badira, operadore ekonomikoak, nahi badu, kontratu jakin baterako, beste entitate baten gaitasunak baliatu ahal izango ditu (horretarako prozedura eta baldintzak 36. artikuluan arautzen dira). Halakoetan, operadore ekonomikoak entitate kontratatzaileari frogatu beharko dio kontratua egikaritzeko behar diren baliabideak edukiko dituela haren iraunaldi osoan, eta, horretarako, 36.3 artikuluan aipatzen den konpromisoa aurkeztu beharko du. Hori guztia eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzailak egin beharko du, 66. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik, kontratua adjudikatu baino lehen.

Obra-kontratuetan, zerbitzu-kontratuetan eta zerbitzuak eta instalazioak egiteko lanak eragiten dituzten hornidura-kontratuetan, entitate kontratatzaileek eskatu ahal izango dute arlo kritiko jakin batzuk lizitatzailak berak zuzenean egiteko edo, eskaintza enpresaburu-elkarte batek aurkeztu badu (elkarte horiek 31. artikuluan arautzen dira), elkarteko kide batek; horretarako ezinbestekoa izango da hori baldintzen agirian adieraztea, lanak zehaztuta.

57. artikulua. *Kontratatzeko baldintzak betetzen direla frogatzen duten agiriak.*

1. Entitate kontratatzaileek, eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkezten direnean, kontratatzeko baldintzak (30., 55. eta 56. artikuluetan aipatzen direnak) betetzen direlako aldeztu aurreko frogak gisa onartuko dute lizitatzaila edo hautagaien erantzukizunpeko adierazpena, baldintza horiek betetzen direla frogatzen duten agirien ordeztu. Adierazpen hori Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioaren arabera egin behar da, hurrengo 11. apartatuan ezartzen denarekin bat etorritik.

2. Prozedura irekietan, eskaintzarekin batera aurreko 1. apartatuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, sinatuta eta behar bezala identifikatuta; adierazpenean honako hauek zehaztu behar dira:

a) Sozietatea balio duen eran eratuta dagoela eta bere xede sozialaren arabera lizitaziora aurkeztu ahal dela, eta adierazpenaren sinatzaileak behar den ordezkari izan behar duela proposamena aurkezteko eta sozietatea ordezkatzeko.

b) Behar den sailkapena duela, hala badagokio, edo eskatzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, baldintza-agiriak ezartzen dituen baldintzetan, hurrengo 11. apartatuak aipatzen duen Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioaren arabera.

c) Sozietateak ez daukala azaroaren 8ko 9/2017 Legeak kontratatzeke ezartzen duen debekurik, ez berez, ez lege horren 71.3 artikulua aplikazioz.

d) 61. artikulua arabera jakinarazpenak egiteko posta elektronikoko helbide bat, entitate kontratatzaileak jakinarazpenak posta elektronikoz egitea hautatzen badu ere. Inguruabar hori baldintzen agirian ezarri beharko da.

3. Prozedura murriztuetan, lizitazio-prozedura negoziatuetan, lehia-elkarriketaren prozeduretan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduretan parte hartzeko eskaeren kasuan, aurreko 1. apartatuan aipatzen diren erantzukizunpeko adierazpenean, aurreko guztiaz gainera, zehaztu beharko da errege lege-dekretu honen 56. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarritako baldintza objektiboak betetzen direla, baldintza-agirian ezartzen den bezala, hurrengo 11. apartatuan aipatzen den Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuaren arabera.

4. Enpresaburuak beste enpresa batzuen gaitasunak baliatzen baditu, 56.3. artikuluan xedatutakoari jarraituz, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, kasu horietarako behar den informazioa duena. Adierazpena 11. apartatuan aipatzen den Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuaren arabera egin beharko da.

56.3 artikulua lehen paragrafoan aipatzen den konpromisoa artikulua honen 13. apartatuan xedatutakoaren arabera aurkeztuko da.

5. Sektore publikoko entitate kontratatzaileen kontratuaren ezartzen bada eskaintza aurkezteko ezinbestekoa dela bermea aurkeztea, berme horri azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 114. artikuluan xedatzen duena aplikatuko zaio.

Gainerako kontratuaren, entitate kontratatzaileak aurreko paragrafoan aipatzen den bermea eskatzen badu, enpresaburu interesdunak bermea eratu duela frogatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

6. Zenbait enpresaburu 31. artikuluan xedatzen denaren itzalpean elkarrekin batean bildurik aurkezten diren kasuetan, elkarteko enpresa bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, kasu horietan eskatzen den informazioa duena. Adierazpena hurrengo 11. apartatuan aipatzen den Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioaren arabera egin behar da.

Kontratua adjudikatuz gero, aurreko paragrafoko adierazpenaz edo adierazpenez gainera, enpresaburuek elkarrekin eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, 31.4 artikuluan eskatzen den bezala.

7. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaz gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian egikaritzeko bada, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta kasua suertatuko balitz lizitatuzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo lioketela jakinaraziko dute bertan.

8. Baldintzen agiriak kontratuaren objektua sortatzen banatzea aurreikusten duenean, eskatzen diren ekonomia- eta finantza-kaudimeneko edo kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak sortatik sortara aldatzen badira, kaudimen-betekizun berak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzari edo sorta multzo bakoitzari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da.

9. Baldin eta errege lege-dekretu honen arabera baldintzen agirian eskatzen bada beste inguruabarren bat egiaztatzeke, agiri horretan bertan zehaztu beharko da nola egiaztatzea behar den, aurreko 1. apartatuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatzea ezin bada.

10. Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeke debekuei buruz aurreko apartatuaren aipatzen diren inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta ordutik kontratua burutu arte.

11. Baldintzen agirian entitate kontratatzaileek, 1. apartatuko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharra ez ezik, adierazpena egiteko eredia ere ezarri beharko dute.

Baldintzen agirian ezartzen den eredia Europar Batasunean onartutako Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioaren arabera izango da.

12. Entitate kontratatzaileak, zuzentzeko moduko akatsak atzematen baditu erantzukizunpeko adierazpenean, hiru egun emango dizkio enpresaburuari zuzentzeko.

13. Entitate kontratatzaileak lizitazio-prozeduran zehar noiznahi eskatu ahal izango die lizitatzaleei eta hautagaiei aurkez ditzatela frogagiri guztiak edo batzuk, baldin eta uste badu zentzuzko zalantza daudela adierazpenaren indarrak edo fidagarritasunaz edo beharrezkoa bada lizitazio-prozedura ondo bideratzeko.

Esparru-akordioetan oinarritutako kontratuetan ez beste guztietan, kontratua adjudikatu aurretik entitate kontratatzaileak hura adjudikatzea erabaki duen lizitatzaleari eskatuko dio aurkez ditzala frogagiri eguneratuak. Entitate kontratatzaileak, zuzentzeko moduko akatsak atzematen baditu agiri horietan, zuzentzeko behar besteko epealdia emango dio enpresaburuari.

14. Aurreko apartatuan xedatzen dena gorabehera, hautagaiek eta lizitatzaleek ez dituzte aurkeztu beharko entitate kontratatzaileak badauzkan datuak egiaztatzen dituzten frogagiriak (ez bestelako dokumentu-frogarik), ez eta zuzenean eta doan, Sektore Publikoko Lizitatzaleen Sektore Publikoko Lizitatzaleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu baten datu-base nazional batean, eskuratu daitezkeen datuak egiaztatzen dituztenak ere (enpresaren espediente birtuala, dokumentuen biltegi elektronikoa edo aurre-kalifikaziorako sistema).

III. KAPITULUA

Adjudikazio-prozedura

1. atala. Arau orokorrak

58. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. Agerian jartzen bada operadore ekonomiko batek aurkeztutako informazioari edo dokumentazioari zerbait falta zaiola edo oker dagoela, edo dokumentu zehatzen bat falta bada, entitate kontratatzaileak operadore ekonomikoari eskatu beharko dio aurkez dezala falta den informazioa edo dokumentazioa, edo zuzendu dezala oker dagoena, hiru egun pasatu baino lehen. Halako eskaeretan nahitaez bete behar dira tratu-berdintasunaren, gardentasunaren eta lehia askearen printzipioak, bai eta Merkatu Batasuna Bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legean aipatzen diren merkatu-batasuna bermatzeko printzipioak ere.

2. Entitate kontratatzaileek egiaztatuko dute ea hautatutako lizitatzaleek aurkeztutako eskaintzek betetzen dituzten aplikatzen zaizkien arauak eta baldintzak, eta 66. eta 69. artikuluetan ezartzen diren irizpideetan oinarrituz adjudikatuko dute kontratua, 68. artikuluan kontuan edukiz.

3. Entitate kontratatzaileek ez diote adjudikatuko kontratua 66. artikuluan xedatzen denaren arabera eskaintzarik hoberena egin duen lizitatzaleari honako kasu honetan: egiaztatzen badute eskaintzak ez dituela betetzen 27.4 artikuluan ezartzen diren betebeharrak.

59. artikulua. *Lehia murrizten duten jarduketak eta jokabideak baztertzea.*

1. Adjudikazio-prozeduran eta kontratuak esparru-akordio batean oinarrituta adjudikatzen direnean, bazterrean utziko dira Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legean ezartzen denaren arabera lehia eragozten, murrizten edo aizuntzen duten akordio, jardunbide eta abusu-jarduketa guztiak. Hautagaiei edo lizitatzaleei xede bakar batekin eskatu ahal izango zaie informazioa: eskaintzen edukia zehazteko edo osatzeko, eta entitate kontratatzaileak eskatzen dituen baldintzak betetzeko. Nolanahi ere, ezinbestekoa da horren bidez inor ez diskriminatzea.

2. Entitate kontratatzaileek une oro zainduko dute adjudikazio-prozedura, lehia askea babeste aldera. Hartara, bai entitate kontratatzaileek, bai Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak edo, bestela, autonomia-erkidegoetako kontratazio publikoaren arloko aholku-organoek edo haien baliokideek, eta errege lege-dekretu honen 119. artikuluan aipatzen diren kontratazioaren arloko erreklamazioak ebazteko eskumena daukaten organoek, beren eginkizunak betetzean lehiaren babesari buruzko legeria hausten duen zerbaiten berri badute, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo, bestela, autonomia-erkidegoetako agintaritza eskudunari jakinarazi beharko diote. Bereziki, akordio, erabaki edo gomendio kolektiboen zantzu oro edo lizitatzailen arteko praktika itundu edo nahita paraleloa den jarduera oro jakinaraziko dute, horien helburua kontratazio-prozesuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada edo lehia benetan eragozten, murrizten edo faltsutzen badute edo eragotzi, murriztu edo faltsutu ahal badute.

3. Dena dela kontratua adjudikatzeko-prozedura, ezin baztertu izango dira hautagaiak edo lizitatzailak pertsona fisikoa edo juridikoa izate hutsagatik.

Hala ere, zerbitzu-kontratueta, obra-kontratueta, zerbitzu-emakidako kontratueta, obra-emakidako kontratueta, eta zerbitzuak eta instalazioak egiteko lanak ere eragiten dituzten hornidura-kontratueta, pertsona juridikoei eskatu ahal izango zaie eskaintzan edo parte hartzeko eskaeran jar ditzatela kontratua egikaritzeko ardura edukiko duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioak.

60. artikulua. *Epeen zenbaketa.*

1. Errege lege-dekretu honetan ezarritako epe guztiak egutegiko egun naturalen arabera dira, bertan egun baliodunen arabera direla adierazten denean izan ezik. Epearen azken eguna baliogabea bada, epea hurrengo egun baliodunean amaitzen dela iritziko zaio. Nolanahi ere, proposamenak edo parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea zer egun eta orduan amaituko den adierazi beharko da lizitazio-deialdi gisa balio duen iragarkian, edo, sailkapen-sistema bat izateari buruzko iragarkia erabiltzen bada deialdia egiteko, gonbidapenean.

2. Eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak ezartzean, entitate kontratatzaileek bereziki kontuan hartuko dituzte kontratuaren konplexutasuna eta eskaera edo eskaintza prestatzeko beharrezkoa izan daitekeen zentzuzko denbora, alde batera utzi gabe 82. artikulutik 87.era bitartekoetan arautzen diren gutxieneko epeak.

3. Eskaintzak egin aurretik nahitaez *in situ* kontsultatu behar badira baldintza-agiriei erantsitako dokumentuak edo dauden tokietara joan beharra badago, eskaintzak aurkezteko epeak luzeagoak izango dira prozedura bakoitzerako ezarritako epe orokorrak baino, eta ukitutako operadore ekonomiko guztiek eskaintzak prestatzeko beharrezkoa den informazio osoa jaso ahal izateko eran finkatuko dira.

4. Behean azaltzen diren kasuetan entitate kontratatzaileek luzatu egin beharko dute eskaintzak aurkezteko epea, ukitutako operadore ekonomiko guztiek jaso ahal izan dezaten eskaintzak prestatzeko behar duten informazio osoa:

a) Dena delako arrazoiagatik, eskaintzak aurkezteko finkatutako epealdia amaitu baino sei egun lehenago gutxienez operadore ekonomiko bati ez zaionean ematen 64.1 artikuluan aipatzen den informazio osagarria, baldin eta operadore ekonomikoak nahikoa denbora lehenago eskatu badu. Prozedura ireki azkarra erabiltzen bada (82.5 artikulua), epealdia lau eguneko izango da.

Hala ere, informazio gehigarria nahikoa denbora lehenago eskatu ez bada edo ez badauka inolako garrantzirik eskaintza onargarria prestatzeko, entitate kontratatzaileak ez du edukiko zertan luzatu epealdiak.

Nolanahi ere, honako hau joko da informazio garrantzitsutzat artikulua honen ondorioetarako:

1.a Lizitatzaille bati transmititutako informazio gehigarri oro.

2.a Kontratazioaren baldintza-agiri eta dokumentuetan aipatutako elementuei lotutako informazio oro.

b) Baldintza-agiriko aldaketa esanguratsuak, hasieratik egonez gero aukera emango zutenak lizitaziorako beste hautagai batzuk onartzeko edo lizitazio-prozedurara parte-hartzaile gehiago erakartzeko.

Nolanahi ere, honako hauetan eragiten dutenak hartuko dira baldintza-agirien aldaketa adierazgarritzat:

- 1.a Eskatutako sailkapena.
- 2.a Kontratuaren zenbatekoa eta iraunaldia.
- 3.a Adjudikaziodunaren betebeharrak.
- 4.a Kontratuaren objektua aldatzea edo mudatzea.
- 5.a Preskripzio teknikoak.

Luzapenaren iraunaldia aurreko a) letran aipatzen den informazioaren edo b) letran aipatzen den aldaketaren garrantziaren arabera izango da.

5. Proposamenak aurkezteak edo haiek aurkezteko behar den dokumentazioa jasotzeak inongo prozeduratan ezingo du berekin ekarri lizitatzaillei inongo diru kopururik eskatzea.

61. artikulua. *Komunikazioei buruzko arauak.*

1. Arau orokor gisa, entitate kontratatzaileek bermatu egingo dute artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten komunikazio-bitartekoak erabiliko direla errege lege-dekretu honetan aurreikusten diren komunikazio eta informazio-truke guztietan, eta, bereziki, igorpen elektronikoetan.

Errege lege-dekretu honetan araututako kontratuak adjudikatzeko prozedurak izapidetzeak berekin ekarriko du horiekin zerikusia duten jakinarazpen eta komunikazioak soilik bide elektronikoaren bitartez egitea.

Aurretik ezarritakoa alde batera utzi gabe, sektore publikoko entitate kontratatzaileen kontratazio-prozeduretan, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarriaren 1. apartatua aplikatuko da, jakinarazpenei buruzkoa bera.

2. Bitarteko elektronikoaren bidez komunikatzeko erabili beharreko tresnek eta gailuek eta haien ezaugarri teknikoek ez dute diskriminaziorik eragingo, guztiontzat eskuragarri egongo dira, bateragarriak izango dira erabilera orokorreko produktu informatikoeekin eta ez diete lizitazio-prozeduretarako irispidea oztopatuko operadore ekonomikoei.

3. Alde batera utzi gabe 1. apartatuan xedatutakoa, honako kasu hauetan entitate kontratatzaileek ez dute zertan komunikazio-bitarteko elektronikoak erabiltzeko eskatu eskaintzak aurkezteko prozesuetan:

a) Kontratazioaren izaera espezializatua dela-eta, komunikaziorako bitarteko elektronikoak erabiltzeko berekin dakarrenean guztien eskura ez dauden tresna, dispositibo edo artxibo-formatu berariazkoak erabili behar izatea edo orokorrean erabilgarri dauden programak onartzen ez dituztenak behar izatea.

b) Eskaintzak deskribatzeko fitxategi-formatu egokiak baliatzen dituzten aplikazioek beste programa ireki batzuek edo guztien eskura daudenean prozesatu ezin dituzten fitxategi-formatuak erabiltzen dituztenean, edo aplikazio horiek erabilera pribatiboko lizentzia-araubide baten mende daudenean eta entitate kontratatzaileak ezin dituztenean haiek eskaini deskargatzeko edo urrutitik erabiltzeko.

c) Komunikazio elektronikoak erabiltzea nahitaez loturik dagoenean bulegotikako tresna espezializatuak erabiltzearekin; hain zuzen, entitate kontratatzaileek izan ohi ez dituzten tresna espezializatuak erabiltzearekin.

d) Baldintza-agiriek eredu fisikoak edo eskalara egindakoak aurkeztea eskatzen dutenean, bitarteko elektronikoak erabiliz ezin transmititu daitezkeenak.

Apartatu honetan ezarritakoaren arabera komunikaziorako bitarteko elektronikoak erabiltzen ez diren informazio-trukeei dagokienez, komunikazioa postaz egingo da, edo beste edozein bitarteko egoki erabiliz, edo posta zein beste bitarteko egoki baten eta

bitarteko elektronikoen konbinazioaren bidez. Komunikaziorako erabiltzen diren bitartekoek beti eman beharko dute aukera egindako komunikazioa modu sinesgarrian egiaztatzeko.

Entitate kontratatzaileek, apartatu honetako aurreko paragrafoari jarraituz baimena ematen badute elektronikoa ez diren komunikazio-bitartekoak erabil daitezzen eskaintzak aurkezteko prozesuan, horren arrazoiak jasorik utzi beharko dituzte berariaz egindako txosten batean.

4. Halaber, entitate kontratatzaileek ez dituzte komunikaziorako bitarteko elektronikoa eskatu beharko eskaintzak aurkezteko prozesuan, komunikaziorako bitarteko ez-elektronikoa erabili behar badira, dela aipatutako bitarteko elektronikoen segurtasuna urratu delako, dela babes handia eskatzen duen informazio labain-labaina babestu nahi delako; hain zuzen, behar den babes hori hain handia izanik ezin denean egoki bermatu operadore ekonomikoek eskura izan ohi dituzten gailu eta tresna elektronikoa erabiliz edo hurrengo 8. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako irispiderako beste bitarteko batzuen bidez eskura ditzaketenak erabiliz.

Entitate kontratatzaileek, apartatu honetako aurreko paragrafoari jarraituz baimena ematen badute elektronikoa ez diren komunikazio-bitartekoak erabil daitezzen eskaintzak aurkezteko prozesuan, horren arrazoiak jasorik utzi beharko dituzte berariaz egindako txosten batean.

5. Ezertan eragotzi gabe 1. apartatuan xedatutakoa, ahozko komunikazioa erabili ahal da lizitazio-prozedura baten funtsezko elementuei buruzkoak ez diren komunikazioetarako, baldin eta ahozko komunikazioaren edukia nahikoa dokumentaturik badago. Horretarako, lizitazio-prozeduraren funtsezko elementuak honako hauek dira: baldintza-agiriak, parte hartzeko eskaerak eta eskaintzak. Bereziki, eskaintzen edukian eta ebaluazioan funtsezko eragina izan dezaketen lizitatzailerikiko ahozko komunikazioak nahikoa dokumentatuta egongo dira, behar diren bitartekoaren bidez; besteak beste, komunikazioaren elementu nagusien idatzizko edo ahozko laburpenak edo artxiboak.

6. Entitate kontratatzaileek zainduko dute komunikazio, informazio-truke eta informazio-biltegiratze guztietan datuen osotasuna eta eskaintzen zein parte hartzeko eskaeren konfidentzialtasuna gorde daitezzen. Hala, entitateok ez dute eskaintzen eta parte hartzeko eskaeren edukia aztertuko haiek aurkezteko epea amaitzen den arte eta haiek irekitzeko finkatu den unera arte.

7. Obra-kontratueterako eta proiektuen lehiaketetan, entitate kontratatzaileek eskatu ahal dute berariazko tresna elektronikoa erabil daitezela, hala nola eraikuntzako informazioaren eredu digitala egiteko tresnak (BIM) edo antzeko tresnak. Kasu horietan, entitate kontratatzaileek irispiderako bitarteko alternatiboak eskainiko dituzte, hurrengo apartatuan xedatutakoaren arabera, harik eta tresna horiek guztien eskura egon arte.

8. Beharrezkoa denean, entitate kontratatzaileek eskatu ahal dute guztion eskura ez dauden tresnak erabil daitezela, baldin eta tresna horiek eskuratu ahal izateko bitarteko alternatiboak eskaintzen badituzte.

Honako kasu hauetan, entitate kontratatzaileek irispiderako bitarteko alternatiboak eskaintzen dituztela iritziko zaio:

a) Tresna eta gailu horietarako irispide osoa eta zuzenekoa doan eskaintzen dutenean bitarteko elektronikoen bidez, lizitazio-deialdi gisa balio duen iragarkia argitaratzen den egunetik edo gonbidapena bidaltzen den egunetik. Lizitazio-deialdi gisa balio duen iragarkiaren edo gonbidapenaren testuak zehaztuko du Interneteko zer helbidetatik eskura daitezkeen tresna edo gailu horiek.

b) Kasuan kasuko tresna eta gailuetarako irispiderik ez duten eta irispide falta hori berei ezin egotz dakiekeen lizitatzailerik edo tresna eta gailu haiek finkatutako epean lortzeko aukerarik ez duten lizitatzailerik kontratazio-prozedurarako irispidea bermatzen dietenean, linean eta doan eskura daitezkeen irispide-mekanismo behin-behinekoak erabiliz.

c) Eskaintzak modu elektronikoz aurkezteko bide alternatibo bat onartzen dutenean.

9. Eskaintzen igorpen eta jasotze elektronikorako eta parte hartzeko eskaeren jasotze elektronikorako tresna eta gailuei buruz IV. eranskinean ezarritako baldintzez gainera, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak –zifratua eta dataren balidatzea barne– modu automatikoan aurkezteko zehaztapenei buruzko informazioak interesdun guztien eskueran egon beharko du.

b) Entitate kontratatzaileek zehaztu beharko dute zer segurtasun-maila eskatzen zaien kontratazio-prozedura bakoitzaren fase bakoitzean erabiltzen diren komunikaziorako bitarteko elektronikoei; izan ere, segurtasun-maila horrek egin beharreko informazio-trukeei lotutako arriskuen proportzioan egon beharko du.

Horretarako, entitate kontratatzaileek eskatu ahal izango dute Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen arabera onartutako sinadura elektronikoa bat erabil dadila, edo bestelako mekanismoak erabil daitezela sinatzailearen eta sinatutako datuen arteko lotura eta trukaturako informazioaren osotasuna bermatzeko.

Ogasun Ministerioaren agindu baten bitartez ezarriko dira errege lege-dekretu honetan araututako kontratazio-prozeduretan sinadura elektronikoa erabiltzeko baldintzak.

c) Kontratuak esleitzeko prozeduretan, eskaintzak bitarteko elektronikoa bidez bi fasetan bidali ahal izango dira: lehenengo, eskaintzaren sinadura elektronikoa helarazi beharko da (sinadura hori jasotzearekin, egintzat hartuko da eskaintzaren aurkezpena, ondorio guztietarako), eta, gero, eskaintza bera, gehienez ere 24 orduko epean; bigarren igorpen hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ondorioztatuko da. Eskaintzaren marka elektronikoa halako datu multzo bat da, zeinaren sorrera-prozesuak bermatzen baitu datu horiek zalantzarik gabeko eran lotuta daudela eskaintzaren beraren edukiarekin; datu horiek, gainera, aukera ematen dute eskaintzaren edukian gerta daitezkeen alaketak detektatzeko eta haren integritatea bermatzeko. Espedienteari erantsi behar zaizkion dokumentuen kopia elektronikoen, dokumentuok jasotzeko gaitutako administrazio-organismoaren sinadura elektronikorekin kautoturik, dokumentu horien kopia konpultsatuek bezalako balioa eta ondorioak izango dituzte.

d) Beren dokumentuak modu elektronikoa aurkezten dituzten lizitatzaileek edo hautagaiek entitate kontratatzaileari aurkeztu ahalko diote dokumentu horien segurtasun-kopia bat euskarri fisiko elektronikoa, Ogasuneko ministroaren aginduaren bidez ezarritakoarekin bat, betiere entitate kontratatzaileak horretarako ezarritakoari jarraituz.

e) Kontratazio-espedienteak osatzen dituzten dokumentu elektronikoen formatuak edonork eskuratzeko moduko zehaztapenen arabera izan beharko dira, eta murriztapenik gabe erabiltzekoak; bermatu behar dute, gainera, entitate kontratatzaileak, fiskalizazio- eta kontrol-organismoek, organo jurisdikzionalak eta interesdunek irispide librea eta osoa edukiko dutela 124.2 artikuluan ezartzen den epealdian. Kontratuak adjudikatze prozeduretan, zer formatu onartzen diren adierazi beharko da iragarkian, gonbidapenean edo baldintza-agirietan.

f) Eskaintzen eta parte hartzeko eskaeren aurkezpen elektronikorako behar diren programa eta aplikazioek, berriz, erabilera zabal eta irispide errazekoak izan beharko dute, eta ezingo dute diskriminaziorik eragin, edo entitate kontratatzaileak interesdunen eskueran jarri beharko ditu.

g) Komunikazio-sistemak eta informazioa trukatzeko eta biltegitatzeko sistemak kapaz izan beharko dute, teknikaren egoeraren arabera, zentzuzko modu batean bermatzeko transmititzen diren datuen osotasuna; halaber bermatu beharko dute pertsona edo unitate eskudunek bakarrik eduki ahal izatea irispidea datu horietara, horretarako zehaztutako datan, edo irispidea izateko debeku hori urratzen bada, debeku-urratze hori argi eta garbi detektatu ahal izatea. Sistema horiek, era berean, nahikoa segurtasuna eskaini beharko dute, teknikaren egoerari jarraituz, birus informatikoen eta bestelako programa edo kode kaltegarrien aurrean, eta beste neurri batzuk ere ezarri ahalko dira erregelamendu bidez. Neurri horiek eskaintzen konfidentzialtasun- eta osotasun-printzipioak eta lizitatzaileen arteko berdintasuna errespetatuko dute, eta birus edo kode horiek prozeduretan duten eragina ahalik eta txikiena izan dadin izango dute xede.

h) Lizitzaile edo kontratistaren eta kontratazio-organoaren arteko komunikazioak, jakinarazpenak eta dokumentu-bidalketak egiteko erabiltzen diren aplikazioek ahalmena izan behar dute bidaltze- edo jasotze-data eta -ordua, edukiaren osotasuna, eta bidaltzailea eta hartzailea egiaztatzeko. Aplikazio horiek, bereziki, honako hau bermatu behar dute: jasota uzten dela zer ordu eta data zehazetan hartu diren proposamenak edo parte hartzeko eskabideak, bai eta entitate kontratatzailean aurkeztu behar diren dokumentu guztiak ere.

10. Ogasun Ministerioaren agindu baten bitartez finkatuko dira errege lege-dekretu honetan araututako kontratazio-prozeduretan bitarteko elektronikoak erabiltzeko zehaztapen teknikoak.

62. artikulua. *Hautagai edo lizitzaileen aurreko parte-hartzea.*

1. Hautagai edo lizitzaile batek, edo hautagai edo lizitzaile bati lotutako enpresa batek, entitate kontratatzailea aholkatu badu 41. artikuluko egoeran, edo beste nolabait parte hartu badu lizitazio-prozeduraren prestaketan, entitate kontratatzaileak neurri egokiak hartuko ditu hautagai edo lizitzaile horren parte-hartzeak lehia faltsutuko ez duela bermatzeko.

2. Aurreko apartatuak aipatzen dituen neurrien artean hau dago: hautagai edo lizitzaileak kontratazio-prozeduraren prestaketan izandako parte-hartzearen esparruan edo parte-hartze horren emaitza gisa trukaturako informazioa komunikatzea gainerako hautagai edo lizitzaileei, eta eskaintzak jasotzeko epe egokiak ezartzea. Hautagai edo lizitzaile hori prozeduratik baztertuko da soilik beste biderik ez dagoenean tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadin bermatzeko.

3. Baztertu aurretik, entzun egin beharko zaio baztertuta gera daitekeen hautagai edo lizitzaileari, frogatu ahal izan dezan berak kontratazio-prozeduraren prestaketan parte hartu izanak ez diola kalterik egiten lehiri.

63. artikulua. *Hautatutako hautagaiak gonbidatzea.*

1. Prozedura murriztuetan, lehia-elkarrizketetan, berrikuntzarako elkartzeko prozeduretan eta lizitazio-prozedura negoziatuetan, entitate kontratatzaileek aldi berean eta idatziz gonbidatuko dituzte aukeratutako hautagaiak beren eskaintzak aurkeztera, elkarrizketan parte hartzera edo negoziatzera, V. eranskinean ezarritako edukiarekin.

Sailkapen-sistema izateari buruzko iragarkia erabiltzen denean lizitazio-deialdia egiteko, entitate kontratatzaileek aldi berean eta idatziz gonbidatuko dituzte 40. artikuluan adierazitakoari jarraituz aukeratutako enpresak, kontratazio-prozedura horretan interesa dutela berrets dezaten.

2. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren gonbidapenetan helbide elektroniko bat emango da baldintza-agiriak zuzenean kontsultatu ahal izan daitezen bitarteko elektronikoak erabiliz. Gonbidapenei baldintza-agiriak erantsiko zaizkie, baldin eta, 43.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, dokumentazio horrek ez badu irispide libre, zuzen, oso eta doakorik izan eta ez bada beste inola guztien eskura jarri. Gainera, artikulu honen 1. apartatuan aipatutako gonbidapenek V. eranskinean adierazitako informazioa bildu beharko dute.

64. artikulua. *Hautagaiei eta lizitzaileei informazioa ematea.*

1. Entitate kontratatzaileek lizitazio-prozeduran interesa duten guztiei baldintza-agiriaren gaineko informazio gehiago eta eskatzen duten gainerako dokumentazio osagarria emango dizkiete, behar besteko aurrerapenez eskatzen badute. Eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino sei egun lehenago emango diete informazio hori, beranduenez. Obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, sei eguneko epea lau egunera laburtuko da 82.5 artikuluan azaltzen den kasuan.

2. Entitate kontratatzaileek hautagai eta lizitzaile bakoitza informatuko dute, ahal den epe laburrenean, esparru-akordio bat egiteari buruz, kontratuaren adjudikazioari buruz

edo eskuratzeko sistema dinamiko bat onartzeari buruz hartutako erabakiez; besteak beste, arrazoiak emango dituzte erabakia hartzen badute esparru-akordioa ez egiteko, lizitazio-deialdi bat egin ondoren ere kontratu bat ez adjudikatzeko edo prozedura berriz hasteko edo eskuratzeko sistema dinamiko bat ez aplikatzeko.

3. Kasuan kasuko hautagaiak edo lizitatzailleak eskatuta, entitate kontratatzaileek honako hauek komunikatuko dituzte, ahal bezain laster eta, nolana ere, idatzizko eskaera bat jasotzen denetik hamabost eguneko epean:

- a) Baztertutako hautagai guztiei, beren hautagaitza ez onartzeko arrazoiak;
- b) baztertutako lizitatzaille guztiei, beren eskaintza ezesteko arrazoiak, horien barnean direla -45. artikulua 6. eta 7. apartatuaren kasuetan- baliokidetasunik ez dagoela erabakitze arrazoiak edo obrak, hornidurak edo zerbitzuak errendimendu-baldintzei edo betekizun funtzionalei egokitzen ez zaizkiela erabakitze arrazoiak;
- c) eskaintza onargarri bat aurkeztu duten lizitatzaille guztiei, aukeratutako eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak, bai eta adjudikaziodunaren izena edo esparru-akordioaren aldeak ere; eta
- d) eskaintza onargarri bat aurkeztu duten lizitatzaille guztiei, negoziazioak eta lizitatzailleekiko elkarrizketa nola garatu diren.

4. Entitate kontratatzaileek erabaki ahalko dute datu batzuk ez ematea kontratuaren adjudikazioari buruz, esparru-akordioa egiteari buruz edo eskuratzeko sistema dinamiko batean onartzeari buruz, baldin eta datu horien zabalkundeak errege lege-dekretuaren aplikazioa oztopa badezake, interes publikoaren aurkakoa izan badaiteke, operadore publiko zein pribatu jakin batzuen merkataritza-interes legitimoen kalte egin badiezaieke edo haien arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke.

65. artikulua. *Kontratu erreserbatuak.*

1. Entitate kontratatzaileek zenbait kontratu edo kontratu horietako zenbait sorta adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea erreserbatu ahalko diete gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei, edo gutxieneko erreserba-ehuneko bat ezarri ahalko dute kontratu horiek enplegu babestuko programen barruan egikaritzeko, baldin eta enplegu-zentro berezietako, laneratze-enpresetako edo programetako langileen artean desgaitasuna dutenen edo gizartetik baztertuta daudenen ehunekoak haien erreferentziako araudian aurreikusitakoa bada, eta, betiere, gutxienez 100eko 30 bada. Enplegu-zentro berezi eta laneratze-enpresa horiek arautu zituzten, hurrenez hurren, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen eta haien Gizarteratzearen Lege Orokorren testu batekin (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Gizarteratze Enpresen Araubidearen Legeak (irailaren 13ko 44/2007 Legea), eta lege horietan ezarritako betekizunak bete behar dituzte halakotzat hartuak izateko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Ministro Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunen erabakien bidez, gutxieneko erreserba-ehunekoak ezarriko dira, sektore publikoko entitate kontratatzaileen zenbait kontratu edo kontratu horietako zenbait sorta adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea aurreko paragrafoan aipatutako entitateei erreserbatzeko.

Ministro Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunen erabaki horietan gutxieneko baldintzak ezarriko dira apartatu honetako lehen paragrafoan xedatutakoa bete dadin bermatzeko.

Ministro Kontseiluak errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik urtebete igaro baino lehen hartu behar du apartatu honetan aipatutako erabakia. Epe hori amaitutakoan, Ministro Kontseiluak erabakirik hartu ez badu, Estatuko sektore publikoko entitate kontratatzaileek ehuneko 7ko gutxieneko erreserba-ehuneko aplikatu beharko dute azaroaren 8ko 9/2017 Legearen VI. eranskinak jasotako CPV kodeetan bildutako hornidura eta zerbitzuak adjudikatzeko erreserbaren aurreko ekitaldian egindako prozeduren guztizko zenbatekoaren gainean, apartatu honetako lehen paragrafoan adierazitako moduan;

ehuneko hori ehuneko 10era igoko da errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta handik lau urtera.

2. Ezertan kendu gabe 1. apartatuan ezarritakoa, botere adjudikatzailerentzako diren entitate kontratatzaileek zenbait erakunderi erreserbatu ahalko diete izaera sozial, kultural eta osasuneko zerbitzuen kontratuak lizitzatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea; hain zuzen ere, honako CPV kode hauen pean l. eranskinean aipatzen direnetan: 75121000-0, 75122000-7, 75123000-4, 79622000-0, 79624000-4, 79625000-1, 80110000-8, 80300000-7, 80420000-4, 80430000-7, 80511000-9, 80520000-5, 80590000-6, 85000000-9tik 85323000-9ra, 92500000-6, 92600000-7, 98133000-4 eta 98133110-8.

1. apartatuan aipatzen diren erakundeek honako baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte:

a) Haien helburua izatea lehenengo apartatuan aurreikusitako zerbitzuak ematearekin lotutako zerbitzu publikoko misio bat egitea.

b) Etekinak berriz inbertitzea erakundearen helburua lortzeko; edo etekinak banatzen edo berriz banatzen badira, parte-hartzeari lotutako irizpideen arabera egin beharko da banaketa edo birbanaketa hori.

c) Kontratua egikaritzen duen erakundearen zuzendaritza- edo jabetza-egiturak langileen jabetzan edo partaidetza-printzipioetan oinarriturik egotea edo langileen, erabiltzaileen edo interesdunen partaidetza aktiboa eskatzen duten printzipioetan.

d) Kasuan kasuko botere adjudikatzailerentzako aurreko hiru urteetan dena delako erakunde horri kasuko zerbitzuetarako kontraturik adjudikatu ez izana artikuluko honi jarraituz.

Adjudikatzen den kontratuak hiru urte iraungo du gehienez ere.

3. Lizitazio-deialdian artikuluko honi buruzko aipamena egingo da.

66. artikulua. *Kontratua adjudikatzeko irizpideak.*

1. Kontratua adjudikatzeko, adjudikazio-irizpide ugari erabiliko dira, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

Espedientean alde zuzenetik justifikatuta, kostu-eraginkortasun erlazio onenari erantzuten dion planteamendu batean oinarritutako irizpideen arabera adjudikatu ahalko dira kontratuak, prezioan edo kostuan oinarrituta; esate baterako, 67. artikuluko arabera bizi-zikloaren kostuaren kalkulua erabiliz.

2. Kalitate-prezio erlazio onena irizpide ekonomiko eta kualitatiboaren arabera ebaluatuko da.

Kalitate-prezio erlazio onena ebaluatzeko entitate kontratatzaileak ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak, artikuluko honen 6. apartatuan ezarritako moduan; honako hauek izan ahalko dira, besteak beste:

1.a Kalitatea –balio teknikoa barne–, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala edo erabiltzaile guztientzako diseinua, ezaugarri sozialak, ingurumen arlokoak edo berritzaileak, eta merkaturatzea eta haren baldintzak.

Ingurumen-baldintzak, besteak beste, honako hauei buruzkoak izango dira: berotegi-efektuko gasen eta airea kutsatzen duten beste batzuen jaulkipena gutxitzea, aurrezpen eta efizientzia energetikoko neurriak erabiltzea eta kontratua egikaritzean iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea, eta kontratua egikaritzeak uki ditzakeen baliabide naturalei eustea edo haiek hobetzea.

Kontratuaren ezaugarri sozialak, besteak beste, honako xede hauei buruzkoak izango dira: desgaitasuna duten pertsonen, beharrean dauden pertsonen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzea kontratua egikaritzeko aukeratutako pertsonen artean, eta, oro har, desgaitasuna duten pertsonen edo gizarte-bazterketaren egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea; enplegu-zentro bereziki eta laneratze-enprekin azpikontratutzea; kontratua egikaritzean aplikatzen diren genero-berdintasuneko planak eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna;

emakumeen kontratazioa sustatzea; lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea; lan- eta soldata-baldintzak hobetzea; enpleguaren egonkortasuna; kontratua egikaritzeko pertsona kopuru handiena kontratatzea; prestakuntza eta osasunaren eta laneko segurtasunaren babesa; irizpide etikoak eta erantzukizun sozialekoak aplikatzea kontratuaren prestazioan; edo kontratua egikaritzen den bitartean merkataritza ekitatiboan oinarritutako produktuen hornidurari edo erabilerari buruzko irizpideak erabiltzea.

2.a Kontratua egikaritu behar duten eta hari atxikita dauden langileen antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia, baldin eta langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake hobeki egikaritzeko.

3.a Saldu ondoko zerbitzua eta laguntza teknikoa eta entregarako baldintzak; adibidez, azken hori egin behar den eguna, entregarako prozesua eta entrega- edo gauzatze-epea eta horniduraren ordezeko piezei eta segurtasunari buruzko konpromisoak.

Irizpide kualitatiboekin batera, kostuekin lotutako irizpide bat agertu beharko da; irizpide hori entitate kontratatzaileak aukeratuko du eta prezioa edo errentagarritasunean oinarritutako planteamendu bat izan ahalko da; esate baterako, bizi-zikloaren kostua, 67. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu.

3. Kontratu hauetan, nolana ere, adjudikazio-irizpide bat baino gehiago erabili ahal izango da:

a) Aurrez zehaztu ezin izan diren eta hautagaiek edo lizitatzzaileek aurkeztu behar dituzten proiektuei eta aurrekontuei dagozkien kontratuak.

b) Entitate kontratatzailearen ustez bestelako konponbide teknikoak erabiliz edo prestazioa emateko epeak laburtuz prestazioaren zehaztasunak hobetzeko aukera dagoen kontratuak.

c) Entitate kontratatzaileak kontratua egikaritzeko materialak edo baliabide lagungarriak utzita, kontratistei haiek ondo zaintzeko berme bereziak eskatu behar zaizkien kontratuak.

d) Teknologia biziki aurreratua erabili behar den kontratuak, edo egikaritzeko biziki zailak diren kontratuak.

e) Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak.

f) Hornidura-kontratuak, honako kasu honetan izan ezik: eskuratu beharreko produktuak zeharo definituta daudenean eta ezin denean ez entrega-eperik aldatu, ez kontratuan inolako aldaketarik sartu, eta, ondorioz, prezioa denean adjudikazioa erabakitzeko faktore bakarra.

g) Zerbitzu-kontratuak, kasu honetan izan ezik: prestazioak teknikoki zeharo definituta daudenean eta ezin denean ez entrega-eperik aldatu, ez eta kontratuan inolako aldaketarik sartu ere, eta, ondorioz, prezioa denean adjudikazioa erabakitzeko faktore bakarra.

Zerbitzu-kontratu hauetan, berriz, prezioa ezingo da izan adjudikaziorako faktore erabakigarri bakarra: objektutzat izaera intelektualeko prestazioak –esate baterako, ingeniarietako eta arkitekturako zerbitzuak– dauzkaten zerbitzu-kontratuak; gizarte-zerbitzuen prestaziorako kontratuak, baldin eta beharrez dauden pertsonen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzen badute kontratua egikaritzeko aukeratutako pertsonen artean, edo lan-merkatuan sartzeko zailtasun zehatzak dituzten pertsonen enplegua sustatzen badute; 65.2 artikuluan aipatzen diren gizarte-zerbitzuetako, osasun-zerbitzuetako edo hezkuntza-zerbitzuetako kontratuak, eta eskulaneko zerbitzu intentsiboko kontratuak. Halaber, segurtasun pribatuko zerbitzuen kontratuak adjudikazio-irizpide bat baino gehiago aplikatu beharko da.

h) Ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen kontratuak; kontratu horiek adjudikatzeko, ingurumen-baldintza neurgarriak baloratuko dira: esate baterako, ingurumenean eragin txikiagoa izatea; ura, energia eta materialak aurrezteko eta neurrian erabiltzea; bizi-zikloak ingurumenean duen kostua; prozedura eta ekoizpen-metodo ekologikoak; hondakinak hierarkia-printzipioaren arabera sortu eta kudeatzea, edo material birziklatuak, produktu berrerabilgarriak edo birziklagarriak nahiz material ekologikoak erabiltzea.

4. Entitate kontratatzaileek ardura hartuko dute kalitate handikoak diren eta beharrei ahal den hobekien erantzuten dieten obrak, hornidurak eta zerbitzuak lortzeko moduko adjudikazio-irizpideak ezar daitezzen; bereziki, objektutzat izaera intelektualeko prestazioak dauzkaten zerbitzuen kontratu-prozeduretan, nola baitira ingeniartzako eta arkitekturako zerbitzuak.

1. eranskineko zerbitzu-kontratuetan, bai eta objektutzat izaera intelektualeko prestazioak dauzkaten kontratuetan ere, kalitatearekin lotutako irizpideek eskaintzen balorazioari eman ahal zaion puntuazioaren ehuneko 51 emango dute gutxienez ere.

5. Lehen apartatuan aipatzen diren irizpideak, kontratua adjudikatzeko oinarri izan behar dutenak, baldintza-agirietan ezarriko dira, eta lizitazioarako deialdi gisa balio duen iragarkian agertu beharko dira, honako baldintza hauek betez:

a) Kontratuaren objektuari lotuta egongo dira beti, artikuluko honen hurrengo apartatuan adierazitakoaren bidetik.

b) Modu argi eta objektiboan formulatu beharko dira, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak guztiz errespetatuz, eta ez diote erabakitze askatasun mugagaberik emango entitate kontratatzaileari.

c) Bermatu beharko dute aukera egon dadila eskaintzak lehia efektiboko baldintzetan ebaluatu daitezzen, eta haiekin batera zehaztapenak aurkeztuko dira, zeinek aukera emango baitute modu efektiboan egiaztatzeko lizitatuak emandako informazioa, honako helburu honekin: ebaluatu ahal izatea eskaintzek noraino betetzen dituzten adjudikazio-irizpideak. Zalantza izanez gero, modu efektiboan egiaztatu beharko da informazioa eta lizitatuak emandako frogak noraino diren zehatzak.

6. Honako kasu honetan egongo da loturik adjudikazio-irizpide bat kontratuaren objektuarekin: adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan, horren barnean direla honako prozesu hauetan esku hartzen duten faktoreak:

a) Obren, horniduren edo zerbitzuen produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-prozesu zehatzean –bereziki, ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasagarriak eta zuzenak diren produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-moduetan– parte hartzen duten faktoreak;

b) edo bizi-zikloaren beste etapa bateko prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, baita faktore horiek substantzia materialaren zati bat ez direnean ere.

7. Adjudikazio-irizpide gisa hobekuntzak ezartzen diren kasuan, halakoek behar adina zehazturik egon beharko dute. Betekizun hori honako hauek zehaztasunez eta modu haztatuan zehazten direnean joko da betetzat: haien baldintzak, mugak, modalitateak eta ezaugarriak, bai eta kontratuaren objektuarekiko behar den lotura ere.

Nolanahi ere, ezin izango zaio ehuneko 2,5etik gorako balorazioa eman.

Horri dagokionez, proiektuan baldintza-agirian zehaztuta zeudenen gehigarri diren prestazioak hartuko dira hobekuntzat, baldin eta ez prestazio haien izaera, ez kontratuaren objektua aldatzen ez badituzte.

Adjudikaziodunaren hobekuntza-proposamenak kontratuan txertatuta egongo dira aurrerantzean, eta ezingo dira aldatu.

8. Lehen apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, adjudikaziorako irizpide bakarra erabiltzen denean, irizpide horrek kostuekin egon beharko du lotuta, eta prezioa edo errentagarritasunean oinarritutako irizpide bat izan ahalko da; esate baterako, 67. artikuluan aipatutakoaren arabera kalkulaturako bizi-zikloaren kostua.

9. Adjudikazio-irizpide ugari erabiltzen direnean, haiek aukeratzeko, lehentasuna emango zaie, ahal dela, baldintza-agirietan ezarritako formulen aplikazio hutsez lortzen diren zifra edo ehunekoen bidez kontratuaren objektuan balora daitezkeen ezaugarriei buruzkoak direnei.

10. Aintzat hartzen dena soilik prezioa den kasuetan izan ezik, balorazio-irizpideetako bakoitzari zer haztapen erlatibo ematen zaion zehaztu beharko da baldintza-agirian, zeina gehieneko tarte egoki bat duen balio-banda bat zehaztuz adierazi ahalko baita.

Adjudikazio-prozedura hainbat fasetan antolatzen bada, irizpide bakoitza zein fasetan aplikatuko den adieraziko da, eta irizpide kualitatibo guztien puntuazioaren ehuneko 50eko gutxieneko atalasea ezarriko da hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko.

Hautatutako irizpideak haztatzerik ez badago behar bezala frogatutako arrazoi objektiboak tarteko, garrantziaren arabera zerrendatuko dira irizpideok, garrantzitsuenetik hasita.

11. Entitate kontratatzaileek baldintza-agirietan adjudikazio-irizpide zehatzak ezarri ahalgo dituzte berdinketa ebazteko, adjudikazio-irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen den kasuetan.

Berdinketa ebazteko adjudikazio-irizpide berariazko horiek kontratuaren objektuari lotuta egon beharko dute, eta honako hauei buruzkoak izango dira:

a) Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean beren plantillan araudiak ezartzen dienaz gorako langile desgaituen ehunekoa duten enpresek aurkeztutako proposamenak.

Kasu horretan, enpresa lizitatzailerik batzuen artean berdinketa gertatzen bada proposamenik onuragarrienari dagokionez, eta horiek guztiek desgaitasunen bat duten langileak badituzte plantillan araudiak ezartzen duen baino proportzio handiagoan, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen ehuneko handiena duen lizitatzailerik izango du lehentasuna kontratua adjudikatzean.

b) Abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratze-enpresek aurkeztutako proposamenak; laneratze-enpresatzat hartzeko, araudi horretan ezarritako baldintzak bete behar dituzte enpresek.

c) Izaera soziala edo laguntzazkoa duten prestazioei buruzko kontratuak adjudikatzeari dagokionez, irabazi-asmorik gabeko erakundeek nortasun juridikoa dutela aurkeztutako proposamenak; erakunde horien helburuak edo jardunak, betiere, zerkusi zuzena eduki behar du kontratuaren objektuarekin, estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera, eta erakundeok dagokien erregistro ofizialean erregistratuta egon behar dute.

d) Bidezko merkataritzako antolakunde moduan aitortuta dauden erakundeek eskaintzak, bidezko merkataritzaren hautabidea duten produktuak objektutzat dauzkaten kontratuak adjudikatzeak.

e) Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko gizarte- eta lan-arloetako neurriak biltzen dituzten proposamenak, eskaintzak aurkezteko epearen mugaeguna baino lehen enpresek aurkeztutakoak.

Berdinketa ebazteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa, apartatu honetan aipatzen dena, berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute lizitatzailerik, eta ez hori gertatu baino lehenago.

Baldintza-agirietako aurreikuspena falta denean, honako irizpide sozial hauek aplikatuz ebatziko da berdinketa, baldin eta kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren zenbait eskaintzaren artean berdinketa gertatzen bada, eta, betiere, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unea kontuan hartuta eta hurrenkera honetan aplikatuz:

a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.

b) Plantillanaldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.

c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

67. artikulua. *Bizi-zikloaren kalkulua.*

1. 66. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, bizi-zikloaren kostuan, 2.r) artikuluan adierazitakoaren bidetik, produktu, zerbitzu edo obra baten bizi-zikloan zehar eragindako kostu hauek sartzen dira; denak edo haien zati bat, kasuan-kasuan:

a) Entitate kontratatzaileak edo beste erabiltzaile batzuek ordaindutako kostuak; honako hauek, esate baterako:

- 1.a Eskuratzeari dagozkion kostuak.
- 2.a Erabilerari dagozkion kostuak; esate baterako, energiaren eta beste baliabide batzuen kontsumoa.
- 3.a Mantentze-kostuak.
- 4.a Bizi-amaierako kostuak; esate baterako, bilketaren eta birziklatzearen kostuak.

b) Produktuari, zerbitzuari edo obrari bere zikloan zehar lotuta dauden ingurumeneko kanpo-efektuei egotzitako kostuak, baldin eta haien diru-balioa zehaztu eta egiaztatu ahal bada; kostu horietan, berotegi-efektuko gasen isurpenen eta beste isuri kutsatzaile batzuen kostua sar daiteke, bai eta klima-aldaketa apaltzeko beste kostu batzuk ere.

Europar Batasunaren arau batek bizi-zikloaren kostuak kalkulatzeko metodo komun bat erabiltzera behartzen duen kasuetan, metodo hori aplikatuko da kostu horiek ebaluatzeko.

2. Kontratazio-entitateek, bizi-zikloaren kostuaren kalkuluan oinarritutako planteamendu baten bidez ebaluatzen badituzte kostuak, baldintza-agirietan adieraziko dute zer datu eman beharko dituzten lizitatzailleek, bai eta zer metodo erabiliko duten ere bizi-zikloaren kostuak zehazteko datu horietan oinarrituta.

Ingurumeneko kanpo-efektuei egotzitako kostuak ebaluatzeko erabilitako metodoak baldintza hauek guztiak bete beharko ditu:

a) modu objektiboan egiaztatu daitezkeen eta diskriminatzaileak ez diren irizpideetan oinarrituta egotea; zehazki, ez bada ezarri behin baino gehiagotan edo modu jarraituan aplikatzeko, ez die mesederik edo kalterik egingo enpresa jakin batzuei bidegabeki;

b) interesdun guztien eskura egotea, eta

c) behar den informazioa emateko modua egongo da enpresek ahalegin arrazoizko bat eginda, baita Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren edo Espainia nahiz Europar Batasuna lotzen dituen beste nazioarteko akordioaren baten sinatzaile diren estatuetatik datozen enpresen kasuan ere.

3. Ahal dela, entitate kontratatzaileek bizi-zikloaren kostuari erreparatuz kalkulatu dituzte 66. artikulua lehenean eta bigarren apartatuetan aipatzen diren kostuak.

68. artikulua. *Aldaerak onartzea.*

1. Kontratazio-entitateek irizpideen izaerak bidea ematen duenean, entitate kontratatzaileak aintzat hartu ahalko ditu lizitatzailleek aurkeztutako aldaerak edo hautabideak, horiek aurkezteko gutxieneko baldintzak eta betekizunak betetzen badira, entitate kontratatzaileak baldintza-agirian ezarritakoak.

Baldintza-agirietan ez da aldaerarik onartuko prezio baxuena denean adjudikazio-irizpide bakarra.

2. Entitate kontratatzaileek baldintza-agirian adieraziko dute aldaerak onartuko dituzten ala ez, eta, baiezkoan, zein diren aldaerak bete beharreko gutxieneko baldintzak, bai eta aldaerak aurkezteko betekizunak ere.

Onar daitezkeen aldaerei buruzko zehaztapenak hauei buruzkoak izan daitezke: kontratuaren objektua diren ondasun, obra edo zerbitzuek eduki ditzaketen funtzionaltasun jakin batzuei buruzkoak, edo beharrez jakin batzuk egoki betetzeari buruzkoak.

Aldaerak kontratuaren objektuari lotuta egongo dira.

3. Baldintza-agirian aldaerak aurkeztea baimentzen denean, entitate kontratatzaileak bai eskaintzei bai aldaerei aplikatu ahalko zaizkien adjudikazio-irizpideak hautatu beharko ditu.

4. Entitate kontratatzaileak ezingo du aldaera bat ezetsi arrazoi bakar honengatik: bera prestatzeko oinarri izan diren preskripzio teknikoak Europako preskripzio teknikoak erreferentzia harturik definituak izatea, edo abenduaren 29ko 1630/1992 Errege Dekretuan zehazten diren funtsezko baldintzen arabera onartutako preskripzio tekniko nazionalak erreferentzia harturik definituak izatea (dekretu horrek eraikuntzako produktuen zirkulazio askerako xedapenak ematen ditu, 89/106/EEE Zuzentaraua aplikatuta).

5. Hornidura- edo zerbitzu-kontratuak adjudikatzeko prozeduretan, 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoari jarraituz aldaerak baimentzen dituzten entitate kontratatzaileek ezingo dute horietako bat ezetsi arrazoi bakarra hau baldin bada: aldaera hori hautatuz gero, zerbitzu-kontratua izatea hornidura-kontratua izan beharrean, edo hornidura-kontratua izatea zerbitzu-kontratua izan beharrean.

69. artikulua. *Eskaintza nabarmenki baxuegiak.*

1. Entitate kontratatzaileak uste baldin badu eskaintza bat eginezina dela nabarmenki baxua izateko moduan formulatuta dagoelako, artikuluko honetan ezarritako prozedura izapidetu ondoren soilik utzi ahalko du lizitazio-prozeduratik kanpo.

2. Entitate kontratatzaileak uste baldin badu eskaintza bat eginezina dela nabarmenki baxua izateko moduan formulatuta dagoelako, artikuluko honetan ezarritako prozedura izapidetu ondoren soilik utzi ahalko du lizitazio-prozeduratik kanpo.

3. Entitate kontratatzaileak, ustez anormala den eskaintza bat edo batzuk identifikatu dituenean, errekerimendua egingo dio hura aurkeztu duen lizitatzaleari edo haiek aurkeztu dituzten lizitatzaleei, eta nahikoa den epe bat emango die prezioen edo kostuen maila baxua edo eskaintzaren anormaltasuna definitu duen beste edozein parametro arrazoiz eta xehetasunez justifikatu eta xehaka dezaten, horretarako beharrezkoak diren informazioa eta dokumentuak aurkeztuz.

Entitate kontratatzaileak lizitatzaleari zuzentzen dion informazio-eskaria argitasunez formulatu beharko da, halako moduz non horrek modua edukiko baitu eskaintzen bideragarritasuna guztiz eta egoki justifikatzeko.

Zehazki, entitate kontratatzaileak justifikazioa eskatu ahalko die lizitatzale horiei prezioaren edo kostuen maila baxua ekar dezaketen eskaintzaren baldintzei buruz eta, bereziki, honako balio hauei dagokienez:

a) fabrikazio-prozedurak, emandako zerbitzuek edo eraikuntza-metodoak ekar dezaketen aurrezkiak;

b) lizitatzaleak produktuak eta zerbitzuak emateko edo obrak egiteko hartutako irtenbide teknikoak eta bere alde dituen ohiz kanpoko baldintzak;

c) produktuz hornitzeko, zerbitzuak emateko edo obrak egiteko proposatutako konponbideen berrikuntza eta originaltasuna;

d) ingurumenaren, gizartearen edo lanaren eta azpikontratazioaren arloko betebeharren errespetua; ez dira justifikagarriak izango merkatuko prezioetik behera dauden prezioak edo 27.4 artikuluan ezarritakoa urratzen dutenak;

e) edo Estatuaren laguntza bat jasotzeko aukera izatea.

4. Entitate kontratatzaileak ebaluatu egingo ditu lizitatzaleak epean aurkeztutako informazio eta agiri guztiak, eta uste badu bildutako informazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzaleak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua eta, horrenbestez, eskaintza ezin dela bete balio anormalak dituelako, sailkapenetik kanpo utziko du, eta eskaintza onenaren aldeko adjudikazioa egingo du, eskaintzen sailkapen-hurrenkera kontuan hartuta. Oro har, baztertu egingo dira ustez anormaltasuna duten eskaintzak, baldin eta ikuspegi tekniko, ekonomiko edo juridikotik desegokiak diren hipotesi edo jokabideetan oinarrituta badaude.

Nolanahi ere, justifikazioa ez da ontzat joko lizitatzaleak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua azaltzeko, baldin eta justifikazio hori osatu gabea bada edo ikuspuntu tekniko, juridiko edo ekonomikotik desegokiak diren hipotesi edo jokabideetan oinarritzen bada.

5. Nolanahi ere, entitate kontratatzaileek baztertu egingo dituzte eskaintzak, baldin eta egiaztatzen badute nabarmenki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo aplikatzekoak diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak urratzen dituztelako, horren barnean dela hitzarmen kolektibo sektorial indardunak urratzea, 27.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

6. Lizitatuzaileak Estatuaren laguntza jaso duela-eta eskaintza nabarmenki baxuegia dela egiaztatzen den kasuetan, hau izango da proposamena arrazoi horrengatik bakarrik atzera botatzeko motiboa: lizitatuzaileak ezin egiaztatzea laguntza hori dirulaguntza publikoen arloan indarrean dauden Europar Batasuneko xedapenak urratu gabe eman dela. Arrazoi horrengatik eskaintza bat atzera botatzen duen entitate kontratatzaileak horren berri eman beharko dio Europako Batzordeari.

7. Kontratua ustezko anormaltasun batean sarturik egon den enpresa bati adjudikatzen zaionean, entitate kontratatzaileak mekanismo egokiak ezarriko ditu kontratuaren jarraipen xehe-xehea egiteko, zuzen egikaritzen dela bermatze aldera, kontratatutako zerbitzu, obra edo horniduren kalitatean galerarik gertatu gabe.

70. artikulua. *Lehentasuna Batasuneko eskaintzei hornidura-kontratueta.*

1. Artikulu hau hornidura-kontratueta eskaintzei aplikatuko zaie, hirugarren herrialdeetatik datozen produktuak biltzen badituzte eta Europar Batasunak ez badu herrialde horiekin alde anitzeko edo alde biko akordiorik egin Batasuneko enpresei sarbide parekoa eta benetakoa bermatzeko hirugarren herrialde horietako merkatuetan. Horrek ez du ezertan eragotziko Europar Batasunak edo estatu kideek hirugarren herrialdeekiko betebeharrak betetzea.

2. Hornidura-kontratu baten adjudikaziorako aurkeztutako edozein eskaintza atzera bota ahalko da, baldin eta hirugarren herrialdeetatik datozen produktuek eskaintza hori osatzen duten produktuen guztizko balioaren 100eko 50 gainditzen badute. Hirugarren herrialdeetatik zein produktu datozen zehazteko, kontuan hartu behar da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EEE) Erregelamendua, Europar Batasuneko Aduana Kodea onartzen duena. Artikulu honen ondorioeta, telekomunikazio-sareetako ekipamenduetan erabiltzen diren euskarri logikoak produktutzat joko dira.

3. Kasu bakoitzean erabiltzen diren adjudikazio-irizpideen arabera bi eskaintza edo gehiago baliokideak direnean, lehentasuna emango zaio aurreko apartatuan xedatutakoaren indarrez ezin baztertu den eskaintzari. Eskaintzen prezioak baliokidetzat joko dira, artikulu honen ondorioeta, haien arteko aldea 100eko 3tik gorakoa ez denean.

Hala ere, honako kasu honetan ez zaio lehentasunik emango xedatu berri dena aplikatuko balitz hautatuko litzatekeen eskaintzari: eskaintza horrek entitate kontratatzailea behartzen duenean lehendik duen materialaz bestelako ezaugarri teknikoak dituen materiala erostera eta horrek gehiegizko bateraezintasun edo zailtasunak sortzen dituztenean teknikaren, funtzionamenduaren edo mantentzearen ikuspegitik, edo neurriz kanpoko kostua dakarrenean.

71. artikulua. *Entitate kontratatzaileak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakitzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea.*

1. Entitate kontratatzaileak dagokion deialdia egina duen adjudikazio-prozedura batean atzera egiten badu edo halako kontratu bat ez adjudikatzeko edo ez egitea erabakitzen badu, hautagaiei edo lizitatuzaileei jakinaraziko die.

2. Entitate kontratatzaileak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahalko du kontratua ez adjudikatzeko edo ez egitea edo prozeduran atzera egitea. Halakoetan kalte-ordaina emango zaie lizitazioan parte hartzeko gaitzat jo diren hautagaiei edo lizitatuzaileei, egin dituzten gastuak direla-eta, iragarkian edo baldintza-agirian ezarritako moduan edo, bestela, bidezkoa denean, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabiltzen diren balorazio-irizpideen arabera.

3. Entitate kontratatzailearen interesekoak diren eta lizitazio-prozedura hasitakoan agertu diren arrazoiengatik soilik hartu ahalko da kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia, eta arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira espedientearen. Kasu honetan, ezingo da helburu bera duen beste lizitaziorik bultzatu, erabakiaren oinarri moduan emandako arrazoiek bere horretan dirauten artean.

4. Prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatu edo adjudikazio-prozedura arautzeko arauen arau-hausteren bat egon behar du, zuzendu ezin daitekeena, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoia. Atzera egiteak ez du eragotziko berehala beste lizitazio-prozedura bat hastea.

72. artikulua. *Kontratuak adjudikatzea.*

1. Entitate kontratatzaileak, eskaintzen balorazioa ikusita eta erabilitako adjudikazio-irizpideen arabera, kontratuaren adjudikazioa jakinaraziko dio, modu arrazoituan, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerari, 66. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Entitate kontratatzaileak, halaber, erabakitako adjudikazioaren emaitza jakinaraziko die, modu arrazoituan, gainerako operadore ekonomikoei.

2. Alde batera utzi gabe 59.2 artikuluan xedatutakoa, entitate kontratatzaileak kontratazio-prozeduran kolusiozko jokabideak gertatu izanaren zantzu funtsatuak baldin baditu, uztailaren 3ko 50/2007 Legearen 1. artikuluan definitutako zentzuan, horiek kontratua adjudikatu baino lehenago jakinaraziko dizkio Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo, hala badagokio, lehiaren arloko kasuan kasuko agintari autonomikoari, prozedura guztiz sumario baten bitartez haiei buruzko iritzia eman dezan. Azterna horiek igortzeak kontratazio-prozedura etetea eragingo du. Erregelamendu bidez arautuko da paragrafo honetan aipatzen den prozedura.

3. Lehen apartatuan aipatzen diren jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira 61. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Behar den garaian eta moduan egingo dira, eta behar adina informazioa emango dute adjudikazio-prozeduran interesa dutenek modua izan dezaten adjudikazioaren erabakiaren aurka behar besteko oinarriarekin erreklamazioa jartzeko, eta informazio horretan honako hau jaso beharko da beti:

a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaitza ez onartzeko arrazoen laburpena.

b) Adjudikazio-prozeduratik kanpo geratu diren lizitatzailerari dagokienez, haien eskaintza ez onartzeko arrazoiak, horien barnean direla –45. artikuluan 6. eta 7. apartatuetako kasuetan– baliokidetasunik ez dagoela erabakitze arrazoiak edo obrak, hornidurak edo zerbitzuak errendimendu-baldintzei edo betekizun funtzionalei egokitzen ez zaizkiela erabakitze arrazoiak; eta lizitatzailerari emandako balorazioen xehakitze bat, adjudikaziodunaren balorazioa barne.

c) Edozein kasutan, adjudikaziodunaren izena eta, orobat, adjudikaziodunaren proposamenaren ezaugarri eta abantaila erabakigarriak, gainerako lizitatzailerak aurkeztu dituzten eta onartu diren proposamenen aldean adjudikaziodunarena lehenesteko balio izan dutenak; eta, kasua bada, lizitatzailerarekin izandako negoziazioen edo elkarrizketaren garapena.

Jakinarazpenean, kontratua formalizatzeko epea aipatuko da, errege lege-dekretu honen 73.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Adjudikazioari aplikatzekoa izango da 28. artikuluan konfidentzialtasuna dela-eta ezarritako salbuespena, bai eta 64.4 artikuluan xedatutakoa ere.

4. Adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da hamabost eguneko epean. Kasu honetan, aurreko 3. apartatuak ezartzen duen edukia argitaratu beharko da.

5. Betiere, entitate kontratatzaileak huts deklaratu ahal izango du adjudikazio-prozedura, arrazoiak azalduta, eskaintza egokirik edo parte hartzeko eskaera egokirik aurkeztu ezean, 85.1.a) artikuluan adierazitako eran.

73. artikulua. *Kontratuak burutzea eta formalizatzea.*

1. Entitate kontratatzaileek egiten dituzten kontratuak formalizatzen direnean burutzen dira.

Artikulu honen hirugarren apartatuan ezarritakoa gorabehera, ezingo da kontratua egikaritu bera formalizatu baino lehen.

2. Kontratua ezingo da formalizatu harik eta hamabost egun balioduneko epea igaro arte 72. artikulua 1. eta 3. apartatuetan aipatzen den jakinarazpena bidaltzen denetik. Horrela bermatu ahalko da kontratazioaren arloko erreklamazioak prozedura etetea eragingo duela, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 53. artikuluan adierazitako moduan.

3. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak eta eskuratzeko sistema dinamiko batean egindako kontratu berariazkoak adjudikatzearekin batera burutuko dira; ez da itxaron beharrik izango aurreko apartatuan aipatutako epea igaro arte.

4. Adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatzen adierazitako epean, kontratua hurrengo lizitazioarekin adjudikatuko zaio, eskaintzek sailkapenean duten hurrenkerari jarraituz.

2. atala. Lizitazioen publikotasuna

74. artikulua. Kontratatzailearen profila.

1. Entitate kontratatzaileek beren kontratatzaile-profila soilik Interneten bitartez zabalduko dute: hor bilduko dituzte beren kontratazio-jarduerari buruzko informazioa eta dokumentuak gardentasuna eta dokumentu horietarako sarbide publikoa segurtatze aldera. Kontratatzailearen profileraren sartzeko modua baldintza-agirietan eta agiri baliokideetan jaso behar da, bai eta lizitazio-deialditzat balio duten iragarkietan ere, edo, sailkapen-sistema bat izateari buruzko iragarkia erabiltzen bada deialdia egiteko, iragarki horretan eta lizitatzeko edo negoziatzeko gonbidapenean. Kontratatzailearen profila zabaltzea ez da eragozpena izango bestelako publizitate-bitarteko batzuk ere erabil daitezzen hala ezartzen den kasuetan.

Kontratatzailearen profileko informazioa edozeinek eskuratu ahal izango du, eta ez zaio aldeztu aurretik identifikaziorik eskatuko. Hala eta guztiz ere, identifikatzeko eskatu ahalko zaio kontratatzailearen profilararen edukiarekin lotutako zerbitzu pertsonalizatu batzuk eskuratzeko; honako zerbitzu hauek, besteak beste: harpidetzak, alerten bidalketa, komunikazio elektronikokoak eta eskaintzen bidalketa. Kontratatzaile-profiletan jasotako informazio guztia formatu ireki eta berrerabilgarrietan argitaratuko da, eta jendeak eskuratzeko moduan egongo da gutxienez ere bost urtez; hori, halere, ez da eragozpena izango informazio-eskaerak aurkeztuta lehenagoko espedienteak ere eskuratu ahal izateko.

2. Kontratatzailearen profilak entitate kontratatzaileen kontratazio-jarduerari buruzko edozein datu eta agiri jaso ahalko ditu. Nolanahi ere, jaso behar da bai entitate kontratatzailearekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen informazio orokorra –esate baterako, kontaktu-guneak, telefono- eta fax-zenbakiak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, informazio, iragarki eta dokumentu orokorrak, nola baitira kontratazioarako barne-arauak eta dokumentu-ereduak–, bai egiten dituen kontratuei buruzko informazio zehatza ere.

3. Kontratuei buruzko informazioaren kasuan, gutxienez ere honako informazio hau argitaratu behar da:

a) Kontratua adjudikatzeko erabilitako prozeduraren justifikazioa, 81.2 artikuluan xedatutakoarekin bat; kontratua gidatu behar duen baldintza-agiria edo dokumentu baliokideak, kasua bada, eta espedientea onartzeko dokumentua, kasua bada. Halaber, botere adjudikatzaile diren entitate kontratatzaileen lizitazioetan, kontratua justifikatzeko oroitidazkia

b) Kontratuaren objektu xehaketa, kontratuaren iraupena, lizitazioaren aurrekontua edo dokumentu baliokidea eta adjudikazioaren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga barnean dela.

c) Honako iragarki hauek, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen arauetan ezarritako salbuespenekin: kontratazioaren berri emateko aldizkako iragarkiak; lizitazioen deialdia egiteko iragarkiak; kontratuak adjudikatzeari eta formalizatzeari buruzkoak; aldaketak egitekoak eta haien justifikazioari buruzkoak; proiektuen lehiaketei eta proiektuen lehiaketen emaitzei buruzkoak.

d) Kasua bada, kontratuaren publizitatea egiteko erabili diren bitartekoak eta argitalpen horietarako estekak.

e) Prozeduran parte hartutako lizitzaileen kopurua eta haien izenak, bai eta, kasua bada, entitate kontratatzailearen ebazpen guztiak ere, eta, nolana ere den, kontratua adjudikatzeko erabakia.

Halaber, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira: kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia; adjudikazio-prozeduran atzera egitekoa; prozedura hutsik deklaratzekoa, bai eta kontratazioaren arloko erreklamazioen aurkezpena eta kontratuen behin-behineko etetea ere, erreklamazioak eta errekurtsioak aurkeztearen ondoriozkoa.

4. Kontratatzaile-profilaren sistema informatikoak aukera eman beharko du modu sinesgarrian frogatzeko bertan jasota dagoen informazioa publikoki noiz hasi zen zabaltzen.

5. Kontratuak adjudikatzeko prozedurei buruzko informazioa kontratatzailearen profilaren bidez zabaltzeak errege lege-dekretu honetan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

6. Bitarteko propioei emandako mandatuen formalizazioa ere kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratu bat adjudikatu izan balitz errege lege-dekretu honi lotuta zegokeen kasuetan.

7. Kontratu baten edo esparru-akordio baten lizitazio-prozedurari buruzko zenbait informazio aplikatu gabe utzi ahalko dira 79.2 artikuluko hirugarren paragrafoan aipatzen diren kasuetan.

Nolana ere, entitate kontratatzaileak, aurreko paragrafoan xedatuari jarraituz informazioen bat kanpoan uztea erabakitzen duen bakoitzean, hori espedientean arrazoitu beharko du.

75. artikulua. *Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforma.*

1. Sektore publikoko entitate kontratatzaileek nahitaez beren kontratatzaile-profilak ostatu beharko dituzte Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman edo autonomia-erkidegoek ezartzen dituzten antzeko informazio-zerbitzuetan, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 347. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Gainerako entitate kontratatzaileek denbora zigilatzeko sistema daukaten plataforma elektronikoetan ostatutako dituzte beren profilak, plataformetan sartzen den informazioa jendaurrean noiz jarri den zalantzarik gabe egiaztatu ahal izateko.

76. artikulua. *Aldizkako iragarkiak kontratazioen berri emateko.*

1. Sektore publikoko entitate kontratatzaileek kontratazio publikoaren jarduera programatzeko dute eta aurrekontu-ekitaldi batean edo urte anitzeko aldietan garatzeko, eta kontratazioari buruzko beren plana aurrez jakinaraziko dute, aldizkako iragarki berriemaile baten bitartez; iragarki horretan, gutxienez ere errege lege-dekretu honi lotutako kontratuak agertuko dira.

1. eranskineko zerbitzu-emakidako kontratu bat lizitatzen den bakoitzean, entitate kontratatzaileek beren kontratazio-asmoak jakinarazi beharko dituzte aldizkako iragarki berriemaile bat argitaratuz.

2. Aurreko apartatuko lehen paragrafoan aipatzen diren aldizkako iragarki berriemaileak VI. eranskinaren A atalean edo C atalean ageri den informazioa emango dute, kasuan kasukoa, eta 80. artikuluan xedatzen den moduan argitaratuko dira; entitate kontratatzaileak aukeran izango du iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* edo bere kontratatzaile-profilean argitaratzea.

Aurreko apartatuko bigarren paragrafoan aipatzen diren aldizkako iragarki berriemaileak *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratuko dira, eta VI. eranskinaren D atalean ageri den informazioa emango dute.

3. Entitate kontratatzaile batek, aldizkako iragarki berriemailea bere kontratatzaile-profilean argitaratzen badu, argitalpen hori buruzko iragarkia bidali beharko dio Europar

Batasuneko Argitalpenen Bulegoari, VI. eranskinaren B atalean aipatzen den informazioa edukiko duena.

77. artikulua. *Lizitazio-deialdia.*

Errege lege-dekretu honetan jasotako lizitazio-prozedura guztiek, 85. artikulua aipagai duen publizitaterik gabeko prozedura negoziatuak izan ezik, lizitazio-deialdia izango dute, eta bide hauetako bat erabili ahalko da deialdi hori egiteko:

a) Obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak lizitatzen direnean: lizitazio-iragarkia, 78. artikuluan xedatutakoari jarraituz, edozein dela ere kontratua adjudikatzeko prozedura; edo bestela, sailkapen-sistema bat izateari buruzko iragarkia, 34. eta 40. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, hauetako bat bada kontratua adjudikatzeko prozedura: prozedura murriztua, lizitazio-prozedura negoziatua, lehia-elkarrizketaren prozedura edo berrikuntzarako elkartzeko prozedura.

b) I. eranskineko zerbitzuen emakidarako kontratuak lizitatzen direnean: kasu guztietan aldizkako iragarki berriemailea erabiliko da, 76. artikuluan ezarritako eran. Gainerako emakida-kontratuak lizitatzen direnean, 78. artikulua aipatzen duen lizitazio-iragarkia erabiliko da deialdia egiteko.

78. artikulua. *Lizitazio-iragarkiak.*

1. Artikulu honek aipagai dituen iragarkiak *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratuko dira, 80. artikuluan xedatu bezala, eta entitate kontratatzailearen kontratatzaile-profilean ere bai.

2. Lizitazio-iragarkiek VII. eranskinean dagokien atalean ezarritako informazioa izango dute, bai eta entitate kontratatzaileak komenigarritzat jotzen duen beste edozein informazio ere. Informazio horrek inprimaki normalizatuen formatua izango du.

79. artikulua. *Kontratuak formalizatzeko iragarkiak.*

1. Kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, hamabost egun iragan baino lehen argitaratu beharko da, kontratua burutu ondoren, entitate kontratatzailearen profilean eta *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean*.

2. Entitate kontratatzaileak kontratua edo esparru-akordioa formalizatu eta hamar egun iragan baino lehen igorriko du formalizazioari buruzko iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora.

Iragarkiak VIII. eranskinean dagokion atalean ezarritako informazioa izan beharko du, eta 80. artikuluari jarraituz argitaratuko da.

Halere, argitaratu gabe utzi ahalko da kontratu edo esparru-akordio baten lizitazio-prozedurari buruzko zenbait informazio, hura zabaltzeak errege lege-dekretuaren aplikazioa zailtzen badu, interes publikoaren kontrakoa bada, operadore publiko edo pribatu jakin batzuen merkataritza-interes legitimoek kalte egiten badie edo operadore ekonomikoen arteko lehia zintzoaren kalterako izan badaiteke.

Nolanahi ere den, kontratua egiteari buruzko datu batzuk ez argitaratzeko erabakia hartu ondoren, entitate kontratatzaileek txostena eskatu beharko diote Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari, hala aurreikusten baitu Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak; txosten horretan, jaso beharko da informazio publikorako eskubidea nagusitzen den ala ez datu batzuk ez argitaratzearekin babestu nahi diren ondasunen gainetik. Txostena beranduenez hamar eguneko epean eman beharko da.

Aurrekoa gorabehera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren txosten hori ez da eskatuko aurretik sektore publikoko entitate kontratatzaileak gai berari edo antzekoari buruzko kontsulta egin badu; hori, halere, ez da eragozpena izango espedientean haren baztertzea behar bezala justifikatzeko, apartatu honetan ezarritako moduan.

3. Hiru hilean behin argitaratuko du entitate kontratatzaileak esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen edo eskuratze-sistema dinamiko baten esparruko kontratu berariazkoen adjudikazioa, halakoak jada 73.3 artikuluan ezarritakoaren indarrez burututa. Hiruhileko bakoitza amaitu eta hurrengo hogeita hamar egunetan argitaratuko da, artikulua honetan aurreikusitako moduan.

4. Ikerketa- eta garapen-zerbitzuetako kontratuen kasuan, zerbitzuen izaerari eta kopuruari buruzko informazioa hurrenez hurren honako hauetara mugatu ahalko da:

a) «I+G zerbitzuak» adierazpena, lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatua erabili bada kontratua adjudikatzeko, 85.1.b) artikuluekin bat etorritik.

b) Lizitazio-deialdi gisa erabilitako iragarkian dagoena bezain informazio xehaketa, gutxienez ere.

5. VIII. eranskinarekin bat etorritik ematen den informazioa, argitaratzeko ez den informazio gisa seinalatuta badago, modu sinplifikatuan baino ez da argitaratuko, ondorio estatistikoetarako.

80. artikulua. *Iragarkiak argitaratzeko irizpideak eta modalitateak.*

1. 34., 76., 78., 79. eta 102. artikuluetan aipatzen diren iragarkiek hurrenez hurren III., VI., VII., VIII., IX. eta X. eranskinetan adierazitako informazioa izango dute, eta informazio hori inprimaki normalizatuen formatuan jasoko da, akatsak zuzentzeko inprimaki normalizatuak barnean direla.

2. Aurreko apartatuan aipatutako iragarkiak bitarteko elektronikoak erabiliz bidaliko dira Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora.

3. Lehen apartatuan aipatutako iragarkiak osorik argitaratuko dira entitate kontratatzaileak Europar Batasunaren erakundeen hizkuntza ofizialetatik aukeratzen duen hartan. Hizkuntza horretan edo horietan argitaratutako testua izango da testu kauto bakarra. Gainera, iragarki bakoitzaren atal garrantzitsuen laburpena argitaratuko da Europar Batasunaren erakundeen beste hizkuntza ofizialetan.

4. Entitate kontratatzaileek iragarkiak zer egunetan bidali dituzten frogatzeko modua izan beharko dute. Horretarako, Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoak entitate kontratatzaileari berretsiko dio iragarkia jaso duela eta igorritako informazioa argitaratu egin dela, eta argitaratze horren eguna adieraziko dio. Berrespen hori lizitazioa argitaratu izanaren frogaz izango da.

5. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren iragarkiak eta daukaten informazioa ez dira eremu nazionalean argitaratuko *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu baino lehen. Hala ere, eremu nazionalean argitaratu ahalko dira baldin eta entitate kontratatzaileek ez badute haiek argitaratu izanaren jakinarazpenik jasotzen berrogeita zortzi orduko epean, Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoak bidali dioten iragarkia jaso duela berretsi eta gero.

6. Nazio-mailan argitaratzen diren iragarkietan jasotako informazioa ez da izango Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidalitako edo kontratatzaile-profil batean argitaratutako iragarkietan jasotakoaz bestelakoa, baina aipatu beharko da zer egunetan bidali den iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora edo argitaratu den kontratatzailearen profilean.

3. atala. Prozedura motak

81. artikulua. *Adjudikazio-prozedurak.*

1. Entitate kontratatzaileak aukeran izango du prozedura irekia, prozedura murriztua, lizitazio-prozedura negoziatua, lehia-elkarrizketaren prozedura edo berrikuntzarako elkartzeko prozedura erabiltzea, baldin eta lizitazio-deialdia egin bada 77. artikuluan xedatutakoaren arabera. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua ere erabili ahal izango da errege lege-dekretu honen 85. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

2. Entitate kontratatzaileak lizitazio-prozedura horietako bat hautatu izanaren arrazoiak azaldu beharko ditu, eta dokumentu bidez jasorik utzi beharko du kontratazio-espeditentean.

82. artikulua. *Prozedura irekia.*

1. Prozedura irekietan, interesa duten operadore ekonomiko guztiek aurkezte dezakete eskaintza, lizitazio-iragarkiari erantzunez.

2. Eskaintzak aurkezteko gutxieneko epea hogeita hamabost egunekoa izango da, lizitazio-iragarkia bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

3. Eskaintzarekin batera, entitate kontratatzaileak hautapen kualitatiborako eskatzen duen informazioa aurkeztu beharko da.

4. Entitate kontratatzaileak aldizkako iragarki berriemaile bat argitaratu badu, aurreko 2. apartatuan eskaintzak aurkezteko ezarritako hogeita hamabost eguneko epea hamabost egunera laburtu ahalko da, baldin eta baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Aldizkako iragarki berriemailean, VI. eranskinaren A atalaren I. apartatuan eskatzen den informazioaz gainera, eranskin eta atal berberen II. apartatuan aipatzen den informazioa ere jaso izana, baldin eta informazio hori eskura bazegoen aldizkako iragarki berriemailea argitaratu zen unean. Informazio hori iragarkian jarri ezean, entitate kontratatzaileak, lizitazioa prestatzeko dokumentazioan, idatziz jaso beharko du zergatik ez zegoen informazio hori eskuragarri iragarkia argitaratu zen egunean.

b) Aldizkako iragarki berriemailea lizitazio-iragarkia bidaltzeko eguna baino gehienez ere hamabi hilabete eta gutxienez ere hogeita hamabost egun lehenago igorri izana argitaratzera.

5. Obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuei dagozkien prozeduretan, 2. apartatuan ezarritako hogeita hamabost eguneko epea ezin denean ezarri entitate kontratatzaileek behar bezala justifikatutako presako egoera bat tarteko, entitateok beste epe bat jarri ahalko dute. Epe hori ez da izango hamabost egunekoa baino laburragoa, lizitazio-iragarkia igortzen den egunetik kontatzen hasita.

6. Artikulu honen 2. apartatuan eskaintzak aurkezteko ezarritako hogeita hamabost eguneko epea bost egunez laburtu ahalko du entitate kontratatzaileak, baldin eta onartzen badu eskaintzak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu ahal izan daitezen, errege legedekretu honen 61. artikuluan aurreikusten denarekin bat etorriz.

7. Proposamenak baloratzeko prezioaz besteko irizpideak hartu behar direnean kontuan, entitate kontratatzaileek behar adina txosten tekniko eskatu ahalko dituzte horretarako, adjudikazioa erabaki aurretik. Eskaintzek baldintza-agirietako espezifikazio teknikoak betetzen dituztenetz egiaztatatu behar denean ere eskatu ahalko dira txosten horiek.

Halaber, txostenak eskatu ahalko zaizkie prestazioaren hartzaile diren erabiltzaileen erakunde sozialei, kontratuaren objektuari dagokion jarduera-eremua ordezkatzeko duten erakundeei, sindikatuari, genero-berdintasuna aldeztu duten erakundeei eta alderdi sozial eta ingurumenekoak egiaztatuko dituzten beste erakunde batzuei.

83. artikulua. *Prozedura murriztua.*

1. Prozedura murriztuetan, edozein enpresa interesdunek aurkeztu ahalko du parte hartzeko eskaera bat lizitazio-deialdi gisa balio duen iragarki bati erantzunez; horrekin batera, entitate kontratatzaileak hautapen kualitatiborako eskatzen duen informazioa aurkeztuko du.

2. Prozedura obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuei buruzkoa denean, parte hartzeko eskaerak aurkezteko gutxieneko epeak nahikoa izan beharko du egoki aztertu ahal izateko baldintza-agiriak eta kontratua egikaritzeko inguruabar eta baldintza nabarmenak; hori guztia kontratuaren irismenari eta konplexutasunari erreparatuta. Nolanahi ere, arau orokor gisa, epea hogeita hamar egunekoa izango da gutxienez, lizitazio-deialditzat balio duen iragarkia bidaltzen den egunetik hasita, edo interesa

berresteko gonbidapena bidaltzen den egunetik, baldin eta sailkapen-sistema bat izateari buruzko iragarkiaren bitartez egin bada deialdia. Epea inola ere ez da izango hamabost egun baino gutxiago.

Obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratueterako prozeduretan, aurreko paragrafoan aipatzen den epea hogeita hamar egunekoa izango da kasu guztietan.

3. Eskaintza, soilik, entitate kontratatzaileak hautatzen eta gonbidatzen dituen operadore ekonomikoek aurkeztu ahalko dute, haiek hala eskaturik eta entitate kontratatzaileak haien gaitasuna eta kaudimena aintzat harturik, enpresaburuek emandako informazioa ebaluatu eta gero.

Entitate kontratatzaileek zehaztu ahalko dute gehienez ere zenbat hautagairi egingo zaien eskaintza aurkezteko gonbidapena, 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Inoiz ezingo dira izan bost baino gutxiago.

4. Entitate kontratatzaileak eta aukeratutako hautagaiek elkarren adostasunez ezarri ahalko dute eskaintzak aurkezteko epea. Betiere, aukeratutako hautagai guztiek epe bera izango dute. Epea nahikoa izango da proposamenak egokiro prestatu ahal izateko, kontratuaren irismena eta konplexutasuna kontuan hartuta.

Eskaintzak aurkezteko epeari buruzko akordiorik ezean, epe hori hamar egunekoa izango da gutxienez, 63. artikuluan xedatutakoari jarraituz lizitatzeko gonbidapena bidali zen egunetik hasita.

5. Prozedura hau, batez ere, konplexutasun bereziko zerbitzu intelektuaren kasuan da egokia; horixe dira aholkularitza-, arkitektura- edo ingeniari-tza-zerbitzu batzuen kasuak.

84. artikulua. *Lizitazio-prozedura negoziatua.*

1. Lizitazio-prozedura negoziatuetan, interesa duen edozein enpresak parte hartzeko eskatu ahalko du, lizitazio-deialditzat balio duen iragarki bati erantzunez; eskaerarekin batera, entitate kontratatzaileak hautapen kualitatiborako eskatzen duen informazioa aurkeztuko du.

2. Baldintza-agirian zehaztuko da zer alderdi ekonomiko eta tekniko negoziatuko diren enpresekin, kasua bada, eta zer prozedura beteko den negoziatzeko; prozedura horrek une oro bermatuko du negoziazioa erabat gardena izatea, publikoa izatea eta parte hartzen duten lizitatzzaileen arteko bereizkeriarik ez egitea.

3. Obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratueterako prozeduretan parte hartzeko eskaerak aurkezteko gutxieneko epea, arau orokor gisa, hogeita hamar egunekoa izango da, lizitazio-deialditzat balio duen iragarkia bidaltzen den egunetik hasita, edo interesa berresteko gonbidapena bidaltzen den egunetik, baldin eta sailkapen-sistema bat izateari buruzko iragarkiaren bitartez egin bada deialdia. Epea inola ere ez da izango hamabost egun baino gutxiago.

Obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratueterako prozeduretan, aurreko paragrafoan aipatzen den epea hogeita hamar egunekoa izango da kasu guztietan.

4. Negoziatioetan, soilik, entitate kontratatzaileak hautatzen eta gonbidatzen dituen operadore ekonomikoek parte hartu ahalko dute, haiek hala eskaturik eta entitate kontratatzaileak haien gaitasuna eta kaudimena aintzat harturik, enpresaburuek emandako informazioa ebaluatu eta gero.

Negoizatzeko erabiltzen den prozedurak une oro bermatuko du negoziazioa erabat gardena izatea, publikoa izatea eta parte hartzen duten lizitatzzaileen arteko bereizkeriarik ez egitea; hori ez da eragozpena izango 28. artikuluan konfidentzialtasunari buruz ezarritakoa betetzeko.

Entitate kontratatzaileek zehaztu ahalko dute gehienez ere zenbat hautagairi egingo zaien eskaintza aurkezteko gonbidapena, 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Inoiz ezingo dira izan hiru baino gutxiago.

5. Entitate kontratatzaileak eta aukeratutako hautagaiek elkarren adostasunez ezarri ahalko dute eskaintzak aurkezteko epea. Betiere, hautagai guztiek epe bera izango dute.

Eskaintzak aurkezteko epeari buruzko akordiorik ezean, epe hori hamar egunekoa izango da gutxienez, 63. artikuluan xedatutakoari jarraituz eskaintzak aurkezteko gonbidapena bidali zen egunetik hasita.

85. artikulua. *Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua.*

1. Entitate kontratatzaileek soilik honako kasu hauetan adjudikatu ahalko dituzte obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez:

a) Aldez aurretik lizitazio-deialdia izan duen prozedura bati erantzunez inongo eskaintzarik aurkeztu ez denean, eskaintza egokirik aurkeztu ez denean, parte hartzeko eskaerarik ez dagoenean edo parte hartzeko eskaintza egokirik ez dagoenean, baldin eta kontratuaren hasierako baldintzak funtsean aldatzen ez badira; gainera, inongo kasutan ezingo da handitu kontratuaren lizitazio-aurrekontua edo dokumentu baliokidea, ez eta aldatu ere ordainketarako sistema.

Eskaintzak desegokitzat joko dira kontraturako egokiak ez direnean, nabarmenki ez direlako gai muntako aldaketarik egin ezean entitate kontratatzailearen beharrizanak eta baldintzak betetzeko, baldintza-agirietan zehaztutakoak.

Parte hartzeko eskariak desegokitzat joko dira baldin eta kasuko operadore ekonomikoa baztertuta geratu behar bada edo gera badaiteke errege lege-dekretu honetan ezarritako arrazoiengatik edo ez baditu betetzen entitate kontratatzaileak ezarritako hautapen-irizpideak.

b) Kontratuaren helburu bakarra ikerketa, saiakuntza, azterketa edo garapena denean, eta ez errentagarritasuna lortzea edo ikerketa- eta garapen-kostuak berreskuratzea, eta, betiere, kontratua adjudikatzeak ez badu ezertan eragozten lizitazio-deialdi bat egitea helburu berak izango dituzten beste kontratu batzuetarako.

c) Obrak, hornidurak edo zerbitzuak operadore ekonomiko jakin batek baizik ezin dituenean eskaini honako arrazoi hauetako batengatik:

1.a Bakarra den artelan bat edo saio artistiko bat sortzea edo eskuratzea izatea kontratuaren objektua.

2.a Arrazoi teknikoengatik lehiarik ez izatea.

3.a Eskubide eskusiboak babestu behar izatea, horien barnean direla jabetza intelektuala edo industria-jabetzaren eskubideak.

Aurreko 2. eta 3. zenbakietan aurreikusitako salbuespenak beste aukera edo ordeko arrazoizkorik ez dagoenean aplikatuko dira soilik, eta lehiarik ez egotea ez denean kontratua adjudikatzeako parametroen murrizketa artifizia baten ondorioa.

d) Entitate kontratatzaileak ezin aurreikusi dituen eta berari egotzi ezin zaizkion gertaerek eragindako premiazko urgentzia baten ondorioz ezin bete direnean prozedura irekieratako, prozedura murriztueterako eta lizitazio-prozedura negoziatueterako ezarritako epeak.

e) Hornidura-kontratuen kasuan, hasierako hornitzaileak entrega gehigarriak egiteko direnean, dela hornigaiz edo instalazioz hornitzen jarraitzeko, dela egon dauden hornigaiak edo instalazioak gehitzeko, eta hornitzailez aldatzeak entitate kontratatzailea bestelako ezaugarri teknikoak dituzten materialak eskuratzerara behartuko balu eta horrek neurrigabeko bateraezintasunak nahiz zailtasun teknikoak sortuko balitu bai erabilerarako bai mantentze-lanerako.

f) Obra edo zerbitzu berrien kasuan, entitate kontratatzaile berak adjudikatutako hasierako kontratu baten titularra den kontratistari enkargatu zitzaizkion antzeko obra edo zerbitzuen errepikapena direnean, baldin eta obra edo zerbitzu horiek oinarritzko proiektu bati egokitzen bazaizkio eta proiektu hori objektua izan bada lehenengo kontratu batean, zeina aldez aurretik lizitazio-deialdia izan duen prozedura baten arabera adjudikatu baita.

Oinarritzko proiektu horretan aipatuko da zenbat obra edo zerbitzu gehigarri egongo diren eta haiek zer baldintzatan adjudikatuko diren. Prozedura hau erabiltzeko aukera lehenengo proiektuaren lizitazio-deialdiaren hasieratik adieraziko da, eta entitate kontratatzaileek kontuan hartuko dute obrak edo zerbitzuak egiten jarraitzeko aurreikusitako guztizko zenbatekoa haren balio zenbatetsia kalkulaterakoan.

g) Lehengaien burtsa batean kotizatzen duten eta erosten diren hornigaiak direnean.

h) Aukerako prezioan egindako erosketak direnean, osoaldi laburrean gertatzen diren baldintza biziki onuragarriak baliatuz, hornigaiak erosteko aukera dagoenean merkatuko ohiko prezioa baino nabarmenki merkeago.

i) Hornigaiak edo zerbitzuak erosten direnean baldintza biziki onuragarrien arabera, merkataritza-jarduera behin betiko utzi behar duen hornitzaile bati erositako, edo konkurtso bateko administratzaileari, edo hitzarmen judizial bat edo izaera bereko prozedura bat dela medio.

j) Zerbitzu-kontratua errege lege-dekretu honi jarraituz antolatutako proiektu-lehiaketa baten emaitza denean, eta, proiektuen lehiaketa horretan ezarritako araei jarraituz, lehiaketako irabazleari edo irabazleetako bati adjudikatu behar zaionean; azken kasu horretan, lehiaketako irabazle guztiak gonbidatu beharko dira negoziatioetan parte hartzera.

2. Entitate kontratatzaileek publiziterik gabeko prozedura negoziatua erabili ahalko dute obra-emakidako kontratuak edo zerbitzu-emakidako kontratuak adjudikatzeko, aurreko apartatuaren a) eta c) letretan azaldutako kasuetan.

3. Baldintza-agirian zehaztuko da zer alderdi ekonomiko eta tekniko negoziatuko diren enprekin, kasua bada, eta zer prozedura beteko den negoziatzeko; prozedura horrek une oro bermatuko du negoziatioa erabat gardena izatea, publikoa izatea eta parte hartzen duten lizitatuzaileen arteko bereizkeriarik ez egitea.

86. artikulua. *Lehia-elkarrizketa.*

1. Lehia-elkarrizketetan, interesa duen edozein enpresak parte hartzeko eskaera aurkeztu ahalko du lizitazio-deialditzat balio duen iragarkiari erantzunez, entitate kontratatzaileak hautaketa kualitatiborako eskatu duen informazioa eta dokumentazioa emanaz.

2. Obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuarentako prozeduretan parte hartzeko eskaerak aurkezteko gutxieneko epea, arau orokor gisa, hogeita hamar egunekoa izango da, lizitazio-deialditzat balio duen iragarkia bidaltzen den egunetik hasita, edo interesa berresteko gonbidapena bidaltzen den egunetik, baldin eta sailkapen-sistema bat izateari buruzko iragarkiaren bitartez egin bada deialdia. Epea inola ere ez da izango hamabost egun baino gutxiago.

Obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuarentako prozeduretan, aurreko paragrafoan aipatzen den epea hogeita hamar egunekoa izango da kasu guztietan.

3. Negoziatioetan, soilik, entitate kontratatzaileak hautatzen eta gonbidatzen dituen enpresaburuek parte hartu ahalko dute, haien hala eskaturik eta entitate kontratatzaileak haien gaitasuna eta kaudimena aintzat harturik, enpresaburuek emandako informazioa ebaluatu eta gero.

Entitate kontratatzaileek mugatu ahalko dute eskaintza bat aurkezteko onartu eta prozeduran parte hartzera gonbidatuko diren hautagaien kopurua, 56.2 artikuluekin bat.

4. Kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onena duen eskaintzari adjudikatuko zaio kontratua, 66.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

5. Entitate kontratatzaileek lizitazio-deialdian eta deskripzio-agiri batean ezarri eta zehaztuko dute zein diren haien beharrianak eta baldintzak eta hautatutako adjudikazio-irizpideak, eta epe seinalagarri bat emango dute.

Errege lege-dekretu honen ondorioentarako, baldintza-agiriei buruzko aipamen guztiak deskripzio-agiriari buruzko aipamentzat hartuko dira kontratua lehia-elkarrizketako prozedura baten bidez adjudikatzen denean.

6. Entitate kontratatzaileek elkarrizketa izango dute hautatutako parte-hartzaileekin, haien beharrianak betetzeko bitarteko egokienak zein diren zehaztu eta definitzeko. Elkarrizketa horretan, entitate kontratatzaileek kontratuaren alderdi guztiak eztabaidatu ahal izango dituzte hautatutako parte-hartzaileekin.

7. Elkarrizketan, entitate kontratatzaileek berdin tratatuko dituzte parte-hartzaile guztiak, eta ez dute informaziorik emango diskriminazioa eraginez eta parte-hartzaile batzuei besteen gaineko abantaila emanaz.

Entitate kontratatzaileek ezingo dizkie gainerako parte-hartzaileei jakinarazi parte-hartzaile batek proposatutako konponbideak edo hark jakinarazitako isilpeko datuak azken hori ados ez badago, 28. artikuluan ezarritako moduan. Adostasuna emanez gero, ez da izango uko orokorra eginez, berariazko informazioa nahita jakinarazteko baizik.

8. Lehia-elkarrizketak hurrenez hurrenoko hainbat fasetan egin ahalko dira, lizitazio-deialdian edo deskripzio-agirian zehaztutako adjudikazio-irizpideak aplikatuz, elkarrizketa-fasean aztertu beharreko konponbideen kopurua murriztearren. Entitate kontratatzaileak aukera hori erabiliko duen edo ez adierazi beharko du lizitazio-deialdian edo deskripzio-agirian.

9. Entitate kontratatzaileak elkarrizketak eginez jarraituko du, harik eta bere beharrezan erantzuteko konponbide egokiena edo konponbide egokienak hautatu arte.

10. Entitate kontratatzaileek, elkarrizketa amaitutzat eman eta parte hartu duten guztiei hala jakinarazi ondoren, parte-hartzaile horiek gonbidatuko dituzte amaierako eskaintza aurkez dezaten, elkarrizketa-fasean zehar aurkeztu eta zehaztutako konponbidean edo konponbideetan oinarrituta. Amaierako eskaintzetan, proiektua gauzatzeko behar diren eta eskatzen diren osagai guztiak sartu behar dira.

11. Eskaintzak argitu, zehaztu eta doitu ahal izango dira, entitate kontratatzaileak hala eskatuz gero. Argibide, zehaztapen, doikuntza edo informazio osagarri horiek, ordea, ezingo dituzte aldarazi eskaintzaren funtsezko osagaiak edo kontratazioaren baldintzak –zehazki, lizitazio-deialdian edo deskripzio-agirian ezarritako beharrezan eta baldintzak–, baldin eta osagaien, beharrezan eta baldintzen aldaketa horiek lehia faltsutu badezakete edo diskriminazioa eragin badezakete.

12. Entitate kontratatzaileek jasotako eskaintzak ebaluatuko dituzte lizitazio-deialdian edo deskripzio-agirian ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

13. Entitate kontratatzaileak eskatuz gero, negoziazioak egin ahalko dira kalitate-prezio erlazio oneneko eskaintza aurkeztu duen lizitazioarekin, konpromiso finantzarioak edo eskaintzan jasotako beste baldintza batzuk konfirmatzeko. Horretarako, kontratuaren baldintzen azken xehetasunak erabakiko dira, baldin eta negoziazio horren ondorioz eskaintzaren edo kontratazio-baldintzen funtsezko elementuak materialki aldatzen ez badira –bereziki, lizitazio-deialdian edo deskripzio-agirian ezarritako beharrezan eta baldintzak–, eta horrekin lehia faltsutzeko arriskurik hartzen ez bada eta diskriminaziorik sortzen ez bada.

14. Entitate kontratatzaileek sariak edo ordainketak ezarri ahalko dituzte elkarrizketan parte hartzen dutenentzat, baldin eta diskriminaziorik ez bada.

87. artikulua. *Berrikuntzarako elkartea.*

1. Berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, edozein operadore ekonomikorik parte hartzeko eskaera aurkeztu ahalko du, lizitazio-deialditzat balio duen iragarki bati erantzunez; eskaerarekin batera, entitate kontratatzaileak hautapen kualitatiborako eskatzen duen informazioa aurkeztuko du.

2. Baldintza-agirietan, entitate kontratatzaileak zehaztuko du produktu, zerbitzu edo obra berritzaile baten beharra dagoela, merkatuan jada eskuragarri dauden produktu, zerbitzu edo obrak eskuratuz bete ezin daitekeena. Halaber, adieraziko du deskribapeneko zer elementu osatzen dituzten parte-hartzaile guztiek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak. Emandako informazioa behar bezain zehatza izango da operadore ekonomikoek eskatzen den konponbidearen izaera eta eremua ezagutu ahal izateko eta prozeduran parte hartzea eskatuko duten erabaki ahal izateko.

3. Entitate kontratatzaileak erabaki ahalko du enpresaburu batekin edo ikerketa- eta garapen-jarduerak bakoitzak bere aldetik egingo dituzten zenbait enpresabururekin sortzea berrikuntzarako elkartea.

4. Obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratueterako prozeduretan parte hartzeko eskaerak aurkezteko gutxieneko epea, arau orokor gisa, hogeita hamar egunekoa izango da, lizitazio-deialditzat balio duen iragarkia bidaltzen den egunetik hasita, edo interesa berresteko gonbidapena bidaltzen den egunetik, baldin eta sailkapen-sistema bat izateari

buruzko iragarkiaren bitartez egin bada deialdia. Epea inola ere ez da izango hamabost egun baino gutxiago.

Obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuetarako prozeduretan, aurreko paragrafoan aipatzen den epea hogeita hamar egunekoa izango da kasu guztietan.

Emandako informazioa ebaluatu ondoren entitate kontratatzaileak gonbidatzen dituen operadore ekonomikoek baizik ezingo dute parte hartu prozeduran.

5. Entitate kontratatzaileek mugatu ahalko dute eskaintza bat aurkezteko onartu eta prozeduran parte hartzera gonbidatuko diren hautagaien kopurua, 56.2 artikuluekin bat.

Kontratuak adjudikatzeko erabiliko den irizpide bakarra kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onena izango da, 66. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

6. Berrikuntzarako elkarteak xede izango du produktu, zerbitzu edo obra berritzaileak garatzea eta gero horretatik datozen hornidura, zerbitzu edo obrak erostea, baldin eta halakoak bat badatoz entitate kontratatzailearen eta parte-hartzaileen artean erabakitako errendimendu-mailekin eta gehieneko kostuekin.

7. Berrikuntzarako elkarteak ondoz ondoko faseetan egituratu beharko da, ikerketa- eta berrikuntza-prozesuaren etapan sekuentziari jarraituz; prozesuaren barnean, produktuak fabrikatu, zerbitzuak eman edo obrak egin ahalko dira. Berrikuntzarako elkarteak bazkideek erdietsi beharreko tarteko helburu batzuk finkatuko ditu, eta ordainsaria epe egokietan ordainduko du.

Helburu horietan oinarrituta, entitate kontratatzaileak, etapa bakoitzaren amaieran, erabaki ahalko du berrikuntzarako elkartzeari amaiera ematea edo, bazkide bat baino gehiago dituen berrikuntzarako elkarte baten kasuan, bazkideen kopurua gutxitzea, baldin eta entitate kontratatzaileak baldintza-agirietan adierazi badu halako aukerez balia daitekeela eta zer baldintzatan baliatu beharra dagoen.

8. Entitate kontratatzaileek, artikulua honetan besterik xedatzen ez bada, lizitatzailerekin negoziatuko dituzte haiek aurkeztutako hasierako eskaintzak eta geroztik aurkeztu dituzten eskaintza guztiak, behin betiko eskaintza izan ezik, haien edukia hobetze aldera.

Ez dira negoziatuko gutxienerako baldintzak, ez eta adjudikazio-irizpideak ere.

9. Negoziazioan zehar, lizitatzailerekin tratatu bera jasotzen dutela zaindu beharko dute entitate kontratatzaileek. Xede horrekin, entitateek ez dute informaziorik emango diskriminazioa eraginez eta lizitatzailerekin batzuei besteen gaineko abantaila emanez; idatziz jakinaraziko dizkiete hurrengo 10. apartatuan ezarritakoari jarraituz eskaintzak baztertu ez dizkieten lizitatzailerekin zehaztutako teknikoetan edo gutxienerako baldintzak ezartzen ez dituzten kontratazioaren beste dokumentu batzuetan egin diren aldaketa guztiak. Aldaketa horiek direla eta, entitate kontratatzaileek lizitatzailerekin behar beste denbora emango diete eskaintzak aldatzeko eta aldatutako eskaintza horiek aurkezteko, dagokionaren arabera.

Entitate kontratatzaileek, 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz, ez diete emango negoziatzioan parte hartu duen hautagai edo lizitatzailerekin batek komunikatutako datu konfidentzialik beste parte-hartzaileei, aurrez azken hori ados ez badago. Adostasuna emanez gero, ez da izango uko orokorra eginez, berriazko informazioa nahita jakinarazteko baizik.

10. Berrikuntzarako elkartzeko prozeduretan zehar egiten diren negoziatzioak ondoz ondoko faseetan egin ahalko dira, negoziatu beharreko eskaintzen kopurua gutxitze aldera, eta lizitazio-deialdia egiteko erabiltzen den iragarkian edo baldintza-agirietan zehaztutako adjudikazio-irizpideak aplikatuko dira. Lizitazio-deialdia egiteko erabiltzen den iragarkian edo baldintza-agirietan, entitate kontratatzaileak aukera horretaz baliatuko den adieraziko du.

11. Hautagaiak aukeratzean, entitate kontratatzaileek, bereziki, hautagaiak ikerketaren eta garapenaren arloetan daukaten gaitasunari buruzko irizpideak erabiliko dituzte, bai eta konponbide berritzaileak garatu eta aplikatzeko daukaten gaitasunari buruzkoak ere.

Entitate kontratatzaileak dauden konponbideekin bete ezin dituen beharrezko erantzutako ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak aurkeztu ahalko dituzte, soilik, entitate kontratatzaileak 1. apartatuaren arabera eskatutako informazioa ebaluatu eta gero gonbidatzen dituen operadore ekonomikoek, kontratazioaren berri emateko aldizkako

iragarki baten bidez edo lizitazio-iragarki baten bidez egin bada deialdia; edo 40. artikulua araberaren gonbidatzen dituenek, sailkapen-sistema bat izateari buruzko iragarki baten bidez egin bada deialdia.

12. Baldintza-agirietan, entitate kontratatzaileak jabetza intelektualaren eta industria-jabetzaren eskubideei zer xedapen aplikatu behar zaizkien zehaztuko du. Bazkide bat baino gehiago dituzten berrikuntzarako elkartearen kasuan, entitate kontratatzaileak, 28. artikuluari jarraituz, ez die beste bazkideei jakitera emango bazkide batek elkartearen esparruan proposatutako konponbideak edo aditzera emandako datu konfidentzialak, azken hori ados ez badago. Adostasuna emanez gero, ez da izango uko orokorra eginez, berariazko informazioa nahita jakinarazteko baizik.

13. Entitate kontratatzailea adi egongo da elkartearen egiturak eta, bereziki, etapen iraupenak eta balioak hauek isla ditzaten: proposatutako konponbideak dakarren berritasuna, eta merkatuan oraindik ere eskuragarri ez dagoen konponbide berritzaile bat garatzeko behar diren ikerketa- eta berrikuntza-jardueren sekuentzia. Eskuratutako horniduren, zerbitzuen edo obren balio zenbatetsia ez da neurritz kanpoko izango haiek garatzeko behar den inbertsioarekiko.

V. TITULUA

Kontratazioa eta proiektu-lehiaketak arrazionalizatzeko teknikak

I. KAPITULUA

Arrazionalizatzeko teknikak

1. atala. Erosketa-zentralak

88. artikulua. *Zentralizatutako erosketa-jarduerak eta erosketa-zentralak.*

1. Entitate kontratatzaileek 2.m).1 artikuluan aipatzen den erosketa zentralizatuko jardura eskaintzen duen erosketa-zentral baten bidez eskuratu ahal izango dituzte obrak, hornidurak edo zerbitzuak.

2. Entitate kontratatzaileek obra, hornidura edo zerbitzuak eskuratu ahalko dituzte bai erosketa-zentral batek adjudikatutako kontratuak baliatuz, bai erosketa-zentral batek administratutako eskuratze-sistema dinamikoak baliatuz, bai 2.m).2 artikuluan aipatzen den erosketa zentralizatuko jardura eskaintzen duen erosketa-zentral batek egindako esparru-akordio bat baliatuz.

3. Erosketa-zentral batek administratutako eskuratze-sistema dinamiko bat beste entitate kontratatzaile batzuek erabil dezaketenean, horren berri jasoko da eskuratze-sistema dinamikoko lizitazio-deialdian.

4. Alde batera utzi gabe 20.k) artikuluan ezarritakoa, entitate kontratatzaileek errege lege-dekretu honetan ezartzen zaizkien betebeharrak beteko dituzte aurreko 1. eta 2. apartatuetako kasu guztietan.

Bereziki, euren egikaritzen dituzten ataletan izango dira entitate kontratatzaileak errege lege-dekretu honetan ezartzen zaizkien betebeharren erantzule, hala nola:

a) kontratu bat adjudikatzen dutenean erosketa-zentral batek administratutako eskuratze-sistema dinamiko baten bitartez, edo

b) lizitazio berri baterako deialdia egiten dutenean erosketa-zentral batek egindako esparru-akordio bati jarraituz.

5. Erosketa-zentral batek zuzendutako lizitazio-prozedura guztiak komunikabide elektronikoak erabiliz egingo dira, 61. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

89. artikulua. *Noizbehinkako baterako kontratazioa.*

1. Bi entitate kontratatzaile edo gehiago ados jarri ahalko dira berariazko zenbait kontratazio batera egiteko.

2. Lizitazio-prozedura bat osorik entitate kontratatzaile interesdun guztien izenean eta haien kontura garatzen denean, entitate guztien erantzukizuna izango da errege lege-dekretu honetatik datozen betebeharrak betetzea. Hori bera aplikatuko da entitate kontratatzaile bakar batek bere kontura eta gainerako entitate kontratatzaile interesdunen kontura lizitazio-prozedura administratzen duen kasuetan ere.

3. Lizitazio-prozedura bat entitate kontratatzaile interesdunen izenean eta haien kontura osorik garatzen ez denean, soilik batera aurrera eraman dituzten atalei dagokienez izango da entitate horiena guztiena erantzukizuna. Entitate kontratatzaile bakoitza errege lege-dekretu honetako xedapenak betetzearen erantzule bakarra izango da berez eta bere izenean aurrera eramaten dituen ataletan.

90. artikulua. *Kontratazioan Europar Batasuneko hainbat estatutako entitate kontratatzaileek parte hartzea.*

1. Entitate kontratatzaile nazionalak Europar Batasuneko beste estatu batzuetako entitate kontratatzaileekin batera jardun ahalko dute kontratuak adjudikatzen, artikulua honetan ezarritako eran.

2. Entitate kontratatzaileek ez dute errege lege-dekretu honen aplikazioa saihesteko asmoz aplikatuko artikulua honetan xedatutakoa.

3. Entitate kontratatzaileek baliatu ahal izango dituzte Europar Batasuneko beste estatu batzuetan kokatutako erosketa-zentralek eskaintzen dizkieten erosketa-jarduera zentralizatuak.

4. Europar Batasuneko beste estatu batean kokatutako erosketa-zentral batek erosketa zentralizatuko jardueren prestazioa egiten duenean, estatu horretako xedapen nazionalari jarraituko zaie. Xedapen horiek berak aplikatuko dira kasu hauetan ere:

- a) Kontratu bat eskuratze-sistema dinamiko baten bitartez adjudikatzen denean, eta
- b) lizitazio berri baten deialdia egiten denean esparru-akordio baten indarrez.

5. Europar Batasuneko hainbat estatutako hainbat entitate kontratatzaile batu ahalko dira kontratu bat batera adjudikatzeko, esparru-akordio bat egiteko, eskuratze-sistema dinamiko bat administratzeko edota esparru-akordio nahiz eskuratze-sistema dinamiko horietan oinarritutako kontratuak adjudikatzeko.

Xede horrekin –eta, betiere, Europar Batasuneko estatu interesdunek nazioarteko akordiorik egin ez badute arautu beharreko elementuak arautzeko–, parte hartzen duten entitate kontratatzaileek akordioa egingo dute honako hauek zehazteko:

- a) Alderdien erantzukizunak eta aplikatu beharreko xedapen nazionalak, eta
- b) lizitazio-prozeduraren barne-antolaketa; bereziki, nola kudeatuko den prozedura, nola banatuko diren eskuratutako obrak, hornidurak edo zerbitzuak eta nola egingo diren kontratuak.

Parte hartzen duten entitate kontratatzaileek, lizitazio-prozeduraren ardura duen entitate kontratatzaile batengandik obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzen dituztenean, errege lege-dekretu honek ezartzen dizkien betebeharrak beteko dituzte.

Aurreko a) letrari jarraituz erantzukizunak eta aplikatu beharreko xedapen nazionalak zehazten direnean, parte hartzen duten entitate kontratatzaileek aukeratu ahal izango dute elkarri erantzukizun espezifikoak esleitzea eta beren estatuetako zuzenbide nazionaletako zer xedapen aplikatu behar diren zehaztea. Erantzukizunen esleipena eta aplikatu beharreko xedapen nazionalak baldintza-agirietan adieraziko dira, batera adjudikatuko diren kontratuetarako.

6. Europar Batasuneko hainbat estatutako entitate kontratatzaile batzuek entitate erkide bat eratutakoan –bereziki, lurralde-lankidetzako talde europar bat, oinarri harturik

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 1082/2006 (EE) Erregelamendua, lurralde-lankidetzako talde europarrei buruzkoa, edo Europar Batasuneko zuzenbideak araututako bestelako entitateen bat-, parte hartzen duten entitate kontratatzaileek erabakiko dute, entitate erkideko organo eskudunaren erabaki baten bitartez, estatu hauetako baten kontratazio-arau nazionalak aplikatzea:

- a) Entitate erkideak egoitza soziala daukan Europar Batasuneko estatuaren xedapen nazionalak, eta
- b) entitate erkideak bere jarduerak aurrera eramaten dituen Europar Batasuneko estatuaren xedapen nazionalak.

Lehen paragrafoan aipatutako erabakia denbora-mugarik gabe aplikatu ahalko da, entitate erkidea eratzeko egintzan hala jasota badago, edo, bestela, mugatu ahalko da epe jakin batera, kontratu mota jakin batzuetara edo berariazko lizitazio-prozedura batera edo batzuetara.

91. artikulua. *Erosketa-zentralekin kontratuak eta esparru-akordioak egitea.*

1. Obrak, hornidurak edo zerbitzuak erosketa-zentral baten bitartez kontratatzen dituzten entitate kontratatzaileek, errege lege-dekretu honetan araututako kasuetan, beronen xedapenak errespetatu dituztela uste izango da baldin eta erosketa-zentralak xedapen horiek betetzen baditu, edo, hala behar denean, azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa betetzen badu.

2. Entitate kontratatzaileak inola ere ez dira hartuko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak aipatzen duen kontratazio zentralizatuko estatu-sistemaren nahitaezko eremu subjektiboko subjektutzat; nolana ere, sistema horri atxikitzeak aukera izango dute.

2. atala. *Esparru-akordioak*

92. artikulua. *Esparru-akordioak.*

1. Entitate kontratatzaileek esparru-akordioak egin ahalko dituzte, baldin eta errege lege-dekretu honetan aurreikusitako prozedurak aplikatzen badituzte.

2. Errege lege-dekretu honen ondorioetarako, hau da «esparru-akordioa»: entitate kontratatzaile batek edo zenbaitek operadore ekonomiko batekin edo zenbaitekin egindako akordioa, aldi jakin batean adjudikatuko diren kontratuak bete beharko dituzten baldintzak zehaztea xede duena, bereziki prezioei dagokienez eta, kasua bada, aurreikusitako zenbatekoei dagokienez.

3. Esparru-akordioak ezingo du iraun zortzi urte baino gehiago, behar bezala justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik; bereziki, esparru-akordioaren objektua dela-eta justifikatutakoetan izan ezik.

4. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak arau eta irizpide objektiboei jarraituz adjudikatuko dira, eta horietako bat izan daiteke lizitazio berri baterako deialdia egitea egindako esparru-akordioan parte hartzen duten operadore ekonomikoen artean. Arau eta irizpide horiek esparru-akordioaren baldintza-agirietan jasoko dira, eta akordioan parte hartzen duten operadore ekonomiko guztiak berdin tratatzea bermatuko dute.

Lizitazio berri baterako deialdia egiten denean, entitate kontratatzaileek behar besteko epea ezarriko dute eskaintzak aurkeztu ahal izan daitezen kontratu bakoitzerako, eta kontratu bakoitza eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerari adjudikatuko diote, esparru-akordioaren baldintza-agirian ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

5. Entitate kontratatzaileek gehiegikeriarik gabe erabiliko dituzte esparru-akordioak, eta lehia eragotzi, murriztu edo faltsutu gabe.

*3. atala. Eskuratze-sistema dinamikoak*93. artikulua. *Zehaztapena.*

1. Entitate kontratatzaileek sistema dinamikoak ezarri ahalko dituzte obrak, zerbitzuak eta ohiko erabilerako hornidurak eskuratzeko, baldin eta horien ezaugarriek beren beharizanak betetzen badituzte eta ezaugarriok gehienetan merkatuan eskura badaitezke.

2. Eskuratze-sistema dinamikoa prozesu guztiz elektronikoa da, baldintza-agirietan iraupen mugatu eta jakin bat duena, eta indarraldi osoan zabalik egon behar du hautapenerako irizpideak betetzen dituen eta interesa duen enpresa ororentzat.

3. Entitate kontratatzaileek produktu, obra nahiz zerbitzuen kategorien arabera antolatu ahalko dute eskuratze-sistema dinamikoa, kategoriok objektiboki zehaztuta.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, hauek hartuko dira kategoriak zehazteko balio duten irizpide objektibotzat, besteak beste: entitate kontratatzaileak sistemaren esparruan adjudikatzea aurreikusten duen kontratuen gehieneko bolumen onargarria, eta berariazko kontratu horiek egikarrituko diren eskualde geografiko zehatzak.

4. Entitate kontratatzaileek ezingo dute sistema hau erabili lehia eragozten, murrizten edo faltsutzen duen moduan.

94. artikulua. *Eskuratze-sistema dinamikoari aplikatzen zaizkien erregelak.*

1. Eskuratze-sistema dinamiko baten esparruan kontratatzeko, entitate kontratatzaileek prozedura murriztuaren arauari jarraituko diete, atal honetan ezartzen diren berezitasunekin.

2. Sistemari, hautapen-irizpideak betetzen dituzten eskatzaile guztiak onartuko dira, eta ezingo da mugatu sistemari onar daitezkeen hautagaien kopurua.

3. Entitate kontratatzaileek, sistema produktuen, obren edo zerbitzuen kategorien arabera zatitu dutenean aurreko artikuluan xedatutakoari jarraituz, kategoria bakoitzari aplikatu beharreko hautapen-irizpideak zehaztuko dituzte.

4. Eskuratze-sistema dinamiko baten testuinguruan egiten diren komunikazio guztietarako soilik bitarteko elektronikoak erabiliko dira, 61. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

5. Berariazko kontratuak eskuratze-sistema dinamikoaren esparruan lizitatu baino lehen, entitate kontratatzaileek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Lizitazio-deialdia argitaratu, bertan zehaztuta eskuratze-sistema dinamiko bat dela eta zenbat iraungo duen.

b) Baldintza-agirietan adierazi, gutxienez ere, aurreikusitako erosketen izaera eta zenbatetsitako kopurua, bai eta eskuratze-sistema dinamikoari buruz behar den informazioa eman ere, bereziki honako hauei erreparatuta: funtzionatzeko modua, erabilitako ekipamendu elektronikoa eta konexioaren modalitateak eta zehaztapen teknikoak.

c) Produktuen, obren edo zerbitzuen kategorien arabeko banaketa guztiak adierazi, eta kategoria horien ezaugarriak.

d) Baldintza-agirietarako sarbide libre, zuzen eta osoa eman, sistemaren indarraldi osoan, errege lege-dekretu honetan ezarritakoari jarraituz.

6. Enpresentzat doakoa izango da sistema honetan parte hartzea; izan ere, ezingo zaie inolako gasturik kargatu.

7. Lizitazio-deialdian ezarritako indarraldia dela-eta egindako aldaketa ororen berri emango diote entitate kontratatzaileek Europako Batzordeari, inprimaki normalizatu hauek erabiliz:

a) Indarraldia sistema amaitu baino lehen aldatzen den kasuetan, lizitazio-deialdirako hasiera batean erabilitako inprimakia.

b) Sistemaren indarraldia amaitu den kasuetan, kontratuaren formalizazioari buruzko iragarkiko inprimakia.

95. artikulua. *Enpresak sisteman sartzea.*

1. Eskuratze-sistema dinamikoaren indarraldi osoan zehar, edozein enpresaburu interesdunek eskatu ahalko du sisteman parte hartzea, aurreko artikuluan adierazitako baldintzetan.

2. Parte hartzeko eskaerak aurkezteko gutxieneko epe orokorra hogeita hamar egunekoa izango da, lizitazio-deialditzat balio duen iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidaltzen den egunetik kontatzen hasita; epe hori inoiz ez da izango hamabost egun baino gutxiago. Epe hori ezingo da luzatu hautagaiei idatzizko gonbidapena jada bidali zaienean eskuratze-sistema dinamikoaren esparruan lehenengo kontratazio berariazkoa egiteko.

3. Entitate kontratatzaileek hautapen-irizpideei jarraituz ebaluatuko dituzte parte hartzeko eskaera horiek, haiek jaso eta hamar egun balioduneko epean.

Epe hori hamabost egun balioduneko ere izan ahalko da kasu zehatz eta justifikatuetan; bereziki, dokumentazio osagarria aztertu behar bada edo beste moduren batean egiaztatu behar bada hautapen-irizpideak betetzen direla.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa gorabehera, eskuratze-sistema dinamikoaren esparruko lehen kontratazio berariazkorako lizitatzeko gonbidapena bidaltzen ez den bitartean, entitate kontratatzaileak berriz ere luzatu ahalko du ebaluaziorako epea. Eskaerak baloratzeko erabilitako denbora horretan zehar, entitate kontratatzaileak ezingo du bidali eskaintzak aurkezteko inongo gonbidapenik.

Entitate kontratatzaileek baldintza-agirietan adierazi beharko dute ea apartatu honetan aipatzen den epea luzatzeko aukerarik baden, eta, baiezkoan, zenbat luza daitekeen.

4. Entitate kontratatzaileek ahal bezain laster adieraziko diote eskuratze-sistema dinamikoari atxikitzea eskatu zuen enpresari onartu duten ala ez.

5. Hautagaiek hautapen-irizpideak bete dituztela egiaztatu dutenean errege lege-dekretu honen 57. artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztuz, entitate kontratatzaileek, eskuratze-sistema dinamikoaren indarraldiaren edozein unetan, eskatu ahalko diete erantzukizunpeko deklarazio berri eta gaurkotua aurkez dezaten. Deklarazio hori bost egun balioduneko epean aurkeztu beharko du hautagaiak, errekerimendua bidali zitzaion egunetik kontatzen hasita.

Eskuratze-sistema dinamikoaren indarraldi osoan izango da aplikatzekoa 57. artikulua 9. apartatua.

96. artikulua. *Kontratu bereziak adjudikatzea eskuratze-sistema dinamiko baten barruan.*

1. Eskuratze-sistema dinamikoaren barruan adjudikatu nahi den kontratu bakoitzerako, lizitazioa egin beharko da.

2. Entitate kontratatzaileek aurrez eskuratze-sistema dinamikoan onartu diren enpresa guztiei gonbidapena egingo diete sistema horren esparruan egiten den lizitazio bakoitzean eskaintza bat aurkez dezaten, 63. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Eskuratze-sistema dinamikoa produktuen, obren edo zerbitzuen hainbat kategoriaren arabera banatu denean, entitate kontratatzaileek gonbidapena egingo diete kasuan kasuko kategorian aurrez onartu diren enpresa guztiei.

3. Proposamenak aurkezteko gutxieneko epea hamar egunekoa izango da, eskaintzak aurkezteko idatzizko gonbidapena bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

4. Entitate kontratatzaileek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileri adjudikatuko diote berariazko kontratua, eskuratze-sistema dinamikorako lizitazio-iragarkian xehakatutako adjudikazio-irizpideei jarraituz, edo, sailkapen-sistema bat izateari buruzko iragarkiaren bidez egin bada lizitazio-deialdia, lizitatzeko gonbidapenean xehakatutako adjudikazio-irizpideei jarraituz. Hala dagokionean, irizpide horiek zehaztasun handiagoz formulatu ahalko dira lizitatzeko gonbidapenean. Irregularizat edo onartezintzat joko dira baldintza-agirietan aurreikusitakoaren arabera ez diren eskaintza guztiak, epez kanpo aurkeztutakoak, kolusio- edo ustelkeria-zantzuak dituztenak, entitate kontratatzaileak nabarmenki baxuegiak izatea iriztitakoak eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua edo dokumentu baliokidea gainditzen duen prezioa dutenak.

4. atala. Enkante elektronikoak eta katalogo elektronikoak

97. artikulua. Enkante elektronikoak.

1. Kontratua adjudikatzeko, enkante elektronikoa egin ahalko da, errepikapeneko prozesu elektroniko moduan antolatuta. Eskaintzen lehen balorazio osoa egin ondoren egiten da enkante elektronikoa, prezio hobeak aurkezteko edo eskaintzen elementu jakin batzuetan balio erlatibo berriak aurkezteko (eskaintzak osorik hobetzen dituztenak); prozesu hori eskaintzak ebaluazio-metodo automatizatuen bidez sailkatzeko bide ematen duen dispositibo elektroniko batean oinarrituko da, eta zaindu beharko da dispositibo elektroniko horrek ez duela eskaintzarik baztertzen eta sarbidea guztiek dutela, bai eta enkante-prozesuko parte-hartze guztiak aldaketarik gabe erregistratzen direla ere.

2. Enkante elektronikoa erabili ahalko da prozedura irekietan, prozedura murriztuetan eta lizitazio-prozedura negoziatuetan, baldin eta adjudikatu beharreko kontratuaren zehaztapenak xehetasun osoz ezar badaitezke baldintza-agirietan eta kontratuko prestazioek izaera intelektuala ez badute, ingeniariartzako, aholkularitzako edo arkitekturako zerbitzuetan gertatzen den bezala. Enkante elektronikoak ezin dira gehiegikeriaz erabili, ezin dute lehia eragotzi, mugatu edo faltsutu, ez eta kontratuaren objektua aldatu ere.

Egoera beretan enkante elektronikoa erabili ahalko da aldeei beste lizitazio baterako deialdia egiten zaienean esparru-akordio batean, 92. artikuluan xedatutakoari jarraituz, edo lizitazio baterako deialdia egiten denean 93. artikuluan aipatzen den eskuratzeko-sistema dinamikoaren esparruan.

3. Enkante elektronikoa honako irizpide hauetako batean oinarrituko da:

a) Soilik prezioetan, kontratua soilik prezioari erreparatuz adjudikatzen denean,
b) edo prezioetan eta eskaintzako elementu objektiboen balio berrietan, kuantifikagarriak direnean eta zenbateko edo ehunekoetan adieraz daitezkeenean, betiere kontratua adjudikazio-irizpide batean baino gehiagotan oinarrituta adjudikatzen denean.

4. Enkante elektronikoa baliatzea erabakitzen duten entitate kontratatzaileek hala adierazi beharko dute lizitazio-deialdi gisa balio duen iragarkian, edo, sailkapen-sistema izateari buruzko iragarki batek lizitazio-deialdi gisa balio duenean, lizitatzeko gonbidapenean; eta baldintza-agirian honako informazio hau eman beharko dute gutxienez:

a) Enkante elektronikoan aipatzen diren balioak zer elementu objektibori buruzkoak diren;
b) hala badagokio, aurkez daitezkeen balioen mugak, kontratuaren objektuari buruzko zehaztapenetan jasotakoaren arabera.
c) enkante elektronikoan zer informazio jarriko den lizitatzzaileen eskura, eta, hala dagokionean, zer unetan emango den;
d) enkantea nola egingo den.
e) lizitatzzaileek zer baldintzaren arabera eskain dezaketen gehiago, eta, zehazki, kasuan-kasuan, eskaintza bakoitzerako eskatuko diren gutxieneko hobekuntzak;
f) erabilitako dispositibo elektronikoa eta konexioaren modalitateak eta zehaztapen teknikoak.

5. Enkante elektronikoa egin baino lehen, entitate kontratatzaileak eskaintzen lehen ebaluazio osoa egingo du, adjudikazio-irizpideen arabera, eta, ondoren, eskaintza onargarriak aurkeztu dituzten lizitatzzaile guztiei, denei batera, bitarteko elektronikoak erabilia, gonbidapena egingo die enkante elektronikoan parte har dezaten.

Eskaintzak onargarritzat jotzeko, baztertu ez den eta hautapen-irizpideak betetzen dituen lizitatzzaile batek aurkeztu behar ditu, eta bat etorri behar dute preskripzio teknikoekin, irregularrak, onartezinak edo desegokiak izan gabe.

Irregularitat joko dira, bereziki, baldintza-agirietan ezarritakoa betetzen ez duten eskaintzak, epez kanpo jasotakoak edo entitate kontratatzaileak nabarmenki baxuegiak iritzi dienak.

Onartezintzat joko dira, bereziki, eskatutako kualifikazioa ez duten eskaintzak eta entitate kontratatzailearen aurrekontua gainditzen duen prezioa duten eskaintzak, baldin eta prezio hori lizitazio-prozedurari hasiera eman baino lehen zehaztu eta dokumentatu bada.

Eskaintza edo eskaera bat ez dela egokia pentsatuko da 85.1.a) artikulua 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean.

6. Gonbidapen horretan, erabilitako dispositibo elektronikoan konektatu ahal izateko beharrezko den informazio guztia jasoko da, eta enkante elektronikoa zer egun eta ordutan hasiko den zehaztuko da.

Halaber, gonbidapenean adieraziko da zein den lizitatzzailearen kasuko eskaintzaren ebaluazio osoaren emaitza, eta zer formula matematiko erabiliko den eskaintzen birsailkapen automatikoa egiteko prezio berrien arabera, beharantz berrikusi direnean, edo eskaintza hobetze aldera aurkezten diren balio berrien arabera.

Eskaintzarik onena soilik prezioan oinarrituta erabakitzen den kasuan izan ezik, formula horrek ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den erabakitzeko ezarritako irizpide guztien haztapena jasoko du, lizitazio-deialdi gisa erabilitako iragarkian edo hasiera batean aukeratutako hautagaiei igorritako gonbidapenean eta baldintza-agirian adierazi bezala, eta, horretarako, izan daitezkeen balio-tarteak balio zehatz batekin adierazi beharko dira aldezturik.

Aldaerak aurkezteko aukera baimentzen den kasuetan, horietako bakoitzarentzako formula bat emango da.

7. Gonbidapenak igortzen direnetik enkante elektronikoa hasi bitartean, gutxienez, bi egun baliodun igaro behar dira.

8. Enkante elektronikoa ondoz ondoko hainbat fasetan egin daiteke.

Enkantearen fase bakoitzean, eta etengabe eta berehalakoan, lizitatzzaileei une oro bakoitzaren sailkapenaren berri izateko informazioa emango zaie, gutxienez.

Horrez gain, gainerako lizitatzzaileek aurkeztutako prezio edo balioei buruzko datuak eman ahal izango dira, baldintza-agirian hala jasota badago; halaber, enkantearen fase horretan zenbat lizitatzzaile parte hartzen ari diren adierazi ahalko da, baina haien nortasunaren berri eman gabe.

9. Enkantea ixteko, irizpide hauetako bati edo batzuei jarraituko zaie:

a) Egundun eta ordu jakin bat ezartzea; enkantean parte hartzeko gonbidapenean zehaztu beharko dira.

b) Gutxienezko hobekuntzak egiteko ezarritako baldintzak betetzen dituen prezio berririk edo balio berririk ez aurkeztea.

Erreferentzia hori erabiltzen bada, enkantean parte hartzeko gonbidapenean zehaztuko da zer epe igaro behar den azken eskaintza jasotzen denetik enkantea amaitutzat eman arte.

c) Enkantean parte hartzeko gonbidapenean ezarritako fase kopurua amaitzea. Enkantea irizpide hau aplikatuz amaitu behar bada, enkantean parte hartzeko gonbidapenean fase bakoitzean bete beharreko egutegia adieraziko da.

10. Behin enkante elektronikoa amaituta, kontratua 72. artikuluan ezarritakoaren arabera adjudikatuko da, emaitzak kontuan hartuta.

11. Ez dira enkante elektronikoko bidez adjudikatuko objektutzat elikagaien kalitatearekin zerikusia duen zerbait daukaten kontratuak.

98. artikulua. *Katalogo elektronikoak.*

1. Komunikabide elektronikoak erabili beharra dagoenean, entitate kontratatzaileek eskatu ahalko dute eskaintzak katalogo elektroniko eran aurkez daitezela edo barruan katalogo elektroniko bat eduki dezatela.

Katalogo elektroniko eran aurkezten diren eskaintzei beste dokumentu osagarri batzuk erantsi ahalko zaizkie.

2. Hautagai edo lizitatuzaileek, lizitazio-prozeduran parte hartzeko, entitate kontratatuzaileak ezarritako zehaztapen teknikoen eta formatuaren arabera egingo dituzte katalogo elektronikoak.

Gainera, katalogo elektronikoek komunikazio-tresna elektronikoei aplikatzen zaizkien betekizunak bete beharko dituzte, bai eta entitate kontratatuzaileak 61. artikularekin bat etorritik ezartzen duen beste edozein ere.

3. Eskaintzak katalogo elektroniko eran aurkeztea onartzen edo eskatzen denean, entitate kontratatuzaileek hau egingo dute:

a) Horren berri emango dute lizitazio-deialditzat balio duen iragarkian, edo, bestela, sailkapen-sistema bat izateari buruzko iragarki baten bidez egiten bada lizitazio-deialdia, lizitatzeko edo negoziatzeko gonbidapenean;

b) behar den informazio guztia emango dute baldintza-agirietan, 61. artikularekin bat etorritik, formatuaz, erabilitako ekipamendu elektronikoaz eta konexioaren modalitate eta zehaztapen teknikoaz.

4. Eskaintzak katalogo elektroniko eran aurkeztu ondoren esparru-akordioa egiten denean zenbait operadore ekonomikorekin, entitate kontratatuzaileek xedatu ahalko dute ordutik aurrera katalogo eguneratuak har daitezela oinarritzat berariazko kontratuak adjudikatzeko lizitazio-deialdietan. Hala eginez gero, entitate kontratatuzaileek metodo hauetako bat erabili beharko dute:

a) Lizitatuzaileei gonbidapena egitea berriz aurkez ditzaten beren katalogo elektronikoak, berariazko kontratuaren baldintzetara egokituta;

b) edo, bestela, lizitatuzaileei jakinaraztea entitate kontratatuzailearen asmoa dela behinola aurkeztutako katalogo elektronikoetatik informazioa ateratzea dena delako kontratuaren baldintzetara egokitutako eskaintzak eratzeko; horretarako, betiere, metodo horren erabilera esparru-akordioaren baldintza-agirietan iragarri behar izan da.

5. Entitate kontratatuzaileek, berariazko kontratuaren lizitazio-deialdi gehiago egiten dituztenean 4. apartatuaren b) letrarekin bat etorritik, lizitatuzaileei jakinaraziko diete zer egun eta ordutan bildu asmo duten berariazko kontratuaren baldintzetara egokitutako eskaintzak eratzeko behar den informazioa, eta lizitatuzaileei aukera emango diete informazio-bilketa hori egiterik nahi ez dutela esateko.

Entitate kontratatuzaileek denbora-tarte egokia pasatzen utziko dute jakinarazpen hori egiten dutenetik informazio-bilketari ekin arte.

Kontratua adjudikatu baino lehen, entitate kontratatuzaileek bildutako informazioa lizitatuzaile interesdunari erakutsiko diote, aukera izan dezan horrela eraturako eskaintza inpugnatzeko edo inongo akats materialik ez duela berresteko.

6. Entitate kontratatuzaileek eskuratze-sistema dinamiko batean oinarritutako kontratuak adjudikatu ahalko dituzte berariazko kontratu baterako eskaintzak katalogo elektroniko eran aurkez daitezela eskatuta.

Halaber, entitate kontratatuzaileek eskuratze-sistema dinamiko batean oinarritutako kontratuak adjudikatu ahalko dituzte 4. apartatuaren b) letran eta 5. apartatuan xedatutakoaren arabera, baldin eta eskuratze-sistema dinamikoan parte hartzeko eskaerari katalogo elektronikoaren erantsen bazaio, bat datorrena entitate kontratatuzaileak ezarritako zehaztapen teknikoekin eta formatuarekin. Hautagaiek katalogo hori osatu egingo dute gerora, jakinarazten zaienean entitate kontratatuzailearen asmoa eskaintzak 4. apartatuaren b) letran ezarritako prozeduraren bidez eratzeko dela.

II. KAPITULUA

Proiektu-lehiaketak

99. artikulua. *Proiektu-lehiaketa antolatzea.*

1. Proiektuen lehiaketak antolatzeko arauak kapitulu honetako baldintzen arabera ezarriko dira, eta lehiaketan parte hartzeko interesa dutenen eskura jarriko dira.

2. Sariarik edo ordainketarik onartuz gero, lehiaketako oinarrietan zehaztu beharko da, kasuaren arabera, zer kopuru finko ordainduko den sari gisa edo parte-hartzaileek izandako gastuen konpentsazio gisa.

3. Proiektuen lehiaketetan, proposamenen balorazioa haien kalitateari eta haien balio tekniko funtzional, arkitektoniko, kultural eta ingurumenekoei buruzkoa izango da.

100. artikulua. *Parte-hartzaileen kopurua.*

Proiektu-lehiaketetan parte hartzera gonbidatutako hautagaien kopurua ezartzerakoan, kontuan hartuko da benetako lehia bermatu behar dela, eta parte hartzeko aukera ezin dela lurralde-eremu baterako bakarrik mugatu, edo pertsona fisikoentzat bakarrik, pertsona juridikoak baztertuta, ez eta alderantziz ere. Nolanahi ere, parte-hartzaileen kopurua txikia bada, irizpide objektibo, argi eta ez-baztertzaileak aplikatu beharko dira parte-hartzaileak hautatzeko.

101. artikulua. *Proiektu-lehiaketaren aplikazio-esparrua.*

1. Kapitulu honetako arauak proiektuen lehiaketa mota hauei aplikatuko zaizkie:

a) Zerbitzu-kontratu bat adjudikatzeko prozeduren barruan antolatutako proiektu-lehiaketak, zeinetan behin-behineko sariak edo ordainak eman ahalko diren.

b) Proiektuen lehiaketaren emaitza den zerbitzu-kontratuak, gainera, kasuan kasuko obren zuzendaritza fakultatiboa izan ahalko du objektutzat, baldin eta lehiaketa iragartzeko iragarkian hala aipatzen bada.

c) Sariak edo ordainak dituzten proiektu-lehiaketak.

2. Kapitulu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie zerbitzu-kontratuak adjudikatzeko prozedura baten barruan antolatutako proiektu-lehiaketei, haien balio zenbatetsia (BEZik gabe) errege lege-dekretu honen 1.1.b) artikuluan ezarritako atalasearen parekoa edo hortik gorakoa denean.

3. Kapitulu honetan xedatutakoa proiektu-lehiaketen kasu guztiei aplikatuko zaie, baldin eta errege lege-dekretu honen 1.1.b) artikuluan ezarritako atalasearen parekoa edo hortik gorakoa bada parte-hartzaileentzako sari eta ordainketen guztizko zenbatekoa (barnean dela publizitaterik gabeko prozedura negoziatuari buruzko 85.1.j) artikuluan xedatutakoari jarraituz gerora adjudikatu litekeen zerbitzu-kontratuaren balio zenbatetsia BEZik gabe, entitate kontratatzaileak lehiaketaren iragarkian adjudikazio hori baztertzen ez badu).

4. Proiektuen lehiaketaren emaitza den zerbitzu-kontratuak, gainera, kasuan kasuko obren zuzendaritza fakultatiboa izan ahalko du objektutzat, baldin eta lehiaketa iragartzeko iragarkian hala aipatzen bada.

5. Adjudikatu behar den zerbitzu-kontratuaren objektua konplexutasun berezia duten arkitektura-, ingeniari- eta hirigintza-proiektuen idazketari buruzkoa denean, eta horiek aurreko proiektuen idazketarekin batera kontratatzen direnean, entitate kontratatzaileek kapitulu honetako arauak aplikatu beharko dizkiete lan osagarriari eta obren zuzendaritzari.

102. artikulua. *Proiektu-lehiaketaren publikotasuna.*

1. Proiektuen lehiaketa antolatu nahi duten entitate kontratatzaileek *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* proiektu-lehiaketari buruzko iragarki bat argitaratuz

egino dute lizitazioarako deialdia, 80. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Gainera, entitate kontratatzaileek beren kontratatzaile-profilean argitaratu ahalko dute informazio hori.

Entitate kontratatzaileek, geroagoko zerbitzu-kontratu bat adjudikatzeko asmoa dutenean publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz, hala adierazi beharko dute proiektu-lehiaketaren iragarkian.

Lizitazio-deialdi horretan, IX. eranskinean aipatzen den informazioa jasoko da inprimaki normalizatuan.

2. Proiektu-lehiaketa antolatu ondoren, entitate kontratatzaileek emaitzen berri emango dute *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratuko duten iragarki batean, IX. eranskinean dagoen inprimaki normalizatua erabiliz.

Gainera, entitate kontratatzaileek beren kontratatzaile-profilean argitaratu ahalko dute informazio hori.

3. Entitate kontratatzaileek argitaratu gabe utzi ahalko dute proiektu-lehiaketaren emaitzari buruzko informazioa, hura zabaltzeak errege lege-dekretuaren aplikazioa zailtzen badu, interes publikoaren kontrakoa bada, operadore publiko edo pribatu jakin batzuen merkataritza-interes legitimoei kalte egiten badie edo operadore ekonomikoen arteko lehia zintzoaren kalterako izan badaiteke.

4. Proiektuen lehiaketaren emaitzari buruzko iragarkia *Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoari* igorriko zaio eta hark argitaratuko du, 80. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, lehiaketa amaitu eta hogeita hamar eguneko epean.

103. artikulua. *Komunikazioak proiektu-lehiaketetan.*

1. Proiektu-lehiaketan inguruko komunikazio guztiei 61. artikuluan dauden arau orokorrak aplikatuko zaizkie.

2. Informazioa halako moduan komunikatu, trukatu eta gordeko da non bermatuko baita proiektuen lehiaketako parte-hartzaileek emandako informazio guztien osotasuna eta konfidentzialtasuna babestea, eta epaimahaiak ez baitu ezagutuko plano eta proiektuen edukia harik eta haiek aurkezteko ezarritako epea bukatu arte.

104. artikulua. *Proiektu-lehiaketaren epaimahaia.*

1. Proiektuen lehiaketan parte hartzen dutenekin inolako loturarik ez duten pertsona fisikoek soilik osatuko dute epaimahaia.

2. Lehiaketan parte hartzeko kualifikazio profesional jakin bat eskatzen denean, epaimahaia osatzen duten kideen bi herenek gutxienez kualifikazio hori eduki beharko dute, edo kualifikazio baliokide bat.

3. Epaimahaiak independentzia osoz hartu behar ditu erabaki edo irizpenak, izenik gabe aurkeztuko dizkieten proiektuak oinarri dituela, eta proiektuen lehiaketa egiteko iragarkian adierazitako irizpideak bakarrik kontuan hartuta.

4. Epaimahaiak autonomia izango du erabakiak hartzeko edo irizpenak emateko.

5. Epaimahaiak txosten batean jasoko du, kide guztiek sinatuta, proiektuen sailkapena. Horretarako, proiektu bakoitzaren merezimenduak hartuko ditu kontuan, bai eta argibideren bat behar duten alderdiak eta oharrak ere.

6. Lehiaketan parte hartzen dutenen anonimatua errespetatu egin beharko da epaimahaiak bere irizpena eman edo erabakia hartu arte.

7. Beharrezkoa izanez gero, proiektuen edozein alderdi argitzeko asmoz epaimahaiak aktan jaso dituen galderei erantzuteko gonbidapena egin ahalko zaie parte-hartzaileei.

8. Epaimahaiko kideen eta parte-hartzaileen arteko elkarriketaren akta osoa egingo da.

VI. TITULUA

Kontratua egikaritzea eta azkentzea

I. KAPITULUA

Kontratua egikaritzea

105. artikulua. *Kontratua gauzatzeko baldintzak: sozialak, etikoak, ingurumenekoak eta bestelakoak.*

1. Entitate kontratatzaileek baldintza bereziren bat ezarri beharko dute kontratua egikaritzeko, baldintza horiek lotuta badaude kontratuaren objektuarekin 66.6 artikuluan xedatutakoaren ildotik, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta lizitazio-deialdi gisa erabilitako iragarkian edo baldintza-agirian adierazten badira.

Beti ere, nahitaezkoa izango da ingurumeneko baldintzak edo baldintza sozialak ezartzea baldintza-agirian, eta berrikuntzarekin lotutako kontsiderazio ekonomikoei buruzko baldintzak ere ezarri ahalko dira.

2. Kontratua egikaritzeko baldintza horiek, bereziki, kontsiderazio ekonomikoei buruzkoak, berrikuntzari edo ingurumenari lotuak edo kontsiderazio sozialei buruzkoak izan ahalko dira.

Zehazki, honako helburu hauek erdiesteko kontsiderazioak ezarri ahalko dira ingurumen-arloan: berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea –horrekin Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan ezarritako helburua betetzen lagunduko da–; kutsadura atmosferikoari aurrea hartzea eta hura murriztea, jarraibide harturik 23. artikuluan ezartzen duena azaroaren 15eko 34/2007 Legeak, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoak; kontratua egikarituta ukiturik gerta daitezkeen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea; uraren kudeaketa jasangarriagoa izatea; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktu-birziklatzea eta ontzi berrerabilgarrien erabilera indartzea, eta solteko produktu-banaketari eta ekoizpen ekologikoari bultzada ematea, besteak beste.

Kontsiderazio sozialak nahiz enpleguari buruzkoak, besteak beste, honako helburu hauetakoren batekin ezarri ahalko dira: Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitorturiko eskubideak gauzatea; legeria nazionalak exijitzen duen baino desgaitu kopuru handiagoa kontratatzea; lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dauzkaten pertsonen enplegua sustatzea laneratze-enpresen bitartez, batez ere desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonena; merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriak ezabatzea, lanean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurrien aplikazioa erraztuz; emakumeek lan-merkatuan parte-hartze handiagoa izan dezaten erraztea, bai eta lanaren eta familiaren uztartzea erraztea ere; langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa; lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea; lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea, bai eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialak eta lurralde-mailakoak betetzen direla bermatzea ere; laneko istripuak saihesteko neurriak hartzea; Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 145. artikuluan definitzen den enplegu-estrategia koordinatua aipatuz ezartzen diren bestelako helburu batzuk; edo oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak bete daitezkeen egitearen aldeko kontsiderazioak, haiekin aldekoak dituzten merkataritza-harremanak edukitzekoak, nola baitira ekoizleei gutxieneko prezio bat ordaintzea eta sari bat ematea edo merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazabilitate handiagoa egotea.

3. Baldintza-agirian edo kontratuan zigorrek ezarri ahalko dira, kontratua egikaritzeko baldintza bereziak urratzen direnerako, edo kontratuko funtsezko betebehartzat jo ahalko da baldintza bereziok betetzea.

4. Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak orobat exijituko zaizkie kontratua egikaritzeko parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

106. artikulua. *Fiskalitateari, ingurumenaren babesari, enpleguari eta lan-baldintzei buruzko xedapenen betebeharrak eta desgaitasuna duten pertsonen ehuneko jakina kontratatu beharra.*

1. Entitate kontratatzaileak baldintza-agirian adieraz dezake zer organismotara jo behar duten hautagaiek edo lizitatzaileek zergei edo ingurumena babesteari buruz dituzten betebeharren gaineko informazioa lortzeko, edo enplegua babesteari, genero-berdintasunari, lan-baldintzei eta lan-arriskuen prebentzioari, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari eta laneratzeari eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeke betebeharrari buruz Estatuan, autonomia-erkidegoan eta prestazioak emango diren herrian indarrean dauden xedapenen gaineko informazioa lortzeko. Betebehar horiek aplikatu beharko dira kontratua egikaritzean egindako obretan edo emandako zerbitzuetan.

2. 1. apartatuan aipatzen den informazioa ematen duen entitate kontratatzaileak lizitatzaileei edo lizitazioarako hautagaiei eskatuko die adieraz dezatela honako arlo hauetan indarrean dauden xedapenetatik ondorioztatzen diren betebeharrak kontuan hartu dituztela eskaintzak egitean: fiskalitatea, ingurumena babestea, enplegua babestea, genero-berdintasuna, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa, eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea; bai eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeke eta ingurumena babesteko betebeharrak ere.

3. Nolanahi ere, 1. apartatuan xedatutakoak ez du kentzen ezohiko balioak edo balio itxuragabeak dituzten eskaintzak egiaztatzeari dagokionez 69. artikuluan ezarritakoa aplikatzea.

4. Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, entitate kontratatzaileek 27.4 artikuluan ezarritako betebeharrak beteko dituzte.

107. artikulua. *Azpikontratatzea.*

1. Kontratastak hirugarrenekin itundu ahalko du prestazioaren parte bat ematea, baldintza-agirietan xedatutakoari lotuta, salbu eta artikuluko honen 2. apartatuaren d) letran ezarritakoaren arabera prestazioa edo haren zati bat berak zuzenean eman behar duenean.

Azpikontratatzeko debekuak ez du inolaz ere berekin ekarriko lehiaren murrizketa efektiboa gertatzea.

2. Azpikontratuak egiteko, betekizun hauek bete behar dira:

a) Baldintza-agirietan hala ezarrita egonez gero, lizitatzaileek kontratuaren zer atal azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu behar dute eskaintzan. Kontratuaren atal horren zenbatekoa ere adierazi behar dute, eta azpikontratastaren izena edo enpresaburu-profila ere eman behar dute, atal hori egiteko ardura emango zaien azpikontratastak hautatzeko irizpide kualitatiboen arabera zehaztua.

b) Dena dela, kontratastak idatziz adierazi beharko dio entitate kontratatzaileari, kontratua adjudikatu ondoren eta beranduenez hura egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen aipatuko du, bai eta azpikontratastaren izena, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak ere, eta behar beste justifikatuko du azken horrek gaitasuna duela hura egikaritzeko, dituen elementu teknikoak eta giza elementuak eta esperientzia aipatuta, eta egiaztatuta azpikontratista horrek ez duela kontratatzeke debekurik azaroaren 8ko 9/2017 Legeari jarraituta.

Kontratastak idatziz adierazi beharko dio entitate kontratatzaileari kontratu nagusia egikaritzen den bitartean informazio horretan gertatzen den aldaketa oro, bai eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia ere.

Azpikontatistaren gaitasuna azpikontratu egin eta berehala egiaztatu ahalko da, baldin eta beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presako neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

c) Baldin eta baldintza-agirietan ezarri bada lizitatuak apartatu honen a) letran adierazitako inguruabarrak jakinarazi behar dituztela, eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak –eskaintzan izenez adierazitako enpresaburuekin barik beste batzuekin egin direlako, edo eskaintzan adierazitako prestazioaren atalari buruzkoak barik beste atal batzuei buruzkoak direlako– ezingo dira egin harik eta hogeiei egun igarotzen diren arte jakinarazpena egiten denetik eta apartatu honen b) letran adierazitako egiaztagiria aurkezten direnetik, non eta azpikontratu horiek ez diren alde aurretik eta berariaz baimendu, eta, betiere, Administrazioak ez badu horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin epe horren barruan. Araubide hori aplikatuko da, era berean, azpikontatistak lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira eskaintzan. Hogeiei eguneko epea igaro gabe ere egin ahalko dira azpikontratuak, betiere kontratistaren erantzukizunaren pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presako neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

d) 56.3 artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoari jarraituz, obra-kontratuetan, zerbitzu-kontratuetan edo hornidura-kontratu baten barruko kokatze- edo instalazio-zerbitzu edo -lanen kasuan, entitate kontratatzaileek baldintza-agirietan ezarri ahalko dute lan kritiko batzuk ezin izango direla azpikontratu, eta, halakoetan, egiteko horiek zuzenean kontratista nagusiak egin beharko ditu. Lan kritikoak zein diren kontratazioa prestatzeko dokumentazioan justifikatu beharko da.

3. Azpikontratazioak egiteko aurreko apartatuan ezarritako baldintzak urratuz gero, edo azpikontatistaren gaitasuna egiaztatu ez bada, edo larrialdi-egoera dakarten inguruabarrak edo azpikontratazioa presaz egin beharra dakarten inguruabarrak egiaztatu ez badira, ondorio hauetako bat izango da, betiere baldintza-agirietan hala aurreikusitenean:

a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren 100eko 50erainoko zigorra ezarri ahalko zaio.

b) Kontratuaren suntsiaraztea.

4. Kontratista nagusiari dagokionez baino ez dituzte betebeharrak izango azpikontatistek, eta hark bereganatuko du, beraz, entitate kontratatzailearekiko erantzukizun osoa kontratuaren baldintza-agiriei eta kontratuaren baldintzei estu-estu lotuta egikaritzeko; horren barnean egongo da 27.4 artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak betetzea.

Artikulu honen 2. apartatuaren b) eta c) letretan adierazitako komunikazioak direla bide entitate kontratatzaileak egin diren azpikontratuaren berri izateak ez du eraginik izango kontratista nagusiak daukan erantzukizun eskusiboan.

5. Kontratistak inola ere ezingo du kontratu zati bat egikaritzeko itunik egin ordenamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera kontratuak egitea debekatuta daukaten pertsonekin.

6. Kontratistak langileen ordezkariari azpikontratazioaren berri eman beharko die, lan-legeriarekin bat etorritik.

7. Azpikontratuak, nolahi ere, izaera pribatua izango dute.

8. Zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa eragotzi gabe, entitate kontratatzailearen sektore publikoko entitate bat denean, azpikontatistek ez dute entitate kontratatzailearen aurkako zuzeneko akziorik izango kontratu nagusia eta azpikontratuak egikaritzea dela-eta kontratistak haiekin hartutako betebeharrangatik.

108. artikulua. *Azpikontatistek eta hornitzaileek ordaintzea eta ordaintzeko egiaztatzea.*

1. Kontratistak azpikontatistek edo hornitzaileek prezio itundua ordaintzeko betebeharra du, ondoren zehaztutako epe eta baldintzetan.

2. Finkatutako epeak ezingo dira izan kaltegarriagoak abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoak baino (lege horren bidez merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dira). 5.2.b) artikulua arabera botere adjudikatzaile diren entitate kontratatzaileek adjudikatutako kontratuetan, kontratista nagusiak ondasun edo zerbitzuak onartzen edo egiaztatzen dituen egunetik aurrera kontatuko dira epeak, betiere azpikontratatista edo hornitzaileak faktura legez ezarritako epean aurkeztuta. Halakoetan, ondasunak eskuratzen direnetik edo zerbitzua ematen denetik hogeita hamar eguneko epean onartu beharko dira gehienez. Epe horretan bertan aurkeztu behar dira desadostasun-arrazoiak ere, izanez gero. Baldin eta epe horretan aurkeztu ez badira, ulertuko da ondasunak onartu egin direla edo zerbitzu-prestazioa egiaztatu eta ontzat jo dela.

3. Artikulu honetako 2. apartatuan ezarritakoaren arabera finkatutako epean ordaindu beharko ditu kontratatista fakturak. Ordainketan berandutuz gero, azpikontratatista edo hornitzaileak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea edukiko du, abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritakoaren arabera.

4. Balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamenduaren 69 bis artikulua fakturazio-erregistroak modu elektronikoa bidaltzeari buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe –abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori–, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeko eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikulua 1. apartatuan ezarritako kasuetan dauden azpikontratatista faktura elektronikoa erabili beharko dute kontratista nagusiarekiko harremanetan, haren zenbatekoa 5.000 eurotik gorakoa denean. Faktura hori azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan aipatzen den erregistroaren bitartez aurkeztu beharko diote kontratista nagusiari, xedapen horretan aurreikusitako egunetik aurrera.

Aurreko bestelakoak diren kasuetan, azpikontratatista hautazkoa izango dute faktura elektronikoa erabiltzea eta hura azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan aipatutako erregistroan aurkeztea.

5.000 euroko zenbatekoa Ogasuneko ministroaren agindu baten bidez aldatu ahalko da.

5. Azpikontratatista ezingo diote balio duen eran uko egin, eskuratu aurretik edo geroago, artikulu honetan aitortuta dauzkaten eskubideei; horri dagokionez, ez da aplikatzekoa izango Kode Zibilaren 1.110 artikulua.

6. Entitate kontratatzaileek egiaztatu ahalko dute zorrotz egiten direla kontratista nagusiek kontratua egikaritzen parte hartzen duten azpikontratatista edo hornitzaileei egin behar dizkieten ordainketak. Horretarako, kontratista adjudikaziodunek hurrengo paragrafoan aipatzen diren informazioa eta frogagiriak igorriko dizkiote erakunde publiko kontratatzaileari, hark hala egiteko eskatzen duenean. Betebehar horiek, zeinak nolana ere lizitazio-deialdi gisa balio duen iragarkian eta baldintza-agirietan edo kontratuetan jasoko baitira, kontratua egikartzeko baldintza berezitat joko dira, eta haiek ez betetzeak zigorrak ekarriko ditu 105.3 artikuluan adierazitako eran; bermea jarri bada, bera erabiliko da zigor horiek betetzeko.

Aurreko paragrafoan adierazitako moduan informazioa eta frogagiriak eskatzen direnean, hauek eskatu ahalko dira, zehazki:

a) Kontratua egikaritzen parte hartzen duten azpikontratatista guztien zerrenda xehaketa.

b) Kontratista nagusiak azpikontratatista edo hornitzaileekin adostu dituen eta ordaintzeko epearekin lotura zuzena duten azpikontratatista- edo hornidura-baldintzak.

c) Hau frogatzen duten egiaztagirak: azpikontratatista edo hornitzaileei ordainketak egin zaizkiela, behin prestazioa amaituta, artikulu honek eta, aplikatzekoa den neurrian, abenduaren 29ko 3/2004 Legeak –merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituenak– ezarritako legeko ordainketa-epeen barruan.

7. Ez-betetzea dela-eta 6. apartatuan aurreikusitako egiaztatze-jarduketak eta zigor-ekarpenak nahitaezkoak izango dira sektore publikoko entitate kontratatzaileentzat obra-

kontratueta eta zerbitzu-kontratueta, baldin eta haien balio zenbatetsia 5 milioi eurotik gorakoa bada edo azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuko prezioaren ehuneko 30ekoa edo handiagoa bada, kontratista nagusiarekin obra-atal edo -unitate jakin batzuk egiteko konpromisoa kontratu bidez beren gain hartu duten azpikontratatentzako ordainketei dagokienez.

Ogasuneko ministroaren agindu bidez, 126.3 artikuluan aipatzen den Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek proposatuta eta Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuak aurrez txostena emanda, zabaldu ahalko da 6. apartatuan aurreikusitako egiaztatze-jarduketara horiek eta zigor-ezarpen horiek nahitaezkoak diren kontratuen eremua.

II. KAPITULUA

Kontratuak aldatzea

109. artikulua. *Aldaketa-kasuak.*

1. Entitate kontratatzaileek egindako kontratuak, indarrean daudenean, honako kasu hauetako bat gertatzen denean aldatu ahalko dira soilik:

a) Baldintza-agirietan hala aurreikusi denean, 110. artikuluan ezarritako modu eta baldintzetan.

b) Aparteko kasuetan, baldintza-agirian aurreikusita ez dagoen aldaketa bat egin behar denean, betiere 111. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen direnean.

Beste edozein kasutan, baldin eta beharrezkoa bada itundutakoaz beste modu batean egikaritzea indarrean den kontratua, kontratua suntsiaraziko da, eta beste bat egingo da, kasuan kasuko baldintzekin, eta, beharrezkoa bada, beste lizitazio publiko baterako deialdia egin eta gauzatuko da aurrez, errege lege-dekretu honetan ezarritakoari jarraituz.

2. Kapitulu honetan kontratuei buruz egiten diren aipamen guztiak esparru-akordioei buruz ere egiten direla ulertuko da.

110. artikulua. *Baldintza-agirian ezartzen diren aldaketak.*

1. Entitate kontratatzaileen kontratuak, indarrean daudenean, soilik hasierako prezioaren ehuneko hogeira arte aldatu ahalko dira, baldin eta baldintza-agirietan berariaz aukera horri buruz ohartarazi bada modu honetan eta eduki honekin:

a) Aldaketa-klausulak modu argi, zehatz eta zalantzagabean formulatuta egon beharko du.

b) Halaber, haren edukiari dagokionez, aldaketa-klausulak honako hauek zehaztu beharko ditu behar besteko xehetasunarekin: norainokoa, mugak eta izaera; hartaz baliatu ahal izateko baldintzak, erreferentzia eginez modu objektiboan egiazta daitezkeen inguruabarrei, eta aldaketarako jarraitu beharreko prozedura. Aldaketa-klausulak ezarriko du, halaber, aldaketak ezingo duela berekin ekarri kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk.

Aldaketa-klausularen formulazioak eta edukiak halakoak izan beharko dute, non, batetik, hautagaiek eta lizitatzzaileek haien norainoko zehatza ulertu ahalko duten eta modu berean interpretatu ahalko duten eta, bestetik, entitate kontratatzaileari aukera emango dioten bai egiazki egiaztatzeko lehenengoek eskatzen diren gaitasun-baldintzak betetzen dituztela eta bai zuzen baloratzeko horiek aurkeztutako eskaintzak.

2. Entitate kontratatzaileek ezingo dute inoiz ere aurreikusi baldintza-agirian hasierako kontratuaren izaera orokorra alda dezakeen aldaketarik. Nolanahi ere, izaera orokorraren aldaketatzat hartuko da eskuratuko diren obrak, hornidurak edo zerbitzuak beste batzuekin ordeztzea edo kontratu mota funtsean aldatzea. Ez da hartuko kontratuaren

izaera orokorraren aldaketatzat obra-unitateren bat, horniduraren bat edo zerbitzu jakinen bat ordeztea.

111. artikulua. *Baldintza-agirian ezartzen ez diren aldaketak.*

1. Baldintza-agirian aurreikusi gabeko aldaketak, edo aurreikusitakoak izanik ere aurreko artikuluan ezarritakoari egokitzen ez zaizkionak, honako baldintza hauek betetzen dituztenean egin ahalko dira soilik:

a) Justifikazioa izatea artikuluko honen 2. apartatuan zerrendatzen diren kasuetako batean.

b) Mugatuta egotea bera beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko zorrozki ezinbestekoak diren aldaketak sartzera.

2. Aurreikusi gabeko aldaketa bat justifika lezaketen kasuak, baldin eta artikuluko honen 1. apartatuan jasotako baldintza guztiak betetzen badira, honako hauek dira:

a) Beharrezko gertatu denean hasiera batean kontratatutakoei obra, hornidura edo zerbitzu gehigarriak gehitzea, betiere honako bi baldintza hauek beteta:

1.a Kontratatuz aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik; esate baterako, entitate kontratatzailea behartuta egotea hasieran kontratatutakoek dituzten ezaugarri teknikoek bestelakoak dituzten obra, zerbitzu edo hornidura batzuk eskuratzera, eta diferentzia horiek erabileran edo mantentzean neurritz kanpoko bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak sortzea; eta, halaber, kontratatuz aldatzeak entitate kontratatzaileari eragozpen handiak edo kostuen igoera nabarmena ekartzea.

Inolaz ere ez da eragozpen handizat hartuko kontratatuz aldatzeko beste lizitazio bat egin behar izatea.

2.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikuluko honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

b) Lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik etorri denean indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra; betiere, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1.a Kudeatzaile arduratsu batek aurreikusi ezingo zituen inguruabar batzuetatik etortzea aldaketaren beharra.

2.a Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez aldaraztea.

3.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikuluko honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

c) Entitate kontratatzaileak adjudikazioa emateko hasieran hautatu zuen kontratista beste batek ordeztu duenean inguruabar hauetakoren baten ondorioz:

1.a Eskubide hori esleitu zaiolako, oinarritzat harturik xedapen orokor bat, aukera-eskubide bat edo zalantzarik gabeko berrikuspen-klausula bat, baldintza-agirietan ezarria, 110. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

2.a Hasierako adjudikazioduna beste kontratista batek ordeztu duenean hasierako kontratista horren ondorengotza osoa edo partziala dela medio, enpresa berregituratu egin delako, batik bat xurgapen, bat-egite, eskuraketa edo kaudimengabeziaren bitartez, eta kontratistaren ondorengoa den operadore ekonomikoak ere betetzen dituztenean hasieran ezarritako hautapen-irizpide kualitatiboak; betiere, horrek ez badakar kontratuaren beste aldaketa funtsezkorik eta ez badu xedetzat errege lege-dekretu honen aplikazioa saihestea.

d) Aldaketak funtsezkoak ez direnean. Nolanahi ere, berariaz justifikatu beharko da haien beharra, adieraziz zer arrazoi dauden prestazio horiek hasierako kontratuan ez sartzeko.

Kontratuaren aldaketak funtsezkotzat jotzeko, haien emaitzak hasiera batean egindako kontratuaz bestelakoa den kontratu bat izan behar du benetan. Nolanahi ere, aldaketak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk betetzen dituztenean joko dira funtsezkotzat:

1.a Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko, hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onartzeko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da kontratatari beste sailkapen bat eskatzea –eta ez jatorrizko lizitazio-prozeduran eskatu zitzaiona– hala eskatzen duelako jatorrizko proiektutik edo baldintza-agiritik ateratzen diren obrei edo zerbitzuei egin nahi den aldaketa gehitzeak.

2.a Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratistaren mesedetan.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da egin nahi den aldaketaren ondorioz obra-unitate berriak sartzea eta horien zenbatekoa kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 50etik gorakoa izatea.

3.a Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua. Nolanahi ere, honako hauek betetzen direnean iritziko zaio aurreko paragrafoan aurreikusitako kasua gertatzen dela:

i. Aldaketaren balioak, isolaturik nahiz osotara, hasierako prezioaren ehuneko 15etik gora aldaraztea kontratuaren zenbatekoa, BEZik gabe, obra-kontratuaren kasuan; edo ehuneko 10etik gora, BEZik gabe, gainerako kontratuaren kasuan; edo, bestela, 1. artikuluan aipatutako atalasetatik kontratu mota dela-eta aplikatzekoa dena gainditzea.

ii. Aldatu behar diren obrak, zerbitzuak edo hornidurak gaur egungo zein etorkizuneko beste kontratu baten eremuan egotea, eta, betiere, kontratazio-espeditentearen izapidetzea hasita egotea.

112. artikulua. *Aldaketak egiteko prozedura eta haien publikotasuna.*

1. Kontratu-aldaketak baldintza-agiritan zehaztutako moduan egingo dira.

Nolanahi ere, 111. artikuluan aipatzen diren eta baldintza-agiritan aurreikusita ez dauden aldaketek botere adjudikatzailatzat jo behar diren entitate kontratatzaileen kontratuei eragiten dietenean eta haien zenbatekoa isolaturik nahiz osotara kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino handiagoa denean BEZik gabe, beharrezkoa izango da aurrez baimena ematea entitate kontratatzailea atxikita edo menpean daukan ministerio-sailak, aldeztu aurretik Estatu Kontseiluak aginduzko irizpena emanda.

2. Errege lege-dekretu honi lotutako kontratu bat aldatu duten entitate kontratatzaileek, 111. artikuluan 2. apartatuaren a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, aldaketari buruzko iragarkia argitaratu beharko dute *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean*, eta X. eranskinean dagokion atalean ezarritako informazioa jaso beharko dute iragarki horretan.

Halaber, indarrean dagoen bitartean kontratu bat aldatu duten entitate kontratatzaileek argitaratu egin beharko dute, nolanahi ere, aldaketari buruzko iragarki bat entitate kontratatzailearen kontratatzaile-profilean, aldaketa onartzen denetik bost eguneko epean; eta, horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onartu aurretik bildutako txosten guztiak ere aurkeztu beharko dira, horren barnean direla adjudikaziodunak aurkeztutako txostenak edo entitate kontratatzaileak berak emandakoak.

III. KAPITULUA

Kontratuak suntsiaraztea

113. artikulua. *Kontratuak suntsiaraztea.*

Entitate kontratatzaileek suntsiarazi ahalko dituzte indarrean diren obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak, baldin eta 110. artikulua arabera aurreikusita ez dagoen aldaketaren bat egin beharra badago kontratuan eta horretarako 111. artikuluan ezarritako inguruabarrak betetzen ez badira.

VII. TITULUA

Kontratuen baliogabetasuna, erreklamazioak eta gatazkak auzibidetik kanpo ebaztea

I. KAPITULUA

Baliogabetasun-araubidea

114. artikulua. *Baliogabetasun-kasuak.*

Entitate kontratatzaileek egiten dituzten kontratuak, errege lege-dekretu honetan arautuak, baliogabeak izango dira kasu hauetan:

- a) Haietan zuzenbide zibileko xedapenen arabera baliogabetzeko arrazoietakoa bat dagoenean.
- b) Kontratuak prestatzeko edo adjudikazio-prozedura betetzeko egintzaren bat baliogabea denean, 115. eta 116. artikuluetan aipatzen diren arrazoietakoa bat gertatzen delako haietan.
- c) Baliogabetasuna haien klausulak legez kanpokoak izateari zor zaionean.

115. artikulua. *Administrazio-zuzenbideko deuseztasun-arrazoiak.*

1. Errege lege-dekretu honetan araututa dauden kontratuak prestatzeko egintzak eta adjudikazio-prozedurako egintzak deusezak izango dira haietan urriaren 1eko 39/2015 Legeak (administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearenak) 47. artikuluan aipatzen dituen arrazoietakoa bat gertatzen denean.

2. Halaber, deusezak izango dira entitate kontratatzaileek egindako kontratuak, horietan honako kausa hauetakoren bat gertatzen denean:

- a) Jarduteko gaitasunik ez izatea edo kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalik ez izatea; edo gaikuntza enpresarial edo profesionalik ez izatea halakoa eskatzekoa denean kontratuaren objektua den jarduera edo prestazioa aurrera eramateko; edo adjudikaziodunak azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aipatzen diren kontratatzeko debekuetako bat izatea.
- b) Lizitaziorako deialdi gisa balio duen iragarkia ez argitaratzea kontratatzaile-profilean, *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* edo erabili beharreko publizitate-bidean, errege lege-dekretu honetan ezarritakoarekin bat.
- c) Entitate kontratatzaileak ez betetzea 73.2 artikuluan kontratua formalizatzeko aurreikusten den hamabost egun balioduneko epea; betiere, bi baldintza hauek betetzen badira:

1.a Kausa horrengatik lizitatzailerak adjudikazio-prozeduraren egintzaren baten aurka kontratazioaren arloko erreklamazioa aurkezteko aukeraz gabetuta egotea.

2.a Gainera, kontratuak adjudikatzeko prozedura arautzen duen arautzen bat urratu izana, eta horrek adjudikazioa lortzea eragotzi izana.

d) Kontratazio-arloko erreklamazioa aurkeztu den kasuetan, kontratua honako hauek errespetatu gabe formalizatu izana: errekurritutako egintzaren etendura automatikoa, hura bidezkoa den kasuetan, edo aurkeztutako erreklamazioaz arduratzeko asmoz organo eskudunak egintza eteteko hartutako kautelazko neurria.

e) Esparru-akordio baten ondorioz zenbait enpresabururekin egindako kontratuak adjudikatze edo zenbait enpresaburu onartuta dauden eskuratzeko sistema dinamiko batean oinarritutako kontratu berariazkoak adjudikatze ezarritako arauak ez betetzea, ez-betetze horrek kasuan kasuko kontratua beste lizitaztaile bati adjudikatzea ekarri duenean berekin.

f) Europar Batasunak kontratazio publikoaren arloan emandako zuzenbide-arauen ez-betetze larria, kontratua adjudikatu behar ez zizaion kontratista bati adjudikatzea ekarri duena eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak prozedura batean deklaratu Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 258. artikuluari jarraituz.

116. artikulua. *Administrazio-zuzenbideko deuseztagarritasun-arrazoia.*

Ordenamendu juridikoaren kontrako eta, bereziki, errege lege-dekretu honetan jasotako arauen kontrako gainerako arau-hausteak administrazio-zuzenbideko deuseztagarritasun-kausak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, eragina baldin badute kontratuak prestatzeko egintzetan edo adjudikazio-prozedurako egintzetan.

Nolanahi ere, honako hauek deuseztagarritasun-kausak izango dira:

a) 110. eta 111. artikuluetan kontratuak aldatzeko eskatutako inguruabar eta baldintzak ez betetzea.

b) Botere adjudikatzaile diren entitate kontratatzaileek prestazioak bitarteko propioekin zuzenean ematea erabakita ematen dituzten mandatuak, azaroaren 8ko 9/2017 Legean bitarteko propioaren izaerari buruz ezarritako baldintzaren bat betetzen ez denean.

c) Errege lege-dekretu honi lotu gabe enpresa elkartuekin eta baterako enpresekin kontratuak egitea, 24. artikuluan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez denean.

117. artikulua. *Deuseztasun-adierazpenaren ondorioak.*

1. Kontratuak prestatzeko egintzen edo adjudikazioaren gainean egindako deuseztasun-adierazpena irmoa denean, kontratua bera ere, beti, deuseztatu egingo da, eta likidazio-fasean sartuko da; alderdiek, ondorioz, kontratuaren indarrez jaso dituzten gauzak itzuli behar dizkiote elkarri, baina, hori ezinezkoa bada, gauzen balioa itzuliko diote elkarri. Errudunak kalte-galeren ordaina eman beharko dio beste alderdiari.

2. Kontratuak prestatzekoak ez diren egintzen deuseztasunegintza horiei eta horien ondorioei baino ez diete eragingo.

3. Baldin eta Administrazioak kontraturen baten deuseztasun-adierazpena ematen duenean zerbitzu publikoari eragozpen larriren bat sortzen bazaio, kontratu haren ondorioak jarraitzea xedatu dezake erabakian bertan, eta baldintza berberetan gainera, harik eta galerak ekiditeko urgentziatzko neurriak hartu arte.

118. artikulua. *Zuzenbide zibileko baliogabetasun-arrazoia.*

Kontratuak zuzenbide zibilean onartutako kausengatik baliogabetzeko, betiere kausa horiek 114. artikuluan aipatutako kontratuei aplikatzekoak badira, ordenamendu zibilean akzioak baliatzeko ezarritako baldintzak eta epeak bete behar dira.

II. KAPITULUA

Erreklamazioak kontratuak adjudikatzeko prozeduretan

119. artikulua. *Erreklamazioen xedeak.*

1. Kontratazio-arloko erreklamazioak jarri ahalko dira artikuluko honen 2. apartatuan adierazitako egintza eta erabakien aurka, baldin eta errege lege-dekretu honen menpeko kontratuei badagozkie, edo halako kontraturen bat egitea xede duten esparru-akordio eta eskuratze-sistema dinamikoei, edo horietan oinarritutako kontratuei, entitate kontratatzaileek horrelakoren bat itundu nahi dutenean.

2. Kontratazio-arloko erreklamazioa jarri ahalko da honako egintza eta dokumentu hauen aurka:

a) Lizitaziorako deialdi gisa balio duten iragarkiak, baldintza-agiriak, eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-dokumentuak.

b) Adjudikazio-prozeduran bete diren izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek, zuzenean edo zeharka, adjudikazioari buruz erabakitzen badute, prozeduraren jarraipena eragozten badute edo defentsa-gabezia edo kalte konponezina ekartzen badute bidezko eskubide edo interesetan. Nolanahi ere, entitate kontratatzaileak hautagaiak edo lizitatzailerak onartzea ala ez onartzea erabakitzen duen egintzetan beti iritziko zaio aurreko inguruabarrak gertatzen direla, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea erabakitzen duen egintzetan, horien barnean direla nabarmenki baxuegiak izateagatik 69. artikulua aplikatuta baztertzen diren eskaintzak.

c) Entitate kontratatzaileek onartutako adjudikazio-erabakiak.

d) Errege lege-dekretu honen 110. eta 111. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukaten aldaketak, aldaketak direla-eta beste adjudikazio bat egin beharra zegoelakoan.

e) Baliabide propio pertsonifikatuentzako mandatuen eta enpresa elkartuekin eta baterako enpresekin egindako kontratuen formalizazioa, horiek legezko baldintzak betetzen ez dituztenean.

3. Bigarren apartatuan aipatutako egintzez bestelakoei eragiten dieten izapidetze-akatsak espedientearen instrukzioaren ardura duen organoari edo entitate kontratatzaileari jakinarazi ahal dizkiote interesdunek, zuzenbidearen arabera zuzendu ditzaten. Nolanahi ere, interesdunek, adjudikazio-egintzari errekurtsua jartzean, aukera izango dute eragiten dieten irregulartasunak alegatzeko.

4. Artikulu honen 2. apartatuan aipatzen diren eta kontratazio-arloko erreklamazioaren bidez aurkaratu daitezkeen jarduketan kontra, ezingo da administrazio-errekurtsu arruntik aurkeztu.

5. Kontratazio-arloko erreklamazioa aurkeztea aukerakoa eta doakoa izango da erreklamazioa jartzen dutenentzat.

120. artikulua. *Erreklamazioa ebazteko eskumena daukan organoa.*

1. Azaroaren 8ko 9/2017 Legeak arautzen dituen kontratu-errekurtsuotarako organoek, bakoitzak bere eremuan eta errege lege-dekretu honen 5.1 artikuluko aipatzen dituen entitateei dagokienez –baita horiek atxikita edo lotuta dauzkaten edo eskubide berezia edo eskusiboa eman dieten entitateei dagokienez ere–, honako eskumen hauek baliatu ahal izango dituzte, adjudikazio-prozedura errege lege-dekretu honetan araututa daukaten kontratuei buruz:

a) Errege lege-dekretu honetako arauak hausteagatik jartzen diren erreklamazioak ebaztea.

b) Behin-behineko kautela-neurriak erabakitzea, eman beharreko ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko.

c) Bidezko diren kalte-ordainak finkatzea, errege lege-dekretu honetako xedapenak urratzeagatik inork kalte-galeren erreklamazioa aurkeztuz gero.

2. Entitate kontratatzailea 5.1 artikuluan aipatzen diren elkarteetako bada, eta elkarteko kideen atxikipen edo lotura ezberdinengatik erreferentziako administrazio publiko bat baino gehiago badaude, edo entitate kontratatzaile bat kasu horretan badago 8. artikulutik 14.era aipatzen diren sektoreetako batean baino gehiagotan jarduteagatik, erreklamazioa aurkeztu ahalko zaio azaroaren 8ko 9/2017 Legean aipatutako kontratu-errekurtsoetarako organo eskudunetako edozeini, eta ebatzi egin beharko du.

3. Lehenengo apartatuaren ondorioetarako, entitate kontratatzaileak bere atxikipen edo lotura formala eta ustiatzen duen titulu administratiboa direla medio lotura badu administrazio publiko batekin baino gehiagorekin, erreklamazioa aurkeztu beharko zaio titulu administratiboa eman duen administrazioaren esparruan erreklamazioak ebazteko eskumena daukan organo independenteari.

121. artikulua. *Erreklamazioen araubide juridikoa.*

1. Aurreko artikuluan aipatutako organoei erreklamazioa aurkezten zaienean 119. artikuluan aipatutako egintzen aurka, aplikatzekoak izango dira azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratazio-arloko errekurtso berezia arautzen duten xedapenak, barnean delarik 49. artikulua, kautela-neurriak ezartzeari buruzkoa; nolana ere, berezitasun hauek izango dira:

a) Kontratazio-organoei buruzko aipamenak entitate kontratatzaileei buruzko aipamentzat hartu beharko dira.

b) Erreklamazioa baldintza-agirien eta gainerako kontratu-dokumentuen edukiaren aurka jartzen denean, epea zenbatzen hasiko da lizitazio-deialdi gisa balio duen iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, sailkapen-sistema izateari buruzko iragarkiaren bidez egin bada deialdia, interesa berresteko gonbidapena bidaltzen den egunetik aurrera; betiere, iragarki horietan jakinarazi bada nola eskuratu ditzaketen interesdunek baldintza-agiriak eta gainerako kontratu-dokumentuak. Halakorik aipatzen ez denean, interesdunari agiri horiek eskuratu zaizkion egunaren biharamunean edo interesduna agiri horien edukira kontratatzailearen profilaren bitartez sartu ahal izan den egunaren biharamunean hasiko da epea kontatzen. Erreklamazioa jartzeko epeak proposamenak aurkezteko ezarritako epeak adina iraungo du.

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren kasuan, aukeratutako hautagaiei gonbidapena bidali eta biharamunean hasiko da epearen kontaketa.

43.2 artikuluan ezarritakoarekin bat baldintza-agiriak bitarteko elektronikoen bidez eskura jartzetik ez dagoen kasuetan, baldintza-agiri horiek errekurtsogileari eskuratu eta biharamunean hasiko da epea kontatzen.

Oro har, kontratazio bat gidatu behar duten baldintza-agiri eta kontratu-agirien aurkako erreklamazioa ez da onartuko, baldin eta errekurtsogileak, erreklamazioa jarri aurretik, dena delako lizitazioan parte hartzeko eskaintza edo eskaera aurkeztu badu; hori, halere, ez da eragozpena izango erabateko deuseztasuneko kasuetarako ezarrita dagoenerako.

c) Erreklamazioa errege lege-dekretu honen 110. eta 111. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukan aldaketaren baten aurka jartzen denean, aldaketa dela-eta beste adjudikazio bat egin behar zelakoan, kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunean hasiko da epea kontatzen.

d) Erreklamazioa 115. artikuluan 2. apartatuaren b), c), d) eta e) letretan aurreikusitako deuseztasun-arrazoiak batean oinarritzen denean, honako hau izango da erreklamazioa jartzeko epea:

1.a Hogeita hamar egun kontratuaren formalizazioa errege lege-dekretu honetan ezarritako moduan argitaratzen denetik kontatzen hasita, argitaratze horren barnean direla lizitazio-deialdia legezko moduan argitaratu ez izana justifikatzeko arrazoiak, edo ukitutako hautagai edo lizitatzaileei beren hautagaitza edo proposamena baztertzeko arrazoiak eta

adjudikazioa egiteko adjudikaziodunaren proposamenean erabakigarriak izan diren ezaugarriak jakinarazten zaizkienetik kontatzen hasita.

2.a Nolanahi ere, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik sei hilabete iragan baino lehen.

e) Ez da baliozkoa izango erreklamazioa erregistroan edo entitate kontratatzailearen beste edozein egoitzatan aurkeztea.

2. Artikulu hauetan arautzen den erreklamazioa jartzearen ondorioetarako, 119. artikuluan aipatzen diren egintzak administrazio-egintzekin parekatuko dira.

122. artikulua. *Kontratazioaren arloko erreklamazioen ebazpenen ondorioak.*

1. Prozedura honetan emandako ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bakarrik jarri ahalko da, horrela xedatzen baitu uztailaren 13ko 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak) 10. artikulua 1. apartatuaren k) eta l) letretan eta 11. artikulua 1. apartatuaren f) letretan.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, ebazpena zuzenean exekutiboa izango da.

3. Ez da aukerarik izango ofizioz berrikusteko ez erreklamazioaren ebazpena, ez eta erreklamazioa ebazteko organo eskudunek emandako egintzetako bakarra ere. Era berean, horietako bakoitza atxikita dagoen administrazioaren barne-kontrolerako organoen fiskalizazioaren mende ere ez dira egongo.

Erreklamazioa ebazteko organo eskudunek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetan –erreklamazioaren ebazpena barne–egindako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

III. KAPITULUA

Gatazkak auzibidetik kanpo ebaztea

123. artikulua. *Arbitrajea.*

1. Arbitrajearen abenduaren 23ko 60/2003 Legeak xedatzen duenari jarraituz, entitate kontratatzaileek zuzenbideko arbitrajearen pean jarri ahalko dute egiten dituzten kontratuen ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz sor daitezkeen desadostasunen ebazpena, kontratuen zenbatekoa edozein izanda ere.

2. Baldintza-agirietan zehaztuko da desadostasuna ebatzi behar duen kide anitzeko organoaren osaera, eta kideetako bat, gutxienez, kontratistak proposatzea bermatuko da.

3. Baldintza-agirian arbitraje-organoren osaerarik zehazten ez bada eta entitate kontratatzailea eta kontratista ez badira horretan ados jartzen, 119. artikuluan aipatzen den kontratazio-arloko erreklamazioa ebazteko eskumena duen organoari egokituko zaio arbitrajea ebazteko eskumena.

VIII. TITULUA

Administrazio-antolamendua eta gobernantzako betebeharrak

124. artikulua. *Kontratuei buruzko informazioa.*

1. Entitate kontratatzaileek informazio egokia gorde beharko dute errege lege-dekretu honek araututako kontratu edo esparru-akordio bakoitzari buruz, eta eskuratzeko sistema dinamiko bat aplikatzen duten bakoitzean. Informazio horrek nahikoa izan beharko du entitate kontratatzaileek gerora idatzizko txosten batean justifikatu ahal izan ditzaten gai hauetaz hartutako erabakiak:

a) Operadore ekonomikoak sailkatzea eta hautatzea eta kontratuak adjudikatzea,

- b) publiztaterik gabeko prozedura negoziatuak erabiltzea errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren babesean,
- c) errege lege-dekretu hau ez aplikatzea, bertan aurreikusitako salbuespenak direla medio,
- d) kasua bada, zer arrazoiengatik erabili diren elektronikoez bestelako komunikabideak,
- e) kasua bada, zer neurri hartu diren 62. artikuluan xedatutakoa aplikatuta.

Lizitazio-deialditzat balio duen iragarkiak, errege lege-dekretu honetan xedatutakoari jarraituz eginak, apartatu honetan eskatzen den informazioa badakar, entitate kontratatzaileek iragarki horren aipamena egin ahalko dute.

2. Entitate kontratatzaileek kontratazio-prozedura guztien nondik norakoa dokumentatuko dute, bitarteko elektronikoez egindako prozedurak izan zein ez. Xede horrekin, kontratazio-prozeduraren aldi guztietan hartutako erabakiak justifikatzeko dokumentazio nahikoa gordeko dute. Adibidez, operadore ekonomikoekiko komunikazioei eta barruko eztabaidei buruzko dokumentazioa; 41.3 artikuluan aipatzen den txostena, eta hauei buruzko dokumentazioa; 42. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratuaren objektua mugatzea; kontratazio-prozeduraren hautaketa justifikatzen duen arrazoa; baldintza-agirien prestaketa; elkarrizketa edo negoziazioa, kasua bada; aukeraketa eta kontratuaren adjudikazioa edo, kasua bada, entitate kontratatzaileak kontratua ez adjudikatzen edo ez egiteko edo adjudikazio-prozedura bertan behera uzteko arrazoa. Kontratua adjudikatzen den egunetik gutxienez hiru urte igaro arte gorde beharko da dokumentazioa.

3. Lehenengo apartatuan aipatzen den txosten idatzia edo horren osagai nagusiak Europako Batzordeari, Kontratuen Erregistro Publikoari eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari igorriko zaizkio, hala eskatzen dutenean.

125. artikulua. *Kontratuen erregistroak.*

1. Entitate kontratatzaileek azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 346. artikuluan aipatzen den Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraziko dizkiote, inskribatzeko, eurek errege lege-dekretu honi jarraituz adjudikatutako kontratuen funtsezko datuak; besteak beste, adjudikaziodunaren izena, kontratuen adjudikazioaren zenbatekoa eta BEZaren xehakapena.

Halaber, kasua bada, kontratuen aldaketak, luzapenak, epe- eta prezio-aldaketak, amaierako zenbatekoa eta azkentzea jakinaraziko dituzte. Erregelamendu bidez zehaztuko da komunikazio horien edukia, bai eta haiek egiteko epea ere.

2. Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari kontratuei buruzko datuak jakinarazteko, bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiliko dira, Ogasun Ministerioak zehazten duen moduan.

3. Baldin eta beste administrazio batzuek kontratuen erregistroak badituzte, eta eskumen-esparruaren aldetik antzekoak badira, 1. apartatuan aipatzen den datuen komunikazioaren ordean, kontratuen erregistroen arteko komunikazioa baliatzeko aukera egongo da. Ogasun Ministerioak erregelamendu bidez zehaztuko du zer-nolako baldintzak beharko diren Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroko datuak eta kontratuen gainerako erregistroetako datuak elkarrekin sinkronizatzeko.

126. artikulua. *Gobernantza.*

1. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak –zeina azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 328. artikulua aipatzen baitu Estatuko sektore publikoko kontratazio publikoaren arloko erregulazio- eta kontsulta-organo espezifiko gisa– azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 328.3 artikuluan esleitzen zaizkion eginkizun guztiak izango ditu Estatuko sektore publikoko entitate kontratatzaileek edo Estatuko Administrazio Orokorrarengandik eskubide bereziak edo eskusiboak jaso dituzten enpresek errege lege-dekretu honi jarraituz egiten dituzten kontratuei dagokienez.

Halaber, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea organo eskuduna da hiru urtez behin entitate kontratatzaile guztiei buruzko txostena egiteko eta Europako Batzordeari igortzeko. Txosten horrek, besteak beste, honako gai hauek bilduko ditu, errege lege-dekretu honi lotutako obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen lizitazio publikoa eta egikaritzea direla-eta:

a) Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 332. artikuluan 7. apartatuak aipatzen duen gainbegiratze-txostenean jasotako informazioa, artikuluan honen 3. apartatuak aipatzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteari igorritakoa.

b) Enpresa txiki eta ertainek errege lege-dekretu honi lotutako kontratazioan duten partaidetza-mailari buruzko informazioa.

c) Errege lege-dekretu honi lotutako kontratazioaren arloko Europar Batasunaren zuzenbidearen arabera hartutako betebeharrak betetzeaz zer organo arduratzen diren esaten duen informazioa.

d) Errege lege-dekretu honi lotutako kontratazioaren arloan Europar Batasunak duen araudia aplikatzeko orientabidea edo doako laguntza emateko edo haren aplikazioak dakartzan zailtasunei erantzuna emateko eta kontratazio-prozedurak planifikatzeko eta gauzatzeko hartutako neurriei buruzko informazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako txostenak, halaber, txosten estatistiko bat bildu beharko du, 1. artikuluan ezarritako atalasetik gorako balio zenbatetsia izan ez balute errege lege-dekretu honek arautuko zituen kontratuei buruz; bertan kontratu horiek guztira kasuan kasuko epean izan duten balioa zenbatetsiko da. Zenbatespen hori oinarritu ahalko da, bereziki, argitalpen-baldintzen indarrez eskura dauden datuetan edo, bestela, laginetatik abiatuta egindako zenbatespenetan.

Txostenak egin eta hurrengo hamabost egunetan igorriko zaizkio Europako Batzordeari. Aholku Batzordeak txosten nazionalen edukia argitaratuko du txostenok Europako Batzordera igorri eta hilabeteko epean, haiek kasuan kasuko gardentasun-atarietan eta Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman argitaratuz.

Ondorio guztietarako, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea izendatzen da Europako Batzordearekiko lankidetzarako erreferentzia-gune errege lege-dekretu honi lotutako kontratazioari buruzko legeria aplikatzeari dagokionez. Halaber, elkarrekiko laguntza emateaz eta Europar Batasuneko gainerako estatuekin lankidetzan aritzeaz arduratuko da, Europako araudian ezartzen diren gaiiei buruzko informazio-trukea bermatze aldera, haien konfidentzialtasuna bermatuz.

2. Aurreko apartatuaren hirugarren paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzak Komiteak, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 329. artikuluan bidez sortuak, entitate kontratatzaileei begira esleitu zaizkion eginkizun guztiak beteko ditu entitateok errege lege-dekretu honi jarraituz kontratatzen dutenean; aplikatzekoa izango da autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoek informazioa emateko betebeharra, aipatutako legearen 331. artikuluan ezarritakoa.

3. Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea –azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 332. artikuluan arautua– eta Ebaluazioko Bulego Nazionala –aurrekoaren barrukoa, lege beraren 333. artikuluan arautua– entitate kontratatzaileei begira dituzten eginkizun guztietan arituko dira entitateok errege lege-dekretu honi jarraituz kontratatzen dutenean. Horrek ez du ezertan galaraziko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 332.12 artikuluan eta 333.3 artikuluan laugarren paragrafoan ezarritakoa.

4. Halaber, Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionalak, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 334. artikuluan aipatzen denak, erreferentzia egin beharko dio errege lege-dekretu honi lotuta kontratatzen duten entitateen kontratazioari.

BIGARREN LIBURUA

Neurriak Espainiako zuzenbidea Europar Batasunaren aseguru pribatuen eta pentsio-plan eta pentsio-funtsen arloko arautegira moldatzeko

I. TITULUA

Honen transposizioa: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/97 Zuzentaraua, 2016ko urtarrilaren 20koa, aseguruak banatzeari buruzkoa

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

127. artikulua. *Xedea.*

I. tituluaren xedea da arauak ezartzea pertsona fisiko eta juridikoek aseguru eta berraseguruen banaketan jardun ahal izateari buruz, jarduera hori egiteko baldintzei buruz eta aplikatu beharreko antolamendu-, gainbegiratze- eta zehapen-araubideari buruz. Helburu nagusia da aseguru-kontratuen bidezko aseguru-hartzaileen, aseguratuena eta onuradunen eskubideen babesa bermatzea, bai eta aseguru-produktuen kontratazioan askatasuna bermatzea ere.

128. artikulua. *Definizioak.*

I. tituluaren ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira:

1. «Aseguru-bitartekaria»: pertsona fisiko edo juridikoa, aseguru-entitate edo berraseguru-entitatez edo haien langileez bestelakoa eta aseguru osagarrien bitartekariez bestelakoa, ordainsari baten truke aseguruak banatzeko jarduera hasten edo egiten duena.

2. «Aseguru osagarrien bitartekaria»: pertsona fisiko edo juridikoa, kreditu-entitate edo inbertsio-enpresez bestelakoa –horietaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduak (kreditu-entitateen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko betekizunei buruzkoa, eta 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen duena) 4.1 artikulua 1. eta 2. zenbakietan ematen duen definizioaren arabera–, ordainsari baten truke aseguru osagarriak banatzeko jarduera hasten edo egiten duena, honako baldintza hauek guztiak betetzen direlarik:

a) Aseguruen banaketa ez izatea pertsona fisiko edo juridiko horren lanbide-jarduera nagusia;

b) pertsona fisiko edo juridikoak aseguru-produktu jakin batzuk soilik banatzea, ondasun edo zerbitzu baten osagarri direnak;

c) direlako aseguru-produktuek ez eskaintzea bizi-aseguruaren edo erantzukizun zibileko aseguruaren estaldurarik, salbu eta estaldura hori bitartekariak bere lanbide-jarduera nagusian ematen duen ondasun edo zerbitzuaren osagarri denean.

3. «Berraseguru-bitartekaria»: pertsona fisiko edo juridikoa, berraseguru-entitatez edo haien langileez bestelakoa, ordainsari baten truke berraseguruak banatzeko jarduera hasten edo egiten duena.

4. «Aseguru-entitatea»: Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 6.1 artikuluko definizioarekin bat datorren entitatea.

5. «Berraseguru-entitatea»: Uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 6.4 artikuluko definizioarekin bat datorren entitatea.

6. «Aseguru-banatzaila»: aseguru-bitartekaria, aseguru osagarrien bitartekaria edo aseguru-entitatea.

7. «Berraseguru-banatzaila»: berraseguru-bitartekaria edo berraseguru-entitatea

8. «Ordainsaria»: aseguru edo berraseguruak banatzeko jarduerak direla-eta eskaintzen edo ematen den edozein komisio, zerbitzu-sari edo bestelako ordain, barnean direla izan daitezkeen abantaila ekonomikoak eta bestelako onura edo pizgarriak, finantzarioak izan edo ez.

9. «Batasuneko sorburu-estatua»:

- a) Bitartekaria pertsona fisikoa izanez gero, hark egoitza daukan Batasuneko estatua.
- b) Bitartekaria pertsona juridikoa izanez gero, hark egoitza soziala daukan Batasuneko estatua; bestela, aplikatzen zaion zuzenbide nazionalaren arabera egoitza sozialik ez badauka, hark administrazio zentrala daukan Batasuneko estatua.

10. «Batasuneko xede-estatua»: aseguru- edo berraseguru-bitartekari batek presentzia nahiz establezimendu iraunkorra daukan edo zerbitzuak ematen dituen Batasuneko estatua, beraren sorburu-estatua izan ezik.

11. «Sukurtsala»: aseguru- edo berraseguru-bitartekari batek bere sorburu-estatua ez den Batasuneko estatu baten lurraldean daukan establezimendu iraunkor oro.

12. «Lotura estuak»: Uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 9.6 artikuluan aipatzen direnak.

13. «Partaidetza handia»: Uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 9.5 artikulua aipatzen duena.

14. «Jarduera-gune nagusia»: jarduera nagusia kudeatzen den lekua.

15. «Aholkularitza»: gomendio pertsonalizatua, bezero bati egiten zaiona, berak eskaturik edo aseguru-banatzailaren ekimenez, aseguru-kontratu bati edo batzuei buruz.

16. «Arrisku handiak»: Uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 11. artikuluan aipatutako arriskuak.

17. «Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktua»: muga-eguneko edo erreskateko balioa guztiz edo zati batez eta zuzenean edo zeharka merkatuaren gorabeheren mende eskaintzen duen aseguru-produktua; ez ditu barruan hartzen honako hauek:

a) Bizi-aseguruaz bestelako aseguru produktuak, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen eranskinean xedatutakoaren arabera, bizi-asegurua ez diren beste aseguru-arlo batzuk eta arrisku gehigarriak.

b) Bizi-aseguruen kontratuak, horietan jasotako prestazioak istripu, gaixotasun edo desgaitasun baten ondoriozko baliaezintasun-egoera edo heriotza gertatuz gero soilik ordaintzekoak direnean.

c) Pentsio-produktuak, lehen helburutzat aitortua badute inbertitzailea diru-sarreraz hornitzea erretiroa hartutakoan eta inbertitzaileari zenbait prestaziotarako eskubidea ematen badiote.

d) Onarpen ofiziala duten pentsio-araubide profesionalak, baldin eta azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Pentsio Planak eta Funtzak Arautzeko Legearen testu bateginaren aplikazio-eremuan badaude, edo uztailaren 14ko 20/2015 Legearen aplikazio-eremuan.

e) Pentsio-produktu pertsonalak, baldin eta enplegatzailearen ekarpen finantzarioa eskatzen badute eta ez enplegatzaileak ez enplegatuak ezin badituzte inola ere aukeratu pentsio-produktua eta horren hornitzailea.

18. «Euskarri iraunkorra»: ezaugarri hauek dituen tresna oro:

a) Haren bitartez bezero batek biltegiratu egin dezake berari zuzendutako informazioa eta geroago kontsultarako eskuratu dezake, informazio horren xedeetarako egokia den epealdian zehar; eta

b) biltegiratutako informazioa aldaketarik gabe erreproduzitzea ahalbidetzen du.

19. «Zintzotasun komertziala eta profesionala»: euren ibilbide pertsonalean merkataritzako legeei eta, oro har, jarduera ekonomikoa eta negozioen nondik norakoak arautzeko bestelako legeei, edota merkataritza-, finantza nahiz banku-eginera onei begirunea erakutsi dieten pertsonen nolakotasuna; finantza-jardueren inguruko arau-

hauste penalak egiteagatik zigor-aurrekaririk ez duten pertsonen aitortuko zaie nolakotasun hori, baldin eta, gainera, administrazio-eremuan oso astuntzat edo astuntzat tipifikatutako arau-haustek egiteagatik zehapenik jaso ez badute honako arlo hauetan: aseguruak, bankuak, balore-merkatua, Ogasun Publikoa, Gizarte Segurantza, lehiaren defentsa, kapitalen mugimendua, atzerriarekiko transakzio ekonomikoak, kapitalak zurtzea eta terrorismoa finantzatzea eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa.

Zintzotasunaren baldintza betetzea eragozten duten inguruabarrak izango dira kargu publikoetan edo finantza-entitateen administrazioan eta zuzendaritzan jarduteko desgaituta egotea, bai eta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera deklaraturako desgaituntza ere, harik eta ezarritako desgaituntza-aldia amaitu arte, edo birgaitu gabeko porrot egina edo konkurtsopekoa izatea, errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurreko konkurtso-prozeduren kasuan.

20. «Administrazio-ko kargudunak»: aseguru-banatzailen administrazio-ko kideak edo kide anitzeko administrazio-organotako kideak.

21. «Banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoa»: aseguru-banatzaila den pertsona juridikoaren barruan aseguruak banatzeko jardueraren zuzendaritza betearazlearen eginkizun gorenak dituzten pertsonen osatutako organoa; pertsona horiek, zuzenean edo zeharka, aseguru-banatzailaren administrazio-organoren, batzorde betearazlearen edo kontseilari delegatuaren menpean bete behar dituzte eginkizunak.

22. «Aseguru eta berraseguruen banaketari buruzko arauak»: errege lege-dekretu honetan eta berau garatzen duten xedapenetan jasotakoak, eta, oro har, aseguru eta berraseguruen banaketari buruz berariazko manuak dituzten legeetan eta administrazio-xedapen orokorretan jasotakoak eta jarduera horretan ari direnek edo aritu nahi dutenek nahitaez bete beharrekoak.

23. «Bezero profesionalak»: Balore Merkatuaren Legearen testu bateginak, zeina urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen, 205. artikuluan aipatzen dituenak.

24. «Lotutako paketeak salmenta»: aseguru-kontratuarekin batera pakete berean beste finantza-produktu edo -zerbitzu bereiziren bat saltzea edo eskaintzea, baina bezeroari aseguru-kontratua bereizita eskaini gabe.

25. «Konbinaturako paketeak saltzea»: aseguru-kontratuarekin batera pakete berean beste finantza-produktu edo -zerbitzu bereiziren bat saltzea edo eskaintzea, bezeroari aseguru-kontratua bereizita eskaintzen zaiola.

129. artikulua. *Aplikazio-eremu objektiboa.*

1. Aseguru-banaketatzat joko dira jarduera hauek: aseguru-kontratu bat egin aurreko aholkularitza-jarduera, proposamen edo lan oro, bai eta horrelako kontratuak egiteko edo horrelako kontratuak kudeatzen eta egikaritzen laguntzeko jarduerak ere, ezbeharretarako arreta barne. Hauek ere bai: aseguru-kontratu bati edo batzuei buruzko informazioa ematea, bezeroek aukeratutako irizpideen arabera, webgune baten bitartez edo bestelako bideetatik; eta aseguru-produktuen sailkapena egitea, produktuen prezioak eta konparazioak barne, edo aseguru-prezioaren deskontu bat, bezeroak aseguru-kontratua egin dezakeenean zuzenean edo zeharka webgune bat edo bestelako bideak erabiliz.

2. Berraseguru-banaketatzat joko dira jarduera hauek: berraseguru-kontratuak egin aurreko aholkularitza-jarduera, proposamen edo lan oro, bai eta horrelako kontratuak egiteko edo horrelako kontratuak kudeatzen eta egikaritzen laguntzeko jarduerak ere, batez ere ezbeharra gertatzen denean. Jarduera hori berraseguru-banaketatzat joko da baita berraseguru-bitartekari batek esku hartu gabe berraseguru-entitate batek hura garatzen duenean ere.

3. Honako hauek ez dira aseguru edo berraseguru pribatuak banatzeko jarduerak:

a) Beste lanbide-jarduera baten inguruan lagungarri moduan egindako informazio-jarduerak:

1.a. hornitzaileak ez badu beste ezer egiten aseguru-kontratua egiten edo egikaritzen laguntzeko;

2.a. jarduera horren helburua ez bada bezeroari berraseguru-kontraturen bat egiten edo egikaritzen laguntzea.

b) Aseguru- edo berraseguru-entitate batek ezbeharrak kudeatzea, profesional gisara, eta ezbeharren peritu-azterketak eta likidazioak egitea.

c) Hartzaile izan daitezkeenei buruzko datuak eta informazioa ematea, besterik gabe, aseguru- edo berraseguru-bitartekariei, edo aseguru- eta berraseguru-entitateei, baldin eta hornitzaileak ez badu ekintza gehiago egiten aseguru- edo berraseguru-kontratua egiten laguntzeko.

d) Hartzaile izan daitezkeenei informazioa ematea, besterik gabe, aseguru- edo berraseguru-produktuen gainean, aseguru- edo berraseguru-bitartekari baten gainean nahiz aseguru- edo berraseguru-entitate baten gainean, baldin eta hornitzaileak ez badu ekintza gehiago egiten aseguru- edo berraseguru-kontratua egiten laguntzeko.

e) Aseguru-entitateek irekitzaile gisa jardutea koaseguru-eragiketetan.

4. Errege lege-dekretu honen bigarren liburuaren I. titulua ez zaie aplikatuko agintari publikoek edo kontsumitzaile-elkartek kudeatutako webguneei, horien helburua ez bada aseguru-kontratuak egitea, eta merkatuan dauden aseguru-produktuak alderatu baino ez badute egiten.

5. Banaketa-jarduerak bat etorriko dira errege lege-dekretu honen bigarren liburuaren I. tituluaren xedatutakoarekin:

a) Egoitza Espainian duten aseguru- eta berraseguru-banatzzaileek egiten badituzte.

b) Egoitza Europar Batasuneko beste estatu baten lurraldean duten aseguru- eta berraseguru-banatzzaileek Espainian egiten badituzte.

6. Ez zaie I. titulua aplikatuko Europar Batasunetik kanpo kokatutako arrisku eta konpromisoerik dagozkien aseguru eta berraseguruak banatzeko jarduerari, ezta hirugarren herrialdeetan aseguru edo berraseguruak banatzeko jarduerari ere.

130. artikulua. *Aplikazio-eremu subjektiboa.*

1. Honako hauei aplikatuko zaizkie I. tituluko manuak:

a) 129. artikuluan definitutako aseguru- edo berraseguru-banaketa-eremuaren arloko jarduerak egin nahi dituzten pertsona fisiko eta juridikoei, eta horietan aritzen direnei.

b) Aseguru edo berraseguruak banatzeko jarduerak egiten dituzten pertsona juridikoetan edozein tituluren bitartez administrazio-karguak dituztenei, banaketa-jardueraren ardura dutenei edo zuzendaritza-organoetako kideei; I. tituluaren edo hura garatzeko xedapen osagarrietan aurreikusitako dokumentuak sinatzen dituzten entitateei, eta haien aplikazio-eremuan legez debeku edo aginduren bat ezartzen zaien pertsonari.

2. Ez zaie I. titulua aplikatuko aseguru osagarrien bitartekari izan eta aseguruak banatzeko jarduerak egiten dituztenei, inguruabar hauek guztiak biltzen badira:

a) Asegurua hornitzailearen batek emandako ondasun edo zerbitzuaren osagarri izatea, eta aseguru horrek honako hauek estaltzea:

1.a. Hornitzaile horrek emandako ondasuna matxuratu, galdu edo hondatzeko edo zerbitzua ez erabiltzeko arriskua, edo

2.a. ekipajea hondatu edo galtzeko arriskua eta hornitzaileari kontratatutako bidaiarekin lotutako gainerako arriskuak; eta

b) aseguru-produktuaren truke ordaindutako prima hainbanatua urtean 600 euro baino gehiago ez izatea; edo pertsona bakoitzeko ordaindutako prima 200 euro baino gehiago ez izatea, a) letran aipatutako zerbitzuak gehienez ere hiru hilabete irauten duenean.

3. Ezertan eragotzi gabe 2. apartatuan xedatutakoa, banaketa-jarduera aseguru osagarrien bitartekari baten bidez egiten denean, 2. apartatuan xedatutakoaren arabera bitartekari hori I. titulua aplikatuzetik salbuetsita bada, aseguru-entitateak –edo, kasua hala bada, diharduenaren konturako aseguru-bitartekariak– hau bermatu beharko du:

a) Bezeroak, kontratua egin aurretik, haren nortasunaren eta helbidearen berri jasotzea, bai eta III. kapituluaren 4. atalean azaltzen diren prozeduren berri ere, hau da, bezeroek erreklamazioak eta kexak aurkez ditzaten ezarrita dauden prozeduren berri;

b) Bide egoki eta proportzionatuak ezarri izana 172. eta 184. artikuluetan xedatutakoa betetzeko eta bezeroaren eskakizun eta beharrianak aintzat hartzeko hari kontratu bat proposatu aurretik;

c) Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua, 176.4 agirian aipatzen dena, bezeroari eman izana kontratua egin aurretik.

131. artikulua. *Erregistratu beharra.*

1. Aseguru-bitartekariak, aseguru osagarrien bitartekariak eta berraseguru-artekariak 133. artikuluan arautzen den aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboan inskribatu beharko dira, aseguru edo berraseguruen banaketari ekin eta jarduera hori garatu ahal izateko.

Aseguru- eta berraseguru-entitateak, aseguru- edo berraseguru-banatzailak diren aldetik, ez dira inskribatu beharko 133. artikuluan arautzen den erregistroan, eta nahikoa izango dute uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 40. artikuluan eta hura garatzeko araudian arautzen den erregistroan inskribatzea, ezertan eragotzi gabe aseguru-banaketarekin zerikusia duten pertsonen 133.1 artikuluan ezartzen zaizkien erregistro-betebeharrak.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateek, 130.2 artikuluan jasotako kasuetan izan ezik, ezin izango diete aseguru- eta berraseguru-banaketaren arloko zerbitzurik onartu aseguru- edo berraseguru-bitartekariei, horiek ez badaude inskribaturik Europar Batasuneko estaturen baten araudiari jarraituz onar daitekeen erregistro batean.

II. KAPITULUA

Gainbegiratze-organoak eta eskumenak

132. artikulua. *Eskumen-banaketa.*

1. Aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduerak gainbegiratzearen arloan Estatuko Administrazio Orokorrak dituen eskumenak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak egikaritzeko dituzte, I. tituluan ezarritako moduan, eta ezertan eragotzi gabe autonomia-erkidegoei euren eskumeneko eremuan dagozkien eginkizunak.

2. Euren autonomia-estatutuen arabera aseguruak antolatzeako eskumenak bereganatu dituzten autonomia-erkidegoek honako hauen gainean izango dute eskumena, baldin eta autonomia-erkidegoaren lurraldearen barruan badauzkate egoitza eta eragiketa-eremua: lotutako aseguru-agentek, lotutako banku-aseguruen operadoreak, aseguru-artekariak, berraseguru-artekariak eta aseguru-bitartekarien elkargoak. Eskumen horiek honako irizpide hauekin bat etorri erabiliko dira:

a) Araugintzako eskumenen arloan, autonomia-erkidego horiei dagokie lege bidez garatzea aseguru eta berraseguru pribatuen banaketa antolatzeako eta gainbegiratzeko oinarriak, I. tituluan eta erregelamendu bidezko oinarritzko xedapen osagarrietan jasotakoak. Gainera, jardueraren antolaketa eta funtzionamendua arautzeko eskumen eskusiboa izango dute.

b) Betearazteko eskumenen arloan, lotutako aseguru-agentek, lotutako banku-aseguruen operadoreak, aseguru-artekariak eta berraseguru-artekariak antolatzeako eta gainbegiratzeko eskumenak dagozkie, hau da, I. tituluan Estatuko Administrazio Orokorrari esleitzen zaizkionak; eta titulu horrek Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko

Ministerioa edo Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia aipatzen duenean, ulertuko da autonomia-erkidegoko organo eskudunaz ari dela. Aurrekoa ez zaie aplikatuko III. kapituluaren 5. atalean eta IV. kapituluaren araututako eskumenei.

3. Aseguru-agente eskusiboak eta banku-aseguruen operadore eskusiboak direla eta, autonomia-erkidegoei dagokie haien gaineko eskumenak egikaritzea, baldin eta haien zerbitzuak jasotzen dituen aseguru-entitatea autonomia-erkidegoak kontrolatzen eta gainbegiratzen badu uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 19. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunek lankidetzan jardungo dute dokumentu bidezko informazioa homogeneizatzeko eta elkarren gainbegiratze-jarduerak koordinatzeko.

Horretarako, autonomia-erkidegoetako organo eskudunek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritzaren eskura jarriko dute, bide elektronikoetatik, euren erregistro administratiboetako buruzko informazio eguneratua, eta urtero zuzendaritza horri bidaliko diote 187. artikuluan aipatzen den kontabilitateko informazio estatistikoa. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak berak ezarriko du zer informazio edo datu igorri beharko dizkioten gutxienez ere autonomia-erkidegoek.

5. Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezertan eragotziko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 19. artikuluan xedatutakoa, aseguru- eta berraseguru-entitateak antolatzeke eta gainbegiratzeko eskumenen banaketari dagokionez.

6. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak artikulu honetan xedatzen denaren arabera ezarritako eskumen-banaketaren berri emango dio Europako Batzordeari.

133. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboa.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak edo, hala behar denean, autonomia-erkidegoko organo eskudunak aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboa edukiko du, eta bertan inskribatu beharko dira euren jardueren ekin aurretik aseguru-bitartekariak, aseguru osagarrien bitartekariak eta berraseguru-artekariak, baldin eta egoitza Espainian eduki eta I. tituluaren pean badaude.

Aseguru-bitartekari, aseguru osagarrien bitartekari eta berraseguru-artekari diren pertsona juridikoen kasuan, administrazio-kargudunetz gainera, banaketa-jardueraren arduraduna ere inskribatuko da, eta banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideak ere bai, halakorik bada.

Aseguru- eta berraseguru-entitateen kasuan, banaketa-jardueraren arduraduna inskribatuko da, bai eta banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideak ere, halakorik bada.

Honako hauek ere inskribatuko dira, informazio-ondorio hutsetarako: egoitza Europar Batasuneko beste estatu batzuetan duten aseguru- eta berraseguru-bitartekariak, Espainian jarduten badute kokatzeko eskubidearekin nahiz zerbitzuak emateko askatasunarekin.

2. Erregistro administratiboak erregelamenduz zehazten diren inguruabarrak jasoko ditu. Publikoa izango da eta doan kontsultatu ahal izango da bitarteko elektronikoak erabiliz. Interesdunek eskura izango dituzte inskribatutako datuak, baina datu pertsonaletarako irispidea, betiere, datu pertsonalen babesaren arloan indarra duen araudiaren bidez, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen bidez eta aplikatu beharreko gainerako legeen bidez arautuko da.

3. Aseguru-entitateek, aseguru-bitartekariak, aseguru osagarrien bitartekariak eta berraseguru-artekariak erregistro administratiboaren kudeaketa eguneratua ahalbidetzeko dokumentuak eta informazioa eman beharko dituzte.

Bitarteko elektronikoak erabili beharko dira informazioa igortzeko, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak zehaztuko du nola egingo den eta zer prozedura beteko diren.

4. Autonomia-erkidegoek, 132.2 artikuluaaren arabera antolamenduaren eta gainbegiratzearen arloko eskumenak bereganatu badituzte, aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboa edukiko dute. Erregistro horretan egiten den inskripzio bakoitza bide telematikotik jakinaraziko zaio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

5. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak informazio-gune bakarra ezarriko du, irispide erraz eta azkarrekoa, zeina artikulua honetan arautzen den erregistrotik ateratako informazio eguneratuaz elikatuko den, bai eta autonomia-erkidegoek kudeatzen dituzten erregistro administratiboetako informazioaz ere.

6. Aseguru-bitartekariari, aseguru osagarrien bitartekariari edo berraseguru-artekariari inskripzioa ukatuko zaie, baldin eta hirugarren herrialde bateko xedapenek, bitartekariarekin estu lotutako pertsona fisiko edo juridiko bati edo batzuei aplikatzekoak izanik, gainbegiratze-eginkizunak eraginkortasunez betetzea eragozten badiote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

III. KAPITULUA

Egoitza Espainian duten aseguru- eta berraseguru-banatzailen jarduerak

1. atala. Aseguru-banatzailleak

1. azpiatala. Sailkapena

134. artikulua. *Aseguru-banatzailleak: motak.*

1. Aseguru-banatzailleak dira:

- a) Aseguru-entitateak.
- b) Aseguru-bitartekariak.
- c) Aseguru osagarrien bitartekariak.

2. I. tituluan xedatutakoaren ondorioetarako, aseguru osagarrien bitartekariari aseguru-bitartekariaren araubide juridikoa aplikatuko zaie, ez badaude I. titulua aplikazio-eremutik kanpo 130.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horri dagokionez, I. tituluan bertan aurreikusitako salbuespenak izango dira.

3. Aseguru-bitartekariak, webguneak edo urruneko bestelako komunikazio-teknikak erabiltzen badituzte aseguru-produktuak eskaintzeko edo alderatzeko, gardentasuna bermatzen duten politikak prestatu beharko dituzte idatziz, eta horiek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren eskura egon beharko dute, gainbegiratu ahal ditzan. Idatzizko politika horietan honako informazio hau jaso beharko da, gutxienez ere, eta banatzailaren web-orrian leku nabarmenean jarriko da:

- a) Kasua denean, zer irispide erabili diren aseguru-entitateen produktuak hautatzeko eta alderatzeko.
- b) Zer aseguru-entitateren produktuak eskaintzen diren eta zer kontratu-harreman dagoen bitartekariarekin.
- c) Aseguru-entitateekiko harremana ordaindua den ala ez, eta, ordaindua bada, nola ordaintzen den.
- d) Ea bermaturik dagoen ala ez aseguruaren prezioa, prozesuaren azkenean ageri dena.
- e) Zer maiztasunez eguneratzen den banatzailen informazioa.

Informazio horrekin batera, bitartekariak webguneen titulartasuna eta izaera jakinarazi beharko dituzte, erabiltzaileek bermerik handienarekin baliatu ahal izan ditzaten euren interesen defentsarako eta laguntzarako eskubideak, eta, bereziki, barne-erreklamaziorako bideak erabili ahal izan ditzaten.

135. artikulua. *Aseguru-bitartekariak: motak.*

1. Honela sailkatzen dira aseguru-bitartekariak:

- a) Aseguru-agentek.
- b) Aseguru-artekariak.

Aseguru-agentek eta aseguru-artekariak pertsona fisikoak zein juridikoak izan daitezke.

2. Ezin da aseguru-agentea eta aseguru-artekaria batera izan, hau da, pertsona fisiko edo juridiko batek ezin du batera jardun agente eta artekari gisa. Aurrekoa gorabehera, edozein aseguru-bitartekari eskatu ahal izango du bere inskripzioa alda dadila aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboan –133. artikuluan arautzen den horretan–, beste bitartekotza mota baten bidez jardun ahal izateko aseguru-banaketan; aldez aurretik, horretarako baldintzak betetzen dituela frogatu beharko du.

3. «Aseguru-agentea» eta «aseguru-artekaria» deiturak I. tituluan definitutako aseguru-bitartekari entzat dira.

4. Kreditu-entitateek, kredituko finantza-establezimenduek eta, kasua bada, kreditu-entitateen edo kredituko finantza-establezimenduen kontrolpeko edo partaidetzapeko merkataritza-sozietateek, bietako edozeinen banaketa-sareen bidez aseguru-agente gisa jarduten dutenean, «banku-aseguruen operadorea» deitura erabiliko dute, zeina hai entzate bakarrik izango baita, eta 150. artikulutik 154.era jasotako berariazko araubideari lotuko zaizkio.

5. Lehenengo apartatuan aipatutako aseguru-bitartekariak webguneak edo urruneko bestelako komunikazio-teknikak erabili ahal izango dituzte bezeroari informazioa emateko, hainbat enpresaren aseguru-produktuen kopuru jakin baten prezioak edo estaldurak alderatuta.

136. artikulua. *Aseguru-bitartekarien betebeharrak orokorrak eta debekuak.*

1. Xedapen orokor edo bereziren batek merkataritzan aritzea debekatzen dien pertsonak ezingo dute aseguru-bitartekari jardun, ez euren kontura ez inoren bidez. Era berean, ezingo da aseguruak banatzeko jarduerarik egin, ez norberaren kontura ez inoren bidez, pertsona edo entitate hartzaileek bitartekariarekiko mendekotasuna edo lotura berezia badute, haren eskumen edo zuzendaritza-ahalmen espezifikoak direla medio, eta egoera horrek arriskuan jar badezake interesdunen askatasuna aseguruak kontratatzerakoan edo aseguru-entitatea hautatzerakoan.

2. Aseguru-bitartekariak debekatuta dauzkate jarduera hauek:

a) Edozein arrisku mota estaltzea zuzenean edo zeharka, eta aseguruaren objektu diren ezbeharrak euren gain hartzea, osorik edo zati batez. Kontrako itun guztiak deusezak izango dira.

b) Espainian aritzeko legez eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten edo jasotako baimenaren mugak urratzen dituzten aseguru- eta berraseguru-entitate entzate aseguru-banaketan jardutea.

c) Aseguru- eta berraseguru-entitate entzate erreserbatuta dauden esapideak erabiltzea euren merkataritza-eragiketen identifikazioan, publizitatean edo sozietate-izenean, haiekin nahasteko bidea emanaz; horrek ez du ezertan eragotziko 144., 153. eta 158. artikuluetan ezarritakoa.

d) Aseguru-entitateek igorritako prima-ordainagiriei errekariguak gehitzea. Kontrako itun guztiak deusezak izango dira.

e) Bezeroaren izenean aseguru-kontratua egitea edo aldatzea bezeroaren baimenik gabe.

f) Inor aseguru-kontratua egitera behartzea zuzenean edo zeharka.

3. Aseguru-bitartekaria, betiere, jasotako diru kopuruaren gordailuzaintzat joko da, bezeroek aseguru-kontratuaren primak ordaintzeko diru kopuruak ematen dizkiontenean

edo aseguru-entitateek bezeroentzako kalte-ordainak edo primen itzulketak ematen dizkiotenean.

4. Aseguru-bitartekariak frogatu beharko du bezeroen funtsak transferitzeko erabiltzen diren bezero-kontuak erabat bereizita daudela bitartekariaren gainerako baliabide ekonomikoetatik, eta kontu horietan bezeroen baliabide ekonomikoak baino ez direla kudeatzen.

137. artikulua. *Aseguru-bitartekarien kanpoko laguntzaileak.*

1. Aseguru-bitartekariak merkataritzako kontratuak egin ahal izango dituzte kanpoko laguntzaileekin; laguntzaileok banaketa-jarduerak egin ahal izango dituzte bitartekariaren kontura. Kanpoko laguntzaileak izatez ez dira aseguru-bitartekariak izango. Betiere, kanpoko laguntzaileen bidez banaketan jarduteak ez du ezertan galaraziko bezeroari I. tituluan eskatzen den informazio osoa eman beharra.

2. Kanpoko laguntzaileek kasuan kasuko bitartekariak zuzendurik jardungo dute, haren erantzukizun administratibo, zibil eta profesionaleko araubideari eta haren finantza-ahalmeneko araubideari lotuta.

3. Kanpoko laguntzaileek euren burua hala identifikatu beharko dute, eta bitartekariaren identitatea eta erregistroko datuak ere adierazi beharko dituzte.

4. Aseguru-bitartekariak erregistro batean jasoko dituzte euren kanpoko laguntzaileen identifikazio-datu pertsonalak, altaren data eta, kasua bada, bajaren data. Erregistro horiek Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren kontrolaren pean egongo dira.

5. Honako hauek guztiek 128. artikuluan azaltzen den zintzotasun komertzial eta profesionalaren baldintza bete beharko dute: kanpoko kolaboratzailea pertsona fisikoa izanez gero, kanpoko kolaboratzaileak berak; eta pertsona juridikoa izanez gero, aseguru-banaketan laguntzeko jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, aseguru-banaketan laguntzeko jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideek, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsonak, oro har.

Kanpoko kolaboratzailea pertsona juridikoa izanez gero, beraren administratzaileek ere baldintza hori bete beharko dute.

6. Honako hauek ezagutza eta gaitasun egokiak eduki beharko dituzte, eta, horretarako, prestakuntza-ikastaroak gainditu beharko dituzte, I. tituluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraituz: kanpoko kolaboratzailea pertsona fisikoa izanez gero, kanpoko kolaboratzaileak berak; eta pertsona juridikoa izanez gero, aseguru-banaketan laguntzeko jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, aseguru-banaketan laguntzeko jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen erdiek, gutxienez, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsona guztiek. Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, ebazpen bidez, kanpoko kolaboratzaileen hasierako eta etengabeko prestakuntzarako programen ildo nagusiak eta oinarrizko printzipioak ezarriko ditu, edukiari, antolaketari eta gauzatzeko moduari dagokienez.

7. Aseguru-bitartekari, aseguru-agente edo aseguru-artekariaren kanpoko laguntzaileek ezingo diete lagundu bestelako aseguru-bitartekari batzuei.

2. azpiatala. *Aseguru-entitateek aseguru-banaketan jardutea*

138. artikulua. *Aseguru-entitateen langileek aseguru-produktuak banatzea.*

Aseguru-entitateen plantilletako langileek aseguru-banaketa sustatu ahal izango dute entitate horien alde, eta lan horren bidez lortzen diren kontratuak aseguru-entitateek egindako kontratutzat joko dira ondorio guztietarako.

139. artikulua. *Aseguru-banaketan aritzen diren aseguru-entitateen langileek bete beharreko baldintzak.*

1. Aseguru-entitateek bermatu beharko dute ezen aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten langileek, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua

bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideek zintzotasun komertzial eta profesionalaren baldintza betetzen dutela, 128. artikuluan azaldutako moduan.

2. Aseguru-entitateek bermatu beharko dute ezen aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten langileek, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen erdiek gutxienez prestakuntza-ikastaroak gainditu dituztela eta ezagutza eta gaitasun egokiak dituztela, I. tituluan eta bera garatzen duen arautegian ezartzen denarekin bat etorriz.

Halaber, aseguru-entitateek etengabeko prestakuntzarako behar diren baliabideak emango dizkiete aurreko paragrafoan aipatutako pertsonari. Prestakuntza hori banatzen diren produktuei, betetzen den eginkizunari eta egiten den jarduerari egokitu zaien, eta prestakuntza-programak ezarriko dira; horietan adieraziko da, gutxienez ere, zer baldintza bete behar dituzten prestakuntzaren hartzaileek eta zer baliabide erabiliko diren hura gauzatzeko. Prestakuntza-programen dokumentazioa Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren eskura egongo da.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, ebazpen bidez, aseguru-entitateen langileen, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonaren eta, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen hasierako eta etengabeko prestakuntzarako ikastaroen ildo nagusiak eta oinarrizko printzipioak ezarriko ditu, edukiari, antolaketari eta gauzatzeko moduari dagokienez. Aseguru-entitateak ikastaro horiek eman ahal izango dituzte I. tituluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.

4. Artikulu honetan azaldutako betekizunak beteko direla bermatzeko, aseguru-entitateek euren barne-politikak eta barne-prozedura egokiak onartu eta aplikatuko dituzte, eta aldi behin berrikusiko dituzte. Gainera, onartutako politikak eta prozedurak egokiro betetzea bermatzeko eginkizuna ezarriko dute, eta eginkizun horren arduradunaren izena Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazteko prest egon beharko dute.

5. Aseguru-entitateek erregistro eguneratu batean inskribaturik eduki beharko dituzte aseguruen banaketan zuzenean parte hartzen duten langileak, bai eta banaketa-jardueraren ardura duen pertsona edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideak ere.

Erregistro hori Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren kontrolaren pean egongo da.

6. Azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarenak, zortzigarren xedapen gehigarrian dioenez, zenbait datu inskribatu egin behar dira 133. artikuluan aipatutako erregistro administratiboan. Bada, aseguru-entitate bakoitzak datu horiek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari bidaliko dizkio bide telematikotik, inskriba daitezen, gehienez ere hiru hilabeteko epean eskaera aurkezten denetik hasita.

Aseguru-entitateek 1. eta 2. apartatuetan ezartzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak gorde eta eguneratu beharko dituzte, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko dizkiote apartatu honen arabera emandako informazioaren aldaketak, gehienez ere hamabost egun balioduneko epean, aldaketa erabakitzen denetik hasita.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bidez zehaztuko ditu informazio horren edukia eta hura bidaltzeko modua.

3. azpiatala. Aseguru-agenteei aseguru-banaketan jardutea

140. artikulua. *Zer den aseguru-agentea.*

Aseguru-agenteei aseguru-entitatez edo haien langilez bestelako pertsona fisikoak edo juridikoak dira; aseguru-entitate batekin edo batzuekin agentzia-kontratua eginez, konpromisoa hartzen dute 129.1 artikuluan definitutako moduan aseguru-banaketan jarduteko, kontratu horretan adostutako baldintzen arabera.

141. artikulua. *Aseguru-agentziaren kontratua.*

1. Aseguru-agentziako kontratua merkataritzako kontratua izango da beti; idatziz formalizatuko da, eta kontratugileak aintzat hartuta egin dela iritziko zaio.

2. Kontratuaren edukia alderdiek askatasunez adostutakoa izango da. Ordezko arau gisa, Agentzia Kontratuari buruzko maiatzaren 27ko 12/1992 Legeak arautuko du kontratu hori.

3. Aseguru-agentziako kontratua ordaindua izango da, eta zehaztuko du aseguru-banaketaren truke zer komisio edo ordainsari emango dion aseguru-entitateak aseguru-agenteari kontratuaren indarraldian eta, kasua bada, kontratua azkendu eta gero.

4. Aseguru-agenteeek ezingo dute sustatu eurek banatzen dituzten aseguru-kontratuen zorro osoa edo zati bat aseguru-entitate batetik beste batera aldatzea. Era berean, ezingo dute zorro horretan duten bitartekaritza-posizioaren gaineko xedapen-egintzarik egin aseguru-entitatearen adostasunik gabe.

5. Agente bati agentzia-kontratua azkenduz gero, aseguru-entitateak horren berri eman beharko die hark esku hartuta egin diren kontratuetakoa aseguru-hartzaileei; eta, kasua bada, bitartekaritza-posizioa beste agente baten alde aldatu dela ere jakinarazi beharko die. Aseguru-agenteeak berak ere agentzia-kontratua azkendu zaiola jakinarazi ahalko die bere banaketa-jardueraren bitartez egindako aseguru-kontratuetakoa aseguru-hartzaileei.

6. Aseguru-agenteeek 137. artikuluan aipatzen diren kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabili ahal izango dituzte, aseguru-produktuen banaketan lagundu diezaieten, aseguru-agentziako kontratuan aseguru-entitatearekin adostutako baldintzen arabera.

142. artikulua. *Hirugarrenetikiko betebeharrak bermatzeko baldintzak.*

1. Bezeroak aseguru-agenteari ordaindutako zenbatekoak aseguru-entitateari ordaindutat joko dira; eta aseguru-entitateak agenteari ordaindutako zenbatekoak ez dira bezeroari ordaindutat joko harik eta bezeroak haiek jasotzen dituen arte.

2. Aurrekoak ez du ezertan eragozten 136.4 artikuluan xedatutakoa.

143. artikulua. *Erantzukizun zibil profesionala.*

1. Aseguru-banaketan ari denean aseguru-agenteari sor lekiokoen erantzukizun penala edo bestelakoa alde batera utzi gabe, harekin aseguru-agentziako kontratua egin duen aseguru-entitateari egotziko zaio haren jardunaren eta kanpoan dituen laguntzaileen jardunaren ondoriozko erantzukizun zibil profesionala; hori guztia, egindako agentzia-kontratuarekin xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Aurreko apartatua ez zaie aplikatuko banku-aseguruaren operadoreei.

144. artikulua. *Aseguru-agenteeek aseguru pribatuak banatzea: publizitatea eta merkataritza-dokumentazioa.*

1. Aseguru-agenteen aseguru-banaketari buruzko publizitatean eta merkataritza-dokumentazioan nabarmenduta agertu beharko da «aseguru-agente eskusiboa», «lotutako aseguru-agentea», «aseguru-agentzia eskusiboa» edo «lotutako aseguru-agentzia» esapidea, eta, jarraian, zer aseguru-entitateri (haren sozietate-izena ipini behar da) egiten ari zaion banaketa-eragiketara, dela harekin egindako agentzia-kontratuaren babesean, dela aseguru-entitatearen artean elkarren sarean lagapenaren bidezko banaketarako sinatutako zerbitzu-prestazioko kontratuaren babesean; horrez gain, 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboko inskripzio-zenbakia jarriko da, eta, kasua bada, erantzukizun zibileko aseguru edo bestelako finantza-bermeren bat dagoela adieraziko da.

2. Publizitate orokorrean edo bide telematikoetatik egiten duten publizitatean ere, berekin aseguru-agentziako kontratua egin duten aseguru-entitateak aipatu beharko dituzte.

145. artikulua. *Aseguru-agenteen bateraezintasunak.*

Aseguru-agenteeek, behin aseguru-kontratu batean aseguru-agente gisa esku hartuz gero, ezingo dute aseguru-artekari edo horren kanpoko laguntzaile, hirugarren peritu, aseguru-peritu edo matxura-komisario gisa jardun aseguru-kontratu horretako aseguru-hartzaile, aseguratu eta onuradunek izendatuta.

146. artikulua. *Komunikazioen araubidea.*

Aseguru-hartzaileak aseguru-kontratua banatzen duen aseguru-agenteari egiten dizkion komunikazioek aseguru-entitateari zuzenean egindakoek bezalako ondorioak sortuko dituzte.

147. artikulua. *Aseguru-agente eskusiboen barruko inskripzioa eta erregistroa.*

1. Aseguru-entitateek egiaztatu egin behar dute berekin aseguru-agentzia eskusiboko kontratua egin nahi duten pertsona fisiko edo juridikoen 3. apartatuan ezarritako betekizunak betetzen dituztela, pertsona horiek aseguru-agente eskusibo moduan jardun ahal izan dezaten aseguru-banaketan.

2. Alde batera utzi gabe 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboa, aseguru-entitateek erregistro eguneratu bat eduki beharko dute eta bertan inskribatu beharko dituzte berekin aseguru-agentziako kontratuak eginak dituzten aseguru-agente eskusiboak. Erregistro horretan gutxienez ere honako hauek jasoko dira: agentearen identifikazio-datuak, erregistro-zenbakia, alta- eta baja-datak, eta agente eskusiboa dela. Agente hori pertsona juridikoa izanez gero, hau ere adieraziko da: nor den banaketa-jardueraren arduraduna, eta, kasua bada, nortzuek osatzen duten banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoa, 128. artikuluan definitutakoa.

Erregistro hori Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren kontrolaren pean egongo da.

3. Aseguru-agente eskusiboek aseguru-agenteen araubide orokorra izango dute, 140. artikulutik 146.era ezarritakoa, aseguru pribatuen banaketan jarduten dutenean.

Aseguru-agente eskusiboak 133. artikuluan aipatutako erregistro administratiboan inskribatu ahal izan daitezen, aseguru-entitateek ezinbestez betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Egiaztatzea ezen honako hauek guztiek 128. artikuluan azaltzen den zintzotasun komertzial eta profesionalaren baldintza betetzen dutela: aseguru-agentea pertsona fisikoa izanez gero, aseguru-agenteeak berak; eta, pertsona juridikoa izanez gero, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideek, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsonak, oro har.

Aseguru-agentea pertsona juridikoa izanez gero, haren administratzaileek ere baldintza hori bete beharko dute.

b) Egiaztatzea ezen honako hauek ezagutza eta gaitasun egokiak dituztela eta horretarako prestakuntza-ikastaroak gainditu dituztela, I. tituluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraituz: aseguru-agentea pertsona fisikoa izanez gero, aseguru-agenteeak berak; eta, pertsona juridikoa izanez gero, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen erdiek, gutxienez, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsona guztiek.

Horrez gain, aseguru-entitateek baliabideak emango dizkiete etengabeko prestakuntza jasotzeko, banatu beharreko produktuei, bete beharreko eginkizunari eta egin beharreko jarduerari egokitua, eta prestakuntza-programak ezarriko dituzte; horietan adieraziko da, gutxienez ere, zer baldintza bete behar dituzten prestakuntza-hartzaileek eta zer baliabide erabiliko diren prestakuntzarako. Prestakuntza-programen dokumentazioa Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren eskura egongo da.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, ebazpen bidez, apartatu honen lehenengo paragrafoan aipatutako aseguru-agenteen eta pertsonen hasierako eta etengabeko prestakuntzarako ikastaroen ildo nagusiak eta oinarrizko printzipioak ezarriko ditu, edukiari, antolaketari eta gauzatzeko moduari dagokienez. Aseguru-entitateek eta aseguru-agente eskusiboek ikastaro horiek eman ahal izango dituzte I. tituluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraituz.

c) Inskripzioa eskatu aurretik informazio hauek lortu izana:

1.a. Aseguru-agentea pertsona juridikoa bada, haren boto-eskubideetan edo kapitalean zuzenean edo zeharka gutxienez ehuneko 10eko partaidetza duten akziodun edo bazkideen identitatea, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan.

2.a. Aseguru-agentearekin lotura estuak dituzten pertsonen identitatea.

3.a. Partaidetza edo lotura estu horiek ez diotela Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eragozten bere gainbegiratze-eginkizunak eraginkortasunez betetzea.

d) Egiaztatzea ezen aseguru-agentek ez daudela sartuta I. tituluak ezarritako bateraezintasun-kausetan.

Aseguru-entitateek, a) eta b) letretan azaldutako betekizunak betetzen direla bermatzeko, beren barne-politikak eta barne-prozedura egokiak onartu eta aplikatuko dituzte, eta aldi behin berrikusiko dituzte. Gainera, onartutako politikak eta prozedurak egokiro betetzen direla bermatzeko eginkizuna ezarriko dute, eta eginkizun horren arduradunaren izena Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazteko prest egon beharko dute.

4. Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak zortzigarren xedapen gehigarrian dioenez, zenbait egintza inskribatu egin behar dira 133. artikuluan aipatutako erregistro administratiboan. Bada, aseguru-entitate bakoitzak egintza horiek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari bidaliko dizkio bide elektronikotik, inskriba daitezkeen, gehienez ere bi hilabeteko epean eskaera aurkezten denetik hasita.

Aseguru-entitateek 3. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak gorde eta eguneratu beharko dituzte, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko dizkiote apartatu honen arabera emandako informazioaren aldaketak, gehienez ere hamabost egun balioduneko epean, aldaketa erabakitzen denetik hasita.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bidez zehaztuko ditu informazio horren edukia eta hura bidaltzeko modua.

Inskripzioan zehaztu egingo da zer aseguru-entitaterentzat jarduten duen aseguru-banaketan aseguru-agente eskusiboak.

5. Aseguru-agente eskusibo batekin aseguru-agentziako kontratua sinatuz gero, aseguru-entitateak agenteari baimena eman ahal izango dio soilik aseguru-agentziako beste kontratu bat egin dezan beste aseguru-entitate batekin, entitate baimen-emailea aritzen ez den aseguru-arlo, arrisku edo kontratu jakinetan aritzeko.

Baimena ematen duen aseguru-entitateak baimen horren baldintzak jakinarazi beharko dizkio, idatziz, aseguru-agenteari beste agentzia-kontratu bat egiteko asmotan dabilen entitateari, eta baimenaren idatzoharra egingo du 133. artikuluan aipatutako erregistro administratiboan.

Entitate baimen-emailearen administratzaile gisa hura legez ordezkatzeko duen pertsonak emango du baimena, idatziz, aseguru-agentziako kontratuan bertan, edo geroago, kontratu horretan egindako aldaketa bat izango balitz bezala. Berriaz adieraziko da zenbat iraungo duen baimenak, zer aseguru-entitateri dagokion eta zer aseguru-arlo, kontratu edota eragiketa mota baimentzen diren.

Araubide hori ez da aplikatuko 148. artikuluan sareak lagatzeko akordioei buruz xedatutakoa aplikatzeko denean.

6. Aseguru-agente eskusiboak baimena jasoz gero, harekin beste agentzia-kontratu bat egiten duen aseguru-entitateak kontratu horren datuak bide elektronikotik bidali beharko ditu inskribatzeko, eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean gehienez, behin egiaztatuta artikulua honetan ezarritako betekizunak betetzen direla.

148. artikulua. *Aseguru-agente eskusiboen sareak lagatzeko akordioak.*

1. Ezertan eragotzi gabe I. tituluaren arabera sinatutako agentzia-kontratuak, aseguru-entitateek zerbitzu-prestaziorako kontratuak egin ahal izango dituzte euren aseguru-polizak banatzeko, euren erantzukizun zibil eta administratiboaren pean, beste aseguru-entitate batzuen aseguru-agente eskusiboen sareen bitartez. Beste aseguru-entitate batzuen agente eskusiboen sareak erabiltzen dituzten aseguru-entitateek bermatu egin beharko dute haiek badituztela lanerako ezagutza egokiak, zer aseguru banatzen dituzten kontuan hartuta.

Aseguru-entitateek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarri aurkeztu beharko dizkiote aurreko paragrafoan aipatutako kontratuak, bide elektronikotik aurkeztu ere, 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan inskriba daitezten informazio-ondorio hutsetarako; datu hauek eman beharko dituzte, gutxienez ere: ukitutako aseguru-entitateak, lagatako sarearen osaera, eremua, iraupena, biltzen dituen aseguru-arlo edo -kontratuak edo eragiketa motak, aldean betebeharrak, eragiketarako mugimendu ekonomiko eta finantzarioak, eta kontratu- eta publizitate-agirietan jaso behar diren aipamenak.

2. Ez da ulertuko talde bateko kide diren aseguru-entitateek elkarren arteko sare-lagapenik egiten dutenik, haietako edozeinek taldeko entitate guztien edo batzuen izenean sinatzen dituen agentzia-kontratuei dagokienez, baldin eta aurrez hala erabaki bada.

Agentzia-kontratuan jasorik utziko da zer aseguru-entitate dauden taldean. Halaber, taldearen izena jarri beharko da aseguru-agenteei aseguru-banaketa buruz egiten dituzten merkataritzako eta publizitateko dokumentu guztietan.

149. artikulua. *Lotutako aseguru-agenteen inskripzioa eta baldintzak.*

1. Aseguru-agente batek lotutako aseguru-agente gisa jardun nahi badu aseguru-agentziako kontratuak eginez hainbat aseguru-entitateekin, aurrez inskripzioa lortu beharko du 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan, 3. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Lotutako aseguru-agenteei aseguru-agenteen araubide orokorra izango dute, 140. artikulutik 146.era ezarritakoa, aseguru pribatuen banaketan jarduten dutenean.

Baldin eta, une jakin batetik aurrera, aseguru-agente eskusiboak lotutako aseguru-agente moduan jardun nahi badu, aseguru-agentzia eskusiboko kontratua egin dion aseguru-entitatearen baimena beharko du beste agentzia-kontratu batzuk sinatu ahal izateko beste aseguru-entitate batzuekin.

Gainerakoetan, nahikoa izango da lotutako agentea dela aipatzea sinatzen diren agentzia-kontratuetan.

3. Baldintza hauek bete beharko dira eta une oro mantendu, 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan lotutako aseguru-agenteen inskripzioa eskatu eta jaso ahal izateko:

a) Inskripzio-eskaerarekin batera informazio hau aurkeztea:

1.a. Aseguru-agentea pertsona juridikoa bada, haren boto-eskubideetan edo kapitalean zuzenean edo zeharka gutxienez ehuneko 10eko partaidetza duten akziodun edo bazkideen identitatea, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan.

2.a. Aseguru-agenteearekin lotura estuak dituzten pertsonen identitatea.

3.a. Partaidetza edo lotura estu horiek ez diotela Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarri eragotzen bere gainbegiratze-eginkizunak eraginkortasunez betetzea.

b) Egiaztatzea ezen honako hauek guztiek 128. artikuluan azaltzen den zintzotasun komertzial eta profesionalaren baldintza betetzen dutela: aseguru-agentea pertsona fisikoa izanez gero, aseguru-agentek berak; eta, pertsona juridikoa izanez gero, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideek, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsonak, oro har.

Aseguru-agentea pertsona juridikoa izanez gero, haren administratzaileek ere baldintza hori bete beharko dute.

c) Egiaztatzea ezen honako hauek ezagutza eta gaitasun egokiak dituztela eta horretarako prestakuntza-ikastaroak gainditu dituztela, I. tituluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraituz: aseguru-agentea pertsona fisikoa izanez gero, aseguru-agentek berak; eta, pertsona juridikoa izanez gero, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen erdiek, gutxienez, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsona guztiek.

d) Memoria bat aurkeztea, honako hauek azaltzeko: zer aseguru-entitaterentzat banatzen diren aseguruak eta aseguru-arloak; jarduteko lurralde-eremua, eta bezeroen kexa eta erreklamazioen ondoriozko gatazkak ebazteko ezarritako bideak. Gainera, e) letran aipatutako prestakuntza-programaren berariazko aipamena jaso beharko da.

e) Etengabeko prestakuntzako programa aurkeztea. Aseguru-agentea pertsona fisikoa izanez gero, berari aplikatuko zaio programa hori; eta, pertsona juridikoa izanez gero, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonari edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen erdiei, gutxienez, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsona guztiei.

Prestakuntza-programen dokumentazioa Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren eskura egongo da eta hark eskatu ahal izango du beharrezkoak diren aldaketak egin daitezela.

Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, ebazpen bidez, lotutako aseguru-agenteen hasierako eta etengabeko prestakuntzarako ikastaroen ildo nagusiak eta oinarrizko printzipioak ezarriko ditu, edukiari, antolaketari eta gauzatzeko moduari dagokienez, eta agenteek eurek eman ahal izango dituzte ikastaro horiek, I. tituluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraituz.

f) I. tituluan ezarritako bateraezintasun-kausetan sartuta ez egotea.

4. Lotutako aseguru-agente gisa inskribatzeko eskaera Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari aurkeztuko zaio, eta 3. apartatuan azaltzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak erantsiko dira. Eskaeraren berariazko ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten den egunetik aurrera. Inskripzioan zehaztu egingo da zer aseguru-entitaterentzat jardun ahal izango duen aseguru-banaketan lotutako aseguru-agentek. Inskripzioa egiteko baldintzak betetzen direla egiaztatu ezean, inskripzio-eskaera ezetsi egingo da.

5. Azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarriak dioenez, zenbait egintza aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboan inskribatu behar dira. Bada, lotutako aseguru-agentek, egintza horiekin zerikusia duen aldaketaren bat egiten badu aurreko apartatuaren arabera eman duen informazioan, horren berri jakinarazi beharko dio Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, hamabost egun balioduneko epean, aldaketa egiteko erabakiaren datatik hasita.

150. artikulua. *Zer den banku-aseguruaren operadorea.*

1. Banku-aseguruaren operadoretzat hartuko dira kreditu-entitateak, kredituko finantza-establezimenduak eta horiek kontrolatzen dituzten edo horien partaidetza duten merkataritza-sozietateak, 160. artikuluan adierazitakoaren arabera, baldin eta, aseguru-entitate batekin edo hainbatekin aseguruaren agentzia-kontratu bat eginez, horien aurrean konpromisoa hartzen badute aseguru-banaketan jarduteko aseguru-agente gisa beren banaketa-sareak erabilia.

Baldin eta aseguru-banaketaren jarduera kreditu-entitateak edo kredituko finantza-establezimenduak edo kreditu-entitateen nahiz kredituko finantza-establezimenduen taldeak kontrolatzen duen edo horien partaidetza duen merkataritza-sozietate baten bitartez egiten bada, merkataritza-sozietate horrekiko harremanak zerbitzuak elkarri emateko kontratu baten bidez arautuko dira; zerbitzu horien bitartez, zehazki, aipatutako kreditu-entitate edo kredituko finantza-establezimendu horietako bakoitzaren banaketa-sarea banku-aseguruen operadoreari lagako zaio aseguru-produktuak banatzeko. Aipatutako kontratuan, kreditu-entitateek edo kredituko finantza-establezimenduek aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten sareko kideei prestakuntza egokia emateko betebeharra hartuko dute beren gain.

2. Lehenengo tituluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kreditu-entitatearen edo kredituko finantza-establezimenduaren banaketa-sarea haren antolaketa-egitura osoa dela ulertuko da, barruan hartuta giza baliabideak eta materialak, bulego operatiboak eta agenteak.

151. artikulua. *Banku-aseguruen operadoreei buruzko arautegia.*

Banku-aseguruen operadoreak, aseguru-agentea den aldetik, 140. artikulutik 146.era aseguru-agenteentzat ezarritako araubide orokorrean xedatutakoa bete beharko du, bai eta, hala behar denean, 147. eta 148. artikuluetan aseguru-agente eskusiboei buruz eta 149. artikuluan lotutako agenteei buruz ezarritakoa ere, alde batera utzi gabe hurrengo artikuluetan prestakuntzari, erantzukizun zibil profesionalari, inskripzioa eskatzeko prozedurari, publizitateari eta merkataritzako dokumentazioari dagokienez xedatutakoa.

152. artikulua. *Banku-aseguruen operadoreen baldintzak.*

1. Baldintza hauek bete beharko dira eta une oro mantendu, 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan banku-aseguruen operadore gisa inskribaturik egoteko:

a) Kreditu-entitatea edo kredituko finantza-establezimendua izatea. Kreditu-entitateek edo kredituko finantza-establezimenduek kontrolatzen duten edo horien partaidetza duen merkataritza-sozietatea ere izan daiteke, baldin eta inskripzio administratiboa eskatu aurretik Merkataritza Erregistroan inskribaturik badago, eta estatutuetan, sozietatearen xedearen atalean, aurreikusita badauka aseguru-banaketan jardutea banku-aseguruen operadore gisa.

b) Memoria bat aurkeztea, honako hauek azaltzeko: zer aseguru-entitaterentzat banatzen diren aseguruak eta aseguru-arloak; jarduteko lurralde-eremua; bezeroen kexa eta erreklamazioen ondoriozko gatazkak ebazteko ezarritako bideak, eta banku-aseguruen operadoreak kreditu-entitateen edo kredituko finantza-establezimenduen zer sare erabiliko dituen aseguruak banatzeko. Gainera, e) letran aipatutako prestakuntza-programaren berriazko aipamena jaso beharko da.

c) Egiaztatzea ezen honako hauek guztiek 128. artikuluan azaltzen den zintotasun komertzial eta profesionalaren baldintza betetzen dutela: banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideek, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsonak, oro har.

Banku-aseguruen operadorearen administratzaileek ere baldintza hori bete beharko dute.

d) Egiaztatzea ezen honako hauek ezagutza eta gaitasun egokiak dituztela eta horretarako prestakuntza-ikastaroak gainditu dituztela: banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen erdiek, gutxienez, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsona guztiek. Kreditu-entitate edo kredituko finantza-establezimenduek eurek eman ahal izango dituzte ikastaro horiek, I. tituluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraituz.

e) Etengabeko prestakuntzako programa bat aurkeztea. Kreditu-entitate edo kredituko finantza-establezimenduek prestakuntza hori emango diote banaketa-jardueraren ardura duen pertsonari, edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-

organoko kideen erdiei, gutxienez, baita banaketa-sarea osatu eta aseguruen banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsoneri ere. Ondorio horietarako, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, ebazpen bidez, d) letran aipatutako pertsona guztien hasierako eta etengabeko prestakuntzarako programen ildo nagusiak eta oinarritzko printzipioak ezarriko ditu, edukiari, antolaketari eta gauzatzeko moduari dagokienez.

f) Hirugarrenetikiko betebeharrak bermatzea, 136.4 eta 142. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

g) Egiaztatzea ezen berarekin aseguru-agentziako kontratua egingo duten aseguru-entitate guztiek euren gain hartuko dutela banku-aseguruaren operadore gisa jardutearen ondoriozko erantzukizun zibil profesionala, edo operadore horrek baduela erantzukizun zibil profesionala aseguru nahiz beste edozein finantza-berme, Europar Batasunaren lurralde osoan arduragabekeria profesionalarengatik sor daitezkeen erantzukizunak estaltzen dituen, gutxienez 1.250.000 euroekin ezbehar bakoitzeko, eta, denetara, 1.850.000 euroekin urte jakin bateko ezbehar guztietarako, sinatutako agentzia-kontratuaren bidezko estaldurarik ez duen jarduerari dagokionez.

h) Informazio hau ematea eta eguneratuta edukitzea:

1.a. Banku-aseguruaren operadorearen boto-eskubideetan edo kapitalean zuzenean edo zeharka ehuneko 10eko edo gehiagoko partaidetza duten akziodun edo bazkideen identitatea, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan.

2.a. Banku-aseguruaren operadorearekin lotura estuak dituzten pertsonen identitatea.

3.a. Partaidetza edo lotura estu horiek ez diotela Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eragozten bere gainbegiratze-eginkizunak eraginkortasunez betetzea.

i) 154. artikuluan ezarritako bateraezintasun-kausetan sartuta ez egotea.

2. Banku-aseguruaren operadoreak Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari aurkeztuko dio inskripzio-eskaera, eta aurreko apartatuan azaltzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak erantsiko ditu. Eskaeraren berariazko ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkeztu den egunetik aurrera. Inskripzioan zehaztu egingo da zer aseguru-entitaterentzat jardun ahal izango duen aseguru-banaketan banku-aseguruaren operadoreak. Inskripzioa egiteko baldintzak betetzen direla egiaztatze ezean, inskripzio-eskaera ezetsi egingo da.

3. Azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarriak dioenez, zenbait egintza aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboan inskribatu behar dira. Bada, banku-aseguruaren operadoreak, egintza horiekin zerikusia duen aldaketaren bat egiten badu aurreko apartatuaren arabera eman duen informazioan, horren berri eman beharko dio Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, hamabost egun balioduneko epean, aldaketa egiteko erabakiaren egunetik kontatzen hasita.

4. 1.g) apartatuan aipatutako zenbatekoak Aseguruaren eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak ezartzen dituen eguneratzeen arabera aldatuko dira.

Eguneratze horiek ezagutu eta aplikatu daitezten, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez aditzera emango dira.

153. artikulua. *Banku-aseguruaren operadoreek aseguru pribatuak banatzea: publizitatea eta merkataritza-dokumentazioa.*

1. Banku-aseguruaren operadoreen aseguru-banaketari buruzko publizitatean eta merkataritza-dokumentazioan, nabarmenduta agertu beharko da «banku-aseguruaren operadore eskusiboa» edo, hala denean, «lotutako banku-aseguruaren operadorea» esapidea, eta, jarraian, agentzia-kontratuaren babesean zer aseguru-entitaterentzat egiten ari den dena delako banaketa-eragiketa, harexen sozietate-izena ipini behar da; horrez gain, 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboko inskripzio-zenbakia jarriko da, eta, kasua bada, erantzukizun zibileko aseguru edo bestelako finantza-bermeren bat itundu dela adieraziko da, hori guztia 152. artikuluekin bat etorritik.

2. Banku-aseguruen operadoreak oro har edo bitarteko telematikoz egiten duen publizitatean zera aipatuko da: zer aseguru-entitateekin daukan sinatuta aseguru-agentziako kontratua.

154. artikulua. *Banku-aseguruen operadoreen bateraezintasunak.*

1. Banku-aseguruen operadoreek, behin aseguru-kontratu batean esku hartuz gero, ezingo dute jardun aseguru-artekari edo horren kanpoko laguntzaile, hirugarren peritu, aseguru-peritu edo matxura-komisario gisa aseguru-kontratu horretako aseguru-hartzaile, aseguratu eta onuradunek izendatuta.

2. Aseguruen banaketan parte hartzen duten kreditu-entitateen edo kredituko finantza-establezimenduen banaketa-sareek ezin izango dute aldi berean jardun bestelako aseguru-bitartekariaren kanpoko laguntzaile gisa, eta ezin izango dira xede horretarako zatitu.

4. azpiatala. Aseguru-artekariak

155. artikulua. *Zer den aseguru-artekaria.*

1. Aseguru-artekariak pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke, eta aseguruen banaketan jarduten dute, arriskueterako estaldura eskatu nahi dutenei aholkularitza independentea eskainiz, banakako azterketa objektiboan oinarritua.

2. Asegurua ituntzeko asmotan ari direnei aseguru-artekariak informazioa eman behar diete komenigarritzat jotzen duten kontratuaren baldintzei buruz, eta, euren irizpide profesionalaren arabera, haien beharrezanetarako estaldurarik egokiena eskaini behar dute; halaber, aseguru-polizak eraginkorra izateko eta ondorio beteak sortzeko bildu behar dituen baldintzak betetzen diren zainduko dute.

3. Gainera, aseguru-kontratu batean esku hartuz gero, kontratu horren indarraldian betebeharrak hauek izango dituzte: aseguruaren hartzaileari, aseguratuari eta onuradunari eskatzen duten informazioa ematea polizako edozein klausulari buruz, eta, ezbeharrak gertatuz gero, laguntza eta aholkularitza eskaintzea.

156. artikulua. *Aseguru-entitateekiko eta bezeroekiko harremanak.*

1. Aseguru-artekariak aseguruen banaketan jardutearen ondorioz aseguru-entitateekin dituen harremanak alderdiek askatasunez adosten dituzten itunen bidez arautuko dira. Itun horiek ez diote inola ere eragingo aseguru-artekariaren independentziari.

2. Aseguru-artekariak aseguru-banaketan jardutearen ondorioz bezeroekin dituen harremanak alderdiek askatasunez adosten dituzten itunen bidez arautuko dira, baita, ordezkio arau gisa, Merkataritza Kodean merkataritzako komisioari buruz dauden manuen bidez ere.

3. Aseguru-entitateak aseguru-artekariari komisio eran ordainduko dio aseguruen banaketan egindako lana.

Artekariak eta bezeroak idatziz adostu ahal izango dute artekariaren ordainsariak barruan har ditzala bezeroari zuzenean fakturatuko zaizkion zerbitzu-sari profesionalak. Hala egiten badute, zerbitzu-sari horien faktura aseguru-entitateak emandako prima-ordainagiritik bereiz egingo da.

4. Aseguruaren hartzaileak artekariari prima ordaintzen dionean ez da ulertuko aseguru-entitateari ordaindu diola, salbu eta, trukean, artekariak aseguru-entitatearen prima-ordainagiria ematen badio aseguruaren hartzaileari.

5. Betiere, aseguruaren hartzailearen adostasuna beharrezkoa izango da aseguru-kontratu indardunean bitartekaritza-posizioa aldatu ahal izateko.

Hartzaileak berariaz baimenduta eta haren izenean aseguru-artekari batek bitartekaritza-posizioaren aldetari buruz aseguru-entitateari egiten dizkion jakinarazpenek hartzaileak berak egingo balitu bezala sortuko dituzte ondorioak, hartzaileak kontrakorik adierazi ezean.

157. artikulua. *Aseguru-artekarien baldintzak.*

1. Baldintza hauek bete beharko dira, eta une oro mantendu, 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan aseguru-artekari gisa inskribaturik egoteko:

a) Aseguru-artekariak, pertsona fisikoak izanez gero, merkataritza aritzeko legezko gaitasuna eduki beharko dute, eta pertsona juridikoak izanez gero, merkataritza- edo kooperatiba-sozietateak izan beharko dute, Merkataritza Erregistroan eta kooperatiben erregistro egokian inskribaturik egon beharko dute inskripzio administratiboa eskatu aurretik, eta estatutuetan, sozietatearen xedeari buruzko atalean, aurreikusita eduki beharko dute aseguru-banaketan aritzea aseguru-artekari gisa. Aseguru-artekaria akzioakako sozietatea denean, akzioek izendunak izan beharko dute.

b) Jarduera-programa aurkeztea, honako hauek azaltzeko, gutxienez: zer aseguru-arlota eta zer arrisku motatan jardun nahi den artekaritza; printzipio gidariak eta jarduteko lurralde-eremua; antolaketa-egitura, merkaturatze-sistemak barne; programa gauzatzeko erabiliko diren giza baliabideak eta materialak, eta bezeroen kexa eta erreklamazioen ondoriozko gatazkak ebazteko ezarritako bideak. Gainera, programa horrek plan bat eduki beharko du sozietatearen lehen hiru ekitaldietarako, eta bertan xehetasunez azaldu beharko dira diru-sarrera eta gastuen aurreikuspenak, batez ere gastu orokor arruntenak, eta banatuko diren aseguru-primei buruzko aurreikuspenak; eta justifikatu beharko da nola aurreikuspenok zuzenak diren eta dauden baliabideak eta bitartekoak haiek betetzeko egokiak diren.

c) Egiaztatzea ezen honako hauek guztiek 128. artikuluan azaltzen den zintotasun komertzial eta profesionalaren baldintza betetzen dutela: aseguru-artekaria pertsona fisikoa izanez gero, aseguru-artekariak berak; eta pertsona juridikoa izanez gero, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideek, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsonak, oro har.

Aseguru-artekaria pertsona juridikoa izanez gero, haren administratzaileek ere baldintza hori bete beharko dute.

d) Egiaztatzea ezen honako hauek ezagutza eta gaitasun egokiak dituztela eta horretarako prestakuntza-ikastaroak gainditu dituztela, I. tituluaren eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraituz: aseguru-artekaria pertsona fisikoa izanez gero, aseguru-artekariak berak; eta pertsona juridikoa izanez gero, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen erdiek, gutxienez, eta aseguru-banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsona guztiek.

e) Etengabeko prestakuntzako programa aurkeztea. Aseguru-artekaria pertsona fisikoa izanez gero, berari aplikatuko zaio programa hori; eta pertsona juridikoa izanez gero, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonari edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen erdiek, gutxienez. Aseguruaren banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsonen ere programa hori aplikatu beharko zaie. Ondorio horietarako, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, ebazpen bidez, apartatu honen d) letran aipatutako pertsona guztien hasierako eta etengabeko prestakuntzarako ikastaroen ildo nagusiak eta oinarrizko printzipioak ezarriko ditu, edukiari, antolaketari eta gauzatzeko moduari dagokienez, eta artekariak ikastaro horiek eman ahal izango dituzte, I. tituluaren eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraituz.

f) Finantza-ahalmen nahikoa izatea: une oro iritsi beharko da urtean jasotako primen guztizko zenbatekoaren ehuneko 4ra, eta ezingo da 19.510 euro baino gutxiago izan, salbu eta kontratu bidez aseguru-entitateekin berariaz ituntzen denean bezeroek ordaindutako zenbatekoak zuzenean sartuko direla aseguru-entitateen titulartasuneko ordainketa-kontuetan, edo, kasua bada, aseguru-artekariak berehalako estaldura eskaintzen dionean hartzaileari, betiere aseguru-entitateak artekariari baimena eman badio hartzaileek ordaindutako primak aseguru-entitatearen izenean eta kontura jasotzeko, hark igorritako prima-ordainagiria entregatuz, eta, batera zein bestera, aseguru-entitateek zuzenean ematen badizkiete kalte-ordainak aseguru-hartzaileei, aseguratuei edo onuradunei.

Finantza-ahalmena egiaztatzeko, finantza-entitate batek emandako abal bat edo kauzio-aseguru bat kontratatu ahal izango da, bezeroak babestuta egon daitezen aseguru-

artekariak ezin badio prima transferitu aseguru-entitateari edo ezin badio kalte-ordaina edo primaren itzulketa transferitu aseguratuari.

Aurrekoak ez du ezertan eragozten 136.4 artikuluan xedatutakoa.

g) Erantzukizun zibil profesionaleko aseguru nahiz beste edozein finantza-berme kontratatzea, Europar Batasunaren lurralde osoan arduragabekeria profesionalarengatik sor daitezkeen erantzukizunak estaltzen dituen, gutxienez 1.300.380 euroekin ezbehar bakoitzeko, eta, denetara, 1.924.560 euroekin urte jakin bateko ezbehar guztietarako.

Aseguru-artekariak, zenbait produktutan beste artekari baten zuzendaritzapean jarduten badu eta hark bere gain hartzen badu beraren egintzen erantzukizun osoa, aurretik horren berri eman beharko dio bezeroari, idatziz.

h) Informazio hau ematea eta eguneratuta edukitzea:

1.a. Aseguru-artekariaren boto-eskubideetan edo kapitalean zuzenean edo zeharka ehuneko 10eko edo gehiagoko partaidetza duten akziodun edo bazkideen identitatea, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan.

2.a. Aseguru-artekariarekin lotura estuak dituzten pertsonen identitatea.

3.a. Partaidetza edo lotura estu horiek ez diotela Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eragozten bere gainbegiratze-eginkizunak eraginkortasunez betetzea.

i) 159. artikuluan ezarritako bateraezintasun-kasuetan ez egotea.

2. Aseguru-artekariak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari aurkeztuko dio inskripzio-eskaera, eta aurreko apartatuan azaltzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak erantsiko ditu. Eskaeraren berriazko ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da, inskripzio-eskaera aurkeztu den egunetik aurrera. Inskripzioa egiteko baldintzak betetzen direla egiaztatu ezean, inskripzio-eskaera ezetsi egingo da.

3. Azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarriak dioenez, zenbait egintza aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboan inskribatu behar dira. Bada, aseguru-artekariak, egintza horiekin zerikusia duen aldaketaren bat egiten badu aurreko apartatuaren arabera eman duen informazioan, horren berri jakinarazi beharko dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, hamabost egun balioduneko epean, aldaketa egiteko erabakiaren egunetik kontatzen hasita.

4. 1.f) eta 1.g) letretan aipatutako zenbatekoak Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak ezartzen dituen eguneratzeen arabera aldatuko dira.

Ondorio horietarako, eguneratze horiek ezagutu eta aplikatu daitezten, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez aditzera emango dira.

158. artikulua. *Aseguru-artekariak aseguru pribatuak banatzea: publizitatea eta merkataritza-dokumentazioa.*

1. Aseguru-artekariaren aseguru-pribatuen banaketari buruzko publizitatean eta merkataritza-dokumentazioan nabarmenduta agertu beharko da «aseguru-artekaria» edo «aseguru-artekaritza» esapidea. Adieraziko dute, halaber, 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan inskribatuta daudela, erantzukizun zibileko aseguru edo bestelako finantza-bermeren bat daukatela itunduta, eta, hala behar denean, eskatzen den finantza-ahalmena badutela, hori guztia 157. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Baldin eta, aseguru-artekaria pertsona juridikoa izanda, haren kapital sozialean partaidetza handia badu aseguru- edo berraseguru-entitate edo aseguru-agenteren batek –pertsona fisikoa nahiz juridikoa izan–, edo aseguru-artekaria, berez edo ordezkarien bidez, aseguru- edo berraseguru-entitatearen baten administrazio-organoan badago, edota aseguru- edo berraseguru-entitatearen baten kapital sozialean partaidetza handia badu, lotura hori nabarmenduta jaso beharko du aseguru pribatuen banaketari buruzko publizitate eta merkataritzako dokumentazio guztian.

Horrelako kasuetan 160. artikuluko xedapenak aplikatu beharko dira.

159. artikulua. *Aseguru-artekarien bateraezintasunak.*

1. Pertsona fisiko hauek ezin izango dira aseguru-artekaritzan aritu, bateraezintasuna dela eta:

a) Aseguru-agentekak.
b) Aseguru-agenteen edo banku-aseguruen operadoreen kanpoko kolaboratzaileak.
c) Aseguru-perituak, matxura-komisarioak eta matxura-likidatzaileak, salbu eta jarduera horiek aseguru-kontratu bidezko aseguru-hartzaile, aseguratu edo onuradunak aholkatzeko soilik egiten direnean.

2. Pertsona juridikoek, aseguru-artekaritzan jarduten badute, aldi berean ezin izango dituzte egin jarduera hauek:

a) Aseguratzailaren edo berraseguratzailaren jarduera.
b) Harpidetza-agentziaren jarduera.
c) Aseguru-agentearen jarduera edo banku-aseguruen operadorearen jarduera.
d) Aseguru-agenteen edo banku-aseguruen operadoreen kanpoko kolaboratzailearen jarduera.
e) Sozietatearen xede eskusiboa behar duten gainerako jarduerak.
f) Aseguru-perituaren, matxura-komisarioaren edo matxura-likidatzailearen jarduerak, salbu eta jarduera horiek aseguru-kontratu bidezko aseguru-hartzaile, aseguratu edo onuradunak aholkatzeko soilik egiten direnean.

5. azpiatala. Banku-aseguruen operadoreen eta aseguru-artekarien lotura estuak eta partaidetza handiak

160. artikulua. *Lotura estuak eta partaidetza handiak: araubidea.*

1. Aseguru-artekariak (pertsona juridikoak badira) eta banku-aseguruen operadoreek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dizkiote pertsona fisiko edo juridikoekin egitekoak dituzten harremanak, horiek lotura estuak sorraraz baditzakete, 128.12 artikuluan definitzen diren bezalakoak. Egin asmo dituzten akzio- eta partaidetza-eskualdaketak ere jakinarazi beharko dituzte, horiek berekin ekar badezakete partaidetza handia lortzea 128.13 artikuluaaren arabera.

2. Informazioa aurkezten diotenetik hasita, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hiru hilabeteko epea izango du partaidetza handia eskuratzearen kontra egiteko, edo hura handitzearen kontra, gehikuntza ehuneko 20ra, ehuneko 30era edo ehuneko 50era iristen denean; eta kontra egin ahal izango du, halaber, partaidetza eskuratuta aseguru-artekaria (pertsona juridikoa) edo banku-aseguruen operadorea kontrolatzeko aukera dagoenean. Kontra egiteko oinarritzat hartu beharko da partaidetza eskuratu nahi duenak ez dituela betetzen 128. artikuluan definitutako zintzotasun komertzial eta profesionalaren baldintzak, edo I. tituluko debekuren bat duela. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hiru hilabeteko epean ezer adierazten ez badu, partaidetza eskuratu edo handitu ahal izango da. Partaidetza handia eskuratzearekin edo handitzearekin ados dagoela adierazten badu, eskuratze hori egiteko jakinarazitako gehieneko epearen orde besterik jarri ahal izango du.

3. Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezertan eragozten arau hauek aplikatzea: partaidetza handiak eskuratzeko eskaintza publikoei eta haien gaineko informazioari buruzko arauak; Balore Merkatuaren Legearen testu bateginean eta hura garatzeko arauetan jasotakoak (testu bategin hori urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), eta kontzentrazio ekonomikoen kontrolari buruzko arauak, Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legean jasotakoak.

*2. atala. Aseguru-banatzailleak**161. artikulua. Berraseguru-entitateen langileek berraseguru-produktuak banatzea*

Berraseguru-entitateei III. kapituluaren 1. atalaren 2. azpiatalean ezarritako baldintzak aplikatuko zaizkie, eta azpiatal horretan aseguru-entitateez egiten diren aipamenak berraseguru-entitateei buruzkoak direla ulertuko da.

162. artikulua. Zer den berraseguru-artekaria.

1. Berraseguru-artekariak pertsona fisikoak edo juridikoak dira, 129. artikuluan definitutako berraseguru-banaketan jarduten dutenak ordainsari baten truke.

2. Berraseguru-artekaritzan jardun ahal izateko beharrezkoa izango da 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan inskribatuta egotea.

Erregistro administratibo horretan inskribatuta egoteko, 157.1 artikuluko a), c), d), e), g) eta h) letretan ezarritako baldintzak bete eta une oro mantendu beharko dira. Manu horretan aseguru-artekariei buruz dauden aipamenak berraseguru-artekariei buruzkoak direla ulertuko da.

3. Berraseguru-artekari gisa inskribatzeko eskaera Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari aurkeztuko zaio, eta aurreko apartatuan azaltzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak erantsiko dira. Eskaeraren berariazko ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da, inskripzio-eskaera aurkezten den egunetik aurrera. Inskripzioa egiteko baldintzak betetzen direla egiaztatu ezean, inskripzio-eskaera ezetsi egingo da.

4. Inskripzioak berraseguru-artekaritzan jarduteko bakarrik gaituko du. Berraseguru-artekariak, aldi berean aseguru-banaketan jardun nahi badu, aseguru-bitartekari gisa ere egon behar du inskribatuta.

5. Azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarriak dioenez, zenbait egintza aseguru- eta berraseguru-banatzaillearen erregistro administratiboan inskribatu behar dira. Bada, berraseguru-artekariak, egintza horiekin zerikusia duen aldaketaren bat egiten badu 3. apartatuaren arabera eman duen informazioan, horren berri jakinarazi beharko dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, hamabost egun balioduneko epean, aldaketa egiteko erabakiaren egunetik kontaktzen hasita.

6. Berraseguru-artekariei 136.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.

7. Berraseguru-artekariei ez zaizkie aplikatuko I. tituluaren III. kapituluaren 4. atalean eta 6. atalean jasotako xedapenak.

163. artikulua. Berraseguru-entitateekiko eta bezeroekiko harremanak.

1. Berraseguru-artekarien eta berraseguru-entitateen arteko harremanak alderdiek askatasunez adosten dituzten itunen bidez arautuko dira, eta itun horiek merkataritzakoak izango dira. Ordezko arau gisa, Merkataritza Kodean merkataritzako komisioari buruz dauden manuak aplikatuko dira.

2. Kontratua ordaindua izango da, eta primen gaineko komisioak edo bestelako eskubide ekonomikoak zehaztuko ditu, berraseguru-artekariak kontratuaren indarraldian zehar eta, kasua bada, kontratua azkendu eta gero jaso beharrekoak.

164. artikulua. Hirugarrenekiko betebeharrak.

Berraseguru-artekariak berraseguru-banaketari buruzko publizitatean eta merkataritza-dokumentazioan nabarmendu beharko dute berraseguru-artekariak direla, 133. artikuluan aipatutako erregistro administratiboan inskribatuta daudela eta erantzukizun zibileko aseguru edo bestelako finantza-bermeren bat itunduta daukatela 162.2 artikulua ezartzen duen moduan.

3. atala. Aseguru-banatzaileen eta berraseguru-banatzaileen prestakuntzarako ikastaroak

165. artikulua. Prestakuntza-ikastaroen baldintzak eta antolamendua.

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, ebazpen bidez, finantza-gaiei eta aseguru pribatuei buruzko prestakuntza-ikastaroen ildo nagusiak eta oinarritzko printzipioak ezarriko ditu, edukiari, antolaketari eta gauzatzeko moduari dagokienez, eta ikastaro horiek programatu beharko dira parte-hartzaileek frogatutako aurretiazko ezagutzen eta lanbide-trebakuntzaren arabera, hori guztia XII. eranskinean ezarritakoari jarraituz.

Etengabeko prestakuntzarako ikastaroetan kontuan hartuko da banatzailea zer motatakoa den, zer produktu banatzen dituen, zer funtzio betetzen duen eta zer jarduera egiten duen, eta gutxienez hamabost prestakuntza-ordu emango dira urtean.

2. Erregelamendu bidez garatuko dira prestakuntza-ikastaroak antolatu ahal izateko baldintzak, eta horietako bat izan daiteke aurrez baimena eskatu behar izatea Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, hala erabakitzen den prestakuntza-ikastaroetarako. Antolatzaileek ziurtagiriak emango dizkiete ikastaroak gainditzen dituztenei.

3. Edozein agintari eskudunek prestakuntza-zentroei emandako baimenak eraginkortasun nazionala izango du. Prestakuntza-zentro berri bat zabaltzen denean, baimenaren titularrak jakitun jarriko du bere autonomia-erkidegoko agintaritza eskuduna edo Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia, kasu bakoitzean behar dena.

4. Prestakuntza-ikastaroak XII. eranskinean xedatutakoari jarraituz eratuko dira.

4. atala. Gatazkak ebazteko mekanismoak

166. artikulua. Kexak eta erreklamazioak hartzea eta ebaztea.

1. Aseguru-entitateek, aseguru-artekariak eta aseguru-bitartekarien Espainiako sukurtsalek, bai eta Europar Batasuneko beste estatu batzuetako bitartekariak ere, horiek Espainian jarduten badute zerbitzuak emateko askatasunarekin, nahitaez jaso eta ebatzi beharko dituzte kexak eta erreklamazioak, I. tituluaren eta finantza-zerbitzuen bezeroen babesari buruzko araudian ezarritakoaren arabera horretarako legitimazioa duten subjektuek eginak badira.

2. Aseguru-entitateetako bezeroen arretarako departamentu eta zerbitzuek jaso eta ebatziko dituzte haien langileen eta aseguru-agenteen eta banku-aseguruen operadoreen jarduna dela-eta aurkezten diren kexak eta erreklamazioak, finantza-zerbitzuen bezeroen babesari buruzko araudian ezartzen den moduan.

3. Europar Batasuneko beste estatu batzuetako aseguru-artekari eta aseguru-bitartekariak, Espainian jarduten dutenean sukurtsal bidez, bezeroen arretarako departamentu edo zerbitzuren bat eduki beharko dute kexak eta erreklamazioak jaso eta ebazteko, ez badute bezeroaren defendatzailearen esku uzten kexa eta erreklamazio guztiak jaso eta ebazteko ardura, 167. artikuluan ezarritako eran.

Bezeroen arretarako departamentu edo zerbitzuaren eginkizunak kanpoan kontratatu ahal izango dituzte, euren antolaketa-egituratik at dagoen pertsona edo entitate batekin, baldin eta pertsona edo entitate horrek finantza-zerbitzuen bezeroen babesari buruzko araudian eskatzen diren baldintzak betetzen baditu.

4. Talde ekonomiko bereko beste sozietate batzuekin batera eduki ahal izango dute bezeroen arretarako departamentu edo zerbitzua.

167. artikulua. Bezeroaren defendatzailea.

1. Aseguru-entitateek eta aseguru-artekariak bezeroaren defendatzailea izendatu ahal izango dute, dela bakoitzak bere aldetik, dela aseguru-arloen, hurbiltasun geografikoaren, negozio kopuruaren nahiz bestelako irizpideen arabera elkartuta. Itzal

handiko entitate edo aditu independentea izan beharko du, eta bere esku jarritako kexa eta erreklamazioak aztertu eta ebaztiko ditu, bere funtzionamendu-erregelamenduak xedatzen duenaren esparruan. Halaber gardentasunari eta bezeroen babesari buruzko arauak eta finantza-arloko jardunbide eta ohitura egokiak bete daitezzen sustatuko du. Finantza-zerbitzuen bezeroen babesari buruzko araudian xedatutakoari jarraituz egingo du hori guztia.

2. Bezeroaren defendatzailearen erabakiak, erreklamazioaren aldekoa bada, lotetsi egingo du aseguru-entitatea edo aseguru-artekaria. Loteste hori ez da oztopo izango babes judizial osoa izateko, gatazkak ebazteko beste mekanismo batzuetara jotzeko eta babes administratiboa izateko.

3. Bezeroaren defendatzailea beste entitate batzuekin batera izendatu ahal izango da, entitate guztien bezeroen erreklamazioak jaso eta ebazt ditzan, bere funtzionamendu-erregelamenduan xedatutakoari jarraituz.

168. artikulua. *Finantza-zerbitzuen bezeroen babes administratiboa.*

1. Bezeroek legez aitortuak dituzten interes eta eskubideekin lotutako kexak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote administrazio-organo eskudunari, finantza-zerbitzuen bezeroen babesari buruzko araudian ezarritako prozedurari jarraituz, baita kontsumoaren arloko araudiari ere, hala behar denean.

2. Finantza-zerbitzuen bezeroen babesari buruzko araudian aseguru-entitateentzat xedatutakoa gorabehera, kexa edo erreklamazioaren gaia egoitza Espainian duten aseguru-bitartekarien jarduna edo Europar Batasuneko beste estatu batzuetako aseguru-bitartekarien Espainiako sukurtsalen jarduna denean, ezinbestez frogatu beharko da ezen kexa edo erreklamazio hori aldez aurretik aurkeztu zaiola entitateko bezeroen arretarako departamentu edo zerbitzuari, edo, hala badagokio, bezeroaren defendatzaileari.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiko erreklamazio-zerbitzuak aztertuko ditu aseguru-kontratu bidezko aseguru-hartzaileek, aseguratuak eta onuradunek aurkezten dituzten kexak eta erreklamazioak (erreklamazio-zerbitzu hori azaroaren 22ko 44/2002 Legeak arautzen du, finantza sistema erreformatzeko neurrienak, 30. artikuluan), harik eta azaroaren 2ko 7/2017 Legearen lehen xedapen gehigarriak aurreikusten duen legeak indar hartu arte (7/2017 Legeak Espainiako ordenamendu juridikoan sartzen du Kontsumoaren arloko gatazken ebazpen alternatiboari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 2013/11/EB Zuzentaraua).

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiko erreklamazio-zerbitzuak printzipio hauek beteko ditu bere jardunean: proportzionaltasuna, egokitasuna, inpartzialtasuna, eraginkortasuna, eta antolamenduaren eta funtzioen independentzia.

5. atala. *Egoitza Espainian duten aseguru- eta berraseguru-bitartekariak zerbitzuak emateko askatasunarekin jardutea eta kokatzeko eskubidearekin jardutea Europar Batasuneko beste estatu batzuetan*

169. artikulua. *Zerbitzuak emateko askatasunarekin jardutea.*

1. Egoitza Espainian izan eta Europar Batasuneko beste estatu baten lurraldean zerbitzuak emateko askatasunarekin jardun nahi duten aseguru- edo berraseguru-bitartekari guztiek informazio hau eman behar diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari:

- Izena, helbidea eta erregistro-zenbakia.
- Zer estaturen lurraldean jardun nahi duen.
- Zer bitartekari mota den, eta, hala behar denean, zer aseguru- edo berraseguru-entitate ordezkatzen dituen.
- Zer aseguru-arlotan egin nahi duen banaketa-jarduera.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, hilabeteko epean, 1. apartatuan aipatzen den informazioa jasotzen duen egunetik hasita, informazio hori Europar Batasuneko harrera-estatuko agintaritzak eskudunari jakinaraziko dio, salbu eta jakinarazpen hori egiteari uko egiten dionean, bitartekariaren antolaketa-egituraz edo finantza-egoeraz zalantza egiteko arrazoiak dituelako. Informazioa Europar Batasuneko harrera-estatuari igortzeari uko egiten badio, epe berean horren berri eman beharko dio aseguru- edo berraseguru-bitartekariari, idatziz eta arrazoiak azalduta.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru- edo berraseguru-bitartekariari idatziz adieraziko dio Europar Batasuneko harrera-estatuko agintari eskudunak informazioa jaso duela eta bitartekaria jardunean has daitekeela estatu horretan.

Hala behar denean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aldi berean bitartekariari adieraziko dio ezen Europar Batasuneko harrera-estatuan interes orokorreko arrazoiengatik aplikatzen diren xedapen nazionalen gaineko informazioa eskuragarri dagoela bai Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzaren webgunean bai Europar Batasuneko harrera-estatuak ezarritako harreman-gune bakarrean, eta bitartekariak xedapen horiek bete behar dituela harrera-estatu horretan lanean hasi ahal izateko.

4. Aldaketaren bat gertatzen bada 1. apartatua aplikatuz emandako datuetan, aseguru- edo berraseguru-bitartekariak horren jakitun jarriko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia, aldaketa eraginkorra izan baino hilabete lehenago, gutxienez. Europar Batasuneko harrera-estatuko agintari eskudunari ere aldaketa horren berri emango dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, informazioa jasotzen duenetik hilabete igaro baino lehen.

170. artikulua. *Establezimendu-askatasunarekin jardutea.*

1. Egoitza Espainian duen aseguru- edo berraseguru-bitartekariak, Europar Batasuneko beste estatu baten lurraldean kokatze-eskubidearekin jardun nahi badu sukurtsal baten bitartez nahiz estatu horren lurraldeko presentzia iraunkorraren bitartez, honako informazio hau eman beharko dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari:

- a) Izena, helbidea eta erregistro-zenbakia.
- b) Zer estaturen lurraldean jardun nahi duen, eta estatu horretan izango duen sukurtsalaren helbidea, zeinean lortu ahal izango baita dokumentazioa.
- c) Zer bitartekari mota den, eta, hala behar denean, zer aseguru- edo berraseguru-entitate ordezkatzen dituen.
- d) Zer aseguru-arlotan egin nahi duen banaketa-jarduera.
- e) Sukurtsalaren edo establezimendu iraunkorraren kudeaketaz arduratuko diren pertsona guztien identifikazioa.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, hilabeteko epean, 1. apartatuan aipatzen den informazioa jasotzen duen egunetik hasita, informazio hori Europar Batasuneko harrera-estatuko agintaritzak eskudunari jakinaraziko dio, salbu eta jakinarazpen hori egiteari uko egiten dionean, bitartekariaren antolaketa-egituraz edo finantza-egoeraz zalantza egiteko arrazoiak dituelako. Informazioa Europar Batasuneko harrera-estatuari igortzeari uko egiten badio, horren berri eman beharko dio aseguru- edo berraseguru-bitartekariari idatziz eta arrazoiak azalduta, epe berean.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru- edo berraseguru-bitartekariari adieraziko dio, idatziz, Europar Batasuneko harrera-estatuko agintari eskudunak informazioa jaso duela.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak bitartekariari jakinaraziko dizkio Europar Batasuneko harrera-estatuak interes orokorreko arrazoiengatik onartu dituen xedapenak, eta xedapen horiek betez gero harrera-estatuan lanean has daitekeela adieraziko dio.

Baldin eta Europar Batasuneko harrera-estatuko agintari eskudunak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari ez badio hilabeteko epean informaziorik ematen estatu horretan interes orokorreko arrazoiengatik aplikatzen diren xedapen nazionalen buruz, Zuzendaritza Nagusiak bitartekariari adieraziko dio lanean has daitekeela Europar Batasuneko harrera-estatu horretan.

5. Aldaketaren bat gertatzen bada 1. apartatua aplikatuz emandako datuetan, aseguru- edo berraseguru-bitartekariak horren jakitun jarriko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia, aldaketa eraginkorra izan baino hilabete lehenago, gutxienez. Europar Batasuneko harrera-estatuko agintari eskudunari ere aldaketa horren berri emango dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, informazioa jasotzen duenetik hilabete igaro baino lehen.

6. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, sukurtsaltzat hartuko da bitartekari batek Europar Batasuneko beste estatu baten lurraldean duen presentzia iraunkorra, presentzia hori sukurtsalaren baliokidea bada.

171. artikulua. *Arau orokorra.*

Atal honek arautzen ez dituen alderdietan, III. kapituluko xedapenei jarraituko diete egoitza Espainian izan eta zerbitzuak emateko askatasunarekin edo kokatzeko eskubidearekin jarduten duten aseguru- eta berraseguru-bitartekariak.

6. atala. *Informazio-betebeharrak eta jokatzeko arauak*

1. azpiatala. *Informazio-betebehar orokorrak*

172. artikulua. *Printzipio orokorra.*

1. Aseguru-banatzailleek beti zintotasunez, zuzentasunez eta profesionaltasunez jardungo dute euren bezeroen interesen mesedetan.

2. Lehen tituluaren eremuko informazio guztiek, aseguru-banatzailleek bezeroei edo bezero izan daitezkeenei igorritako publizitate-komunikazioak barne, zehatzak, argiak eta engainurik gabekoak izan beharko dute. Publizitate-komunikazioak halakotzat argi bereizteko modukoak izango dira.

3. Aseguru-banatzailleek ezin izango dute bezeroen interesen mesedetan jokatzeko betebeharraren kontrako eran jaso euren ordainsaria, ezta euren langileen errendimendua ebaluatu ere. Bereziki, aseguru-banatzailleak ez du ezarriko ordainketa-sistema, salmenta-helburuen araberako sistema edo bestelako sistemarik pizgarri izan daitekeenik aseguru-banatzailleak berak edo beraren langileek aseguru-produktu jakin bat gomendatzeko bezeroari, aseguru-banatzailleak beste produktu egokiago bat eskain dezakeenean bezeroaren beharizanetarako.

173. artikulua. *Aseguru-artekariak aurretik eman beharreko informazio orokorra.*

1. Aseguru-kontratua egin aurretik, nahikoa denbora lehenago, aseguru-bitartekariak informazio hau eman beharko dio bezeroari:

a) Bere identitatea eta helbidea, eta aseguru-bitartekaria dela.
b) Ea aholkularitarik eskaintzen duen merkaturatzen dituen produktuatarako.
c) III. kapituluaren 4. atalean jasotako prozedurak, bezeroek eta beste interesdun batzuek erabil ditzaketenak aseguru-banatzaillei buruzko kezak aurkezteko, eta gatazkak judizios kanpo ebazteko prozedurak.

d) Nola tratatuko dituen datu pertsonalak, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzekoak) 5.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

e) Zer erregistrotan dagoen inskribatuta eta zer egin daitekeen inskripzioa egiaztatzeko.

f) Ea bezeroa ordezkatzuz diharduen ala aseguru-entitatearen izenean eta haren kontura diharduen.

g) Ea ehuneko 10eko edo gehiagoko partaidetzarik duen, zuzenean edo zeharka, aseguru-entitatearen baten boto-eskubideetan edo kapitalean.

h) Ea aseguru-entitatearen batek edo entitate horren enpresa nagusiak ehuneko 10eko edo gehiagoko partaidetzarik duen, zuzenean edo zeharka, aseguru-bitartekariaren boto-eskubideetan edo kapitalean.

i) Eskaini duen edo berari buruz aholku eman duen kontratua dela-eta:

1.a. Ea azterketa objektibo eta pertsonalizatu batean oinarrituta eman duen aholku;

2.a. kontratu bidez behartuta dagoela aseguru-entitate bakar baten aseguruak banatzera, edo, kasua hala denean, hainbat aseguru-entitateekin dagoela baimenduta (aseguru-entitate horien izenak adierazi beharko ditu); edo, bestela,

3.a. ez dagoela kontratu bidez behartuta aseguru-entitate batekin edo batzuekin soilik jardutera aseguru-banaketan eta ez duela azterketa objektibo eta pertsonalizatuan oinarrituta ematen aholkua; kasu horretan, adierazi beharko du zer aseguru-entitateekin jardun dezakeen edo jarduten duen eskainitako aseguru-produktua banatzen, haien izenak emanez;

4.a. banku-aseguruen operadoreek, horrez gain, bezeroei adierazi beharko diete aseguru bat kontratatzeko xedez eman dietela aholku, eta ez kreditu-entitateak edo kredituko finantza-establezimenduak merkaturatzen duen beste produkturen bat kontratatzeko xedez.

j) Aseguru-kontratua dela-eta zer motatako ordainsaria jasoko duen.

k) Ea, aseguru-kontratua dela-eta:

1.a. Zerbitzu-sari baten truke lan egiten duen, hau da, bezeroak zuzenean ordaintzen dion;

2.a. komisio-truke lan egiten duen, hau da, ordainsaria aseguru-primaren barruan dagoen;

3.a. bestelako ordainsari baten truke lan egiten duen, aseguru-kontratuari lotuta eskainitako edo emandako edozein onura ekonomikoki tartean dela; edo

4.a. jasotzen duen ordainsaria 1., 2. eta 3. apartatuetan azaldutako moten konbinazioa den.

2. Bezeroak aseguru-bitartekariarekin idatziz zerbitzu-sarien ordainketa adosten duenean, bitartekariak bezeroari jakinaraziko dio zerbitzu-sari horren zenbatekoa edo, hori ezinezkoa bada, zerbitzu-saria kalkulatzeko metodoa.

3. Baldin eta, kontratua egin eta gero, bezeroak aldi aldi primez eta aurreikusitako ordainketez bestelako ordainketaren bat egiten badu aseguru-kontratuaren ondorioz, artikulua honetan aipatzen den informazioa emango zaio ordainketa horietako bakoitzeko.

4. Aseguru-kontratua aldatzen edo luzatzen denean ere, aurreko apartatuetan aipatzen den informazioa eman beharko da, baldin eta hasieran emandako informazioa aldatzen bada.

174. artikulua. *Aseguru-entitateak aurretik eman beharreko informazio orokorra.*

1. Aseguru-kontratua egin aurretik, nahikoa denbora lehenago, aseguru-entitateak informazio hau eman beharko dio bezeroari:

a) Bere identitatea eta helbidea, eta aseguru-entitatea dela.

b) Ea aholkularitzarik eskaintzen duen merkaturatzen dituen produktuatarako.

c) III. kapituluaren 4. atalean jasotako prozedurak, bezeroek eta beste interesdun batzuek erabil ditzaketenak aseguru-entitateei buruzko kexak aurkezteko, eta gatazkak judizioz kanpo ebazteko prozedurak.

d) Aseguru-kontratua dela-eta zer motatako ordainsaria jasoko duten bere langileek.

2. Baldin eta, kontratua egin eta gero, bezeroak aldian aldiko primez eta aurreikusitako ordainketez bestelako ordainketaren bat egiten badu aseguru-kontratuaren ondorioz, artikulua honetan aipatzen den informazioa emango zaio ordainketa horietako bakoitzeko.

3. Aseguru-kontratua aldatzen edo luzatzen denean ere, aurreko apartatueta aipatzen den informazioa eman beharko da, baldin eta hasieran emandako informazioa aldatzen bada.

175. artikulua. *Aseguru-banatzailleek aurretik aseguru-kontratuaz eman beharreko informazioa eta aholkuak.*

1. Aseguru-kontratua egin aurretik, aseguru-banatzailleak zehaztuko du zer eskatzen duen eta zer behar duen bezeroak, hark eman dizkion informazioetan oinarrituta, eta aseguru-produktuari buruzko informazio objektiboa eta ulergarria emango dio bezeroari, bere erabakia zertan oinarritu izan dezan.

Proposatzen diren kontratu guztiak errespetatu beharko dituzte bezeroak aseguru-arloan dituen eskakizun eta beharrianak.

2. Kontraturen bat egin aurretik aholku ematen bada, aseguru-banatzailleak aholku pertsonalizatuak eskainiko dizkio bezeroari, eta azalduko dio zergatik produktu jakin batek hobeto beteko dituen bere eskakizunak eta beharrianak.

Aseguru-bitartekari batek bezeroari adieraziz gero azterketa objektibo eta pertsonalizatuan oinarritutako aholkuak ematen dituela, merkatuan eskainitako aseguru-kontratu multzo nahiko handiaren analisisian oinarrituta eman beharko ditu aholkuak, bezeroaren beharrianetarako egokia litzatekeen aseguru-kontratuari buruzko gomendio pertsonalizatua egin ahal izateko, irizpide profesionali loturik.

3. Lehenengo eta bigarren apartatueta aipatutako zehaztapenak moldatu egingo dira proposatutako aseguru-produktuaren konplexutasuna eta bezero mota aintzat hartuta.

4. Ezertan ere eragotzi gabe azaroren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren 122., 123., 124., 125. eta 126. artikuluetan xedatutakoa, kontratua egin aurretik, aholku eman edo ez, eta aseguru-produktua 184. artikulua araberako pakete baten barruan egon edo ez, aseguru-banatzailleak aseguru-produktuari buruzko informazio ulergarria emango dio bezeroari, bezeroak bere erabakia zertan oinarritu izan dezan, eta kontuan izanik aseguru-produktuaren konplexutasuna eta bezero mota.

5. Europar Batasuneko beste estatu batzuetako aseguru-bitartekariak, kokatzeko eskubidearekin edo zerbitzuak emateko askatasunarekin Espainian jarduten dutenean, bezeroei informazio hau eman beharko diete aurreko apartatueta azalduetako modu berean: ea azterketa objektibo eta pertsonalizatuan oinarritutako aholkuak ematen dituzten eta ea kontratu bidez beharturik dauden aseguru-banaketako jarduerak aseguru-entitate batekin edo batzuekin soilik egitera.

176. artikulua. *Bizi-aseguruaz bestelako aseguru-kontratuei buruzko aurretiazko informazioa eman beharra: alde aurreko informazioaren agiria.*

1. Bizi-aseguruaz bestelako aseguru-produktuen banaketari dagokionez, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen I. eranskineko sailkapenari jarraituz, 175.4 artikulua aipagai duen informazioa emango da, aseguru-produktuei buruzko aurretiazko informazioa emateko dokumentu baten bitartez, paperean edo beste euskarri iraunkor batean, bizi-aseguruaz bestelako aseguru-produktuak banatzeko. Produktu horiei Batzordearen 2017ko abuztuaren 11ko 2017/1469 (EB) Betearazpen Erregelamendua aplikatuko zaie (erregelamendu horren bidez, aseguru-produktuei buruzko informazio-dokumentua aurkezteko formatu normalizatua ezartzen da).

2. Aseguru-entitateak –edo aseguru-bitartekariak, berak diseinatzen badu aseguru-produktua– aseguru-produktuari buruz aurretiazko informazioa emateko dokumentua prestatu beharko du, 1. apartatuan aipatzen den hori.

3. Aseguru-produktuari buruz aurretiazko informazioa emateko dokumentuak betekizun hauek bete beharko ditu:

- a) Agiri laburra eta independentea izango da.
- b) Aurkezpen eta egitura argiak izango ditu, erraz irakurtzeko modukoak, eta karaktereek ondo irakurtzeko adinako neurria izango dute.
- c) Jatorrizkoa koloretan egin bada, ez du argitasunik galdu beharko zuri-beltzean inprimatzen edo fotokopiatzen denean.
- d) Europar Batasuneko kasuan kasuko estatuko zer aldetan banatzen den aseguru-produktua, hango hizkuntza ofizialetan idatziko da informazioa, edo hizkuntza ofizialetako batean; edo beste hizkuntza batean, hala adosten badute bezeroak eta banatzaileak.
- e) Zehatza eta amarrurik gabekoa izango da.
- f) Lehenengo orrialdearen goiko aldean izenburu hau edukiko du: «aseguru-produktuari buruzko informazioa emateko dokumentua».
- g) Adierazpen bat edukiko du honako hau ohartarazteko: beste dokumentu batzuetan ematen dela kontratu aurreko eta kontratuko informazio osoa produktuari buruz.

4. Aseguru-produktuari buruzko informazioa emateko dokumentuak informazio hau edukiko du:

- a) Aseguru motari buruzko informazioa.
- b) Aseguruaren estalduren laburpena, barnean hartuta asegurututako arrisku nagusiak, asegurututako zenbatekoa, eta, egoki denean, aplikazio-eremu geografikoa, bai eta estalduratik kanpo utzitako arriskuen laburpena ere.
- c) Primak ordaintzeko baldintzak, eta ordainketen iraupena.
- d) Kanpo utzitako arrisku nagusiak, kalte-ordaina eskatzeko biderik ematen ez dutenak.
- e) Kontratuaren hasierako betebeharrak.
- f) Kontratuaren indarraldiko betebeharrak.
- g) Kalte-ordaina eskatzen denerako betebeharrak.
- h) Kontratuaren iraupena, hasierako eta amaierako datak barne.
- i) Kontratua hutsaltzeko modalitateak.

5. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatu behar zaien aseguruari dagokienez, ez da azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren 122., 125. eta 126. artikuluetan ezarritako informazioa eman beharrik izango, baldin eta, aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentuaren arabera, informazio hori behar bezala eman dela uste bada.

177. artikulua. *Aurretiazko informazioa eman beharraren salbuespena.*

Ez da 173., 174., 175. eta 176. artikuluetan aipatutako informazioa eman beharrik izango, baldin eta aseguru-banatzzaileak arrisku handietarako aseguruaren arloan egiten baditu banaketa-jarduerak.

2. azpiatala. Baldintza gehigarriak aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuen banaketan

178. artikulua. *Baldintza gehigarriak aplikatuko diren esparrua.*

172., 173., 174., 175. eta 176. artikuluen arabera aseguruaren banaketari aplikatu behar zaizkion informazio-baldintzez gainera, azpiatal honek beste batzuk ezartzen ditu. Baldintza gehigarri horiek aplikatuko dira baldin eta aseguru-banaketaren xedea aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuak merkaturatzea bada, merkaturatzailea hauetariko bat izanda:

- a) Aseguru-bitartekari bat.
- b) Aseguru-entitate bat.

179. artikulua. *Interes-gatazken prebentzioa.*

1. Ezertan ere eragotzi gabe 172. artikuluan xedatutakoa, aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuak banatzen dituzten aseguru-bitartekari eta aseguru-entitateek behar diren neurri guztiak hartuko dituzte aseguru-banaketan sor daitezkeen interes-gatazkek detektatzeko: bai eurek (barnean hartuta euren zuzendaritza-organoak, langileak eta eurekin zuzenean edo zeharka kontrol-loturak dituen beste edonor) bezeroekin izan ditzaketen interes-gatazkek, baita bezeroen artekoak ere.

2. Aseguru-bitartekariak eta aseguru-entitateak antolaketa-neurri eraginkorrak hartuko dituzte aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera detektatutako interes-gatazkek bezeroen interesei kalte egin ez diezaieten. Neurri horiek egindako jardueren, merkaturatutako aseguru-produktuen eta banatzaile motaren heinekoak izango dira.

3. Aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak, detektatu dituen interes-gatazkek aurreko apartatuan ezarritako moduan kudeatzeko neurriak hartu arren ezin bada behar bezain ziur bermatu bezeroen interesei kalte egiteko arriskuak saihestuko direnik, bezeroari argi adieraziko dio zer-nolakoak izan daitezkeen edo nondik sor daitezkeen interes-gatazka horiek, aseguru-kontratua egin baino nahiko denbora lehenago.

4. Hirugarren apartatuan aipatzen den informazioa honela emango da:

- a) Euskarri iraunkor batean, eta
- b) behar adina xehetasunekin, eta bezeroaren ezaugarriak kontuan izanik, interes-gatazka sortu den aseguru-banaketako jardueri buruz erabaki oinarritua hartu ahal dezan.

180. artikulua. *Bezeroei eman beharreko aurretiazko informazioa.*

1. Aseguru-bitartekariak eta aseguru-entitateek 173. eta 174. artikuluetan xedatzen denaren arabera eman behar duten informazio orokorra alde batera utzi gabe, bezeroei informazio egokia emango zaie, gainera, banatzeko aseguruetan oinarritutako produktuei eta lotutako kostu eta gastuei buruz. Informazio hori kontratua egin baino nahiko denbora lehenago emango da. Informazio horretan honako datu hauek emango dira gutxienez:

a) Aholkularitza eskaintzen denean, aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak adieraziko du ea bezeroari aldi behingo ebaluazioak aurkeztuko dizkion aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktu gomendatuaren egokitasunari buruz, 181. artikuluan azaltzen den bezala;

b) aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuekin edo proposatzen diren inbertsio-estrategiekin lotutako arriskuen gaineko orientabideak eta ohartarazpenak;

c) lotutako kostu eta gastu guztiak, barnean hartuta aholkularitzaren kostua, hala dagokionean, bezeroari gomendatutako edo merkaturatutako aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuaren kostua eta bezeroak hori ordaintzeko modua, bai eta hirugarrenekin zerikusia duten ordainketa guztiak ere.

Kostu eta gastu guztiak, aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuaren banaketarekin lotutakoak barne, azpiko merkatu-arriskuren batek eragiten ez baditu, informazio agregatuaren bidez azalduko dira, halako moduz non bezeroak kostu osoa ulertu ahal izango baitu, bai eta inbertsioaren etekinaren gaineko eragin metakorra ere; kostuak eta gastuak kontzeptuka aurkeztuko dira, bezeroak hala eskatuz gero. Behar denean, informazio hori aldi behin emango zaio bezeroari, urtean behin gutxienez, inbertsioaren bizi-zikloan zehar.

Apartatu honetan aipatutako informazioa ulergarria izango da, bezeroek aseguruetan oinarritzen den inbertsio-produktuaren izaera eta arriskuak ulertzeko modukoa eta, horrenbestez, inbertitzeko orduan erabaki oinarrituak hartu ahal izateko modukoa.

2. Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuetan aseguru-hartzaileak bere gain hartzen duenean inbertsioaren arriskua, bezeroari adierazten bazaio produktu horiei buruzko aholkularitza modu independentean eta azterketa objektibo eta pertsonalizatuan oinarrituta eskaintzen dela, aseguru-bitartekariak ez dute ez onartu ez atxikiko hirugarren batek edo hirugarren baten kontura diharduen norbaitek horrelako produktuen

banaketarekin lotuta ordaindu edo eskainitako zerbitzu-saririk, komisiorik, diru-etekinik edo bestelako onurarik. Diruz besteko onura txikiei ez zaie aplikatuko apartatu honetan xedatutakoa. Betiere, horrelakoak argi azaldu beharko dira, ez dute bezeroarentzako zerbitzuaren kalitatea txartuko, eta halako neurria eta izaera izango dituzte non ezin izango baita pentsatu aseguru-bitartekariari eragotziko diotenik zintzotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jokatzeko bezeroen interesen onerako.

3. Alde batera utzi gabe 173.1.j), 173.1.k) eta 173.3. letretan eta apartatuan xedatutakoa, aseguru-entitateek edo aseguru-bitartekariak zerbitzu-sari edo komisiok ordaintzen edo kobratzen badituzte edo diruz besteko edozein onura ematen edo jasotzen badute aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuen banaketa edo zerbitzu osagarriren bat dela-eta –salbu eta emalea edo jasotzailea bezeroa bera edo bezeroaren izenean diharduen pertsona bat denean–, soilik pentsatuko da haiek beti zintzotasunez, zuzentasunez eta profesionaltasunez bezeroen interesen mesedetan jarduteko betebeharra edo 179. artikuluan interes-gatazken prebentziorako ezartzen diren betebeharrak betetzen dituztela, ordainketa edo onura hori ez bada honako hauen kalterako:

- a) Bezeroarentzako zerbitzuaren kalitatea, eta
- b) aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak zintzotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez bezeroen interesen mesedetan jarduteko betebeharra betetzea.

4. Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuak bezero profesionali banatzen zaizkienean, ez zaie nahitaez eman beharko artikuluko honetan araututako informazioa.

5. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak, aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuetan aseguru-hartzaileak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duen kasuetarako, baldintza gehiago ezarri ahal izango ditu kontratua sinatu aurretik eta ondoren bezeroari eman beharreko informazioari buruz; bereziki, bezeroari zehaztasun osoz eta modu ulergarriari jakinarazi beharra 3. apartatuan aipatzen diren ordainketa edo onuren existentzia, izaera eta zenbatekoa, edo, ezin bada zenbatekoa zehaztu, hura kalkulatzeko metodoa.

181. artikulua. *Egokitasuna aztertzea eta bezeroetara moldatzea eta informazioa ematea.*

1. Aseguru-kontratua egin aurretik bezeroaren eskakizunak eta beharrianak zehaztu beharri buruz 175.1 artikuluan xedatzen dena alde batera utzi gabe, aseguru-bitartekari edo aseguru-entitateek, aseguruak banatzeko jardueran aholkularitza eskaintzen dutenean aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktu bati buruz, informazio hau ere eskuratu beharko dute bezeroari edo bezero izan daitekeenari buruz beti:

- a) Produktu motaren inbertsio-alorreko ezagutzak eta esperientzia.
- b) Finantza-egoera, galerak jasateko ahalmena barne.
- c) Inbertsio-helburuak, arriskuarekiko tolerantzia barne.

Informazio hori eskuratu beharra dago, aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktu aproposak gomendatu diezazkion bezeroari; batez ere, arriskuarekiko duen tolerantzia-mailari eta galerak jasateko duen ahalmenari ondoen egokitzen zaizkienak.

Baldin eta, 184. artikuluan azaldu bezala, inbertsioari buruz aholku ematean produktu konbinatuen sorta bat gomendatzen bada, produktu sorta horrek bere osoan hartuta izan behar du egokia bezeroarentzat.

2. Aseguru-kontratua egin aurretik bezeroaren eskakizunak eta beharrianak zehaztu beharri buruz 175.1 artikuluan xedatzen dena alde batera utzi gabe, aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak aseguruak banatzeko jardueran aholkularitzarik eskaintzen ez duenean ere informazioa eskuratu beharko du beti, bezeroari eskatuta, produktu motari dagokion inbertsio-arloan bezeroak dituen ezagutzez eta esperientziak.

Informazio hori eskuratu beharra dago, aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak aztertu ahal izan dezan ea aseguru-produktu hori egokia den bezeroarentzat.

Baldin eta, 184. artikuluan azaldu bezala, banatzen den produktua produktu konbinatuen sorta bat bada, aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak aztertu beharko du ea sorta hori, bere osoan hartuta, egokia den bezeroarentzat.

Aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak uste badu, apartatu honetako lehenengo paragrafoaren arabera eskuratutako informazioan oinarrituta, produktua ez dela egokia bezeroarentzat, hala ohartaraziko dio. Ohartarazpen hori formatu normalizatu batean egin ahalko da.

Bezeroek edo bezero izan daitezkeenek ez badute ematen apartatu honetako lehenengo paragrafoan aipatutako informazioa edo ez badute nahiko informaziorik ematen euren ezagutzaz eta esperientziaz, aseguru-bitartekari edo aseguru-entitateek ohartaraziko diete ez daudela produktua eurentzat egokia den ala ez erabakitzeko moduan. Ohartarazpen hori formatu normalizatu batean egin ahalko da.

3. Aseguru-kontratua egin aurretik bezeroaren eskakizunak eta beharrianak zehaztu beharri buruz 175.1 artikuluan xedatzen dena alde batera utzi gabe, aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuei buruzko aholkularitzarik eskaintzen ez denean, aseguru-bitartekari edo aseguru-entitateek aseguruak banatzeko jarduerak egin ahalko dituzte 2. apartatuan aipatutako informazioa eskuratu edo erabakia hartu beharrik izan gabe, honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktu hauetakoren batzuk dira jardueren xede:

1.a. Balore Merkatuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera ez-konplexutzat jotzen diren eta bezeroari arriskua ulertzea zailduko liokeen egiturarik ez duten finantza-tresnetarako inbertsio-esposizioa bakarrik eskaintzen duten kontratuak, edo

2.a. aseguruetan oinarritutako bestelako inbertsio ez-konplexuak, apartatu honetako xedeetarako egindakoak.

b) Aseguruak banatzeko jarduera bezeroaren edo bezero izan daitekeenaren ekimenez egiten da.

c) Bezeroari argi adierazi zaio ezen aseguruaren banaketan jarduteko ez dela beharrezkoa aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak ebaluatzea aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuaren egokitasuna edota egin edo eskaintako aseguru-banaketako jarduera, eta bezeroa ez dagoela jokabide-arau egokien babesean. Ohartarazpen hori formatu normalizatu batean egin ahalko da.

d) Aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak betetzen ditu interes-gatazken kudeaketaren eta prebentzioaren arloko betebeharrak, 179. artikuluan ezarritakoak.

Aseguru-kontratua egiten duen bezeroaren ohiko egoitza edo establezimendua apartatu honetan jasotako salbuespena baliatzen ez duen Europar Batasuneko estatu batean egonez gero, estatu horretan aplikatzen diren xedapenak bete beharko dituzte aseguru-bitartekari edo aseguru-entitateek, zerbitzuak emateko askatasunarekin edo kokatzeko askatasunarekin dihardutenak ere barne.

4. Aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak erregistro bat sortuko du, eta bertan egongo da aseguru-bitartekari edo aseguru-entitate horren eta bezeroaren artean adostutako dokumentua edo dokumentu multzoa. Agiri horietan jasoko dira aldean eskubideak eta betebeharrak, bai eta aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak bezeroari zerbitzuak ematean bete beharreko gainerako baldintzak ere. Kontratuko aldean eskubideak eta eginbeharrak beste lege-testu batzuen erreferentziaz ezarri ahal izango dira.

5. Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuak bezero profesionali banatzen zaizkienean, ez zaie nahitaez eman beharko artikulua honetan araututako informazioa.

3. azpiatala. Informazioa emateko moduak

182. artikulua. *Informazio orokorra emateko modua.*

1. Bezeroei 173., 174., 175. eta 180. artikuluen arabera eman beharreko informazio guztia honela eman beharko da:

a) Paperean;
b) argi eta zehatz, bezeroak erraz ulertzeko moduan;
c) arriskua hartzen den Europar Batasuneko estatuko hizkuntza ofizial batean, edo konpromisoa hartzen den Europar Batasuneko estatuko hizkuntza ofizial batean, edo aldeek adostutako beste edozein hizkuntzatan, eta

d) doan.

2. Lehenengo apartatuko a) letran xedatutakoaren salbuespen gisa, 173., 174., 175. eta 180. artikuluetan aipatutako informazioa modu hauetako batean eman ahal izango zaio bezeroari:

a) Papera ez den euskarri iraunkor baten bidez, 4. apartatuan azaldutako inguruabarrak biltzen direnean, edo

b) webgune baten bidez, 5. apartatuan azaldutako inguruabarrak biltzen direnean.

3. Baldin eta 173., 174., 175. eta 180. artikuluetan aipatutako informazioa papera ez den euskarri iraunkor baten bidez edo webgune baten bidez ematen bada, bezeroari kopia bat emango zaio paperean, hark eskatuz gero, eta doan.

4. Inguruabar hauek bildu behar dira 173., 174., 175. eta 180. artikuluetan aipatutako informazioa papera ez den euskarri iraunkor baten bidez eman ahal izateko:

a) Euskarri iraunkorra erabiltzea egokia izatea aseguru-banatzaillearen eta bezeroaren artean egingo diren eragiketen testuinguruan, eta

b) bezeroak aukeratu ahal izana informazioa paperean edo beste euskarri iraunkor batean jaso nahi duen, eta euskarri iraunkorra hautatu izana.

5. 173., 174., 175. eta 180. artikuluetan aipatutako informazioa webgune baten bidez eman ahal izango da propio bezeroarentzat berarentzat baldin bada, edo, bestela, baldintza hauek betetzen badira:

a) Informazio hori webgune baten bidez ematea egokia izatea aseguru-banatzaillearen eta bezeroaren artean egin beharreko eragiketen testuinguruan.

b) Bezeroak onartu izana informazio hori webgune baten bidez jasotzea.

c) Bezeroari bide elektronikotik jakinarazi izana webgunearen helbidea eta webgunearen barruan non kontsulta daitekeen informazio hori.

d) Bermatuta egotea informazio horrek webgunean iraungo duela harik eta bezeroak hura kontsultatzeko behar duen zentzuzko denbora igaro arte.

6. Laugarren eta bosgarren apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, aseguru-banatzaillearen eta bezeroaren artean egin beharreko eragiketen testuinguruan egoki iritziko zaio informazioa papera ez den euskarri iraunkor baten bidez edo webgune baten bidez emateari, baldin eta bezeroak Internetarako ohiko sarbidea duelako frogak badaude. Froga baliozkotzat joko da bezeroak helbide elektronikoko bat ematea eragiketa horietarako.

7. Telefonozko salmentaren kasuan, kontratua egin aurretik aseguru-banatzailleak bezeroari ematen dion informazioa –176. artikuluan aipatzen den aseguru-produktuaren gaineko aurretiazko informazioaren dokumentua barne– aseguru-erabiltzaileei finantza-zerbitzuak urrunetik saltzean aplikatu behar diren arauari jarraituz jakinaraziko da. Gainera, are bezeroak erabakia duenean aurretiaz informazioa jasotzea papera ez den euskarri iraunkor batean 4. apartatuaren arabera, 1. edo 2. apartatuaren arabera beharrezkoa den informazioa emango dio aseguru-banatzailleak bezeroari, aseguru-kontratua egin eta berehala.

183. artikulua. *Aseguruetan oinarritako inbertsio-produktuei buruzko informazioa emateko modua.*

Ezertan galarazi gabe 182. artikuluan xedatutakoa, informazio-igorpena, aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuen kasuan, honela arautuko da:

a) Aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak bere zerbitzuei buruzko txostenak emango dizkio bezeroari, euskarri iraunkor batean. Txosten horiek barruan hartuko dituzte bezeroentzako aldizkako komunikazioak, aseguruetan oinarritutako kasuan kasuko inbertsio-produktuaren mota eta konplexutasuna eta bezeroari egiten zaion zerbitzuaren ezaugarriak kontuan harturik, eta adieraziko dute zer kostu dituzten bezeroaren kontura egiten diren eragiketa eta zerbitzuek, halakorik egiten bada.

b) Aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak, aholkularitza eskaintzen duen kasuetan, egokitasunari buruzko adierazpen bat emango dio bezeroari, kontratua egin aurretik, euskarri iraunkorrean, eta bertan zehaztuko da zer aholkularitza ematen den eta hura nola moldatzen den bezeroaren lehentasunetara, helburuetara eta beste ezaugarri batzuetara. 182. artikulua 1. apartatutik 4.era ezarritako baldintzak aplikatuko dira.

Urruneko komunikazio-bideren bat erabiltzen bada kontratua egiteko eta horrek eragozten badu egokitasun-adierazpena aurretik ematea, aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak euskarri iraunkorrean eman ahal izango du egokitasun-adierazpena, kontratuak bezeroa lotetsi eta berehala, baldin eta bi baldintza hauek betetzen badira:

1.a. Bezeroak onartu du egokitasun-adierazpena kontratua egindakoa jasotzea, bidegabeko atzerapenik gabe, eta

2.a. aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak bezeroari aukera eman dio kontratua geroago egiteko, alde aurretik egokitasun-adierazpena jaso ahal izateko.

Aseguru-bitartekariak edo aseguru-entitateak bezeroari jakinarazten badio aldi behin egokitasunaren ebaluazioa egingo duela, aldi behingo txostenak egoera-orri eguneratu batean azaldu beharko du nola aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktua bat datorren bezeroaren lehentasunekin, helburuekin eta beste ezaugarri batzuekin.

4. azpiatala. Lotutako paketeak eta pakete konbinatuak saltzea

184. artikulua. *Lotutako paketeak eta pakete konbinatuak saltzea.*

1. Aseguru-kontratu bat produktu nagusia izanda, berarekin batera aseguruez bestelako zerbitzu edo produktu osagarriak eskaintzen badira pakete edo akordio berean, aseguru-banatzailleak bezeroari jakinaraziko dio osagaiak bereiz erosi daitezkeen ala ez, eta, baiezkoan, akordioaren osagai guztien deskribapen egokia eskainiko du, eta bereiz emango ditu osagai bakoitzaren kostu eta gastuen frogagiriak.

Horiek horrela, eta bezeroari eskaintako pakete edo akordio horren ondoriozko arriskua edo aseguru-estaldura ez badira banakako osagaiei lotutakoak berak, aseguru-banatzailleak akordioaren osagai guztien deskribapen egokia emango du, eta azalduko du nola aldatzen duen arriskua edo aseguru-estaldura haien arteko elkarrekintzak.

2. Aseguru-kontratu bat aseguru-arlokoa ez den ondasun edo zerbitzu baten osagarria denean pakete edo akordio beraren barruan, aseguru-banatzailleak ondasun edo zerbitzu hori bereiz erosteko aukera eskainiko dio bezeroari. Apartatu hau ez da aplikatuko kasu hauetan:

a) Aseguru-produktua inbertsio-zerbitzu edo -jardueraren baten osagarria denean urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren zentzuan,

b) aseguru-produktua mailegu-kontratu baten osagarria denean Higiezin Kredituko Kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legeak 4.3) artikuluan dioenaren zentzuan, edo

c) aseguru-kontratua ordainketa-kontu baten osagarria denean azaroaren 24ko 19/2017 Errege Lege Dekretuak dioenaren zentzuan (19/2017 Errege Lege Dekretua, azaroaren 24koa, Oinarrizko ordainketa-kontuena, ordainketa-kontuen lekualdatzearena eta komisioen konparagarritasunarena).

3. Artikulu hau ez zaio aplikatuko hainbat arrisku mota estaltzen dituzten aseguru-kontratuen banaketari (arrisku anitzeko aseguru-polizak).

4. Lehenengo eta bigarren apartatuetan aipatzen diren produktuak kontratatu aurretik, banatzaileak informazio hau emango dio erabiltzaileari, berariaz eta modu ulergarrian:

- a) Pakete konbinatua edo lotutako paketea saltzen ari dela.
- b) Guztizko kostutik zer zati dagokion produktu edo zerbitzuetako bakoitzari, kostu hori aseguru-erabiltzailearentzat eskuragarri dagoen heinean.
- c) Aseguruaren edo lotutako produkturen baten banakako kontrataziorik ezak edo ezerezte aurreratuak aseguruaren eta lotutako gainerako produktu edo zerbitzuen guztizko kostuan edukiko lukeen eragina:
- d) Eskaintza konbinatuaren eta produktuen banakako eskaintzen arteko diferentziak.

5. Lehenengo eta bigarren apartatuetako kasuetan, aseguru-banatzaileek beti zehaztu beharko dituzte bezeroaren eskakizunak eta beharrianak pakete edo akordio baten barruan sartzen diren aseguru-kontratu guztiei dagokienez.

6. Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru pribatuen erabiltzaileei kalte egiten dieten jardunbideen berri jakiten badu, ebazpen bidez neurriak ezarri ahal izango ditu; besteak beste, debekatu ahal izango du aseguru-produktuak saltzea aseguru bezelako zerbitzu edo produktu osagarriekin batera pakete edo akordio baten barruan.

5. azpiatala. Produktuen kontrola eta gobernantzaren arloko baldintzak

185. artikulua. *Diseinuaren inguruko baldintzak, produktuen onarpenaren eta kontrolaren ingurukoak eta gobernantzaren arlokoak.*

1. Aseguru-entitateek eta bezeroei saltzeko aseguru-produktuak diseinatzen dituzten aseguru-bitartekariak onarpen-prozesu bat eduki, kudeatu eta berrikusiko dute, aseguru-produktu bakoitza edo lehendik dituzten aseguru-produktuen egokitzapen esanguratsu bakoitza onartzeko merkaturatu edo bezeroei banatu aurretik.

Produktua onartzeko prozesua aseguru-produktu bakoitzaren ezaugarrietarako egokia eta proportzionatua izango da.

Prozesu horretan produktu bakoitzaren merkaturatzea zehaztuko da, bermatu egingo da merkatu horri dagozkion arrisku guztiak ebaluatuko direla eta aurreikusitako banaketa-estrategia merkatu horrekin bat etorriko dela eta zentzuzko neurriak hartuko dira aseguru-produktua bere xede-merkatuan banatuko dela bermatzeko.

Aseguru-entitateak ondo ulertuko ditu eskaintzen edo merkaturatzen dituen aseguru-produktuak, eta aldizka berrikusiko ditu; berrikuspenean, kontuan eduki beharko dira zehaztutako xede-merkaturako arriskutsua izan litezkeen inguruabar guztiak, eta honako hauek ebaluatu beharko dira gutxienez: produktuak merkatuaren beharrianak hasieran bezala betetzen ote dituen eta ezarritako banaketa-estrategia hasieran bezain egokia den.

Aseguru-entitateek eta aseguru-produktuak diseinatzen dituzten aseguru-bitartekariak banatzaileen eskura jarriko dute produktuen gaineko eta produktuak onartzeko prozesuaren gaineko informazio garrantzitsu guztia, produktu bakoitzaren xede-merkatuari buruzko informazioa barne.

Aseguru-banatzaile batek inork diseinatutako aseguru-produktuak eskaintzen baditu edo haiei buruz aholkatzen badu, mekanismo egokiak edukiko ditu aurreko paragrafoan aipatutako informazioa lortzeko eta aseguru-produktu bakoitzaren ezaugarriak eta xede-merkatua ulertzeko.

2. Artikulu honetan azaltzen diren politikek, prozesuek eta mekanismoek ez dituzte ezertan eragotziko I. tituluan ezarritako gainerako baldintzak, barnean hartuta argitalpenari, egokitasun edo komenigarritasunaren balorazioari, interes-gatazken identifikazio eta kudeaketari eta pizgarriei buruzkoak.

3. Artikulu honetan xedatzen dena ez zaie aplikatuko arrisku handien aseguruiei.

7. atala. Antolatzeko eta gainbegiratzeko eskumenak

1. azpiatala. Estatuko Administrazio Orokorraren eskumenak

186. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-banatzailen kontrola.*

1. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroari berariaz esleitutako eskumenei buruz ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak I. tituluan arautzen den kontrola aplikatuko die egoitza Espainian duten aseguru- eta berraseguru-banatzailerei, eta kontrol horren pean egongo dira baita kokatzeko eskubidearekin eta zerbitzuak emateko askatasunarekin haiek egiten dituzten jarduerak ere.

2. Merkatuaren jarraipen egokia egin dadin, aurreko apartatuan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren agiriak eta informazioa emango dizkiote aseguru- eta berraseguru-banatzailerek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari; agiri eta informazio horiek aldi behin aurkeztuko dituzte, erregelamenduz xedatzen den eran, edota Zuzendaritza Nagusiak banaka egiten dizkien errekerimenduei erantzunez aurkeztuko dituzte.

3. Aseguru pribatuen bitartekarien eta berraseguru pribatuen artekarien ikuskapenari dagokionez, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen IV. tituluko IV. kapituluaren bidez gainbegiratzeari buruz xedatutakoa aplikatuko da, eta aseguru-bitartekari eta berraseguru-artekek aipamentzat hartuko dira kapitulu horretan aseguru-entitateei egiten zaizkien aipamenak.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, egiaztatzen badu aseguru-banatzaileren batek Espainian diharduela horretarako legezko gaikuntzarik izan gabe, horren berri zabaldu ahal izango du, beharrezkotzat jotzen duen moduan, herritarrek jakin dezaten.

5. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Europako Batzordeari jakinaraziko dio zer zailtasun orokor topatzen dituzten bere herrialdeko aseguru- edo berraseguru-banatzailerek hirugarren herrialdeetan kokatzeko edo aseguru- eta berraseguru-banaketan jarduteko.

187. artikulua. *Kontabilitateko betebeharrak eta kontabilitateko informazio estatistikoa eman beharra.*

1. Aseguru- eta berraseguru-banatzailerek erregelamenduz zehazten diren kontabilitateko erregistro-liburuak eduki beharko dituzte; horrek ez du kentzen merkataritzaren edo zergen arloko arauak agintzen dituzten kontabilitate-liburuak eduki beharra.

2. Behin aseguru- eta berraseguru-banaketan jarduten hasita, lotutako aseguru-agenteei, banku-aseguruen operadoreei, aseguru-artekek eta berraseguru-artekek kontabilitateko informazio estatistikoa igorri beharko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari. Informazio horren edukia eta maiztasuna erregelamenduz zehaztuko dira.

3. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak zehaztuko dituen kasuetan eta baldintzekin, lotutako aseguru-agenteei, banku-aseguruen operadoreei, aseguru-artekek eta berraseguru-artekek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari bide elektronikotik aurkeztu beharko dizkiote euren araudi espezifikoaren arabera eman behar dituzten agiriak eta informazioa.

188. artikulua. *Lanbide-sekretua gorde beharra.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak I. tituluan esleitzen zaizkion eginkizunen ondorioz eskuratzen dituen datuak, dokumentuak eta informazioak isilpekoak izango dira, 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan inskribatu beharreko datuak izan ezik.

2. Aseguru- eta berraseguru-banatzailen jarduera gainbegiratzen jarduten duten edo jardun duten pertsona guztiek eta banatzaile horien inguruko eginkizunak esleituta dauzkaten pertsonak lanbide-sekretuaren pean gorde beharko dituzte eginkizun horietan profesional gisa jasotzen dituzten isilpeko informazio guztiak.

3. Lanbide-sekretua uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 127. artikuluan xedatutako eran bete beharko da, eta manu horretan aseguru-entitateei buruz dauden aipamenak aseguru- eta berraseguru-bitartekariei buruzkoak direla ulertuko da.

189. artikulua. *Beste gainbegiratze-agintaritza batzuekin lankidetzan jardun beharra.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Europar Batasuneko gainerako estatuetakoa gainbegiratze-agintaritzekin elkarlanean jardungo du eta behar diren informazio guztiak trukatu ditu haiekin, denek bete ahal izan ditzaten aseguru- eta berraseguru-banatzailen eragiketak gainbegiratzeko eginkizunak.

Batez ere, erregistro-prozesuan, eta aldi behin, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru- eta berraseguru-banatzailen zintzotasunari eta gaitasunari buruzko informazioa partekatuko du.

Horrez gain, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak informazioa trukatu du aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratibotik kanporatzea berekin dakarren zehapen edo bestelako neurri administratiboren bat jaso duten aseguru- eta berraseguru-banatzailerei buruz.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Europar Batasuneko beste estatu batean mugaz gaindiko jarduera egiteko asmoa jakinarazi duten aseguru- eta berraseguru-bitartekarien zerrenda emango dio Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, bere eskumenak baliatuz jakiten badu irregulartasunak izan daitezkeenak egiten ari direla aseguru-produktuekin batera konbinatuta edo lotuta saltzen diren finantza-produktu edo -zerbitzuak merkaturatzean, jakinaren gainean jarriko du Espainiako Bankua edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala, kasuan kasukoa. Horrela, gainbegiratze-jarduketak agintaritza horiekin koordinatu ahal izango ditu.

190. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboko inskripzioa ezereztea.*

1. Aseguru-bitartekariak, aseguru osagarrien bitartekariak eta berraseguru-artekariak 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan egindako inskripzioa ezereztea erabakiko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, kausa hauetakoren bat gertatuz gero:

a) Aseguru-entitateak aseguru-agentziako kontratua hutsaldu eta aseguru-agentea bere erregistrotik kendu duela jakinaraztea.

b) Aseguru-bitartekariak, aseguru osagarrien bitartekariak edo berraseguru-artekariak aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboan inskribaturik egoteko baldintzaren bat betetzeari uztea.

c) Aseguru-bitartekaria, aseguru osagarrien bitartekaria edo berraseguru-artekaria desegiteko kausaren bat gertatzea.

d) I. tituluan aipatzen diren aseguru- edo berraseguru-artekariak jarduera hasi gabe egotea inskribatu zirenetik urtebeteko epea igarotakoan, edo jarduera etenda urtebete baino gehiago egitea.

Jarduera ez hastearekin edo jarduera etetearekin parekatuko da jarduera eraginkorrik ez izatea, eta hori gertatzen dela iritziko zaio baldin eta bi ekitalditan jarraian aseguru-artekariaren negozio-bolumena urtean 100.000 eurotik beherakoa bada banatutako aseguru-primetan; zenbateko hori 30.000 eurora murriztuko da artekariak aseguru osagarrien bitartekari gisa banatzen baditu produktuak; eta, berraseguru-artekariaren kasuan, urtean 500.000 euro izango da, banatutako berraseguru-primetan. Hona noiz hasiko den zenbaketa: 133. artikuluan aipatutako erregistro administratiboan inskripzioa egin eta hurrengo ekitalditik aurrera hiru ekitaldi igarotakoan.

Ez da d) letra honetan xedatutakoa aplikatuko baldin eta Aseguruen eta Pentsio Planaren Zuzendaritza Nagusiari behar bezala justifikatzen bazaizkio jarduerarik ezaren arrazoiak, bai eta egoera gainditzeko hartutako neurriak ere.

e) Inskripzioa ezereztea zehapena izatea.

f) Lotutako aseguru-agentek, banku-aseguruen operadoreak, aseguru-artekariak edo berraseguru-artekariak berariaz eskatzea inskripzioa ezerezteko.

2. Inskripzioa ezerezteak berekin ekarriko du inskribatua aseguru- eta berraseguru-banatzaileren erregistro administratibotik kentzea. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak argitara eman ahalko du inskripzioa ezerezteko ebazpena, bestela aseguru edo berraseguruak banatzen jarraitzeko arriskua dagoela irizten badio.

2. azpiatala. Administrazioarekiko erantzukizuna eta arau-hausteen eta zehapenen araubidea

191. artikulua. *Arau-hausleak.*

1. Arau-hausle izango dira eta hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera zehatzeko moduko erantzukizun administratiboan eroriko dira aseguru eta berraseguruen banaketari buruzko arauak urratzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, eta bereziki honako hauek:

a) Aseguru- eta berraseguru-entitateak.

b) Aseguru- eta berraseguru-bitartekariak.

c) Aseguru osagarrien bitartekariak.

d) Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten banatzaileak.

e) Aurreko letretan azaldutako entitateetan administrazio-karguak dituzten pertsonak, banaketa-jardueraren ardura duten pertsonak edo banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kide direnak.

f) Berez edo tarteko pertsona baten bidez aseguru- edo berraseguru-banaketan jarduten dutenak legez eskatutako baldintzak bete gabe, edo I. tituluan ezarritako eginkizunen mugak gaindituta, edo I. tituluan ezartzen zaizkien debekuak urratuta.

2. Aseguru-entitateek Administrazioaren aurrean erantzun beharko dute beren aseguru-agente eskusiboek –banku-aseguruen operadore eskusiboak barne– I. tituluan azaltzen diren arau-hausteak egiten dituztenean, ezertan ere eragotzi gabe agente horiei egotz lekiekeen erantzukizun administratiboa.

3. Aseguru-bitartekariak, 137. artikuluan aipatzen diren kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen badituzte banaketa-jarduerarako, haien jardunaren erantzuleak izango dira Administrazioaren aurrean.

192. artikulua. *Arau-hausteak.*

1. Aseguru- eta berraseguru-banaketaren arloko arau-hausteak oso astunak, astunak edo arinak izan daitezke.

2. Arau-hauste oso astunak izango dira:

a) Banaketan jardutea nahiz eta ez egon banatzaile gisa inskribaturik Europar Batasuneko jatorrizko estatuaren araudiaren arabera legez onargarria den erregistro batean, edo inskripzioak ahalbidetzen dituen jardueren mugak gainditzea, edo norberaren

ordez bitarteko pertsona batek jardutea banaketan. Horretatik kanpo geratzen dira 130.2 artikuluan aurreikusitako kasuak.

b) Aseguru- edo berraseguru-entitateek banaketa-zerbitzuak jasotzea Europar Batasuneko jatorrizko estatuaren araudiaren arabera legez onargarria den erregistro batean inskribaturik ez dauden pertsonengandik, edo inskripzioak ahalbidetzen dituen jardueren mugak gainditzen dituztenengandik. Horretatik kanpo geratzen dira 130.2 artikuluan aurreikusitako kasuak.

c) Aseguru- eta berraseguru-banaketari buruzko lege-mailako arauetan debekatzen diren egintzak edo eragiketak behin eta berriz egitea edo arau horietan ezarritako baldintzak ez betetzea.

d) Urteko kontuak, gaiari buruzko indarreko araudiari jarraikiz, kontu-auditoria baten mende jartzeko betebeharra ez betetzea.

e) Ikuskapena saihesteko aitzakiak jartzea, uko egitea edo kontra egitea, azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren 170. artikuluan ezarritako eran, baldin eta ikuskapenerako errekerimendua berariaz eta idatziz egiten bada.

f) Iruzurrezko egintzak egitea edo bitarteko pertsona fisiko edo juridikoak erabiltzea emaitza bat lortzeko, jakinik norberak arau-hauste astun bat gutxienez egin beharko lukeela hura zuzenean lortu ahal izateko.

g) Arau-hauste astuna egitea, baldin eta hori gertatu aurreko bost urteetan egileak arau-hauste mota beragatik zehapen irmoren bat jaso badu.

h) Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenak behin eta berriz ez betetzea.

Ondorio horietarako, hau da behin eta berriz ez betetzea: ebazpena bete ez, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak berariaz egindako errekerimenduari ere jaramonik ez egitea errekerimenduan bertan ezarritako epean edo, horrelakorik ezean, errekerimenduaren osteko hilabetean.

i) Aseguru-artekaritzako sozietate batean edo banku-aseguruen sozietate batean partaidetza handia eskuratzea edo hura handitzea 160. artikuluan xedatutakoa bete gabe.

j) Inor aseguru- edo berraseguru-kontratu bat egitera behartzea zuzenean edo zeharka, edota informazio okerra edo ezegokia ematea aseguru-hartzaileei, aseguratuiei, aseguru-polizetako onuradunei edo, kasua bada, aseguru-entitateei, baldin eta ez-betetze hori nabarmena bada kaltetuen kopuruagatik edo informazioaren garrantziagatik.

k) Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuen banaketari dagokionez, III. kapituluaren 6. atalean jasotako informazio-betebehar eta jokabide-arauetatik edozein ez betetzea, eta, halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko azaroaren 26ko 1286/2014 (EB) Erregelamenduaren 24.1 artikuluan ezarritakoa ez betetzea (erregelamendu horrek txikizkako inbertsio-produktu lotuei eta aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuei dagozkien funtsezko datuen dokumentuak arautzen ditu).

l) III. kapituluaren 6. atalean ezarritako informazio-betebehar eta jokabide-arauak behin eta berriz urratzea, baldin eta, informazioaren garrantziagatik, ez-betetze hori bereziki nabarmena bada, k) letran jasotakoak ez diren aseguru-produktuei dagokienez.

m) Aseguru-artekarien kasuan, azterketa objektibo eta pertsonalizatuan oinarritutako aholkularitza eskaintzeko betebeharra behin eta berriz ez betetzea.

n) Aseguru edo berraseguruak banatzea Espainian aritzeko legezko baimenik ez duten entitateen zerbitzuan, edo haien baimenen mugak gainditzea.

ñ) Pertsona fisikoek edo juridikoek aseguru-agenteen eta banku-aseguruen operadoreen ohiko deiturak edo horiekin nahastu daitezkeen beste batzuk erabiltzea aseguru-agentziako kontraturik egin gabe; edo aseguru-artekari eta berraseguru-artekarien deiturak eta nahasgarriak izan daitezkeen beste batzuk erabiltzea jarduera horietan aritzeko legezko gaikuntzarik eduki gabe.

o) Aseguru- edo berraseguru-artekariak aseguru- edo berraseguru-entitate pribatuentzat gordetzen diren deiturak eta adierazpideak edo horiekin nahastu daitezkeenak erabiltzea. Horrek ez du ezertan ere eragozten 144., 153. eta 158. artikuluan ezarritakoa.

p) Behin eta berriz abusuzko jardunbideak baliatzea, aseguru-hartzaileen, aseguratuena, polizetako onuradunen edo, kasua bada, aseguru-entitateen eskubideen kalterako.

q) Aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta aseguru- eta berraseguru-banaketari buruzko arauetan eskatzen diren kontabilitatea, liburuak eta erregistroak ez edukitzea, edo txarto kudeatzea, egindako eragiketen norainokoa eta izaera ezkututzen dituzten irregulartasun handiekin; halaber, ez edukitzea bezeroen kontuak gainerako baliabide ekonomikoetatik erabat bereiz, 136.4 artikuluan ezartzen den moduan.

r) Aseguruena eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari igorri behar zaizkion datu eta dokumentuak –bai etengabe edo aldiari behin aurkeztu beharrekoak, bai banakako errekerimenduei erantzunez aurkeztu beharrekoak– ez igortzea, edo dokumentu eta datu horiek egiazkoak ez izatea, horrek eragozten badu egindako eragiketen norainokoiari eta izaerari antzematea. Ez igortze hori hau da zehazki: Aseguruena eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak betebeharra idatziz gogoraraztean edo banakako errekerimendua berriro egitean ezartzen duen epean ez igortzea.

s) Hainbat aseguru-entitateetako aseguru-agente eskusibo batzuek elkar hartuta jardutea halako moduan non haien jardunen emaitza bateratua, izatez, aseguru-arteakari gisa edo lotutako agentzia gisa banaketan jardutearen parekoa den.

t) Aseguru-arteakariak aseguru-entitateari ez igortzea edo berandu igortzea aseguru-hartzaileak prima ordaintzeko eman dizkion diru kopuruak, baldin eta, 156.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, jokabide horren ondorioz aseguratuak aseguru-estaldura galtzen badu edo kaltea jasotzen badu.

u) Aseguruena eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak 200. artikuluaaren arabera erabakitzen dituen kontrol-neurri bereziak ez betetzea.

v) Aseguru-kontratua egitea bezeroaren baimenik gabe.

w) Adierazpen faltsuak edo arau kontrako bestelako bideak baliatzea 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan inskribatzeko.

x) Aseguru-bitartekariak bezeroari edo kaltetutako hirugarrenari ez jakinaraztea zeintzuk aseguru-entitatek hartzen duten euren gain beraren erantzukizun zibil profesionala, edo, kasua hala denean, zer aseguru-entitateekin hitzartu duen erantzukizun zibil profesionala aseguru edo zer entitatek ematen dion berme baliokidea, eta zeinek bermatzen dion finantza-ahalmena.

3. Arau-hauste astunak izango dira:

a) Aseguru- eta berraseguru-banaketari buruzko lege-mailako arauetan debekatzen diren egintzak edo eragiketak egitea edo arau horietan ezarritako baldintzak ez betetzea, salbu eta arau-hauste hori oso astuntzat kalifikatu behar denean.

b) Aseguru- eta berraseguru-banaketari buruzko erregelamendu-arauetan debekatzen diren egintzak edo eragiketak behin eta berriz egitea edo arau horietan ezarritako baldintzak ez betetzea.

c) Iruzurrezko egintzak egitea edo bitarteko pertsona fisiko edo juridikoak erabiltzea antolamendu- eta gainbegiratze-arauen kontrako emaitza bat lortzeko, baldin eta jokabide hori 2. apartatuko f) letran jasorik ez badago.

d) Aseguru-arteakariaren kasuan, azterketa objektibo eta pertsonalizatuan oinarritutako aholkularitza eskaintzeko betebeharra ez betetzea, salbu eta arau-hauste hori oso astuntzat kalifikatu behar denean.

e) Arau-hauste arina egitea, baldin eta hori gertatu aurreko bi urteetan egileak arau-hauste mota beragatik zehapen irmoren bat jaso badu eta preskribatu gabe badago.

f) III. kapituluaren 6. atalean ezarritako informazio-betebeharrak eta jokabide-arauak ez betetzea, 2. apartatuko l) letran aipatzen diren inguruabarrak gertatzen ez direnean, aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuez bestelako aseguru-produktuei dagokienez.

g) Abusuzko jardunbideak baliatzea aseguru-hartzaileen, aseguratuena, polizetako onuradunen edo, kasua bada, aseguru- edo berraseguru-entitateen eskubideen kalterako, salbu eta arau-hauste hori oso astuntzat kalifikatu behar denean.

h) Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari igorri behar zaizkion datu eta dokumentuak –bai etengabe edo aldian behin aurkeztu beharrekoak, bai banakako errekerimenduei erantzunez aurkeztu beharrekoak– ez igortzea, edo dokumentu eta datu horiek egiazkoak ez izatea, salbu eta jokabide hori arau-hauste oso astuna denean 2. apartatuko r) letraren arabera. h) letra honen ondorioetarako, ez igortze hori hau da zehazki: Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak betebeharra idatziz gogoraraztean edo banakako errekerimendua berriro egitean ezartzen duen epean ez igortzea.

i) Aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta aseguru eta berraseguruen banaketari buruzko arauetan eskatzen diren liburu eta erregistroak behar bezala ez kudeatzea, 2. apartatuko q) letran aurreikusitako inguruabar bereziak gertatzen ez direnean.

4. Arau-hauste arintzat joko da aseguru- eta berraseguru-banaketari buruzko erregelamendu-arauak ez betetzea edota horietan ezarritako baldintzak ez betetzea, ez-betetze horiek oso astuntzat edo astuntzat kalifikatu behar ez direnean.

193. artikulua. *Arau-hausteen preskripzioa.*

1. Arau-hauste oso astunek bost urteren buruan preskribatuko dute; astunek, lau urteren buruan, eta arinek, bi urteren buruan.

2. Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau-hausteen preskripzio-epa. Jarduera jarraituaren ondorioz etor litezkeen arau-hausteetan, berriz, jarduera burututako eguna edo arau-hausteari dagokion azken egintzarena hartuko da epearen hasierako eguntzat.

3. Interesduna jakitun dela zehapen-prozedura hasteak preskripzioa etengo du, eta preskripzio-epeari berrekingo zaio zehapen-espeditentea bi hilabetez baino gehiagoz geldiarazita badago ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion kausagatik.

4. Preskripzio-epa eten egingo da, halaber, arau-haustea agerian jartzeko ikuskapen-prozedura hasten denean, eta berriro hasiko da zenbatzen prozedura horren amaierako ebazpena emandakoan.

194. artikulua. *Zehapenak.*

1. Arau-hauste oso astunengatik, arau-hausleari zehapen hauetako bat ezarriko zaio beti:

a) Aseguru-bitartekarien, aseguru osagarrien bitartekarien edo berraseguru-artekarien kasuan, 133. artikuluan aipatutako erregistro administratiboko inskripzioa ezereztea.

b) Aseguru-bitartekarien, aseguru osagarrien bitartekarien edo berraseguru-artekarien kasuan, jarduera etetea, gehienez ere hamar urterako.

c) Arau-hauste oso astunaren berria argitaratzea, pertsona fisiko edo juridiko erantzulea nor den, zer arau-hauste egin duen eta zer zehapen ezarri zaion adierazten duena.

d) Isuna ezartzea:

1.a Pertsona juridikoen kasuan, isunaren zenbatekoa honako hauetatik handiena izango da, gehienez:

i. Urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko 3, zuzendaritza-organoak onetsita dauzkan eta eskura dauden azken kontuen arabera, edo 1.000.000 euro. Pertsona juridikoa enpresa nagusi bat edo enpresa nagusiaren filial bat bada eta egoera-orri finantzario bateratuak egin behar baditu Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legearen arabera –zeina zenbait motatako enpresen urteko egoera-orri finantzarioei, egoera-orri finantzario bateratuei eta antzeko beste txosten batzuei buruzkoa baita–, hau izango da aplikatu beharreko guztizko negozio-bolumena: urteko guztizko negozio-bolumena, azken enpresa nagusiaren zuzendaritza-organoak onetsita dauzkan eta eskura dauden azken egoera-orri finantzario bateratuen arabera.

ii. Arau-haustearen bidez lortutako etekinen edo saihestutako galeren kopuruaren bi halako, halakoak zehazterik badago.

2.a Pertsona fisikoen kasuan, isunaren zenbatekoa honako hauetatik handiena izango da, gehienez:

100.000 euro, edo arau-hausteari esker lortutako etekinen edo saihestutako galeren kopuruaren bi halako, halakoak zehazterik badago.

Aurreko paragrafoan xedatuta dagoena gorabehera, a), b) eta d) letretan aurreikusitako zehapenak ezarri gero, aldi berean c) letran aurreikusita dagoen zehapena ezarri ahal izango da.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa ezertan kendu gabe, 192.2 artikuluko k) letrako arau-haustea egiteagatik zehapen hauek ezarri ahal izango dira:

a) Isuna:

1.a Pertsona juridikoen kasuan, isunaren zenbatekoa honako hauetatik handiena izango da, gehienez:

i. Urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko 5, zuzendaritza-organoak onetsita dauzkan eta eskura dauden azken kontuen arabera, edo 5.000.000 euro. Pertsona juridikoa enpresa nagusi bat edo enpresa nagusiaren filial bat bada eta egoera-orri finantzario bateratuak egin behar baditu uztailaren 20ko 22/2015 Legearen arabera, aplikatu beharreko guztizko negozio-bolumena honako hau izango da: urteko guztizko negozio-bolumena, azken enpresa nagusiaren zuzendaritza-organoak onetsita dauzkan eta eskura dauden azken egoera-orri finantzario bateratuen arabera, edo

ii. arau-haustearen bidez lortutako etekinen edo saihestutako galeren kopuruaren bi halako, halakoak zehazterik badago.

2.a Pertsona fisikoen kasuan, isunaren zenbatekoa honako hauetatik handiena izango da, gehienez:

700.000 euro, edo arau-hausteari esker lortutako etekinen edo saihestutako galeren kopuruaren bi halako, halakoak zehazterik badago.

b) Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktua merkaturatzea debekatzea.

c) Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktua merkaturatzea etetea.

d) Funtsezko datuen dokumentua ematea debekatzea eta dokumentu horren bertsio berri bat eskatzea.

3. Arau-hauste astunengatik, honako zehapen hauetako bat ezarriko zaio arau-hausleari:

a) Aseguru- edo berraseguru-bitartekarien kasuan, jarduera etetea, urtebeterako gehienez.

b) Arau-hauste astunaren berri eta ezarritako zehapenaren berri argitaratzea.

c) Isuna:

1.a Pertsona juridikoen kasuan, isunaren zenbatekoa honako hauetatik handiena izango da, gehienez:

i. Urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko 1, zuzendaritza-organoak onetsita dauzkan eta eskura dauden azken kontuen arabera, edo 500.000 euro. Pertsona juridikoa enpresa nagusi bat edo enpresa nagusiaren filial bat bada eta egoera-orri finantzario bateratuak egin behar baditu Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legearen arabera –zeina zenbait motatako enpresen urteko egoera-orri finantzarioei, egoera-orri finantzario bateratuei eta antzeko beste txosten batzuei buruzkoa baita–, hau izango da aplikatu beharreko guztizko negozio-bolumena: urteko guztizko negozio-bolumena, azken enpresa nagusiaren zuzendaritza-organoak onetsita dauzkan eta eskura dauden azken egoera-orri finantzario bateratuen arabera.

ii. Arau-haustearen bidez lortutako etekinen edo saihestutako galeren kopuruaren bi halako, halakoak zehazterik badago.

2.a Pertsona fisikoen kasuan, isunaren zenbatekoa honako hauetatik handiena izango da, gehienez:

50.000 euro, edo arau-hausteari esker lortutako etekinen edo saihestutako galeren kopuruaren bi halako, halakoak zehazterik badago.

Aurreko paragrafoan xedatuta dagoena gorabehera, a) eta c) letretan aurreikusitako zehapena ezarri gero, aldi berean b) letretan aurreikusita dagoen zehapena ezarri ahal izango da.

4. Arau-hauste arinengatik, honako zehapen hauetako bat ezarriko zaio arau-hausleari:

- a) Kargu-hartze pribatua.
- b) Isuna:

1.a Pertsona juridikoen kasuan, isunaren zenbatekoa honako hauetatik handiena izango da, gehienez:

i. Urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko 1, zuzendaritza-organoak onetsita dauzkan eta eskura dauden azken kontuen arabera, edo 100.000 euro. Pertsona juridikoa enpresa nagusi bat edo enpresa nagusiaren filial bat bada eta egoera-orri finantzario bateratuak egin behar baditu Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legearen arabera –zeina zenbait motatako enpresen urteko egoera-orri finantzarioei, egoera-orri finantzario bateratuei eta antzeko beste txosten batzuei buruzkoa baita–, hau izango da aplikatu beharreko guztizko negozio-bolumena: urteko guztizko negozio-bolumena, azken enpresa nagusiaren zuzendaritza-organoak onetsita dauzkan eta eskura dauden azken egoera-orri finantzario bateratuen arabera.

ii. Arau-haustearen bidez lortutako etekinen edo saihestutako galeren kopuruaren bi halako, halakoak zehazterik badago.

2.a Pertsona fisikoen kasuan, isunaren zenbatekoa honako hauetatik handiena izango da, gehienez:

10.000 euro, edo arau-hausteari esker lortutako etekinen edo saihestutako galeren kopuruaren bi halako, halakoak zehazterik badago.

5. Zehapenen ondorioetarako, aseguru- eta berraseguru-bitartekarien kasuan honako hau izango da negozio-bolumena: arau-haustea egin aurretik itxitako azken ekitaldi ekonomikoan burutu edo luzatu diren kontratuetan aseguru- eta berraseguru-banaketaren bidez lortutako ordainsariak, guztira. Kokatzeko eskubidearekin edo zerbitzuak emateko askatasunarekin jarduten duten aseguru- eta berraseguru-bitartekarien kasuan, Espainian izandako negozio-bolumena hartuko da kontuan.

Aseguru- eta berraseguru-entitateen kasuan, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 198.c) artikuluan adierazitakoa hartuko da negozio-bolumentzat.

195. artikulua. *Honako hauen erantzukizuna: aseguruak eta berraseguruak saltzen dituzten entitateetan, aseguru-agentzietan, banku-aseguruen operadoreetan, aseguru-artekaritzako sozietateetan eta berraseguru-artekaritzako sozietateetan administrazio-kargua dutenak, banaketaren ardura daukan pertsona eta zuzendaritza-organoetako kideak.*

1. Egitatez edo eskubidez administrazio-karguetan aritzen direnek, banaketaren ardura daukatenean edo banaketaren ardura daukan zuzendaritza-organoko kide direnek erantzukizuna izango dute aseguru- edo berraseguru-banatzailen arau-aste astunengatik

edo oso astunengatik, eurek doloz edo zabarkeriaz jokatzearen ondorioz egindako arau-hausteak badira.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, pertsona horiek ez dira aseguru- edo berraseguru-banatzailleek egindako arau-hauste astunen edo oso astunen erantzule izango honako kasu hauetan:

a) Administrazioako kide anitzeko organoetako kideak ez baziren joan kasuan kasuko bileretara, justifikatutako arrazoia izanda, edo arau-hausteak eragin zituzten erabakien inguruan kontra bozkatu edo beren botoa babestu baldin bazuten.

b) Arau-hausteak batzorde betearazleei, kontseilari delegatuei, zuzendari nagusiei edo sozietatean zuzendaritzako antzeko eginkizunak dituzten beste pertsona batzuei soilik egoztekoak badira.

3. Aseguru- edo berraseguru-banatzaillei arau-hauste oso astunak egiteagatik jar dakiekeen zehapena gorabehera, honako zehapen hauetako bat jarriko zaie 1. apartatuan xedatutakoaren arabera arau-hauste horiengatik erantzukizuna dutenei:

a) Kargutik kentzea eta aseguru edo berraseguruak banatzen dituen edozein sozietatetan administrazio- edo zuzendaritza-karguak betetzeko desgaitzea, gutxienez bost urterako eta gehienez hamar urterako.

b) Kargua aldi baterako kentzea, gutxienez urtebeterako eta gehienez bost urterako.

c) 200.000 euro arteko isuna bakoitzari.

Aurreko paragrafoan xedatuta dagoena gorabehera, a) letran aurreikusitako zehapena ezarri gero, aldi berean c) letran aurreikusita dagoen zehapena ezarri ahal izango da.

4. Aseguru- edo berraseguru-banatzaillei arau-hauste astunak egiteagatik jar dakiekeen zehapena gorabehera, honako zehapen hauetako bat jarriko zaie 1. apartatuan xedatutakoaren arabera arau-hauste horiengatik erantzukizuna dutenei:

a) Kargua aldi baterako kentzea, gehienez ere urtebeterako.

b) 100.000 euro arteko isuna bakoitzari. Zehapen hori ezarri gero, aldi berean a) letran aurreikusita dagoen zehapena ezarri ahal izango da.

c) Arau-haustearen berri eta ezarritako zehapenaren berri argitaratzea.

d) Kargu-hartze pribatua.

196. artikulua. *Zehapenak graduatzeko irizpideak.*

1. Zehapenak ezartzerakoan kontuan hartuko dira arau-haustea astundu edo arindu dezaketen faktoreak.

2. Astungarritzat edo aringarritzat joko dira, kasuen arabera, honako inguruabar hauek:

a) Arau-haustearen larritasuna eta iraupena;

b) arau-hauslearen erantzukizunaren zenbaterainokoa;

c) arau-hauslearen sendotasun finantzarioa, hau da, pertsona fisiko erantzulearen urteko diru-sarrerak edo pertsona juridiko erantzulearen guztizko negozio-bolumena;

d) arau-hausleak lortutako etekinen edo saihestutako galeren zenbatekoa, halakoak zehaztu daitezkeen neurrian;

e) arau-hausteak bezeroei eta hirugarrenei eragindako galerak, halakoak zehaztu daitezkeen neurrian;

f) arau-hausleak agintaritza eskudunari emandako laguntzaren zenbaterainokoa.

g) arau-hausleak arau-haustea berriro ez egiteko hartutako neurriak, eta

h) arau-hausleak aurretik egindako arau-hausteak, halakorik bada.

197. artikulua. *Zehapenen preskripzioa.*

1. Arau-hauste oso astunengatik ezarritako zehapenak bost urtera preskribatuko dira; arau-hauste astunengatik ezarritakoak, lau urtera, eta, arau-hauste arinengatik ezarritakoak, bi urtera.

2. Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen, edo, ezarritako zehapena betetzen hasi eta gero urratzen bada, urratzen denetik aurrera.

3. Preskripzioa geldiarazi egingo da zehapenaren betearazpena hasten denean, interesduna jakitun dela; preskripzio-epeak berriro egingo du aurrera, baldin eta prozedura hiru hilabete baino gehiagoz geldiarazita egon bada arau-hausleari egotzi ezin zaion arazoiren batengatik.

198. artikulua. *Administrazio-eskumenak.*

Zehapen-espeditenteak instruitzeko eta zehapenak ezartzeko eskumena honela arautuko da:

a) Aseguruen eta Pentsio Funtsen zuzendari nagusiak jarriko du abian zehapen-prozedura, eta instruktore izendatuko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiko funtzionario bat.

b) Aseguruen eta Pentsio Funtsen zuzendari nagusiak ezarriko ditu zehapenak arau-hauste astunengatik eta arinengatik.

c) Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak ezarriko ditu zehapenak arau-hauste oso astunengatik, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak proposatuta.

199. artikulua. *Salaketa publikoa eta aseguru-entitateen araubidera igortzea.*

1. Aseguru- eta berraseguru-banatzailleek prozedura egokiak izan behar dituzte enplegatuek arau-haustek jakinarazi ahal izateko, erakunde barruan, kanal independente, berariazko eta autonomo baten bidez. Prozedura horiek erregelamenduz garatu ahal izango dira.

2. Prozedura horiek konfidentzialtasuna bermatu beharko dute, bai arau-hausteei buruzko informazioa ematen duen pertsonari dagokionez, bai arau-haustearen ustezko erantzule diren pertsona fisikoei dagokienez.

3. Halaber, bermatu behar da erakundearen egindako arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten enplegatuei babesa ematen zaiela haien kontrako errepresaliarik, diskriminaziorik eta beste edonolako tratu bidegaberik ez izateko.

4. I. tituluan berariaz arautzen ez den guztian, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen aseguru-entitateentzat aurreikusten den zehapen-araubidea aplikatuko da; batez ere, zehapenak mailakatzeko irizpideak, 205. artikuluan jasoak; administrazio-zehapenekin lotuta dauden neurriak, 206. artikuluan aurreikusitakoak; eta zehatzeko ahala egikaritzeko arau osagarriak, 207. artikuluan ezartzen direnak.

200. artikulua. *Kontrol-neurri bereziak.*

Aplika daitekeen zehapena gorabehera, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru- edo berraseguru-bitartekariaren gaineko kontrol-neurri bereziren bat hartu ahal izango du, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 160. artikuluan eta 162. artikulutik 165.era xedatutakoari jarraituz, baldin eta lege horren 159.1 artikuluko e) letratik h) letrara bitartean (bi horiek barne) azaltzen diren egoeretako batean badaude, eta aplikatzekoa zaien heinean.

201. artikulua. *Zehapenak eta beste neurri batzuk argitaratzea.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko ditu I. tituluko xedapenen kontrako arau-hauste astunengatik edo oso astunengatik zehapenak edo bestelako administrazio-neurriak ezartzen dituzten ebazpenak, behin administrazio-bidean irmo bihurtzen direnean. Arau-haustearen mota eta izatera eta erantzuleen identitatea argitaratu beharko dira.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa dela eta, lehenengo ebaluazio batean gerta liteke Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak uste izatea gehiegikeria izan daitekeela zehatutako pertsona juridikoaren izena edo zehatutako pertsona fisikoaren datu pertsonalak argitaratzea, edo horrek gehiegizko kaltea eragin diezaiekeela zehatutako entitate edo pertsona fisikoei (kaltea zehaztu daitekeen heinean), edo argitaratze horrek arriskuan jar dezakeela hasitako ikerketaren bat edota finantza-merkatuen egonkortasuna. Hala uste duenean, honako neurri hauetatik edozein erabaki ahal izango du:

- a) Argitalpena geroratzea harik eta atzerapena justifikatzen duten arrazoiak desagertu arte.
- b) Ezarritako zehapena izenik gabe argitaratzea, horrela datu pertsonalen babes eraginkorra bermatzen bada. Kasu horretan, datuen argitalpena arrazoizko aldi batez geroratu ahalko da, baldin eta aurreikusten bada anonimotasuna babesten duen argitalpen bat justifikatzen duten arrazoiak desagertuko direla aldi horretan zehar.
- c) Ezarritako zehapena ez argitaratzea, uste badu a) eta b) letretan azaldutako moduan argitaratzea ez litzatekeela nahikoa izango finantza-merkatuen egonkortasuna arriskuan jarriko ez dela bermatzeko edota argitalpena neurri egokia dela bermatzeko, egindako arau-haustek kontuan hartuta.

202. artikulua. *Zehapenei eta beste neurri batzuei buruzko informazioa Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzara bidaltzea.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak informazioa emango dio Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari ezarri diren baina 201. artikulua arabera argitaratu ez diren zehapenen eta bestelako administrazio-neurrien gainean, haiei dagokienez jarritako errekurtsoak eta errekurtsoon emaitzak barne.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak urtero informazio agregatua emango dio Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari azpiatal honetan xedatutakoaren arabera ezarritako administrazio-zehapenei eta bestelako neurriei buruz.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak administrazio-zehapen edo bestelako neurriren baten berri argitaratzen duenean, aldi berean horren jakitun jarriko du Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzara.

3. azpiatala. Datu pertsonalak babestea

203. artikulua. *Tratamenduaren erantzulea edo arduraduna.*

1. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako ondorioetarako (erregelamendu hori pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamendutik babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da):

a) Aseguru-agenteak eta banku-aseguruen operadoreak, I. tituluaren ezarritako moduan agentzia-kontratua egiten badute aseguru-entitate batekin, haren tratamenduaren arduradunak izango dira.

b) Aseguru-artekariak eta berraseguru-artekariak tratamenduaren erantzuleak izango dira haiengana jotzen duten pertsonen datuei dagokienez.

c) 137. artikuluan aipatzen diren kanpoko laguntzaileak, merkataritza-kontratua egiten badute aseguru-agente edo -artekari batekin, haren tratamenduaren arduradunak izango dira. Kasu horretan, 137.1 artikuluan adierazitako xedeetarako baino ezin izango dituzte erabili datuak.

2. Agentzia-kontratuan, 1. apartatuko a) letran azaltzen den kasuan, jasorik utzi beharko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28.3 artikuluan aurreikusitakoak.

Era berean, 1. apartatuko c) letran azaltzen den kasuan, kanpoko laguntzaileekin egindako merkataritza-kontratuan jasorik utzi beharko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28.3 artikuluan aurreikusitakoak.

3. Aseguru-entitateek ezin izango dituzte gorde aseguru-bitartekariak ematen dizkieten datuak, horietatik aseguru-kontraturik eratorri ezean, eta ezabatu egin beharko dituzte, ez badago beste oinarri juridikoren bat datu horien tratamendua zilegi egiten duena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren arabera.

204. artikulua. *Datuen babesari buruzko beste arau batzuk.*

1. Aseguru- eta berraseguru-bitartekariak komunikazio elektronikoen bidez hirugarrenei igortzen dieten publizitateak uztailaren 11ko 34/2002 Legearen 21. eta 22.1 artikuluetan xedatutakoa bete beharko du (lege hori informazioaren gizarteko zerbitzuei eta merkataritza elektronikoari buruzkoa da).

2. Aseguru-agenteeak eta banku-aseguruen operadoreak aseguru-agentziako kontratuan ezartzen diren moduan eta eremuan baino ezin izango dituzte tratatu interesdunen datuak, eta, betiere, kontratu hori egin dien aseguru-entitatearen izenean eta kontura tratatuko dituzte.

Banku-aseguruen operadoreak ezin izango dituzte euren xede sozialari lotutako helburuetarako tratatu euren bitartekaritzarekin zerikusia duten datuak, ez badute jasotzen ukituen aldetik adostasun argia eta berariazkoa.

3. Aseguru-artekariak eurengana jotzen duten pertsonen datuak tratatu ahal izango dituzte Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluko kasuetan.

4. Aseguru- edo berraseguru-artekari batek aseguru-kontratu baten banaketan esku hartuz gero, kontratu hori suntsiarazten denean artekariak ezereztu egin beharko ditu datuak, baldin eta interesdunak ez badio baimena eman datuok beste helburu batzuetarako erabil ditzan; bereziki, beste kontratu bat egiteko.

Nolanahi ere, interesdunak entitate batekin egindako kontratua suntsiaraziz gero, aseguru- edo berraseguru-artekariak ezin izango dizkio interesdunaren datuak eman beste inongo entitateri, interesdunak argi adierazi ezean ados dagoela.

5. Aseguru-banatzailleek I. tituluan xedatutakoaren esparruan zintzotasun komertzial eta profesionala baloratzeko egiten duten datu-tratamenduak helburu bakarra izan beharko du informazioa ematea Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, eta berariaz mugatuko da erakundearen barruan datu horiek eskuratu ahal izango dituzten pertsonen kopurua.

8. atala. *Aseguru-bitartekarien elkargoak eta haien kontseilu nagusia*

205. artikulua. *Aseguru-bitartekarien elkargoak.*

1. Aseguru-bitartekarien elkargoak zuzenbide publikoko korporazioak dira, nortasun juridiko propioa dutenak, eta jarduteko gaitasun osoa euren xedeetarako. Nahi izanez gero, aseguru-bitartekariak elkargo horietan sar daitezke, baldin eta 133. artikuluan aipatutako erregistro administratiboan inskribaturik badaude.

2. Inoiz ez da aseguru-bitartekari jarduteko baldintza izango aseguru-bitartekarien elkargo bati atxikitzea, edozein izanda ere aseguru-bitartekariak lanbidean jardun nahi duen lurralde-eremua.

3. Aseguru-bitartekarien elkargoek, bai eta autonomia-erkidegoetako elkargoen kontseiluek ere, halakorik dagoenean, Aseguru-bitartekarien Elkargoen Kontseilu Nagusiaren bidez izango dituzte harremanak Estatuko Administrazio Orokorrekin, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia dela medio.

IV. KAPITULUA

Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten aseguru- eta berraseguru-banatzailleak*1. atala. Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten aseguru- eta berraseguru-bitartekariak Espainian duten jarduera*206. artikulua. *Arau orokorrak.*

Espainia ez den Europar Batasuneko estatu bateko erregistroan inskribatuta dauden aseguru- edo berraseguru-bitartekariari xedapen hauek aplikatuko zaizkie, erregistro hori Europar Batasuneko jatorrizko estatu horren araudiari jarraituz lege onargarria izanez gero:

a) Espainian jarduerari ekin ahal izango diote kokatzeko eskubidearekin edo zerbitzuak emateko askatasunarekin, baldin eta Europar Batasuneko jatorrizko estatuko agintari eskudunek hala adierazi badiete.

Europar Batasuneko jatorrizko estatuko agintaritzak eskudunak bitartekariari Espainiako lurraldean bete behar dituen interes orokorreko arauak jakinaraziko dizkio, 211. artikuluan aipatzen direnak.

b) Gaztelaniaz aurkeztu beharko dituzte agiriak eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eskatu ahal dien edo eurek igorri behar dioten gainerako informazioa.

c) Espainian euren zerbitzuei buruzko publizitatea egin ahal izango dute, egoitza Espainian duten aseguru- edo berraseguru-bitartekariak bezala.

d) 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan inskribatuko dira, informazio hutserako, bai eurak eta bai euren bezeroen arretarako departamentu edo zerbitzuetako titularrak eta, halakorik badute, bezeroen defendatzailea ere. Espainian kokatzeko eskubidearekin edo zerbitzuak emateko askatasunarekin jarduten dutenak bereiz inskribatuko dira.

207. artikulua. *Eskumenen banaketa Batasuneko estatuen artean.*

1. Espainian kokatzeko eskubidearekin jarduten duen aseguru- edo berraseguru-bitartekari baten jarduera-gune nagusia Espainiako lurraldean dagoela egiaztatuz gero, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Europar Batasuneko jatorrizko estatuko agintaritzak eskudunarekin adostu ahal izango du ezen berak, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, Europar Batasuneko jatorrizko estatuko agintaritzak eskuduna balitz bezala jardungo duela honako arlo hauetako xedapenei dagokienez:

- Aseguru-banatzaille gisa aritu ahal izateko baldintzak.
- Informazio-betebeharrak eta jokatzeko arauak.
- Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuei buruzko informazioa emateko baldintza gehigarriak.
- Zehapenak eta beste neurri batzuk.

Horretan ados jartzen badira, Europar Batasuneko jatorrizko estatuko agintaritzak eskudunak hala jakinaraziko die aseguru- edo berraseguru-bitartekariari eta Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren ardura izango da bermatzea bere lurraldean egiten diren zerbitzuak bat datozela 211. artikuluan aipatzen diren interes orokorreko arauarekin eta arau horiek betetzeko ezarritako neurriekin.

Halaber, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eskubidea izango du aseguru- edo berraseguru-bitartekariak hartutako erabakiak aztertzeke eta behar-beharrezkoak diren aldaketak eskatzeko, 211. artikuluan ezarritako interes orokorreko

arauak betearazi ahal izateko, bitartekariak haren lurraldearen barruan ematen dituen zerbitzuei edo egiten dituen jarduerari dagokienez.

208. artikulua. *Legezko xedapenak betetzea.*

1. Ezertan eragotzi gabe interes orokorreko arrazoiengatik emandako arauak buruz 209. artikuluan xedatutakoa, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, egiaztatzen badu aseguru- edo berraseguru-bitartekari batek ez dituela betetzen I. tituluaren babesean emandako xedapenak, errekerimendua egingo dio, bere jarduna ordenamendu juridikoaren arabera egokitu dezan. Bitartekariak bere jarduna egokitu ezean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak jakinaren gainean jarriko du Europar Batasuneko jatorrizko estatuko gainbegiratze-agintaritzak, neurri egokiak har ditzan, aseguru- edo berraseguru-bitartekariak arauz kanpoko egoerari amaiera emate aldera, eta neurri horiek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraz diezazkion. Horrez gain, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak egokitzat jotzen duen informazioa eman eta eskatu ahal izango dio Europar Batasuneko jatorrizko estatuko gainbegiratze-agintaritzari.

2. Baldin eta, Europar Batasuneko jatorrizko estatuko gainbegiratze-agintaritzak hartutako neurriak gorabehera, edo neurriak ez direlako egokiak, edo neurriak ezagatik, aseguru- edo berraseguru-bitartekariak ordenamendu juridikoa urratzen jarraitzen badu eta eskala handian arituz kalte nabarmena egiten badie aseguruaren erabiltzaileen interesari edo aseguru eta berraseguruen merkatuaren funtzionamenduari, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aplikatzekoak diren kontrol-neurri bereziak ezarri ahal izango ditu irregulartasun gehiago saihesteko, Europar Batasuneko jatorrizko estatuko agintari eskudunei hala jakinarazi ondoren, eta, behar-beharrezkoa izanez gero, lurralde nazionalen banaketa-jarduerak egiten jarraitzea ere galarazi ahal izango du.

Aurrekoa gorabehera, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak betiere ahalmena izango du auzia Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari aurkezteko eta haren laguntza eskatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko azaroaren 24ko 1094/2010 (EB) Erregelamenduaren 19. artikuluan arabera. Erregelamendu horrek Europako gainbegiratze-agintaritzak bat sortzen du (Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak), 716/2009/EE Erabakia aldatzen du eta Batzordearen 2009/79/EE Erabakia indargabetzen du.

3. Aurreko apartatuak ez dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eragotziko neurri egokiak hartzea lurralde nazionalen irregulartasunei aurrea hartzeko edo horiek zehatzeko, berehala esku hartu beharra badago finantza-zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak babestearren; eta, horren barruan, aseguruaren, berraseguruaren eta aseguru osagarrien bitartekariak eragiketa gehiago egitea galarazteko aukera ere izango du.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak artikuluan honen babesean hartzen dituen neurri guztiak bitartekari interesdunari jakinaraziko zaizkio behar bezala justifikatutako dokumentu batean, eta Europar Batasuneko jatorrizko estatuko agintaritzak eskudunari, Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko zaizkio, justifikaziorik gabeko atzerapenik gabe.

209. artikulua. *Interes orokorraren alde ezarritako legezko xedapenak betetzea.*

1. Kokatzeko eskubidearekin edo zerbitzuak emateko askatasunarekin Espainiako lurraldean jarduten duten aseguru- edo berraseguru-bitartekariak 211. artikuluan aipatzen diren xedapenak bete beharko dituzte.

2. Interes orokorreko xedapenei buruzko manuak urratzen direnean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak behar diren neurriak hartu ahal izango ditu –egokiak eta bereizkeriarik gabekoak– aurrez Europar Batasuneko jatorrizko estatuko agintari eskudunei jakinarazi beharrik izan gabe. Horren barruan, bitartekariari Espainiako lurraldean eragiketa gehiago egitea galarazteko aukera ere izango du, irregulartasunei aurrea hartzeko edo egindakoak zehatzeko.

3. Era berean, Europar Batasuneko beste estatu batean kokatutako aseguru-bitartekari batek Espainiako lurraldean zerbitzuak emateko askatasunarekin edo kokatzeko eskubidearekin jardun dezan eragozteko helburu –baldin eta jarduera horiek, osorik edo gehienbat, aseguru-bitartekari horrek sozietatearen egoitza edo helbidea Espainian edukiko balu aplikatuko liratekeen lege-xedapenak saihestu nahian egiten badira Espainiako lurraldean, eta, gainera, haren jardunak arrisku larrian jartzen badu Espainiako aseguru-merkatuaren funtzionamendu ona, aseguru-erabiltzaileen babesaren aldetik–, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, Europar Batasuneko jatorrizko estatuko agintaritzak eskuduna jakinaren ganean jarri ondoren, aseguru-bitartekari horri dagokionez beharrezkoak eta egokiak diren neurri guztiak hartu ahal izango ditu aseguru-erabiltzaileen eskubideak babesteko Espainiako lurraldean.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak auzia Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari aurkeztu eta haren laguntza eskatu ahal izango du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko azaroaren 24ko 1094/2010 (EB) Erregelamenduaren 19. artikuluari jarraituz.

210. artikulua. *Esku-hartzeko neurriak.*

1. Aseguru-bitartekari, aseguru osagarrien bitartekari edo berraseguru-artekari batek Espainian jarduten badu kokatzeko eskubidearekin edo zerbitzuak emateko askatasunarekin egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duenari, eta haren gainbegiratze-agintaritzak erabakitzen badu beraren inskripzioa ezereztea Europar Batasuneko jatorrizko estatu horren araudiaren arabera legez onargarria den erregistroan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ezerezte hori jasorik utziko du 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak erabaki ahal izango du beharrezkotzat jotzen duen moduan zabaltzea ezerezte horren berri.

2. Aseguru- edo berraseguru-bitartekariren batek egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duenari Espainian jarduten badu kokatzeko eskubidearekin edo zerbitzuak emateko askatasunarekin, hura Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren zehatzeko ahalaren pean egongo da, 191. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eran, aplikatzekoa zaion guztian, eta honako zehaztasun hauekin:

a) Zehapen gisa, inskripzioa ezereztu ordez, ulertuko da debekatu egiten zaiola eragiketa gehiago egitea Espainiako lurraldean.

b) Prozeduraren hasiera Europar Batasuneko jatorrizko estatuko gainbegiratze-agintariei jakinaraziko zaie, haiek –i. tituluaren arabera bidezkoak izan daitezkeen zehapenak gorabehera– egokitzen dituzten neurriak har ditzaten, hala behar denean, bitartekariak arauz kontra jarduteari utz diezaion edo arau-hauste gehiago egin ez dezan. Prozedura amaituta, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak erabakia jakinaraziko die aipatutako agintariei.

c) Sukurtsalen administrazio edo zuzendaritzako karguduntzat joko dira ahalordedun nagusia eta sukurtsala zuzentzen duten gainerako pertsonak.

2. atala. *Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten aseguru- eta berraseguru-banatzzaileei aplikatzekoak diren interes orokorreko arauak*

211. artikulua. *Interes orokorreko arauak.*

1. Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean izan eta Espainian banaketa-jarduerak egiten dituzten aseguru- eta berraseguru-banatzzaileek bete egin beharko dituzte interes orokorraren alde emandako xedapenak eta aplikatzekoak diren gainbegiratze-arauak.

2. Espainiako lurraldean betiere interes orokorreko arautzat hartuko dira informazio-betebeharrei eta jokatzeko arauari buruzko xedapenak, eta aseguruetan oinarritutako

inbertsio-produktuen inguruko informazio-baldintza gehigarriak, III. kapituluaren 6. atalean azaltzen direnak.

3. Interes orokorreko arauak behar bezala argitaratuko dira Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiaren webgunean.

II. TITULUA

Transposizio partziala: 2016/2341 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko abenduaren 14koa, enpleguko pentsio-funtzen jarduerari eta haiek gainbegiratzeari buruzkoa

212. artikulua. *Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko testu bategina aldatzea, zeina azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.*

Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, honela aldatzen da:

Bat. 10 bis artikulua gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«10 bis artikulua. *Partaide potentzialei, partaideei eta onuradunei eman behar zaien informazioa.*

1. Pentsio-planetako partaide potentzialek, partaideek eta onuradunek informazio egokia eta gardena eduki beharko dute pentsio-plan eta -funtsei buruz, erretiroari buruzko erabakiak informazio horretan oinarritu ahal izateko eta planean dituzten eskubideen edukia eta eboluzioa ezagutzeko.

2. Partaide potentzialei, partaideei eta onuradunei eman behar zaien informazioak printzipio hauek beteko ditu:

- a) Aldian behin eguneratzea.
- b) Argi idatzita egotea, hizkera soil eta ulerterrazean, mordoiloak eta termino teknikoak baztertuz, horien ordezkari ohiko hitzak erabil daitezkeenean.
- c) Engainagarria ez izatea eta koherentea izatea hiztegiaren eta edukian.
- d) Erraz irakurtzeko moduan aurkeztea.
- e) Gutxienez ere gaztelaniaz eskuragarri egotea.
- f) Doan ematea.

3. Erregelamendu bidez arautuko dira informazioaren baldintzak, edukia eta hura emateko bitartekoak –bai planera batzean, bai harrezkero, aldi behin, bai eta eskubideak beste plan batera aldatzean edo plana beste pentsio-funts batera aldatzean ere–, eta, halaber, nola eskuratuko diren planaren zehaztapenak, pentsio-funtsetan funtzionamendu-arauak, inbertsio-politika eta urteko kontuak, eta partaide eta onuradun guztiei edo hala eskatzen dutenei eman beharreko edozein informazio osagarri.

Betiere, datu pertsonalen babesari buruzko araudian beren datuen tratamenduari buruz aurreikusita dagoen informazioa emango zaie pentsio-planetako partaide potentzialei, partaideei eta onuradunei.»

Bi. 14. artikulua 7. apartatua kendu egiten da, eta 14. artikulua 2. apartatua bi letra gehitzen zaizkio, j) eta k). Hona:

«j) Funtsa gobernatzeko sistema eta barne-kontrolerako sistema ezartzea, horien bidez jarduerari errazago kudeatzeko eta, bereziki, arriskuen kudeaketaren, barne-auditoretzaren eta, kasua bada, aktuariotzaren arloetako betebeharrak betetzeko, pentsio-funtsetan jardueren tamaina, izaera, eskala eta konplexutasuna aintzat hartuta.

k) Nahitaez entzuna izatea entitate kudeatzailearen eginkizunak edo jarduerak kanpora ateratzeko prozesuetan, 30. artikuluan azaltzen diren horietan.»

Hiru. Bi apartatu gehitzen zaizkio 16. artikuluari, 8. eta 9. apartatuak; honako hau diote:

«8. Pentsio-funtsa kontrolatzeko batzordeak, erakunde kudeatzaileak ere horretan parte hartzen duela, funtsaren inbertsio-politikaren printzipioen adierazpena egingo du idatziz. Adierazpen hori hiru urtean behin berrikusiko da gutxienez, eta inbertsio-politikan aldaketa esanguratsuren bat egin eta berehala betiere. Adierazpen horren berri behar beste zabalduko da.

Adierazpen horretan honako hauek azalduko dira, besteak beste: inbertsioaren arriskua neurtzeko metodoak, arriskuen kontrola kudeatzeko erabiltzen diren prozesuak, eta aktiboen esleipena, pentsioetarako konpromisoen izaerari eta iraupenari dagokienez.

Gainera, enpleguko pentsio-funtsen kasuan, adierazi beharko da ea aintzat hartzen diren inbertsioei buruzko erabakietan gizarte-erantzukizuneko inbertsio-irizpideak (etikoak, sozialak, ingurumen-arlokoak eta gobernantza onaren arlokoak), pentsio-funtsa osatzen duten aktiboei eragiten dietenak.

Era berean, enpleguko pentsio-funtsa kontrolatzeko batzordeak, edo hala behar denean erakunde kudeatzaileak, enpleguko pentsio-funtsaren kudeaketari buruzko urteko txostenean jasorik utzi beharko du zer politika erabili den arestian aipatutako gizarte-erantzukizuneko inbertsio-irizpide horiei begira, eta zer prozedura erabili den irizpideok ezartzeko, kudeatzeko eta jarraipena egiteko.

9. Pentsio-funtsa kontrolatzeko batzordeak, erakunde kudeatzaileak ere horretan parte hartzen duela, epe luzerako inbertsio-estrategiaren adierazpena egingo du idatziz. Adierazpen horren berri behar beste zabalduko da.

Gutxienezko edukia erregelamenduz zehaztuko da, eta informazio hauek hartuko ditu barnean: nola Europar Batasuneko estatu batean kokatuta dagoen edo bertan jarduten duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako akzioak dituzten sozietateetan inbertitzeko strategiaren osagai nagusiak bat datozen haren pasiboan ezaugarriekin eta iraupenarekin (batez ere epe luzeko pasiboekin), eta nola laguntzen duten haren aktiboen epe ertain eta luzeko errendimendua handitzen.»

Lau. Honela idatzita geratzen dira 20. artikulua 1. apartatuaren g) letra eta 4. apartatua:

«g) Bazkideei aplikatzekoa izango da Aseguru eta Berraseguru Entitateen Antolamendu, Gainbegiraketa eta Kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legeak 36. artikuluan xedatutakoa. Erakunde kudeatzailean zuzenean edo zeharka partaidetza handia dutenen egokitasuna erregelamenduz ezartzen den moduan ebaluatuko da. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak arautu ahal izango du Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari ebaluaziorako igorri beharreko informazioaren eta egiaztatzearen edukia.»

«4. Erregelamendu bidez ezarriko da zer baldintza bete beharko dituzten pentsio-funtsak kudeatzeko erakundeek honako zuzentarau hauen babesean baimendutako hirugarren entitateekin batera administratzen dituzten pentsio-funtsen inbertsioen kudeaketa kontratatu ahal izateko:

a) 2009/65/EE Zuzentaraua, 2009ko uztailaren 13koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak koordinatzen dituena.

b) 2009/138/EE Zuzentaraua, 2009ko azaroaren 25ekoa, bizi-aseguruari, aseguru- eta berraseguru-jardueran hasteari eta horretan jarduteari buruzkoa (Kaudimena II).

c) 2011/61/EB Zuzentaraua, 2011ko ekainaren 8koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, inbertsio-funts alternatiboen kudeatzaileei

buruzkoa, 2003/41/EE eta 2009/65/EE zuzentarauak eta 1060/2009 (EE) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak aldatzen dituena.

d) 2013/36/EB Zuzendaraua, 2013ko ekainaren 26koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, kreditu-erakundeak jardunean hasteari eta kreditu-erakundeen eta inbertsio-zerbitzuetako enpresen zuhurtziazko gainbegiratzeari buruzkoa, zeinak 2002/87/EE Zuzendaraua aldatzen baitu eta 2006/48/EE eta 2006/49/EE zuzentarauak indargabetzen baititu.

e) 2014/65/EB Zuzendaraua, 2014ko maiatzaren 15ekoa, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa, 2002/92/EE Zuzendaraua eta 2011/61/EB Zuzendaraua aldatzen dituena.

Halaber, pentsio-funtsen inbertsioen kudeaketa kontratatu ahal izango da pentsio-funtsak kudeatzen dituzten beste entitate batzuekin, lege honen arabera baimenduta badaude, edo hala aurreikusita badago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzendarauaren 2. artikulua 1. apartatua (zuzendarau hori enpleguko pentsio-funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzkoa da).»

Bost. VII. kapituluaren goiburua honela geratzen da idatzita:

«VII. KAPITULUA

Antolaketa eta gainbegiratzea»

Sei. 24. artikulua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«24. artikulua. *Antolaketa eta gainbegiratze administratiboa.*

1. Lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako eran, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroari eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari dagokie pentsio-plan eta -funtsen jardura antolatzeko eta gainbegiratzeko eskumenak baliatzea. Beren eskumenak baliatuz, adi egongo dira honako hauek behar bezala bete ditzaten lege- eta erregelamenduxedapenak: pentsio-funtsen kudeatzaile eta gordailuzain diren entitateek; lege honetan aipatzen diren benetako zuzendaritzan eta funtsezko eginkizunetan diharduten pertsonak; eskuordetutako edo kanporatutako eginkizunak betetzen dituzten entitateek edo pertsonak; banakako pentsio-planen merkaturatzaileak; pentsio-planen sustatzaileak; kontrol-batzordeak; aktuarioak; Europar Batasuneko beste estatu batzuetan baimenduta edo erregistratuta dauden pentsio-funtsen ordezkariak, eta lege honetan edo berau garatzeko eta osatzeko arauetan eginkizun, debeku edo mandaturen bat ezartzen zaien pertsona edo entitate guztiak.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia, pentsio-funtsen arloan Espainiako gainbegiratze-agintaritza den aldetik, Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzako kidea izango da, horrela xedatzen baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 24ko 1094/2010 Erregelamenduak, Europako gainbegiratze-agintaritza bat sortzen duenak.

Pentsio-plan eta -funtsen arloan aplikatzekoa izango da uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 17. artikuluan ezarritakoa.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, bere eginkizunak betetz, entitate kudeatzaileak eta pentsio-plan eta -funtsak gainbegiratzeko ditu, bai eta 1. apartatuaren lehenengo paragrafoan aipatutako gainerako entitate eta subjektuak ere.

Gainbegiratze-lan horretan etengabe aztertuko du ea jardura behar bezala egiten den, nolakoak diren finantza-egoera eta merkatuko jokabideak, eta pentsio-plan eta -funtsen araudia betetzen den.

Pentsio-plan eta -funtsak eta horiek kudeatzen dituzten entitateak zuhurtziazko gainbegiratzearen pean egongo dira, eta horrek barruan hartuko ditu, bidezkoa denean, arlo hauek, beste batzuen artean:

- a) Funtzionamendu-baldintzak.
- b) Hornidura teknikoak.
- c) Hornidura teknikoen finantzaketa.
- d) Funts propioen eskakizuna.
- e) Kaudimen-marjina erabilgarria.
- f) Nahitaezko kaudimen-marjina.
- g) Inbertsio-arauak.
- h) Inbertsioen kudeaketa.
- i) Gobernu-sistema, eta
- j) Partaide eta onuradunei eman behar zaien informazioa.

Zuhurtziazko gainbegiratzeak aurrera begirako planteamendu bat izango du oinarri, arriskuari erreparatzen diona.

Gainbegiratzeko ahalmenak modu egoki eta proportzionatuan erabiliko dira, pentsio-funtsen jardueren tamaina, izaera, eskala eta konplexutasuna kontuan hartuta, eta egokiro konbinatuko dira *in situ* ikuskapenak eta beste leku batzuetan egindako jarduerak.

Entitate kudeatzaileen, pentsio-plan eta -funtsen eta 1. apartatuko lehenengo paragrafoan aipatutako gainerako subjektu eta entitateen jardueraren eremuko gainbegiratze-gaietan, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen IV. tituluko I., II. eta III. kapituluetan aseguru-entitateak gainbegiratzeari buruz xedatutakoa izango da aplikatzekoa, lege honetan eta berau garatzeko araudian jasotako berezitasunekin.

3. Entitate kudeatzaileak eta pentsio-plan eta -funtsak ikuskatzeari dagokionez, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen IV. tituluko IV. kapituluan aseguru-entitateen ikuskapenari buruz xedatzen dena izango da aplikatzekoa.

Pentsio-planen zehaztapenetan edo pentsio-funtsen funtzionamendu-arauetan kontrakorik berariaz adierazi ezean, pentsio-plan eta -funtsak ikuskatzearen ondorioz egiten diren jarduketak guztiak, pertsona fisikoei dagozkienak izan ezik, jakinarazitzat emango dira kasuan kasuko entitate kudeatzaileari jakinarazten zaizkionean.

Halaber, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak pentsio-funtsen gordailuzain diren entitateak ikuskatzeko agindu ahal izango du, pentsio-plan eta -funtsei buruzko araudia behar bezala betetzen dutela egiaztatzeko. Ikuskatzeko aginduaren berri emango zaio entitatea kontrolatzeko eta gainbegiratzeko ardura duen administrazio-organo edo -erakundeari, kasua bada, eta esku hartzeko edo laguntzeko ere eskatu ahal izango zaio, beharrezkoa denean. Kasu honetan ere aplikatzekoa izango da uztailaren 14ko 20/2015 Legearen IV. tituluko IV. kapituluan aseguru-entitateen ikuskapenari buruz xedatutakoa.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak agindu ahal izango du ikuskatu daitezela hirugarren bati transferitutako eginkizunak, bai eta pentsio-planak merkaturatzeko eginkizunak ere, egiaztatzeko ea pentsio-plan eta -funtsen araudiarekin bat etorritz betetzen diren. Ikuskatzeko aginduaren berri emango zaio zerbitzu-emailea kontrolatzeko eta gainbegiratzeko ardura duen administrazio-organo edo -erakundeari, kasua bada, eta esku hartzeko edo laguntzeko ere eskatu ahal izango zaio, beharrezkoa denean. Uztailaren 14ko 20/2015 Legearen IV. tituluko IV. kapituluan aseguru-entitateen ikuskapenari buruz xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

5. Enpleguko pentsio-funtsen mugaz haraindiko jarduerarik izanez gero, aipatu jarduera egiten den Europar Batasuneko estatuetako pentsio-funtsen erregistro administratiboan hala jasoko da, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari jakinaraziko dio aipatu informazioa.

Halaber, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari jakinaraziko dizkio lege honetan aurreikusitakoaren arabera enpleguko pentsio-funtsen jarduerak debekatzeko hartutako erabakiak, eta, nolana ere, zehatz-mehatz arrazoitu beharko dira erabakiok, eta dagokion funtsari jakinarazi beharko zaizkio. Helburu horretarako, Zuzendaritza Nagusiak enpleguko pentsio-funtsen baimen administratiboaren baliogabetzea jakinaraziko dio agintaritzari horri, baliogabetze hori 31.2 artikuluko a) eta c) letretan aurreikusitako kausengatik denean izan ezik. Halaber, baimendu gabeko enpleguko pentsio-funtsen jarduera eteteko errekerimendua jakinaraziko dio aipatu agintaritzari, eta honako kontrol bereziko neurri administratibo hauek ere jakinaraziko dizkio: funtsetan plan berriak edo partaide nahiz ekarpen berriak onartzeko debekua, eta mugaz haraindiko jarduerak egiteko debekua.»

Zazpi. 24 bis artikulua gehitzen da VII. kapituluari; hona testua:

«24 bis artikulua. *Gainbegiratze-lanaren gardentasuna.*

1. Uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 111. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak gardentasunez, mendekotasunik gabe eta arduraz beteko du gainbegiratze-lana, eta behar bezala bermatuko du isilpeko informazioaren babesa.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, gainbegiratze-lanaren gardentasunerako, informazio hau zabalduko du:

a) Pentsio-plan eta -funtsen arloko lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenen testuak eta orientazio orokorrak.

b) Europar Batasuneko araudian jasotako aukerak baliatzeari buruzko erabakia.

c) 24 ter artikuluan jasotako berrikuste- eta gainbegiratze-prozesuaren gaineko informazioa.

d) Datu estatistiko agregatuak, zuhurtziazko arauen aplikazioaren funtsezko alderdiei buruz.

e) Gainbegiratze-lanaren helburuak eta gainbegiratze-eginkizun eta -jarduketa nagusiak.

f) Zehapen administratiboaren eta arau-hausteei aplikatu ahal zaizkien bestelako neurrien gaineko arauak.

g) Gainbegiratutako entitateentzat egiten dituen gida teknikoak, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 111.2 artikuluan aipatzen direnak.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari jakinarazi beharko dizkio zuhurtziazko xedapenak, ez badaude jasota 38. artikuluan aipatzen diren enpleguko pentsio-planari aplikatu beharreko gizarte- eta lan-arloko legerian.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak informazio hori eguneratuko du bi urtean behin, gutxienez.»

Zortzi. 24 ter artikulua gehitzen da VII. kapituluari; hona testua:

«24 ter artikulua. *Gainbegiratzeko ahalmen orokorrak.*

1. Pentsio-planak eta -funtsak gainbegiratzeko bere eginkizunak gauzatzean, eta baita kanporatutako jarduerari dagokienez ere, lege honetan eta pentsio-plan eta -funtsei buruzko gainerako arauetan ezarritako eran, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ahalmen hauek izango ditu:

a) Pentsio-funtsek lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak betetzeko ezartzen dituzten estrategiak, prozesuak eta informazio-prozedurak berrikustea. Berrikuspen horretan kontuan hartuko ditu pentsio-funtsen jardunaren

inguruabarrak, bai eta, kasua bada, kanporatutako eginkizun nagusiak edo bestelako jarduerak gauzatzen dituzten alderdiak ere. Berrikuspenak barruan hartuko ditu honako elementu hauek:

1.a Gobernu-sistemaren inguruko baldintza kualitatiboen ebaluazioa.
2.a Pentsio-funtsak hartzen dituen arriskuen ebaluazioa.
3.a Pentsio-funtsak arrisku horiek ebaluatzeko eta kudeatzeko duen gaitasunaren balorazioa.

b) Pentsio-funtsen metodoak eta praktikak –erresistentzia-probak barne– egokiak zenbateraino diren ebaluatzea; horrela detektatu ahal izango du pentsio-funtsaren finantza-baldintzen narriadura, eta nola zuzentzen den kontrolatu.

c) Estatistika eta kontabilitate aldetik gainbegiratze-lanerako beharrezkoa den informazio guztia eskatzea.

d) Edozein dokumentu eskuratzea, eta haren kopia jasotzea.

e) Beharrezkoa den informazio guztia eskatzea, honako hauek lege- eta erregelamendu-xedapenak behar bezala betetzen dituztela egiaztatzeke: pentsio-funtsen kudeatzaile eta gordailuzain diren entitateek; lege honetan aurreikusitako zuzendaritza eraginkorrean eta funtsezko eginkizunetan diharduten pertsonak; eskuordetutako edo kanporatutako eginkizunak betetzen dituzten entitate edo pertsonak; banakako pentsio-planen merkaturatzaileak; pentsio-planen sustatzaileak; kontrol-batzordeak; aktuarioak; Europar Batasuneko beste estatu batzuetan baimenduta edo erregistratuta dauden pentsio-funtsen ordezkariak, eta lege honetan edo berau garatzeko eta osatzeko arauetan eginkizun, debeku edo mandaturen bat ezartzen zaien pertsona edo entitate guztiak.

Horretarako, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak errekerimendua egin ahal izango du, informazioa igor diezaioten berak ezarritako zentzuzko epean; eta, behar izanez gero, edonori zitazioa egin eta deklarazioa hartu ahal izango dio informazioa lortzeko.

Informazio-errekerimenduak eta zitazioak arrazoituak izango dira, eta lortu nahi den helburuaren neurrikoak. Haietan zehatz-mehatz azalduko da zer informazio eskatzen den, eta modu justifikatuan adieraziko da zer eginkizun gauzatzeko behar den informazio hori eta nola erabili nahi den.

f) Behar diren ikuskapenak eta egiaztapenak egitea.

g) Aurreko e) letran aipatzen diren pertsonak edo erakundeak dauzkaten telefono-erregistroak eta datu-trafikoaren erregistroak eskatzea. Horretarako egiten diren errekerimenduek e) letran ezartzen dena beteko dute.

h) Estatistika eta kontabilitate aldetik gainbegiratze-lanerako beharrezkoa den informazio guztia eskatzea.

i) Entitate kudeatzaileei txostenak eskatzea: aditu independenteen txostenak, barne-auditoretzaren arduradunarenak edota lege honi eta berau garatzeko araudiari jarraituz egin beharreko beste edozein txosten.

j) Behar diren prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezartzea, pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek euren jardueran bete behar dituzten arauak beteko dituztela bermatzeko.

k) Pentsio-plan eta -funtsen arloan zuhurtziazko gainbegiratze-jarduerarako beharrezkoak diren beste eginkizun guztiak.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak gainbegiratze-lanean detektatzen dituen gabeziak edo akatsak zuzentzeko eskatu ahal izango du.

3. Estatuko Aseguru Ikuskatzaileen Goi-mailako Kidegoko funtzionarioek egingo dituzte gainbegiratze-jarduketak, Estatuko Administrazio Orokorreko kidego teknikoetako funtzionarioen eta informatikan adituak diren funtzionarioen laguntzaz.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak 1.a) apartatuan aipatzen diren berrikuspenen maiztasuna eta gutxieneko irismena ezarriko ditu.

Horretarako, kontuan hartuko ditu kasuan kasuko pentsio-funtsaren jardueren tamaina, ezaugarriak, eskala eta konplexutasuna.

5. Prozedura-arau berezirik ezean, urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Bederatzi. 24 quater artikulua gehitzen da VII. kapituluan; hona testua:

«24 quater artikulua. *Lanbide-sekretua eta informazio-trukea.*

1. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak pentsio-plan eta -funtsen arloko eginkizunetan ari dela eskuratzen dituen datuak, dokumentuak eta informazioa isilpekoak izango dira, erregistro administratibo publikoetan egon ohi direnak izan ezik.

Aurreko paragrafoan aipatutako isilpeko informazio hori jasoz gero, lege honetan ezarritako eginkizunetarako bakarrik erabili ahal izango da, hau da, antolatze, gainbegiratzeko eta kontu hartzeko, bai eta pentsio-plan bakoitzaren errendimenduari eta kudeaketa- eta zaintza-komisioei buruzko funtsezko adierazleak argitaratzeko ere, partaide eta onuradunei lagun diezaieketenak euren pentsioaren inguruko erabaki finantzarioak hartzeko garaian.

2. Pentsio-plan eta -funtsak antolatu eta gainbegiratzeko edo kontu hartzeko jarduera egiten duten edo egin duten pertsona guztiak, bai eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak pentsio-plan eta -funtsei buruzko eginkizunak esleitu dizkien pertsonak eta 24.1 artikuluan aipatzen diren entitateak eta pertsonak ere, lanbide-sekretuari loturik egongo dira, eta horri dagokionez uztailaren 14ko 20/2015 Legearen IV. tituluko V. kapituluan ezarritako baldintzak, erantzukizunak eta salbuespenak izango dituzte.

3. Aurreko apartatueta xedatutako gorabehera, isilpeko informazioa uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 128. artikuluan ezarritakoaren arabera eman ahal izango da, eta honako agintaritza eta erakunde hauei ere eman ahal izango zaie, bakoitzak bere eginkizunetan erabil dezan:

- a) Banku zentraleri eta antzeko eginkizuna duten beste erakunde batzuei, diru-agintaritza diren aldetik.
- b) Ordainketa-sistemak gainbegiratzeko ardura duten beste agintaritza publiko batzuei, hala behar denean.
- c) Arrisku Sistemikoaren Europako Batzordeari, Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari, Europako Banku Agintaritzari eta Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari.

Informazio hori 2. apartatuan azaldutako lanbide-sekretuari loturik egongo da.

4. Pentsio-funtsen zuhurtziazko gainbegiratzearekin zerikusia duten isilpeko informazioak ikerketa-batzorde parlamentarioei eman ahal izango zaizkie, edo beste edozein erakunde publikori, bera arautzen duen legeak informazioa eskatzeko bidea ematen badio, edota ikerketak egiteko ardura duten beste erakunde batzuei. Betiere, honako baldintza hauek guztiak bete beharko dira:

- a) Erakunde horiek eskumena izatea, legeria nazionalaren babesean, enpleguko pentsio-funtsak gainbegiratzearen ardura edo gainbegiratzeko horri buruzko legegintzaren ardura duten agintarien ekintzak ikertu edo aztertze.
- b) Informazioa ezinbestekoa izatea a) letran aipatutako eskumena egikaritu ahal izateko.
- c) Informazioa eskuratzen duten pertsonen lanbide-sekretua gorde behar izatea, 2. apartatuan ezarritako baldintzak betez, gutxienez ere.
- d) Informazioa Europar Batasuneko beste estatu batetik badator, jatorrizko herrialdeko agintari eskudunek berriaz baimenduta baino ez ematea informazio hori, eta agintari horiek baimendutako helbururako bakarrik erabiltzea.

5. Halaber, finantza-sistemaren egonkortasuna eta osotasuna sendotzea helburu, informazioa trukatu ahal izango da enpresa sustatzaileei aplikatzen zaien sozietate-zuzenbidearen kontrako arau-hausteak detektatu eta ikertzeko ardura duten agintaritza edo organoekin, baita funtzio publikokoak izan gabe ere euren gaitasun espezifiko dela-eta xede horretarako izendatzen diren pertsonekin ere.

Aurreko paragrafoan aipatutako informazio-trukeetan baldintza hauek bete beharko dira:

a) Informazioaren xedea honako hau izatea: pentsio-funtsak gainbegiratzearen ardura edo gainbegiratze horri buruzko legegintzaren ardura duten agintarien ekintzak detektatu, ikertu eta aztertzea.

b) Jasotzen den informazioa 1. apartatuan ezarritako lanbide-sekretuaren betebeharrari lotuta egotea.

c) Informazioa Europar Batasuneko beste estatu batetik badator, jatorrizko herrialdeko agintaritza eskudunak berariaz baimenduta baino ez ematea informazio hori, eta agintaritza horrek baimendutako helbururako bakarrik erabiltzea.

6. Ulertu behar da 2. eta 5. apartatuetan aipatutako lanbide-sekretuaren betebeharrak ez duela ezertan ere galarazten datu pertsonalen babesari buruzko araudi indardunean ezarritakoa.»

Hamar. VIII. kapituluaren goiburua honela geratzen da idatzita:

«VIII. KAPITULUA

Gobernu-sistema»

Hamaika. Honela idatzita geratzen da 27. artikulua:

«27. artikulua. *Eskakizun orokorrak.*

1. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek eta, halakorik bada, kontrol-batzordeek gobernu-sistema eraginkorra eduki beharko dute, entitatearen jarduerak eta funtsak egokiro eta zuhertasunez kudeatzea bermatuko duena.

Sistema horrek gobernu korporatiboari buruzko idatzizko politikak bilduko ditu, zeinek barruan hartuko baitute, besteak beste, antolaketa-egitura aproposa eta gardena, eginkizunen banaketa argiarekin eta bereizte egokiarekin, eta informazioaren igorpena bermatzeko sistema eraginkorra, bai eta entitate bakoitzaren ezaugarrietarako ordainsari-politika eta -praktika egokiak ere; eta berrikusi egingo da aldian behin.

Gobernu-sistema horretan ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-faktoreak aintzat hartuko dira pentsio-funtsen inbertsioei buruzko erabaketan, inbertsio-politikaren printzipioen adierazpenean ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Gobernu-sistema hori entitatearen jardueren eta hark kudeatzen dituen pentsio-funtsen tamainaren, izaeraren, eskalaren eta konplexutasunaren neurrikoa izango da.

3. Arau orokor gisa, pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek politika idatziak ezarri eta aplikatu beharko dituzte arriskuen kudeaketari eta barne-auditoretzari buruz eta, hala behar denean, entitateak egiten dituen aktuariotza-jarduerari eta kanporatutako jarduerari buruz. Idatzizko politika horiek administrazio-organoren aurretiazko onarpena beharko dute; hiru urtean behin berrikusiko dira, gutxienez, eta sistemaren edo esparruaren edozein aldaketa esanguratsu egiten denean horren arabera egokituko dira.

4. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek barne-kontrolerako sistema eraginkorra ezarri eta dokumentatu beharko dute. Sistema horrek administrazio- eta kontabilitate-prozedurak, barne-kontrolerako esparru bat eta informazio-mekanismo

egokiak bilduko ditu entitatearen eta kudeatutako pentsio-funtsen maila guztietan, eta betetzen diren egiaztatzeko modua ere jasoko du.

Betetzearen egiaztapen horrek barruan hartuko du administrazio-organoari aholku ematea entitateari eta kudeatutako pentsio-funtsei eragiten dieten lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak betetzeari buruz eta, halaber, haien barne-araudia betetzeari buruz. Berekin ekarriko du, gainera, lege-ingurunearen edozein aldaketak entitatearen eta kudeatutako pentsio-funtsen eragiketetan izan dezakeen inpaktua ebaluatzea eta betetze-arriskua zehaztu eta ebaluatzea.

5. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek zentzuzko neurriak hartu beharko dituzte euren jardueren jarraitutasuna eta erregularitasuna bermatzeko; besteak beste, larrialdi-planak egingo dituzte. Horretarako, sistema, baliabide eta prozedura egokiak eta neurrikoak erabiliko dituzte.

6. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek eta, halakorik bada, kontrol-batzordeek gutxienez ere hiru pertsona eduki behar dituzte haiek benetan zuzentzen dituztenak. Entitateek administrazio-kontseilua eduki beharko dute, gutxienez hiru pertsonak osatua, eta bera izango da gobernu-sistemaren azken erantzulea.»

Hamabi. Honela idatzita geratzen da 28. artikulua:

«28. artikulua. *Gaitasuna eta zintzotasuna.*

1. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateak benetan zuzentzen dituzten pertsonak, lege honetan aurreikusitako funtsezko eginkizunak dituzten pertsonak eta, hala denean, kanporatutako funtsezko eginkizunen baten ardura duten kanpoko pertsona edo entitateek betekizun hauek izango dituzte euren jardunean:

a) Gaitasunaren betekizuna:

1.a Entitatea benetan zuzentzen duten pertsonak, talde gisa hartuta, prestakuntza, gaitasun eta esperientzia egokiak izan beharko dituzte pentsio-funtsen kudeaketa egokia eta zentzuzkoa bermatu ahal izateko.

2.a Funtsezko eginkizunak dituzten pertsonak lanbide-prestakuntza, ezagutza eta esperientzia egokiak izan beharko dituzte funtsezko eginkizun horietan egokiro aritu ahal izateko.

b) Zintzotasunaren betekizuna: pertsona zintzoak eta izen onekoak izan beharko dute.

2. Lege honetan eta berau garatzeko xedapenetan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertuko da administrazioko edo zuzendaritzako karguak dituztenak direla benetako zuzendariak pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateetan; honako hauek, zehazki:

a) Kide anitzeko administrazio-organoetako kideak. Pertsona juridikoek administrazio-karguak izan ahal izango dituzte, baina, horretarako, pertsona fisiko bat izendatu beharko dute ordezkari, eta berak ere arestian azaldutako betekizunak bete beharko ditu.

b) Zuzendari nagusiak eta parekoak. Halakotzat hartuko dira entitatean goi-zuzendaritzan aritzen direnak entitatearen administrazio-organoaren, batzorde betearazleen edo kontseilari delegatuen mende zuzenean.

3. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateak, edozein tituluren bitartez entitatea benetan zuzentzen duten pertsonak edo entitate kudeatzailearen barruan funtsezko eginkizunak dituzten pertsonak izendatzen, kargutik kentzen edo ordeztzen dituztenean, jakitun jarriko dute Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia, eta, horrekin batera, behar den informazio guztia aurkeztuko diote ebaluatu ahal izan dezan ea izendatutako pertsona horiek gaitasunaren eta zintzotasunaren

eskakizunak betetzen dituzten. Aktuariotzaren titularrari buruzko jakinarazpena, berriz, kontrol-batzordeak egin beharko du.

Baldin eta, artikulua honetan aipatutako pertsona horietakoren bat jardunean den bitartean, hark gaitasunaren eta zintzotasunaren betekizunak betetzeari uztea dakarten inguruabarrak gertatzen badira, pertsona horren ordezkari beste bat jarri beharko da, eta ordezkari Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaio eta arrazoia adierazi.

Apartatu honetan aurreikusitako jakinarazpenak gehienez ere hamar egun baliaduneko epean egingo dira, izendapen, kargu-uzte edo ordezkariaren unetik hasita.

4. Erregelamenduz zehaztuko da zer kasutan ulertu behar den benetako zuzendaritza edo funtsezko eginkizunetan ari direnek gaitasunaren eta zintzotasunaren betekizunak betetzen dituztela, eta, halaber, horiek betetzen diren ebaluatze aldera Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari igorri beharreko informazioak zer baldintza bete behar dituen. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak arautu ahal izango du ebaluaziorako igorri beharreko informazioaren eta egiaztatzearen edukia.

Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari igorri beharreko informazioari zigor-aurrekari zuzenak erantsiko zaio, agintaritza eskudunak gehienez ere hiru hilabete lehenago emana. Espainiako egoiliar ez diren eta euren herrialdean agiri baliokiderik ez duten pertsonen kasuan, erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da, agintari judizial edo administratibo eskudunaren edo notario publikoaren aurrean egina. Bertan, pertsona horrek adierazi beharko du ez dutela kondenatu atzerrian faltsutze-delituagatik, sekretuak urratzeagatik, kapitalak zurrutzeagatik, terrorismoa finantzatzeagatik, gizarte- eta ekonomia-ordenaren aurkako delituagatik, Ogasun Publikoaren edo Gizarte Segurantzaren aurkako delituagatik, ondasun publikoen bidegabeko eraldatzeagatik edo ondarearen aurkako edozein delituegatik.

5. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten aseguru-entitateen kasuan, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 38. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.»

Hamahiru. Honela idatzita geratzen da 29. artikulua:

«29. artikulua. *Ordainsari-politika.*

1. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek ordainsari-politika egokia ezarri eta erabili beharko dute eurak benetan zuzentzen dituzten pertsona guzientzat eta entitate kudeatzailearen barruan funtsezko eginkizunak betetzen dituztenentzat, bai eta beste kategoria batzuetako langileentzat ere, baldin eta azken horien lanbide-jarduerak eragin nabarmena badute kudeatutako pentsio-plan eta -funtzen arrisku-profilean. Ordainsari-politika hori bat etorriko da entitatearen barne-antolaketarekin eta haren jardueren tamainarekin, izaerarekin, eskalarekin eta konplexutasunarekin.

2. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek ordainsari-politikari buruz behar den informazioa argitaratuko dute aldi berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako xedapenetan besterik ezarri ezean. Erregelamendu hori pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indargabetu egiten du 95/46/EE Zuzendaritza.

3. Printzipio hauek bete behar dira 1. apartatuan aipatutako ordainsari-politikak ezartzean eta aplikatzean:

a) Honako hauekin bat etorriko ezarri, aplikatu eta mantenduko da ordainsari-politika: kudeatutako pentsio-plan eta -funtsek oro har dituzten jarduerak, arrisku-profila, helburuak eta interesak, egonkortasun finantzarioa eta epe luzeko errendimendua. Gainera, politika hori pentsio-plan eta -funtzen kudeaketa sendo, zuhur eta eraginkor baten aldekoa izango da.

- b) Ordainsari-politika bat etorriko da kudeatutako pentsio-planetako partaide eta onuradunen epe luzeko interesekin.
- c) Ordainsari-politikak interes-gatazkak saihesteko neurriak bilduko ditu.
- d) Ordainsari-politika arriskuen kudeaketa zuzen eta eraginkorrarekin uztartuko da, eta ez du sustatuko pentsio-plan eta -funtzen arrisku-profilekin eta araudiarekin bat ez datorren arriskurik hartzerik.
- e) Ordainsari-politika entitate kudeatzaileari eta kanporatutako zerbitzuak egiten dituztenei aplikatuko zaie, salbu eta azken horiek 2009/65/EE, 2009/138/EE, 2011/61/EB, 2013/36/EB eta 2014/65/EB zuzentarauen babesean daudenean.
- f) Entitate kudeatzaileak ordainsari-politikaren printzipio orokorrak zehaztuko ditu, eta politika hori hiru urtean behin, gutxienez, berrikusi eta eguneratuko da. Entitate kudeatzailea printzipio horien aplikazioaren erantzulea izango da.
- g) Ordainsarien arloko gobernua modu argi, garden eta eraginkorrean gauzatu eta gainbegiratu da.

4. Enpleguko pentsio-planetako kontrol-batzordeek ordainsari-politika egokia ezarri eta aplikatu beharko diete aktuariotza-zerbitzuetan eta, kasua bada, aktuariotzako funtsezko eginkizunean aritzen direnei eta kanpoko zerbitzuen beste hornitzaile batzuei, baldin eta horien jarduerak eragin nabarmena izan badezakete pentsio-plan eta -funtzen arrisku-profilean.»

Hamalau. Honela idatzita geratzen da 30. artikulua:

«30. artikulua. *Funtsezko eginkizunak.*

1. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek eta, kasua bada, kontrol-batzordeek honako funtsezko eginkizun hauek eduki beharko dituzte: arriskuak kudeatzeko eginkizuna eta barne-auditoretzako eginkizuna, eta, entitate kudeatzaileak pentsio-planei buruzko aktuariotza-zerbitzuak ematen baditu, aktuariotza-eginkizuna. Entitate horiek euren zeregina modu objektibo, zuzen eta independentean betetzen utzi beharko diete funtsezko eginkizunen titularrei. Kontrol-batzordeek erabaki ahal izango dute eginkizun jakin batzuk entitate kudeatzaileen esku uztea berariaz.

2. Pertsona edo antolaketa-unitate bakar batek funtsezko hainbat eginkizun bete ahal izango ditu entitate kudeatzailean, barne-auditoretzako eginkizuna izan ezik, hori funtsezko beste eginkizun batzuetatik bereiziko baita.

3. Enplegu-sistemako pentsio-plan bati eragiten dion funtsezko eginkizun bat betetzen duen pertsonak edo antolaketa-unitateak funtsezko antzeko eginkizuna bete ahal izango du plan hori sustatzen duen enpresan edo enpresa multzoan ere. Horrelakoetan, planeko kontrol-batzordeak neurri egokiak hartu beharko ditu sustatzailearen eta partaide eta onuradunen artean interes-gatazkarik sor ez dadin eginkizun hori betetzearen ondorioz, edo gatazkaren bat sortuz gero hura egoki kudea dadin.

4. Funtsezko eginkizun baten titularrek euren ardurapeko eremuko konklusio edo gomendio garrantzitsu guztien berri emango diote entitate kudeatzailearen administrazio- edo zuzendaritza-organoari, bai eta, halakorik bada, pentsio-plan eta -funtsetako kontrol-batzordeei ere, zer neurri hartu erabaki dezaten.

5. Funtsezko eginkizunen titularrek jakitun jarriko dute Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusia, baldin eta pentsio-plan eta -funtsetako kontrol-batzordeek edo benetako zuzendariak ez badute zuzenketa-neurri egokirik hartzen honako kasu hauetan:

- a) Funtsezko eginkizuna betetzen duen pertsonak edo antolaketa-unitateak detektatu badu arrisku nabarmena dagoela entitate kudeatzaileak edo pentsio-plan edo funtsek legezko baldintzaren bat ez betetzeko eta horrek ondorio garrantzitsuak izan ditzakeela partaide eta onuradunen interesetan, eta horren berri eman badie benetako zuzendariari edo kontrol-batzordeei; edo

b) funtsezko eginkizuna betetzen duen pertsonak edo antolaketa-unitateak bere funtsezko eginkizunaren testuinguruan ez-betetze larriren bat atzeman badu, entitate kudeatzaileari edo pentsio-plan eta -funtsei eta horien jarduerari aplikatu beharreko lege-, erregelamendu- edo administrazio-xedapenen kontrakoa, eta horren berri eman badio benetako zuzendaritzari edo kontrol-batzordeari.»

Hamabost. 30 bis artikulua gehitzen da VIII. kapituluan; hona:

«30 bis artikulua. *Arriskuak kudeatzeko eginkizuna.*

1. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek arriskuak kudeatzeko eginkizun eraginkor bat eduki beharko dute, behar den neurrikoa, entitatearen tamaina eta barne-antolaketa eta egiten dituen jardueren eta kudeatzen dituen pentsio-funtsen tamaina, izaera, eskala eta konplexutasuna kontuan hartuta. Eginkizun hori halako moduan egituratuko da non arriskuak kudeatzeko sistema baten funtzionamendua erraztuko duen. Horretarako, entitateak behar diren estrategiak, prozesuak eta informazio-prozedurak ezarriko ditu, kudeatutako pentsio-plan eta -funtsek banaka hartuta eta batera hartuta dauzkaten edo izan ditzaketen arriskuak eta elkarrekiko menpekotasunak atzeman, neurtu, zaindu, kudeatu eta administrazio-organoari eta kontrol-batzordeei erregularitasunez jakinarazteko.

Arriskuak kudeatzeko sistema hori eraginkorra izango da eta behar bezala txertatuko da antolaketa-egituran eta erabakiak hartzeko prozesuan.

2. Arriskuak kudeatzeko sistemaren bidez estaliko dira –behar den neurrian, kontuan izanik entitatearen tamaina eta barne-antolaketa eta haren jardueren tamaina, izaera, eskala eta konplexutasuna– pentsio-plan eta -funtsetan edota entitatearen zeregin eta jarduerak esleitu zaizkien kanpoko enpresetan sor daitezkeen arriskuak, gutxienez ere honako arlo hauetan, hala behar denean:

- a) Harpidetza eta erreserben eraketa.
- b) Aktiboen eta pasiboen kudeaketa.
- c) Inbertsioa, tresna eratorrietan, titulizazioetan eta antzeko konpromisoetan egindakoa bereziki.
- d) Likidezia- eta kontzentrazio-arriskuaren kudeaketa.
- e) Eragiketa-arriskuaren kudeaketa.
- f) Asegurua, eta arriskua gutxitzeko beste teknika batzuk.
- g) Inbertsio-zorroarekin eta horren kudeaketarekin zerikusia duten ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arriskuak, entitatearen inbertsio-politikaren printzipio-adierazpenean ezarritako moduan.

3. Baldin eta, pentsio-planaren baldintzen arabera, partaide eta onuradunek arriskuak hartzen badituzte, arriskuak kudeatzeko sistemak partaide eta onuradunen ikuspuntutik ere hartuko ditu kontuan arrisku horiek.

4. Aktuariatza-eginkizuna entitate kudeatzaileari esleitu ez bazaio, eginkizun horren arduradunak entitate horri aktuariatza informazioa eman beharko dio, enpleguko pentsio-funtsen arriskua kudeatzeko sistema eraginkortasunez aplikatu ahal izan dezan.»

Hamasei. 30 ter artikulua gehitzen da VIII. kapituluan; hona testua:

«30 ter artikulua. *Barne-auditoretzako eginkizuna.*

1. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek eta, kasua bada, kontrol-batzordeek barne-auditoretzako eginkizun eraginkorra eduki beharko dute, behar den neurrikoa, entitatearen tamaina eta barne-antolaketa eta egiten dituen jardueren tamaina, izaera, eskala eta konplexutasuna kontuan hartuta. Barne-auditoretzako eginkizunaren barruan, ebaluatu beharko da zenbateraino diren egokiak eta eraginkorrak barne-kontrolerako sistema eta gobernu-sistemaren beste osagai batzuk, tartean direla –hala behar denean– kanpora ateratako jarduerak.

2. Barne-auditoretzako eginkizunak objektiboa izan behako du, eragiketa-eginkizunetatik eta funtsezko beste eginkizun batzuetatik independentea, eta pentsio-plan eta -funtzen araudian ezarritakoaren arabera gauzatuko da.

3. Barne-auditoretzatik ateratako ondorioak eta gomendioak administrazio-organoari jakinaraziko zaizkio, eta hark erabakiko du zer egin behar den haietako bakoitzari dagokionez, eta ekintza horiek burutu daitezzen bermatuko du.

4. Urtero, entitate kudeatzaileak txostena egingo du bere barne-kontrolako prozeduren eraginkortasunari buruz. Bertan, atzemandako akats esanguratsuak eta horien ondorioak nabarmenduko ditu, eta egokitzat jotzen dituen neurriak proposatuko ditu akats horiek zuzentzeko. Txosten hori entitate kudeatzailearen administrazio-kontseiluak onartuko du, eta Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari igorriko zaio, urteko kontuekin batera, 19.1 artikuluan ezarritako epean.

Kudeatutako pentsio-funtsetako kontrol-batzordeei ere bidali beharko zaizkie bai barne-auditoretzako ondorioak eta gomendioak, bai barne-kontrolerako prozeduren eraginkortasunaren gaineko txostena.»

Hamazazpi. 30 quater artikulua gehitzen da VIII. kapituluan; hona testua:

«30 quater artikulua. *Enpleguko pentsio-planen dagokien aktuariotza-eginkizuna eta aktuariotza-zerbitzuak.*

1. Enpleguko pentsio-plan misto edo prestazio mugatuko batek arrisku biometrikoak estaltzen baditu, edo dela inbertsioaren emaitza, dela prestazioen maila jakin bat bermatzen badu, eta hirugarrenek erabat aseguratuz ez badago, aktuariotza-eginkizun eraginkorra ezarri beharko da helburu hauetarako:

- a) Hornidura teknikoaren kalkulua koordinatu eta gainbegiratzea, hala behar denean.
- b) Hornidura teknikoak kalkulatzeko erabilitako metodoak eta ereduak eta horretarako baliaitutako hipotesiak zenbateraino diren egokiak ebaluatzea.
- c) Hornidura teknikoak kalkulatzeko erabilitako datuak nahikoak eta kalitatezkoak diren ebaluatzea.
- d) Hornidura teknikoak kalkulatzeko oinarritzat hartutako hipotesiak esperientziarekin erkatzea.
- e) Planeko kontrol-batzordeari eta, hala behar denean, entitate kudeatzailearen administrazio- edo zuzendaritza-organoari informazioa ematea hornidura teknikoaren fidagarritasunari eta egokitasunari buruz.
- f) Harpidetza-politika orokorrari buruzko iritzia azaltzea, pentsio-planak halako politikarik izanez gero.
- f) Aseguruaren estalduraren egokitasunari buruzko iritzia azaltzea, pentsio-planak halako erregimenik izanez gero.
- h) Arriskuak kudeatzeko sistema eraginkortasunez aplikatzen laguntzea.

Arrisku biometrikoak dira heriotzarekin, baliaezintasunarekin eta biziraupenarekin lotuta pertsonen izaten dituzten arriskuak.

2. Pentsio-planetarako aktuariotza-zerbitzuen emaileek matematika aktuarial eta finantzarioko ezagutza nahikoak izan beharko dituzte, pentsio-planaren garapenari lotutako arriskuen izaerarako, kopururako eta konplexutasunerako aproposak, eta frogatu beharko dute esperientzia egokia dutela aplikatu beharreko lanbide-arauei eta bestelakoei dagokienez. Zerbitzu horiek euren izenean eman ahal izango dituzte, edo, bestela, halako zerbitzuen hornitzaile den entitate batean jarduten badute lan- edo merkataritza-harremana dela medio, entitate horren kontura.

Aseguru-aktuarioek pentsio-planen dagozkien aktuariotza-zerbitzuetan jardun ahal izango dute betiere.

3. Planetako kontrol-batzordeek aktuariotza-zerbitzuen emaileak aukeratuko dituzte pentsio-planaren ohiko jardunerako, zeinak barruan hartuko baitu, kasua bada, 1. apartatuan aipatutako aktuariotza-eginkizuna.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, planeko kontrol-batzordeak berdin izendatu ahalko ditu euren izenean jarduten duten pertsonak zein aktuariotza-zerbitzuak ematen dituen entitate batean jarduten dutenak. Planeko aktuariotza-zerbitzuen hornitzaile izan ahalko dira entitate kudeatzailea edo funtsaren gordailuzain edo sustatzailea edo planaren sustatzaile edo aseguratzailea edo horietako edozeinen taldeko kide den entitatearen bat, bai eta entitate horiekin lan-edo merkataritza-lotura izan baina planerako euren izenean diharduten pertsonak ere. Hala dagokionean, kontrol-batzordeak behar diren neurriak hartu beharko ditu sustatzailearen eta partaide eta onuradunen artean interes-gatazkarik sor ez dadin edo gatazkaren bat sortuz gero hura egoki kudea dadin.

Artikulu honetan xedatutakoaren aplikazioak ez du ezertan eragotziko 9.5 artikuluan ezarritakoa.»

Hemezortzi. 30 quinquies artikulua gehitzen da VIII. artikuluan; hona testua:

«30 quinquies artikulua. *Arriskuen barne-ebaluazioa enpleguko pentsio-funtsetan.*

1. Enpleguko pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek eta, halakorik bada, kontrol-batzordeek enpleguko pentsio-funts bakoitzaren arriskuaren barne-ebaluazioa egin eta dokumentatu beharko dute. Ebaluazio horren neurria bat etorriko da barne-antolaketa-rekin eta administratutako enplegu-funtsaren edo funtsen jardueren tamainarekin, izaerarekin, eskalarekin eta konplexutasunarekin.

Arriskuen barne-ebaluazio hori aldiro egingo da, hiru urtean behin gutxienez, eta, betiere, pentsio-funtsean integratutako pentsio-planen edo funtsaren arrisku-profilean aldaketa nabarmenak gertatu eta berehala. Pentsio-plan jakin baten arrisku-profilean aldaketa nabarmena gertatzen denean, arriskuen ebaluazioa pentsio-plan horretara mugatu ahal izango da.

2. Erregelamenduz zehaztuko da arriskuen barne-ebaluazioaren edukia.

3. Entitate kudeatzaileek metodoak edukiko dituzte kudeatzen dituzten pentsio-funtsek epe laburrean eta epe luzean dituzten edo izan ditzaketen arriskuak atzeman eta ebaluatzeko, arrisku horiek eragina izan badezakete funtsak bere betebeharrak betetzeko duen ahalmenean. Metodo horiek funtsaren jardueri datzekien arriskuen tamainaren, izaeraren, eskalaren eta konplexutasunaren neurrikoak izan beharko dute. Metodoak arriskuen ebaluazioan bertan deskribatu beharko dira.

4. Arriskuen barne-ebaluazioa kontuan hartuko da enpleguko pentsio-funtsaren erabaki estrategikoetan.

5. Entitate kudeatzaileek barne-ebaluazio bakoitzaren emaitzak Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiarri eta dagozkien kontrol-batzordeei jakinaraziko dizkiete, hamabost egun baldioduneko epean, administrazio-organoak onartzen dituenetik hasita.»

Hemeretzi. 30 sexies artikulua gehitzen da VIII. kapituluan; hona testua:

«30 sexies artikulua. *Jarduerak kanporatzea.*

1. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek eta kontrol-batzordeek edozein jarduera, funtsezko eginkizunak barne, entitatearen izenean jarduten duten zerbitzu-emaileei agindu ahal izango diete osorik edo zati batean, erregelamenduz ezartzen diren salbuespen eta baldintzekin.

2. Entitate kudeatzaileak eta kontrol-batzordeak jarraituko dute, ordea, lege honetatik eta berau garatzeko arauetatik sortzen zaizkien betebeharren erantzukizun osoa izaten funtsezko eginkizunak edo beste edozein jarduera kanporatzen dituztenean.

3. Funtsezko eginkizunak eta beste edozein jarduera ezin izango dira kanpora atera honelako ondorioak sortzeko moduan:

- a) Gobernu-sistemaren kalitatea kaskartzea.
- b) Eragiketa-arriskua bidegabeki handitzea.
- c) Araudiaren ondoriozko betebeharrak betetzen diren egiaztatzeko ahalmena mugatzea agintari eskudunei.
- d) Partaide eta onuradunentzako zerbitzu etengabea eta egokia makaltzea.

4. Entitate kudeatzaileak bermatu egin beharko du kanpora ateratako jardueren funtzionamendu zuzena, zerbitzu-emailea aukeratzeko prozesuaz eta zerbitzu-emaile horren jardueren etengabeko jarraipenaz baliatuta. Horretarako, kanporatutako eginkizun edo jardueraren arduraduna izendatu beharko du entitatearen barruan. Pertsona horrek esperientzia eta ezagutza nahikoak izango ditu zerbitzu-hornitzaileen jarduna egiaztatu ahal izateko.

5. Jarduerak kanpora ateratzeko, funtsezko eginkizunak barnean direla, entitate kudeatzaileak idatzizko akordioa sinatu beharko du zerbitzu-emailearekin. Akordio horrek eraginkortasun juridikoa izango du eta argi zehaztuko ditu entitate kudeatzailearen eta zerbitzu-emailearen eskubideak eta betebeharrak. Betebeharretariko bat izango da neurriak hartzea datu pertsonalak babesteko araudia bete dadin.

Zerbitzuaren emailea datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna izatekoa bada, horretarako neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak aplikatzeko berme nahikoak eskaintzen dituen zerbitzu-emaile bat aukeratu du entitate kudeatzaileak. Aurreko paragrafoan aipatutako akordioan jasoko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28.3 artikulua edukia; erregelamendu hori pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indarrik gabe uzten du 95/46/EE Zuzentaraua.

6. Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek, euren zerbitzuak kanporatzen badituzte, horren jakitun jarri beharko dituzte Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia eta kontrol-batzordeak.

Funtsezko eginkizunak kanporatzen direnean, jakinarazpen hori kanporatze-akordioa formalizatu aurretik egingo da. Aurretiazko jakinarazpen hori jasotzen duenetik hilabeteko epean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kanporatzeari aurka egin ahal izango dio ebazpen arrazoitu baten bitartez, 3. apartatuan azaltzen diren kasuetakoren bat gertatzen denean. Ebazpen horren kontra gora jotzeko errekurtsioa eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango dira.

Kanporatutako jardueren inguruan gerora garrantzizko aldaketaren bat gertatuz gero, hura ere jakinarazi beharko zaie Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eta kasuan kasuko kontrol-batzordeari.

Erregelamendu bidez ezarri ahal izango dira apartatu honetan aurreikusitako jakinarazpenen nondik norakoak eta baldintzak, bai eta funtsezko eginkizun ez diren jarduerak kanporatzen direnean Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari egin beharreko jakinarazpenaren epea edo maiztasuna ere.

7. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak entitate kudeatzaileari, zerbitzu-emailei eta, halakorik bada, kontrol-batzordeei noiznahi informazioa eskatu ahal izango die kanporatutako funtsezko eginkizunei eta beste edozein jarduerari buruz.»

Hogei. 34. artikulua 1. apartatuan, d) letra gehitzen da 1. zenbakian eta h) letra 2. zenbakian; hona:

«d) Gobernu-sisteman edo barne-kontrolerako sisteman huts nabarmenak izatea, jardueraren kudeaketa eragozten dutenak, eta, batez ere, betebeharrak

betetzea eragozten dutenak arriskuen kudeaketaren arloan, barne-auditoretzan eta, kasua bada, auditoretza aktuarialean, edota eginkizun eta jarduerak kanporatzean.»

«h) Gobernu-sisteman edo barne-kontrolerako sisteman huts nabarmenak izatea, jardueraren kudeaketa eragozten dutenak, eta, batez ere, betebeharrak betetzea eragozten dutenak arriskuen kudeaketaren arloan, barne-auditoretzan eta, kasua bada, auditoretza aktuarialean, edota eginkizun eta jarduerak kanporatzean.»

Hogeita bat. 35. artikulua 1. apartatuan lehen paragrafoa aldatu egiten da, 3. apartatuan s) eta t) letrak gehitzen dira eta 4. apartatuan v) letra gehitzen da; hona:

«1. Honako hauek erantzukizun administratiboa izango dute pentsio-plan eta -funtsak antolatzeko eta gainbegiratzeko arauak urratzen badituzte, eta, horregatik, zehapena ezarri ahal izango zaie hurrengo artikuluan xedatutakoari jarraituz: entitate kudeatzaile eta gordailuzainek, pentsio-planen sustatzaileek, eginkizunak transferitu zaizkien pertsona edo entitateek, pentsio-planen merkaturatzaileek, aktuarioek eta horiek jarduten duten entitateek, likidatzaileek, aipatutako entitateetan administrazio- edo zuzendaritza-karguak betetzen dituztenek, lege honetan aurreikusitako funtsezko eginkizunak betetzen dituzten pertsonak, pentsio-plan eta -funtsetako kontrol-batzorde eta -azpibatzaordeetako kideek eta sustapen-batzordeko kideek.»

«s) Akatsak izatea gobernu-sisteman, batez ere arriskuak kudeatzeko eginkizunari, barne-auditoretzako eginkizunari eta, kasua bada, aktuariotza-eginkizunari dagokienez, bai eta eginkizun edo jarduerak kanporatzean ere, baldin eta akats horiek kaudimena murrizten badiete entitate kudeatzaileari edo pentsio-plan eta -funtsei, edo bideragarritasuna arriskuan jartzen badiete.»

«t) Gaitasunaren eta zintotasunaren betekizunak betetzen ez dituztenak ez ordezte 28. artikuluan ezarri bezala, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari ez igortzea zintotasuna eta gaitasuna ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa, edo osorik ez dagoen informazioa igortzea, edo gezurrezko informazioa igortzea.»

«v) Akatsak izatea gobernu-sisteman, batez ere arriskuak kudeatzeko eginkizunari, barne-auditoretzako eginkizunari eta, kasua bada, aktuariotza-eginkizunari dagokienez, bai eta eginkizun edo jarduerak kanporatzean ere, hori arau-hauste oso astuna ez denean.»

Hogeita bi. Honela idatzita geratzen da 36.6. artikulua:

«6. Artikulu honetan eta hurrengoan aipatzen den zehatzeko ahala baliatzeari dagokionez, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 197. eta 201. artikuluetan eta 205. artikulutik 213.era (biak barne) dauden arauak aplikatuko dira.

Lege horren 206. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, behin zehapenak betearaztekoak bihurtzen direnean argitaratu egingo dira, arau-haustearen mota eta klasea eta arau-hauslearen identitatea adieraziz. Hala ere, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak erabaki ahal izango du zehapenak geroago argitaratzea, zehapenak ez argitaratzea edo zehapenak modu anonimoan argitaratzea, uste badu gehiegikeria izan daitekeela pertsona juridikoen izena edo pertsona fisikoen izena edo datu pertsonalak argitaratzea, kasuz kasu ebaluatu ondoren ea datuok argitaratzea neurrikoa den, edo argitaratze horrek arriskuan jartzen badu finantza-merkatuen egonkortasuna edota hasitako ikerketaren bat.

Arau-hauslea kreditu-entitatea edo eginkizunak transferitu zaizkion entitate edo pertsona bada, edo pentsio-planak merkaturatzen jarduten badu, edo aurreko entitate horietan administrazio- edo zuzendaritza-kargua badu, zehapena ezarri ahal izan dadin, nahitaezko txostena egin beharko du entitate edo pertsona horiek kontrolatu eta gainbegiratu behar dituen erakunde edo organo administratiboak, halakorik bada.»

Hogeita hiru. 37. artikuluan a), c) eta f) letrak aldatzen dira eta g) letra gehitzen da; hona:

«a) Enpleguko pentsio-funtsa: Europar Batasuneko agintaritzak eskudun batek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauaren babesean halakotzat baimendu edo erregistratutako erakundea (zuzentzarau hori enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta gainbegiratzeari buruzkoa da). Espainian, enpleguko pentsio-funtsak arautuko dira lege honen IV. kapituluan, enpleguko pentsio-planak garatzea badute xedetzat.»

«c) Enpresa sustatzailea: pentsio-plan bat eskaintzen duen edo enpleguko pentsio-funts baterako ekarpenak egiten dituen enpresa edo entitatea, pertsona fisikoa edo juridikoa; enplegatzaile gisa aritu daiteke, edo bere konturako langile gisa, edo bietara aldi berean.»

«f) Europar Batasuneko harrera-estatua: enpresa sustatzailearen eta partaide edo onuradunen arteko harremanetan pentsio-planen arloko bere gizarte- eta lan-legeria aplikatu behar den Europar Batasuneko estatua.»

«g) Mugaz gaindiko jarduera: pentsio-plan baten kudeaketa, baldin eta enpresa sustatzailearen eta ukitutako partaide eta onuradunen arteko harremana arautu behar duen enpleguko pentsio-planen arloko gizarte- eta lan-legeria ez bada Europar Batasuneko jatorrizko estatukoa, baizik eta Europar Batasuneko beste estatu batekoa.»

Hogeita lau. Honela idatzita geratzen dira 38. artikuluen 1., 4. eta 5. apartatuak:

«1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentzarauaren ezarritakoaren babesean, eta kapitulu honetan xedatutakoarekin bat etorritik, Espainian baimendu eta erregistratutako enpleguko pentsio-funtsek Europar Batasuneko beste estatu batzuetako gizarte- eta lan-legeriari lotutako enpleguko pentsio-planak bildu ahal izango dituzte.

Halaber, zuzentzarau beraren babesean, eta kapitulu honetan xedatutakoarekin bat etorritik, Europar Batasuneko beste estatu batzuetan baimendu eta erregistratutako enpleguko pentsio-funtsek Espainiako gizarte- eta lan-legeriari lotutako enpleguko pentsio-planak bildu ahal izango dituzte.»

«4. Aplikatzekoak izango dira pentsio-funtsaren sorburu den Europar Batasuneko estatuaren legerian pentsio-funtsen inbertsioei buruz ezarritako arauak.»

«5. Mugaz gaindiko jarduerak egiten dituzten enpleguko pentsio-funtsek, partaide eta onuradunei dagokienez, informazioaren arloko betebeharrak hauek izango dituzte: Europar Batasuneko harrera-estatuetako agintaritzak eta legeriak euren lurraldean baimenduta dauden pentsio-funtsentzat ezarritako betebeharrak, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentzarauaren transposizioaren bitartez sartu baitira haien barne-araudian.»

Hogeita bost. 39. artikuluen 2. apartatuaren a) letra honela geratzen da idatzita:

«a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 883/2004 (EE) eta 987/2009 (EE) erregelamenduen arabera nahitaezkoak diren gizarte-segurantzako pentsio-sistemak, eta gizarte-segurantzako sistemen ordezkotzat erregimenak.»

Hogeita sei. Honela idatzita geratzen da 40. artikulua:

«40. artikulua. *Europar Batasuneko beste estatu batzuen gizarte- eta lan-legeriari lotutako enpleguko pentsio-planak Espainian baimendu eta erregistratutako enpleguko pentsio-funts batean sartzea.*

1. Enpresa batek edo batzuek Europar Batasuneko beste estatu baten gizarte- eta lan-legeriari loturik sustatutako enpleguko pentsio-plan bat Espainian baimendu

eta erregistratutako pentsio-funts batean sartu aurretik jakinarazpen hauek egin beharko dira:

a) Funtsa kudeatzen duen entitateak pentsio-plana sartzeko asmoa jakinarazi beharko dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari. Jakinarazpen horretan informazio hauek jaso behar dira, gutxienez: zein den Europar Batasuneko harrera-estatua; enpresa sustatzailearen edo sustatzaileen izenak eta haien administrazio nagusiaren helbidea, eta pentsio-planaren ezaugarri nagusiak.

b) Gehienez ere hiru hilabeteko epean, a) letran adierazitako informazioa jasotzen duenetik hasita, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak informazio hori Europar Batasuneko harrera-estatuko agintaritza eskudunari jakinaraziko dio, eta jakinarazpen horren berri emango dio pentsio-funtsa kudeatzen duen entitateari.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak erabaki ahal izango du ez egitea jakinarazpen hori Europar Batasuneko harrera-estatuko agintaritzari; horretarako, ebazpen arrazoitua eman beharko du, eta bertan adierazi beharko du ezen administrazio-egitura, funtsaren finantza-egoera edota entitate kudeatzailearen zuzendarien lanbide-gaikuntza edo esperientzia ez direla bateragarriak proposatutako mugaz gaindiko jarduerarekin, edo azaldu beharko du nola lege honetan administrazio-baimenak errelokatzeko, desegiteko edo kontrol-neurri bereziak hartzeko kausatzat aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen den. Hiru hilabeteko epea egongo da ebazpen hori eman eta pentsio-funtsa kudeatzen duen entitateari jakinarazteko. Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaituko. Gora jotzeko errekurtsioa eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango zaizkio.

c) Europar Batasuneko harrera-estatuak, sei asteko epean, b) letran aipatutako jakinarazpena jasotzen duenetik hasita, informazio hau emango dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari:

1.a Bere gizarte- eta lan-legeriaren zer xedapen bete behar diren pentsio-planaren kudeaketan.

2.a Europar Batasuneko harrera-estatuan baimendutako pentsio-funtsek informazioaren arloko zer betebeharrak dituzten partaide eta onuradunekiko, 38.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak informazio hori pentsio-funtsa kudeatzen duen entitateari helaraziko dio.

2. Entitate kudeatzaileak 1.c) apartatuan aipatzen den informazioa jasotzen duenetik aurrera, edo, bestela, c) letra horretan ezarritako sei asteko epea Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren jakinarazpenik jaso gabe igarotakoan, pentsio-plana funtsean sartu ahal izango da, berariazko onarpen-erabakiaren bitartez. Erabaki hori funtseko kontrol-batzordeak hartuko du, edo, halakorik ezean, entitate kudeatzaileak.

3. Pentsio-plana funtsean sartu eta gero, entitate kudeatzaileak jakitun jarri beharko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia, hamar egun balioduneko epean, onarpen-erabakia hartzen denetik hasita. Jakinarazpenarekin batera honako hauek bidaliko dizkio, gutxienez:

- a) Onarpen-erabakiaren ziurtagiria.
- b) Enpresa sustatzailearen edo sustatzaileen izen-helbideak.
- c) Planaren baldintza orokorrak eta, kasua bada, oinarri teknikoa, gaztelaniaz idatzita edo gaztelaniara itzulita.

Pentsio-funtsen erregistro administratiboan jasorik utziko da Europar Batasuneko beste estatu batzuen gizarte- eta lan-legeriari lotuta eta inskribatutako pentsio-funtsei atxikita dauden enpleguko pentsio-planen berri.

4. Gerta daiteke enpresa sustatzaile baten edo enpresa sustatzaileen multzo baten lan-harremanak hainbat legeria nazionali loturik egotea, enpresak Europar Batasuneko hainbat estatutan dituen langileak batu daitezkeelako pentsio-funtsera. Horrelakoetan, Europar Batasuneko harrera-estatu adina pentsio-plan identifikatuko dira, artikulua honetan aurreikusitako ondorioetarako. Plan bakarra identifikatu ahal izango da, ordea, eta horren barruan hainbat azpiplan, Europar Batasuneko harrera-estatuei dagozkienak, baldin eta estatu horietako agintari eskudunek eragozpenik adierazten ez badute.

Aurrekoa gorabehera, enpresa berean eta Europar Batasuneko estatu beraren gizarte- eta lan-legeriaren pean dauden langile taldeentzako hainbat pentsio-plan identifikatu ahal izango dira, pentsio-funts bati edo hainbat pentsio-funtsi atxikiak.

Espainiako legeriari lotutako lan-harremanak dituzten langileak, betiere, I. kapitulutik III.era arautzen diren enpleguko pentsio-planetako batean sarturik agertu beharko dira.

5. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak, Aseguruetako eta Pentsio Funtsetako Kontsulta Batzordeari entzun ondoren, arau zehatzagoak eman ahal izango ditu artikulua honetan arautzen diren erregistro- eta jakinarazpen-prozedurei buruz.»

Hogeita zazpi. Honela idatzita geratzen dira 41. artikulua 3., 4., 5. eta 6. apartatuak:

«41. artikulua. *Europar Batasuneko beste estatu batzuen gizarte- eta lan-legeriari lotuta baina Espainian baimendu eta erregistratutako funtsei atxikita dauden enpleguko pentsio-planen garapena.*»

«3. Europar Batasuneko beste estatu batzuen gizarte- eta lan-legeriari lotuta baina Espainiako funtsei atxikita dauden enpleguko pentsio-planek ez dute planeko kontrol-batzorderik eratu beharko (batzorde hori 7. artikuluan arautzen da). Horrek ez du inola ere eragotziko enpresen eta langileen ordezkarietarako edo parte hartzeko organo eta instantziak eratzea itun bidez edo Europar Batasuneko harrera-estatuko ohitura eta legeri jarraituz, gainbegiratu dezaten nola funtzionatzen duen planak eta zer harreman dituen entitate kudeatzailearekin eta, horren bitartez, Espainiako agintaritzaren eskudunarekin.»

4. Entitate kudeatzaileak, atal honetan aipatzen diren pentsio-planetako partaide eta onuradunei dagokienez, informazioaren arloko betebeharrak izango ditu: Europar Batasuneko harrera-estatuko agintaritzak eta legeriak euren lurraldean baimenduta dauden enpleguko pentsio-funtsetatik ezarritako betebeharrak, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauaren IV. tituluaren transposizioaren bidez sartu baitira haien barne-araudian.

Informazioak Europar Batasuneko harrera-estatuko hizkuntza ofizial batean eskuragarri egon beharko du.

5. Pentsio-planak posizio-kontu bat edukiko du enpleguko pentsio-funtsean.

Inbertsioei eta kudeaketa- eta zaintza-komisioei dagokienez, aplikatzekoak izango dira lege honetan eta beraz garatzeko arauetan Espainian baimendu eta erregistratutako pentsio-funtsetarako ezartzen diren arauak eta mugak.

Pentsio-funtsearen aktiboek ez diete erantzun planen sustatzaileen zorrei.

6. Pentsio-planaren posizio-kontua Europar Batasuneko edozein estatutan baimendutako enpleguko beste pentsio-funts batera aldatu ahal izango da. Horretarako, aplikatzekoa izango da 50. artikuluan mugaz gaindiko transferentziak egiteko arautzen den prozedura.»

Hogeita zortzi. 43. artikulua izenburua, 1. apartatua eta 2. apartatuko 3. eta 8. zenbakiak honela idatzita geratzen dira:

«43. artikulua. *Espainiako legeriaren pean dauden pentsioengatiko konpromisoak bideratzea Europar Batasuneko beste estatu batzuetan baimenduta dauden enpleguko pentsio-funtsen bitartez.*

«1. Lege honen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa betetze aldera, enpresek xedapen horri lotuta pentsioengatiko konpromisoak hartzen dituztenean euren langileekin, horiek bideratzeko, I. kapitulutik III.era araututa dauden enplegu-sistemako pentsio-planak erabili ahal izango dira, helbidea Espainian duten enpleguko pentsio-funtsei atxikiak, edo helbidea Europar Batasuneko beste estatu batzuetan duten enpleguko pentsio-funtsei atxikiak, horiek mugaz gaindiko jarduerarako baimenduta badaude, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauaren arabera eta atal honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Espainiako legeriari lotutako lan-harremanen ondorioz eta pentsioengatik hartzen diren konpromisoak bideratzeko, I. kapitulutik III.era araututa dauden enpleguko pentsio-planetako bat sustatu eta formalizatu beharko da hura Europar Batasuneko beste estatu batean baimendutako enpleguko pentsio-funts bati atxiki ahal izateko, atal honetan aurreikusitakoa kontuan izanik.»

«3.a 5.1 artikulua, pentsio-planen oinarritzko printzipioak ezartzen dituen: diskriminaziorik eza; banakako kapitalizazioa; sustatzailearen ekarpenen errebokaezintasuna; partaideei eskubide kontsolidatuak eta onuradunei eskubide ekonomikoak esleitzea, eta sartutako planei egindako ekarpenak nahitaez pentsio-funts batean sartzea, halakotzat harturik, kasu honetan, Europar Batasuneko beste estatu batean baimendutako enpleguko pentsio-funts bat, Espainian jarduteko baimenduta dagoena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauarekin eta atal honetan ezarritakoarekin bat etorriz.»

«8.a 8. artikulua, honako hauei buruzkoa: estali ahal diren kontingentziak eta prestazioen forma; kuantifikazioa, mugikortasuna, eta likidezia izateko eta eskubide kontsolidatuak aurretiaz baliatzeko salbuespenezko kasuak; bai eta laugarren, seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak eta zazpigarren xedapen iragankorren 1. apartatua ere.»

Hogeita bederlatzi. Honela idatzita geratzen dira 44. artikulua izenburua eta 2. eta 5. apartatuak:

«44. artikulua. *Espainiako gizarte- eta lan-legeriari lotutako enpleguko pentsio-planak Europar Batasuneko beste estatu batzuetan baimendutako enpleguko pentsio-funtsetan sartzea.*»

«2. Pentsio-plana Europar Batasuneko beste estatu batean baimendutako pentsio-funts batean sartu aurretik, apartatu honetan ezarritako elkarren arteko jakinarazpen-prozedura bete beharko dute pentsio-funts horrek, sorburu duen Europar Batasuneko estatuko agintariek eta, Espainia harrera-estatua den aldetik, Espainiako agintariek.

Prozedura abian jartzeko, pentsio-funtsak plana bereganatu nahi duela jakinarazi beharko dio bere estatuko agintaritzak eskudunari. Jakinarazpen horretan informazio hau emango du, gutxienez: Espainia dela Europar Batasuneko harrera-estatua; enpresa sustatzailearen edo sustatzaileen identifikazioa eta haien administrazio nagusiaren helbidea, eta planaren ezaugarri nagusiak. Halaber, adierazi beharko du nor den pentsio-funtsak Espainiako lurraldean duen ordezkaria, 46. artikuluan aipatzen dena.

Funtsaren sorburuko Europar Batasuneko estatuan eskumena daukan agintaritzak aurreko paragrafoan aipatzen den informazioa Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari bidaliko dio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauaren 11.3

artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, informazioa jasotzen duenetik sei asteko epean, honako hau jakinaraziko dio pentsio-funtseko agintaritzak eskudunari:

a) Espainiako gizarte- eta lan-legeriaren zer xedapen bete behar diren pentsio-planaren garapenean. Xedapen horiek 43.2 artikuluan aipatzen dira.

b) Espainian baimendu eta erregistratutako pentsio-funtsek, lege honi eta berau garatzeko arauak jarraituz, informazioaren arloko zer arau bete behar dituzten enpleguko pentsio-planetako partaide eta onuradunei dagokienez, 38.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Pentsio-plana pentsio-funtsean sartu ahal izango da behin pentsio-funtsaren sorburuko estatuko agintaritzak eskudunak funtsari igortzen dionean Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioa, goian aipatutakoa; edo, bestela, goian aipatutako sei asteko epea igaro eta gero, epe horretan pentsio-funtsak ez badu inolako jakinarazpenik jasotzen.»

«5. Espainiako legeriari lotutako enpleguko pentsio-plan bat Espainian baimendutako pentsio-funts bati atxikita dagoenean, Europar Batasuneko beste estatu batean baimendutako enpleguko pentsio-funts batera mobilizatu ahal izango da enpleguko pentsio-plan hori, berorren posizio-kontua bertara intsuldatuz. Horretarako, 50. artikuluan arautzen den mugaz gaindiko transferentzien prozedura aplikatuko da.»

Hogeita hamar. Honela idatzita geratzen dira 45. artikuluen goiburua eta 4., 5. eta 6. apartatuak:

«45. artikulua. *Espainiako gizarte- eta lan-legeriari lotuta eta Europar Batasuneko beste estatu batzuetan baimendutako enpleguko pentsio-funtsei atxikita dauden pentsio-planen garapena.*»

«4. Aplikatzekoak izango dira pentsio-funtsaren sorburu den Europar Batasuneko estatuaren legerian pentsio-funtsen inbertsioei buruz ezarritako arauak.

5. Espainiako legeriari lotuta eta Europar Batasuneko beste estatu batzuetan baimendutako pentsio-funtsei atxikita dauden pentsio-planetako partaide eta onuradunen eskubideak eta haiei informazioa emateko betebeharrak direla-eta, aplikatzekoak izango da lege honetan eta beronen erregelamenduzko garapenean enpleguko pentsio-planen informazio-arloko eskubide eta betebeharrak buruz ezarritako araubidea.

Informazio horrek gaztelaniaz eskuragarri egon beharko du, gutxienez ere.

Planeko kontrol-batzordea arduratuko da pentsio-funtsaren administratzaile edo kudeatzaile guztiek egokiro bete dezaten informazio-araubidea.

6. Espainiako legeriari lotutako enpleguko pentsio-plan bat Europar Batasuneko beste estatu batean baimendutako enpleguko pentsio-funts bati atxikita dagoenean, enpleguko pentsio-plan hori mobilizatu ahal izango da Europar Batasuneko edozein estatutan baimendutako enpleguko beste pentsio-funts batera. Horretarako, aplikatzekoak izango da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauaren 12. artikuluan eta kapitulu honetako 4. atalean mugaz gaindiko transferentzietarako arautzen den prozedura.»

Hogeita hamaika. Honela idatzita geratzen dira 47. artikuluen goiburua eta 2. apartatua:

«47. artikulua. *Europar Batasuneko beste estatu batzuetan baimendutako enpleguko pentsio-funtsei atxikita dauden enpleguko pentsio-planen buruzko Espainiako gizarte- eta lan-legeria betetzen den gainbegiratzea.*»

«2. Pentsio-planen gaineko Espainiako gizarte- eta lan-legeriaren xedapenetan aldaketa esanguratsuren bat egiten denean, Ekonomia Gaietako eta Transformazio

Digitaleko Ministerioak horren berri emango die Europar Batasuneko jatorrizko estatuetako agintariei, aldaketa horrek Europar Batasuneko beste estatu batzuetan baimendutako pentsio-funtsei atxikitako pentsio-planen kudeaketari eragiten dion heinean; halaber, partaide eta onuradunekiko informazio-betebeharren gaineko arauen aldaketen berri emango die.»

Hogeita hamabi. X. kapituluaren atal bat gehitzen da, 4. atala, izenburu hau duena:

«4. atala. *Mugaz gaindiko transferentziak*»

Hogeita hamahiru. X. kapituluaren 4. atalean 49. artikulua gehitzen da; honako hau dio:

«49. artikulua. *Epleguko pentsio-planen mugaz gaindiko transferentziak Europar Batasuneko estatuetako epleguko pentsio-funtsen artean. Alderdi orokorrak.*

1. Europar Batasuneko estatu batean baimendu edo erregistratutako epleguko pentsio-funts batek berari atxikitako epleguko pentsio-plan baten betebeharrak, hornidura teknikoak eta beste betebehar eta eskubide batzuk transferitu ahal izango dizkio, osorik edo partez, Europar Batasuneko beste estatu batean baimendu edo erregistratutako epleguko pentsio-funts bati, eta plan horren aktiboak ere transferitu ahal izango dizkio, edo diru kopuru baliokidea.

Espainiako gizarte- eta lan-legeriari lotutako epleguko pentsio-plan baten mugaz gaindiko transferentzia partziala egin ahal izango da epleguko pentsio-plan bat hainbat pentsio-funtsi atxikitzeko erregelamenduz ezarritako irizpideak aplikatuta, plan bat batera sustatu duten entitateak banantzen direnean, edo sozietate-eragiketen ondorioz plan bat bitan edo gehiagotan zatitzen denean.

2. Transferentziaren kostuak ez dira ordainduko transferentzia egiten duen epleguko pentsio-funtseko gainerako partaide eta onuradunen kargura, ezta epleguko pentsio-funts hartzailearen titular diren partaide eta onuradunen kargura ere.

3. Transferentzia egin ahal izateko, aurretik hura onartu egin beharko dute ukitutako onuradunen gehiengoak eta partaideen gehiengoak, edo, bidezkoa bada, haien ordezkarien gehiengoak; eta, gainera, bidezkoa denean, enpresa sustatzaileak ere onartu beharko du, aplikatu beharreko legeria nazionalean ezarritakoari jarraituz.

Transferentzia egiten duen epleguko pentsio-funtsak partaide eta onuradun interesdunen eskura eta, bidezkoa bada, haien ordezkarien eskura jarriko du transferentziaren baldintzei buruzko informazioa, behar beste denbora lehenago, funts hartzailearen sorburu den Europar Batasuneko estatuko agintaritzaren eskudunari transferentzia baimentzeko eskatu aurretik, 50. eta 51. artikuluetan adierazten den moduan. Informazio horrek barruan hartuko du ukitutako partaide eta onuradunen datu pertsonalak lagatzeari buruzko informazioa eta datuen tratamenduaren erantzule berriaren gainekoa.

4. Espainiako gizarte- eta lan-legeriari lotutako epleguko pentsio-plana izanez gero, pentsio-planeko kontrol-batzordearen erabaki baten bidez eman beharko da aurretiazko onarpena. Erabaki hori onartzeko, beharrezkoa izango da planeko zehaztapenen arabera entitate kudeatzailea edo gordailuzaina aldatu ahal izateko eta plana beste funts batera mobilizatu ahal izateko behar den gehiengoa, eta partaideen ordezkarien erdiek, gutxienez, baiezko botoa eman beharko dute. Horri dagokionez, pentsio-planeko kontrol-batzordean partaideak eta onuradunak batera ordezkatzeko dituzten batzordekideak partaideen ordezkari moduan zenbatuko dira.

5. Desadostasuna sortzen bada epleguko pentsio-funts transferitzailearen edo hartzailearen sorburu den Europar Batasuneko estatuko agintaritzaren eskudunaren ekintza baten edukiaz edo ekintzarik ezaz edo prozeduraz –barnean harturik mugaz gaindiko transferentzia baimentzeko edo baimena ukatzeko erabakia–, Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak bitartekaritza ez-lotesleari ekin ahal

izango dio, 1094/2010 (EB) Erregelamenduaren 31. artikuluko bigarren paragrafoko c) letrarekin bat etorritz, hala eskatzen badio agintaritza eskudunetako batek, edo bere ekimenez.»

Hogeita hamalau. X. kapituluaren 4. atalean 50. kapitulua gehitzen da; honela dio:

«50. artikulua. *Mugaz gaindiko transferentzia, Espainian baimendu eta erregistratutako enpleguko pentsio-funts batetik Europar Batasuneko beste estatu batean baimendu edo erregistratutako enpleguko beste pentsio-funts batera.*

1. Espainian baimendu eta erregistratutako enpleguko pentsio-funts batetik enpleguko pentsio-plan bat mugaz gaindi transferitu ahal izateko, aurrez baimena eman beharko du enpleguko pentsio-funts hartzailearen sorburu den Europar Batasuneko estatuko agintaritza eskudunak, eta, lehenago, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren baimena lortu beharko da. Pentsio-funts hartzaileak transferentzia baimentzeko eskaera aurkeztu beharko dio sorburu duen Europar Batasuneko estatuko agintaritza eskudunari.

2. Transferentzia baimentzeko eskaerak, 1. apartatuan aipatuak, informazio hau eduki beharko du:

a) Enpleguko pentsio-funts transferitzailearen eta hartzailearen arteko akordio idatzia, transferentziaren baldintzak jasotzen dituena. Aldez aurretik, pentsio-funts transferitzailearen kontrol-batzordeak akordio hori onartu beharko du, eta entitate kudeatzaileak eta entitate gordailuzainak sinatu beharko dute, funtsaren izenean.

b) Ukitutako pentsio-planaren ezaugarri nagusien azalpena.

c) Transferituko diren betebeharrak edo hornidura teknikoak eta beste betebeharrak eta eskubide batzuk, bai eta aktiboak edo horien baliokide den diru kopurua ere.

d) Pentsio-funts transferitzailearen eta hartzailearen identifikazioa: izenak eta administrazio nagusien helbideak, eta, kasua bada, haiek administratzen dituzten entitateenak; eta enpleguko pentsio-funts bakoitza erregistratuta edo baimenduta dagoen Europar Batasuneko estatuaren izena.

e) Plana sustatzen duen entitatearen identifikazioa: izena eta administrazio nagusiaren helbidea.

f) 49.3 artikuluan aipatzen den aurretiazko onarpenaren froga.

g) Pentsio-planari Europar Batasuneko zein estaturen gizarte- eta lan-legeria aplikatu behar zaion, hala behar denean.

3. Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hau baino ez du aztertuko:

a) Pentsio-planaren betebeharrak, hornidura teknikoak, beste betebeharrak eta eskubide batzuk eta aktiboak edo diru kopuru baliokidea zati batean transferitzen badira, ea planaren gainerako zatian behar bezala babestuta dauden partaide eta onuradunen epe luzeko interesak.

b) Ea transferentziaren ondoren partaide eta onuradunen banakako eskubideak gutxienez ere lehengo berak diren.

c) Ea pentsio-planetik transferituko diren aktiboak nahikoak eta egokiak diren transferitu beharreko betebeharrak, hornidura teknikoak eta beste betebeharrak eta eskubide batzuk estaltzeko, Espainian aplikatzen den araudiarekin bat etorritz.

4. Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, enpleguko pentsio-funts hartzaileak sorburu duen Europar Batasuneko estatuko agintaritza eskudunak helarazitako eskaera jasotzen duen egunetik hasita zortzi asteko epean, agintaritza horri jakinaraziko dio zer emaitza izan duen 3. apartatuan aipatutako azterketak eta, horrenbestez, berak transferentziarako baimena ematen duen ala ez.

5. Transferentziak mugaz gaindiko jarduera baterako bidea ematen badu, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hau ere jakinaraziko dio enpleguko pentsio-funts hartzaileak sorburu duen Europar Batasuneko estatuko agintaritza eskudunari: enpleguko pentsio-planen arloko gizarte- eta lan-legeriaren zer xedapen bete beharko diren pentsio-plana kudeatzeko, eta mugaz gaindiko jarduerari informazioaren arloko zer baldintza edo, kasua bada, Europar Batasuneko harrera-estatuko zer baldintza aplikatuko zaizkion. Informazio hori emateko, beste lau asteko epea egongo da.

6. Transferentzia egin ondoren, pentsio-funts transferitzailea kudeatzen duen entitateak jakinaren gainean jarri beharko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia, transferentzia egin eta hilabeteko epean.

7. Espainiako gizarte- eta lan-legeriari lotutako pentsio-plan bat Europar Batasuneko beste estatu batean edo batzuetan baimendu edo erregistratutako enpleguko pentsio-funtsen artean transferitzen denean, behin transferentzia eginda, pentsio-planeko kontrol-batzordeak eta enpleguko pentsio-funts hartzailearen Espainiako ordezkariak jakitun jarri beharko dute Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia, transferentzia egin eta hilabeteko epean.»

Hogeita hamabost. X. kapituluaren 4. atalean 51. kapitulua gehitzen da; honela dio:

«51. artikulua. *Mugaz gaindiko transferentzia, Europar Batasuneko beste estatu batean baimendu edo erregistratutako enpleguko pentsio-funts batetik Espainian baimendu eta erregistratutako enpleguko pentsio-funts batera.*

1. Enpleguko pentsio-plan bat mugaz gaindi transferitu ahal izateko Europar Batasuneko beste estatu batean baimendu edo erregistratutako enpleguko pentsio-funts transferitzaile batetik Espainian baimendu eta erregistratutako enpleguko pentsio-funts hartzaile batera, aurrez baimena eman beharko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, eta, lehenago, enpleguko pentsio-funts transferitzailearen sorburu den Europar Batasuneko estatuko agintaritza eskudunaren baimena lortu beharko da.

Enpleguko pentsio-funts hartzaileak transferentziarako baimenaren eskaera aurkeztu beharko dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiar. Zuzendaritzak baimena eman edo ukatuko du eta bere erabakia enpleguko pentsio-funts hartzaileari jakinaraziko dio hiru hilabeteko epean, eskaera jasotzen duenetik hasita.

2. Transferentzia baimentzeko eskaerak, 1. apartatuan aipatuak, informazio hau eduki beharko du:

a) Enpleguko pentsio-funts transferitzailearen eta hartzailearen arteko akordio idatzia, transferentziaren baldintzak azaltzen dituena. Aldez aurretik, pentsio-funts hartzailearen kontrol-batzordeak akordio hori onartu beharko du, eta entitate kudeatzaileak eta entitate gordailuzainak sinatu beharko dute, funts hartzailearen izenean.

b) Ukitutako pentsio-planaren ezaugarri nagusien azalpena.

c) Transferituko diren betebeharrak edo hornidura teknikoak eta beste betebeharrak eta eskubide batzuk, bai eta aktiboak edo horien baliokide den diru kopurua ere.

d) Pentsio-funts transferitzailearen eta hartzailearen identifikazioa: izenak eta administrazio nagusien helbideak, eta, kasua bada, haiek administratzen dituzten entitateenak; eta enpleguko pentsio-funts bakoitza erregistratuta edo baimenduta dagoen Europar Batasuneko estatuaren izena.

e) Plana sustatzen duen entitatearen identifikazioa: izena eta administrazio nagusiaren helbidea.

f) 49.3 artikuluan aipatzen den aurretiazko onarpenaren frogak.

g) Pentsio-planari Europar Batasuneko zein estaturen gizarte- eta lan-legeria aplikatu behar zaion, hala behar denean.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, 1. eta 2. apartatuetan aipatzen den eskaera jaso eta gero, luzamendurik gabe igorriko dio enpleguko pentsio-funts transferitzailearen Europar Batasuneko estatuko agintaritza eskudunari.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hau baino ez du aztertuko:

a) Ea enpleguko pentsio-funts hartzaileak 2. apartatuan aipatzen den informazio guztia eman duen.

b) Ea proposatutako transferentziarekin bateragarriak diren administrazio-egitura, enpleguko pentsio-funts hartzailearen finantza-egoera eta enpleguko pentsio-funts hartzailea kudeatzen duten pertsonen zintzotasuna, esperientzia edota lanbide-gaikuntza.

c) Ea enpleguko pentsio-funts hartzailean eta planetik transferitutako zatian behar bezala babestuta dauden partaide eta onuradunen epe luzeko interesak.

d) Transferentziak mugaz gaindiko jarduera baterako bidea ematen duenean, ea enpleguko pentsio-funts hartzailearen hornidura teknikoak osorik finantzatu diren transferentziaren unean.

e) Ea transferituko diren aktiboak nahikoak eta egokiak diren transferituko diren betebeharrak, hornidura teknikoak eta beste betebeharrak eta eskubide batzuk estaltzeko, Espainian aplikatzen den araudiarekin bat etorritik.

5. Behin Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak jasotzen duenean pentsio-funts transferitzailearen sorburu den Europar Batasuneko estatuko agintaritzaren jakinarazpena –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauaren 12.9 artikuluan aipatzen den jakinarazpena–, zuzendaritza nagusi horrek transferentzia baimentzeko eskaerari buruz ebatziko du eta bere erabakia funts hartzaileari jakinaraziko dio 1. apartatuan adierazitako hiru hilabeteko epean.

6. Baimena ukatuz gero, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ezezkoaren arrazoiak azaldu beharko ditu 1. apartatuan adierazitako hiru hilabeteko epean. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren ezezko ebazpenak ez du administrazio-bidea amaituko. Gora jotzeko errekurtsua eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahalko zaizkio.

7. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, ebazpena ematen duen egunetik hasita bi asteko epean, horren berri emango dio enpleguko pentsio-funts transferitzaileak sorburu duen Europar Batasuneko estatuko agintaritza eskudunari.

8. Transferentziak mugaz gaindiko jarduera baterako bidea ematen badu, eta funts transferitzailearen sorburu den Europar Batasuneko estatuko agintaritza eskudunak –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauaren 12.11 artikuluan xedatu bezala– Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi badio enpleguko pentsio-planen arloko gizarte- eta lan-legeriaren zer xedapen eta zer informazio-betekizun aplikatuko zaizkion mugaz gaindiko jarduerari Europar Batasuneko harrera-estatuan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak informazio hori enpleguko pentsio-funts hartzaileari jakinaraziko dio astebeteko epean, jasotzen duen egunetik hasita.

9. Behin 1. apartatuan aipatutako baimena emateko erabakia jasotakoan –edo bestela, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren erabakiaren berririk jaso ezean, 8. apartatuan aipatutako epea amaitu eta gero–, enpleguko pentsio-funts hartzailea pentsio-plana kudeatzen hasi ahalko da.

Transferentzia egin ondoren, pentsio-funts hartzailea kudeatzen duen entitateak jakinaren gainean jarri beharko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia, transferentzia egin eta hilabeteko epean.»

Hogeita hamasei. Bigarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Bigarren xedapen gehigarria. *Administrazio-baimenen eta inskripzioen eskaerak ebazteko epea.*

Lege honetan arautzen diren administrazio-baimenen eta inskripzioen eskaerak, gaiari buruzko berariazko xedapenik ezean, aurkezten diren egunetik hasita hiru hilabeteko epean ebatzi beharko dira. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, interesdunek eskaera baietsizat eman ahalko dute.»

Hogeita hamazazpi. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, bederatzigarrena; hona:

«Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Datu pertsonalen tratamendua.*

Pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamenduetan zorrotz beteko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta datu pertsonalak babesteko gainerako arauetan xedatutakoa. Erregelamendu horrek pertsona fisikoen babesa arautzen du, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokienez.»

Hogeita hemezortzi. Azken xedapenetako laugarrena honela idatzita geratzen da:

«Azken xedapenetako laugarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege honetako xedapenak bankuen eta aseguru enbarrizko antolamendutza eta jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarritzat hartu behar dira, Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuaren 11. eta 13. zenbakien arabera, honako gai hauek izan ezik:

a) Konstituzioaren 149.1.6 artikulua arabera, honako manu hauetan arautzen diren gaiak Estatuaren eskumen eskusibokoak dira, merkataritzako legeria izateagatik:

1.a I. eta II. kapituluak, 7. artikulua izan ezik.

2.a 8. artikulua 3. apartatutik 10. apartaturakoa, 8. apartatuaren hirugarren paragrafoa izan ezik.

3.a 43. artikulua.

4.a 45. artikulua 2. eta 7. apartatuak.

5.a Lehen xedapen gehigarria, 6. apartatua izan ezik, eta hirugarren, laugarren, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak.

6.a Lehen eta laugarren xedapen iragankorrak; eta bosgarren xedapen iragankorra, salbu 5. apartatuaren hirugarren eta laugarren paragrafoak eta 7. eta 8. apartatuak.

7.a Zazpigarren xedapen iragankorraren 1. apartatua; bederatzigarren xedapen iragankorra, 4. apartatua izan ezik; eta hamargarren xedapen iragankorra.

b) Konstituzioaren 149.1.14 artikulua arabera, honako manu hauetan arautzen diren gaiak Estatuaren eskumen eskusibokoak dira, Ogasun Nagusiaren arloko legeria izateagatik:

1.a 8. artikulua 8. apartatuaren hirugarren paragrafoa.

2.a Bosgarren xedapen iragankorraren 5. apartatuaren hirugarren eta laugarren paragrafoak eta 7. eta 8. apartatuak.

3.a Seigarren xedapen iragankorra.

4.a Azken xedapenetako lehenengoa eta bigarrena.»

III. TITULUA

20/2015 Legea aldatzea, uztailaren 14koa, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena

213. artikulua. *20/2015 Legea aldatzea, uztailaren 14koa, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena.*

Aldatu egiten da uztailaren 14ko 20/2015 Legea, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena, honako alderdi hauetan:

Bat. Honela idatzita geratzen da 64. artikulua:

«64. artikulua. *Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateen Espainiako jarduera jatorrizko herrialdetik.*

Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateek Espainian jardun ahal izango dute beren egoitza soziala duten herrialdetik.»

Bi. 79 bis artikulua gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«79 bis artikulua. *Inplikazio-politika.*

Bizi-aseguruetan jarduteko baimena duten aseguru-entitateek eta bizi-aseguruaren betebeharrak betetzen dituzten berraseguru-entitateek inplikazio-politika garatu eta horren berri eman beharko diote publikoari. Bertan azaldu beharko da nola inplikatzeko den entitatea akziodun gisa bere inbertsio-estrategian, Europar Batasuneko estatuetan kokatuta dauden edo jarduten duten merkatu arautuetan negoziatzeko onartutako akzioak dituzten sozietateetan. Informazio horren forma eta edukia erregelamendu bidez zehaztuko dira.»

Hiru. 79 ter artikulua berria erantsi da; hauxe dio:

«79 ter artikulua. *Inbertsio-estrategia.*

Bizi-aseguruetan jarduteko baimena duten aseguru-entitateek eta bizi-aseguruaren betebeharrak betetzen dituzten berraseguru-entitateek informazio hau eman beharko diote publikoari (informazioaren forma eta edukia erregelamenduz zehaztuko dira): nola Europar Batasuneko estatu batean kokatuta dagoen edo jarduten duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako akzioak dituzten sozietateetan inbertitzeko strategiaren osagai nagusiak bat datozen haien pasiboan (batez ere epe luzeko pasiboan) ezaugarriekin eta iraupenarekin eta nola laguntzen duten haien aktiboan epe ertain eta luzeko errendimendua handitzen.»

Lau. Aldatu egiten dira 206. artikulua 3. eta 5. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«3. Zehapenak, ohartarazpen pribatuak izan ezik, aseguru- eta berraseguru-entitateen administrazio-erregistroan eta aseguru- eta berraseguru-entitateen goikarguen administrazio-erregistroan jaso beharko dira, arau-hauste mota eta klasea eta arau-hauslearen izena adieraziz. Halaber, behin zehapenak betearaztekoak direnean, egiten den hurrengo batzar orokorrari jakinarazi beharko zaizkio.

Kargua uzteko eta eteteko zehapenak, betearaztekoak direnean, Merkataritza Erregistroan ere jasoko dira, eta, hala badagokio, Kooperatiben Erregistroan.»

«5. Administrazio-erregistroan zehapenak direla-eta jasotako aurrekariak balio gabetu egin ahal izango dira ofizios edo interesdunek hala eskatuta, zehapen berririk gabe urtebete igarotzen bada arau-hauste arinen kasuan, hiru urte arau-hauste astunen kasuan eta bost urte oso arau-hauste astunen kasuan. Epe hori zehapena bete eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da. Aurreko hori, hala badagokie, Merkataritza Erregistroan eta Kooperatiben Erregistroan inskribatutako zehapenei aplikatuko zaie.»

HIRUGARREN LIBURUA

Espainiako zuzenbidea Europako zergen arloko arautegira moldatzea

I. TITULUA

Transposizioa: 2018/1910 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2018ko abenduaren 4koa, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen duena balio erantsiaren gaineko zergaren arau batzuk –Batasuneko estatuen arteko trukeei buruzkoak– harmonizatzeko eta errazteko; eta 2019/475 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2019ko otsailaren 18koa, 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2008/118/EE Zuzentaraua aldatzen dituena Italiako Campione d'Italia udalerrria eta Luganoko aintzirako urak Batasuneko aduana-lurraldean eta 2008/118/EE Zuzentaruaren aplikazioaren lurralde-esparruan sartzeari dagokionez

I. KAPITULUA

37/1992 Legea aldatzea, abenduaren 28koa, balio erantsiaren gaineko zergarena

214. artikulua. *37/1992 Legea aldatzea, abenduaren 28koa, balio erantsiaren gaineko zergarena.*

Aldaketa hauek egiten dira Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legean:

Bat. Aldatu egiten dira 3. artikulua Bi apartatuko 1. zenbakiko a) eta b) letrak; hona nola gelditzen diren idatzita:

«a) Alemaniako Errepublika Federalean, Helgoland-eko irla eta Büsingengo lurraldea; Espainiako Erresuman, Ceuta eta Melilla, eta, Italiako Errepublikan, Livigno; lurraldeok ez baitaude Aduana Batasunean sartuta.

b) Espainiako Erresuman, Kanariak; Frantziako Errepublikan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 349. artikulua eta 355. artikuluko 1. apartatuak aipaturiko frantses lurraldeak; Greziako Errepublikan, Athos mendia; Erresuma Batuan, Kanaleko uharteak; Italiako Errepublikan, Campione d'Italia eta Luganoko aintzirako ur nazionalak, eta, Finlandiako Errepublikan, Aland uharteak; lurraldeok negozio-bolumenaren gaineko zergaren harmonizaziotik salbuetsita baitaude.»

Bi. Aldatu egiten da 9. artikuluko 3. zenbakiko lehenengo paragrafoa; hona nola geratzen den idatzita:

«3. Subjektu pasibo batek bere enpresaren ondasun gorpuzdun bat Europar Batasuneko beste estatu batera transferitzea, enpresak estatu horretan dituen beharrianetarako erabiltzeko. Ez dira halako transferentziatzat joko ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan egiten direnak, lege honen 9 bis artikuluan azaltzen den moduan.»

Hiru. Beste artikulua bat gehitzen da, 9 bis, eta honela geratzen da idatzita:

«9 bis artikulua. *Ondasunak kontsignan saltzeko akordioa.*

Bat. Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, baldintza hauek betetzen dituena da ondasunak kontsignan saltzeko akordioa:

a) Saltzaileak berak edo haren izenean eta haren kontura diharduen hirugarren batek ondasunak Europar Batasuneko beste estatu batera igorri edo garraiatzea, ondasun horiek iritsi eta denbora batera beste enpresaburu edo profesional gaitu batek eskura ditzan, aurrez bi aldeek hala adostuta.

b) Ondasunak igortzen edo garraiatzen dituen saltzaileak ez edukitzea bere jarduera ekonomikoaren egoitzarik edo establezimendu iraunkorrik ondasun horien helmuga den Europar Batasuneko estatuan.

c) Ondasunak eskuratu behar dituen enpresaburu edo profesionala balio erantsiaren gaineko zergarako identifikatuta egotea igorpen edo garraioaren helmuga den Europar Batasuneko estatuan, eta igorpena edo garraioa abiatzen den unean saltzaileak haren identifikazio fiskaleko zenbakia jakitea, baita haren izen-abizenak edo sozietate-izen osoa ere.

d) Saltzaileak ondasun horien bidalketaren berri jasorik utzi izana hala erregelamenduz zehazten den erregistro-liburuan nola lege honen 164. artikulua Bat apartatuaren 5. zenbakian aipatzen den laburpen-aitorpenean, erregelamenduz zehazten den eran.

Bi. Baldin eta, ondasunak kontsignan saltzeko akordio batean, ondasunak Europar Batasuneko helmugako estatura iritsi eta hamabi hilabeteko epean, ondasunak baliatzeko ahalmena eskuratzen badu aurreko apartatuko c) letran edo hurrengo apartatuko bigarren paragrafoko a') letran aipatutako enpresaburu edo profesionalak, ulertuko da honako eragiketa hauetako bat egin dela zergaren aplikazio-lurraldean:

a) Saltzaileak lege honen 68. artikulua Bi apartatuko 1. zenbakiko A) letrako lehenengo paragrafoan azaltzen den ondasun-ematea egin duela, zeinari lege honen 25. artikuluan ezarritako salbuespena aplikatuko zaion, edo

b) ondasunak eskuratzen dituen enpresaburu edo profesionalak lege honen 15. artikulua Bat apartatuko b) letran azaltzen den Europar Batasunaren barruko ondasun-eskurapena egin duela.

Hiru. Lege honen 9.3 artikuluan aipatzen den ondasun-transferentzia egin dela pentsatuko da, baldin eta ondasunak kontsignan saltzeko akordio batean aurreko Bat apartatuan ezarritako baldintzaren bat urratzen bada aurreko apartatuan ezarritako hamabi hilabeteko epearen barruan; zehazki:

a) Ondasunak eskuratzekoa zen enpresaburu edo profesionalak ondasunak eskuratzen ez dituenean.

b) Ondasunak kontsignan saltzeko akordioaren arabera ondasunen helmuga zen Europar Batasuneko estatura ez, beste leku batera igortzen edo garraiatzen direnean.

c) Ondasunak suntsitu, galdu edo lapurtzen direnean.

Hori gorabehera, aurreko Bat apartatuko baldintzak betetzat emango dira inguruabar hauek gertatzen badira aipatutako epean:

a') Aurreko Bat apartatuko c) letran aipatutako enpresaburu edo profesionalaren ordezkari enpresaburu edo profesional batek eskuratzen baditu ondasunak, letra horretan ezarritako baldintzak betez.

b') Ondasunak baliatzeko ahalmena eskualdatu gabe badago eta ondasunak atzera bidaltzen badira behinola atera zireneko Europar Batasuneko estatura.

c') Saltzaileak erregelamenduz zehazten den erregistro-liburuan jasorik utzi baditu a') eta b') letratan azaldutako inguruabarrak.

Lau. Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan eta aurreko Bat apartatuko baldintzak betez ondasunak Europar Batasuneko helmugako estatura iritsi osteko hamabi hilabeteko epea amaitu eta hurrengo egunean iritziko zaio lege honen 9.3 artikuluan aipatzen den ondasun-transferentzia egin dela, baldin eta 9 bis artikulua Bat apartatuko c) letran edo Hiru apartatuko bigarren paragrafoko a') letran aipatutako enpresaburu edo profesionalak ez badu ondasunak baliatzeko ahalmenik eskuratu epe horretan.

Bost. Kontsignako ondasunen salmentarako akordioa sinatzen duten enpresaburu edo profesionalek eta hasierako hartzailearen ordezkariak ondasunak jasotzen dituztenek eragiketa horien erregistro-liburu bat izan beharko dute, erregelamenduz ezartzen den moduan.»

Lau. 15. artikulua lehen apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da idatzita:

«Bat. Europar Batasunaren barruko ondasun-eskurapena izango da:

a) Europar Batasuneko beste estatu batetik zergaren aplikazio-lurraldera igorri edo garraiatu diren ondasun higigarri gorpuzdun batzuk baliatzeko ahalmena eskuratzea; ondasunak igorri edo garraiatu dituen eskualdatzailea izan daiteke, edo eskuratzailerak bera, edo horietako edozeinen izenean eta kontura diharduen hirugarren bat.

b) Ondasun higigarri gorpuzdun batzuk baliatzeko ahalmena eskuratzea ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, lege honen 9 bis artikulua Bi apartatua adierazitako eran.»

Bost. Aldatu egiten da 25. artikulua Bat apartatua, eta artikulua horri Lau apartatua gehitzen zaio; honela geratzen dira idatzita:

«Bat. Lege honen 8. artikuluan definitutako ondasun-emateak, baldin eta saltzaileak, eskuratzailerak nahiz horietako edozeinen izenean eta kontura diharduen hirugarren batek ondasun horiek igortzen edo garraiatzen baditu Europar Batasuneko beste estatu baten lurraldera, eta eskuratzailerak enpresaburua edo profesionala edo hala jarduten ez duen pertsona juridikoa bada, eta Espainiako Erresuma ez den Europar Batasuneko estatu batek esleitutako identifikazio-zenbakia badauka balio erantsiaren gaineko zergarako, eta saltzaileari identifikazio fiskaleko zenbaki hori jakinarazi badio.

Salbuespen hori aplikatu ahal izan dadin, alde aurretik saltzaileak eragiketa horiek jasorik utzi behar ditu Europar Batasunaren barruko eragiketen laburpen-aitorpenean, lege honen 164. artikulua Bat apartatuko 5. zenbakian aipatzen den horretan, erregelamenduz ezartzen diren baldintzak betez.

Apartatu honetan azaldutako salbuespena ez zaio aplikatuko ondasun-emateari, baldin eta ondasunak jasotzen dituen pertsonaren Europar Batasunaren barruko ondasun-eskurapeneik ez bazaie zerga aplikatzen lege honen 14. artikulua Bat eta Bi apartatuetan jasotako irizpideen arabera.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko ondasun erabilien, artelanen, antigoaleko gauzen eta bildumako objektuen araubide berezia duten ondasunen ematei ere; araubide hori lege honen IX. tituluko IV. kapituluaren jatorri dago.»

«Lau. Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan egindako ondasun-emateak, lege honen 9 bis artikulua Bi apartatua adierazitako eran egiten badira.»

Sei. Aldatu egiten da 68. artikulua Bi apartatuaren 1. zenbakia; hona nola geratzen den idatzita:

«1.a A) Ondasun higigarri gorpuzdunen entregak, ondasunak eroslearen esku jartzeko ezinbestean igorri edo garraiatu behar direnean, baldin eta igorpena edo garraioa aipatutako lurraldean hasten bada. Nolanahi ere, horrek ez du ezertan eragotziko artikulua honen lehen apartatua xedatutakoa.

Aurreko paragrafoaren xedatutakoa gorabehera, inportatu behar diren ondasunen igorpena edo garraioa hirugarren herrialde batean hasten bada, inportatzaileak eta, hala badagokio, hurrenez hurreneko eskuratzailerak egiten dituzten entregak zerga aplikatu beharreko lurraldean egindakotzat joko dira.

B) Aurreko A) letrako lehenengo paragrafoaren xedatutakoaren ondorioetarako, hurrenez hurreneko ondasun-emateen kasuan, lehenengo hornitzailearengandik

kateko azken eskuratzaillearengana zuzenean igortzen edo garraiatzen badira ondasunak Europar Batasuneko beste estatu batera, ulertuko da bitartekariarentzat egindako ondasun-emateari bakarrik dagoela lotuta igorpen edo garraio hori.

Hala ere, honako kasu honetan, igorpena edo garraioa bitartekariak egindako ondasun-emateari soilik lotuko zaio: bitartekariak, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako Espainiako Erresumak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazten dionean hornitzaileari.

Aurreko bi paragrafoen ondorioetarako, bitartekaritzat lehenengo hornitzailea ez den enpresaburu edo profesional bat joko da, ondasunak igortzen edo garraiatzen dituen delata zuzenean delata beraren izenean eta kontura diharduen hirugarren baten bitartez.»

Zazpi. Aldatu egiten da 75. artikuluaen Bat apartatuaren 8. zenbakia; hona nola geratzen den idatzita:

«8.a Lege honen 25. artikuluan adierazitako ondasun-emateak egiten direnean, aurreko zenbakian zehaztutakoak izan ezik, honako hau gertatu eta hurrengo hilaren 15ean sortuko da zerga.

- a) Ondasunak igortzen edo garraiatzen hastea, eskuratzailleari helarazteko.
- b) Ondasunak eskuratzaillearen esku jartzea, baldin eta ondasun-ematea lege honen 9 bis artikuluaen Bi apartatuan adierazitako eran egiten bada.

Aurreko a) eta b) letren ondorioetarako, eragiketa horiei dagokien faktura data hori baino lehen jaulki bada, jaulkitako egunean bertan sortuko da zerga.

c) Lege honen 9 bis artikuluaen Hiru apartatuan aipatzen diren baldintzak urratzen diren unean.

d) Lege honen 9 bis artikuluaen Lau apartatuan aipatzen den 12 hilabeteko epea amaitu eta hurrengo egunean.»

Zortzi. Aldatu egiten da 84. artikuluaen Bat apartatuaren 2. zenbakiko c') letra; hona nola geratzen den idatzita:

«c') Lege honen 21. artikuluaen 1. eta 2. apartatuetan edo 25. artikuluan ezarritakoa aplikatuta zergaren kargatik salbuesten diren ondasun-emateak direnean, eta azken artikulua horretan aipatzen diren zergapeko eta salbuesti gabeko ondasun-emateak direnean.»

Bederatzi. Aldatu egiten da 164. artikuluaen Bat apartatuaren 5. zenbakia; hona nola geratzen den idatzita:

«5.a Aldian behin, edo Administrazioak eskatzen duenean, informazioa aurkeztea hirugarren pertsonekin egiten dituzten eragiketa ekonomikoei buruz; eta, bereziki, Europar Batasunaren barruko eragiketen laburpen-aitorpena aurkeztea.»

II. KAPITULUA

38/1992 Legea aldatzea, abenduaren 28koa, zerga bereziarena

215. artikulua. *38/1992 Legea aldatzea, abenduaren 28koa, zerga bereziarena.*

Abenduaren 28ko 38/1992 Legean, zerga berezienean, 4. artikuluaen 7. eta 30. apartatuak aldatzen dira, eta honela idatzita geratzen dira:

«7. «Europako Erkidegoa» eta «Europako Erkidegoaren lurraldea»: estatu kideen lurraldeak, Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren 299. artikuluan estatu kide bakoitzarentzat definituta dauden moduan, honako lurralde nazional hauek izan ezik:

- Alemaniako Errepublika Federalean: Helgoland uhartea eta Büsingengo lurraldea.
- Frantziako Errepublikan: Itsasoz haraindiko frantses departamenduak.
- Italiako Errepublikan: Livigno.
- Finlandiako Errepublikan: Aland uharteak.
- Erresuma Batuan: Kanaleko uharteak.
- Espainiako Erresuman: Kanaria uharteak, Ceuta eta Melilla.»

«30. “Hirugarren lurraldea”:

a) Europako Erkidegoaren aduana-lurraldearen barruko lurralde hauek:

- Kanaria uharteak.
- Itsasoz haraindiko frantses departamenduak.
- Aland uharteak.
- Kanaleko uharteak.

b) Tratatuaren 299. artikulua 4. apartatuak aipatzen dituen lurraldeak.

c) Europako Erkidegoaren aduana-lurraldetik kanpoko lurralde hauek:

- Helgoland uhartea.
- Büsingengo lurraldea.
- Ceuta.
- Melilla.
- Livigno.»

III. KAPITULUA

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak onartzen duena

216. artikulua. *Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak onartzen duena.*

Honako aldaketa hauek izango ditu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak:

Bat. Aldatu egiten dira 13. artikulua 2. eta 3. apartatuak eta 4. apartatuaren 1. zenbakia; hona nola gelditzen diren idatzita:

«2. Europar Batasuneko helmugako estatura ondasunak igorri edo garraiatu izana frogatzeko, zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabiliko da; batez ere, Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 45 bis artikuluan ezarritako froga-elementuak, kasuan kasukoa, nork egin duen garraioa edo igorpena: saltzaileak, erosleak edo horietako edozeinen kontura beste norbaitek. Erregelamendu horrek Balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzko 2006/112/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu.

3. Eskuratzaille izatea frogatzeko, balio erantsiaren gaineko zergarako identifikazio-zenbakia erabiliko da, eskuratzailleak saltzaileari ematen diona.»

«1.a Ondasunak Europar Batasuneko helmugako estatura igorri edo garraiatu izana. Hori aurreko 2. apartatuan azaldutako moduan frogatuko da.»

Bi. 66. artikulua 1. apartatuari 3. zenbakia gehitzen zaio, eta artikulua beraren 2. eta 3. apartatuak aldatu egiten dira; honela geratzen dira idatzita:

«3.a Ondasunak kontsignan saltzeko akordio batek, Zergaren Legearen 9 bis artikulua aipatzen dituen horietako batek, biltzen dituen ondasunak bidaltzea edo jasotzea.»

«2. Erregistro-liburuan honako datu hauek jaso beharko dira:

A) Aurreko apartatuko 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren eragiketak direla eta:

1.a Eragiketa eta beraren data.

2.a Eragiketaren xede diren ondasunen deskribapena, eta, hala badagokie, haiek eskuratu izanaren fakturaren edo edukitza-titulua erreferentzia.

3.a Beste faktura edo agiri batzuk, kasuan kasuko eragiketei dagozkienak.

4.a Hartzailearen edo igorlearen identifikazioa. Balio erantsiaren gaineko zergarako daukan identifikazio-zenbakia, izen soziala eta helbidea adieraziko dira.

5.a Ondasunen sorburu edo helmuga den Europar Batasuneko estatua.

6.a Aipatutako eragiketak egiteko ezarritako epea, halakorik bada.

B) Aurreko apartatuko 3. zenbakian aipatzen diren eragiketak direla eta:

a) Saltzaileak datu hauek jarri beharko ditu:

1.a Ondasunak Europar Batasuneko zein estatutatik igorri edo garraiatu diren eta ondasunak zer egunetan igorri edo garraiatu diren.

2.a Ondasunak jaso behar dituen enpresaburu edo profesionalak balio erantsiaren gaineko zergarako daukan identifikazio-zenbakia, igorri edo garraiatutako ondasunen helmuga den Europar Batasuneko estatuak esleitua.

3.a Europar Batasuneko zein estatutara igorri edo garraiatu diren ondasunak; ondasunen gordailuzainak balio erantsiaren gaineko zergarako daukan identifikazio-zenbakia, baldin eta gordailuzaina ez bada aurreko 2. zenbakian aipatutako enpresaburu edo profesionala bera; heldu eta gero ondasunak gorde diren biltegiaren helbidea, eta ondasunok biltegiara heldu diren data.

4.a Biltegiara heldu diren ondasunen balioa, deskribapena eta kopurua.

5.a Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen 9 bis artikulua Hiru apartatuko bigarren paragrafoko a') letran aipatzen den enpresaburu edo profesionalak –hasiera batean ondasunak jasotzekoa zen enpresaburu edo profesionalaren ordezkari ondasunak jasotzen dituenak– zergarako daukan identifikazio-zenbakia.

6.a Zergaren legearen 9 bis artikulua Bi apartatuko lehen puntuan adierazitako eran entregatutako ondasunen deskribapena, zerga-oinarria (zergaren legearen 78. eta 79. artikuluen arabera zehaztuta), kopurua eta unitateko prezioa, entrega horren data, eta enpresaburu edo profesional eskuratzailerak balio erantsiaren gaineko zergarako daukan identifikazio-zenbakia.

7.a Zergaren legearen 9 bis artikulua Hiru apartatuko lehen paragrafoan adierazitako eran transferitutako ondasunen deskribapena, zerga-oinarria (zergaren legearen 78. eta 79. artikuluen arabera zehaztuta), kopurua eta unitateko prezioa, zer egunetan sortu ziren ondasun-transferentzia hori eragin zuten baldintzak, eta zergatik egin den transferentzia hori.

8.a Zergaren legearen 9 bis artikulua Hiru apartatuko bigarren paragrafoko b') letran adierazitako eran itzulitako ondasunen deskribapena, kopurua eta balioa, eta itzulketaren data.

b) Ondasunak jaso behar dituen enpresaburu edo profesionalak eta hura ordezkatzeko dutenek datu hauek jarri beharko dituzte:

1.a Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasunak eskualdatzen dituen saltzaileak balio erantsiaren gaineko zergarako daukan identifikazio-zenbakia.

2.a Enpresaburu edo profesionalaren esku jartzeko bidalitako ondasunen deskribapena eta kopurua.

3.a Enpresaburu edo profesionalaren esku jartzeko bidalitako ondasunak biltegiara heldu diren eguna.

4.a Zergaren legearen 9 bis artikulua Bi apartatuaren bigarren puntuan aurreikusitako Europar Batasunaren barruko ondasun-eskurapena egin den eguna eta eskuratutako ondasunen deskribapena, zerga-oinarria (zergaren legearen 78. eta 79. artikuluen arabera zehaztuta), kopurua eta unitateko prezioa.

5.a Saltzaileak biltegitik atera dituen eta haren esku egoteari utzi dioten ondasunen deskribapena eta kopurua, eta zer egunetan atera diren biltegitik.

6.a Biltegitik desagertutako edo suntsitutako ondasunen deskribapena eta kopurua, eta zer egunetan gertatu edo igarri den ondasunon suntsiketa, galera edo lapurreta.

Hala ere, enpresaburu edo profesional horrek aurreko 1., 2. eta 4. zenbakietan aipatutako datuak bakarrik jarri beharko ditu erregistro-liburuan, baldin eta ondasunak beste enpresaburu edo profesional bati igortzen edo garraiatzen bazaizkio gordailutzeko, eta ez berari.

3. Erregelamendu honen 62.6 artikuluan aipatzen diren pertsona eta entitateen kasuan, erregistro-liburu hori Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoen bidez eraman beharko da. Horretarako, erregistro-liburuan jaso behar diren eragiketa guztien xehetasunak igorri beharko dira bide elektronikotik.

Ogasuneko ministroak erregistro horien identifikazioa zehaztuko du, ministro-agindu baten bitartez.»

Hiru. Aldatu egiten da 79. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«79. artikulua. *Laburpen-aitorpena aurkeztu beharra.*

1. Enpresaburu eta profesionalek, baita izaera hori zergaren legearen 5. artikulua Lau apartatua xedatutakoaren indarrez daukatenek ere, laburpen-aitorpena aurkeztu beharko dute honako eragiketa hauetatik edozein egiten badute:

1.a Europar Batasuneko beste estatu baterako ondasun-emateak, zergaren legearen 25. artikulua Bat, Bi, Hiru eta Lau apartatuetan xedatutakoaren babesean salbuetsita badaude.

Eragiketa horietan sartuko dira zergaren legearen 9. artikulua 3. zenbakian azaltzen diren ondasun-transferentziak eta, bereziki, ondorengo ondasun-emateak, ondasun horien inportazioa salbuetsita egon bada zergaren legearen 27. artikuluko 12. zenbakian xedatutakoaren arabera.

Zenbaki honetan aipatutako ondasun-emateetatik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Zergaren legearen 5. artikulua Bat apartatuko e) letran aipatutako pertsonak noizbehinka egiten dituztenak, garraiobide berriak xede.

b) Zergaren subjektu pasiboek Europar Batasuneko beste edozein estatutan egiten dituztenak zergarako identifikazio-zenbakirik esleituta ez daukaten hartzaileentzat.

2.a Europar Batasunaren barruko ondasun-eskurapenak, zergaren kargapean badaude eta zergarako identifikatuta dauden pertsona edo entitateek zerga aplikatu behar den lurraldean egiten badituzte.

Eragiketa horietan, Europar Batasuneko beste estatu batetik egindako ondasun-transferentziak sartuko dira (zergaren legearen 16. artikulua 2. zenbakian aipatzen direnak), eta, bereziki, aurrez Europar Batasuneko beste estatu batetik inportatutako ondasunen Europar Batasunaren barruko eskurapenak, inportazio hori zergaren kargatik salbuetsi bada zergaren legearen 27. artikulua 12. apartatua ezarritakoen pareko baldintzetan.

3.a Europar Batasunaren barruko zerbitzu-prestazioak.

Erregelamendu honen ondorioetarako, honako baldintza hauek betetzen dituzten zerbitzu-prestazioak joko dira Europar Batasunaren barruko zerbitzu-prestaziotzat:

- a) Zergaren aplikazio-lurraldean eginak ez izatea, aplikatu behar zaizkien kokapen-arauen arabera.
- b) Zergaren kargapean eta salbuetsi gabe egotea Europar Batasuneko beste estatu batean.
- c) Hartzailea enpresaburu edo profesionala izatea, halaxe jardutea eta Europar Batasuneko estatu horretan edukitzea bere jarduera ekonomikoaren egoitza, edo establezimendu iraunkor bat, edo, halakorik ezean, bere ohiko bizilekua; edo hartzailea pertsona juridikoa izatea eta enpresaburu edo profesional gisa ez jardutea, baina zergarako identifikazio-zenbakia esleituta edukitzea, Europar Batasuneko estatu horrek emana.
- d) Subjektu pasiboa hartzailea izatea.

4.a Europar Batasunaren barruko zerbitzu-eskurapenak.

Erregelamendu honen ondorioetarako, honako hauek joko dira Europar Batasunaren barruko zerbitzu-eskurapentzat: zergaren aplikazio-lurraldean zergaren kargapean eta salbuetsi gabe dauden zerbitzu-prestazioak, enpresaburu edo profesional batek eginak, zeinak Europar Batasunaren barruan baina zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo baitu bere jardueraren egoitza edo establezimendu iraunkorra, prestazioak egiteko erabiltzen duena, edo, halakorik ezean, bere ohiko bizilekua.

5.a Europar Batasunaren barruko ondasun-eskurapenen osteko ondasun-erateak, Zergaren Legearen 26. artikulua Hiru apartatuan aipatzen direnak, Europar Batasuneko beste estatu batean eginak, Espainiako Zerga Administrazioak balio erantsiaren gaineko zergarako esleitutako identifikazio-zenbakia erabilia.

2. Laburpen-aitorpena aurkeztu beharko du, halaber, zergaren legearen 9 bis artikulua aipagai duen akordioaren esparruan (ondasunak kontsignan saltzeko akordioaren esparruan) Europar Batasuneko beste estatu batera ondasunak igortzen edo garraiatzen dituen saltzaileak.»

Lau. 80. artikulua 1. apartatuari 4. zenbakia gehitzen zaio, eta artikulua horren 2. eta 3. apartatuak aldatu egiten dira; hona:

«4.a Zergaren legearen 9 bis artikulua aipagai duen akordioaren esparruan (ondasunak kontsignan saltzeko akordioaren esparruan) ondasunak bidaltzen direnean, saltzaileak datu hauek jarri beharko ditu:

- a) Ondasunak hartu behar dituen enpresaburu edo profesionalak balio erantsiaren gaineko zergarako daukan identifikazio-zenbakia, igorri edo garraiatutako ondasunen helmuga den Europar Batasuneko estatuak esleitua.
- b) Zergaren legearen 9 bis artikulua Hiru apartatuko bigarren paragrafoko a) letran aipatzen den enpresaburu edo profesionalak –ondasunak kontsignan saltzeko akordioaren esparruan hasiera batean ondasunak jasotzekoa zen enpresaburu edo profesionalaren ordezkari ondasunak jasotzen dituenak– balio erantsiaren gaineko zergarako daukan identifikazio-zenbakia.
- c) Ondasunak kontsignan saltzeko akordioaren esparruan Europar Batasuneko beste estatu batera igorri edo garraiatutako ondasunen hasierako balio zenbatetsia.»

«2. Laburpen-aitorpenean jasotako datuak zuzendu egin beharko dira, akatsak egin badira edo aldaketak gertatu badira zergaren legearen 80. artikuluan aipatzen diren inguruabarren ondorioz.

Aurreko apartatuko 4. zenbakian azaltzen den kasuan, saltzaileak jakinarazi egin beharko ditu aurkeztutako informazioaren aldaketa guztiak.

3. Eragiketak, zer aitorten-alditan sortzen diren, hari dagokion laburpen-aitorpenean jaso beharko dira.

Aurreko 1. apartatuko 4. zenbakiko kasuan, aitorten-aldi hauetako bati dagokion laburpen-aitorpenean jasoko da aipatutako informazioa:

– Ondasunen igorpen- edo garraio-datari dagokion aitorten-aldia, a) letran azaltzen den kasuan;

– ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan hasiera batean ondasunak jasotzekoa zen enpresaburu edo profesionalaren ordezkariak jasotzen dituen enpresaburu edo profesionalaren identifikazio-datuak erregelamendu honen 66.B) artikuluko a) letran aipatutako erregistro-liburuan jartzen diren aitorten-aldia, b) letran azaltzen den kasuan.

Aurreko 2. apartatuko lehen paragrafoan azaldutako kasuetan, zuzenketa, zer aitorten-alditan jakinarazten zaion ondasun edo zerbitzuen hartzaileari, aitorten-aldi horretako laburpen-aitorpenean jasoko da.»

Bost. Kendu egiten dira 81. artikulua 4. eta 5. apartatuak.

II. TITULUA

Transposizioa: 2017/1852 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2017ko urriaren 10ekoa, Europar Batasunaren barruko zerga-aztiak konpontzeko mekanismoei buruzkoa, auziok adiskidetasun-prozeduren bidez konpontzeko esparrua harmonizatzen duena eta segurtasun juridikoa sendotzen duena

I. KAPITULUA

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina aldatzea, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duena

217. artikulua. *Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina aldatzea, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duena.*

Aldatu egin da lehen xedapen gehigarria Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bateginean, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsian, eta honela idatzita geratzen da:

«Lehen xedapen gehigarria. *Adiskidetasunezko prozedurak.*

1. Nazioarteko hitzarmen eta tratatuak aplikatzean beste estatu batzuetako administrazioekin gatazkak sortuz gero, hitzarmen edo tratatuetan bertan aurreikusitako adiskidetasunezko prozeduren bidez ebaziko dira, bidezkoak izan litezkeen errekurtsioak edo erreklamazioak jartzeko eskubidea ezertan ukatu gabe.

2. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa aplikatuko zaie, halaber, errentaren eta, kasua hala denean, ondarearen zergapetze bikoitza kentzea xedatzen duten nazioarteko hitzarmen eta tratatuen haritik Europar Batasuneko beste estatu batzuekin sortzen diren auziak ebazteko mekanismoei, Kontseiluaren 2017ko urriaren 10eko 2017/1852 (EB) Zuzentarauak aipatzen dituen horiei (Europar Batasunean auzi fiskalak ebazteko mekanismoei buruzko zuzentaraua da).

3. Bi administrazioen artean adiskidetasunezko prozedura batean akordioa lortzen bada, irimo bihurtzen denean aplikatuko da.

Ondorio horietarako, akordioa irmotzat joko da agintari eskudunen azken jakinarazpena jasotzen den egunean, zeinaren bidez ukitutako gainerako estatuak agintari eskudunei adieraziko baitzaie pertsona interesdunek akordioaren edukia onartu dutela eta errekurtsioa jartzeko eskubideari uko egin diotela, adiskidetasunezko prozeduraren xede izan diren zerga-betebeharraren

elementuei dagokienez, hala bada kasua. Errekurtsioak hasita badaude, akordioa irmo bihurtuko da ukitutako pertsonak ukitutako Europar Batasuneko estatuetako agintari eskudunei frogak aurkezten dizkienean erakusteko nola prozedura horiei amaiera emateko neurriak hartu diren, adiskidetasunezko prozeduraren xede izan diren zerga-betebeharraren elementuei dagokienez.

4. Ondorio horietarako, erregelamenduz ezarriko da adiskidetasunezko prozedura horiek ebazteko prozedura, baita ondoriozko erabakia aplikatzekoa ere.

5. Ezin izango da inolako errekursorik jarri aipatutako erabakien kontra, erabaki horiek aplikatzeko administrazio-egintzaren edo -egintzen kontra aurreikusita dauden errekursioak izan ezik.

6. 1.a Adiskidetasunezko prozeduretan, zorraren sarrera automatikoki etengo da interesdunaren eskariz, zorraren zenbatekoa eta bidezkoak izan litezkeen errekarquak bermatzen badira eskaeraren unean, erregelamenduz ezartzen den eran.

Ezin izango da zorraren sarrera eten, aurreko paragrafoan ezarritako eran, etetea administrazio-bidean edo auzibidean eska daitekeen bitartean.

2.a Aurreko zenbakian aipatzen den etete automatikoa lortzeko, honako berme hauek soilik onartuko dira:

- a) Dirua edo balore publikoak gordailuan uztea.
- b) Kreditu-entitate batek edo elkar bermatzeko sozietate batek emandako abal edo fidantza solidarioa edo kauzio-asegurua ziurtagiria.

3.a Adiskidetasunezko prozedurak zor osoa ukitzen ez duenean, apartatu honetan aurreikusten den etetea adiskidetasunezko prozedurak ukitzen duen zenbatekora mugatuko da.

7. Baldin eta, 1. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz,aldi berean egiten badira nazioarteko hitzarmen edo tratatuetan aurreikusitako adiskidetasunezko prozedura bat eta Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren V. tituluaren araututako berrikuspen-prozeduretako bat, eten egingo da berrikuspen-prozedura, adiskidetasunezko prozeduraren xede diren zerga-betebeharraren elementuei bakarrik dagokienez, harik eta adiskidetasunezko prozedura amaitu arte.

8. Zehapenak izateak adiskidetasunezko prozeduraren arbitraje-fasera iristea eragozten duen kasuetan, 7. apartatuan ezarritakoa ez da aplikatuko zehapenen ezarpenaren aurkako errekursioa jarri bada administrazio-bidean. Horrelakoetan, ezingo da adiskidetasunezko prozedurako arbitraje-batzordera jo harik eta zehapenari buruzko ebazpen irmoa izan arte administrazio-bidean edo auzibidean.

9. 90/436/EEE Hitzarmenaren babesean izapidetutako prozeduretan, 10. apartatuan aipatzen diren zehapenen aurka administrazio-bidean edo administrazioarekiko auzien bidean edozein errekursio edo erreklamazio jartzeak eten egingo du adiskidetasunezko prozeduraren tramitazioa, bidezkoa den lehenengo errekursioa jartzen den unetik administrazio-bidean edo auzibidean zehapenari buruzko ebazpen irmoa ematen den arte.

Ez da onartuko aurreko paragrafoan aurreikusitako adiskidetasunezko prozedura hastea, edo hasita dagoen adiskidetasunezko prozedura amaitu egingo da, baldin eta kasuan kasuko enpresek zehapen irmoa jaso badute xedapen honen 10. apartatuan ezarritako eran.

10. Honako hauek joko dira zehapentzat 8. eta 9. apartatuetan ezarritakoaren ondorioetarako:

- a) Ogasun Publikoaren aurkako delituengatik zigorrak, Zigor Kodearen 305. eta 305 bis artikuluetan aipatzen direnak;
- b) Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 191., 192. eta 193. artikuluetan aipatzen diren arau-hausteengatik zehapenak, baldin eta lege horren 184. artikuluan azaltzen diren kalifikazio-irizpideetakoren bat betetzen bada;

c) Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legeak 18.13.2 artikuluan ezarritako arau-hausteengatiko zehapenak, baldin eta Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 184. artikuluan azaltzen diren kalifikazio-irizpideetakoren bat betetzen bada. Ondorio horietarako, 184. artikulua horretan aitortzei egiten zaizkien aipamenak transferentzia-prezioen dokumentazioari buruzkoak direla ulertu behar da.

Ez da zehapentzat joko 8. eta 9. apartatuetan ezarritakoaren ondorioetarako, c) letran ezarritakoa gorabehera, dokumentazio osatugabea aurkezteagatiko zehapena, baldin eta arau-hauste horrek ez badu larriki zailtzen merkatuko balioaren zenbatekoa zehaztea.

11. Xedapen honetan aipatzen diren prozedurek berariazko araudia dute, eta ordezkoko gisa zerga-araudiak arautzen ditu, aplikagarria den guztian.

12. Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralak eskumena izango du aholku-batzordearen eraketari eta funtzionamenduari buruz erregelamendu bidez zehazten diren eginkizunetan aritzeko.

13. Adiskidetasunezko prozedura batean eraturako aholku-batzordeko edo ebazpen alternatiborako batzordeko kideek erabat isilpean gorde beharko dituzte batzordeko eginkizunetan ezagutzen dituzten zerga-datuak, Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 95. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Betebehar hori urratzeak Espainiako araudiaren arabera sor litezkeen legezko erantzukizunak ekarri ahalko ditu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ukitutako beste estatu batzuetako barne-araudia aplikatu ahalko da haien jurisdikzioko eremuan.»

II. KAPITULUA

29/1998 Legea aldatzea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena

218. artikulua. *29/1998 Legea aldatzea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena.*

Aldatu egiten da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Errekurritutako aduana-zor baten likidazioarekin lotutako egintza Europar Batasuneko erakundearen erabaki baten mende jarri bada –hain zuzen ere, zor hori a posteriori ez hartzeari, zorra barkatzeari edo itzultzeari buruzko erabakiaren mende–, autoen izapidetzea eten egingo da organo jurisdikzionalak inguruabar horren berri izaten duen unetik hasi eta erakunde horiek hartutako ebazpena irmoa den arte.

Halaber, autoen izapidetzea eten egingo da –adiskidetasunezko prozeduraren xede diren zerga-betebeharraren elementuei soilik dagokienez– zuzeneko ezarpenaren arloko adiskidetasunezko prozedura abiarazten den unetik hasi eta adiskidetasunezko prozedura amaitzen den arte; adiskidetasunezko prozedura hori lehen xedapen gehigarrian aipatzen du Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartuak.

90/436/EEE Hitzarmenaren babesean izapidetutako prozeduratan, eta zehapenak izateak adiskidetasunezko prozedurako arbitraje-fasera iristea eragozten duen kasuetan, aurreko paragrafoan ezarritakoa ez da aplikatuko zehapenen aurkako edozein errekurtsio jarri bada administrazioarekiko auzien bidean.»

Lehen xedapen gehigarria. *Tratu txarragoa ez emateko klausula.*

Sektore publikoko entitate kontratatzaileek, obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak adjudikatzeko prozeduretan, Europar Batasuneko obrei, hornidurei, zerbitzuei eta operadore ekonomikoek ematen dieten bezain tratu onuragarria emango diete Europar Batasuna edo Estatu lotesten duten nazioarteko akordioak dituzten estatuetatik etorritako operadore ekonomikoek.

Bigarren xedapen gehigarria. *Balio erantsiaren gaineko zerga.*

Errege lege-dekretu honen lehen liburuan ezarritako zenbatekoetan ez da sartutzat joko balio erantsiaren gaineko zergari dagokion zenbatekoa, ez Kanarietako zeharkako zerga orokorra, ezta ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zerga ere, bakoitza aplikatu behar den lurraldean.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Sektore publikoko entitate kontratatzaileen langileen erantzukizuna.*

Sektore publikokoak izan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) aplikatu behar duten entitate kontratatzaileen zerbitzuko langileek errege lege-dekretu honen lehen liburuko manuak urratzen edo bidegabeki aplikatzen badituzte, diziplinazko erantzukizuna sortuko da, eta erantzukizun hori arloko araudi espezifikoi jarraituz exijituko da.

Laugarren xedapen gehigarria. *Irisgarritasuna.*

Errege lege-dekretu honen menpeko kontratazioaren eremuan, zer komunikabide onartuko diren zehaztu, elementu lagungarriak diseinatu eta prozedura garatzeko orduan, irisgarritasun unibertsalaren irizpideak eta pertsona guztientzako diseinuaren irizpideak hartu beharko dira kontuan, termino horiek azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan definitzen diren bezala (dekretu horrek Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testuategina onartzen du).

Bosgarren xedapen gehigarria. *Errege lege-dekretu honen esparrutik kanpoko kontratuak, sektore publikoko entitateek egiten dituztenak: araubide juridikoa.*

Errege lege-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpokoak izan eta 8.etik 14.era bitarteko artikuluetan adierazitako jarduerak objektutzat dituzten kontratuak adjudikatzeko, sektore publikoko entitateek azaroaren 8ko 9/2017 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera kasu bakoitzean aplikatu behar den araubide juridikoari jarraituko diote.

Seigarren xedapen gehigarria. *Europar Batasunak finkatutako zenbatekoak eguneratzea.*

Europako Batzordeak aurrerantzean finkatzen dituen zenbatekoek errege lege-dekretu honen testuan ageri direnak ordeztuko dituzte. Ogasun Ministerioak zenbateko horiek jendarteaz ezagutarazteko beharrezko diren neurriak hartuko ditu.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Azpikontratatzen zuzeneko ordainketak.*

1. Ezertan kendu gabe 108. artikuluan aurreikusitakoa, eta 107. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean, entitate kontratatzaileak baldintza-agirietan aurreikusi ahalko du azpikontratatzei zuzeneko ordainketak egin dakizkiela.

2. Zuzeneko ordainketak jasotzeko adostasuna duen azpikontratatzen bere kobrantza-eskubideak laga ahalko ditu.

3. Azpikontratistaren alde eginiko ordainketak kontratista nagusiaren kontura egindakotzat joko dira, eta, entitate kontratatzaileari dagokionez, kontu onerako ordainketak izango dira horiek ere, obra-ziurtagiriak bezalaxe.

4. Entitate kontratatzaileari ezingo zaio inolaz ere egotzi kontratista nagusia azpikontratistak aurkeztutako fakturarekin ados ez egoteagatik ordainketan gertatutako atzerapena.

5. Baimena ematen zaio Ogasuneko ministroari Estatuko sektore publikoaren eremuan gara ditzan aurreko apartatuetan jasotako aurreikuspenak, aurkeztu beharreko dokumentazioaren ezaugarriari, jakinarazpenen eta ziurtagirien araubideari eta kontabilitateko eta fakturazioko operatibari dagokienez.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Kontratuak eta informazioa bidaltzea Kontu Nazionalen Batzorde Teknikora.*

Sektore publikoko entitate kontratatzaileek azaroaren 8ko 9/2017 Legearen berrogeita bosgarren eta berrogeita seigarren xedapen gehigarrietan ezarritako betebeharrak izango dituzte, kontratuak eta informazioa bidaltzeari dagokionez.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *I. eranskinen zerbitzu-emakidako kontratuei eta zerbitzu sozialen, osasun-zerbitzuen edo hezkuntza-zerbitzuen kontratuei aplikatu beharreko printzipioak.*

Errege lege-dekretu honen xedapenen aplikazioa eta besteak beste preskripzio teknikoak, kaudimeneko gutxieneko baldintzak, adjudikazio-irizpideak eta egikaritzeko baldintza bereziak ezartzei buruzko xedapenen aplikazioa ezertan ere kendu gabe, I. eranskinean ageri diren zerbitzu-emakidako kontratuak lizitzatzeko prozeduretan eta orobat I. eranskinean jasota dauden arlo sozial, sanitario edo hezkuntzakoaren kontratuak lizitzatzekoetan, entitate kontratatzaileek fase guztietan zainduko dute zerbitzuen kalitatea, jarraitutasuna, irisgarritasuna, lorgarritasuna, eskuragarritasuna eta exhaustibotasuna bermatzen dela, bai eta erabiltzaile-kategoria bakoitzaren beharrian berariazkoak –talde kaltetu eta ahulen beharrianak barne–, zerbitzuetako erabiltzaileen inplikazioa eta zerbitzu-prestazioaren berrikuntza ere.

Halaber, xedapen gehigarri honek aipagai dituen kontratuak adjudikatzeko irizpideak ezartzerakoan, entitate kontratatzaileak honako alderdi hauek jarri ahalko ditu erreferentzia gisa: kontratuari atxikitako langileek bereziki kaltetutako sektoreentzako zerbitzuak edo antzeko izaera duten zerbitzuak 66. artikuluan ezarritako moduan ematen daukaten esperientzia; lortutako etekinak haiek ematen dituzten zerbitzuak hobetzen berriro egiten den inbertsioa, eta erabiltzaileek parte hartzeko ezartzen diren mekanismoak, bai eta haien informaziorako eta orientaziorako mekanismoak ere.

Hamargarren xedapen gehigarria. *9/2017 Legearen 324. artikuluen baimenak (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzaruen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).*

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 324. artikulua baimenei buruz ezartzen duen araubidea aplikatuko zaie botere adjudikatzailatzat jotzen diren Estatuko sektore publikoko entitateetako kontratazio-organismoek errege lege-dekretu honi loturik egiten dituzten kontratuei, bertan ezarritako eran.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboko inskripzioaren tasa.*

1. Honako hauek dira tasaren zerga-egitateak:

a) Aseguru- edo berraseguru-bitartekariak eta aseguru osagarrien bitartekariak aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboan inskribatzea.

b) Aseguru-bitartekari, aseguru osagarrien bitartekari edo berraseguru-artekari gisa inskribaturik dauden pertsona juridikoen administratzaileak, banaketa-jardueraren ardura duen pertsona eta aseguruak edo berraseguruak banatzeko jardueren ardura duen zuzendaritza-organoko kideak inskribatzea, inskribatu egin behar badira, errege legedekretu honen bigarren liburuaren I. tituluari eta hura garatzeko erregelamendu-xedapenei jarraituz.

c) Aseguru- eta berraseguru-entitateetan banaketa-jardueraren ardura duen pertsona eta aseguruak edo berraseguruak banatzeko jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideak inskribatzea.

d) Aurrekoekin zerikusia duten egintzak inskribatzea, inskribatu egin behar badira aseguru eta berraseguru pribatuen banaketari buruzko arauak hala eskatuta.

e) Bigarren liburuaren I. tituluaren 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan jasotako informazioari buruzko ziurtagiriak egitea.

2. Ez da tasarik ordaindu beharko inskripzioa ezerezteari buruzko inskripzioengatik.

3. Tasaren subjektu pasibo izango dira aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboan inskripzioa egiten zaien pertsona fisiko edo juridikoak eta erregistro horretako ziurtagiria eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

4. Tasaren kuota honako hau izango da:

a) Aseguru-agente eskusibo bat (pertsona fisikoa) inskribatzeagatik, 13,52 euroko kuota finkoa.

b) Lotutako aseguru-agente bat edo aseguru- edo berraseguru-artekari bat (pertsona fisikoa) inskribatzeagatik, 71,80 euroko kuota finkoa.

c) Aseguru-agentziako sozietate bat, banku-aseguruen operadore bat edo aseguru-zein berraseguru-artekaritzako sozietate bat inskribatzeagatik, 168,58 euroko kuota finkoa.

d) Aseguru-agentziako sozietateetan edo banku-aseguruen operadoreenetan, aseguru-artekaritzakoetan edo berraseguru-artekaritzakoetan, administratzaileak, banaketa-jardueraren ardura duten pertsonak edo aseguruak edo berraseguruak banatzeko jardueren ardura duten zuzendaritza-organotako kideak inskribatzeagatik, 13,52 euroko kuota finkoa pertsona bakoitzeko.

e) Aseguru- eta berraseguru-entitateetan banaketa-jardueraren ardura duten pertsonak edo aseguruak zein berraseguruak banatzeko jardueraren ardura duten zuzendaritza-organotako kideak inskribatzeagatik, 13,52 euroko kuota finkoa pertsona bakoitzeko.

f) Inskribatzeko moduko beste edozein egintza inskribatzeagatik edo inskribatutakoak aldatzeagatik, 13,52 euroko kuota finkoa haietako bakoitzeko.

g) Aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboan dagoen informazioari buruzko ziurtagiriak egiteagatik, 13,52 euroko kuota finkoa.

5. Eskaera aurkeztean sortuko da tasa, eta dagokion ordainketa egin arte ez da izapidetuko eskaera.

6. Tasaren zenbatekoa autolikidazioaren bidez bildu ahalko da, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak ezartzen dituen eran eta epeetan.

7. Aseguru-agente eskusiboak, haien administrazio-karguak dituztenak eta banaketa-jardueraren ardura duen pertsona edo aseguruak banatzeko jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideak inskribatzen direnean, inskripzioaren tasaren autolikidazioa egingo du, zergadunaren ordezkotako gisa, bere agenteen erregistroan pertsona horiek inskribatuta dauzkan aseguru-entitateak.

8. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari dagokio tasa administratzea, likidatzea eta borondatezko epean biltzea. Epe exekutiboan, berriz, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari dagokio tasa biltzea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

9. Tasaren zenbatekoak Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen bidez eguneratu ahal izango dira.

Hamabigarren xedapen gehigarria. *Aseguru- eta berraseguru-banatzailen eta banaketan diharduten gainerako pertsonen prestakuntza-programen baldintzak eta oinarrizko printzipioak.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bidez ildo nagusiak eta oinarrizko printzipioak ezarri ahal izango ditu errege lege-dekretu honen bigarren liburuko I. tituluan eskatzen diren prestakuntza-ikastaroak eman daitezen finantza-gaiei eta aseguru pribatuei buruz.

2. Bigarren liburuko I. tituluko 165. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, aurreko apartatuan adierazitakoaz gain, finantza-gaiei eta aseguru pribatuei buruzko prestakuntza-ikastaroetan parte hartzen duten pertsonak ikastaroaren hasieran frogatu egin beharko dute betetzen dutela gutxieneko prestakuntzaren betekizuna, zeina prestakuntzari buruzko garapen-araudiaren babesean ezarriko baita.

Errege lege-dekretu honen bigarren liburuko I. tituluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, prestakuntza-ikastaroen edukia eta iraupena moldatu ahal izango dira, aurrez gauditutako prestakuntza-programetan ikasitakoa edota aseguru eta berraseguru pribatuen arloko lanbide-esperientzia kontuan hartuta; ezagutza eta esperientzia horiek ikastaroaren hasieran frogatu beharko dira.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eskatu ahal izango du beharrezkoak diren aldaketak egin daitezela ikastaro horiek errege lege-dekretu honen bigarren liburuko I. tituluan aipatutako prestakuntza-betebeharrari egokitzeko.

3. Indarrrik gabe geratutako lehengo legeriaren babesean finantza-gaiei eta aseguru pribatuei buruzko prestakuntza-ikastaro edo gaitasun-probaren bat ematen edo antolatzen hasita badago errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean, ikastaro edo proba horrek aurrera egingo du azterketak egin arte, lehengo araudian ezarritakoari jarraituz.

Indarrrik gabe geratutako legerian Aseguru Bitartekari Tituludunaren diploma arautzen da. Bada, diploma hori edukitzea bigarren liburuko I. tituluko 165. artikuluan aipatzen den finantza-gaiei eta aseguru pribatuei buruzko prestakuntza-ikastaroa gaudituz izanaren parekoa izango da.

4. Indargabetutako araudiari jarraituz ikastaroaren zuzendariak egindako ziurtagiria edo –finantza-gaien eta aseguru pribatuen arloko gaitasun-proben kasuan– Aseguru-bitartekarien Elkargoen Kontseilu Nagusiak egindako ziurtagiria edukitzea, ikastaroak eta probak gaudituz izanaren froga gisa, errege lege-dekretu honen bigarren liburuko I. tituluan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera prestakuntza-ikastaroak gaudituz izanaren parekoa izango da.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Kontratu aurreko dokumentazioa gordetzea.*

1. Errege lege-dekretu honen bigarren liburuko I. tituluak arautzen dituen jarduerak egiten dituzten pertsonak gorde egin beharko dituzte errege lege-dekretu honen bigarren liburuko I. tituluan eta hura garatzeko arauetan ezartzen diren betebeharrak betetzeko bezeroari ematen zaion kontratu aurreko informazioa biltzen duten dokumentuak, betebeharrak horiek bete direlako frogagiri gisa, gutxienez sei urtez kontratuak sortzen dituen ondorioak amaitzen direnetik aurrera. Gauza bera egin beharko dute konbinatuta edo lotuta saltzen diren aseguru-produktuei edo zerbitzuei buruzko kontratu aurreko informazioarekin.

2. Aseguru-zorroaren titulartasunean subrogazioa edo lagapena gertatzen bada, jatorrizko banatzaileak kontratu aurreko dokumentazioa gorde beharko du aurreko paragrafoan azaltzen den aldian; gainera, eskatuz gero, kopia eman beharko dio eskuratzaleari, haren kontura. Biek ere dokumentazio hori aseguru pribatuen erabiltzaileari eman beharko diote, aurreko apartatuan ezarritako aldian eskatzen badu.

Hamalagarren xedapen gehigarria. *Baliabideak berresleitzea.*

Errege lege-dekretu honen bigarren liburuan ezarritako betebeharrei aurre egiteko, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren baliabide arruntak berresleitu dira, zuzkidura gehigarrien beharrik izan gabe.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Pentsio-funtsen gobernu-sistemak dituen eta errege lege-dekretu honen bigarren liburuaren II. tituluan ezartzen diren arauetara moldatzea.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik sei hilabete igaro baino lehen, pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek euren antolaketa-egitura moldatu beharko dute Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren VIII. kapituluaren ezarritakoaren arabera, eta testu bategin horren 27. artikuluan aipatzen diren politika idatziak ezarri beharko dituzte gobernu korporatiboari, ordainsariei, arriskuaren kudeaketari eta barne-auditoretzari buruz eta, hala behar denean, entitateak egiten dituen aktuariotza-jardueri eta kanporatutako jardueri buruz; halaber, barne-kontrolako sistema dokumentatu egin beharko dute.

2. Era berean, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik sei hilabete igaro baino lehen, pentsio-planetako entitate kudeatzaileek eta, kasua bada, kontrol-batzordeek funtsezko eginkizunen titularrak izendatu beharko dituzte, Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 30. artikuluan aipatutakoak, eta izendapenaren berri eman beharko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

Kasua bada, enpleguko pentsio-planetako kontrol-batzordeek, errege lege-dekretu hau indarrean jarri osteko sei hilabeteko epe horretan, aipatutako testu bateginaren 29. artikuluan aurreikusten den ordainsari-politika ezarri beharko dute; halaber, aktuariotza-eginkizunaren titularrak izendatu beharko dituzte eta izendapenaren berri eman Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

3. Entitate kudeatzaileek aldi behin enpleguko pentsio-funtsen arriskuen barne-ebaluazioa egin beharko dute, Pentsio Funtsak eta Planak Arautzeko Legearen testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaz onartuak) 30 quinquies artikuluan aurreikusten duenez. Bada, ebaluazio hori lehenengoz egiteko epea erregelamendu bidez ezarriko zaie.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Estatuko Portuak erakundearen eta portu-agintaritzen kontratazio-araubidea*

Administrazio publikotzat jotzen ez diren botere adjudikatzaileentzat errege lege-dekretu honen lehen liburuan ezarrita dagoen araubide juridikoa izango dute liburu horrek arautzen dituen jardueretan Estatuko Portuak erakundeak eta portu-agintaritzek egiten dituzten kontratuek.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Arkitektura, ingeniariaritza, aholkularitza eta hirigintza arloetako zerbitzuak kontratatzeari buruzko arau bereziak.*

Prestazio intelektualen izaera aitortzen zaie arkitektura-, ingeniariaritza-, aholkularitza- eta hirigintza-zerbitzuei, errege lege-dekretu honek aurreikusitakoaren ondoreekin.

Lehen xedapen iragankorra. *Errege lege-dekretu hau indarrean ipini aurretik hasitako espedienteak eta adjudikatutako kontratuak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitako kontratazio-espedienteak aurreko araudiaren bidez arautuko dira. Horretarako, kontratazio-espedientea hasita dagoela ulertuko da, baldin eta kontratua adjudikatzeko prozeduraren deialdia ordurako argitaratuta badago. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan, hasiera-unea zehazteko, baldintza-agiriak onartu diren data hartuko da kontuan.

2. Lege hau indarrean jarri aurretik adjudikatutako kontratuak aurreko araudiaren bidez arautuko dira haien ondoreei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez, haien aldaketa, iraupena eta luzapen-araubidea barnean direla.

3. Urriaren 30eko 31/2007 Legeak (uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzkoak) 101. artikuluan ezarritakoaren babesean hasitako erreklamazio-prozedurak artikuluko horren arabera izapidetuko dira ebatzi arte.

Errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitako kontratazio-espedituetan, 119. artikulua aurreikusten duen erreklamazioa jarri ahalko da, kasuan kasuko egintza bide horretatik errekurritu badaiteke eta errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren emana bada.

4. Errege lege-dekretu hau berau indarrean jarri ondoren egiten diren mandatueta izango da aplikatzekoa. Mandatuak behin dokumentu bidez formalizatuz gero iritziko zaio emanak izan direla.

5. Esparru-akordioetan edo eskuratze-sistema dinamikoetan oinarritutako kontratuek berei aplikatzen zaien araudia beteko dute.

Bigarren xedapen iragankorra. *Aseguru- edo berraseguru-entitateak moldatzeko araubidea.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean aseguru- eta berraseguru-entitateetan banaketa-jardueraren ardura duten pertsonen, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko nahiz pareko organoko kideei eta aseguruak edo berraseguruak banatzeko jardueretan zuzenean parte hartzen duten langileei dagokienez, betetzat emango dira hasierako prestakuntza dela-eta errege lege-dekretu honen bigarren liburuko I. tituluan ezartzen diren betekizunak. Hurrengo apartatuan xedatutakoaren arabera inskribatu behar diren pertsonen bakarrik aplikatuko zaie aurrekoa.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateek hiru hilabeteko epea izango dute, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, hau egiteko:

a) Aseguruak edo berraseguruak banatzeko jardueraren ardura duen pertsona eta horiek banatzeko jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideak erregistro administratiboan inskribatzeko eskatu.

b) Bigarren liburuko I. tituluko 139.5 artikuluan xedatutakoa bete; artikuluko horren arabera, erregistro eguneratu batean inskribaturik eduki beharko dituzte aseguruaren banaketan zuzenean parte hartzen duten langileak, bai eta banaketa-jardueraren ardura duen pertsona edo banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideak ere.

c) Bigarren liburuko I. tituluko 139.4 eta 147.3 artikuluetan xedatutakoa bete, barne-politika eta -prozedura egokiak eduki beharri dagokionez.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Aseguru-artekariak moldatzeko araubidea.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean aseguru-bitartekarien, aseguru-artekarien eta bertako goi-kargudunen administrazio-erregistro berezian (Aseguru eta Berraseguru Pribatuetako Bitartekaritza buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legearen 52. artikuluan aurreikusia) erregistratuta dauden aseguru- eta berraseguru-bitartekariak ez dute berriro erregistratu beharrik izango errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren ondorioz.

2. Aseguru-bitartekarien, aseguru-artekarien eta bertako goi-kargudunen administrazio-erregistro berezian (uztailaren 17ko 26/2006 Legearen 52. artikuluan aurreikusia) inskribatuta dauden aseguru-agente eskusiboek, pertsona fisiko zein juridikoak izan, inskribatuta jarraituko dute bigarren liburuko I. tituluko 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan (aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboa), errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean berekin aseguru-agentziako kontratua daukaten aseguru-entitateetako aseguru-agente eskusibo gisa.

Betiere, 147. eta 148. artikuluetan ezarritako gainbegiratze administratiboko araubideari lotuko zaizkio.

3. Aseguru-bitartekarien, aseguru-artekarien eta bertako goi-kargudunen administrazio-erregistro berezian (uztailaren 17ko 26/2006 Legearen 52. artikuluan aurreikusia) inskribatuta dauden lotutako aseguru-agenteeek, pertsona fisiko zein juridikoak izan, inskribatuta jarraituko dute bigarren liburuko I. tituluko 133. artikuluan aipatzen den erregistro administratiboan (aseguru- eta berraseguru-banatzailleen erregistro administratiboa), errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean berekin aseguru-agentziako kontratua daukaten aseguru-entitateetako lotutako aseguru-agente gisa, uztailaren 17ko 26/2006 Legean ezarritako erantzukizun zibil profesionaleko araubidearen pean; betiere, 149. artikuluan ezarritako gainbegiratze administratiboko araubideari lotuko zaizkio.

4. Aseguru-bitartekarien, aseguru-artekarien eta bertako goi-kargudunen administrazio-erregistro berezian (uztailaren 17ko 26/2006 Legearen 52. artikuluan aurreikusia) inskribatuta dauden banku-aseguruen operadore eskusiboek edo lotutako banku-aseguruen operadoreek inskribatuta jarraituko dute errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean berekin aseguru-agentziako kontratua daukaten aseguru-entitateetako banku-aseguruen operadore eskusibo gisa edo, hala denean, lotutako banku-aseguruen operadore gisa, uztailaren 17ko 26/2006 Legean ezarritako erantzukizun zibil profesionaleko araubidearen pean, eta, betiere, 150. artikulutik 154.era ezarritako gainbegiratze administratiboko araubideari loturik.

5. Pertsona juridiko diren aseguru- eta berraseguru-bitartekarietako goi-kargudunek, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean inskribatuta badaude aseguru-bitartekarien, aseguru-artekarien eta bertako goi-kargudunen administrazio-erregistro berezian (Aseguru eta Berraseguru Pribatuetako Bitartekaritza buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legearen 52. artikuluan aurreikusia), ez dute berriro erregistratu beharrik izango errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren ondorioz.

6. Aseguru-bitartekariak bigarren liburuko I. tituluko 136.4 artikuluan xedatutakoari egokitu beharko zaizkio hiru hilabeteko epean, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

7. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean aseguru-bitartekarien, aseguru-artekarien eta bertako goi-kargudunen administrazio-erregistro berezian (Aseguru eta Berraseguru Pribatuetako Bitartekaritza buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legearen 52. artikuluan aurreikusia) erregistratuta dauden aseguru- eta berraseguru-artekarien kasuan, I. tituluko 190.1 artikuluko d) letran aipatzen den epea errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo ekitalditik aurrera zenbatu beharko da.

Laugarren xedapen iragankorra. *Aurreko aseguru-kontratuak.*

Errege lege-dekretuaren bigarren liburuko I. titulua ez zaie aplikatuko hura indarrean jarri aurretik sinatutako aseguru-kontratuak, berritze azkentzailea egin zaienei izan ezik; horietan berritzearen unetik aurrera aplikatuko da I. titulua.

Bosgarren xedapen iragankorra. *Errege lege-dekretu hau indarrean jartzean indarrean dauden bitartekaritza eta banaketako kontratuak.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik aseguru bitartekaritza eta banaketarako egindako kontratuek indarrean iraungo dute euren antzinasunari eta alderdi eta baldintza guztiei utsiz. Nolanahi ere, aplikatzekoak diren informazio-betebehar eta jokaera-arau berrietarako beharrezkoak diren egokitzapenak egingo zaizkie.

Seigarren xedapen iragankorra. *Pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateetako partaidetza handien eta zuzendaritzan eta funtsezko eginkizunetan aritzen direnen izendapenen berri ematea.*

Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 20.1.g) eta 28.4 artikuluek (errege lege-dekretu honen bigarren liburuko II. tituluan emanda dauden bezala) erregelamendu bidezko garapenerako ezartzen dituzten arauak indarrean jarri arte, artikulua horietan eta aipatutako testu bateginaren 28.3 artikuluan aurreikusten diren ebaluazioari eta Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiarentzako jakinarazpenari dagokienez, aplikatzekoak izango dira otsailaren 7ko EHA/407/2008 Aginduaren I. eta II. eranskinak; agindu horrek pentsio-plan eta -funtzen araudia garatzen du arlo finantzario eta aktuarialari, inbertsioen araubideari eta erregistro-prozedurei dagokienez.

Zazpigarren xedapen iragankorra. *Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen erregistro-liburua arteztea Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoen bidez.*

Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen erregistro-liburua Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoen bidez arteztu beharko da informazioa bide elektronikotik aurkeztuz, soil-soilik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 66. artikuluan 1. apartatuko 3. zenbakiak aipatzen dituen eragiketetan (erregelamendu hori abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Betebehar hori 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Zortzigarren xedapen iragankorra. *Adiskidetasun-prozeduren araubide iragankorra.*

1. Errege lege-dekretu honek idazkera berria ematen dio Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren lehen xedapen gehigarriari (testu bategin hori martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Idazkera berri hori indarrean jarri aurretik hasitako adiskidetasunezko prozeduretan aurreko araudia aplikatuko da prozedura amaitu arte, hurrengo apartatuetan xedatutakoa salbu.

2. Errege lege-dekretu honek idazkera berria ematen dio Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren lehen xedapen gehigarriaren 7. eta 8. apartatuei (testu bategin hori martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Idazkera berri hori 2015eko urriaren 12tik aurrera hasitako adiskidetasunezko prozeduretan aplikatuko da.

3. Errege lege-dekretu honek idazkera berria ematen dio Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuaren bigarren paragrafoari (testu bategin hori martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Idazkera berri hori aplikatuko zaie errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean amaitu gabe dauden prozedurei.

4. Errege lege-dekretu honek idazkera berria ematen dio Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuaren hirugarren paragrafoari. Idazkera berri hori 2015eko urriaren 12tik aurrera hasitako adiskidetasunezko prozedurei aplikatuko zaie.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauak indargabetzea.*

1. Indargabeturik geratzen dira urriaren 3ko 31/2007 Legea (uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzkoa, 2004/17/EE, 92/13/EEE eta 2007/66/EE zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen dituen) eta maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, errege lege-dekretu honetan ezarritakoaren aurkakoak diren heinean.

2. Indargabeturik geratzen da uztailaren 17ko 26/2006 Legea, aseguru eta berraseguru pribatuetako bitartekaritzari buruzkoa.

3. Halaber indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

4. Aurrekoa gorabehera, prestakuntzaren eta kontabilitateko informazio estatistikoaren arloetan errege lege-dekretu hau garatu behar duen araudia onartu arte, indarrean jarraituko dute ekainaren 11ko 764/2010 Errege Dekretuak (zeinaren bidez Aseguru eta Berraseguru Pribatueta Bitartekaritzari buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legea garatzen baita estatistika eta kontabilitateko, negozioko eta lehia profesionaleko informazioaren arloan) eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren 2011ko otsailaren 18ko Ebazpenak (zeinaren bidez oinarritzko printzipioak eta betekizunak ezartzen baitira aseguru-bitartekari, berraseguru-artekari eta aseguru eta berraseguru pribatueta bitartekaritzan zuzenean parte hartzen duten gainerako pertsonentzako prestakuntza-programetarako).

Azken xedapenetako lehena. *9/2017 Legea aldatzea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.*

Bat. Aldatu egiten da azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikulua; honela idatzita geratzen da:

«118. artikulua. *Kontratazio-espeditentea kontratu txikietan.*

1. Kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak dira, baldin eta obra-kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira, alde batera utzi gabe estatu-mailan zentralizatutako obrei, zerbitzuei eta horniketeei buruz 229. artikuluan ezarritakoa.

2. Kontratu txikietan, espeditentearen izapideak egiteko, kontratazio-organoaren txostena beharko da, honako bi inguruabar hauek azaltzen dituen: kontratua beharrezkoa dela (arrazoiak emanda) eta kontratuaren objektua ez dela aldatu aurreko apartatuan deskribatutako atalaseen aplikazioa saihesteko.

3. Halaber, gastua onestea eskatuko da, eta dagokion faktura espeditenteari gehitzea; fakturak lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu.

4. Obra-kontratu txikian, obren aurrekontua ere gehitu beharko da; nolana ere, dagokion proiektua ere beharko da xedapen indardunek horrela eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikulua aipatzen duen gainbegiratze-bulego edo -unitateen txostena eskatu beharko da, baldin eta lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badie.

5. Artikulu honen 2. apartatuan xedatzen dena ez zaie aplikatuko kutxa finkoko aurrerakinen sistemaren bidez edo kopuru txikiak ordaintzeko antzeko sistemaren baten bidez ordaintzen diren kontratuei, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik gorakoa ez bada.

6. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako eran argitaratuko dira.»

Bi. Aldatu egiten da azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 331. artikulua; hona nola geratzen den idatzita:

«331. artikulua. *Autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoen informazio-ekarpena.*

Administrazio publikoen arteko harremanak gidatzen dituen leialtasun instituzionalaren printzipioaren barruan, zeina oinarritzko izaeraz jasota baitago Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3. artikuluan, eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak 328. artikuluan Europako Batzordea dela-eta ezartzen diren betebeharrak bete ahal ditzan, autonomia-erkidegoek honako dokumentazio hau igorriko diote 329.

artikuluaren araututako Lankidetzako Komiteari, formatu elektronikoz, beren organo eskudunen bitartez eta beren lurralde-eremuei dagokienez:

a) 328. artikulua 4. apartatuaren b), c), d) eta e) letretan aipatutako gai guztiei buruzko txosten bat, gutxienez ere hiru urtez behin.

b) 332. artikulua 8. apartatua aurreikusitako gai buruzko txosten bat, gutxienez ere hiru urtez behin.

Igorritako dokumentazioak informazioa izango du kasuan kasuko epealdian beren kontratatzaile-profila beren lurralde-eremuko autonomia-erkidegoak berriaz ezarritako informazio-zerbitzuan argitaratu duten toki-administrazioetako eta haiei lotuta edo haien mende dauden entitateetako kontratazio-organoei buruz».

Hiru. Aldatu egiten da azaroaren 8ko 9/2017 Legearen azken xedapenetako lehenaren 3. apartatuaren bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita.

«Dena dela, honako artikulua edo artikulua-atal hauek ez dira oinarritzakoak izango: 21. artikulua 1. apartatuaren a) letra; 22. artikulua 1. apartatuaren a) letra; 30. artikulua; 32. artikulua 6. apartatuaren c) letra; 45. artikulua eta 46.1 artikulutik 46.3 artikulurakoa; 69.3 artikulua; 71.1.f) artikulua; 76. artikulua; 83. artikulua; 95. artikulua; 104. artikulua; 105. artikulua; 107. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoa; 116. artikulua 3. apartatuko bigarren paragrafoa eta 5. apartatua; 118.4 artikulua; 119. artikulua 2. apartatuaren a) eta c) letrak; 120.1 artikulua b) letra; 121. artikulua 1. apartatua; 122. artikulua 5., 6. eta 7. apartatuak; 123. eta 124. artikulua; 149. artikulua 4. apartatuaren laugarren paragrafoa; 153. artikulua; 154. artikulua 2. apartatua; 191.2 artikulua; 192. artikulua 2 eta 3. apartatuak; 193. artikulua 2. apartatutik 5. apartaturakoa; 194. artikulua; 212. artikulua 2. eta 5. apartatuak; 215. artikulua 8. apartatua; 228. artikulua; 229. artikulua 1. 2. eta 5. apartatuak, 6. apartatuaren bigarren paragrafoa eta 7. eta 8. apartatuak; 230. artikulua; 233. artikulua 1.e) eta 4. apartatuak; 234. artikulua; 235. artikulua; 236. artikulua; 237. artikulua; 238.2 artikulua; 240. artikulua; 241. artikulua 1. apartatua; 242. artikulua 4. apartatua, lehenengo paragrafo b) letraren aurreikuspena eta bigarren paragrafoa izan ezik, eta 5. apartatua; 243. artikulua; 253. artikulua; 256. artikulua; 260. artikulua; 263. artikulua 2. eta 3. apartatuak; 266. artikulua; 267. artikulua 5. apartatua; 268. artikulua; 272.6 artikulua; 273.2 artikulua; 294.b) artikulua; 298. artikulua; 300. artikulua 2. eta 3. apartatuak; 302. artikulua; 303. artikulua; 304. artikulua; 305. artikulua; 307 artikulua 2. eta 3. apartatuak; 313. artikulua 2. eta 3. apartatuak; 314. artikulua 3., 4., 5. eta 6. apartatuak; 315. artikulua; 323. artikulua; 324. artikulua; 325. artikulua; 326. eta 327. artikulua; 328. artikulua, 4. apartatua izan ezik; 335.4 artikulua; 347. artikulua 1., 2. eta 7. apartatuak; lehen xedapen gehigarriaren 1. apartatuaren a) letra eta f) letraren bigarren paragrafoa; laugarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuaren hirugarren paragrafoa; hamalagarren xedapen gehigarria; hemeretzigarren xedapen gehigarria; hogeigarren xedapen gehigarria; hogeita laugarren xedapen gehigarria; hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria; hogeita hamargarren xedapen gehigarria; lehenengo xedapen iragankorra; azken xedapenetako zazpigarrena, eta azken xedapenetako zortzigarrena.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondore beretarako, gutxienez hartuko dira 118.1 artikulua kontratu txikietarako ezartzen diren baldintzak, eta gehienekotzat hartuko dira, ordea, honako ehuneko, zenbateko edo epe hauek:

106.2 artikulua aipatutako 100eko 3ko ehunekoak.

107. artikulua 1 eta 2 apartatuetan aipatutako 100eko 5eko ehunekoak.

131.4 artikulua aipatutako zenbatekoak.

210. artikulua 2. eta 4. apartatuetan ezarritako hilabete bateko epeak.»

Azken xedapenetako bigarrena. *13/2010 Errege Lege Dekretua aldatzea, abenduaren 3koa, inbertsioa sustatu eta enplegua sortzeko zerga, lan eta liberazio arloko jarduketei buruzkoa.*

Abenduaren 3ko 13/2010 Errege Lege Dekretuan (inbertsioa sustatu eta enplegua sortzeko zerga, lan eta liberalizazio arloko jarduketei buruzkoa), aldatu egiten da 8. artikuluko a) letrako lehenengo paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«a) Haren kontratazioa Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko Legearen bidez edo Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bidez arautuko da, oinarri harturik lege horien bosgarren xedapen gehigarrian eta zortzigarren xedapen gehigarrian hurrenez hurren ezarritakoa.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bategina aldatzea, irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duena.*

Hona nola aldatzen den Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bategina, irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua:

Bat. 45.I.B) artikuluan 27. apartatua gehitzen da, honela idatzita:

«27. Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginak –azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaz onartuak– arautzen dituen pentsio-funtsak eratzea, desegitea eta handituz edo txikituz aldatzea.»

Bi. Indargabetu egiten da 45.I.C) artikulua 13. zenbakia.

Azken xedapenetako laugarrena. *35/2006 Legea aldatzea, azaroaren 28koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena eta partez aldatzen dituen sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga.*

Aldatu egiten da azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 17. artikulua 2. apartatuko a) letrako 3. zenbakia –lege horrek pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen du eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak partzialki aldatzen ditu–, eta honela geratzen da idatzita:

«3.a Pentsio-planetako onuradunek jasotako prestazioak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauak (enplegu pentsio-funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzkoak) arautzen dituen pentsio-planetatik jasotakoak.

Halaber, Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginak –azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak– 8.8 artikuluan aurreikusten dituen kasuetan jasotako diru kopuruek pentsio-planetako prestazioek bezalako tratamendu fiskala izango dute.»

Azken xedapenetako bosgarrena. *1060/2015 Errege Dekretua aldatzea, azaroaren 20koa, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena.*

Azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretua behean azaltzen den bezala aldatzen da.

Zortzigarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Zortzigarren xedapen gehigarria. *Aseguru- eta berraseguru-banatzailen erregistro administratiboa.*

1. Erregistro administratiboan, aseguru-bitartekariak, aseguru osagarrien bitartekariak –salbuesteko baldintzak betetzen dituztenek izan ezik– eta berraseguru-artekariak inskribatuta eduki beharko dituzte izen-abizenak edo sozietate-izena, aseguru-bitartekari edo aseguru osagarrien bitartekari izaera, eta, kasua bada, sexua, nazionalitatea, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia edo identifikazio fiskalekoa, edo pasaportearena zein agiri baliokidearena atzeritarren kasuan, egoitza profesional edo sozialaren helbidea, jarduera-eremua, inskripzio-zenbakia, euren xedea dela-eta erregistro administratiboan azaldu behar diren estatutu-aldaketak, Interneteko domeinua edo helbidea, partaidetza handiak, ekonomia-intereseko taldeak eta aldi baterako enpresa-elkarteak, inskripzioaren ezereztea eta banaketan jarduteko desgaiuntza, baita ezarritako zehapenak ere, kargu-hartze pribatua izan ezik. Europar Batasuneko estatuetak bakoitzean zerbitzuak emateko askatasunarekin edo kokatzeko eskubidearekin jarduteko egintzak ere inskribatu egingo dira.

Aseguru-agenteen kasuan, agentea eskusiboa edo lotua dela azalduko da, eta, hala denean, aseguru-entitateen talde bateko agentea dela.

Horrez gain, pertsona juridiko diren aseguru-banatzailen kasuan, administrazio-karguak dituztenei, banaketa-jardueraren ardura duen pertsonari edo banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideei dagokienez, datu hauek inskribatuko dira: izendapenaren data; karguaren etetea, errebokatzea edo uztea, arrazoia edozein dela; desgaiuntza; eta, halakorik bada, ezarritako zehapenak, kargu-hartze pribatua izan ezik. Hauek jarriko dira: izen-abizenak edo sozietatearen izena, eta, kasua bada, sexua, helbidea, nazionalitatea, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia edo identifikazio fiskalekoa edo pasaportearena zein agiri baliokidearena atzeritarren kasuan. Karguduna pertsona juridikoa izanez gero, hark izendatutako ordezkarien datuak inskribatuko dira.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, datu hauek ere inskribatuko dira:

a) Aseguru-bitartekariari dagokienez, bezeroen arretarako departamentu edo zerbitzuaren titularraren izendapena, edo bezeroen arretarako departamentu edo zerbitzuko eginkizunetan aritzeko kanpoan kontratatutako pertsona edo entitatearena, eta, hala dagokionean, bezeroen defendatzailearen izendapena.

b) Aseguru- eta berraseguru-artekariari dagokienez, jarduerarik gabeko egoera.

c) Aseguru-agente eskusiboari edo lotuari dagokienez, aseguru-agentziako kontratuak zeintzuk aseguru-entitatearekin dauzkaten sinatuta azalduko da; eta, aseguru-agente eskusiboen kasuan, beste aseguru-entitate batekin aseguru-bitartekaritzan jarduteko eskuratu dituzten baimenak azalduko dira, eta adieraziko da zer aseguru-produkturen bitartekari izan daitezkeen entitate horrentzat; halaber, baimenaren hasiera- eta amaiera-datak jarriko dira.

d) Banku-aseguruen operadoreen kasuan, inskribatuko da, gainera, kreditu-entitateen edo kredituko finantza-establezimenduen zer sareren bitartez banatzen dituen aseguruak banka-aseguruen operadoreak.

3. Erregistro administratiboko inskripzioa Administrazioaren erabakien ondorio denean, idazpena ofizios egingo da, kasuan kasuko administrazio-egintzan oinarrituta. Administrazioaren egintzen ondorio denean, berriz, interesdunak edo sozietatearen legezko ordezkariak sinatutako idazkia aurkeztu beharko da, erabakiak hartu eta hamabost eguneko epean; frogagiri sinesgarriak erantsiko dira, edo, kasua bada, eskritura publikoa, Merkataritza Erregistroan inskribatzen denetik hilabete igaro aurretik.

4. Ezarritako zehapenei buruzko inskripzioak ofizioz edo interesdunak eskaturik ezereztuko dira.

Zehapenaren kontra jarritako errekurtsioa ebazpen edo epai irmo baten bidez baisten bada, bidezkoa izango da inskripzioa ofizioz ezerezte.

Interesdunak eskubidea izango du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eskatzeko ezereztu dadila jarritako zehapenaren inskripzioa, baldin eta zehapena irmo bihurtu zen egunetik arau-hauste gehiago egin ez badu bi urtean, arau-haustea arina izan bada; bost urtean, astuna izan bada, edo zortzi urtean, oso astuna izan bada.

Zehapen-espeditente administratiboren bat abian jartzeak eten egingo ditu aurreko paragrafoan ezarritako epeak. Prozeduraren amaieran beste zehapen bat ezartzen bada, zehapen horri aplikatu beharreko ezerezte-epea amaitutakoan ezereztuko dira aurreko zehapenaren idatzoharrak; baina aurreko zehapenaren ezerezte-epeak luzeago irauten badu, bera amaitu arte itxaron beharko da.

Inskripzioa ezereztuz gero, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ezingo ditu aintzat hartu inskripzioa ezereztu zaien zehapenak zintzotasun komertzial eta profesionalaren baldintzak baloratzean.»

Azken xedapenetako seigarrena. *Zenbait erregelamendu-xedapenen mailaren babesa.*

Errege lege-dekretu honek erregelamendu-arauetan egiten dituen aldaketak aldatu ahal izango dira haiek dauden arauaren erregelamendu-maila bereko arauen bitartez.

Azken xedapenetako zazpigarrena *Eskumen-titulua eta legeriaren izaera.*

1. Errege lege-dekretu honen lehen liburuan ezarritakoa Estatuak administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarritzako legeriaren arloan duen eskumenaren babesean xedatzen da, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua indarrez, eta, horrenbestez, administrazio publiko guztiei aplikatu behar zaie, bai eta haien menpeko erakunde eta entitateei ere. Hala ere, honako artikulua hauek ez dira oinarritzakoak izango: 31.4 artikulua; 33.4 artikulua; 61. artikulua 9.d) eta 10. apartatuak; 65.1 artikulua laugarren paragrafoa; 73. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoa, 2. apartatua eta 4. apartatua; 107.8 artikulua; hamargarren xedapen gehigarria; azken xedapenetako bigarrena, eta azken xedapenetako hamalagarrena.

Errege lege-dekretu honen lehen liburua, gainera, Estatuak merkataritzako legeriaren eta legeria zibilaren arloetan duen eskumenaren babesean ematen da, Konstituzioaren 149.1 artikulua 6. eta 8. zenbakietan ezarritakoaren indarrez.

2. Errege lege-dekretu honen bigarren liburua, hamabigarrenetik hamalagarrenera bitarteko xedapen gehigarriak, bigarren, hirugarren eta bosgarren xedapen iragankorrak eta azken xedapenetako bosgarrena Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 6., 11. eta 13. zenbakien babesean ematen dira, horiek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen baitiote merkataritzako legeriaren arloan, aseguruak antolatzeko oinarrien arloan eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloan, hurrenez hurren; bigarren liburuko manu edo apartatu hauek salbuesten dira:

a) I. tituluko 205. artikulua, zeina ez baita oinarritzakoa izango, salbu eta aseguru-bitartekarien elkargoen izaerari eta izenari, elkargoetan borondatez sartzeari eta elkargoen Kontseilu Nagusia izateari dagokienez; administrazio publikoaren araubide juridikoaren oinarritzat jotzen da, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babesean.

b) I. tituluko 133.3 artikulua bigarren paragrafoa, 149. artikulua 4. eta 5. apartatuak, 152. artikulua 2. eta 3. apartatuak, 157. artikulua 2. eta 3. apartatuak, 162. artikulua 3. eta 5. apartatuak, 165.2 artikulua eta laugarren xedapen iragankorra. Horiek ez dira oinarritzako legeria izango eta Estatuako Administrazio Orokorraren esparruan bakarrik aplikatuko dira.

Autonomia-erkidegoek aseguru eta berraseguru pribatuen banaketaren arloan I. tituluko 132.2 artikulua aipatzen diren eskumenak dituzten kasuetan, Estatuako

Administrazio Orokorreko Administrazioako organoei egiten zaizkien aipamenak autonomia-erkidegoko organo eskudunari egindako aipamentzat hartuko dira.

c) Errege lege-dekretu honen bigarren liburuko II. titulua, hamabosgarren xedapen gehigarria eta seigarren xedapen iragankorra Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 11. eta 13. zenbakien babesean ematen dira, salbu eta II. tituluko 212. artikulua hogeita zortzigarren apartatua; hori Konstituzioaren 149.1.6 artikulua babesean ematen da, zeinak Estatuari esleitzen baitio merkataritzaren arloko legegintza.

d) Errege lege-dekretu honen hamaikagarren xedapen gehigarria eta azken xedapenetako hirugarrena eta laugarrena Espainiako Konstituzioak 149.1.14 artikuluan xedatzen duenaren babesean ematen dira, artikulua horrek Estatuari esleitzen baitio Ogasun Nagusiaren gaineko eskumen eskusiboa.

3. Errege lege-dekretu honen hirugarren liburua Espainiako Konstituzioaren 149.1.14 artikuluan ezarritakoaren babesean ematen da, artikulua horrek Estatuari esleitzen baitizkio Ogasun Nagusiaren gaineko eskumenak.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Nafarroako Foru Komunitatea.*

Erkidegoaren foru-araubidea dela eta, Nafarroako Foru Komunitateari errege lege-dekretu honetan xedatutakoa aplikatuko bazaio ere, ez da alde batera utziko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritakoa.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Euskal Autonomia Erkidegoa.*

Erkidegoaren foru-araubidea dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoari errege lege-dekretu honetan xedatutakoa aplikatuko bazaio ere, ez da alde batera utziko Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legean ezarritakoa.

Azken xedapenetako hamargarrena. *Legeria osagarria.*

Errege lege-dekretu honen bigarren liburua aurreikusten ez dituen alderdietan, uztailaren 14ko 20/2015 Legea aplikatuko da osagarri gisa.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.*

1. Errege lege-dekretu honek Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzentaraua, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan jarduten duten entitateen kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, kontratuok entitate kontratatzaileek egiten dituztenerako; baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentaraua ere, emakida-kontratuaren adjudikazioari buruzkoa, kontratuok entitate kontratatzaileek egiten dituztenerako errege lege-dekretu honen 9. artikulutik 14.era jasotako jardueretako bati edo batzuei buruz.

2. Errege lege-dekretu honen bidez Espainiako zuzenbidean txertatzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urtarrilaren 20ko 2016/97 (EB) Zuzentaraua, aseguruak banatzeari buruzkoa; eta honako hauen transposizio partziala egiten da: 2016/2341 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko abenduaren 14koa, enpleguko pentsio-funtsen jardueri eta haiek gainbegiratzeari buruzkoa, eta 2017/828 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko maiatzaren 17koa, 2007/36/EE Zuzentaraua aldatzen duena akziodunen epe luzerako inplikazioa sustatzeko.

3. Indargabetuta dago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentaraua, enpleguko pentsio-funtsen jardueri eta haiek gainbegiratzeari buruzkoa, eta lege- eta erregelamendu-xedapen indardunetan hari egiten

zaizkion aipamenak, hala, goian aipatutako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauari egindako aipamentzat hartuko dira.

4. Errege lege-dekretu honen bigarren liburuan Europar Batasuneko estatuei, horietan egoitza duten aseguru- eta berraseguru-banatzaleei edo Espainiako aseguru eta berraseguru-banatzaleek horietan egiten dituzten jardueri buruz ematen dieten xedapenak honako hauei ere aplikatuko zaizkie: Europako Esparruko Ekonomikoaren gaineko Akordioko partaide izanik Europar Batasuneko kide ez diren estatuei, horietan egoitza duten aseguru- eta berraseguru-banatzaleei eta Espainiako aseguru- eta aseguru-banatzaleek estatu horietan duten jarduerari.

5. Errege lege-dekretu honen bidez, arau hauek txertatzen dira Espainiako zuzenbidean: 2018/1910 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2018ko abenduaren 4koa, zeinak 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen baitu balio erantsiaren gaineko zergaren arau batzuk, Batasuneko estatuaren arteko trukeei buruzkoak, harmonizatzeko eta errazteko; eta 2019/475 (EB) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2019ko otsailaren 18koa, zeinak 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2008/118/EE Zuzentaraua aldatzen baititu Italiako Campione d'Italia udalerrria eta Lujanoko aintzirako Italiako urak Batasuneko aduana-lurraldean eta 2008/118/EE Zuzentaruaren aplikazioaren lurralde-esparruan sartzeari dagokionez.

6. Errege lege-dekretu honen bidez, Kontseiluaren 2017ko urriaren 10eko 2017/1852 (EB) Zuzentaraua txertatzen da Espainiako zuzenbidean, Europar Batasunaren barruko zerga-azuiak konpontzeko mekanismoei buruzkoa, auziok adiskidetasun-prozeduren bidez konpontzeko esparrua harmonizatzen duena eta segurtasun juridikoa sendotzen duena.

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Epealdiak eguneratzea eta Batasunaren zuzentaruaren eranskinen ondoriozko beste aldaketa batzuk.*

Ogasuneko ministroari baimena ematen zaio errege lege-dekretu honetan epealdiei buruz aurreikusten dena aldatu ahal izateko, Europar Batasunak ezartzen dituen epeei egokitzeko. Horretarako, aurretik txostena egin beharko du Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak.

Era berean, Ogasuneko ministroari baimena ematen zaio kontratazio publikoari buruzko Batasuneko zuzentaruaren eranskinen ondorioz egin beharreko aldaketak egin ditzan errege lege-dekretu honetan.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Kontratuaren adjudikazioa jakinarazteko ereduak.*

Ogasuneko ministroari baimena ematen zaio, batetik, ereduak ezar ditzan 125. artikulua aipatzen duen Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari kontratuen adjudikazioa jakinarazteko, eta, bestetik, jakinarazpen horietarako ezartzen diren epeak alda ditzan. Aurretik Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak txostena egin beharko du eta autonomia-erkidegoei entzun beharko zaie.

Azken xedapenetako hamalagarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

1. Gobernuari, Ogasuneko ministroari eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroari ahalmena ematen zaie, beren eskumenen esparruan, errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

2. Zehazki, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak ahalmena izango du (Aseguruaren eta Pentsio Funtzen zuzendari nagusiaren proposamenari jarraituz eta Aseguruetako eta Pentsio Funtsetako Aholku Batzordeari entzun ondoren) behar diren aldaketak egiteko erregistro-liburuaren araudian eta urteko kontabilitateko informazio estatistikoaren ereduetan, helburua ekainaren 11ko 764/2010 Errege Dekretua egokitzea izanik; dekretu horrek Aseguru eta Berraseguru Pribatuetako Bitartekotzari buruzko

uztailaren 17ko 26/2006 Legea garatzen du estatistika eta kontabilitateko eta negozioko informazioaren eta lehia profesionalaren arloetan.

Azken xedapenetako hamabosgarrena. *Aseguru-banaketan aritzen diren aseguru-entitateen langileen gaitasunen eta lanbide-ezagutzen inguruko gutxieneko baldintzak betetzea.*

Errege lege-dekretu honen bigarren liburuko I. tituluko 139.2 artikulua prestakuntzaren arloan bera garatuko duen araudia onartzen denean jarriko da indarrean. Garapen-araudi hori onartu arte, aseguru- eta berraseguru-entitateek bermatu behar dute banaketan zuzenean jarduten duten langileek eta banaketa-jardueraren ardura duen pertsonak edo, kasua bada, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen erdiek gutxienez betetzen dituztela gaitasunen eta lanbide-ezagutzen inguruko gutxieneko baldintzak, errege lege-dekretu honen XII. eranskinean ezarritakoak.

Azken xedapenetako hamaseigarrena. *Indarrean jartzea.*

1. Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2. Aurrekoa gorabehera, lehen liburua, lehen, bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren, seigarren, zazpigarren, zortzigarren, bederatzigarren, hamargarren, hamaseigarren eta hamazazpigarren xedapen gehigarriak, lehen xedapen iragankorra eta xedapen indargabetzaile bakarraren lehen apartatua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitau egunera jarriko dira indarrean, salbu eta 126. artikulua (argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean) eta 72.2 artikulua (berak aipatzen duen erregelamenduarekin batera jarriko da indarrean).

3. Honako hauek 2020ko martxoaren 1ean jarriko dira indarrean: 214. artikulua Bi, Hiru, Lau, Bost, Sei, Zazpi, Zortzi eta Bederatzi apartatuak, 216. artikulua Bi, Hiru, Lau eta Bost apartatuak, eta zazpigarren xedapen iragankorra.

Madriren, 2020ko otsailaren 4an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

I. ERANSKINA

1.1.a) eta 76.1 artikuluek aipatzen dituzten zerbitzuak

CPV kodea	Deskribapena
75200000-8; 75231200-6; 75231240-8; 79611000-0; 79622000-0 [Etxeko langileez hornitzeko zerbitzuak], 79624000-4 [Erizaintzako langileez hornitzeko zerbitzuak] eta 79625000-1 [Medikuntzako langileez hornitzeko zerbitzuak], 85000000-9tik 85323000-9ra; 98133100-5, 98133000-4; 98200000-5; 98500000-8 [Enpleguak dituzten etxe pribatuak] eta 98513000-2tik 98514000-9ra [Etxerako eskulan-zerbitzuak, Etxerako agentzia-langileen zerbitzuak, Etxerako bulego-langileen zerbitzuak, Etxerako bitarte baterako langileak, Etxeko lanetan laguntzeko zerbitzuak eta Etxeko zerbitzuak].	Gizarte- eta osasun-zerbitzuak eta haiei lotutakoak.
85321000-5 eta 85322000-2, 75000000-6 [Administrazio publikoko zerbitzuak, defentsa eta gizarte-segurantzako zerbitzuak], 75121000-0, 75122000-7, 75124000-1; 79995000-5etik 79995200-7ra; 80000000-4tik [Hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak] 80660000-8ra; 92000000-1etik 92342200-2ra; 92360000-2tik 92700000-8ra; 79950000-8 [Erakusketak, azokak eta biltzarrak antolatzen dituzten zerbitzuak], 79951000-5 [Mintegiak antolatzen dituzten zerbitzuak], 79952000-2 [Ekitaldietako zerbitzuak], 79952100-3 [Kultur ekitaldiak antolatzen dituzten zerbitzuak], 79953000-9 [Jaialdiak antolatzen dituzten zerbitzuak], 79954000-6 [Jaiak antolatzen dituzten zerbitzuak], 79955000-3 [Moda-erakustaldiak antolatzen dituzten zerbitzuak], 79956000-0 [Azokak eta erakusketak antolatzen dituzten zerbitzuak].	Gizarte, hezkuntza, osasun eta kultura arloko administrazio-zerbitzuak.
75300000-9.	Gizarte-segurantzako zerbitzuak, nahitaezko afiliazioak.
75310000-2, 75311000-9, 75312000-6, 75313000-3, 75313100-4, 75314000-0, 75320000-5, 75330000-8, 75340000-1.	Gizarte-prestazioen zerbitzuak.
98000000-3, 98120000-0; 98132000-7; 98133110-8 eta 98130000-3.	Beste zerbitzu komunitario, sozial eta pertsonal batzuk, sindikatuek, erakunde politikoek, gazteen elkarteek emandako zerbitzuak eta elkarteen beste zerbitzu batzuk barne.
98131000-0.	Erligio-zerbitzuak
55100000-1etik 55410000-7ra, 55521000-8tik 55521200-0ra [55521000-8 Etxerako janari-hornidurako zerbitzuak, 55521100-9 Janariak etxera eramateko zerbitzuak, 55521200-0 Janariak emateko zerbitzuak], 55510000-8 [Kantina-zerbitzuak], 55511000-5 [Kantina-zerbitzuak eta bezeria mugatuko bestelako kafetegi-zerbitzuak], 55512000-2 [Kantina kudeatzeko zerbitzuak], 55523100-3 [Eskolentzako janari-zerbitzuak], 55520000-1 [Kanpotik janariz hornitzeko zerbitzuak], 55522000-5 [Garraio enpresak janariz hornitzeko zerbitzuak], 55523000-2 [Bestelako enpresa eta erakundeak janariz hornitzeko zerbitzuak], 55524000-9 [Eskolak janariz hornitzeko zerbitzuak].	Ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak.
79100000-5etik 79140000-7ra, 75231100-5.	Zerbitzu juridikoak, ez badaude baztertuta 20. artikularen c) letraren indarrez.
75100000-7tik 75120000-3ra; 75123000-4. 75125000-8tik 75131000-3ra.	Beste administrazio-zerbitzu batzuk eta gobernu-zerbitzuak.
75200000-8tik 75231000-4ra.	Gizartearentzako zerbitzuak ematea.
75231210-9tik 75231230-5era; 75240000-0tik 75252000-7ra; 794300000-7; 98113100-9.	Espetxeekin lotutako zerbitzuak, segurtasun publikoko zerbitzuak eta salbamendu-zerbitzuak, 20.h) artikularen arabera baztertuta ez badaude.
79700000-1etik 79721000-4ra [Ikerketa- eta segurtasun-zerbitzuak, Segurtasun-zerbitzuak, Alarma-sistemen zainketa-zerbitzuak, Zainketa-zerbitzuak, Lokalizazio-sistemetan lotutako zerbitzuak, lheslariak bilatzeko zerbitzuak, Patruila-zerbitzuak, Identifikazio-ikurrak emateko zerbitzuak, Ikerketa-zerbitzuak eta Detektibe-agentzien zerbitzuak], 79722000-1 [Grafologia-zerbitzuak], 79723000-8 [Hondakinak analizatzeko zerbitzuak].	Ikerketa- eta segurtasun-zerbitzuak.

CPV kodea	Deskribapena
98900000-2 [Lurraldez kanpoko erakunde eta entitateek emandako zerbitzuak] eta 98910000-5 [Lurraldez kanpoko erakundeen eta entitateen zerbitzu berariazkoak].	Nazioarteko zerbitzuak.
64000000-6 [Posta eta telekomunikazioetako zerbitzuak], 64100000-7 [Posta eta bidalketa azkarreko zerbitzuak], 64110000-0 [Posta-zerbitzuak], 64111000-7 [Egunkari eta aldizkariekin lotutako posta-zerbitzuak], 64112000-4 [Gutunekin lotutako posta-zerbitzuak], 64113000-1 [Fardelekin lotutako posta-zerbitzuak], 64114000-8 [Postako leihatilako zerbitzuak], 64115000-5 [Posta-kutxen alokairua], 64116000-2 [Posta-zerrendako zerbitzuak], 64122000-7 [Barne-postako zerbitzuak].	Posta-zerbitzuak.
50116510-9 [Pneumatikoak birkautxuztatzeko zerbitzuak], 71550000-8 [Errementaritza-zerbitzuak].	Askotariko zerbitzuak.

II. ERANSKINA

2.b) artikulua, obra-kontratuari buruzkoak, aipatzen dituen jarduerak

CPV eta NACE sailkapenen artean interpretazio ezberdinak diren kasuetan, CPV nomenklatura erabiliko da.

NACE 2. berrazterketa ⁽¹⁾					
F sekzioa			Eraikuntza		CPV kodea
Saila	Taldea	Mota	Deskribapena	Oharrak	
45			Eraikuntza.	Sail honek honako hauek hartzen ditu barnean: eraikuntza berriak, zaharberritze-lanak eta konponketa arruntak.	45000000
	45.1		Obrak prestatzea.		45100000
		45.11	Eraikinak eraistea; lur-mugimenduak.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – eraikinak eta bestelako egiturak eraistea – obra-hondakinak garbitzea – lur-mugimenduetako lanak: induskatzea, obra-kokalekuak betetzea eta berdintzea, zangak induskatzea, harkaitzak kentzea, leherketak, etab. – meatze-ustiapenak prestatzea: – lur azpiko lanak, meategiko sarbidetik mineral-hondakinak kentzea eta meategiak prestatzeko beste jarduera batzuk. <p>Mota honek honako hauek ere hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – obra-kokalekuak drainatzea – nekazaritza- eta baso-lurrak drainatzea. 	45110000
		45.12	Zulaketa eta zundaketak.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – eraikuntza-, geofisika- eta geologia-helburuak edo beste helburu batzuk dituzten zulaketak, zundaketak eta laginketak. <p>Honako hauek ez dira mota honetan sartzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> – petrolio eta gas naturala ekoizteko putzuak zulatzea (ikus 11.20) – putzu hidraulikoak zulatzea (ikus 45.25) – meategietako putzuak zulatzea (ikus 45.25) – petrolioko eta gas naturaleko hobien prospekzioa eta ikerketa geofisiko, geologiko edo sismikoak (ikus 74.20). 	45120000
	45.2		Higiezin eta ingeniari-tza zibileko obren eraikuntza orokorra. Ingeniari-tza zibila.		45200000

NACE 2. berrazterketa ⁽¹⁾					
F sekzioa			Eraikuntza		CPV kodea
Saila	Taldea	Mota	Deskribapena	Oharrak	
		45.21	Eraikinak eta ingeniartza zibileko obra bereziak eraikitzea (zubiak, tunelak, eta abar).	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – era guztietako eraikinak eraikitzea, ingeniartza zibileko obrak eraikitzea: – zubiak (goratutako errepideetakoak barne), biaduktuak, tunelak eta lur azpiko pasabideak; – energia-, komunikazio- eta eroanbide-sareak, distantzia luzekoak; – hirietako hoditeria, energia-sareak eta komunikazio-sareak jartzea; – hiri-obra atxikiak; – eraikuntza aurrefabrikatuak in situ muntatzea. <p>Honako hauek ez dira mota honetan sartzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> – gasa eta petrolio ateratzearekin zerikusia duten zerbitzuak (ikus 11.20); – norberak fabrikatutako piezak (hormigoizkoak ez direnak) erabilia aurrefabrikatutako eraikin osoak muntatzea (ikus 20., 26. eta 28. sailak); – estadioetako, igerilekuetako, gimnasioetako, tenis-pistetako, golf-zelaietako eta beste kirol-instalazio batzuetako ekipamenduak egitea, haien eraikinak salbu (ikus 45.23); – eraikinetan eta obretan instalazioak jartzea (ikus 45.3); – eraikinen eta obren akabera (ikus 45.4); – ingeniartza, aholkularitza eta arkitekturako jarduerak. (ikus 74.20); – eraikuntza-obren zuzendaritza (ikus 74.20). 	45210000 Hauek izan ezik: 45213316 45220000 45231000 45232000
		45.22	Estalkiak eta itxidura-egiturak egitea.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – teilatuak eraikitzea, – teilatuak estaltzea, – eraikinak eta balkoiak iragazgaitzea. 	45261000
		45.23	Autobideak, errepideak, lurreratze-eremuak, trenbideak eta kiroldegiak egitea.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – autobideak, kaleak, errepideak eta ibilgailuak zein oinezkoak ibiltzeko beste bide batzuk egitea, – trenbideak egitea, – lurreratzeko pistak eraikitzea, – estadioetako, igerilekuetako, gimnasioetako, tenis-pistetako, golf-zelaietako eta bestelako kirol-instalazioetako ekipamenduak egitea, haien eraikinak salbu, – errepideetako eta aparkalekuetako seinaleak pintatzea. <p>Honako hauek ez dira mota honetan sartzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> – aurretik egin beharreko lur-mugimendua (ikus 45.11). 	45212212 eta DA03 45230000 Hauek izan ezik: 45231000 45232000 45234115
		45.24	Obra hidraulikoak.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – hauek eraikitzea: – bide nabigagarriak, portu- eta ibai-instalazioak, kirol-portuak, esklusak, eta abar, – presak eta dikeak, – dragatzeak, – lur-azpiko obrak. 	45240000

NACE 2. berrazterketa ⁽¹⁾					
F sekzioa			Eraikuntza		CPV kodea
Saila	Taldea	Mota	Deskribapena	Oharrak	
		45.25	Beste eraikuntza-lan espezializatu batzuk.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – egitura mota desberdinek duten alderdi erkide batean espezializatutako eraikuntza-jarduerak, gaitasun edo material espezifikoak behar dituztenak, – zimendatze-lanak, piloteak sartzea barne, – putzu hidraulikoak egin eta zulatzea, meategietako putzuak induskatzea, – altzairuzko piezak muntatzea, norberak eginikoak ez direnean, – altzairua kurbatzea, – adreiluak eta harria jartzea, – aldamiok eta lanerako plataformak muntatu eta desmuntatzea, horiek alokatzea barne, – industria-tximiniak eta -labeak muntatzea. <p>Honako hauek ez dira mota honetan sartzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> – aldamiok alokatzea, muntaketarik eta desmuntaketarik gabe (ikus 71.32). 	45250000 45262000
	45.3		Eraikinetan eta obretan instalazioak jartzea.		45300000
		45.31	Instalazio elektrikoa.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan honako hauek instalatzea: – kableak eta material elektrikoa, – telekomunikazio-sistemak, – berokuntza elektrikorako instalazioak, – etxebizitzetako antenak, – suteen kontrako alarmak, – lapurretatik babesteko alarma-sistemak, – igogailuak eta eskailera mekanikoak, – tximistorratzak, eta abar. 	45213316 45310000 Hauek izan ezik: 45316000
		45.32	Isolamendu-lanak.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan isolamendu termikoa, akustikoa edo bibrazioak moteltzekoa instalatzea. <p>Honako hauek ez dira mota honetan sartzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> – eraikinak eta balkoiak iragazgaitzea (ikus 45.22). 	45320000
		45.33	Iturgintza.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan honako hauek instalatzea: – iturgintzako aparatuak eta sanitarioak, – gas-aparatuak, – berotzeko, aireztatzeko, hozteko edo aire girotuko aparatuak eta eroanbideak, – su-itxalgailu automatikoak instalatzea. <p>Honako hauek ez dira mota honetan sartzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> – berokuntza elektrikoko instalazioak jartzea eta konpontzea (ikus 45.31). 	45330000

NACE 2. berrazterketa ⁽¹⁾					
F sekzioa			Eraikuntza		CPV kodea
Saila	Taldea	Mota	Deskribapena	Oharrak	
		45.34	Eraikin eta obretako beste instalazio batzuk.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – errepideak, portuak eta aireportuak argitzeko eta seinalezatzeko sistemak instalatzea, – eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan beste inon sailkatuta ez dauden aparatuak eta gailuak instalatzea.	45234115 45316000 45340000
	45.4		Eraikinak eta obrak amaitzea.		45400000
		45.41	Entokatzea.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan igeltsua eta itzukua –barnekoa zein kanpokoak– aplikatzea, dagozkien zerrendako materialak barne.	45410000
		45.42	Zurgintzako instalazioak.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – atea, leihoak eta markoak, sukalde hornituak, eskaierak, laneko altzariak eta antzekoak, zurez edo beste material batzuez eginak, instalatzea, baldin eta norberaren ekoizpenekoak ez badira, – barneko akaberak; esate baterako: sabaiak, hormetako zurezko estalkiak, trenkada mugikorak, eta abar. Honako hauek ez dira mota honetan sartzen: – parketez eta beste zur batzuez eginiko zorueterako estaldurak (ikus 45.43).	45420000
		45.43	Lur eta hormen estaldura.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan hauek jartzea: – zeramikazko, hormigoizko edo harri landuzko estaldura horma eta zorueterako, – parketez eta beste zur batzuez eginiko estaldurak zorueterako eta moketazko eta linoleozko estaldurak zorueterako, – kautxua eta material plastikoak barne, – terrazozko, marmolezko, granitozko edo arbelezko estaldurak hormetarako eta zorueterako, – paper margotuak.	45430000
		45.44	Pintura eta beirak jartzea.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – eraikinak barrutik eta kanpotik pintatzea, – ingeniaritza zibileko obrak pintatzea, – kristalak, ispiluak eta abar jartzea. Honako hauek ez dira mota honetan sartzen: – leihoak jartzea (ikus 45.42).	45440000
		45.45	Eraikinen eta obren beste akabera batzuk.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – igerileku partikularrak instalatzea, – eraikinetako kanpoko aldea garbitzea lurrunez, harea-txorrotaz edo antzeko metodoak erabiliz, – eraikinen akaberako beste obra batzuk, beste inon aipatu ez direnak. Honako hauek ez dira mota honetan sartzen: – eraikinen eta obren barruko aldeak garbitzea (ikus 74.70).	45212212 eta DA04 45450000

NACE 2. berrazterketa ⁽¹⁾					
F sekzioa			Eraikuntza		CPV kodea
Saila	Taldea	Mota	Deskribapena	Oharrak	
	45.5		Eraikina egiteko edo botatzeko ekipoa alokatzea, langile eta guzti.		45500000
		45.50	Eraikina egiteko edo botatzeko ekipoa alokatzea, langile eta guzti.	Honako hauek ez dira mota honetan sartzen: – eraikina egiteko edo botatzeko ekipamendua alokatzea, langilerik gabe (ikus 71.32).	45500000

⁽¹⁾ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1893/2006 (EEE) Erregelamendua, 2006ko abenduaren 20koa, jarduera ekonomikoen Europako sailkapena ezartzen duena.

III. ERANSKINA

Iragarkietan sailkapen-sistemari buruz agertu beharreko informazioa

A atala. Sailkapen-sistemari buruzko iragarkiak, B atalean azaltzen den kasuan izan ezik

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Jarduera nagusia.

3. Hala dagokionean, aipamen bat, kontratua tailer babestuei mugatuta dagoen edo hura egikaritzea enplegua babesteko programen esparrura mugatuta dagoen dioena.

4. Sailkapen-sistemaren xedea (sistemaren bitartez kontratatu behar diren produktuen, zerbitzuen edo obren edo horien kategorien deskribapena - CPV kodeak). Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-kontratuen kasuan; edo entregatzeko edo egikaritzeko kokaleku nagusiaren NUTS kodea, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan.

5. Enpresaburuek sistemaren araberako sailkapena lortzeko bete beharko dituzten baldintzak eta horiek egiaztatzeko metodoak. Baldintza eta egiaztapen-metodo horien deskribapena oso luzea bada eta oinarritzat hartutako dokumentuak enpresaburu interesdunen eskura badaude, nahikoa izango da baldintza eta metodo nagusien laburpena eta dokumentu horien aipamena egitea.

6. Sailkapen-sistemaren indarraldia eta hura berritzeko izapideak.

7. Iragarkiak lizitazio-deialdi gisa balio duelako aipamena.

8. Sailkapen-sistemari dagokion dokumentazioa eta informazio gehiago lortzeko helbidea (helbide hori 1. puntuan adierazitakoez bestelakoa bada).

9. Erreklamazio-prozedurarako eta, kasua bada, arbitraje-prozedurarako organo eskudunaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko informazio zehatza; edo, beharrezkoa bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

10. Ezagutzen baldin badira, kontratua adjudikatzeko erabiliko diren irizpideak, 66. artikuluan aurreikusitakoak. Ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den prezioaren arabera soilik erabakitzen denean izan ezik, ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den erabakitzeko irizpideak ere aipatuko dira, baita horien haztapena ere, edo, kasua bada, garrantziaren arabera hurrenkera, irizpideok baldintza-agirian azaltzen ez badira eta lizitatzeko edo negoziatzeko gonbidapenean ere agertzekoak ez badira.

11. Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena:

- Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak bide elektronikoz aurkeztea onartuko den;
- eskari elektronikoa erabiliko diren;

- c) fakturazio elektronikoa erabiliko den;
 - d) ordainketa elektronikoa onartuko den.
12. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

B atala. Sailkapen-sistemari buruzko iragarkiak, I. eranskineko zerbitzu-kontratuak direla-eta

1. Entitate kontratatzailearen izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), helbide elektronikoa eta Internetekoa.
2. Kasuan kasuko kontratuaren deskribapen laburra, horren barnean direla CPV kodeak.
3. Ezagutzen diren neurrian, honako hauek:
 - a) Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obren kasuan; edo entregatzeko edo egikaritzeko kokaleku nagusiaren NUTS kodea, horniduren eta zerbitzuen kasuan.
 - b) hornidura, obra edo zerbitzuak entregatzeko edo emateko egutegia eta kontratuaren iraupena;
 - c) parte hartzeko baldintzak, eta, zehazki, honako hauek:
 - Horrela denean, kontratu publikoa tailer babestuei mugatuta dagoen edo enplegu babestuko programen esparruan soilik egikaritu asmo den adieraztea;
 - horrela denean, legezko edo erregelamenduzko xedapenen edo xedapen administratiboen arabera zerbitzu-prestazioa lanbide jakin bati erreserbatzen zaion adieraztea;
 - d) aplikatuko den adjudikazio-prozeduraren ezaugarri nagusien deskribapen laburra.
4. Adierazi beharko da ezen kontraturako edo kontratueterako interesa duten operadore ekonomikoek interes hori jakinarazi beharko diotela entitate kontratatzaileari, eta zer egunetara arte onartuko diren interes-adierazpen horiek, eta zer helbidetara bidali beharko diren.
5. Sailkapen-sistemaren indarraldia eta hura berritzeko izapideak.

IV. ERANSKINA

Eskaintzak, parte hartzeko eskaerak, sailkapen-eskaerak edo plano eta proiektuak bide elektronikoz jasotzeko tresna eta gailuei lehiaketetan dagozkien baldintzak.

Lehiaketetan, eskaintzen, parte hartzeko eskaeren, sailkatzeko eskaeren eta plano eta proiektuen harrera elektronikoa egiteko tresna eta gailuek honako hauek bermatu beharko dituzte, gutxienez, baliabide tekniko eta prozedura egokien bitartez:

- a) Zehaztu ahal izatea eskaintzak, parte hartzeko eskaerak eta sailkapen-eskaerak zer ordu eta data zehaztetan jaso diren eta plano eta proiektuak zer ordu eta data zehaztetan bidali diren;
- b) behar adina bermatu ahal izatea baldintza hauek direla-eta igorritako datuetarako irispiderik inork ez duela izango ezarritako epeak iragan arte;
- c) baimena duten pertsonak bakarrik finkatu edo aldatu ahal izatea jasotako datuak irekitzeko egunak;
- d) sailkapen-prozesuaren, kontratazio-prozeduraren edo lehiaketaren fase guztietan, baimendutako pertsonak baizik ez izatea irispidea aurkeztutako datu guztietara edo haien zati batera;
- e) baimendutako pertsonak bakarrik eman ahal izatea irispidea transmititutako datuetara, eta soilik zehaztutako dataren ondoren egin ahal izatea hori;
- f) baldintza hauek aplikatuta jasotako eta irekitako datuak soilik haiek ezagutzeko baimena duten pertsonentzat egotea eskura;

g) baldin eta b) letratik f) letrara bitartekoetan aipatzen diren irispiderako debeku edo baldintzak hausten badira edo haien hausten saiateren bada, behar adina bermatzea arau-hausteak edo horietarako ahaleginak argi detektatu daitezkeela.

V. ERANSKINA

Eskaintza aurkezteko, elkarrizketan parte hartzeko edo negoziatzeko gonbidapenen edukia (gonbidapen horiek 63. artikuluan aurreikusten dira)

Eskaintza aurkezteko, elkarrizketan parte hartzeko edo negoziatzeko gonbidapenek, 63. artikuluan aurreikusiek, gutxienez honako hauek bildu beharko dituzte:

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna, eskaintzak bidaltzeko helbidea eta eskaintzak idatzi behar diren hizkuntza edo hizkuntzak.

Lehia-elkarrizketaren edo berrikuntzarako elkartearen bidez adjudikatzen diren kontratuetan, ordea, informazio hori ez da negoziatzeko gonbidapenean agertuko, eskaintza aurkezteko gonbidapenean baizik.

b) Lehia-elkarrizketaren kasuan, kontsulta hasteko ezarritako eguna eta helbidea eta erabili beharreko hizkuntza edo hizkuntzak.

c) Argitaratutako edozein lizitazio-iragarkiren aipamena.

d) Zer dokumentu erantsi behar diren, hala behar denean.

e) Kontratua adjudikatzeko irizpideak, sailkapen-sistemaren berri emateko iragarkian azaltzen ez bada eta iragarki hori lizitazio-deialdia egiteko erabiltzen bada.

f) Kontratua adjudikatzeko irizpideen haztapen erlatiboa, edo, bestela, irizpide horien garrantziaren araberrako hurrenkera, ez bada informazio hori agertzen deialdia egiteko iragarkian, sailkapen-sistemaren berri emateko iragarkian edo baldintza-agirian.

VI. ERANSKINA

Kontratazioen berri emateko aldizkako iragarkiek eta kontratatzailearen profileen argitaratzeari buruzko iragarkiek bildu behar duten informazioa

A atala. Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen berri emateko aldizkako iragarkiak

I. Kasu guztietan agertu beharreko informazioa

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Jarduera nagusia.

3. Eta horrez gain:

a) Hornidura-kontratuetarako: hornitu beharreko prestazio edo produktuen izaera eta kopurua edo balioa (CPV kodeak).

b) Obra-kontratuetarako: prestazioen izaera eta norainokoa, obraren edo obrarekin lotutako sorten ezaugarri nagusiak (CPV kodeak).

c) Zerbitzu-kontratuetarako: zerbitzu mota bakoitzean aurreikusten den kontratazio bolumena (CPV kodeak).

4. Iragarkiaren bidalketa-data edo iragarki hau kontratatzailearen profileen argitaratzeari buruzko iragarkiaren bidalketa-data.

5. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

II. Iragarkiak eskaintzen aurkezpen-epeak laburtzeko aukera ematen badu eman behar den informazio gehigarria

6. Adierazi beharko da ezen kontraturako edo kontratueterako interesa duten enpresaburuek interes hori jakinarazi beharko diotela entitate kontratatzaileari.

7. Baldintza-agiriak libreki, zuzenean, osorik eta doan eskuratu ahalko diren helbide elektronikoa edo Internetekoa.

43.2 artikuluan jasotako arrazoiengatik irispide libre, zuzen, oso eta doakorik ez dagoenean, baldintza-agiriak eskuratzeko moduari buruzko jarraibide bat.

8. Hala dagokionean, aipamen bat, kontratua tailer babestuei mugatuta dagoen edo hura egikaritzea enplegua babesteko programen esparrura mugatuta dagoen dioena.

9. Eskaintzak aurkezteko edo negoziatzeko gonbidapena lortzea xede duten eskaintzak aurkezteko azken eguna.

10. Eskatutako produktuen ezaugarriak eta kopurua edo obraren ezaugarri orokorrak edo zerbitzuaren mota eta deskribapena; zehaztuko da ea esparru-akordio bat edo batzuk aurreikusten diren. Adierazi beharko da zer aukera dagoen lizitazio osagarriak egiteko eta zer epe kalkulatu den aukera horiek baliatzeko, eta zenbat luzapen izan daitezkeen. Kontratu berriztagarrien sail bat izanez gero, geroko lizitazio-deialdien behin-behineko egutegia ere zehaztu beharko da. Hauetatik zein den adieraziko da: erosketa, finantza-errentamendua, alokairua, edo epekako erosketa, edo horien konbinazioa.

11. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obren kasuan, edo entregatzeko edo egikaritzeko kokaleku nagusiaren NUTS kodea, hornidurak eta zerbitzuak direnean; kontratua sortatan banatuta badago, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

12. Entregatzeko edo egikaritzeko epea edo zerbitzu-kontratuaren iraupena, eta, ahal dela, hasiera-data.

13. Enpresa interesdunek zer helbidetara bidali beharko duten idatzizko interes-adierazpena.

14. Interes-adierazpenak jasotzeko azken eguna.

15. Hautagaitzak edo eskaintzak aurkezteko onartutako hizkuntza edo hizkuntzak.

16. Baldintza ekonomiko eta teknikoak, eta hornitzaileei eskatzen zaizkien berme finantzarioak eta teknikoak.

17. Eta horrez gain:

a) Kontratazio-prozeduren hasiera-data, ezaguna bada.

b) Kontrataziorako prozedura mota (prozedura murriztuak, eskuratzeko-sistema dinamikoarekin edo halakorik gabe, edo prozedura negoziatuak).

18. Hala dagokionean, kontratua zer baldintza zehaztuta egikaritu behar den.

19. Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena:

a) Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak bide elektronikoz aurkeztea onartuko den;

b) eskari elektronikoak erabiliko diren;

c) fakturazio elektronikoa erabiliko den;

d) ordainketa elektronikoa onartuko den.

20. Erreklamazio-prozedurarako eta, kasua bada, arbitraje-prozedurarako organo eskudunaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko aipamena; edo, beharrezkoa bada, informazio hori eman dezakeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

21. Ezagutzen baldin badira, kontratua adjudikatzeko erabiliko diren irizpideak, 66. artikuluan aurreikusitakoak. Ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den prezioaren arabera soilik erabakitzen denean izan ezik, ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den erabakitzeko irizpideak ere aipatuko dira, baita horien haztapena ere, edo, kasua bada, garrantziaren araberako hurrenkera, irizpideok baldintza-agirian edo lizitatzeko edo negoziatzeko gonbidapenean azaltzen ez badira.

B atala. Kontratazioaren berri emateko aldizkako iragarki bat kontratatzailearen profilean argitaratzeari buruzko iragarkiak

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.
2. Jarduera nagusia.
3. CPV kodeak.
4. Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea.
5. Kontratatzailearen profilean kontratazioaren berri emateko aldizkako iragarki bat argitaratzeari buruzko iragarkia zer egunetan bidali den.

C atala. I. eranskineko zerbitzu-kontratuen berri emateko aldizkako iragarkiak

1. Entitate kontratatzailearen izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), helbide elektronikoa eta Internetekoa.
 2. Kasuan kasuko kontratuaren deskribapen laburra, horren barnean direla CPV kodeak.
 3. Ezagutzen diren neurrian, honako hauek:
 - a) Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obren kasuan, edo entregatzeko edo egikartzeko kokaleku nagusiaren NUTS kodea, horniduren eta zerbitzuen kasuan.
 - b) Hornidura, obra edo zerbitzuak entregatzeko edo emateko egutegia eta kontratuaren iraupena.
 - c) Parte hartzeko baldintzak, eta, zehazki, honako hauek:
 - 1.a Horrela denean, kontratu publikoa tailer babestuei mugatuta dagoen edo enplegu babestuko programen esparruan soilik egikaritu asmo den adieraztea.
 - 2.a Horrela denean, legezko edo erregelamenduzko xedapenen edo xedapen administratiboen arabera zerbitzu-prestazioa lanbide jakin bati erreserbatzen zaiola adieraztea.
 - d) Aplikatuko den adjudikazio-prozeduraren ezaugarri nagusien deskribapen laburra.
4. Adierazi beharko da ezen kontraturako edo kontratuetarako interesa duten enpresaburuek interes hori jakinarazi beharko diotela entitate kontratatzaileari, eta zer egunetara arte onartuko diren interes-adierazpen horiek, eta zer helbidetara bidali beharko diren.

D atala. I. eranskineko zerbitzu-emakidako kontratuen berri emateko aldizkako iragarkietan agertu beharreko informazioa

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.
2. Hala dagokionean, zehaztapenak eta izan daitezkeen dokumentu osagarriak eskuratu ahalko diren helbide elektronikoa edo Interneteko helbidea.
3. Entitate kontratatzailea zer motatakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.
4. CPV kodeak; emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.
5. Zerbitzu-emakidak gauzatu edo emango diren kokaleku nagusiaren NUTS kodea.
6. Zerbitzuen deskribapena, eta magnitudeari edo balioari buruzko ordena.
7. Parte hartzeko baldintzak.
8. Hala dagokionean, entitate kontratatzailearekin harremanetan jartzeko epea(k), parte hartzeari begira.
9. Hala dagokionean, adjudikazio-prozeduraren ezaugarri nagusien deskribapen laburra.
10. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

VII. ERANSKINA

Lizitazio-iragarkietan agertu beharreko informazioa

1. atala. *Lizitazio-iragarkiak, 2. edo 3. atalak aplikatu behar ez direnean*

A. Prozedura irekiak

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Jarduera nagusia.

3. Hala dagokionean, aipamen bat, kontratua tailer babestuei mugatuta dagoen edo hura egikaritzea enplegua babesteko programen esparrura mugatuta dagoen dioena.

4. Kontratuaren izaera (hornidurak, obrak edo zerbitzuak; adieraziko da esparru-akordioa edo eskuratze-sistema dinamikoa erabiltzen dela, horrela denean); deskribapena (CPV kodeak). Adierazi beharko da, hala dagokionean, zein den eskaintzaren xedea: erosketa, finantza-errentamendua, alokairua, edo epekako erosketa, edo horien konbinazioa.

5. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-kontratuen kasuan, edo entregatzeko edo egikaritzeko kokaleku nagusiaren NUTS kodea, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan.

6. Hornidura eta obretarako:

a) Eskatzen diren produktuen ezaugarriak eta kopurua (CPV kodeak). Adieraziko da zer aukera dagoen kontratazio osagarriak egiteko eta, ahal dela, zer epe kalkulatzeko den aukera horiek baliatzeko, eta zenbat luzapen izan daitezkeen. Kontratu berriztagarrien sail bat izanez gero, ahal dela, geroko lizitazio-deialdien behin-behineko egutegia ere zehaztuko da kontratatu beharreko produktuetarako, edo prestazioen izaera eta norainokoa, eta obraren ezaugarri nagusiak (CPV kodeak).

b) Adieraziko da ea hornitzaileek eskatzen diren produktuetako batzuetarako edo produktu guztietarako lizitatu dezaketen.

Baldin eta, obra-kontratuarako, obra edo kontratua zenbait sortatan banatuta badago, sorta bakoitzaren norainokoa, eta sorta baterako, batzuetarako edo guztietarako lizitatzeko aukera.

c) Obra-kontratuarako: obraren edo kontratuaren helburuari buruzko azalpenak, kontratuak barnean hartzen badu proiektuak egitea ere.

7. Zerbitzuetarako:

a) Eskatzen diren produktuen ezaugarriak eta kopurua. Adieraziko da zer aukera dagoen kontratazio osagarriak egiteko, eta, ahal denean, zer epe kalkulatzeko den aukera horiek baliatzeko, eta zenbat luzapen izan daitezkeen. Kontratu berriztagarrien sail bat izanez gero, ahal dela, geroko lizitazio-deialdien behin-behineko egutegia ere zehaztuko da eman beharreko zerbitzuetarako.

b) Zerbitzua gauzatzea lanbide jakin bati erreserbatu ahal zaiola, legezko edo erregelamenduzko xedapenen edo xedapen administratiboaren arabera.

c) Lege-, erregelamendu- edo administrazio-arau horren aipamena.

d) Adieraziko da ea pertsona juridikoek zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-prestakuntza jakinarazi behar dituzten.

e) Adieraziko da ea zerbitzu-emaileek zerbitzuen zati baterako lizitatu dezaketen.

8. Jakiten bada, adieraziko da ea aldaerak aurkez daitezkeen ala ez.

9. Entregatzeko edo egikaritzeko epea edo zerbitzu-kontratuaren iraupena, eta, ahal dela, hasiera-data.

10. Baldintza-agiriak libreki, zuzenean, osorik eta doan eskuratu ahalko diren helbide elektronikoa edo Internetekoa.

43. artikuluan jasotako arrazoiengatik irispide libre, zuzen, oso eta doakorik ez dagoenean, baldintza-agiriak eskuratzeko moduari buruzko jarraibide bat.

11. Eta horrez gain:

a) Zer egunetara arte aurkez daitezkeen eskaintzak edo argibide gisako eskaintzak eskuratzeko sistema dinamikoa erabiltzen denean.

b) Zer helbidetara bidali behar diren.

c) Zein edo zeintzuk hizkuntzatan idatzi behar diren.

12. Era berean:

a) Hala dagokionean, gutun-azal itxiak irekitzeko ekitaldira onartutako pertsonak.

b) Gutun-azal itxiak irekitzeko eguna, ordua eta tokia.

13. Hala denean, eskatzen diren gordailuak eta bermeak.

14. Finantzatzeko eta ordaintzeko oinarritzko modalitateak edo aplikatu beharreko xedapenei buruzko aipamenak.

15. Hala dagokionean, kontratuaren adjudikazioa jasotzen duen enpresaburu-elkarteak hartu beharko duen forma juridikoa.

16. Kontratuaren adjudikazioa jasotzen duen enpresaburuak bete beharko dituen gutxieneko baldintza ekonomikoak eta teknikoak.

17. Lizitatzailak eskaintzari eutsi behar dion epea.

18. Hala dagokionean, kontratua zer baldintza zehatzetan egikaritu behar den.

19. Kontratua adjudikatzeko erabiliko diren irizpideak, 66. artikuluan aurreikusitakoak.

Ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den prezioaren arabera soilik erabakitzen denean izan ezik, ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den erabakitzeko irizpideak ere aipatuko dira, baita horien haztapena ere, edo, kasua bada, garrantziaren araberako hurrenkera, irizpideok baldintza-agirian azaltzen ez badira.

20. Hala behar denean, kontratazioaren berri emateko aldizkako iragarkia edo iragarki hori kontratatzailearen profilean argitaratzeari buruzko iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu den data edo datak eta erreferentzia edo erreferentziak.

21. Erreklamazio-prozedurarako eta, kasua bada, arbitraje-prozedurarako organo eskudunaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko informazio zehatza; edo, beharrezkoa denean, informazio hori eman dezakeen sailaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

22. Zer egunetan bidali duen iragarkia entitate kontratatzaileak.

23. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

B. Prozedura murriztuak

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Jarduera nagusia.

3. Hala dagokionean, aipamen bat, kontratua tailer babestuei mugatuta dagoen edo hura egikaritzea enplegua babesteko programen esparrura mugatuta dagoen dioena.

4. Kontratuaren izaera (hornidurak, obrak edo zerbitzuak; adieraziko da esparru-akordioa erabiltzen dela, horrela denean); deskribapena (CPV kodeak). Adierazi beharko da, hala dagokionean, zein den eskaintzaren xedea: erosketa, finantza-errentamendua, alokairua, edo epekako erosketa, edo horien konbinazioa.

5. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-kontratuaren kasuan, edo entregatzeko edo egikaritzeko kokaleku nagusiaren NUTS kodea, hornidura- eta zerbitzu-kontratuaren.

6. Hornidura eta obretarako:

a) Eskatzen diren produktuen ezaugarriak eta kopurua (CPV kodeak). Adieraziko da zer aukera dagoen kontratazio osagarriak egiteko eta, ahal dela, zer epe kalkulatzen den

aukera horiek baliatzeko, eta zenbat luzapen izan daitezkeen. Kontratu berriztagarrien sail bat izanez gero, ahal dela, geroko lizitazio-deialdien behin-behineko egutegia ere zehaztuko da kontratatu beharreko produktuetarako, edo prestazioen izaera eta norainokoa, eta obraren ezaugarri nagusiak (CPV kodeak).

b) Adieraziko da ea hornitzaileek eskatzen diren produktuetako batzuetarako edo produktu guztietarako lizitatu dezaketen.

Baldin eta, obra-kontratuarentzako, obra edo kontratua zenbait sortatan banatuta badago, sorta bakoitzaren norainokoa, eta sorta baterako, batzuetarako edo guztietarako lizitzeko aukera.

c) Obraren edo kontratuaren helburuari buruzko informazioa, kontratuak barnean hartzen badu proiektuak egitea ere.

7. Zerbitzuetarako:

a) Eskatzen diren produktuen ezaugarriak eta kopurua. Adieraziko da zer aukera dagoen kontratazio osagarriak egiteko, eta, ahal denean, zer epe kalkulatu den aukera horiek baliatzeko, eta zenbat luzapen izan daitezkeen. Kontratu berriztagarrien sail bat izanez gero, ahal dela, geroko lizitazio-deialdien behin-behineko egutegia ere zehaztuko da eman beharreko zerbitzuetarako.

b) Zerbitzua gauzatzea lanbide jakin bati erreserbatu ahal zaiola, legezko edo erregelamenduzko xedapenen edo xedapen administratiboen arabera.

c) Lege-, erregelamendu- edo administrazio-arau horren aipamena.

d) Adieraziko da ea pertsona juridikoek zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-prestakuntza jakinarazi behar dituzten.

e) Adieraziko da ea zerbitzu-emaitzak zerbitzuen zati baterako lizitatu dezaketen.

8. Jakiten bada, adieraziko da ea aldaerak aurkez daitezkeen ala ez.

9. Entregatzeko edo egikaritzeko epea edo kontratuaren iraupena, eta, ahal dela, hasiera-data.

10. Hala dagokionean, kontratuaren adjudikazioa jasotzen duen enpresaburu-elkarteak hartu beharko duen forma juridikoa.

11. Eta horrez gain:

a) Parte hartzeko eskaerak jasotzeko epearen azken eguna.

b) Zer helbidetara bidali behar diren.

c) Zein edo zeintzuk hizkuntzatan idatzi behar diren.

12. Lizitzeko gonbidapenak bidaltzeko epearen azken eguna.

13. Hala denean, eskatzen diren gordailuak eta bermeak.

14. Finantzatzeko eta ordaintzeko oinarriko modalitateak edo aplikatu beharreko xedapenei buruzko aipamenak.

15. Enpresaburuaren egoerari eta bete beharko dituen baldintza ekonomiko eta teknikoari buruzko informazioa.

16. Kontratuaren adjudikatzeko erabiliko diren irizpideak, 66. artikuluan aurreikusitakoak. Ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den prezioaren arabera soilik erabakitzen denean izan ezik, ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den erabakitzeko irizpideak ere aipatuko dira, baita horien haztapena ere, edo, kasua bada, garrantziaren araberrako hurrenkera, irizpideok baldintza-agirian azaltzen ez badira eta lizitzeko gonbidapenean ere agertzekoak ez badira.

17. Hala dagokionean, kontratua zer baldintza zehaztuz egikaritu behar den.

18. Hala behar denean, kontratazioaren berri emateko aldizkako iragarkia edo iragarki hori eroslearen profilean argitaratzeari buruzko iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu den data(k) eta erreferentzia(k).

19. Erreklamazio-prozedurarako eta, kasua bada, arbitraje-prozedurarako organo eskudunaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko aipamena; edo, beharrezkoa bada, informazio hori eman dezakeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

20. Zer egunetan bidali duen iragarkia entitate kontratatzaileak.
21. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

C. Licitazio-prozedura negoziatuak

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.
2. Jarduera nagusia.
3. Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena: kontratua tailer babestuei mugatuta dagoela edo haren gauzatzea enplegua babesteko programen esparrura mugatuta dagoela.
4. Kontratuaren izaera (hornidurak, obrak edo zerbitzuak; adieraziko da esparru-akordioa erabiltzen dela, horrela denean); deskribapena (CPV kodeak). Adierazi beharko da, hala dagokionean, zein den eskaintzaren xedea: erosketa, finantza-errentamendua, alokairua, edo epekako erosketa, edo horien konbinazioa.
5. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-kontratuen kasuan, edo entregatzeko edo egikaritzeko kokaleku nagusiaren NUTS kodea, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan.
6. Hornidura eta obretarako:
 - a) Eskatzen diren produktuen ezaugarriak eta kopurua (CPV kodeak). Adieraziko da zer aukera dagoen kontratazio osagarriak egiteko eta, ahal dela, zer epe kalkulatzeko den aukera horiek baliatzeko, eta zenbat luzapen izan daitezkeen. Kontratu berriztagarrien sail bat izanez gero, ahal dela, geroko lizitazio-deialdien behin-behineko egutegia ere zehaztuko da kontratatu beharreko produktuetarako, edo prestazioen izaera eta norainokoa, eta obraren ezaugarri nagusiak (CPV kodeak).
 - b) Adieraziko da ea hornitzaileek eskatzen diren produktuetako batzuetarako edo produktu guztietarako lizitatu dezaketen.

Baldin eta, obra-kontratuetarako, obra edo kontratua zenbait sortatan banatuta badago, sorta bakoitzaren norainokoa, eta sorta baterako, batzuetarako edo guztietarako lizitatzeko aukera.
 - c) Obra-kontratuetarako: obraren edo kontratuaren helburuari buruzko azalpenak, kontratuak barnean hartzen badu proiektuak egitea ere.
7. Zerbitzuetarako:
 - a) Eskatzen diren zerbitzuen ezaugarriak eta kopurua. Adieraziko da zer aukera dagoen kontratazio osagarriak egiteko eta, ahal dela, zer epe kalkulatzeko den aukera horiek baliatzeko, eta zenbat luzapen izan daitezkeen. Kontratu berriztagarrien sail bat izanez gero, ahal dela, geroko lizitazio-deialdien behin-behineko egutegia ere zehaztuko da eman beharreko zerbitzuetarako.
 - b) Zerbitzua gauzatzea lanbide jakin bati erreserbatu ahal zaiola, legezko edo erregelamenduzko xedapenen edo xedapen administratiboen arabera.
 - c) Lege-, erregelamendu- edo administrazio-arau horren aipamena.
 - d) Adieraziko da ea pertsona juridikoek zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-prestakuntza jakinarazi behar dituzten.
 - e) Adieraziko da ea zerbitzu-emaileek zerbitzuen zati baterako lizitatu dezaketen.
8. Jakiten bada, adieraziko da ea aldaerak aurkez daitezkeen ala ez.
9. Entrega- edo gauzatze-epea edo kontratuaren iraupena, eta, ahal dela, hasiera-data.
10. Hala dagokionean, kontratuaren adjudikazioa jasotzen duen enpresaburu-elkarteak hartu beharko duen forma juridikoa.
- 11.a) Parte hartzeko eskaerak jasotzeko epearen azken eguna.
- b) Zer helbidetara bidali behar diren.
- c) Zein edo zeintzuk hizkuntzatan idatzi behar diren.

12. Hala denean, eskatzen diren gordailuak eta bermeak.
13. Finantzatzeko eta ordaintzeko oinarritzko modalitateak edo aplikatu beharreko xedapenei buruzko aipamenak.
14. Operadore ekonomikoaren egoerari eta bete beharko dituen baldintza ekonomiko eta teknikoei buruzko informazioa.
15. Kontratua adjudikatzeko erabiliko diren irizpideak, 66. artikuluan aurreikusitakoak. Ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den prezioaren arabera soilik erabakitzen denean izan ezik, ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den erabakitzeko irizpideak ere aipatuko dira, baita horien haztapena ere, edo, kasua bada, garrantziaren araberako hurrenkera, irizpideok baldintza-agirian azaltzen ez badira eta negoziatzeko gonbidapenean ere agertzeokoak ez badira.
16. Hala dagokionean, entitate kontratatzaileak jada hautatu dituen enpresaburuen izenak eta helbideak.
17. Hala dagokionean, kontratua egikaritzea zer baldintza zehatzen menpe dagoen.
18. Hala behar denean, kontratazioaren berri emateko aldizkako iragarkia edo iragarki hori kontratatzailearen profilean argitaratzeari buruzko iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu den data(k) eta erreferentzia(k).
19. Erreklamazio-prozedurarako eta, kasua bada, arbitraje-prozedurarako organo eskudunaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko aipamena; edo, beharrezkoa bada, informazio hori eman dezakeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.
20. Zer egunetan bidali duen iragarkia entitate kontratatzaileak.
21. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

2. atala. I. eranskineko zerbitzu-kontratuei buruzko lizitazio-iragarkiak

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.
2. Jarduera nagusia.
3. Kontratatu behar diren zerbitzuen edo zerbitzu moten eta, hala dagokionean, lotutako obra eta horniduren deskribapena, horren barnean direla kopuruak edo balioak (CPV kodeak).
4. Prestazioak gauzatuko diren kokaleku nagusiaren NUTS kodea.
5. Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena: kontratua tailer babestuei mugatuta dagoela edo haren gauzatzea enplegua babesteko programen esparrura mugatuta dagoela.
6. Enpresaburuek parte hartzeko bete behar dituzten baldintza nagusiak, edo, hala dagokionean, informazio zehatza lor daitekeen helbide elektronikoa.
7. Entitate kontratatzailearekin harremanetan jartzeko epea(k), parte hartzeari begira.
8. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

3. atala. Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuei buruzko lizitazio-iragarkiak.

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.
2. Entitate kontratatzailea zer motakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.
3. Eskariekin batera eskaintzak aurkeztu behar badira, emakidari buruzko dokumentuak kontsultatu ahal izateko helbide elektronikoa eta Internetekoa, irispide zuzen, oso eta doakoarekin eta murriztapenik gabe. 43. artikuluan jasotako kasuetan irispide zuzen, oso, doako eta murriztapenik gabekorik ez dagoenean, kontratazioari buruzko dokumentazioa kontsultatzeko moduaren aipamena.
4. Emakida-kontratuaren deskribapena: obren izaera eta magnitudea, zerbitzuen izaera eta magnitudea, magnitudearen ordena edo zenbatetsitako balioa eta, ahal bada,

kontratuaren iraupena. Kontratua sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da. Hala dagokionean, aldaeren deskribapena.

5. CPVren nomenklaturaren erreferentzia-zenbakia(k). Emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

6. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-emakidako kontratuen kasuan, edo prestazioaren kokaleku nagusiarena, zerbitzu-emakidako kontratuak direnean; emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

7. Parte hartzeko baldintzak, besteak beste:

a) Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena: emakida-kontratua tailer babestuei mugatuta dagoela edo haren gauzatzea enplegua babesteko programen esparrura mugatuta dagoela.

b) Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena: zerbitzu-ematea lanbide jakin bati erreserbatzen zaiola, legezko eta erregelamenduzko xedapenen eta xedapen administratiboen arabera; legezko edo erregelamenduzko xedapen edo xedapen administratibo horren aipamena.

c) Hautapen-irizpideen zerrenda eta deskribapen laburra, hala dagokionean; eska daitezkeen gutxieneko maila edo mailak; eskatzen den informazioaren aipamena (interesdunen adierazpenak, dokumentazioa).

8. Eskaerak aurkezteko edo eskaintzak jasotzeko muga-eguna.

9. Emakida adjudikatzerakoan aplikatuko diren irizpideak, emakidari buruzko beste dokumentu batzuetan ageri ez direnean.

10. Iragarkiaren bidalketa-data.

11. Erreklamazio-prozedurarako eta, kasua bada, arbitraje-prozedurarako organo eskudunaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko aipamen zehatza; edo, beharrezkoa bada, informazio hori lor daitezkeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

12. Hala dagokionean, emakida-kontratua egikaritzea zer baldintza zehatzen menpe dagoen.

13. Parte hartzeko eskaerak edo eskaintzak zer helbidetara bidali behar diren.

14. Hala dagokionean, komunikaziorako bitarteko elektronikoak erabiltzeari buruzko baldintzen eta betekizunen aipamena.

15. Emakida Europar Batasunak finantzaturako proiektu edo programa batekin lotuta ote dagoen argitzen duen informazioa.

16. Obra-emakiden kontratuen kasuan, adierazi behar da ea emakida KPAk estaltzen duen.

VIII. ERANSKINA

Formalizazioari buruzko iragarkietan agertu beharreko informazioa

A atala. Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen formalizazioari buruzko iragarkiak, B atala aplikatu behar ez denean

I. *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko informazioa*⁽¹⁾, III. apartatua aplikatu behar ez denean.

(1) 6., 9. eta 11. puntuetako informazioa ez da argitaratu beharreko informaziotzat joko baldin eta entitate kontratatzaileak uste badu hura argitaratzeak kalte egin diezaiokeela merkataritza-interes sentikor bati.

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Jarduera nagusia.

3. Kontratuaren izaera (hornidurak, obrak edo zerbitzuak eta CPV kodeak; esparru-akordioa erabiltzen dela adieraziko da, horrela denean).

4. Emandako produktu, obra edo zerbitzuen ezaugarriei eta kopuruari buruzko laburpena, gutxienez.

5. Eta horrez gain:

a) Lizitazio-deialdiaren forma.

b) Iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu den data(k) eta erreferentzia(k).

c) Aurrez lizitazio-deialdirik egin gabe adjudikatzen diren kontratuen kasuan, 85. artikuluko xedapen egokiari buruzko aipamena.

6. Kontratazio-prozedura (prozedura irekia, prozedura murriztua, edo negoziazioa duen lizitazio-prozedura).

7. Jasotako eskaintzen kopurua, honako hau zehaztuta:

a) ETEak diren operadore ekonomikoetatik jasotako eskaintzen kopurua.

b) Atzerritik jasotako eskaintzen kopurua.

c) Bide elektronikoz jasotako eskaintzen kopurua. Hainbat adjudikazio egiten badira (sortak, hainbat esparru-akordio), informazio hori adjudikazio bakoitzari buruz emango da.

8. Kontratua edo kontratuak edo esparru-akordioa edo -akordioak egiteko data, adjudikazioari buruzko erabakia hartu ondoren.

9. 85.1.h) artikulua babesean aukerako prezioan egindako erosketetan ordaindutako prezioa.

10. Adjudikazio bakoitzerako, hautatutako lizitatzaileren edo lizitatzaileren izena, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea, honako hauek zehaztuta:

a) lizitzaile adjudikazioduna ETEa den;

b) kontratua partzuergo bati adjudikatu zaion.

11. Kontratua azpikontratatu egin dela edo azpikontratatu daitekeela adieraziko da, hala denean.

12. Ordaindutako prezioa edo kontratuaren adjudikazioan kontuan hartu diren eskaintza altuenaren eta baxuenaren prezioak.

13. Erreklamazio-prozedurarako eta, kasua bada, arbitraje-prozedurarako organo eskudunaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko informazio zehatza; edo, beharrezkoa bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

14. Hautazko informazioa:

a) kontratutik hirugarrenei azpikontratatu zaien edo azpikontratatu ahal zaien ehunekoa eta horren zenbatekoa;

b) kontratua adjudikatzeko irizpideak.

II. Argitaratu behar ez den informazioa

15. Adjudikatutako kontratuen kopurua (kontratua hainbat hornitzailearen artean zatitu bada).

16. Adjudikatutako kontratu bakoitzaren balioa.

17. Produktu edo zerbitzuaren jatorrizko herrialdea (Europar Batasuneko edo Europar Batasunaz kanpoko; azken kasu horretan, hirugarren herrialdeen arabera xehakatuta).

18. Zer adjudikazio-irizpide erabili diren adieraziko da.

19. Kontratua 68. artikulua babesean aldaera bat eskaini zuen lizitzaile bati adjudikatu zaiola adieraziko da, hala denean.

20. Adieraziko da ea eskaintzaren bat baztertu den nabarmenki baxua izateagatik, 69. artikuluari jarraituz.
21. Zer egunetan bidali duen iragarkia entitate kontratatzaileak.

B atala. I. eranskineko zerbitzu-kontratuei dagozkien formalizazio-iragarkiak

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.
2. Jarduera nagusia.
3. Eman beharreko zerbitzuen eta, hala dagokionean, lotutako obra eta horniduren ezaugarriak eta kopuruari buruzko laburpena, gutxienez.
4. Iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratzearen erreferentzia.
5. Jasotako eskaintzen kopurua.
6. Hautatutako enpresaburuaren edo enpresaburuaren izenak eta helbideak.
7. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

C atala. Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen formalizazio-iragarkiak.

- I. Hurrengo II. apartatuan aipatutakoez beste obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak formalizatzeari buruzko iragarkietan agertu beharreko informazioa
 1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne) eta, hala dagokionean, telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.
 2. Entitate kontratatzailea zer motakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.
 3. CPV kodeak.
 4. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-emakidako kontratuen kasuan, edo prestazioaren kokaleku nagusiarena, zerbitzu-emakidako kontratuak direnean.
 5. Emakida-kontratuaren deskribapena: obren izaera eta magnitudea, zerbitzuen izaera eta magnitudea, eta kontratuaren iraupena. Kontratua sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da. Hala dagokionean, aldaeren deskribapena.
 6. Erabilitako adjudikazio-prozeduraren deskribapena; alde aurreko argitaratzerik gabeko adjudikazioaren kasuan, haren justifikazioa.
 7. Kontratua adjudikatzeko erabiliko diren irizpideak, 66. artikuluan aurreikusitakoak.
 8. Kontratua adjudikatzeko erabakiaren edo erabakien data.
 9. Esleipen bakoitzerako jasotako eskaintzen kopurua, honako hauek zehaztuz:
 - a) enpresa txiki eta ertainak diren operadore ekonomikoetatik jasotako eskaintzen kopurua;
 - b) atzerritik jasotako eskaintzen kopurua;
 - c) bide elektronikoz jasotako eskaintzen kopurua.
 10. Adjudikazio bakoitzerako, hautatutako lizitatzzailearen edo lizitatzzaileen izena, helbidea (NUTS kodea barne) eta, hala dagokionean, telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea, honako hauek zehaztuta:
 - a) lizitatzzaile adjudikazioduna enpresa txiki eta ertain bat den;
 - b) emakida-kontratua partzuergo bati adjudikatu zaion.
 11. Adjudikatutako emakida-kontratuaren balioa eta baldintza ekonomiko nagusiak; honako hauek, zehazki:
 - a) ordainsariak, prezioak eta isunak, halakorik dagoenean;
 - b) sariak eta ordainketak, halakorik dagoenean;

c) emakidaren baliorako egokiak diren beste xehetasun batzuk, 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

12. Emakida Europar Batasunaren funtsekin finantzatutako proiektu edo programa batekin lotuta ote dagoen argitzen duen informazioa.

13. Erreklamazio-prozeduren eta, kasua bada, arbitraje-prozeduren arduraren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko aipamen zehatza; edo, beharrezkoa bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

14. *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialeko* aurreko argitalpenen datak eta erreferentziak, iragarkiaren xede den emakida-kontratuarekin zerikusia dutenak.

15. Iragarkiaren bidalketa-data.

16. Emakida-kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko erabili den metodoa, 4. artikuluan arabera emakida-kontratuari buruzko beste dokumentu batzuetan zehazten ez bada.

17. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

II. I. eranskinetako zerbitzu-emakidako kontratuen formalizazio-iragarkietan agertu beharreko informazioa

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne) eta, hala badagokio, telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Entitate kontratatzailea zer motatakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.

3. CPV kodeak; emakida sortatzen banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

4. Emakidak duen xedearen aipamen laburtua.

5. Jasotako eskaintzen kopurua.

6. Adjudikatutako eskaintzaren balioa, barnean direla ordainsariak eta prezioak.

7. Hautatutako lizitatzailaren edo lizitatzailen izena eta helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakia, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

8. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

IX. ERANSKINA

Proiektuen lehiaketen iragarkietan agertu beharreko informazioa

A atala. Proiektuen lehiaketen iragarkietan agertu beharreko informazioa

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Jarduera nagusia.

3. Proiektuaren deskribapena (CPV kodeak).

4. Lehiaketa mota: irekia edo murriztua.

5. Lehiaketa irekien kasuan, proiektuak aurkezteko muga-eguna.

6. Lehiaketa murriztuak direnean:

a) aurreikusten den parte-hartzaile kopurua, edo gutxieneko eta gehieneko parte-hartzaile kopuruak;

b) hala badagokio, jada hautatutako parte-hartzaileen izenak;

c) parte-hartzaileak hautatzeko irizpideak;

d) parte hartzeko eskaerak aurkezteko muga-eguna.

7. Kasua bada, parte-hartzea lanbide jakin bati erreserbatuta dagoela aipatuko da.

8. Proiektuak baloratzeko aplikatuko diren irizpideak.

9. Kasua bada, hautatu diren epaimahaiko kideen izenak.

10. Adierazi beharko ea epaimahaiaren erabakia loteslea den botere adjudikatzailerentzat.

11. Hala badagokio, sarien kopurua eta zenbatekoa.

12. Hala badagokio, parte-hartzaile guztiei egin ahal zaizkien ordainketak.

13. Sarien irabazleei kontratu osagarriak adjudikatzeko aukera.

14. Erreklamazio-prozedurarako eta, kasua bada, arbitraje-prozedurarako organo eskudunaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko informazio zehatza; edo, beharrezkoa bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

15. Iragarkiaren bidalketa-data.

16. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

B atala. Proiektuen lehiaketan emaitzei buruzko iragarkietan agertu beharreko informazioa

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Jarduera nagusia.

3. Proiektuaren deskribapena (CPV kodeak).

4. Parte-hartzaileen kopuru osoa.

5. Atzerriko parte-hartzaileen kopurua.

6. Lehiaketaren irabazlea(k).

7. Hala badagokio, saria(k).

8. Bestelako informazioa.

9. Lehiaketaren iragarkiari buruzko aipamena.

10. Erreklamazio-prozedurarako eta, kasua bada, arbitraje-prozedurarako organo eskudunaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko informazio zehatza; edo, beharrezkoa bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

11. Iragarkiaren bidalketa-data.

X. ERANSKINA

Indarrean diren kontratuen aldaketei buruzko iragarkietan agertu beharreko informazioa

A atala. Indarrean diren obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen aldaketei buruzko iragarkiak

1. Entitate kontratatzailearen eta, bera ez bada, informazio osagarria eman dezakeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Jarduera nagusia.

3. CPV kodeak.

4. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obren kasuan; edo entregatzeko edo egikaritzeko kokaleku nagusiaren NUTS kodea, horniduren eta zerbitzuen kasuan.

5. Kontratazioaren deskribapena, aldaketa baino lehen eta aldaketaren ondoren: obren izaera eta norainokoa, horniduren izaera eta kopurua edo balioa, zerbitzuen izaera eta norainokoa.

6. Halakorik dagoenean, aldaketak eragin duen prezio-igoera.

7. Aldaketa beharrezko egin duten inguruabarren deskribapena.

8. Kontratua adjudikatu den eguna.

9. Halakorik dagoenean, enpresaburu berriaren edo berrien izena eta helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

10. Kontratua Europar Batasunaren funtsekin finantzaturako proiektu edo programa batekin lotuta ote dagoen argitzen duen informazioa.

11. Erreklamazio-prozeduretarako eta, kasua bada, arbitraje-prozeduretarako organo eskudunaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko informazio zehatza; edo, beharrezkoa bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

B atala. Indarrean diren obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen aldaketei buruzko iragarkiak

1. Botere adjudikatuzailearen edo entitate kontratatuzailearen eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

2. CPV kodeak.

3. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-emakiden kasuan, edo zerbitzuak emateko kokaleku nagusiaren NUTS kodea, zerbitzu-emakiden kasuan.

4. Emakidaren deskribapena, aldaketa baino lehen eta aldaketaren ondoren; obren izaera eta magnitudea, eta zerbitzuen izaera eta magnitudea.

5. Hala dagokionean, emakidaren balioaren aldaketa, horren barnean direla aldaketak eragindako ordainsarien edo prezioen igoera.

6. Aldaketa beharrezko egin duten inguruabarren deskribapena.

7. Emakida adjudikatu den eguna.

8. Hala dagokionean, enpresaburu berriaren edo berrien izena eta helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakiak, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

9. Emakida Europar Batasunaren funtsekin finantzaturako proiektu edo programa batekin lotuta ote dagoen argitzen duen informazioa.

10. Kontratazioaren arloko erreklamazio-prozeduren eta, kasua bada, bitartekaritza-prozeduren ardura duen organoaren izena eta helbidea. Erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko aipamen zehatza; edo, beharrezkoa bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

11. *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialeko* aurreko argitalpenen datak eta erreferentziak, iragarkiaren xede den emakidarekin edo emakidekin zerikusia dutenak.

12. Iragarkiaren bidalketa-data.

13. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

XI. ERANSKINA

27.4 artikuluan aipatzen diren gizarte- eta ingurumen-eremuetako nazioarteko hitzarmenen zerrenda

– LANE-Lanaren Nazioarteko Erakundearen 87. hitzarmena, askatasun sindikalari eta sindikatzeko eskubidearen babesari buruzkoa.

– LANERen 98. hitzarmena, sindikatzeko eskubideari eta negoziazio kolektiborako eskubideari buruzkoa.

– LANERen 29. hitzarmena, lan behartu edo nahitaezkoari buruzkoa.

– LANERen 105. hitzarmena, lan behartuaren abolizioari buruzkoa.

– LANERen 138. hitzarmena, gutxieneko adinari buruzkoa.

– LANERen 111. hitzarmena, diskriminazioari buruzkoa (enplegua eta okupazioa).

– LANERen 100. hitzarmena, ordainsari-berdintasunari buruzkoa.

– LANERen 182. hitzarmena, haur-lanaren modurik okerrenei buruzkoa.

– Vienako Hitzarmena, ozono-geruza babestekoa, eta horren Montrealgo Protokoloa, ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoa.

– Hitzarmena, hondakin arriskutsuen ezabapena eta mugaz gaindiko garraioa kontrolatzeko (Basileako hitzarmena).

– Stockholmeko Hitzarmena, kutsatzaile organiko iraunkorrei buruzkoa.

– Rotterdameko Hitzarmena (PIC hitzarmena), nazioarteko merkataritzako gai diren zenbait pestizidari eta produktu kimiko arriskutsuri aplikatzekoa den aurretiazko adostasun funtsaturako prozedurari buruzkoa –Rotterdamen izenpetua, 1998ko irailaren 10ean–, eta haren hiru herrialde-protokoloak.

– Hitzarmena, mugaz gaindiko distantzia handiko kutsadura atmosferikoari buruzkoa, eta haren zortzi protokoloak (Genevako Hitzarmena).

XII. ERANSKINA

Gaitasunen eta lanbide-ezagutzen inguruko gutxieneko baldintzak (2016/97 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko urtarrilaren 20koa; 10. artikulua, 2. apartatua)

1. Bizi-aseguru ez diren aseguruetakoa arriskuak, 2009/138/EE Zuzentaruaren I. eranskinaren A ataleko lehen hemezortzi arloen arabera sailkatuak.

a) Eskaintzen diren polizen baldintzei buruz behar den gutxieneko ezagutza, barnean direlarik arrisku gehigarriak, poliza horiek arriskuok estaltzen badituzte;

b) aseguru-produktuen banaketan aplikatu beharreko legeriari buruz behar den gutxieneko ezagutza (esaterako, kontsumitzaileen babesaren arloko legeria, zergen arloko legeria eta gizarte- eta lan-arloko legeria);

c) ezbeharren kudeaketari buruz behar den gutxieneko ezagutza;

d) erreklamazioak izapidetzeari buruz behar den gutxieneko ezagutza;

e) bezeroen beharrezan azterketari buruz behar den gutxieneko ezagutza;

f) aseguruaren merkatuari buruz behar den gutxieneko ezagutza;

g) sektoreko arau deontologikoei buruz behar den gutxieneko ezagutza, eta

h) behar den gutxieneko finantza-gaitasuna.

2. Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuak.

a) Aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuei buruz behar den gutxieneko ezagutza, barnean direlarik baldintzak eta prima garbiak eta, halakorik dagoenean, prestazio bermatuak eta bermatu gabeak;

b) aseguru-hartzaileentzako inbertsio-aukera guztien onurei eta alde txarrei buruz behar den gutxieneko ezagutza;

c) aseguru-hartzaileek euren gain hartutako finantza-arriskuei buruz behar den gutxieneko ezagutza;

d) bizi-aseguruan eta aurrezteko beste produktu batzuetan arriskuak estaltzen dituzten polizei buruz behar den gutxieneko ezagutza;

e) pentsio-sistemaren antolaketari eta prestazio bermatuei buruz behar den gutxieneko ezagutza;

f) aseguru-produktuen banaketan aplikatu beharreko legeriari buruz behar den gutxieneko ezagutza (esaterako, kontsumitzaileen babesaren arloko legeria eta zergen arloko legeria);

g) aseguruaren merkatuari eta aurrezteko produktuen merkatuari buruz behar den gutxieneko ezagutza;

h) erreklamazioak izapidetzeari buruz behar den gutxieneko ezagutza;

i) bezeroen beharrezan azterketari buruz behar den gutxieneko ezagutza;

j) interes-gatazken kudeaketa;

k) sektoreko arau deontologikoei buruz behar den gutxieneko ezagutza, eta

l) behar den gutxieneko finantza-gaitasuna.

3. 2009/138/EE Zuzentaruaren II. eranskinean sailkatutako bizi-aseguruetakoa arriskuak.

a) Polizei buruz behar den gutxieneko ezagutza, barnean direlarik baldintzak, bermatutako prestazioak eta, halakorik badago, arrisku gehigarriak;

- b) Europar Batasuneko kasuan kasuko estatuko pentsio-sistemaren antolaketari eta bermatutako prestazioei buruz behar den gutxieneko ezagutza;
- c) honako arlo hauetan aplikatu beharreko legeriari buruzko ezagutza: aseguru-kontratuak, kontsumitzaileen babesa, datuen babesa eta kapitalak zuritzearen kontrako borroka; baita, hala dagokionean, zergen arloko legeriari eta gizarte- eta lan-arloko legeriari buruzko ezagutza ere;
- d) aseguruen merkatuari eta finantza-zerbitzuen beste merkatu batzuei buruz behar den gutxieneko ezagutza;
- e) erreklamazioak izapidetzeari buruz behar den gutxieneko ezagutza;
- f) kontsumitzaileen beharizanen azterketari buruz behar den gutxieneko ezagutza;
- g) interes-gatazken kudeaketa;
- h) sektoreko arau deontologikoei buruz behar den gutxieneko ezagutza, eta
- i) behar den gutxieneko finantza-gaitasuna.